

GOGOZ

GURE HERRIKO GAUZAK

(Cosas de nuestro País)

© Copyright Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa
Editorial n.º Registro 936. C.E.C.A.
ISBN 84-7231-407-3
Depósito Legal: S. S. 666-1977
Imprime: SAVASA Impresores - Usúrbil (Guipúzcoa)

JUAN SAN MARTIN

GOGOZ

GURE HERRIKO GAUZAK

(Cosas de nuestro País)

Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa

1978

HITZAURREA

"Dokumentu" Sailako 16.gn alea Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren argitalpen bat dugu. Liburu honetan Juan San Martin Jaunak "Hoja del Lunes" egunkarian bost urte zehar idatzitako 124 entsaioen aukera bat noski.

Juan San Martin Euskaltzaindiaren Idazkaria, berez jakinduriaz jantzia, Idazle, Kultur eta Erti eremu guztien defendatzaile trebea, "Ciudad de Irún" Literatur Sarien Epaimahaiko... etab. Bainan guztien gainera gure Herriaz bete-betean kezketurik dugu. Horregatik ere borondatetsu eta gogo onez Donostiako "Hoja del Lunes" en idazteko astirik ez zaio falta eta egunkari bidez Etnografia, Historia, Erti eta Musika, Literatur eta Hizkuntzaren gaiak aztertzeke era hartuz hala ere oroimen eta Euskal Sasaki-Naski alai bat baztertzerik ez du izan nahi.

"Dokumentu" Sailak Gipuzkoako Kultur eremua aberastu nahi du, eta geure ustez orain argitara ematen dugun lan berri hau ere helburu hauetan txertatzen da; baina azkenik, gure bezero eta lagun zaretenok, Gipuzkoan bizi zaretenok, erabaki beharko duzue. Zuen iritzia aldekoa izan dedila. Hau izanen da bai Juan San Martinentzat eta bai Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialarentzat lanen saririk ederrena.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak Juan San Martini eginiko lana eskertu nahi dio, eta bai eta ere Gipuzkoar guzietan, gure bezero eta adiskide direnez gero, gure Erakundearen ezarritako konfiantza. Konfiantza hau eta lan ardura aurrezki iturri bait dira. Eta hemendik ere sortzen da Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak argital lanetan erabiltzen dituen ahalmenak.

PROLOGO

El número 16 de la colección Documento es una nueva publicación de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa en el que se incluye una selección de 124 artículos publicados a lo largo de cinco años en la Hoja del Lunes de San Sebastián por Juan San Martín.

Juan San Martín, Secretario de la Academia de la Lengua Vasca, autodidacta, autor de publicaciones, defensor del arte y de la cultura, Jurado de los Premios Literarios "Ciudad de Irún", es, ante todo y sobre todo, un hombre preocupado por nuestro país. Por eso, con voluntad, con buena gana, ha ido ocupando su tiempo para prestar su colaboración a la Hoja del Lunes de San Sebastián y difundir, a través de la prensa, la etnografía, la historia, el arte, la música, la literatura y la lengua y aún le ha dado tiempo para el recuerdo y la miscelánea.

La colección Documento tiene como Objetivo enriquecer con nuevas aportaciones el acervo cultural guipuzcoano y nos parece que esta obra puede hacerlo. No obstante, serán los clientes y amigos de la Caja, en definitiva, los guipuzcoanos, los que podrán dar su juicio. Ojalá que el juicio de Guipúzcoa y de los guipuzcoanos sea favorable a la obra de Juan San Martín y a la tarea editorial de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, porque es la mejor remuneración que el esfuerzo planteado puede obtener.

La Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa agradece a Juan San Martín el trabajo realizado y a los guipuzcoanos, que son nuestros clientes, la confianza depositada en la entidad, porque sólo con confianza y con esfuerzo se produce ahorro y sólo con ahorro constante es posible que la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa dedique parte de sus excedentes administrativos a la tarea editorial.

Eskaintza:

*Nere bihotzeko
Mary Pazi, erdalduna
izanik ere gure seme
U n a i eta O i e r
euskaldun hezitzen
lagundu zenidan horri.
Gure herriko gauzak
ezagutuaz, bertako
seme jatorren gogoz
maitatzera heldu
zinen eta nik haina
sufritu bai duzu
gure herri honen
zoriz.*

J. S. M.

AURKEZPENA

Irakurle: Eskuetan duzun liburu hau Donostiako "Hoja del Lunes"ean bost urteren buruan argitaratu ditudan artikulurik hautagarrienez osatzen da. Erabiltzen ditudan gaiak euskal kulturaren inguruan biltzen dira, ahalik era herrikoienez.

Nere bete behar honetan, naturala den bezala, gogozko ditudan gaiak toki gehiago daramate: etnografia, artea eta literatura. Gehienok, ikus dezakezun bezala, reportaje eraz, gure kulturaren zabalkundez eginak daude. Gauza errazak, baina gure herriko eskoletan irakasten ez direnak.

*Hain era askotako lan horientzat izenburu bat beharrez **GOGOZ** jartzea iduritu zait, **Gure herriko gauzak** ondorengoz utzirik.*

Horietako artikulurik gehienak txolarteetan eta presaka eginak dira, kazetaritzan ohi den bezala, eta aurkituko dituzun zenbait huts konprenigarri dituzu: har gaien mamia eta ez azala. Nere aldetik, ohar batzuk gehitzetik aparte, ez dut nahi izan ezertariko ikuturik egiterik, bat bateko lanok berez izaten duten bizitasun berezia galdu ez dezaten.

Artikuluok, ohartuko zeranez, inoiz garaiko ospatze edo gertakizunen inguruko kronikaz eginak daude, gainerakoan gure herriko kulturaren parterik berezienen agiriak edo guti ezagunak hornitzen dute. Orain, liburu batean inprimatzean, ez ditut emango argitaratze kronologiaz, baizik gaietan bildurik, eta biltzerakoan iduritu zaidan ordenamenduz; horregatik, azpian jartzen dut bakoitza noiz argitaratua izan zen.

Artikulu bakoitzaren ondotik bijoa erdal laburpena, kazetarako eskatzen zidatena. Ez da beti laburpen zehatz bat, inoiz bere hildotik eta urrengo jarraipen gisa adibide gehiago emanez joango da, eta era berean euskara guti dakianarentzat maiz laguntzaile izango dala iduritu zait. Uste honegatik dagoan dagoenez uzten ditut.

Azken batean, bai lehen eta bai orain, gure herria hobeto ezagutzen laguntzeko asmatua da hemen aurkitu dezakezuna. Asmo honekin agurtzen zaitut.

Egileak

Eibar, 1977ko urtarrilaren 7an.

PRESENTACION

Lector: Este libro que tiene en sus manos se compone de una selección de artículos que he ido publicando en la "Hoja del Lunes" de San Sebastián en el trascurso de cinco años. Los temas utilizados discurren en torno a la cultura vasca, del modo más popular posible.

En este quehacer mío, como es natural, abarcan mayor espacio los temas de mi propia afición: etnografía, arte y literatura. La mayoría, como podrá observar, van a modo de reportajes, orientados hacia la divulgación de nuestra cultura. Son cosas elementales, pero que no se enseñan en las escuelas de nuestro país.

*Ante la conveniencia de un título para trabajos tan diversos he optado en llamarle **GOGOZ** (= Voluntariamente o de gana) con el subtítulo **Cosas de nuestro país (Gure herriko gauzak)**.*

La mayoría de estos artículos están confeccionados en los ratos libres y frecuentemente con prisas, como se acostumbra en periodismo, y los errores en que haya deslizado merecen su comprensión: acepte el fondo y no la forma. En lo que a ello concierne, aparte de añadir algunas notas, no he querido ponerme a retocar, para que no pierdan su veracidad y la espontaneidad que caracteriza a los trabajos de su índole.

Algunos de estos artículos, como observará, con frecuencia responden a celebraciones o hechos de cada momento, a modo de crónica, y otros a modo documental constituyen exposiciones de las particularidades del acervo cultural o parcelas menos conocidas de nuestra cultura. Que ahora, al imprimir en libro, no los daré en el orden cronológico que vieran la luz en su día, sino agrupados en temas, y por el orden que me ha sugerido la recopilación misma; por esto, al pie constatamos la fecha que vio la luz cada uno de ellos.

Tras cada artículo vaya también el resumen en castellano, tal como se me solicitaba para el periódico. No siempre es fiel resumen, pues a veces sigue su trayectoria y en otras, consiste una prolongación sobre el tema. De todas formas, al resumen, habrá que considerarle a título orientativo del tema general, porque de esta manera me parece que servirá de información para quienes saben poco vascuence. Bajo este criterio, lo dejamos como está.

Por último, si antes y si ahora, lo que aquí puede encontrar va con el único objeto de ayudar a conocer mejor nuestro propio país. Y en esta creencia le saluda,

El autor

Eibar, 7 de enero de 1977.

INDEX

Aurkezpena	12
Presentación	13

I

ETNOGRAFIAZ - De Etnografía

1. Eguberriak	21
2. Noel eta Olentzaro	24
3. Gabon janariak folklorean	27
4. Herriaren Gabon kanta	32
5. Gabon kanta, Literatura zaharrea	37
6. Ekaineko ohitura zaharrak	42
7. Ekaineko sineskerak	46
8. Ekaineko ura	49
9. Donibane	53
10. Donibane kanta	57
11. Atlantika-Pirineetako kultura zaharra	60
12. Lauburu	63
13. Ernio	66
14. Ihizari beltza	70
15. "Ore-kanpaia"	73
16. Gaztaiñerre eguna	76
17. Arrateko kanta zaharra	79
18. Santa Ageda kanta	83
19. Donostiako tanborrada	86

II

HISTORIAZ - De Historia

20. Foruak gogoan	93
21. Foruen arazoia historian zehar	95
22. Herri erakundeak foruen garaian	99
23. Euskal berdintasuna	104
24. Matxinada	107
25. Azkoitiko "Zalduntxoak" eta beren lana	111
26. Bakaillau bidean	114
27. Plaentziako fabrikaren laurhun urteburuan. Suzko armen lehen berriak	118
28. Sagarra eta sagardoa noiztik?	120

III

ARTEAZ - De Arte

29. Harri-aroko artea	127
30. Herri artea	130
31. Erdi-aroko artea	134
32. Pizkunde garaia	140
33. Euskal pinturaren eskola	144
34. Gaurko eskultura	149
35. Juan de Ayala, Pizkundearen sorreran	152
36. Joanes Antxieta azpeitiarra	154
37. Franzisko Mendietakoa, pintore bizkaitarra	158
38. Zumaiaiko Etxabe zaharra	161
39. Arteta-ren plastika aburuak	164
40. Juan Etxebarria, bere ehungarren urteburuan	168
41. Julian Tellaetxearen itsas gogoia	172
42. Oteitza gure artean	175
43. E. Txillida	178
44. N. Basterretxea	180
45. J.L. Zumeta	183
46. Leinzko erromanikoaz	185
47. Euskal Herriko artisten eragina	189
48. Angiozarko San Migel. (Pizkunde garaiko Artea Angiozarren)	193
49. Gipuzkoako arte balioak nora ezean	196
50. "50 Años de Pintura Vasca" (1885-1935)	199
51. Egungo artisten agiria	201

IV

MUSIKAZ - De Música

52. Euskal musika	207
53. Aita Donostiaren musika laneri buruz, Aita Riezuekin hizketan	211
54. Euskal Herriko koruen heziketa tradizioaz	216
55. Kanta berri	219

V

HIZKUNTZA ETA LITERATURAZ - De Lengua y Literatura

56. Euskal Literatura landuaren hastapenak	225
57. Lehen liburu inprimatuak	229

58. Etxepareren inguruan. "Bake gizonak, ulertzen ahalegintzen garanok	233
59. Ilustrazioaren eragina euskal literaturan	235
60. XVIII. mendeko bizitza eta ohiturak euskal literaturan	238
61. Teatro zaharra	241
62. Erromantikoen garaia	244
63. Iparragirre (I)	247
64. Iparragirre (II)	252
65. Bilintx (I)	256
66. Bilintx (II)	259
67. Bilintx (III)	264
68. Langileriaren kezak euskal literaturan	267
69. Txirrita bertsolaria	271
70. Azkoitiko idazle ikasiak	276
71. Azkoitiko bertsolari zaharrak	279
72. Emakumeak euskal literaturan	283
73. Euskal "Comic"	287
74. Haurren literatura euskaraz	290
75. Gaztetxoen literatura euskaraz	292
76. Gerraondoko euskal literaturaz	295
77. Gerraondoko euskal liburugintzaz	299
78. Euskal literatura numerotan	302
79. Euskara zientzia bidean?	306
80. Lantegietarako euskara teknikoa	308
81. Unamuno eta euskara	312
82. Euskararentzat berri hobeak	314
83. San Millan de la Cogolla	317
84. Arabako euskara	320
85. Euskaltzaindia (I)	323
86. Euskaltzaindia (II)	327
87. "Euskera"	331
88. Euskaltzaindiaren nortasunez	334

VI

OROITZAPENEZ - En recuerdo

89. Pio Baroja	339
90. I. Ojangurenen ohorez	342
91. René Lafon	346
92. Bachiller Zaldibia. Gipuzkoako historiagilearen laurehun-garren urteburuan	349

93.	Gabriel Aresti poetaren heriotza	352
94.	Gabriel Arestik Galegotik egin zituen itzulpenak	356
95.	Gerhard Bähr euskaldungoan	359
96.	Mendaro Txirristaka bertsolaria	362
97.	Ulibarriren omenez	366
98.	Jean Barbier	369
99.	Karmelo Etxegarai	372
100.	Pedro Bosch Gimpera ikertzailea	375
101.	Bitor Garitaonandiaren ehungarren urteburuan	377
102.	Isidoro de Fagoaga, kantaria eta idazlea	380
103.	Jose Erramun Zubillaga. Euskaldunak Argentinan	383
104.	Louis Dassance (1888-1976)	386
105.	Jon Mirande, Orhoituz	389
106.	Xalbador (I)	392
107.	Xalbador (II)	398
108.	Odón de Apraiz-en omenez	401

VII

OROTARIK - Varios

109.	Ekain	407
110.	Astigarribia	409
111.	Arrate	413
112.	Uriarteko Andra Mari, Erdi-aroko eliza	415
113.	Euskal kirolak	419
114.	Pilotarien historietan argitzen ez dena	422
115.	Euskal Herriko mendizaletasunaren hasierak. (Zenbait oroitzapen Federazioaren urre-eztaietan)	425
116.	Baroja, Iturrino, Solana	429
117.	Lazaro Galdiano Museoa	433
118.	Tavira-ko Museoa	435
119.	Eibarko gauzak	439
120.	“Oarso”tik Unibertsitate deia	441
121.	Mitxelenaren irakaskintzak	444
122.	Bozas-Urrutia Ateneo-an	447
123.	Erronkariko azken euskalduna	450
124.	Erkolesko oihartzuna	454

I
ETNOGRAFIAZ
De Etnografía

EGUBERRIAK

Eguberriak bere ohituren sustraitzat eguzkiaren itzul-mugaren inguruan sortu ziren sineskerak ditu batez ere. Eguzkia beheren garaian sartzen denetik goraka hasi arte. Egun hauen jaialdiak mundu guzian zabalduak daude. Neguaren bihotzeko jaialdi hau, Kristau Elizak onhartu zuen IV. mendeko lehen partean, Julio I Aita Santuaren garaian. Horrela, lehenago erromatarrek bereganatu zuten "Natalis Invicti", orduan jarri zuten Jesusen jaiotza ospatzeko.

Hortik konturatu genezake urteen eta mendeen buruan era askotako sinesteak eta ohiturak pilatu direla Eguberrien inguruan. Bertan aurkitzen ditugun aztarrenik zaharrenean artean berezgarrienak sua (inoiz zuhaitza eta ikatzarekin sinbolizatuaz) eta uraren sineskerak. Indoeuropear kultura zaharreko aztarnak ditugu, Neolitos garaikoak behinik-pehin.

Mendeak zehar beste kultura batzuetarik eraskinez hornitzeaz, argi berezi ezinezko gauza asko biltzen ditu Eguberriak. Arto eta gari uztari otoitz egitea, nekazaritzarekin erantsia noski. Eta Bari-ko San Nikolas eguna, abenduaren seigarrena dugu Eguberri aroaren hasiera. Gipuzkoako ekialdean mutikoak doaz kalez-kale kantari:

*San Nikolas-txikia.
Gure ganbaran hazia.*

*Gure ganbaran zer dago?
Andre Juana Maria.
Arren abemaria.*

Etxeko-andreak uzta eta haziak gordetzen diren kutxak irikiko ditu eta abemariaka otoitzean hasiko, etxekoentzat ondasunak gordetzeko neguaren atarian.

Eguberrietan Olentzaro dugu aintzinako denboren pertsonajea, mito zaharren ondakia. Nahasturik agertzen zaigu Nafarroa eta Gipuzkoako herrietan: ikazgina, jan-edan zalea, inoiz tximiniatik sartuta sutondoan berotzen dena. Lesakako gazteak, Olentzaro kalez-kale erabili ondorean herriko plazan erretzen dute.

Arabako herri askotan, Olentzarorik ezagutzen ez badute ere, Gabon gabeen edo Gabon-zahar gauean sua egiteko ohitura dute.

Baina, Olentzarok, bere jatorriak gure herriko mitologia zaharrean baldin badu ere, aspalditik Kristoren sortzearen berri-emaile ere badugu, eta zenbait herritan, Gipuzkoan bertan, entzungo dugu:

*Olentzaro joan zaigu
mendira lanera
intentziuarekin
ikatz egitera;
aditu duenean
Jesus jaioa dela
lasterka etorri da
parte ematera.*

Zenbait tokitan, Olentzarok beste izen batzuk hartzen ditu (ikusi J.M. Barandiaranen *Obras completas*-en lehen tomoan, *Olentzaro* 183 orr., *Eguberri* 72 orr., eta Gabonetako suari buruz *Gabonzuzi* 91 orr.).

Olentzaroren esan nahia, batzuen ustez Oleries-arotik dator eta beste batzuen ustez Noel-arotik. Dena dela, Olentzaro urte aro bat da Eguberrietako pertsonaje baten izena izanarren.

Baina, Eguberrien bukaeran suaren beste muturrean aurkitzen den indarra agertzen zaigu, ura. Nafarroako Sakana-Burunda haranetan gorde da onduen uraren siniskera honen aztarna. Gabon-zahar gauean, Nafarroa parte hortako haurrak etxez-etxe ihoaten dira koblari:

*Ur goiena, Ur barrena
Urteberri egun ona.
Graziarekin osasuna,
pakearekin ontasuna
Jaungoikuak dizuela
egun ona.*

Herritik herrira badira aldakuntzak, J.M. Satrustegik xehetasunez jasoak eta estudiatuak dituen lan hartan ageri denez (*Canto ritual del agua en Año Nuevo* izenez "Fontes Lingvae Vasconum" aldizkariaren 7. zenbakian. 1971).

Gabeko hamabiak jotzean, Urte-berriari hasiera emanez ekintzen omen diote kantuz ur partitzeari.

*Urte-berri egun ona,
egun onan seinalia,
hemen dakarrat ur berria,
iriki zazu ataria.*

Garai batean, ageri denez, Arantzazuk ere bere partea zuen ohitura hauetan, zeren oraindik jasotzen baita honako bertso hau ere:

*Arantzazu, zer dekazu?
Ur goiena, ur barrena,
ur goiena ur barrena.
Urte-berri egun ona.*

Urte-berri hobe baten opariz.

Las Pascuas navideñas están muy arraigadas en nuestro país, como en el resto de Europa. Quizás guarde la particularidad de conservar apegadas a esta lengua milenaria estratos de las diversas culturas del pasado, por cultivo propio o por contacto. Los ritos solsticiales representados por hogueras, aunque no guarden las proporciones de la víspera de San Juan Bautista, están presentes con *Gabonzuzi*, *Gabon-enborra* y otras variantes, que además figura el árbol de los nórdicos.

Pero a esta época del año se le han añadido otros ritos, como el precedente de la vida agraria que celebran algunos pueblos de la parte oriental de Guipúzcoa, el día de San Nicolás de Bari, 6 de diciembre, y se conoce por *San Nikolas-txikia*. Es la época del año en que la etxeko-andre (señora de casa) sube al desván, destapa las arcas que contienen la cosecha de grano y la simiente para futura siembra y reza sus avemarías en las esterilidades del entrado invierno. Y obsequia con frutas secas a los niños que vienen cantando a la puerta.

Por Nochebuena aparece ese personaje grotesco pero misterioso que se llama *Olentzaro*. Como un residuo de antiguos ritos paganos, nos llega desfigurado. Su significado, según unos es “época de Oleries” y según otros “época de Noel”. Casi siempre es un carbonero, y en torno suyo figuran los símbolos del árbol y el fuego. Varía según el pueblo. Normalmente es un muñeco relleno de paja, aunque en algunas localidades es un caballero. *Olentzaro*, más aún como *Olentzero*, se conoce en la mitad oriental de Guipúzcoa y en el noroeste de Navarra, pero en el resto del país se conoce con otros nombres o bien están difundidas en otras modalidades las funciones de dicha tradición ritual. Y en algunos pueblos guipuzcoanos, *Olentzaro* es el mensajero que nos trae la buena nueva del nacimiento del Salvador.

Los ritos en torno al agua, en el solsticio de invierno, son muy escasos. Pero sin embargo, en los valles navarros Barranca y Burunda, con las doce campanadas de Nochevieja los mozos recorren las casas

ofreciendo agua nueva como buen augurio del año que acaba de comenzar. Se conocen por las coplas de *Ur goiena, ur barrena*.

1973-XII-24

NOEL ETA OLENTZARO

Olentzaro oso ezaguna dugu Euskal Herrian, batez ere Gipuzkoan Urola eta Goiheretik hasi eta Bidasoa bestalderaino, eta Nafarroaren ifarraldean. Toki bakoitzean bere herri kanta bereziak ditu. Jaun mitolojiku honi buruzko usteak era desberdinekoak dira alde batetik bestera. Erarik zaharretan Jentilen jainkokia dugu; geroago Kristoren jaiotzaren berria ematera datorkigun profeta; herri kantak agertzen digutenez.

Olentzaroz asko hitz egin da. Berari buruzko bibliografia handia dugu. Isastirentzat (1625), *Olenzaro*, Gabonak dira. Joanes Etcheberriren Eguberri poemak *Noelak* (1630) dute izentzat.

Bere esan nahiaz, S. Altubek zionez (*Eusko-Ikaskuntza*, I, 33 orr., 1947), *Olen-tzaro*, metatesis baten bidez *Noel-tzaro*-tik omen dator. Eta linguistikaz inori errazoa ematekotan Altuberi emango genioke. Maixu ona izan zen kontu hoietan. Hala ere, nere egitekoa ez da ondo edo txarto den aztertzea; hau linguisten esku uzten dut, eta etnologia alderdiari oratuko diot.

Etnografia bilketa agiririk aski emana da, batez ere Azkuek *Euskalerrriaren Yakintza*-ren lehen tomoan (1935) eta Barandiaranek 1922ko "*Eusko-Folklore*"-ren lehen aldiz eta 1956ko "Egan" aldizkarian gero.

Olentzaro, batzuen ustez, urtegarai bat da. Baina urtegarai bera baino gehiago, urtegarai errepresentatzen duen gizonezko irudi bat. Urte garaia ondo agertua dugu eguzkiaren itzulmugan beheren partetik goraka hasteko, *Eguberri* (eguzki-berri, noski). Beste partean eguzkia goren dagoen hilabeteari euskalki batzuetan *Ekaina* (eguzki gaina) danez gero. Linguistikan sartzerik nahi ez badut ere, adierazpen hau egin beharra nuen, ondorean agertuko dugunez. Urte garai bi hauek, eguzki itzulmugan, arbola eta suaren sinbolueri loturik daudelako.

Noel, Europako ifarraldean hain hedatua, arbolaz sinbolizatzen dala, guztiok dakigu berritsu gure artean ere modan jarri dalako. Behar

bada, gutxi dakitena, Olentzaro ere, neurri batean era horretara agertzen dela.

Arbola-enborra edo mokorra, ikatza eta sua, inguruko sinboluz ditu Eguberriak. Olentzaro bera, Gipuzkoako zenbait tokitan ikazkin agertzen zaigu, edo gauonean tximiniatik behera sartzen den personaje misterioskoa. Oartzunen: "Etxekoak, gauon-aparia eginda, ohera joaten direnean Olentzaro sukaldean sartzen omen da eta Olentzaro-enborraren suan berotzen". Beraz, "Olentzaro-enborra" bada. Larraunen, "Onontzaro-mokor"; Antzuolan, "Gabon-ubil"; Abadianon, "Gabon-mukur"; Otxandion, "Gabon-enpor"; Bedian, "Gabon-zuzi"; Aezkoan, "Suklaro-egur"; Urraul-goian, "Txukil". Muinean gauza bera dira, sua egiteko gaikia (materia). Hemendik noski Olentzaro bera inoiz ikazkin agertzea. Aldakuntza hoietan, Olentzaro bera, inoiz Subilaro edo Kalerre bezala ere agertzen zaigu.

Eguzki ahaltsuaren aldatze garaian mundu guzian egiten dituzte suaren inguruko ohiturak. Sineskera zaharren ondorioa dugu hain indartsu sustraitua. Eta bere gainean jarri zuen Eleizak, IV. mendearen lehen partean, Kristoren jaiotza eguna, jentilen neguko jaiarekin bateratuaz.

Badira beste forma batzuk ere. Arabako zenbait herritan zagi zaharra erretzen dute. Zegaman berriz, zagi zaharra Ekainean Donibane-aurreko egunean erretzen dute.

Gure haurtzaroan, Eibarren, Eguberri, honela kantatzen genuen:

*Urte-barri eguna ezta egun txarra,
kortara jausi jaku gure zagi zaarra.*

Gure akorduzko "zagi zaarra", "sabei-zaarra"-ra aldatu zen.

Olentzaro ikazkina, zagi zaharra bezala, igaro den urtea dala dirudi. Olentzaro, urte berria dakarren aitona da, Eguberriaren eta urte-berriaren igarle. Beraz, gauzonez datorkigu, Noel bezala.

Barandiaran berak adierazten digu: "Antziñako erligio baten aztarnak direla; batzuek indoeuropatarren unkitzez hemen sartuak; besteak bertan haziak".

Baina hontaz bada besterik ere: sua bera mantentzeko era sakratua. Bizkaiko zenbait herritan ezagutzen da urte batean erdi errerik uzten dan enborrekin urrengo urteko sua piztutzea, urtez-urteko suak elkarri lotzeko. Gauon egunean pizten den suari urte-berrira arte iraun eragitzen diote. Itzali ondorean, erdiz errerik gelditu den enbor berria, Otxandion adibidez, etxeko atarian uzten dute, urte guztiz etxea eta bertako

ondasunak gaitzetik gordetzeko, eta urrengo urteko Eguberrietan enbor honekin su berria piztu, urteetako su sakratuak elkarri lotuaz.

Luis Pedro Peña-ren laguntzarekin Urraul-goiko Etnografiako estudioa egitean ("Munibe"-n 1966an argitaratu zena), han jaso genduen, gauon egunean pizten zuten suari erregenak arte itzali gabe irauan erazitzea zala beharrezkoa, eta honetan ardura handia hartzen zutela; *Txukil* hura arbola sakratu bezala tratatuaz. Bizkaiko *Gabon-enporra* bezala.

Noelen sinbolu den arbola ez da gauza berria Euskal Herrian, eta Olentzaro-enborrak bere kideko ditu su sakratu hori pizteko erabiltzen diren arbola gerriak edo arbola ondoak. Adierazten duten urte garaia, eguzki itzulmuga da, eta ohitura honen sustraiak Neolitikotik datorz-kigu.

El Olentzaro, con sus variantes, se conoce desde la cuenca del Urola hasta más allá del Bidasoa y en la parte septentrional de Navarra. Y costumbres que se relacionan con él, en época de Navidad, están arraigadas en toda la geografía del país.

Para Isasti, en 1625, *Olenzaro* era la Nochebuena. Y Joannes de Etcheberri titula *Noelac* su libro de villancicos en vascuence, publicado en 1630.

Según S. Altube, *Olentzaro*, viene de *Olen-tzaro* (*tzaro* = época), y *Olen* es la propia voz *Noel* con los sonidos trastocados por una doble metátesis.

Azkue y Barandiarán entre otros —pues la bibliografía de Olentzaro es muy extensa— han estudiado y descrito dentro de sus variadas formas a través de nuestra geografía.

Es el personaje mítico del solsticio de invierno. Del *Eguberri*, nueva fase del ciclo solar. Pues el de verano se conoce por *Ekaina*, cuando alcanza el punto culminante del ciclo, y en algunos dialectos así se le llama al mes de junio.

Las costumbres también guardan relación con el Noel de los nórdicos y su simbólico árbol.

Tronco, carbón y fuego son los símbolos de la Navidad vasca, como herencia de ritos paganos. El Olentzaro que conocemos se nos representa a veces algo confusa. El es el carbonero que viene a dar la buena nueva del sol naciente; en otras, el carbonero profeta que da la noticia del nacimiento del Salvador; y, otras veces, aparece por la chimenea para

calentarse junto al tronco encendido que se conoce por su nombre. También recibe nombres distintos, que alternativamente encontraremos en variada forma con argumentos similares.

Esta fiesta del solsticio invernal, en la primera mitad del siglo IV, la Iglesia, con el Papa Julio I, hizo que coincidiera "Natalis Invicti", la fiesta del Sol Invicto, con el nacimiento de Cristo. De ahí que Olentzaro nos muestren algunos cantares populares como a un profeta.

Confirma Barandiarán, que son residuos de antiguas religiones, algunos procedentes de las culturas indoeuropeas y otras desarrolladas en el lugar.

Se consideran sagradas las hogueras de Navidad en algunos pueblos de Vizcaya y Navarra. En Vizcaya guardan parte del tronco quemado junto a la puerta de la casa como elemento protector, y con el mismo encienden el nuevo fuego de Navidad, que harán mantener desde Nochebuena hasta Año Nuevo, y que el nuevo tronco que le han añadido, al apagar, conservarán hasta el próximo año junto a la misma puerta, como símbolo protector de la hacienda y para encender la hoguera del año venidero, y así sucesivamente van haciendo los empalmes simbólicos de las hogueras en el transcurso de los años.

En Urraul Alto (Navarra), el *Chuquil* que se enciende en Nochebuena, es el fuego sagrado que hay que conservar sin apagar hasta el día de reyes, según pude recoger en un estudio etnográfico, realizado en colaboración con Luis Pedro Peña Santiago, y que fue publicado en "Munibe", en 1966.

Olentzaro, su tronco y el fuego, guardan estrecha relación con las costumbres de Noel y su árbol simbólico. Y la tradición de la celebración solsticial, por su parte, se remonta al período Neolítico.

1971-XII-20.

GABON JANARIAK FOLKLOREAN

Gabon zelebratzeko janari bereziak izan ohi dira, nonahi. Abenduko hilaren azken parteko giroari jarraiki eta kanta zaharren laguntzarekin, urtearo honetako gastronomia aditzera emango dugu, ugari bezin aberatsa dugun folklore zafi baten bidez.

Gai hau ezta lehen aldiz ikutzen dena, ezta guttiagorik ere, Antonio Arrue naro jarduna da hontaz, bereziki "Egan" aldizkariko "Jan-edanak" sailean. 1956ko azken zenbakian, Gabon janarieri buruz soilki ari zelarik

Archipreste de Hita-k "*Libro del Buen Amor*"-en (1389) Bermeoko bisiguak gorai patzen zituela gogorazi zigun, eta bisigua, Euskal-Herriko Gabonetako janarietan fiñetakoak dugu, noski.

Izan ere, jakien berezitasuna eta ugaritasuna elkarrekin ditugu egun hauetan. "Natibitate, ase ta bate", esaten da gure inguruetan. Baina goazen kanta zaharren arlora.

Euskal-Herrian zaharrik bada, Olentzarori buruzkoak zaharrenetakoak ditugu. Kristautzaren aurretiko jentilen garaian ditu bere sustraiak.

*Horra, horra! gure Olentzaro,
pipa hortzian dula ixerita dago.
Kapoiak baditu arraultzatxoekin
gabean merendatzeko sagardoarekin.*

"Orixe"-ren *Euskaldunak* duen parterik hoberenatakoa Olentzarori eskaintzen dion kapitulua du.

Olentzaroren ase ezinak Grezia zaharreko Bako-ren irudi edo jainkokiaren antza du:

*Olentzaro jaun ordia,
buruz ederki jantzia:
edan batean ustu diguk
sei arrobako zagia.*

Beraz, ez harritu, mendiz-mendi edo kalez-kale doan taldearen doinu hotsetan holakorik aditzean:

*Olentzaro guria
ezin dugu ase,
bakarrik jan dizkigu
hamar zerri gazte,
saieski ta solomo,
makiña bat este...
Jesus jaio da eta
kontsola zaitezte.*

Denboaren joanez, siniskera zaharrak, erlijio berriari lekua utziaz joan ziren. Baina ohitura zaharrak euren lorratzak folklorean utzi zizkigute; batez ere, hain zuzen, Ekainean eta Eguberrietan, eguzkia goren eta beheren aurkitzen den garaietan. Igazko Eguberrietan eta

aurtengo Ekainean egin nituen artikuluetan nahikoa argi utzi nuen bezala (Ikusi, "La Hoja del Lunes", 20-XII-1971 eta 16-VI-1972, 3 orr.).

Zer dira ordea Gabonetako janari bereziak? Eskualde guzietan ez dira zeharo berdinak, noski. Bizkaiko itsas-hegalean, Eusebio Maria Azkuek joan zen mendearen erdi-aldera idatzitako *Parnasorako bidea* liburuaren 91. orrialdean dakarrenez, "Gabon afari bat" izeneko bertsoetan: *Orio-azea, lebatza, makallao-saltsea, besigu-erria* eta *intxaur-saltsa*. Edaritzat: *txakolina, ardao* ("ezta euskaldunik egin deutsanik Erriolari biraorik", dio gainera), *kopea bete beterik kafeari botata*, eta *beste kopa bat aparte*.

Bizkaiko lehor-aldean ere antzera izan da. Afalondoko edaritzat, Gipuzkoako muga eta Durango aldian, pattarra aurreztik aranekin gertatua hartu izan da. Nafarroa parteko "patxaran" (*pattar-aran* bera edo antzerakoa). Inoiz, aranen ordeaz, gereiza-gindekin ere egiten da. Gure gurasoentzat (nereentzat behinik-pehin) ezta izan Eguberririk orio-aza, marraskillu (= karakol), legatz edo besigu eta intxaur-saltsa eta aran-pattarrik gabekorik.

Aipatu dudan eskualde honetakoa dugu honako kanta hau:

*Gabon-gabeen ohituten dogu
guztiok afari ona;
besigu, lebatz, makailu-saltsa,
bakotxak berak ahal dauna.*

*Gero txurrun plin-plan,
ardau ta paitarra,
katuak hartuta
zabu-zabuka.*

Durango aldeko ezpata-dantzaren soinuan ere bada Gabon janarien kanta bat:

*Aita Juaniko, seme Periko,
zer dogu aparitako?
Orio-aza gozo-gozoa
arto beroaz jateko.
Kazuelatxoan intxaur-saltsea
txarra morkoan txunpletin;
eragin eta beti eragin,
atsoak bauke zeregin.*

Gabon egunez kantari taldeak etxez-etxe eskean ibiltzen direnean ere, era berean, janariak dirua bera baino estimagarriago agertzen dituzte. Adibidez, “Albako gultzurrunak” izenez hasten den kantaren honako bertso hauetan bezala:

*Kantuak utzi digu
lehor eztarria,
betor etxeko-andre
orain edaria.
Hotz dago edateko
sagardo mikatza,
nahiago dugu beraz
nafar-ardo beltza.*

*Arkumerik ez bada
betor oilaskoa,
dozena arraultzakin
bada solomoa
ta besterik ezean
hamar durokoa.*

Familiak elkarturik zelebratzea da Gabonen berezitasun bat. Azkuek Otxandion jaso zuen “Ator, ator, mutil etxera” kantak bere deira aditzera ematen duen bezala. Kanta honek badu holako xartmengarritasun ezti bat, lehen Otxandion bakarrik ezagutzen zena, Azkueri esker, urte guttiren buruan Euskal-Herri osora zabaldu da. *Cancionero popular vasco*-ren II.tomoaren 155.orrialdean dator, eta bertako oharretan agertzen denez, letra ikutua dago, ez herriak kantatzen zuen eran. Gure aitona Sebastian Ortiz de Zarate zana (ni sortu baino lehen hila zen) otxandiarra zen, eta gure amari magnetofonuz jaso ahal izan ditudan kanta zaharretan honako hau ere bada, aitonagandik ikasia zuen bezala. Beraz, herriak kantatzen zuen eran. Hau da:

*Ator, ator, mutil, mutil etxera,
gaztaina ximelak jaterra,
Gabon gaba zelebratzeko
aitaren ta amaren onduan.
Ikusiko dok aita barrezka
ama be guztiz kontentuz.*

*Eragiok mutil aurreko danbolin horri
gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
xipli, xapla, baun!
Gabon gabau pasau deigun kontentuz.*

Euskal folklorean Gabonak toki zabala dute, lehenaren era askotako aztarnak aurkitu genezazke eta garai bateko janarien berri ugari era bada.

Mundu guzian ospatzen diren Gabonetan, irakurleei zorionak opa dizkiet, eta gauerdi aldera Aramaion bezala esan dezatela:

*Dringilin dron, gaur Gabon,
sabela bete daukat eta
besteak hor-konpon!*

De nuestra gastronomía folklórica, se hace una exposición de menús de Nochebuena, que figuran en viejos cantares. Dichos menús varían según zonas del país, pero se observa constantemente la presencia de algunos platos que predominan de manera general por toda la geografía: berza cocida regada generosamente de aceite, merluza y bacalao en salsa, besugo asado, solomillo, costillas o embutidos de cerdo, castañas asadas, salsa de nueces (típico postre de Nochebuena, que se prepara con nuez molida y cocida con leche); y como bebidas: chacolí, vino y coñac o pacharán (coñac preparado con ciruelas silvestres, y que a veces a falta de éstas se hace con guindas).

Esta fiesta solsticial, generalmente se celebra en todo el mundo de manera bacanal, que en el fondo es lo que antaño ha representado para nosotros el personaje mítico Olentzaro; del que me ocupé el año pasado en estas mismas columnas.

La canción "Gabon gabean ohituten dogu", está confeccionada muy particularmente para describir el menú de Nochebuena. En una melodía de *ezpata-dantza* del Duranguésado figura también la cena tradicional.

Las fiestas navideñas que reúnen a familiares bajo el techo del viejo hogar, guardan en el "Ator, ator mutil etxera", que Azkue recogió en Ochandiano, un profundo sentido de aspecto ritual en torno a la casa solariega. De esta canción he podido recoger de mi propia madre una variante, tal como ella la aprendió de su padre Sebastián Ortiz de Zárate

que, aunque descendiente de alaveses, era nacido en Ochandiano, y que ahora doy a conocer por vez primera.

Finalizo felicitando las Pascuas a nuestros lectores, deseándoles a todos el hartazgo que únicamente para el cantante se reservaba en Aramayona.

1972-XII-11.

HERRIAREN GABON KANTAK

Gure folklore ugariaz ahalik onduen aprobetxatzeko eta berdintasun aspergarrietatik ihes egiteko. Gaurkoan, zer aurkitu genezakeanaren adibide, Deba-arruaren behe partea ikutuko dugu. Badakigu azken urteotan Olentzeroak sartzen ari direla hautatu dugun inguru honetan, lehengunean aipatu genuen bezala. Baina ez dezala inork uste horren kontrako garenik. Orain urte bete norbait kexatu zen Olentzeroak behar ez ziren tokietan sartzen ari zirelako, haserrez gainera jardun ere, baina jaun ber-bera oso isil dago urrutiagoko "villancico"ak hemengo irratsaioetan ez-ezik kaleetan ere ikustera heldu garenaren aurrean. Ez naiz kanpo larrosa eta etxe kardo horietakoa, ez. Baizik etxeagoko ditugun gure geure folklore ahaztuaren balioen aldekoa.

Ondoko adibideetatik ikusiko du irakurleak gure ahaleginik merezi duen ala ez.

Jo dezagun lehengunean aipatutako iturrietara eta ikus dezagun orain dela hirurogetahamarren bat urte Elgoibarko ola-gizonak zer nolako Gabon kanta erabiltzen zuten:

*Ai hau gabaren preziosoa!
Jesus jaioa da Belenen.
Etxe honetan sartu ote dan
billa gabiltza beronen.*

*Erdiok gara olagizonak
beste erdiok arotzak;
limosnatxo bat egitekotzat
bigundu bediz bihotzak.*

*Ama gureak bere beiari
kaikua ezne bildurik,*

*epel-epelik, giro-girorik,
hartu baleio gustorik.*

*Hor goitik eta beraiñoak
artzain zaharraren saltoak,
bildots handia lepoan duela
altxa ezinik orpoak.*

*Belaunbikoka joan ginaden
Nazaretikan Belena,
geuk adoratu behar gendula
Jesus Maisua lehenena.*

Bere doinua ezagutu gura duenak Azkueren *Cancionero popular vasco*-ren bigarren tomoko 1.072. orrialdean aurkituko du.

Plaentziatarrek hemen be hotzak larritzen ditu eta egur bila, "berotxe aldera". Holako bertso hau jaso zion Don Poli Larrañagak Fermina Treviñori, 1919an:

*Peru, ekartzazu txorta bat egur,
haur hau hotzak hil ezteixan
xito naiz bildur.*

Don Polik Aita Donostiari bidali zion eta honek doinuz eta hitzez zerbait apainduago egin ondorean argitara eman zen. Ikus, "Obras musicales", *I - Navidad*, tomoaren 45. orrialdean. Bestea, A. Donostiaren artxiboan *CM: 724* erreferentziarekin aurkitzen da.

Baina ez gero uste hoberik ez dutenik Plaentziarrek. Musikarako beti izan dira apraposak. Behar bada eibartarrok baino trebeagoak. Bai. Ze, ez nabil txantxetan; armagintzan be heurak erakutsi ziguten da.

Bost-sei urte izango dira Julian Bandaormaetxea adiskide minari Gabon kanta polit bat entzun niona, eta kontu honetan ni baino yayoagoa den Aita Gandiagari dei egin nion, jaso zezan. Honen ustez ere gure kanta bildumetan ez-ezaguna zen. Doinu oso berezia du, jira-buelta batzuetan Olentzeroko parte bat oroitzen du, baina bestelakoa da. Letra bera ere oso polita du, herri kantetan ohi den bezalako erraza:

*Atozte danok lenbait len,
Jesus jaio da Belenen. (bis)
Ikustera danok guazen
zer ote dan ba gertatzen. (bis)*

*Jaungoikua zerutik jetxi-eta
askatxoan dago jarria. (bis)*

*Gloria, gloria Jaunari,
gloria Jesus Haurrari,
eta lurra gizonari
ondasun pillak ugari.
Goazen, goazen, goazen Belenera
Jaun hau adoratzera,
Jaun hau adoratzera,
goazen Belenera.
Hantxen dago fortalepian
Ama Birjiñaren aldamenian.
Goazen, goazen, goazen Belenera.*


Bere doinua ikus "Aránzazu" aldizkarian 1971ko abenduko zenbakian (Nº 491), 3garren orrialdean.

Hor ba, hauzoak eder egin ditut, eta orain, holako kanta ederren aurrean eibartarrok toki txarrean gelditzen gara. Batzuetan igarri gabe egiten da "kanpo larrosa, etxe kardo".

Baina, gurean beintzat bere alde onak agertzen dira jan-edanetan. Eibartarrok plaentziarrekin hain anaiak izanezkerok, ezin zeikean elkarren artean alde handirik izan. Honegatik, Gabon gabea, plaentziarrak egurra dakarte, kanpotik berotzeko, eta eibartarrok ardoa eta janariak, barrutik berotzeko.

Eibartarron Gabon kanta Aita Donostiak ber-berak bildua da. 1917an hemen izan zen Eibarko musika-bandaren zuzendari, bertan antolatu zuten kontzerto batean, eta nere usten garai hartan bildua izan behar du. Dena dela, han dago Lekarotzen, bere artxiboan *CM: 27* erreferentziz. Izatez, "Ator, ator mutil etxera"ren antzerakoa da, bai doinuz eta bai letraz Herriko Club Deportivo-aren "Kezka" izeneko aldizkarian argitaratu nuen, igaz. Eta aurten irtengo diran kantari taldeetako batek behinik behin kantatuko du. Kanta bezala, poesia aldetik, ez da Elgoibarkoa eta Plaentziakoa bezain apaina, baina bai alaia, Gabon gauari tokatzen zaion gisara. Gurean, Gabon zelebratzeko ardoa karreatzen dugu eta bixigu errea jan bitartean gaztainak erre, mokau artean eten gabeko txurrutari emanaz.

Askoren ustez seriotasun gutxiko kanta izango da, Gabon gaba zelebratzeko Jesusen aipamenik gabekoa denez. Baina, bestalde, zalantzarik gabekoa. Zalantzak Motrikuko kanta batean agertzen dira, baina



Larrunari (Zaldibia).

honi ere ezingo diogu ukatu bere herritasuna eta bere gogo-nahia. Hara nola agertzen duten:

*Haor goian etxea, jo daigun atea
Gizonak bentanara nekez irtetzea!*

*Gizonak bentanatik digu erantzuten:
gabaz ordu honetan zer darabiltzute hemen?*

*Dontzella eder bat dakart nerekin aldean,
semea dakarrela bere sabelean.*

*Semea ta dontzella, nola izan litezke?
Enbustero, falsoa, hortikan zoazte!*

Hala azaltzen da Azkueren *Cancionero popular vasco*-ren bigarren tomoko 1.077garren orrialdean (920. kanta).

Hemendik ikusiko du irakurleak, urrutietara joan gabe, bakoitzak bere herrian edo ballaran aurkituko dituela Eguberrietarako kantak, eta ohitura zaharrak, batzuek noizbait etenda gelditu zirenak, berbiztu eta iraungo badute erabili beharra dugula. Ondo da besteena hartzea, baina norperarena utzi gabe.

Como apuntaba en mi artículo de la semana pasada, nuestro folklore navideño es tan rico y variado que no deberíamos abusar en introducir repertorios del cancionero de otros lejanos lugares, aunque sean del país, sin aprovechar al máximo el acervo local. Y en el presente artículo doy una muestra del cancionero popular navideño de la cuenca baja del Deva, para que a otros sirva de ejemplo de cómo se pueden localizar canciones olvidadas en antologías y archivos y en la mente de algunos ancianos del lugar.

Reproduzco las letras de algunas canciones con la mención de en dónde se pueden hallar sus melodías en pentagrama. Algunas publicadas y otras inéditas, las canciones que aquí se recogen pertenecen a la labor recopiladora de Azkue, P. Donostia y P. Gandiaga. En la primera, de Elgoibar, ferrones y artesanos que cantan la Buena Nueva; en la segunda, de Placencia —sin duda un fragmento de algo más amplio—, canta el acarreo y ofrenda para proveer de leña necesaria al Niño, para proteger del frío; la tercera, es una preciosa canción placentina que convoca una

peregrinación a Belén; tras comentar una canción eibarresa de la celebración de Nochebuena, que constituye una variante del "Ator, ator mutil etxera", que el Padre Donostia recogió a primeros de nuestro siglo, y que el presente año engrosará el repertorio de coros postulantes del propio Eibar; y recojo una cuarta del *Cancionero* de Azkue, una canción coloquial de Motrico, donde la poesía popular muestra sus dudas respecto a la preñez de la Virgen.

Considero los mismos valores folklóricos a mantener en la tradición.

1975-XII-22.

GABON KANTAK, LITERATURA ZAHARREAN

Gure herri literaturako kanta zaharretan sail ederrik bada Gabon-kantaz, eta bilduma ederrak jaso zituzten, beste askoren artean, Azkue, A. Donostia eta M. Lekuonak, hiruronak soilik aski lirake beren aberastasunaren agergarri. Baina, urriago badira ere, literatura landuaren lehen partekoak aipatuko ditugu.

Gabon-kantaz euskaraz idatzi zen lehenengo liburua Joannes Etxeberri Ziburukoarena izan zen, 1630ean argitaratu zen *Noelak* izenekoa. Liburu honek argitalpen asko izan ditu, eta azkena, gaur egun salgai dagoen bakarra, 1970ean Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A. delakoak aterea, L. Akesoloren hitzaurreakin. XVII.mendearen hasierako idazle honek hara nola azaltzen digun Jesus-en etorrera:

*Guztiek, bada, zaitezte
allegera berriez,
zeruetako Kortetik
freskoki ethorriez.*

Liburu atsegina da, bere era orokorrean, profeten esanetatik, apostoluen esanak eta arkangeluaren bisitazionetik hasi eta Andre Dena Mariaren elizan sartze eta Jesus Haurra tenpluan aurkitu arte, bertsoz osatzen du kondaira guzia. Honek hornitzen du liburuaren lehen parte, *Noelak*. Ondorengo lau parteak kanta ezpiritualez ditu.

Poesia, eretan oso poliki egina da, irudimen etorritzakoak. Hara nola kantatzen duen Birjinaren erditzea:

*Ilhargiak zuenean
egin bide erdia,
seme ederraz erdi zen
Birgina Ama garbia.*

Eta sortu zen etxola ingurua berriz, honela:

*O dolore eta ondiko
bihotz verragarria,
sehaskatza launak duela
manjatera lohia.*

*Lumatxatza lastoa du,
bururditza belharra,
eta gainean estalki
bere Amaren hegala.*

Jaiotza gauaren pozean beste bertso hauek dakartzki (hemen zatia
besterik ez dugu jasoko):

*O Eguberri-gaua,
bozkariozko gaua:
allegeratzen duzu
bihotzean kristaua.*

*Mundu guztia duzu
zorionez bethetzen:
zergatik baitiozu
Salbatzailea ekhartzen.*

.....

*O gau desiratua,
zuzia duzu piztu
zeñak mundu guztia
behar baitu argitu.*

Lehen-lehenago, Bernat Etxeparek 1545ean argitara eman zuen poema liburuan, emakumezkoaren ohorez hainbeste bertso osatu zituenez, Ama Birginaren laudorioz badu bertso ederrik, zati batzuk Gabon-kanten pareko jartzeko bezalakoak. Neurtitz hoiek ditugu lekuko:

*O Anderia, ezin date ehor zure bardinik:
Gainekorik Zuk eztuzu leinkoa beraz bertzerik.
leinko ezten bertze oro dago zure azpitik;
leinkoaren Ama zira mundu oroz gainetik.*

Gure alde hoietan literatura beranduago sortu zen, eta sortze honen lehen parte inguruan, XVIII.mendean, Gabon-kantak ditugu hastapenen kimu. 1759ko Gabonetan eman zen Mondragoen ikuskizun polit bat. Herri antzerkia esango genduke, eta bere egiletzat Pedro Barrutia izendatzen da. Kantuz egindako antzerki hau humore jarioz betea da, entretenigarri egina eta pertsonaje zelebreak agertzen ditu. Esate baterako, Luzifer deabrua, bere ahoan sinistu ezinezko gertakari hura jarriaz:

*Andra guztien artean kulpa bagea!
Dontzella daguala, Semea egin dau,
Nik ezin aditu dot misterio au.
An dago agura bat, ez mundukua,
Gura nukean baño santuagua.*

Txarles delako tripazai batek “Lian lan bere,...” errepikaz kantatzen dituenak, barregarriak izatez gainera, garai hartako Gabon janari oparotsuak agertzen ditu. Bertsoak oso xinpleak ditu, baina beren xinpletasun hortan gatz berezia dute. Aingeru baten ahotik:

*Josephe ditxosoa,
Amaren esposoa,
Ezta Jesusen aita,
Baña bai ordekoa.
Abere mutu biren
Erdian jaio dana,
Bera adoratzera
Zeruti jatsi gara.
Iru Errege Mago
Izar baten atzean
Bisitatzera datoz
Dromedario gainean.*

San Josephe bera izango da galde hau egingo duena:

*Zeruak eta lurrak
Zeureak izanik,*

*Nola zatoz mundura
Orren billoxik?*

Antzerkiaren barna, Txarlesen grazia bereziak bereak eta bi egingo ditu, eta Haur sortu berria gorde nahirik, aztien siniskerietara eroritzen da, billantziko hau kantatzeko:

*Adi, adi, adi, adi,
Adi esazuz berba bi:
Azkonarraren atzamartxo
Ekarriko dot menditi,
Begizkorik eztegiuzen
Bulartxopean isegi.*

Inungo literaturetan ez dakit holako gauza zeleberrik jaso den. Jesus Haurra begizkotik libratu nahi da hemen.

Azkoitiko Gabon-sariak 1762koak dira. Luisa Miserikordiakoaren izenean agertu ziren, baina, Telletxea Idigoras-ek aurkitu zuen M. Larramendiren gutun bati esker, orain badakigu Peñafloidako Kondea zala bere egilea. Gernikako Gandarari honela idatzi zion Larramendik:

“Ordaña bialtzen dizut Azkoitian aurten kantatu diranak, musika kixkora batean, Peñafloidako Kondeak egin dituenak, eta berak musikan paratu dituenak.”

Bertsoak, zortziko txikian behinik-pehin *El borracho burlado* bertakoak baino biribilduagoak ditu. Hara, berak koplak jostalluak deitzen dituenetan Jesusen jaiota nola adiarazten duen:

*Ezagun du munduak
Jesus jaio dena;
Ain dago mudatua,
Ez dirudi lena;
Len guzia zan pena,
Negar, naibageak,
Ta oraiñ atsegiñ, gusto,
Algara, parreak.*

Aipatu ditugun azken hiru obrak, *Teatro zaharra* izenez Auspoa Liburutegiak argitaratuak ditu, 1965ean.

Gernikako Gandarak 1764an argitaratu zituen “Guernicaco Gaboncante”k, Barrutiarenak bezala Bizkai aldeko gatz-ozpina daroie. Itera polita da Mariari ostatua ukatu ziotenekoa:

*Ostatu nayaz zen
Maria
Alperrik zan Belen
andia
Etzan aurkitu
nok an laketu
hari gela baten
grazia.*

*Ah jente gangarra
Belengo!
Guztai zaldarra
urtengo.
Zuek ukatu
Birgiñi leku?
Zuentzat su garra
hurrengo.*

Gabon-kantak, azken gizaldietan ere landu izan dira. Hontaz materialik oparotsu dugu. Hala ere, krisma guti ikusten ditugu bertako bertsoz eginik.

Con motivo navideño dedicamos un recuerdo a nuestra vieja literatura culta o escrita. Es decir, de autor conocido. De la misma hemos seleccionado varios fragmentos de curiosos villancicos.

Como se sabe, el cultivo literario eúskaro arrancó allende de la frontera, en el país vasco de Francia, en el siglo XVI. Y en el XVII, en 1630, tenemos la obra *Noelak* de Etcheverri de Ciboure, de un bello contenido poético.

Aquende de la frontera, salvo algunas obras muy aisladas, no comenzó el cultivo literario hasta mediados del siglo XVIII, que se inicia con cantares navideños. En 1759 tuvo lugar en Mondragón la representación de un teatro popular, "Acto para la Noche Buena", que se le atribuye a Pedro Barrutia. En 1762 se cantaron en la parroquia de Azcoitia "Gabon-sariak" que se imprimieron bajo el nombre de Luisa de la Misericordia, aunque hoy se sabe que su autor fue el Conde de Peñafloreda. En 1764, Sebastián Antonio de la Gándara es autor de "Guernicaco Gabon-cante".

Apenas hemos sabido valernos de este material para obtener fragmentos con qué componer los chrismas de Navidad.

1974-XII-23.

EKAINEKO OHITURA ZAHARRAK

Euskal Herrian ez-ezik, mundu zabalean ezagutzen dira eguzki-goieneko ohiturak, San Juanen inguruan bereziki. Sua dugu jai hoietan bereziena.

Bestalde, San Juanak ditugu Euskal Herriko jairik alaienetakoak, noski. Agure zahar askoren ustez, gure denborara arte, eguzkia bera ere dantzari irtetzen bai zen.

Naturalezak parte handia du San Juanetako ohitura zaharretan, batez ere eguzkia, sua, arbola eta uraren sinboluak erabiltzen dira. Bere funtsean, biziarentzat hain premiazkoak zitzaizkien gauzak gurtzen zituzten aintzinako gizonen.

Euskararen euskaldi batsutan San Juanetako hilak berak ere Ekaina du izenez. Eguzkia gaineren dagoen garaia adierazi nahi du. Beraz, altuen dagoen urte-aroa markatuz.

Eguberriak (Gabon garaia hau) eguzki-berriari hasiera ematen dio, Ekainean gainbera hasiko den eguzkiari. Nafarroatik Bizkaira, Luzaide, Baztan, Bergara inguruetan, Arratian eta Gernika aldean, eguzki gurteak ezagutzen ditugu: "Eguzki amandrea badoa bere amagana", eta antzerakoak esango dituzte hor-hemen.

Gipuzkoako Idiazabalgo eleizaren atean, berdin Zuberoako Muskil-dikoan (XIV eta XII.mendekoak dira), eta arte-herrikoian, eguzkiaren irudiak agertzen zaizkigu. Hiru-lau mila urteko dolmenak, osterak, guziak ditugu ekialdera begira.

Aintzinako denboretatik, mendietan eta plazetan suak bizten dira San Juan bispera gauan. Eguzkiari loturik dugun sinbolismua hau ere. Eta inoiz suaren inguruan dantzatu eta gaisetik jauziaz igaro.

Su horiek lehenago garrantzizkoagoak izan ziren. Eibarko kontzejuko kontaduria liburuan, 1847koan: "por seis carros de leña consumida en las fogatas de San Juan, 60 reales", irakur genezake. Izan ere, gauza sakratuaren ospea izan du. Griegoen Prometeo bera, jainkokiei sua ostu ziena, Euskal mitolojian San Martin-txikiz agertzen zaigu, jentileri aurrerapenezko zenbait gauza ebatsiz, gizonen emateko.

Suaren gaikia egurra danez, arbola gauza sakratutzat aurkituko dugu. "San Juan-aretxa" erreaz joaten dira urtearen zehar Bizkai eta Nafarroako herri askotan. Eta lizar edo elorri erramak jartzen dira etxeen ate eta leihoetan.

Plazetan makalak (txopoak) zutik jartzen dira, erretzeko edo bere puntara igotzen direnak saritzeko. "Cucaña"-z ezagutzen da erdal herrietan.

Donostian bertan, arbola bat erretzen zen San Juan bispera gauean, eta kontzejuak debekatu zuen. 1912an, hurrei exenplu txarra ematea zala usterik, baina ohitura zahar zaleen eskariz, 1916an, botoetara joaz, berriztea erabaki zen. Baina kondiziotzat jarri zuten, arbolarik ez erre eta ez eratsitzea.

"San Juan-arbola", sugaiaren sinbolutzat har genezake. Eta sinbolu hauk mito bihurtzetik datozen siniskeriak ditugu arbolaren inguruko zenbait ohitura. Esate baterako, toki batzuetan, etena zuten haurrak sendatzeko arbola magalen urkulutik (inoiz arbola gerria bera irekiaz) eskutik eskura erabiltzen zituzten. Joan izeneko bik, gaueko hamabieta-ko kanpai hotsekin batean. Euskal Herrian ezagutu den ohitura hau, Alemaniako Oldenburg-en ere ezagutua da. Gaur, mediku zientziaren bidez, badakigu etenak ez duela sendatzerik ebakuntzarik gabe.

Ohitura horietaz asko idatzi da, batez ere Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza*-ren lehen tomoaren 159/160 eta 293/310 orrialdeetan.

Eguzkia, sua eta arbolarekin batean, eguzki aldatetetan aurkituko dugun naturalezaren beste elementu ezagun bat, ura da. Gehienetan gaitzen baten sendagarri. Baina siniskerietan bere indarra hartu zuen. Erromeriak itsasoz edo iturrietara, eguzkiaren irteran, San Juan goizean, oinhutsik belardiko intzetan ibilaldi bat egiteko edo ibaian sartzeko ohitura, bigarren hau inoiz biluzik.

Erromako Inperioak Eleiza Katolikoa ofizialtzat hartu zuenean, Arrianismoaren ondorean Atanasio-ren doktrinak onharitzean, Julio I-^{er}-ren garaian (IV. mendearen ondarrean) eguzki ahaltsuaren jaiak, "Natalis Invicti" Kristoren jaiotza eta San Juan Bataiatzailearena jarri zituen, eguzki aldatzeetan, euskaldunon Eguberri eta Ekainean.

Aipatu ditudan ohitura zaharrok, era batzuetan oraindik oso ezagunak ditugu Euskal Herrian zehar. Beti esan dugunez, mundu honetan, ezagutzen ez duguna askozaz gehiago da, ezagutzen duguna bera baino, eta egunotan neronek jaso dudak uztaren zati bat emango dut. Toki soil batean aipatu ditugun erarik gehien lortatza agertzen da: eguzkia, sua, arbola, ura. Toki hau Bizkaian Berrizko Murgoitio hauzoa da. Barandiaranek egin zion aipamena *El mundo en la mente popular vasca*-ren bigarren tomoaren 69garren orrialdean ikus genezakeanez.

Baina nik Pedro Zelayeta jaunari, 72 urtekoa, Murgotioko Beña baserrikoari ahoz aho jasoa hau da:

Gure denboran, San Juen bisperan, Donielatxa iminten zan San Juen ermitaren onduen. Illuntzian, eguzkia sartu ondorean, su haundiak ixotzen ziran inguru berean eta txikiagoak soloetan. Suaren inguruan dantzak eta brinkoak eta suan gainetik saltoak be bai, honela kantatuaz:

*San Juen, San Juen,
besterik ez dogu goguen,
arrautza bi kolkuen
beste bi altzuen;
sorgiñek eta lapurrek
erre, erre!
Artuek eta garixek,
gorde, gorde!
Biba San Juen!
Bixer da San Juen.*

Biharamun goizean —San Juen goizean—, egunsentirako itzartu, eta baraurik, mezatara baino lehen, ermitatik urrian dagoen iturrian hiru basokada ur edan. Irunzpekuek osatzeko ona zala-ta.

Etxe-ateetan erramak iminten dira, oindiño be, leixarra edo elorrixo. Baina, leixar edo elorri horreik errekatxarkurik pasatu bakue izan behar dau (Ekartzen dauenak ez deiala urik gainetik pasatu).

Eguerdi aldian, aintzina, Murgoitxoko Kofradiako mutilak aureskua egiten ebien. Orain, Berrizko dantzariak ekartzen dira.

“Donielatxa” igoten dabena saritua izaten da, gauzaz edo diruz. “Donielatxa” lehenago txopua izaten zen, orain piñua.

Arratsaldean erromeria haundia, gabea arteino.

Se hace una descripción general a la fiesta del solsticio de verano, con referencias de ritos y diversas celebraciones en torno a los símbolos: sol, fuego, árbol y agua.

Su antigüedad atestiguan no sólo los símbolos solares que aparecen en iglesias románicas del país y en la ornamentación popular, sino en la orientación de los dólmenes. Se recuerda que en algunos dialectos del vascuence el mes de junio recibe el nombre “Ekaina” (= sol alto), en relación al solsticio de verano, como “Eguberri” (= nuevo sol) al solsticio de invierno.

Se resalta la importancia de las hogueras la víspera de San Juan, y se menciona un pago de leña para el efecto por el ayuntamiento de Eibar en 1847, y la concordancia entre los personajes míticos San Martín-txiki y Prometeo que, respectivamente, roban a los gentiles y dioses algunos adelantos y proporcionan a los hombres.

La importancia del árbol como materia combustible y el símbolo del árbol de San Juan y su relación con las enramadas protectoras de la hacienda. Como noticia curiosa se inserta una costumbre donostiarra en torno al árbol. En San Sebastián se quemaba un árbol la víspera de San Juan, que fue prohibido por el ayuntamiento en sesión del 12 de junio de 1912, por considerar que tal costumbre era mal ejemplo para los niños. Pero acordó reimplantar dicha fiesta, en consideración a diversas solicitudes y después de someter a votación, en sesión del 14 de junio de 1916, pero con la condición de que no se quemase ni derribase el árbol.

El agua, como elemento curativo y los mitos en torno al mismo. Las romerías por mar y a las fuentes, inmersiones en fuentes y ríos al amanecer del día de San Juan, etc.

Y, por último, se recoge el relato sobre ritos de San Juan en el barrio Murgoitio de Berriz (Vizcaya), recogido oralmente de un anciano del lugar, relacionados con actos simbólicos en torno al sol, al fuego, al árbol y al agua.

Como cosas curiosas, sobresalen: la cucaña que colocan en dicho lugar la víspera de San Juan se la llama "Donielatxa", que probablemente deriva de "Donibane-aretxa" o "Donie-aretxa", árbol de San Juan (según Azkue, "aretxa", en Vizcaya fue antaño nombre genérico de árbol, aunque en nuestro caso sea válido "aretxa" = roble, como roble de San Juan). Se enciende una hoguera general junto a la ermita y otras menores en las heredades, con un cántico que implora contra brujas y ladrones y se pide protección a los bienes de las cosechas. Al amanecer, en ayunas, se bebían tres vasos de agua en la fuente que está próxima a la ermita de San Juan de Murgoitio, para preservar de paperas. Las enramadas que se colocan a las puertas de los caseríos y que son de fresno y de espino, deben ser traídas sin cruzar sobre el agua. Antaño bailaban el auresku los chicos de la Cofradía del lugar.

1972-VI-16.

EKAINEN SINESKERAK

Ihaz ere agertu genituen ekainean eguzkia goren dagoen garaian edo gainbehera hastean arkitzen diren sineskerak, eguzkia, sua, arbola eta ura inguruan arkitzen direlarik sinbolu bezala.

Donostian bertan, 1912an debekatu zuten plazan arbola erretzea. San Juan bezperako ohitura hau nola zen Marzelino Soroak aski ongi agertu zigun bere *Azak eta naste* liburuaren 80/84 orrialdeetan, 1895an. Zuhaitzari sua emate hau Plaza Berrian (Plaza de la Constitución) egiten zen. Lizar arbola goizetik jartzen zuten eta arratsalde erdia igarotzean elizgizonak bendezitzen zuten eta ondorean *Iriarena*-ren doinua hasten zen jendearen animoak berotzeko eta su emateak iharraitzen zion. Jendea, zuhaitza erori beharrean jartzen zenean, "honera, honera!; hara, hara!" garraisika, eta erortzean mutikoak adar-zatiak kentzen omen zioten suzko-zezena bezala kalez-kale erabiltzeko. Beste askoren jolasa izaten omen zen suzko enborraren gainetik jauziak igarotzea.

Suak egite hau gure egunotan ere bizirik eta indartsu duguna da, batez ere herri txikietan. Ondasunak gordetzeko izpiritu txarrak erretzeko edo osasuna gordetzeko sarnaren kontra. Luis Pedro Peña-rekin Nafarroako Urraul-goian ohiturok jasotzen ibili nintzanean, "¡Sarna dentro, sarna fuera!" esanez suaren gainetik jauzi beharra izan nuen, Irurozki herrian. Ikus *Munibe*, XVIII (1966), 151/152 orrialdeetan. Uraren inguruan diren sineskeren berri ere hor ematen genuen.

Baina uraren sineskera, aspaldi Manuel Lekuonak jasoa zuen *Anuario de Eusko-Folklore* (1922, 31 orr.), gero J.M. Barandiaranek ere agertzen duena *El mundo en la mente popular vasca* (tomo II, p. 69) liburuan. Nafarroako Yantziko San Juan Iturriira inguruetakoko herrieta-koek egiten zuten erromeriaren berri ematen dute.

Urari buruzko sineskera, Azkuek ere jasoa du *Euskalerrriaren yakintza*-ren lehen tomoaren 264garren orrialdean. Gipuzkoako Arro-nan, ziotenez; "San Juan bezpera-gabean zumezko ustaia iturriari sartzen zaio ta soloetatik edozer hartzea libre izaten da".

Hala ere, sineskerarik harrigarriena, Azkue-ren liburu horretan 298/301 orrialdeetan arkitzen dena izango da. Zuhaitzaren sinboluari loturik dago: Euskal Herriaren alde askotan, Arabako Urbinan, Nafarroako Larraun, Aezkoa, Erronkari eta Ultzaman, Bizkaiko Amorebietan eta Otxandion, Baxe-nabarreko Donazaharren sineskeriz-ko ohitura zahar hau ezagutzen da. Etena deritxon gaizdun ume bat haritz baten ondora eramaten dute Doniane-bezpera gaberdiaurrean. Mailadi baten bitartean besanga-artera jasotzen dute. Han, bata bestearen aurrean, bi Juan (Larraungo ohituraz), hiru Juan (Ultzama



Irurozki (Nafarroa), Donibane gauetz.

aldean) ernai egoten dira. Juan batek bere eskuetan edukitzen du haurra gaberdian erlojuak jo-aurretxoan. Lehenengo dangadaa edo erloju-hotsa entzun orduko “Juanek uzten zaitu”, dio umedunak; bigarren Juanek: “Juanek hartzen zaitu”, esanda umea hartzen du. Bigarren honek, umea besteari eskainiaz, “Juanez uzten zaitu”, dio; besteak “Juanek hartzen zaitu”, esanez hartu eta horrelaxe ahalik bizkorren haritz magal-artean batetik bestera erabiltzen dute hamabigarren dangada entzunarte. Hiru bidar eman eta hartu egin behar omen da etendun umea. Ultzamako ibarrean askozaz errezago da egitaraua. Hiru Juan behar izaten dira. Lehenengoak, bere eskuan umea daukala, bigarrenari: “To, Juan”, esanez eman ohi dio; bigarrenak hirugarrenari, “har zak Juan”, hirugarrenak lehenengoari: “Tori, Juan”, eta toka, harzak-ka eta torika erlojuaren hamabi dangada-bitartean dihardute. Zuberoako Barkoxen, era berean, “To, Johane; ekarrak, Johanea” bederatzitan esaten omen zuten.

Otxandianon gaitzagoa izaten zen honetarako gizonak aurkitzea. Bi behar ziren, anaiak eta gainera bikiak, bataren izena Juan eta bestearena Pedro. Hamabiak bitartean hots bakoitzeko haruntz edo honuntzaldi bat

eragiten zioten etendun haurrari, elkarri esañ gabe. Haritzaren besangak banatuta edukitzen dituzte eta egitekoa bukatu ondorean berriro lotzen dituzte. Haritza ez bada igartzen haurra sendatuko den ezaugarria izaten omen zen. Aezkoan haritzaren adar-artean ume gaixoaren atorratxoa usten omen zuten.

Alemaniano Oldenbrug aldean ere ezaguna omen zen sineskeria hau. Horretarako haritz gazte baten ondoa behar izaten zuten.

El pasado año en estas mismas columnas dimos a conocer algunas costumbres y creencias de la festividad de San Juan, en torno al solsticio de verano y que se presenta principalmente bajo las simbologías del sol, el fuego, el árbol y el agua. Símbolos que también aparecen en las creencias de Navidad y Año Nuevo, durante el ciclo solsticial del invierno.

Estas celebraciones han tenido más vitalidad en tiempos pasados. Si hoy aún perduran con vitalidad en los pueblos, antaño también tenían su importancia en las ciudades. Su constancia, con todas las peculiaridades de la ceremonia con que se celebraba en la Plaza de la Constitución de San Sebastián, nos dejó descrito Marcelino Soroa en su obra bilingüe *Azak eta naste o berzas y versos* (San Sebastián, 1895). Y los datos de la prohibición en 1912 los detallé en mi artículo del pasado año por estas mismas fechas. Son testimonios del arraigo de las hogueras de la víspera de San Juan.

De entre los ritos recogidos en el barrio Murgoitio de Berriz (Vizcaya) destacábamos en aquel artículo las creencias existentes en torno al agua. Sobre ello recoge J.M. de Barandiarán en el tomo segundo de *El mundo en la mente popular vasca* que a su vez nos remite a la romería de *San Juan Itturri* de Yanzi (Navarra) referente a las costumbres recogidas por Manuel de Lecuona y dadas a la publicidad en el *Anuario de Eusko Folklore* del año 1922. Así mismo Azkue registró en *Euskalerrriaren yakintza - Literatura popular del país vasco*, tomo primero, una curiosa superstición de Arrona. También en el trabajo que hice sobre etnografía del valle de Urraul Alto en colaboración con L. P. Peña Santiago, y que vio la luz en *Munibe* en 1966, se dan a conocer algunas creencias del amanecer del día de San Juan que se relacionaban con las aguas.

Pero en esta ocasión, lo que más hemos querido destacar es la creencia que existió en torno a las virtudes curativas del roble, muy especialmente en los niños. Según pudo recoger Azkue en Alava, Navarra alta y baja y en Vizcaya, ved las páginas 298/301 del citado libro

Euskalerrriaren yakintza, se pasaba a los niños herniados por entre las ramas de un roble con las doce campanadas de la noche víspera de San Juan. Las personas que pasaban de mano a mano, por entre las ramas tenían que llamarse Juan. Pero en el caso de Ochandiano, tenían que ser mellizos y que se llamasen el uno Juan y el otro Pedro, y el roble de brazos separados lo ataban después de la ceremonia; y si el árbol no se seca es señal de que el niño herniado a de quedar sano.

Según Azkue, también en Alemania era conocida una superstición similar, en la región de Oldenburg.

Estas creencias nos han llegado de manera decadente desde la cultura Neolítica, su presencia hasta nuestros días nos señala la importancia que su significado pudo tener en aquellos tiempos para los pastores trashumantes constructores de los dólmenes que tanto abundan en nuestras montañas.

1973-VI-25.

EKAINEKO URA

Suak piztea eta uretan bustitzeak historia aintzinetik dakorzkigun ohitura zaharrak ditugu, erromatarren kultur klasikoan ere itsatsiak aurkitzen dira. Sua, ura, arbola (edo landarak) eta hauen inguruko gauzak ditugu ekaíneko ohituretan, tokiz eta aldiz era berezietan zabaldurik aurkituarren. Funtsean gauza bera dira eta sineskera zaharretan errotzen dira.

Ekaínean, eguzkia goren aurkitzen den urte aroan, suaren ospatzeak aski ezagunak dira. Lehenago nere artikuluetan hortaz idatzia dut. Baina suaz kanpo beste elementu batzuk ere erabiltzen direnez, hauetarik ura hartuko dut gaurko hontan. Eguberrietan, eguzkia behean aurkitzen den garaian, goraka aldian sartzen delarik, oso ezaguna zaigu Nafarroan “Ur goiena. Ur barrena”, J. M. Satrustegik hain ongi estudiatua. Baina ekaínekorik sua maizago ezagutzen dugu eta urari buruzko zenbait aztarna edo ohar agertuko dugu.

San Juan iturrietara erromes joatea eta Donibane goizean belartzako intzetan oinutsik ibiltzea, eguzkia dantzan irtetzen dela esaten den egunsentian, oraindik ezaguna dugu Gipuzkoan. Etnologia parte hau estudiatu dutenen artean, eritzi bat baino gehiago badira, baina gehienok bat datoz ur eta landaren purifikazio ongarriez. Nafarroako mendial-

dean, Pirineo aldeko herrietan, hibaian bustitzeak gure egunotara arte irau duen usarioa da.

G. A. Breueil-en eritziz, jentil ohiturok baztertzen ez ziren ahalegindu kristauak, hauen liturjiaren kontra ez zetozenak eta honegatik izan dute iraupena. Gainera, jaialdi hauek Julio I, Aita Santuaren garaian (IV. mendean) elizak onartu zituen. Hala ere, Arlés-ko Bigarren Kontzilioan, San Zesario, hiri hortako apezpiku zenak, kristinauak iturrietan bustitzearen aurka hitz egin zuen. Eta, VII. mendean San Eloy era berdintsuan mintzatu zen jentil ohitura horiek salatuaz (J. M. Iribarrenek ematen du agirion berri *Historias y costumbres* liburuaren 135 orrialdean).

Esan dugun bezala, ohiturok historia aurretik datoz, baina Euskal Herriko agiri idatziak ez dira hain zaharrak. Hamazazpigarren mendearen azken partean Iruñeko diakon-buru zen Martín de Andosilla y Arlés Peralta-ko semeak *De Superstitionibus* (1581) siniskereri buruzko liburua argitaratu zuen, eta beste zenbait gauzaren artean Irunberritik hurbil den San Pedro de Usun-en, herri eta elizgizonak erromes joaten zirelarik imajina uretara sartzen zuten. Bestalde, badakigu Asturias-ko Cudillero deitu herrian arrantzaleak San Pedro urperatzen zutela, bisiguak ekartzeko erregutuaz.

Gabon egunetik urte-berri edo erregeen egunera arte bezala, San Juanetatik San Pedroetara betetzen dira ohitura zaharrok. Donibane goizean hasten den egusentiko bustitzea, belartzan oinutsik edo biluzik, San Juango iturrietara joanez eta ibaira jetxiaz, ohituraren jarraipenez lotzen da San Pedro.

Aipatu dugun Usun-go San Pedro, Irunberritik hurbil, Romanzado partean dago, Zaraitzuko ibaiak Arbaiungo mendartearen igaro eta laster osin handi baten ertzean. Bertako uren sendagarri fama aintzinagokoa dugu, zeren koronikak diotenez, 924. urtean, Nafarroako errege Santxo Garzes sukar-gaitzetik sendatzeko Usun-go San Pedrori otoi egin zion. Eta, esaten denez, horrela sendatu omen zen eta hango elizari garrantzizko eskaintza egin omen zion. Baina errege hau handik urtebetera hil zen (Hala dakar Manuel Iribarren-ek, *Navarra, ensayo de biografía* lanaren historia partean). Dударik gabe, gaitzetik garbitze honek badu zer ikusirik Usun-go urarekin.

Real Academia de la Historia-ren *Diccionario Geográfico-Histórico* (1802) delakoaren bigarren tomoko 421 garren orrialdean ere jasotzen da gertakizun hori, 962 garren eran jartzen duelarik 924ko urte bera da.

Usun-go San Pedro hortan egon nintzenean bi gauza aurkitu nituen, bertako ibaiaren osina eta ondoko iturri bateko ur gardena. Iturri hontako urak, oraindik orain ere fama handia du inguru haietan.

Bizkaiko Lekeition, San Pedro egunez, pertsona bizia ateratzen zen San Pedro-ren irudira (aintzina, berakin batean San Andres eta San Juan ere bai) kutxa gainean dantzari. Hemendik dator gure egunotako *Kaxarranka* izeneko dantza. Hamazazpigarren mendean (1682. urtean) Kalahorrako apezpikuak debekatu izan zen eta honatik sortu ziren zenbait aserre, errege Felipe IIIak parte hartzeraino. Autore batzuen ustez, arrantzaleen kofradiak urte txarra zuenean irudiak itsasora botatzen omen zituzten.

Ohitura hoiien berri aski zabal jardun dira Azkue, Barandiaran eta Caro Baroja.

Donibanez San Pedroetan baino maizago aurkituko ditugu. Gipuzkoaren mugetan ditugu Beteluko Damaiturri eta Iturri Santu, Berrizko Murgoitio eta abar. Baina Gipuzkoaren bihotzean bertan ere badira. Baliarrain eta Iturriotz, eta abar. Barandiaranen lanetan aurkitzen direnez.

Azkoitiko San Juan bañu etxean ere holako ohiturak omen ziren aintzinako denboretan. Orioko San Juan ermitaren ondoko harpean dagoen iturrikoak, gaur egun ospatzen ez bada ere, ez dira hain aspaldikoak. Donibane goizeko egunsentian, eguzkiak irten baino lehen, oriotarrak ura edaten zuten eta arpegia garbitzen azaleko gaixoa zutenek. Urtearen barrena ere, herpe edo azaleko eriz zirenak joaten omen ziren bertan bañatzera. Orioko kalean, oraindik orain badira pertsonak beren haurtzaroan San Juan iturriko urak sendatu zituztela esaten dutenek.

Era hortako praktikak, gutxituaz badatoz ere, anitz izan dira Euskal Herri guzian eta hemendik kanpo ere. Indoeuropear kulturaren aztarnak ditugu, Neolitos alditik datozenak. Beren indarraren lekuko, aurtzen ere, Donibane bezperan su sakratuak piztuko dira bere inguruan dantatzeko edo bere gainetik jauzika aritzeko. Eta, oraindik orain, Donibane egunsentian belartzan oinutsik, iturriren batean ura edanez eta hibaira bañatzera joanen dira, gero eguzkia dantzari irtetzen ikus nahi dutenek, eta eguerdirako etxeen atarrietan elorri eta lizar adarrak ikusiko ditugu.

Menéndez Pelayo recogió en la *Historia de los heterodoxos españoles* (1880-82) que “El culto celtibérico por excelencia, *las hogueras de la noche de San Juan*, cristiana transformación de la fiesta del solsticio de verano, siguen encendiéndose de un extremo a otro de la Península”. Entre nosotros, Azkue, Barandiarán, Caro Baroja, J. M. Iribarren y otros han recogido abundante material sobre el tema.

A los ritos del fuego le siguen los del agua. La víspera o el mismo día de San Juan, antes del alba, Azkue aporta sobre todo abundantes costumbres navarras en su obra *Euskalerraren Yakintza*, de romerías a las fuentes y a los ríos a beber agua y lavarse la cara, algunos aun el cuerpo. En Estarrús, cerca de Jaca, ejecutaban el rito lustral sumergiéndose desnudos en el río.

En Guipúzcoa, prácticas rituales del agua se han efectuado el Baliarrain e Iturrioz, según Barandiarán. Consta que antaño se hacía también en el balneario de San Juan de Azcoitia. El verano pasado pude recoger numerosos testimonios de la fuente de San Juan en Orio, que se sitúa en la desembocadura del Oria a su orilla derecha. Actualmente las aguas se aprovechan para algunas fuentes públicas. Pero antiguamente, los oriotarras iban la mañana de San Juan a beber agua, y los que padecían de enfermedades de la piel, tales como herpes, se sometían a lavados de cara o de cuerpo. Para este caso no era menester que fuera precisamente en día de San Juan, sino en cualquier fecha del año. En Orio, cuentan de muchas personas conocidas, que se curaron con las aguas de dicha fuente.

Pero sobre todo, es más frecuente en Guipúzcoa que la mañana de San Juan se camine descalzo sobre la hierba para mojarse con el rocío.

Los ritos del agua se repiten el día de San Pedro de manera variada. Hay testimonios muy antiguos de inmersiones. El docto arcediano de Pamplona Martín de Arlés, que en 1581 publicó un tratado de supersticiones, refiere con animadversión las inmersiones que hacían en los ríos en su tiempo. Uno de estos puntos era próximo a Lumbier con la efigie de San Pedro de Usun, en reunión de clérigos y pueblos, en forma de procesión. El año de 924, el rey Sancho se curó de "frigelas" (calenturas intermitentes) rogando a San Pedro de Usun, por cuyo motivo hizo la donación a dicho santuario de unas tierras en términos de Ul y unas viñas en Arbonies. Además, se dice en el *Diccionario Geográfico-Histórico* (1802) de la Real Academia de la Historia, que en las inmediaciones de esta basílica "hay una fuente, cuyas aguas son muy saludables para las enfermedades de hipocondría, herpes y dolor de ijada".

De la danza *Kaxarranka* que se hace en Lequeitio el día de San Pedro, representando a este santo, también hay noticias antiguas de inmersiones.

1975-VI-23.

DONIBANE

Donibanez herri askok ospatuko dituzte urteko jai nagusiak. Herri askok lehengo ohitura zaharrei iraunaraziz eta beste batzuk garaiko moderi oratuaz edo zerbait berrikeri sortu nahiaz.

Bispera gauan plaza askotan oiztuko ziren suak, tokiren batean edo bestean arbola zutitua erreaz, Bizkaiko herriren batean oraindik Donibane-haretxa ipiniko da; goizean, eguzkia dantzan agertu baino lehen, pertsona zaharren bat edo beste helduko da San Juan iturriren batera, aztirik ez da irtengo belar osagarrien bila, baina zenbait basarritakoak oinutsik ibiliko dira belartzako intzetan, ez ordea aintzinakoak bezala biluzik ibaian edo errekan sartuko denik; eguerdirako, herririk gehienetan, lizar edo elorri erramak ateburuetan jarriak izango dira.

Lehengo sineskera zaharren hondarrak dira. Lehen batean, eguzkiaren goi-muga, ekaina zen. Gero, misterioak berak bultzaraziko zuen supertziora eta zenbait gauza nahasturik arkituko ditugu, azkenean Donibanekin kristautzera arte.

Donibane "San Juan" ingurua zer den J. M. Barandiaranek adiarazten digu bere mitologia hiztegian, *Obras completas*, lehen tomoaren 65/69 orrialdeetan. Bertatik ohartu gindezke gure herri literatura zein ugaria eta aberatsa den Donibaneko ohituraz.

Baina, gure herri literatura ez-ezik, literatura landua ere ohitura hoietaz ongi hornitua aurkituko dugu. Juan Antonio Mogel (1745-1804) idazleak, XVIIIgarren mendearen azkenaldera idatzi zuen *Peru Abarka* liburuaren lehen elkar-hizketan, Peruk Maisu Juani honen izenaren esan nahia agerrereziz, hau zion: "*Donianiac esaten jaquee San Juanetaco egunai. Beraz zuc bere Doniane barri batzue ecarrico dituzu, subac eguin, donian bedarrac erre, ta egun gozatsu bat igaro eraguiteco.*"

Suak egitea, belar txarrak erretzea eta egun alai bat igarotzearen agiria dugu Mogelen idazkian. Egunsentia baino lehen garitzako intza hartzea eta belarrak batzea aipatzen digu Eusebio Maria Azkue (1813-1873) *Parnasorako bidea* liburuko bertso batean:

*Donian goizez gazte zoroak,
estaldu barik izarrak,
doaz garitzan iruntza artuten
eta batuten bedarrak:
txantxetan, benetan, Donian goizetan
pozik dabiltzaz goiztarrak.*

Nikolas Ormaetxea “Orixe” berak, *Euskaldunak* poemaren Xgarren kapituluaren azken bertsoak, “Doniane gaua” izenekoak, ohitura zaharretan oinharriturik eta irudimenez ongi jantzirik agertzen ditu.

*Atari bakoitzean, gora da txondarra;
mutillak an daude, noiz agertuko garra.*

Mutillak hasiko dira suaren gainetik jauzika, “¡sarna fuera!” ez-ezik, zagi eta sorgin erretzearen sinboloak ere bilduko dituzte:

*Mutil-sail batek, ba du arazo larria:
artzen du, jarioa zedukan zagia;
ardorik ezin edan, pikez itsatsia,
sorgin igartuaren iduri bizia.*

*Sorgiñaren odolez jarioko pertza,
biamonez bidetan nonai tanta beltza.
“Sorgiñak erre” esanez, aurrak ez dire ertsa;
gaur bide-dugu sorgin denen eriotza.*

Hogetalau bertsoetatik, denak sartu ezinez, Donibane siniskerak ongien adieraztekoak aipatzen ditugu.

Parte batzutan, “Orixe”ren poemak, ekaineko jaiak Akelarreekin nahastatzen ditu, eta hauek kristautzea hala nola agertzen duen:

*Bertso biz bestek, ikus zer esan nai duten:
“Akerra ukatzen dugu, Bildots Aurra aitortzei;
barkatu gure zorrak zure odolarren.
Mende guzien mendez ire gaituk. Amen”.*

Baina hala ere zenbait herritarren zentzunera heldu ezinik, kristautu ondorean ere sineskera zaharrei eutsiaz edo aldendu ezinik, honela hautsiko dute sineskera berriaren agindua:

*Doniane-goizean erne daude begiz
Katalin'ek berea galdurik ote egiz.
Uste zuten jun zala Akelar'a mendiz;
lapur-Mezan zioten biek eiten diz-diz.*

Ondoko lerro hauek nekazaritza aroan itsatsitako sineskeriak direnez, uztak ekaitzetik gorde nahiz sortuak dira, ikus dezakegunez:

*Ateen bi aldetan jartzen dute elorri
—bedeinkatua dala digute erakutsi—
oiñazturik ez daiten udaran erori.*

Gizaldirik gizaldi iraun duten ohiturak garai bakoitzean bertako giroari lotu dira, batez ere eguzki aldakera mugetakoek erakusten digute beste garaietakoek baino indartsuago igarotako denboren sineskerak.

Hoy, día de San Juan Bautista, numerosos pueblos celebrarán su fiesta principal. Viejos ritos y costumbres acomodados a distintas épocas de creencias más los modernismos adheridos recientemente tendrán cabida en la celebración.

En las versiones antiguas se acumulan varios estratos de creencias. La víspera por la noche, después de la puesta del sol, se habrán encendido las hogueras, más en algunos lugares se quemará el simbólico árbol y todavía habrá municipios vizcaínos que levanten el “Donibane-haretxa”, árbol de San Juan; al amanecer del día de hoy, antes de que el sol nazca bailando, más de un anciano habrá llegado a alguna fuente de San Juan a beber agua, pero ya no queda ningún mago que salga en busca de hierbas curativas, sí en cambio de más de un caserío saldrán descalzos a pasear sobre el césped a rociar, pero no bajarán al río, como antaño, a bañarse desnudos; para el mediodía, en la mayoría de los pueblos engalanarán los dinteles de sus casas con enramadas protectoras de fresno o espino.

Son residuos de viejas creencias, que tuvieron su origen en la fiesta solsticial de épocas neolíticas. Con el tiempo, el misterio cósmico ha ido adquiriendo otras creencias y supersticiones para heredarnos esta diversidad de conceptos hasta la asimilación del Cristianismo.

Un resumen general de las tradiciones de San Juan se detalla en el Diccionario mitológico vasco de J. M. de Barandiarán (*Obras completas*, tomo I, páginas 65-69). Del que podemos deducir la variedad de versiones en las creencias y en la literatura oral.

Pero si hurgamos en la literatura culta, en vascuence, encontraremos correspondencia de la tradición popular. Por ejemplo, J. A. de Moguel, en su *Peru Abarka*, obra escrita a finales del siglo XVIII, habla de las hogueras, de la quema de hierbas y de la celebración de un día alegre. Eusebio María de Azkue, padre del renombrado Resurrección, a mediados del siglo XIX, en su obra parnasiana, dedica jugosos versos a las tradiciones populares y que, en una estrofa referente al día de San



Aitona ta biloba, baserri atarian.

Juan, describe la costumbre de rociarse en los trigales antes de la salida del sol, recoger hierbas y celebrar un día alegre y jovial.

A Nicolás Ormaechea "Orixe" tampoco se le escapó en su gran poema *Euskaldunak*. El, de manera un poco extraña, entremezcló conceptos de ritos del fuego con la quema de brujas, en lugar de ahuyentar a los malos espíritus o atacar la enfermedad de la sarna o herpe; por otra parte, rechaza al macho cabrío para acoger al cordero, mantiene la suspicacia de algún akelarre secreto con misa negra de mentes inadaptadas. "Orixe" va describiendo sus conceptos sobre creencias del día de San Juan en venticuatro estrofas compuestas en métrica de zortziko menor.

Las fiestas de las dos estaciones del solsticio tienen en el pueblo un arraigo quizás superior al de otras celebraciones, y a la vez son portadoras de abundantes creencias.

1974-VI-24.

DONIBANE KANTAK

Jaialdi handi guziak bezala, Donibaneak edo San Juanak ere bere kantak ditu. Eibartarren usteen, bertan urtero kantatzen dena izango da egiazko bakarra. Honela hasten dena:

*Egun zoragarri hau heldu da berriz
pozan pozez bihotzak beterik.*

*Mendietako baserrietan
kaleko plaza danetan
San Juan suak piztutzen dira
gau zoragarri honetan.*

Baina ohitura zaharreko suak aipatuarren, San Juan bespera gabean Eibarren kantatzen den kanta hau ezta uste bezain zaharra. Beronen doinuz eratu zuen Guridik "El caserío" izeneko zarzuelaren bitartekoa.

Donibaneetako kanta zaharragoak sineskerekin nahastuak aurkituko ditugu. Ez dira Eguberrietako kantak bezain ugariak, baina bai kantategi politik ere bildu genezake Donibane edo San Juanen inguruan. Ekainean, San Juanen inguruan ezagutu diren sineskerak eta hauen indarra ezagutzeko ongi letorkigu Juan Thalamas Labandibarrek igazko urtearen azkenaldera argitaratu zigun liburu hura, "La mentalidad popular vasca" izenekoa, Azkue zenaren lanetan oinharritua, bere laugarren kapituluan dakarren "Eguzki" delakoan batez ere. Jose Migel Barandiaranen lanetan ere argi ikus genezake, "Obras completas"en lehen tomoaren hirurogeta bat orrialdetik hasita "Donibane" izenaren barna. Gure geografian aski hedatuak daude, suaren gainetik jauztean, honako esaera hauek: *Sarna fuera* edo *Txarrak kanpora eta onak barnera*, eta antzerakoak.

Txarraren ondamena eta ona gailentzea sinbolizatzen da eguzkia goren aurkitzen den egun hauetan. Sarna eta beste zenbait gaitz sendatzeko garai ederra. Eguzkiaren onuraz nabariturik ziren. Aro ilunagoak atzean uzteaz sorginak ere gutitzen ziren nonbait. Dena dela, San Juan besperako suaren ondoan ez dago sorginen beldurrik, izutasunik gabe arpegia emateko ordua da:

*Jaun Donaani Batista,
gazteok dantzan gabiltza;
balin ba gabiltza
ta ez balin bagabiltza,
hurat atso kalbo murrirtza.*

Edo, bestela, honelako biraoak jasoko ditu:

*San Juan dela, San Juan:
gure goiko soruan
sorgin begia galdu da;
galdu bada, galdu bedi:
sekula agertu ezpaledi!*

Kanta hoiek lehen aldi bat izango zuten artzantzan, eguzkiaren inguru biltzen zituzten ohitura zaharretan, eta Azkuek Legutianon aurkitu zuen honako aztarna hau:

*Izarra dogu Batista,
eguzkia Jesukristo.*

Ikus *Cancionero popular vasco*-ren bigarren tomoan 838. kanta. Edo hobeto esan, lehenagoko kanta baten zatiak. Maiteminezko bertso batzuekin nahasturik dator, baina eguzkia gurtzearen aztarnak argi daude.

Arabako Legutianotik Nafarroako Burunda aldera jotzen badugu, intza eta uraren sineskera maizago aurkituko ditugu. Olaztin bildu zuen kanta baten hasieran hau dio:

*Garagarrilean eguna bero
goizean intza denean,
goizean intza denean eta
egun klaro denean.*

Behar bada nekazaritzaren indartzetik sartu zen uraren inguruko ohitura, edo dena dela hau ere gehitu zen lehendikako sineskeren gainera. Eta Olaztitik laster, Urdiainen bildu zuen Azkuek beste honako kanta hau:

*Goazen San Juanera gaur arratsean,
etorriko gerala bihar goizean.*

*Goazen San Juanera berduratara
berduratara eta han egoitera.*

*Egungo egun honek San Juan dirudi,
ezta San Juan, baina hala lonbra bedi.*

*San Juango iturriaren ondo-ondotik
zazpi iturri urre-kaiñoetatik.
Zortzigarrena ere metal zurietatik.*

.....

*Lehenbiziko eskuak ta gero musua,
San Juanen iturriko uraren freskua!*

“*San Juan bagilean, denpora ederrean*” bi eratará bildu zuen Azkuek, Otxandianon eta Murelagan; belarren usaiáz aparte, sinesmenaren zentzu zaharrezkorik San Juan Ebanjelista Jesukristoren lengusutzat jartzen du herri kantak:

*San Juan bagilean
denpora ederrean,
edozein bedarrek usaina dauko
Doniane goizean.
Da San Juan, da San Juan,
beti ohi: zaukadaz gogoan.*

*Ia da Doniane edo
jentea triste dago,
San Juan bera here
loak hartua dago.
Atzo San Juan San Juan zan
da gaurda San Juan Batista,
Jesukristoren lengusua da
San Juan Ebanjelista.
Da San Juan, da San Juan,
beti ohi zaukadaz gogoan.*

Dena dela, Donibane kantategia pikorturik heldu zaigu eta aintzinako mundu mitiko hartakorik aztarna batzuk besterik ez ditugu aurkitzen.

Del ciclo del solsticio de verano, con las fiestas de San Juan, no disponemos de un cancionero tan rico y variado como de la época de Navidad. Aun así, su repertorio no es nada despreciable para hallar

materiales del mundo mítico del pasado. La canción más generalizada, el himno de San Juan, aunque guarde algunas partes de la originaria popular, con alusión a las hogueras, es un arreglo de comienzos de nuestro siglo.

El primitivo cancionero nos ha llegado fragmentariamente, mezclado con reminiscencias de ritos paganos. En el presente artículo doy una muestra del contenido de algunas de estas canciones populares con creencias del pasado. En la estrofa final de una recogida por Azkue en Villarreal de Alava, la estrella simboliza al Bautista y el astro solar es Jesucristo. En una de Olazagutía se insiste sobre las virtudes del rocío; en otra de Urdiain se considera de milagrosa a la fuente de San Juan; y en la de Muréлага se alude a las hierbas aromáticas.

J. M. de Barandiarán, en Donibane, del diccionario mitológico, "Obras completas" tomo I, expone una serie de creencias correspondientes al solsticio de verano. Asimismo J. Thalamas Labandibar en "La mentalidad popular vasca" basada en la obra "Euskalerrriaren Yakintza" de Azkue, y concretamente en el capítulo Eguzki. Aunque la mayoría de las canciones aquí recogidas procedan del "Cancionero popular vasco" de R. M. de Azkue.

1976-VI-21.

ATLANTIKA-PIRENEETAKO KULTURA ZAHARRA

Arrotz eta herritar jakitun askok aztertu dute Atlantika-Pireneetako kultura zahar berezia, artzaintza gizartea bide gure herriaren izakerazko hezikuntza oinharritu zuen garaia.

T. Aranzadi, J. M. Barandiaran eta E. Eguren izan ziren gure mende honen lehen partean hontaz gehien estudiatu zutenek. Oraintsuago, J. Altuna, I. Barandiaran eta J. M. Apellaniz-en lanak (1) aurrerakuntza handiak ekarri dizkigute. Garai hura Neolitos alditik Burdina arora artekoa, aski zehatz ezagutzera heldu gara horien laneri esker.

Harri-aroko Madalen garaia azkenaldetikoak ditugu euskal endaren sustraiak, Cromagnon-etik euskaldun edo Atlantika-Pireneeta-

(1) Lan biltuma bezala argitaratuak ditugu: I. Barandiaran, *El Paleomesolítico del Pirineo occidental* (1967), hasierak agertuko dituena; J. M. Apellaniz, *Corpus de materiales* (1973), aipatzen dugun kulturaz hildoz hildo doana; eta J. Altuna, *Lehen Euskal Herria* (1975), zabalkunde lanez datorkiguna.

ko endara aurkitzen den zubi hortatik sortuak edo bereiziak, Urtiagako buruhezurrak lekuko. Zeren Eneolitos aroan aurkitutakoak gaurko euskaldunenak bezalakoak direnez gero.

Azil aldia amaitzerakoan, kultur banaketa edo etendura bat sortzen da Europako hegosarkaldeko eskualde askotan. Euskal Herrian, kultur berri horietatik zabalduena bezala, Tardenois agertzen zaigu. Mesolitos-ek material guti utzi zigun. Baina garai honetarako Neolitos kulturaren etorrerakin bizikera berria hasi zen. Ondoko Eneolitosetik Burdinorira arte hedatu eta sendotuko zena, bizibidetzat abelzaintza, nekazaritzaren hastapenak eta abar ekarriko zituzten garaiak. Harpeak bizilekutzat utzigabe, beste batzuk txaboletan bizitzen hasiko ziren eta hiri tipiak ere sortu zituzten.

Trikuharriak (dolmenak) egiten dituzten garaia da. Trikuharri hauek hilobitzat egiten zituzten monumentuak ziren. Gorputzak gordetzen diren kutxa landu gabeko harri zutinez egina da, lau edo alde gehiagozkoa, eta beste har-losa batez edo gehiagoz estalia. Kutxaren sarrerak sorkaldera begira agertzen dira eta guziak tumulo edo tontor batez bira guzian beteak, harriz edo harri ta lurrez, eta inoiz harrespilez inguratuak.

Euskal Herriaren hegoaldekoak toki menditsuko larradietakoak baino askoz handiagoak dira, Arabako Errioxa partean eta Nafarroa erdialdean aurkitzen direnak adibidez. Eta horietako batzuk sarbideak dituzte.

Hildakoak beren lanabes eta pitxiekin hobiratzen zituzten. Azterketan lurrontziak ere aurkitzen dira, eta material ederrik deskubritu da. Hauek, gure hiri nagusietako museoetan aurkitzen dira.

Dolmen hauen galtzeko harriskoa J. Altunak salatzen du bere liburuaren 158. orrialdean. Lehenagoko denboretan harriak etxegintzan edo txabolagintzan aprobetxatzeko eta orain bidegintzarako nabarmen-garri ondutzen ari zaizkigu aintzinako monumentu hauek. Altunak aipatzen dituenek gainera, Asuntzetako trikuharria, Eskoriatzan, arabarako mandabide zaharrak ebatzen du, eta duela lau-bost urte, Bergarako Elosun trikuharri eder bat, ezezaguna eta aztertu gabea, zeharo desegin zuten bertako materialez pista-berri baten zolaren betegarri. Konturatu ginanerako berandu zen.

Arabako Diputazioak, Kultur Kontsejuaren bidez, monumentu horiek hobeto gordetzeko erabakiak hartu ditu, inguruko lurrarekin jabetuz eta ongi ikus ahal izateko aukeran jarriaz. Gainerako Diputazioak ez ote dute beste horrenbeste egingo? Egin dezakeena kultura biderako bai da. Bestalde, guregana heldu dena ondorengoei utzi beharra dugu.

Guretzat garrantzitsua da garai horiek behar bezala ezagutzea. Izan ere, Eneolitos garai horretarako euskal hizkuntza sustraitua zen noski, eta bertako kulturaren lehen oinharrien ezaugarri bezala dugu.

Harrespilak (cromlechs) trikuharriak baino geroagokoak dira nonbait, Burdinori edo Burdina arokoak, eta zenbait tokitan Mairubaratzte deitzen zaienak. Inoiz har-losa zutiak inguratzen dute tumulo tontorra. Trikuharriak bezala, hilobiak dira hauek ere. Gipuzkoa eta Lapurdiko mugetatik, Goi-Nafarroa eta Baxe-Nabarre zehar Zuberoako mugetaraino aurkitzen dira harrespilarik gehienak. Ezterenzubiko Okabekoa dugu hauetatik aipagarriena.

Hauen inguruetan menhir antzeko oroitarriak ere aurkitzen dira. Hauen agernahia iluna bada ere, oroitarritzat jo dira.

Horiek ditugu Neolitos alditik Burdina garaira arte Atlantika-Pireneetako kultura bereziaren monumentuak.

El conocimiento de la vida cultural desarrollada desde el Neolítico en el Pirineo occidental o atlántico, es de sumo interés para introducir en el estudio sobre el pasado de nuestro pueblo, especialmente en esas épocas que transcurren desde el Neolítico a la Edad del Hierro porque, entre otras cosas, en las mismas se formó básicamente el idioma eúskaro.

Esta cultura, con gran apogeo en el período Eneolítico, era esencialmente pastoril con trashumancia fija en ciclos de las estaciones de verano e invierno. Tenía como centro geográfico el país vasco actual. El hombre habitaba las cuevas y las chozas, e incluso pequeños poblados. Puso interés en construir monumentos funerarios, dólmenes y cromlechs. El ajuar dolménico caracteriza y define la vida cultural autóctona. Los museos de nuestras capitales muestran gran parte de este material. Este material sin duda nos da una idea aproximada de las formas de vida del hombre en las épocas prehistóricas, pero para contemplar en su magnitud es necesario desplazarse al lugar de los dólmenes, al habitat de aquellos hombres.

Desde primeros de siglo se ha investigado muchísimo en este campo arqueológico; científicos del país y del extranjero mostraron gran interés. Es de destacar la labor sistemática llevada a cabo durante varios lustros por Aranzadi, Barandiarán y Eguren cuyos trabajos básicos han sido completados por sus seguidores: J. Altuna, I. Barandiarán y J. M. Apellániz, principalmente.

Altuna, en su obra de divulgación *Lehen Euskal Herria*, guía ilustrada de prehistoria vasca, se lamenta del abandono en que se hallan

estos monumentos megalíticos, que no son respetados en las repoblaciones forestales o al abrir las nuevas pistas de montaña, que ello ha acarreado que en muy pocos años se hayan destrozado varios monumentos. La Diputación de Alava, a través de su Consejo de Cultura, ha iniciado, acertadamente, la restauración y acondicionamiento para la conservación y al mismo tiempo para la contemplación del visitante. Nos congratularíamos si las demás provincias siguieran su ejemplo. Todo es factible. Es cuestión de proponernos.

1975-XI-17.

LAUBURUA

Euskaldunak badu ohiturak gordetzailearen fama. Inguruko beste herriak gorde ez dituzten gauzak ere guk kontserbatu omen ditugu. Behar bada, fama hau hizkuntzagatik datorkigu. Beste askorentzat foruegatik ere bai, baina guk foruak oso geureak genituen, bestek ez bezalakoak. Egia da hizkuntza gordetzeak, ahozko literaturaren bidez, mitologia zaharretik ere ba dugula kondaira zaharrik. Baina, izan ere, hala gertatzea zen normalena.

Geure gogora berezirik gorde dugunetako bat Lauburua dugu. Eta honi buruzko saiaerarik eta ikerketa ederrik ere egina da. Guziak iritzi berdinekoa ez badira ere, atzean gelditu ziren Labayruk Bizkaiko Historiaren lehen tomoan eman zituen usteak. Dirudienez, gauza bat dago argi: Lauburu izena erromatarren Lábaro-tik datorrela. Azkuek bere hiztegian dionez, Lauburu, fantasiatzko irudimenetik sortutako etimologia omen da. Hala dirudi; baina zer da bere izatez Lauburu hori?

Izena bera Lábarotik badator ere, gaur egun Lauburu bezala hedatua dugu Euskal Herri guzian, eta izen honekin ezagutzen duguna ezta erromatarren gauza bera. Enseña, ikur edo holako sigilu bat adiarazi nahi du, eta Erroman estandarte zen hura, hemen biraka mugitzen diren beso batzukin egiten den sinbolo hutsa da. Gehienez lau besokoa izaten da —eta behar bada hemendik hartua du gaurko izenaren ideia, Lábarokin nahastuko duena—, baina ez beti, zeren sinbolo bera bi, hiru, lau eta gehiagorekin ere aurkitzen bai da.

Bere jatorria ekialdean izan behar du. Induak “swástika” bezala ezagutzen zuten, nonbait sánskrito hizkuntza zaharretikakoa eta bere esan nahia, zorioneko sigilua omen. Europa erdialdean Neolitos garaiazen azkenalderako zabaldua zen. Lurrontzietan agertzen zaigu gehienbat. Danubio ibaiko kulturako zeramika ontzietan eta greko

kulturaren hastapenetan. Beocia-ko lurrezko irudia adibidez, J.K. baino VIII mende lehenagokoa. Hoiek lerro eta marra zuzenez eginak ziren. Euskal Herrian ere lehen lehengo zaharrak hala omen ziren. Dena dela, Euskal Herrikoetatik zaharrena Bizkaiko Meñakako hilarri-biribila izan daiteke, gehienez ustez burdinarokoa. Baina honek hiru beso besterik ez ditu. Elorrioko Arginetan dauden hilarriak bederatzigarren mendekoak dira, eta bertan bada bat lauburuduna, Meñakakoa bezala, beso biribilez. Baina elizatariko aterpearen abepean dago, itxuragabeko eran.

Espainiako eliza bisigotikoen apaingarrietan ere agertzen zaizkigu, Zamorako Campillo-koa eredugarri dela. Baina baita ere Kukullako San Millanen. Hauetan beso gehiagoaz agertzen bazaizkigu ere. San Millango "Beato"aren kodizean lauburuzko tetramorfos bat agertzen zaigu gainera. (Ikus, Uranga-Iñiguez Almech, "Arte Medieval Navarro", lehen tomoaren 14. ilustrazioa).

Keltekin Europa guzian zabaldu zen lerro zuzenez egiten zena, baina inguru honetan lerro biribilera jo zuen, bertako forma berezi bat hartuaz eta gure egunetara arte iraunaraziaz.

Nafarroako Santxo III.aren gudariak beren eskudoak lauburuz erabili zituzten, lau lerro biribilez, garai hartako kodizeetan agertzen denez. Hauetako zenbait irudi Fr. Justo Pérez de Urbel-ek argitaratu zituen Santxo Handiari buruzko biografian.

Erromanikoan ere tarteka marteka agertzen dira. Estibalziko atariaren kapitel batean aurkituko dugu beso askoko bat. Baina harrigarrietako bat Lizarrako Santakara-koa da, pertsonen oinekin eгина (Nafarroako Museoa gordetzen da).

Ph. Veyrin-en ustez, koma edo kakotx itxurazko atal batzuetatik dator. Hala agertu zuen Bergarako biltzar haietan (1930ean). Déchelette-ren ustez eguzkia bere birazko mugimenduan errepresentatu nahi du. Arrazoizkoa deritzagu Europan zabaldu zen garaia kontuan hartzen badugu, Neolitos ondorenean. Trikuharriak eta harripilak ere ekialdera begira daudela kontuan izaten badugu, zer ikusirik baduela esango genuke. Colas-ek, ordea, hilarri biribiletan maiz aurkitzen diren tresneriak kontuan izanik, hilobiratuaren lanabesak direnez gero, eta Santakarakoa kontuan harturik antropomorfoztat jotzea ere posible omen da.

Guzien gain Déchelette-ren usteetara hurbilduko nintzake. Euskal Herriko sineskera zaharretan jasotzen da Ekainean San Juan egunaren irteran eguzkia biraka agertzen dela (inoiz, dantzan ere esan ohi da). Muskildiko (Zuberoa) eliza erromanikoaren ateburuan ilargia eta eguzkia ikusten dira. Eguzkia ezta lerro biribil bat baizik. Baina era berean, Donibane Garaziko etxe baten ateburuan lauburua eta ilargia.



Bidangozeko ateburua. (Erronkari).

Dena dela, Lauburuak bere sinbolo sentzua galdu zuen, baina ez ordea dekoraziozkoa, eta “swástika” biribildu hau, hemendik kanpora hain urri dena, hemen ugari aurkituko dugu; hilarrietan bezala, etxeen ateburuetan, lehioburuetan, altzarrietan (batez ere kutxetan), argizaiioletan, eta abar.

Donostian bertan Parte Zaharreko kalerik zaharrenean (31 de Agosto), bi balkoitan burdinaz landuak. Luis XV.aren estiloz daudenez hamazortzigarren mendekoak izan daitezke.

Asko idatzi da gai hontaz. M. de Angiozar, P. Garmendia eta B. Estornés Lasak azken aldi hontan. Garmendiak “Anuario de Eusko-Folklore”ren XIV.go (1934) tomoan erudizioz beterik eta geroztiko azterketez horniturik B. E. Lasak “Orígenes de los Vascos” liburuaren lehen tomoan. Biok dakarte Th. Wilson-en mapa, munduan “swástika”k duen hedadura agertzen duena.

Inork zalantzarik ez duena, zera da, hemen lerro biribildunak hartu zuen berezitasuna eta nortasuna. Eta, dirudienez, hamaseigarren mendetik hemeretzira bitartean euskaraz egiten zen herrietan maizago

azaltzen da, batez ere ifarraldean. Gipuzkoan eta Bizkaian kutxetatik aparte ez askorik.

La swástica conocida en el país por “Lauburu” se encuentra con profusión en toda la geografía, particularmente en la zona que ha conservado el idioma, como ocurre con otras manifestaciones del arte popular. En cuanto a su origen es difícil formular una opinión exacta.

Hizo su aparición en la Europa central a finales de la era Neolítica, particularmente en la ornamentación de las cerámicas, y es muy posible que tenga su origen en oriente, pues de Asia se extendió a la América precolombina a través del estrecho de Behring.

El nombre de Lauburu parece ser tomado del Lábaro romano, derivado por asociación con la swástica de cuatro brazos. Sin embargo, en el País Vasco y en las dos vertientes de los Pirineos estaba difundido en época anterior a la romana. La rectilínea parece ser anterior, pero la curvilínea es la que tomó carta de naturaleza en el país.

El nombre de swástica es indio y parece derivar de la antigua lengua sánscrita y que significa símbolo de buen agüero. A ello no se contradice, por la época en que hizo su aparición en Europa, el significado emitido por Déchelette: el emblema del sol en movimiento. Téngase en cuenta que las orientaciones de los monumentos megalíticos están relacionadas con el astro solar, y el lauburu aparece generalmente en la ornamentación popular asociado a otros signos astrológicos.

1976-IX-20.

ERNIO

Ernio, Gipuzkoaren bihotzean dugun mendi gailurra da, itsasotik alturaz 1.063 metro ditu. Bere gailurra guretzeh bete du, inguruko herriak, batez ere itsasaldekoak sineskera zaharreri jarraituaz eskainiak. 1941ean, gaztetxo nintzala heldu nintzen lehen aldiz gailur hopetara, bertako erromeria egun batez, eta liluraturik gelditu nintzen jarraitzen ziren ohiturak ikusiaz.

Ernion, aintzinako misterioz kutsaturiko ohiturok oraindik irauten dute, eta bertako erromeria nagusia abuztuaren 29an izaten da, San Juan

txiki egunez eta ondoko igandeetan ere jarraitzen dute, iraileko azken igandera arte.

Ernio gailurra luze zabaltzen da sorkaldetik sarkaldera, Tolosa aldetik Azepeiti aldera. Hegoaldetik Albiztur, Bidania eta Erretzil ditu herririk hurbilenak eta ifarraldetik Alkiza, Asteasu eta Aia.

Erromesak, herri horietatik eta urrutiagotik ere agertzen dira, esku batean makila eta bestean argizari bilduma eta kolorezko zintak girgil zintzilik. Goizean goiztik jendetza handiak agertzen dira alde guzietatik mendiz gora. Ez dute heltzeko ordu jakinik, baina bai leku jakina, Ernio gailurra.

Erromeria honen azterketa sakonenak nere adiskide Luis Pedro Peña Santiagok egin ditu, eta zenbait lanetan azaldu ere bai. Zehatz ezagutu nahi duenek bere lanetara jo beharko du, eta hauetan osatuenak *Guipúzcoa. El último camino* (1970) liburuaren 141 orrialdean eta *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* (1973) delakoaren 167garren orrialdean. Nik ez dut esango berak esandakotik ezer gehiago, ezta ere berak esaten duen haina. Lan aski luzeak bai dira.

Erromesik gehienak Zelatungo bizkarretik bide berbera jarraitzen dute. Eta Zelatun baino goratxoagotik gurutz-bidea hasten da, otoiitez. Gailurrera heltzeaz, bakoitzak bere herriko edo elkarteko gurutzara jotzen du, han argizaria pizteko, gurutzaren biran kolorezko zintak pasatzeko, edo han bertan zintok zintzilik uzteko, gurutzaren aurrean belaunikaturik errezuak egiteko. Batzuk, gurutz-bidea bukatzen duten harrizko gurutza handi batean egingo dituzte ohiturazko zeremonia horiek. Eta zaharragoak (gazteak ez hain beste), gurutzaren besoetatik zintzilik dauden burdinazko ustaiak beren gorputzetik pasatuko dituzte. Erreumak sendatzeko omen da.

Apaizik gabeko zeremoniak izaten dira. Agirre Asteasukoak ez zuen gogoko erromeria hau, *Erakusaldiak* liburuan agertzen duenez. Liburu hau 1850ean argitaratu zen (hiru tomotan), baina egilea 1823an hila zen. Bigarren tomoko 37 eta 335 orrialdeetan aipatzen du Ernio erromeria, eta hirugarren tomoko 552. orrialdean Tolosako ihauteriekin konparatzen du.

Erromeria egun horietan, Iturriotz da erromes askok goruntzean edo beheruntzkoan jotzen duten puntu jakin bat. Eta bertako San Juan iturriko urak ere badute zer ikusirik. Azaleko gaitzak sendatzen omen ditu. Gainera, Iturriotzgo San Juanen, ekainaren 24an ere erromeria izaten da.

Lotura hauek Ernio misterioa sakonagotzen dute. Inork ez daki erromeriaren jatorriaren berri. Baina Luis Pedro Peña-ren iritziz, oso aspaldiko ohitura da eta behar bada, eguzkia, ura eta suaren ohiturak



Ernio gailurra.

nahasten direnez, Neolitos garaitik edo datorzke. Honela izatera, aztarnarik zaharrenak aurkitu nituen 1963 Zاراingo ordekan eta 1966an Otagainen trikuharriak (dolmenak) deskubritzeaz. Toki biok Ernio mendiaren barna daude. Beren berriak *Munibe*-n (1965) eta *Pyrenaica*-n (1966) eman nituen.

Gainera, Iturriotzgo urak, gaixoak sendatzeko direla, Isastik jartzen zuen *Compendio Historial* (1625) liburuan. Larramendik ordea, 1754an, urok sarna sendatzeko onak zirela esan zuen.

Misterioz beteriko ohitura hauetatik kondairarik harrigarrienak sortzea ezta mirestekoa. Eta XVI-XVIIgarren mendeetatik dator euskaldunek erromatarrekin izan zituzten guduak kondaira sortzea, denbora joanez gudu izugarri bihurtuko zirenak. Honek ere, lehen batean bere zentzuna zuen, zeren Mendikute eta Intxur azternategietan erromatarren aurretiko agiriak bilatu bai dira. Toki hauek ere Ernioaren hegaletan daude.

Nonbait, hortik eta erromatarren testuak gaizki irakurtzetik sortu ziren usteak. Baltasar Etxabek *Discursos de la Antigüedad* (1607) liburuan. Zaldibia Batxillerrak 1560rako gai hau idatzia zuen bere *Suma*

de las cosas cantábricas-en, baina gure egunok arte argitaratzeko jarraitu du. Dena dela, historiagile serioak ez zioten jaramon askorik egin. Gure Iztuetak ordea, *Gipuzkoako probintziaren kondaira* (1847) liburuaren 261. orrialdetik puzten du. Iztueta berak, lehenago, *Gipuzkoako dantzak* (1824) liburuaren akaberan guduari buruzko bertso pila bat argitaratu zuen, atzo goizeko gerra izan balitz bezala. Zehatz kontatu ere gudu haren gora beherak. Ondotik, Juan V. Arakistainek *Tradiciones Vasco-Cántabras*-en (1866) kapitulu oso bat eskaini zionetik ez da erraz euskaldunen buruetatik kentzea. Azkenean Txirritak ere parte hartu zuen edo bertso borobilik bete zuen. Ikus *Txirritaren bertsoak* lehen tomoaren 127/133 orrialdeak.

Baina garai hartan erromatarrek idazten zutenek, ez ziguten hemen esaten denetakorik utzi. Adolf Schulten-ek ordea, gai hori sakon estudiatu zuenez, Santander eta Burgos alderago jotzen du Kantabriako guduketa. Ikus, Schulten-en lana, *Los cántabros y astures y su guerra con Roma* (1962). Eta, oraingoz, aurkimen hoberik ez dugunez, Ignazio Barandiaranen *Guipúzcoa en la Edad Antigua* (1973) liburuko agiri zehatz bezain zentzuzkoekin geldituko gara.

Baina, hala holako kondaira horiek ez dute iluntzen erromeriaren ederra. Honen sustraiak herriaren folklore zaharretikoak direnez. Eta aurten ere milakak igoko dira Ernio gailurrera, jendez eta zintaz ohitura zaharrari bere kolorea emateko.

El monte Ernio, con su cumbre llena de cruces votivas, radica en el centro geográfico de Guipúzcoa y conserva una de las romerías más bellas y antiguas de la provincia.

El 29 de agosto, festividad de la Degollación de San Juan Bautista es la fecha más señalada, pero las romerías continúan los siguientes domingos hasta el último de septiembre.

Luis Pedro Peña Santiago que ha estudiado las costumbres de la romería y todo lo que concierne a la misma, ha publicado varios trabajos que son condensados en sus obras *Guipúzcoa. El último camino* y *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa*.

Los romeros llevan cintas de colores y rollos de cera; en el último tramo del itinerario forman Vía Crucis y al llegar a la cumbre pasan las cintas por las cruces, encienden la cera y oran junto a la cruz. No hay intervención de sacerdotes en esta ceremonia que se considera profana. Juan Bautista Aguirre, párroco de Asteasu, escritor fallecido para 1823, en su libro *Eracusaldiac* condenaba a los asistentes a la romería de Ernio.

Pero la romería con sus rituales se mantiene profundamente enraizada en el pueblo.

Debe ser independiente la leyenda creada entre los siglos XVI y XVII en torno a la guerra vasco-cántabra contra los romanos en el monte Ernio. Los historiadores solventes nunca lo tomaron en serio. Y actualmente queda rotundamente descartada tras las investigaciones de Schulten, que desplaza los sucesos hacia el occidente cantábrico.

Los ritos del fuego, del agua, en torno a la fuente de Iturrioz, etc. hacen pensar en reminiscencias de una tradición solsticial.

1975-VIII-25.

IHIZARI BELTZA

Euskal Herriak, edozein herrik bezala, nekazaritza girotik industria girorako aldakuntzan, gizartearen moldaerazko parte asko, bere egituran sustraiturik zeudenak uzten ditu era berrikoen trukez. Noizbait ohitura bihurtu ziren era askoren jatorria, lehen batean ber bertakoa ez bazen ere denborarekin bertaratu zen. Nekazari aroak epe luzea izan du herbestetik zetorrena nortasunari iraunaraziaz bertako bizi moldeetara hartzeko. Baina industria munduak, bere ekintzan, abiada azkarragoa darama datorren guztia (edo behar den guztia), herri bati nortasun jatorra ematen diona, nortasun honi ikutu gabe hartzeko. Eta, aurrerapena, uko ezinezko lege naturala da.

Hizkuntza zaharrak berakin gorde ditu ehundaka urteetako kontairak, *dударik gabe inguruko herriak baino hobeto. Inguruko herriak, hizkuntzarekin batean kondairarik anitz galdu dutenez, naiz eta gu baino lehenago literaturagintzari emanak izan, eta literaturaren bidez kondaira asko betiko jasoak izan. Hala ere, gure herrian, euskara zaharrari loturik sustrato zaharragoko sineste, ipui eta kondairak aurkituko ditugu. Hemendik gure herriaren ahozko literatura aberatsa.*

Ihiza garaian gaudenez, eta ihiza edo eiza bere sustraiz nekazaritza aroa baino lehenagokoa dugunez, bertara loturik ezagutzen ditugun kondairak ere posible da zaharragoak izatea. Hauetako bat da Ihizari beltzarena, ohitura aldaketak hain azkarrak izan ez balitza udazkenez asko entzungo zena.

Euskal Herri guztian hedatua dagoen kondaira honek, tokian tokiko izena du. Goiherin Mateo-txistu, Lenitz partean Martin abade,

Usurbilen Prixi-Juan, Oihartzunen Salomon apaiza, Soraluze eta Eibar inguruetan Juanito Txistularixa, Dohoztirin (Baxe-Nabarre) Errege Xalomon, eta Bizkai aldean Juaniko Txistulari eta Abade-txakurra. Izenak hainbeste dituelarik, kondairaren argudioak aldaketa tipiak ditu. Alde batetik bestera antzera agertzen zaigu. Bertako aldaketa horiek ikusi nahi dituenak begira beza J.M. Barandiaranen *Obras completas*-en lehen tomoaren 77, 169 eta 204 orrialdeak.

Kondaira hau Ladislao de Velasco arabarrak idatzi zuen lehenbizi, 1879an. J. Iturralde y Suit-ek *Euskara* aldizkarian jaso zuen 1882an, hedakundearen berriak gehituaz, Eiztari-beltza izenez.

Baina azterketarik sakonenak egin dituen J. Caro Baroja izan da, bere *Algunos mitos españoles y otros ensayos* liburuan.

Ihizariaren ipuia, Juanito txistularixa izenez, udazken garai honetan entzuten zen gure haurtzaroan oraindik. Gauez, haizeak txistuka basterrak barreiatzen zituenean, ekaitz itxurak hartuaz, ihizaria bere zakurrekin igarotzen omen zen, erbiaren atzetik, baina inoiz arrapatuko ez zuen erbia. Zeren, kondairak dionez, ba omen zen apaiz bat, apaizez gainera ihiza zale borrokatua zena. Bein, meza ematen ari zelarik, kanpoan bere zakurrak somatu omen zituen, zaunkaz, erbiren baten atzetik, eta apaiz ihizaria, berekikoan egonezinez, soineko ornamentuak kentzeko ere betarik gabe, meza bertanbera utziaz, elizatik atera eta zakurren atzetik eskopetarekin lasterka hasi zen. Geroztik hor dabil nonbait Ihizari beltza edo Mateo txistu, munduz mundu ibili eta ibili, behin ere gelditzen ez dela. Honegatik, guregana hurbiltzen denean, bere txistu hotsa eta zakurren zaunkak entzuten ditugu. Eta Ihizari beltzak bere atsetik ekaitza uzten du. Eternitate guztirako munduz mundu noraezean ibiltzera kondenatua omen da.

Antzerako argudioak ditu Euskal Herriaren zabaleran. Iturralde y Suit-ek Kataluñako *Lo mal cassador*-ekin konparatzen zuen. Baina J. Caro Barojaren ikerketak haruntzago doaz. Ifarraldeko Odin eta germanoen Wodan (Wotan) pertsonaje mitologikoen kideko aurkitzen du. Inork ezin lezake esan Wodan-en kondaira eta Mateo Txisturena ber bera direnik, baina aski lotua dago ihizari beltzarenakin. Ez meza ematen, baina bai meza entzuten zegoala Ofizio Santuak utzita, eskopetaz armaturik, erbiaren atzetik abiatu zenarenakin.

Zenbait pundutan nahastuak aurkituarren, sustrai zaharrez ideia berekoak edo sineste berekoak dira kondaira oinharriz. Ez Frantsia edo inguruko herriari euskaldunok hartua, baizik, Euskal Herriko beste zenbait mitokin gertatzen den bezala, indoeuropeartzat jotzen diren horietakoa dugu. Seguru asko gure hizkuntza zaharra izan dalako mendeak zehar mitologia zaharragoen eusle.

Kondaira hau Alemanian eta Frantsian oso zabaldua dago eta ikertzaile batzuentzat astronomiako sinbolu edo jainkokia da.

J. Caro Barojak dionez, posible omen da kondaira honek Logroñoko hauzian, 1610ean, Maria Zozaya sorginak deklaratu zuenakin zer ikusirik izatea. Errenderiako apaiz ihizaria tentatzeko bere burua erbi bihurtzen zuela. Eta herrian ezagutzen zuen kondairatik asmatua izan zitekean.

Bizi-moldeak aldatzen diren neurri berean honako kondaira hauek ere galduaz doaz, bestela, urte-aro honetan, Euskal Herriko subazterretan oroituko zen Ihizari beltzaren ibilia, txistu eta zaunka hotsez, ekaitz gauetan. Barandiaran eta Azkueren bilketak, zori onez garaiz heldu dira arbasoegandik gizaldirik gizaldi jaso idatziz historiaren osagarri uzten zaigulako.

Desde esta época del año hasta bien entrado el invierno, era muy frecuente narrar la leyenda del cazador errante durante las noches de fuerte viento con presagios de tempestad.

Con pequeñas variantes en su narrativa pero con distintos nombres se ha conocido en toda la extensión del país: Ihizari beltza, Eiztari, Salomon errege, Salomon apaiza, Mateo Txistu, Juaniko Txistu, Juanito txistularixa, Martin abade, Erregen txakurra, Abade txakurra, etc. Son la misma leyenda con distinto nombre, que J. Caro Baroja relaciona con el mito de Odin de los nórdicos y de Wodan de los germanos, alterado por la distancia y el tiempo.

Según la versión recogida por Azkue en Amezketa, Mateo Txistu era sacerdote y además cazador. En cierta ocasión, estando él celebrando misa, los perros traían una liebre por delante y cuando tenían que pasar por junto a la iglesia el sacerdote cazador oyó sus ladridos y, sin tiempo ni para quitarse los ornamentos que tenía puestos, salió de la iglesia y empezó a correr tras los perros. Desde entonces, ahí, en alguna parte, anda Mateo Silbo, siempre andando, sin detenerse ni siquiera una vez.

En otras versiones no es el sacerdote, sino un cazador oyente quien abandona la misa durante los Santos Oficios. Sobre sus variantes ved las *Obras completas*, de J. M. de Barandiarán, tomo primero, páginas 77, 169 y 204. En Francia se conoce por "le chasseur noir", que en opinión de Caro Baroja debe ser posterior. Pues el cazador o el cazador negro (= "eiztari beltza") es, de las recogidas en el país, la más antigua y tenemos derecho a considerarla muy arcaica y no tomada a los pueblos franceses

de alrededor porque en el folklore vasco se encuentran otros curiosos casos de paralelismo con viejísimas ideas y mitos reputados como indoeuropeos.

La supervivencia de nuestra lengua eúskara ha servido de vehículo portador del antiguo mundo cultural, y nos ayuda a la investigación de las creencias del pasado.

1975-IX-29.

“ORE-KANPAIA”

Kanpaiak, gure herriko sineskerietan ez dute izan toki askorik, J.M. Barandiaranek agertua duen bezala (*Obras completas*, tomo II, 213garren orrialdean). Baina gure bizitzako ohituretan garrantzi handia izan dute kanpaiak.

Industrializatze handien mende honetan, beste ohitura asko bezala, galduaz badatoz ere, kanpai hotsen inguruan bildu izan ditu herriak bere bizitza taupada nagusiak. Gure elizetako kanpai hotsak Euskal Herriaren bihotz daupadak izan balira bezala.

Kanpai hotsaren deira egiten ziren herrietan urteko bilera irekiak, herriak heuren legepean eratzen ziren garai haietan. Baina bestelako azalpenetan ere agertu dira herriaren arnas-hotsa balira bezala. Herriaren minak, pozak eta negarrak eraman dituzte herrietako kanpaiak: egun-sentian, eguerdian, iluntzean, jai besperetan, hiltzeko orduan... Denak, bakoitza bere aukerako soinu berezi batez aditzera ematen zigutelarik. Ez dakigu hainbeste eratako doinu hotsak asmatu zituzten musikalariai nortzuk ziren, herria bera izan ezik. Egilearen berri zihurrik ez dugu, baina guziok aditzen genuen soinu bakoitzak adiarazi nahi zuena.

Nornahik lehen aldiz entzun orduko igarriko lioke, beren doinu eta konpasetatik, noiz den jaia, noiz errezuetarako deia, edo erre igarriko norbait hasken arnasetako agonian dagoela, naiz haurra edo naiz adinekoa, beren soinu jakinekoak zituztenez. *Oren guziak dute gizona kolpatzen / Azkenekoak du hobira igortzen*, irakurtzen da Sarako kanpantorrean.

Sukanpaiak oraindik herririk gehienetan erabiltzen dira, baina Plaentzian urte gutxira artean erabili da “Ore-kanpaia” (Odei-kanpaia), ekaitza datorrenean dei egiteko. “Ore-kanpaia”ren inguruko ohiturak eta

esanak, hamabosten bat urte Soraluzen F. Abarrategiri esker jaso genituen bezala emango ditugu.

Maiatzeko Santa Kurutz egunetik Iraileko Santa Kurutzetara, gure hauzoko Plaentzian, ohitura zahar gogoangarri bat zuten, ekaitza hurbiltzen zela ikustean aditzera emateko: “Ore-kanpaia”z ezagutzen zena. Gainera, ohitura horri eusteko, inguruetako basarriak urteko hainbesteko bat izendatua zuten, arduraduna ordaintzeko.

Maiatzaren hasieran eta Irailaren amaieran, Santa Kurutz bi egunetan, eguerdiko hamabi-hamabietan, parrokiako kanpaiak jotake iharduntzen ziren lau aldeetara durunda hotsak zabalduaz. Aintzina-aintzinatik ohitura zen bezala Arteta baserriko oinordezkoa zen San Andres ermitatxoaren zaintzaile eta bere gain zegoan ekaitza urreratzen zenean Plaentziako herriari aditzera ematea.

San Andres ermitatxo hori, muino baten gainean dago herri langilea bere bendea hartzen duelarik. Odei beltzak herriruntz zetoztenean, euri gogor edo txingor (kaskabar) zaparrada zekarren itxurazkoa, Arteta-koak berekiko eritiz, soro eta baratzetan izan leizken kalteegatik, ikusten zuen kanpaia jo ala ez. Baiezkoa bazen, kanpai jotzeari helduko zion. Eta plaentziarrak hizkera bereziz ezagutzen zuten bere esan nahia eta ondorean herrian bertan hasiko zirena. San Andreskoak, soinu bizkorrez: *Han, han, han...!*; eta, lasterrera, parrokiako kanpai handia hasiko zitzaion, polikiago baina draungada sakonez, galdezka: *Nun-da, nun-da, nun-da...?*; berengana elkartzen omen zan mojen komentukoa ere, jotze azkarrago batekin erantzaunez: *Teilla-tuan, teilla-tuan, teilla-tuan...!* Esaten dutenez, aintzinago batean —baina ez omen dira oroitzen orain bizi diren zaharrenak ere—, hiruko horri elkartzen omen zitzaion San Marzial ermitakoa ere.

Heuren deira, baserriarrak etxeratzen ziren, abereak ukuiloratzen zituzten; eta ekaitza gogorra baldin bazen, tximinietatik zintzilirik izaten zuten gurutza zaharren ondoan kandela pizten zuten, soroak eta baratzak gordetzeko Jaunari erregutuaz.

Etxeetatik urrun aurkitzen zirenak, “Ore-kanpaia” entzutean, txarrerako joera erizten bazitzaien, beren tresna edo lanabesak artuta hurbilen zuten txabolaren batera jotzen zuten. Beste horrenbeste egingo zuten mendian zebiltzan unaiak eta artzaiak, ahal zelarik taldeak eramanez. Bestalde, hauzoetako apaizak, eliz-liburuak eskuetan, Jainkoari errezuetan hasiko ziren.

Une horretan bazter guziak isiltzen ziren, ximisten argia eta trumoi hotsak nabari zirela. Egualdia geroago eta ilunago jartzen zen, eguna gauaren antzera bihurtu arte, oiñaztuak suzko briztadaz ukuiluko abereak beldurtzeraino eta trumoi hotsak etxeeri dar-dar eragin arte. Une

horiek igaro ondorean, "Ore-kanpaia" isiltzen zen eta ekaitza poliki-poliki urrunduz joaten zen. Baserria lehengo bizitzara lotuko zen, lanari iharraituz.

Hau zen Soraluzeko "Ore-kanpaia" k bere inguru zuen ohitura. Udara partean bakarrik egiten zen; neguan ez baizen izaten ekaitzaren beldurrik, soroetan zer galdurik ez zegoelako.

Gaur egun, Plaentzia herri industriadun hutsa da, eta baserriar jatorrizko ohiturak zeharo galtzen ari da.

Las campanas han ejercido un importante cometido en la vida rural. En torno a las señales de las mismas han transcurrido los principales aspectos de vida cotidiana agrícola. Todo hecho importante, tanto para compartir las alegrías como para las tristezas, desde el repicar bullicioso para anunciar las fiestas del pueblo o para notificar la trágica muerte, como reza en las inscripciones de los campanarios de Sare y Urrugne.

En el régimen foral, los municipios convocaban el Concejo abierto a campana tañida para reunir en asamblea a todo el vecindario.

En nuestros días casi todos los pueblos mantienen en vigor el toque a fuego, pero la ascendente industrialización paulatinamente ha ido eliminando el uso de las campanas.

Nuestro país, con respecto a otros, es pobre en creencias relacionadas con las campanas, como asegura J. M. de Barandiarán. Pero sí es rico en manifestaciones de costumbres; y dedicamos nuestro artículo a una tradición muy particular que se ha mantenido en Placencia de las Armas hasta nuestros días.

En el texto euskérico hacemos una descripción general de las peculiaridades en torno a la campana a tormenta, "Ore-kanpaia". Costumbre recogida hace tan sólo unos quince años y del que queremos dejar constancia.

En Placencia, en época estival, cuando los campos están rebosantes de cosechas aún sin recoger, concretamente entre las fechas de Santa Cruz de mayo y de septiembre, el mayorazgo del caserío Arteta que cuida de la ermita de San Andrés, permanecía atento a posibles tormentas. Incluso contaba con una asignación para esta ocupación, procedente de una cuota anual de todos los caseríos. Cuando el cielo se cargaba presagiando tormenta, anunciaba a volteo de campana desde San Andrés, a cuyo sonido se le distinguía en el vocabulario popular, con: *Han, han, han...!* (Allá, allá, allá...); y seguidamente le acompañaban las de la torre parroquial, que preguntaban: *Nun-da...?* (¿Dónde está...?); al dúo se les

unían los finos sonidos del convento de monjas, respondiendo: *Teilla-tuan...* (En el tejado...). Los labradores se retiraban a sus casas, los pastores a sus cabañas, procurando llevar sus ganados. Si la tormenta era fuerte y persistente, junto a la cruz de la chimenea del hogar encendían una vela y se ponían a rezar, implorando al Señor para preservarles de daños en sus haciendas. Los sacerdotes hacían otro tanto con el breviario en las manos. Descargada la tormenta y retornando a la calma, en el caserío se recobraba el ritmo de la vida en el normal ajeteo de las labores cotidianas.

Actualmente, Placencia, es eminentemente industrial. O, mejor dicho, ha sido desde hace ya muchos años. Pero los caseríos se mantenían. La mecanización de las tierras no ha ido con los terrenos accidentados de la antigua Soraluze. Los caseríos se van abandonando y con ellos la mayoría de sus costumbres tradicionales.

1973-VII-16.

GAZTAIÑERRE EGUNA

Industriagintzak aurrera doazen neurrian galduaz doaz nekazari-tzako ohiturak; baina, hala ere, badira gauza batzuk industria hirietan ere irautzen dutenak, eta hoietako bat dugu Gaztaiñerre eguna. Egun hau, Ermua, Eibar eta Plaentzian Arimen egunetik bigarren astelenean ospatzen da.

Urtetxoek dira Gaztaiñerre egun jatorrari buruzko zalantzak eta eztabaidak ezagutu nituela. Batzuen ustez Domunun Santu egunetik bigarren astelena behar zuen izan eta beste batzuen ustez Arimen egunetik urrengo astelena, eta baita ere baziren Arimen egunetik hirugarren astelena zala ustea zutenek ere. Jan-edan zaleentzat hain da egun ona, baziren astelen bietan behar zela esaten zutenetarik ere, eta Guruzeta korresposalarentzat, duda hoiek kontuan harturik, azaroko astelen guzietan ospatu behar zen.

Iritziak iritzi, Arimen egunetik bigarren astelenean ospatzen da.

Egun honetan, aintzina familiak etxean ospatzen zuten, inoiz familia bat baino gehiago bilduaz; baina aspaldiko urteetan lagunarteko afari-meriendak izaten dira. Afari-merienda hoiek herriko tabernetan edo inguruko hauzoetako bentetan egiten dira. Afari hau goizago xamar hasten da eta lehenbiziko eta plato nagusizat marrazkilloak saltsan,

txorizo erria (batzuetan bakaillaua kazuelan edo potajia ere izaten da, baina oso gutxitan), baina azkenez gaztaiña erreak. Eta hemendik datorkio izena. Afari-merienda alaia, afalondoko mahi inguru luzez, ipuiak, kankak, zirikadak... eta dantza. Urte batzuetan Astelena frontoian ere antolatatu zen dantza, baina erori zen. Gehienetan lagun artean ospatzen den jaia da, eta oraintsura arte gizonezkoak soilik ospatzen zuten.

Jai honi buruzko berri asko ematen ditu L. P. Peña Santiagok *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* liburuan. Ikus 133/137 orrialdeak.

Gaztaiñerreak zergatik? Gaur gure basoetan gaztaiñondorik guti bada ere, aspaldi batean ugaria zen arbola mota hau eta urtearen garai honetan jakirik ugariena eta merkeena zen gaztaina. Uste dugu aintzina batean orain bertan baino hedakunde handiagoa izango zuela afari-meriendaz egiten den jai honek eta garaiko frutu hau zen errazen aurkitu zezaketena hainbeste taldek edo hainbeste familiak egun berean beharrezko zuten janarizat.

Gure *Castanea vesca*-ren laudorioak Munita zenaren liburuan aurkituko ditugu, gaztainadi eta bere frutua, aintzinatik negu parteko postreotariko bat izan dena. Orixek bere poemaren parte bat eskaintzen dio Gaztainaro aldiari eta bertan ederki esango digu: “Danboliñeko gaztaiñik ez ba duzu jan, isil gazteiñez”.

Hemen esan ohi denez, hileta ondoko “onrra-jana” bezalatsu da Gaztainerre. Horregatik egiten da Domunu Santu eta Arimen egunaren ondorean.

Euskal Herriko dolmenak Neolitos garaitik, ekialdera begira dauden hilobiak dira, eta zuloa ere izaten zuten alde hortara begira, argia sar zedin. Eta hobiaren gain partean janari hondarrak aurkitu izan dira. Nonbait, ordurako hasia zen hildakoei argia eta janaria eskaintzeko ohitura.

Oraindik orain ere gure elizetan argiarena egiten da, baina janariena galdu da. Esate baterako, Arakilen (Nafarroa), norbait hiltzen zenean, bazkaitara joan nahi duenak opila ta argi bat eta lau zortziko (dirua) eramane behar zituen; Azkuek *Euskalerraren Yakintza* liburuan dienez. Bazkaitara horrela norpere burua komitatze hau zenbait tokitan oraindik egiten den “onrra-jana” bezalakoa da. Hildakoaren ohoretan egiten zen bazkari hau baino lehenagokoa dugu hilari berari janaria eramatea. Azkuek, aipatutako lan horretan dakarrenez, Elorrioko elizan hobi gaineetan ezartzen omen ziren olatak (oblatas), han ehortzirik zeuden hilak jan zezaten. Hasi Bizkaiko Kortezubitik eta Gipuzkoako Berasterira arte aurkitu izan ditu J. M. Barandiaranek holako olata eskaintza

hauek *Obras completas*-en lehen tomoko 190/192 orrialdeetan agertzen denez.

Hileta ondoreko bazkariak Orixe berak ere aipatzen ditu *Euskaldunak* poemaren azken partean, hilkizunari buruz ari delarik. Berri zehatzik ematen digute W. A. Douglass-ek *Muerte en Muréлага* liburuaren 58 eta 64 orrialdeetan. Bestalde, Domunu Santu egunean bertan, hobi gainean ogia jartzeko ohitura ere bazen, Douglass-ek 85. orrialdean aipatzen duen bezala. Eta A. Arrindaren *Euskalerría eta eriotza* delako liburuan ere holakorik bada, anitz maiztasunez gainera, hileri argia eta olatea jartzeaz. Eta heriotza ondorengo bazkariak ere ikus asken liburu honen 138. orrialdea.

Argia eta ogia ez ezik, garia sakuka eta idia ere eramaten ziren elizara, Antonio Maria Zabala azkoitiarrak 1781ean idatzirik utzi zigunari jaramon egiten badiogu. Ikus RIEV, XIV (1923), 572/587.

Bere sustraitetan udazkenez egiten ziren ospaketen hondarkinak izan daitezke, James George Frazer-ek 1890ean erlijio eta magiari buruz idatzi zuenarekin konparaketak egiten baldin baditugu.

Ermua, Eibar eta Plaentzia herrietako nekazarien artean, eta baita ere Durangaldekoen artean, oraindik bizi irauntzen du hileta ondorengo "onrra-janak". Zaharrak diotenagatik, ohitura hau kontuan harturik eta eman ditugun adibide horiek era orokarrez begiraturik, uste dut aski argi dagoela Gaztaiñerre egunaren jatorria. Hau da, hileta bakoitzean egiten den "onrra-janaren" araura, Domunu Santu eta Arimen egunak haintzat harturik, urtean behingo anaitasunezko otordua egitea hildako guzien oroiz.

Baina nondikakoaren oroitza bera galdua bada ere, afaria nahiz afari-merienda egiteko ohitura indartsu gordetzen da, eta era guzietako eibartarrei, berdin ermuar edo plaentziarrei, lagun artean anaikiro har-emanetarako besterik ez bada ere, on zaie Gaztaiñerre eguneko otordua.

A medida que se han desarrollado los núcleos industriales ha ido decayendo la vida rural de nuestros pueblos con sus tradiciones culturales. De entre las herencias recibidas de ésta se mantiene aún hoy la costumbre de "Gaztaiñerre eguna" en la cuenca central y baja del Deva guipuzcoano.

"Gaztaiñerre" es un reducto de una costumbre probablemente derivado del "onrra-jana" o ágape de funeral, que estaba muy extendido en el país, como podemos ver de las recopilaciones de Azkue y

Barandiarán, y más recientemente en los estudios sobre la muerte de Douglass y Arrinda.

Concretamente del “Gaztaiñerre eguna”, celebración anual del segundo lunes siguiente al día de Todos los Santos y del día de las Animas, se ha ocupado L. P. Peña Santiago en su obra *Fiestras tradicionales y romerías de Guipúzcoa*, páginas 133/137. La tradición consiste en una cena o cena-merienda (afari-merienda), que antaño se celebraba agrupando familias en casas y que en nuestros días celebran en restaurantes, tabernas y ventas las distintas cuadrillas y grupos de amigos. El menú básico lo forman los caracoles en salsa, chorizo y castañas asadas. De aquí el nombre de “Gaztaiñerre eguna” (día de las castañas asadas).

Estas cenas reuniones son casi exclusivamente de hombres. En su origen puede ser una de las festividades del ciclo equinoccial tratado por J. G. Frazer en su obra *La Rama Dorada*. El hecho es que Ermua, Eibar y Placencia, sin faltar a la costumbre, también este año celebrarán su “Gaztaiñerre eguna”, sin preocupación alguna de su origen y significado pero sabedores de la necesidad de esta celebración anual para el mantenimiento de las relaciones sociales.

1976-XI-8.

ARRATEKO KANTA ZAHARRAK

Aberatsa izan da Arrate kanta zaharrez, bertako erromeriak ere entzute handiagoa eta zabalagoa izan zuen aintzina batean, agiri zaharrak eta aipatzen ditugun kanta horiek agertzen ditutenez.

Arrateko kantategian era askotakoak ditugu eta bereri buruzko zenbait azterketa egin zituzten Aita Donostiak, Don Poli Larrañagak eta oraitsuago Aita Omaetxebarriak. Hala ere adiarazpen guziak ez dira ahortu eta oraïndik esan beharrik bada herri kanta zaharrei buruz.

Ene iduriz, gure mende honen hasieran indartu zen euskararen “garbizaletasunak” baztertu zituen herri kanta jatorrok. Ikusi besterik ez dugu 1929an E. Urrozek argitaratu zuen *Historial de la Virgen de Arrate* liburuxkaren eraskin bezala zelako kantak agertzen diren. Liburuxka honetan ez zuten izan lekurik lehenagoko erromantze eta koplak zahar jator haiek, eta beren ordean poesiaren funtsik ez zuten kanta trakets batzuk agertu zituzten. Izan ere, kanta hitz jatorra baztertu eta abesti hitz

Arrateko doinu zaharra.

A rra te ko ze lai ko bai flo ri da -
de a endi xek gora dago zeru ra bi de a.

aldrebesa onartu zen garaia zen. Euskal Herriak duen literaturan ahozkoa aberatsena izanik eta ahozkoan kantategi zaharra, hau baztertu zen garai hartan itxura gabeko hitzaren trukez. Beraz, astakeriagintza aspaldikoa dugu gure herrian; jator sustraitutakoen ordez arin asmatuak sartuaz.

Arrateko kanta zaharreri heltzen badiogu, kopla erazko erromantze zahar haietako "Arrateko zelaiko / bai floridadea..." bezala hasten diren kantak baino poema politagorik nekez aurkitu genezake: euskara, egitura, neurria, eta abar, herri kanta eredugarritzkoak ditu. Don Polik 1923ko hitzaldietan agertu zituen kopla horiek, bertsoen ordena ezta zihurra, hark emana. Gainera, hirugarren bertsoa ezin izan berak eman zuen bezala, gainerako hamazazpi bertsoen neurrian ez bai da sartzen. Hasieran, lehena eta bigarrena zein diren ere ezin igarri, baina era berean errespetatuko ditugu. Hara hemen:

*Arrateko zelaiko
bai floridadea;
andixek gora dago
zerura bidea.*

*Aldatsa igaro ta
zelai landa baten
Birjina ta Semia
atsegin artutzen.*

Gure herri kantak zerbait ezagutzen dituen irakurlea konturatuko da zenbait ideia beste kanta zahar batzuetan ere aurkitzen dela. Izan ere, kanta zahar hauetan, bertsolaritzan bezala gertatzen da, klitxe ezagun batzuen inguru landuak dira.

*Zerura gura neuke,
zerura boladu,
aingeruak balida
egyak prestatu.*

*Eguak balituzke
argizarizkuak
urtuko lituzkela
eguzki klaruak.*

*Bai eta autsi bere
ipartxo senduak,
bai eta autsi bere
ipartxo senduak.*

Kreta-ko Ikaro-ren kondairaren argudioa agertzen zaigu parte honetan. Azkuek Arratian jaso zuen ipuin batean bezala. Gero berriz gure herrian hedatuago dauden herri kanten joeraz jarraitzeko:

*Zerura noa ni ta,
nork nai du etorri?
Orain etorri jataz
iru mandatari.*

Don Polik XVIIIgarren mendeko bezala agertu zuen beste kanta batean, inoiz gure kantetan "Ilargi amandria" bezala erabilitako klitxea agertzen zaigu, irudimenaren edergarri:

*Norgana juango gara
Birjiña amandria
ofenditu ezkeru
berorren Semia?*

Herri kanta hauek apaingarri txanbelinez hornituak daude.

Hoeiz aparte, badira beste mota batekoak ere, inprimaturik aurkituak. Poesiaz ez daude hain gaizki, "Arrateko zelaiko..."rekin hasten diren bertsoak hainakoak ez badira ere. Mendigoiti baserrian bilatu zirenak 1710 jartzen dute argitaratze urtetzat. Hasieran zenbait Gabon kanta gogorazten digu: "Oi au egunaren alegria / sortu zana Eibarko lurrian..." Kanta honen bertsoak zortziko eraz hasten dira baina bukaeran aldatuaz, eta bertso tartean "Emen, emen, ..." errepikatzen da.

Ama Birjina harriartean aurkitu zanaren lehen agiria ere kanta hau dugu noski, zeren bai errepikan eta bai bertsoan, zortzikoaren neurria galtzen duenean —bertso bukaeran gertatzen da hau—, aipatzen bai da “Arriartian”.

1784ko kantak bertsolarien egitura du, ez du erromantze kutsurik, eta lau puntuko zortziko txikian dago. Oso polita da. Beste kanta bat, 1785ekoa, beste biak bezala Mendigoiti baserrian aurkitua hau ere. Ezta behar bada bigarrena bezain polita, baina erromes ohituraren kontraera du oso egokia.

Merezi luke horiek berriz argitaratzea. Kantategi gusia liburuxka batean ere ez litzake gauza txarra izango. Uste baino gehiago agertuko litzake, eta erromes ohituraren zabalkundearen agiria bide batez, zeren bizkaierazko eta gipuzkerazko era bat baino gehiago agertzen bai dira bertsoen euskaran.

El cancionero popular de Arrate es buena muestra de la expansión que antaño tuvo el culto a la Virgen y la importancia que alcanzaron en el país las romerías al Santuario eibarrés. El padre Donostia, Don Policarpo Larrañaga, y más recientemente el Padre Omaechavarría, dedicaron algunos estudios sobre el tema. Pero aún se puede ahondar más.

Las corrientes puristas de la lengua desterraron o despreciaron gran parte de este cancionero popular tan rico en abundancia como en la forma poética, para suplantar con canciones de reciente cuño sin la gracia del contenido poético de aquellas composiciones primitivas de estilo romance. Así atestiguan las canciones recogidas en el apéndice del librito histórico de 1929. No obstante, Larrañaga tuvo el buen cuidado de recoger en las conferencias sobre Arrate en 1923.

Es verdad que esas canciones antiguas tienen partes ingenuas por su raíz popular, pero a la vez conservan un encanto poético difícil de superar con las composiciones más cultas. Se conocen otros cantares de primeros y de finales del siglo XVIII, en papel impreso (la mayoría en métrica de zortziko menor) del género bersolari, pero ni éstas poseen el encanto poético de las primitivas canciones orales. No en vano, el cancionero, es la flor de la literatura popular vasca.

1974-IX-2.

SANTA AGEDA KANTAK

Santa Ageda kantak (1) aski zabalduak dira Euskal Herrian, eta baditeke lehenago zabalduagoak izatea. Bertan erabiltzen diran bertsoak herri kanta zaharretako kobla erakoak dira. Azkue-ren *Cancionero popular vasco*-ren II. tomoko I.127/I.131 orrialdeetan aurkituko ditugu kanta hoietakoak, Azkue gogoan-garriak Baxenabarrako Amikuzen, Nafarroako Olazti eta Altzasun, Gipuzkoako Getarian eta Bizkaiko Gernikan jasoak.

Eibarren bertan ere ohitura zaharrekoak ditugu Santa Ageda kantak, herrian taldeak kalez-kale ezagutu ditugu Santa Ageda bezpera gauean, otsailaren 4an. Basarritarren artean lehenagotik ezagutzen da. Eta Eibarren, Aginaga hauzoko San Roman ermita dugu ohitura honen agiririk zaharrenak ematen dizkiguna. San Romanen XVIgarren mendeko Santa Ageda irudi eder bat gordetzen da eta baillaratik aparte, Eibar, Barinaga eta Markina-Etxebarriako basarritarrak debozio handia diote. Gainera, haurdun dauden emakumeak otoitz egitera joaten zaizkio eta kandelak piztutzero.

Aintzina, Ertzil zaharrak kontatu zigunez, bezpera illuntzean kantari talde bat abiatzen omen zen, bertsolari batekin, baserririk baserri. Bertsolariak bakarrean bertso bat kantatzen omen zuan etxe bakoitzeko atarian, eta kantari taldeak bertso bera errepetitu. Bertso hauetan, gaiez, etxeakoak agurtzea, San Agedaren goresmenak, eta diruzko edo janarizko laguntza eskea. Biltzen zutenarekin biharamunean bazkari bat egiteko, eta ezer sobratzen bazen behartsueneri eman. Biharamunean, Santa Ageda egunez, oraindik ere erromeria egiten da San Romanen.

Ertzilek bere gaztaroan ezagutu zituen bertsoak oso ahulak omen ziren, eta sarri itxurarik gabeko arloteak. Hoietarikoak ditugu haurtzaroan Eibarko kaleetan entzuten genituenak ere. Adibidez:

*Kura-parroko mondongo
ik ez dok asko emongo;
ik emondako limosniarekin
ez juagu asko edango.*

Nolabait ere funtsez eta zentruz galduaz etorri omen ziren ohi-turazko kanta zaharrok, eta, arrazoi honegatik, Batzokikoak Kepa

(1) Eibarko zaharrak, ohitura honi, "Santa Ageda batzen" deitzen diote.

Enbeita "Urretxindorra"ri bertso berriak jartzeko eskaria egin zioten, eta honek lehengo jatorrizkoen gisara txukunak jarri.

Ohi zenez, kantatzen hasteko alkate jaunaren baimena behar zen lehen bertsoan esaten den bezala:

*Gabon etxeko nausi ta txiki
zar eta gazte batera.
Alkate jaunari baimenaz gatoz
zueri agur eitera.
Lenauko zarren antzera
ba-gatoz zeuen etxera,
Santa Ageda-ren gorazpen aintzak
euskeraz abestutera.*

Gutziz bost bertso dira, bere egituraz, lehenengo hau sarrerako agurrez, bigarrena eta laugarrena Eibarko herriari, bion erdian Santa Agedari eskainia eta bukaeran azken-agurra.

Eibar goretsizko laudorioak honela hasten dira:

*Eibarren dagoz gauza ederrak,
oso ederki egiñak:
Izkillu-olak, gizon aundian,
mutil indartsu gordiñak,
andra eder ta bikañak,
neskatxa polit apañak,
ubabarriko lili ta lora
diran lakoxe berdiñak.*

Martiriari bere parte honelako bertsoz eskaini zion:

*Illarteraño Jaungoiko-zale
garbi-garbia izan zan;
orbandu gura ez ehalako,
bularrak ebai eutsezan,
ziñopa eginda il zan;
orain dago zeruetan.
Bere antzeko garbi-zaliak
gu ere izan gaitez.*

Ondorean berriz ere Eibarri buruzko laudorioz jardungo da:

*Eibar euskaldun erri maitiau
ospetsua da benetan;
bertako seme jator zintzuak
daukaguz goien munduan.
Pelotarien artian
Migel dogu gallurrian:
Pozez heterik ikusten dogu
mutil au gure errian.*

Eta kantaren bukaeraz honelako asken-agur hau jarri zuen:

*Zorioneko izango al da
etxe au beti-betiko;
bizi garian arte guztian
dogu goguan eukiko.
Maitagarria dalako.
Belutu egin orduko,
agur! egiñik amaitzen goiaz,
beste batera juateko.*

Herrian egiten diren taldeak, bai lehen eta bai orain, premia behartsuan aurkitzen direnen laguntzarako diru batzea izaten da, eta ez daukagu dudarik urtero bezala onhartuak izango dirala.

Los coros de Santa Agueda (2) están muy extendidos en el país; son por lo general del género "kopla zaharrak" de la literatura popular. Azkue recoge en su *Cancionero* cantares del Pays de Mixe de la Baja Navarra, de Olazagutía y Alsasua de Navarra, Guetaria (Guipúzcoa) y de Guernica (Vizcaya).

En Eibar y su contorno contamos con esa tradición que probablemente, si no su origen, su fuente más antigua, procede de la ermita de San Román que conserva una preciosa talla policromada del Renacimiento. Como cuenta Luis Pedro Peña en su *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa*, a la imagen de Santa Agueda de San Román le tienen devoción especial las mujeres que esperan el nacimiento de un hijo, y acuden a rezar y ofrendar vela.

(2) Gai hontaz berri gehiago eman nuen "La ermita de San Román de Eibar y la devoción a Santa Agueda" deritzan lanean.

En este lugar del barrio de Aguinaga de Eibar, la víspera de Santa Agueda, con un bersolari de solista y un grupo coral improvisado, los labradores recorrían los caseríos de la zona con cantares alusivos a la santa. De igual modo hemos conocido desde la niñez en el núcleo urbano de la villa armera. Con el tiempo, estos cantares vinieron degenerando a lo grotesco. Y es posible que muchos hasta le encontraran gusto. Pero esas causas motivaron, hacia los años veinte, a los eibarreses más patriotas a encargar una composición respetuosa al distinguido poeta popular vizcaíno Kepa Enbeita "Urretxindorra". Desde entonces constituye el canto oficial, que transcribimos su texto íntegro.

Mañana, como todos los años, los grupos corales recorrerán las calles de la villa postulando por los necesitados.

1975-II-3.

DONOSTIAKO TANBORRADA

Donostiako tanborradak, gauza berri xamarra izanarren, bere toki berezia lortu du euskal folklorean. Egia esan, bere jatorriaz ez dakigu gauza zihurrik, baina joan zen mendearen erdialdearen geroztik ezagutzen da.

Gainera, Ihauterietatik etorri zaiguna dirudi. XVI. mendearen bukaera ingurutik XIX.aren lehen partera arte, Donostia egunez, prozesioak egiten bai ziren. 1820an, urtarrileko garaian izaten diren egualdi txarregatik prozesioa egunez aldatu ahal izatea eskatu zuten, ondoko iganderaren batean betetzeko. Handik hamar urtera, prozesioa zortzi egun baino geiagoz atzeratu beharra izan zutelako, Udaletxeak (Kontsejuak) lehengo erabakia berritu zuen, urtarrilaren 20a lehen mailako jaitzat jarriaz eta prozesioa udaberriko eliz-jaietarako utzia. Ikus Serapio Mujikaren *Curiosidades Históricas de San Sebastián*. Baina ez da ematen danborraden berririk.

Dionisio Azkuek, bere oroitzapenetako *Mi pueblo, ayer* liburuan (1933ko argitalpenaren 100. orrialdean) Frantsiako hegoaldetik fanfareak etortzen zirela dio eta ditekenea da tanborradaren hastapenak horrekin zer ikusia izatea. Bestalde, 1879 Donostiako bi elkartet

Sobre este tema di noticias más amplias en el trabajo titulado "La ermita de San Román de Eibar y la devoción a Santa Agueda". (Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, XXXI, 1975. pp. 585/589)

bateraturik antolatu zuten danborradaren zihurtasun osoa dugu. Karlisten bigarren gerratearen ondorena zen eta gerraren kutsuz gazteek sortu zitekeena da.

Dena dela, Marzelino Soroak 1895ean argitaratu zuen *Azak eta naste* izeneko liburua agertu ordurako sustraitua zegoen gaurko ohitura hau. Donostia egunean, goizean goiz, gazteek egiten omen zuten dei: “—Ama, bekar aguro neri gosaria.”

Martin de Angiozarrek *En el Pirineo vasco* liburuan, tanborradaren sorrerari buruz ari delarik, bere ustez, 1836an karlistak Donostia inguratu zutenean hasi zirela tanbor edo barrika joteak. Beste batzun iritiz, Ihauterietan Napoleonen soldaduen antzirudiz edo pantomimaz irtetzen hasi ziren gazte taldeetatik sortua dela. Bada iritzieta zernahitarik, baina egia zihurrik ez dakigunez, ez gara hemen hasiko jolaserako sortu zen folklore honen arrazoi bila. Usteak uste, joan zen mendearen azkenaldera hau agertzen digute M. Soroaren bertsoak:

—Beltz illak ogei ditu,
gaur egun aundia,
kantatu zagun bada,
biba Donostia!
Korri ditzagun orain
plaza ta kaliak,
nun dira barrik' aiek
ta fraxuletiak?

Beraz, danborradaz ari delarik, hasteko Donostia eguna jartzen digu eta ez Ihauteri. Gainera, ohartzen gara “barrik' aiek” (barrika haiek) eta “frashuletiak” (frantsesak, noski) oroitaraziz. Danborrada iturrien hari bat ote?

Gaur egun erabiltzen diren doinuak Raimundo Sarriegik Donostiako Ihauterietarako jarri zituenak dira. Gutierrez, 39 doinuk osatzen dute bere doinugintza, eta 1861etik 1886ra bitartean eginak dira. Batzuk berberak sortuak eta beste batzuk konponduak. J.M. Arozamena eta T. Garbizu jaunek *Donostiko kantu zarrak* liburuaren azken partean hain ongi berriz argitaratuak.

Musikok pianurako idatzi bazituen ere, geroztik fanfare konparse-tarako gertatu ziren. Doinurik zaharrenak Donostiako martxa, 1861eko urtarrilaren 20rako egina eta “Marcha Real del Carnaval”, urte bereko Ihauteri iganderako egina.

Satrustegiren *Solsticio de invierno* begiratzen badugu, Eguberrietatik Ihauteriak arteko ospatzen lotura bat aurkituko dugu. Sarriegin

doinuak lekuko, Donostian, joan zen mendearen erdialdetik azkenaldera arte, hiriaren jai egunetik Ihauterietara lotura bat aurkituko dugu, urtarrilaren 20tik hasita eratu zituen doinuak “El Carnaval de San Sebastián” izen orokorra dutenez gero. Baina beste lekukorik ere badugu, Dionisio Azkueren *Mi pueblo, ayer* liburuak dakarren adiarazpenari jaramon egiten baldin badiogu. Obra honen “Soka-muturra” kapituluan, ondo garbi esaten digu, soka-muturraren ohitura hau Donostia egunetik Ihauteriak arte, igandero egiten zela, eta 1902ko urtarrilaren 14an udaletxeak kentzea erabaki zuela. Erabaki honegatik hiriguzia zutitu omen zen agintarien kontra, baina agintariek beren neurriak hartu omen zituzten bertakoez gainera kanpotik ekarritako indarrak bilduz. Gipuzkoako plazan tiroak ere izan ziren, baina ez zen ezer gertatu. Nonbait, ondoko bi urteetan tanborradak egitea ukatu zuen herriak.

Gero, soka-muturrik gabeko jaiak onhartzera etorri ziren. Eta behar bada une haretan eten zen Donostia eguna Ihauterietatik, eta tanborradak indar gehiago hartu zuen Donostia egunez.

Ondoko urteetan gizon sonatuak ahalegindu dira ohiturak pizturik irauten zezan eta hauen arteko aipatuenetako bat Sotero Irazusta izan da.

Aspaldiko urte hauetan inguruko herrietatik ere adi egoten dira, Soroak bere azken bertsoan agertu zuen bezala:

*Ama, bekar aguro
neri gosaria,
bedorrek bai al daki
nun dan Donostia?*

La pomposa y popular tamborrada donostiarra no parece poseer una tradición muy antigua. Por lo que se vislumbra de las investigaciones históricas de Serapio de Múgica, desde finales del siglo XVI hasta bien entrado el XIX, se celebraba una gran procesión, con salvas de artillería desde el castillo, pero no aparece ninguna mención a la tamborrada. Hasta 1871 no disponemos de datos seguros. Aún en estas fechas serían interrumpidas por la segunda de las guerras carlistas y alcanzaría magnitud en 1879, desde cuyo año nos ha llegado prácticamente sin interrupción. Las sugerencias hechas por Martín de Anguiozar sobre la posible conexión con la guerra de la Independencia, que yo sepa no se ha podido demostrar. La popularidad de la fiesta está patente en la obra de Marcelino Soroa. Los datos proporcionados por Dionisio de Azkue en

torno a la "soka-muturra" y las músicas compuestas por Sarriegui nos ponen en la pista del ligazón existente, en la segunda mitad del siglo XIX, entre las fiestas del Carnaval y el día de San Sebastián, aunque con el tiempo se hayan desglosado. La pantomima de la soldadesca de Napoleón, presente en fanfares populares del sur de Francia y que tiene visos carnavalescos, pudieron influir en la tamborrada donostiarra. Pero el caso es que en San Sebastián ha tomado arraigo y se sabe conservar castizamente y con solemnidad.

1976-I-18.

II
HISTORIAZ
De Historia

FORUAK GOGOAN

Ezta batere harritzekoa gure herrian Foruak hain gogoan izatea, gure herria ehundaka urteetan foruen bidez gobernaturik bizi izan bai zen. Gizon bakoitzak bere izateaz arrazoi bidez eta bizitzaren usarioan edo praxisean bere gogoa bere gisara lantzen duen erara, herriak ere horrela lantzen bai dute beren izate era. Eta gure herriaren izatea, hein handi batean, foruetan oinarritzen zen.

Foruen araueraz, gure herriak, bere soberania eta autonomia zituen. Hau da, bere buruaren jabe zen.

Etzi beteko dira ehun urte herriak foruak galdu zituenetik. Foruekin batean galdu zituen bere eskubideak eta geroztik bere nortasuna ere galtzen ari da. Baina, bestalde, gure herriak herri gisa ez du izan bakerik foruak galdu zituenetik. Galera horretatik sortu bai ziren abertzale mugimenduak, herriaren askatasuna edo autonomiaren eskariz.

Gure herriak Foruak gogoan dituela, bizi agertuko zaigu ondoko egunetan. Bihar bertan Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País elkarteak Azkoitiko Insausti etxean bilduko dira oraintsu egina duten eskaria berritzeko. Hau da, Euskal Herriari Foruak berriz itzultzeko eskaria. Eta, etzi, Bergarako Kontzejuak zenbait agerpenen bidez azalduko du bere nahia eta beren asmoarekin bat datozen zenbait kontzeju eta elkarte ere han izango dira.

Batzuk gauza handitzat 1937an galerazi zuten “Concierto Económico” zelakoa eskatzen duten artean (foruen hondakina besterik ez zena), beste batzuk gaiaren harira lehenago lotu dira foruak edo beren ordeko autonomia eskatuaz. Eskari honen aurren eta buru, Bergarako Kontzejua izan da.

Bergarak bazuen holako zorra. Foruen sinbolorik ezagunena Gernika bada ere, Bergaran traizionatu ziren foruak (ez Bergararren partetik, noski). Lehen karlisten gerratea Bergarako besarkada harekin bukatu zen, Esparterok foruak errespetatzea aginduaz. Horregatik zen “convenio de Vergara”, ez baketzea, baizik elkar-hartzea. Bainak hitzak hitz, hitz zuriak agintarienak, gero makur jokatuaz herria zapaldu. Geroztik gure artean ez dugu izan bakerik. Foruak, zein autonomia, indarrez kenduak izan ziren. Ezer eman, plebiszitoz, hauteskunder, eman izan dute (ez eman baizik bertatik irabazi), baina kentzeko herriarekin kontaktu gabe. Hola izan da gure herriaren historia tristea.

Historia tristea, baina ez eztabaidatu gabea. Liberalak heurak ez ote ziren izan Bergaran Esparterok eman zuen hitza betetzeko ondoko urteetan borroka egin zutenak? Izan ere nork espero zezakean hola orok? Sanchez Silva zenak hain maltzurki muntatu zituen deseginezko bideen

kontra ez ahal ziren altxatu gure orduango liberalak ere? Hala dakus "Discusión sobre los Fueros" (Tolosa, 1864) liburuak.

Geroztik anitz literatura egin da forueri buruz. Ikusi besterik ez dugu egunotan gure argitaldaria nola ari diren gai honi buruzko liburuak kaleratzen. Hauetako azkena gaur bertan izanen dugu, arratsaldeko 8retan Dr. Camino deritzan bibliotekan, Federiko Zabalak gertatu duen "De los fueros a los estatutos" izenekoa. Federikoren lan guziak bezala, hau ere interes handikoa izango dela iduritzen zaigu. Holakoa baita gai hauetan egilearen jakituria.

Baina foruen galera zergatik, noiz eta zelan jakin nahi duenarentzat Idoia Estornés Zubizarretaren "Carlismo y abolición foral" liburu argitara berria dugu hoberenetakoa.

Esan dugunez, gai honi buruz hain literatura ugaria zabaldu denez, liburuen egileak soilik emango bagenitu, zerrenda luzea beteko genuke, eta denak aipatu ezinezkoa da.

Lehenengoetako lana eta historia aldetik begiraturik hoberenetakoa, puntu askotan geroztiko ikerketak zenbait zuzenketa eskatzen badute ere, Marichalar eta Manrique jaunek egin zuten lan hura dugu "Historia de la Legislación" delakoa.

Foruen kontra hitz egiteko orduan arinkeria asko erabili da. Batzuen ustez pribilegioak omen dira. Baina, pribilegioak berez onak direnez, pribilegio hoiek dituenei errespetatu eta ez dituenei ematea litzaiguke bidezkoena. Gaztelaniak berak nahi baldin baditu ere, zergatik ez eman? Felix Huarte Nafarroako Foru diputazioaren lehendakari izan zenak zion bezala, norbait Nafarren foruen kontra irtetzen zelarik, "Hay que navarrizar a España". Ateraldi hau ez ote da ba beste "Mal de muchos..." baino hobea?

Baina beste arrazoirik ere bada. Historiaren arrazoia. Gaztelako erregeak zergatik guri pribilegio horiek? Zergatik gure herriari bere berea zuen Gaztelaniari eman ez ziona? Nola daiteke herbestekoei pribilegioak opa eta etxekoei ez? Ah! Hor dago hauzia. Gure herriak aintzinatik zuen bere buruaren jabetza, bere independentzia; bere lege zaharrekin errespetatzea izan baizen erregeri pakto bidez lotzen zen tratua. Hori gabe ez zuen erregerekin loturik egoteko arrazoirik, eta gutiago Gaztelaniakin.

Los pueblos lograron sus fundamentos básicos al proyectar y elaborar desde su interior sus anhelos de cara a la realidad en los largos

procesos de la vida colectiva. Y el nuestro se asentó durante centurias en los fueros.

El día 21 de los corrientes se cumplirá el centenario de la abolición foral y ello será motivo para una serie de actos y manifestaciones orientadas a la reimplantación foral o en su equivalencia la autonomía. Mañana mismo, en el palacio de Insausti, de Azcoitia, la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País celebra un acto de ratificación de un acuerdo tomado por dicha corporación en petición de la restauración foral. Pasado mañana, varios ayuntamientos guipuzcoanos se adherirán a los actos organizados por el Ilmo. Ayuntamiento de Vergara, en este mismo sentido. No en vano fue el primer ayuntamiento que levantó la voz, en petición formal, en contra de la ley derogatoria que ahora se cumplen cien años.

Los fueros suponían la soberanía o autonomía del pueblo vasco. En torno a la materia existe abundante literatura, y no seré yo quien pretenda resumir su sentido y contenido en un breve artículo. Existen abundantes libros sobre el tema, y aún así, el hecho más sobresaliente del presente año son las numerosas publicaciones que van dando a la luz nuestra casas editoras. La última de las mismas es la que hoy a las 8 de la tarde será presentada en la Biblioteca Dr. Camino (calle 31 de Agosto, 36), en San Sebastián. "De los fueros a los estatutos", de Federico Zavala. Cuando todavía es reciente la documentada obra de Idoia Estornés Zubizarreta que trata de las motivaciones que ocasionaron la pérdida foral, "Carlismo y abolición foral".

Este privilegio, como tal privilegio, era la condición por la que nuestras provincias se unían a la corona de Castilla. Una especie de pacto, que fue abolido en contra de la voluntad del propio pueblo vasco, dejando nefastas consecuencias en lo histórico-político. No era para menos la pérdida de la relativa independencia que suponían los Fueros.

1976-VII-19.

FORUEN ARRAZOA HISTORIAN ZEHAR

Lehenguneko artikulua ondoz, galdera asko izan ditut, foruak noiztik eta zer zirenari buruz.

Gure herriak, hizkuntzaren ondorengo duen berezitasunik handiena, foruak dira noski. Foruak, idatzirik ezagutu ditugunak, aintzina-

goko lege zaharragoetan oinarriturik zeuden, Erdi-aroan ahoz aho gorde zirenetan. Beren historia idatzia geroagokoa dugu.

1200. urtean Gaztelako erregeak Araba hartu zuen, ordurarte Nafarroako erresuman zegoena. Gainera, menperatze hau Gasteiz zazpi ilabetez hesipean eduki ondorean gertatu zen. Eta Arabaren ondorean Gipuzkoa ere Gaztelaniako erregearen menpeko bihurtu zen. Menperatua izan zen ala gipuzkoarrak beren borondatez elkartu ziren, historiagi-leak anitz eztabaidatua izan da. Gure historiaren une hau onduen adiarazten duena F. Arozena izanen da, "Guipúzcoa en la Historia" lanean.

Nik nere aldetik ez diot garrantzi gehiegirik ematen. Historiaren une hartan zer gertatu zen zehatz mehatz jakitea baino egia handiagoa eta zentzuzkoagoa, foruen agerpena da. Errege eta Gipuzkoaren artean Foruaren lege berezia jartzen da tratutzat, hemen lehendik ziren ohitura eta arauak errespetatuz.

Kondizio honekin, feudalismoa indartsu zen garai hartan, erregeak hain berea zuen Gaztelaniari opa ez zion eskubidea onhartu zuen. Izatez, Gipuzkoako Fuero idatzia geroagokoa dugu, 1397an idatzia, baina lehengo ohitura eta usarioetan oinarritua. Hain zuzen, erregeren onhartzeagatik idatzi bai zen. Arabakoa lehenago idatzi zen, 1332an, bertako kofradien araueraz eta honegatik ez da Gipuzkoakoaren berdina.

Bizkaiko Fuero zaharra, 1452an ipini zen idatzirik. Baina hau ez zen erregearekin pakto edo antzerako elkarrarteko tratuan sartzeko, ez. Bizkaitarrak beren independentzia osoaren jabe ziren artean egina. Honegatik, gauza askotan berdintsua bada ere, bere berea zuen Bizkaiak Fueroa. Honegatik da "derecho privado" horietakoa. Bere sarreran ikusten denez, "que, eran de albedrío y no estaban escritos". Beraz, ez ziren erregeak edo bestek emanak, baizik herriak berak sortuak.

Askok Nafarroa apartatu nahi izan dute, historia desberdina duela eta. Baina foru kontuan, probintzia bakoitzak du historia desberdina, eta ez Nafarroak bakarrik. Kontu honetan, Nafarroa beste probintzietatik bereiztea 1841. urtetik honerakoa da.

Bizkaia, bere eskubide bereziarekin, beren jaunaren bidez jo zuen Gaztelako erregeengana. Baina Nafarroa, ez ahaztu, indarrez bortxatua izan zela. Nafarroa 1512an Duque de Alba-k konkistatua izan zen, errege Katoliko-aren zerbitzuan eta 1515ean Gaztelako koroiazen azpian jarri zuen, Birrei erara eta bertako erresuma lurrez eta legez errespetatuaz. 1528an, mugazandiko Euskal Herria (seigarren Merindadea zen Baxe-Nabarrerekin) bertan behera utzi zuen defenditu ezinik. Geroago, Nafarroako Enrike III.nak Frantsiako erregetza hartu zuen, eta honela

gelditu zen Frantsiari lotua, Uztaritzeko Biltzarra, Errepublikak desegin arte.

Geroztik, historian zehar, lau probintziok elkarturik defenditu zituzten beren foruak, Isabel II.aren garaira arte. Beraz, joan zen mendera arte. 1839ko urriaren 25ean galerazi arte.

1841ean gobernuak pakto gisa jarri zuen legea Nafarroak onartu zuen eta gure egunok arte honen araura etorri da, baina gainerako probintziak ez zuten onartu lege hura. Hau da elkarren arteko diferentzia. Euskal Herria zatitzea komeni zaienak hortik hartu dituzte beren argudioak, baina kontu honetan probintzia bakoitzak du historia desberdina, eta ez Nafarroak bakarrik. Honegatik, zatiketarik nahi ez dutenek elkartasunean ikusten dute eskubideak gordetzeko era bakarra.

Lau probintziak, eta berdin mugazandik zatiturik gelditu ziren hirurak, etnia berdinekoak ditugu. Elkarren arteko bereizkuntzarik handiena, oraindik orain, Nafarroaren barnean da, ifarraldetik hegoaldera dagoen desberdintasuna, baina ez ifarraldetik beste probintzietara. Oroi erromatarrentzat oraingo nafarrak zirela “Vascones”, eta gure “vascongado” izatea (arrotzen hizkuntzaz, jakina) hortik datorrela. Hau da, gu ez ginen “vascongados” izango Nafarroagatik izan ez balitz.

Gora behera hauek zehatz aztertu nahi dituenak, ikus Auñamendi argitaldaria emanak dituen “Historia y Fueros del País Vasco” hiru tomoak, lehena Marichalar eta Manrique-rena eta bigarrena eta hirugarrena Pedro de Madrazo-renak. Eta argitaldari berak, foruen galerari buruz, lehengunean aipatu genuen Idoia Estornés Zubizarretaren lana, “Carlismo y abolición foral” eta J. M. de Angulo-ren “La abolición de los Fueros e instituciones Vascongadas”.

Gipuzkoako foruen historiaz, gaur salgai dugun hoberenetako bat A. Cillán Apalategirena dugu “La foralidad guipuzcoana”, bereziki probintziakoari soilik begiraturik.

Fuero hoiek, lege aldetik begiraturik, lege guziaz bezala, jakina da gaurkotu beharrezkoak direna. Baina foruak duten ikaspiderik onena, gaur oraindik bete beharrezko iduritzen zaiguna, herriaren nortasuna da, herriaren eskubidea edo soberania, izanditekean demokraziarik zabalean. Esanak esan, Euskal Herriak bere historian gizonari eskaini dion eskubiderik eta nortasunik jatorrena, inglesak heurak “Habeas Corpus” (1679) gizonari eskubidez eman ziena baino lehenagokoa. Honegatik, oso interesantea iduritzen zaigu duela urte guti Adrian Zelaiak argitaratu zuen “El Derecho foral de Vizcaya en la actualidad”, Bizkaiko foruak berez zer ziren eta hauek ONU-ren 1948ko eskubideekin konparatuaz.

Egia esan, foruak ezagutu ondorean, ametsezkoa iduritzen zaigu bertan nabari den demokrata jokabidea.

La legislación foral se asienta sobre los usos y costumbres de la antigüedad, según reza al ser ésta escrita.

En 1200 Castilla ocupó Alava, separándola de Navarra, tras el largo asedio que puso a Vitoria. A continuación, Guipúzcoa se adhiere al rey de Castilla. Mucho se ha discutido si hubo un entendimiento pacífico o fue una condición algo forzada. A este respecto puede ser válida la versión de F. Arocena en "Guipúzcoa en la Historia". Pero el hecho más importante, es la presencia del derecho foral de los guipuzcoanos, a pesar de que no se pusiera por escrito hasta 1397, como condición entre el rey y el pueblo.

Se insiste demasiado en que Navarra tiene una historia distinta, cuando en realidad, no sólo Navarra sino, cada una de las provincias vascas tiene su propia historia. Pero en el transcurso de la misma han luchado juntas, como juntas nacieron a la historia como partes integrantes a la corona de Navarra.

Quizás la historia más distinta la tiene Vizcaya con su señorío y su derecho privado. Es decir, en el caso de Vizcaya, el fuero no proviene de un convenio entre el rey y la provincia. Vizcaya disponía de sus propias leyes desde que gozaba de su independencia con su señorío. Y que el rey de Castilla tuvo que aceptarlas para su adhesión.

Navarra fue conquistada en 1512 por el Duque de Alba, al servicio de Fernando el Católico, y fue incorporada a la corona de Castilla en 1515, haciéndose esta incorporación "por vía de unión eqüe-principal, reteniendo cada una su naturaleza antigua, así como en leyes como en territorio y gobierno". A partir de entonces fue gobernada por virreyes. En 1528 abandonó la Navarra de Ultrapuertos (con su sexta Merindad) por dificultades de defenderla.

La autonomía legislativa de las cuatro provincias duró hasta la ley de 25 de octubre de 1839. Navarra aceptó la Ley Paccionada de 1841, pero no así las demás provincias. Tras largos litigios, vino la abolición total para las tres provincias el 21 de julio de 1876, en contra de la voluntad del pueblo y sus representantes.

Sabemos que muchas partes de las leyes forales quedaron muy anticuadas, pero lo que no se les podía negar era su sentido democrático y la soberanía de nuestro pueblo. Su independencia histórica y su valor legislativo vistos desde la época actual fueron bien estudiados por Adrián Celaya en su "El Derecho foral de Vizcaya en la actualidad" (Bilbao, 1970).

1976-VII-26.

HERRI ERAKUNDEAK FORUEN GARAIAN

Marichalar eta Manrique-k penaz zioten beren liburu ezagugarri hartan, "Historia de la Legislación. Fuero de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Alava" (Madrid, 1868) deritzanaren bigarren argitalpenaren 373garren orrialdean, Foruak, zoritxarrez, ezer guti zekartela herrien erakundeari buruzkorik; baina geroztik eginak diren bilketeri eta estudioei esker, gaur egun nahikoa ondo ezagutzen dira gure herriak zituzten erakundeak. Eta hauek zuten garrantzia ondo ulertu ezik ezta posible herriaren eskubideaz sakonki ulertzetik. Hemen aurkitzen bait da herri eskubideen giltza, soberania osoa zertan zen.

Herriz herri eginak diren monografiatan maiz jaso dira tokian toki herriak zituen erakundeak. Adibidez, Gregorio Mujikak estudio bikaina eman zuen "Monografía Histórica de Eibar" (1910) liburuan, eta holako laneri esker osatu ahal izan da herri edo hiriena ikuspegi orokorrez. Hontaz, Karmelo Etxegarayren "Compendio de las Instituciones Forales de Guipúzcoa" (1924) liburuko bosgarren kapitulua dugu noski gure probintziari dagokion lanik onena. Bestalde, Bizkaiari dagokion aldetik, Gregorio Monrealen lan ederra dugu, "Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya" (1974) izenekoa. Bi lanok ongi beteko zuten Marichalar eta Manrique zirenen gogoia, bai noski. Ez ordea foruei, zer diran ere begiratu gabe kontra egiteko gertu daudenei. Egun hoietan, Foruen galeraren ehun urte muga delata, argi ikusi dugu zeinek nolako alderditik ezagutzen dituzten foruak, zeinek maite duen eta zeinek gorroto.

Herriko erakundeetatik ohartuko gara kontzeju edo udaletxeak, Diputazioa zein probintziako Batzarrak —hitz batean, erakunde nagusien administrazioa— behetik gora nola antolatzen zen. Batzarretako ordezkariak herriko kontzejuak izendatuak izaten ziren, Batzarrak urtero Diputazioko zuzendariak hautatzen zituen eta hemendik eginkizunak eta erabakiak eman. Kontzejuko agintariak berriz, herriko familia guzien ordezkariak urteroko batzarrean hautatzen zituzten, hiri bereko antolamenetarako eta Batzarretara herriko ordezkarietza eramateko.

Herri guziak ez zituzten erakunde berdinak, herri guzien izakera ere berdina ez zenez. Karguak edukitzeko adin heldukoa, herriko semea, aitonenseme eta konduta onekoa behar zuen izan. Herri batzuetan millarren jabe zena eskatzen zen. Lasai esan genezake, nornahik zuela kargutzarako ahalmena, bertako semeen artean noblezazko berdintasunaren jabe zirelako. Baina euskal berdintasun hontaz urrengo artikuluan arituko gara.

Herri erakundeak heurak ere xeheki ezagutu nahi dituenak arestian aipatu ditudan K. Etxegaray eta G. Monrealen liburuetara jo beharko du.

Herri erakundea bere funtsean zer zen jakiteko, laburki bederen, herri soil batean mugatuko naiz: Eibar, adibidez.

Erdi-arohan Markinako Merindadearen goi aldeko Elizaurre (Ante-iglesia) edo Unibertsitatea besterik ez zen eta kontzeju irekian egiten zituzten beren batzarrak. “Carta-puebla”, hiribildu bezala eraikitzeke, 1346an lortu zuen eta honegatik erregeri urtean etxe bakoitzeko 2 sueldo (errial) eman beharra zuen, zerga gisa. Eta herriko Ordenanza arautegia lehenagoko ohitura zaharretan oinarritzen zen.

Lehen lehenik, batzar irekian, familia bakoitzak bere ordezkaria zuen, eta Alkatea hautezkundez hautatzeko eskubidea. Hiribildua (villa) eta hauzo, errebal eta baserri guziak hartzen zuten parte. XV. mendean sartzean, 1409an, kontzeju bat osatzen zuten, Alkate eta gainerako ofizialekin. Baina oraindik batzar irekia zen. 1493 eta 1498an, agiritan azaltzen denez, batzar tokia “*cerca de la casa de Ibarra de suso*” zen eta han batzartu ziren “*el concejo, alcalde, fiel, jurado, regidores e omes buenos de la villa de Sant Andres de Eibar*”. Toki hau, herritik Ibarra goikora zijoan errege-bidean zen. Nere ustez orduko errebalean (gaurko Mari-Anjela kalean).

Herri erakundea eta agintariak izendatzeko era, pentsa genezaken Demokrazia sistemarik zabalenean eramaten zen. Hasteko, herri barrua eta herritik kanporakoa (herri barrua, herri-bildua esan nahi da) hauzoz eta etxez, kalez eta kofradiaz hautezkunde tokiz (distrito electoral) antolatua zen. Herri barruan hiru talde egiten ziren: Barrenkale, Elgetakale eta Txuriokale, gainerako kale eta etxeak hoietara bildurik; eta kofradiak beste hiru baillaratan zatitzen ziren: Soraen, Akondia eta Arexita, errebala eta gainerako hauzo eta baserriak hoietara bildurik. Hauteskunde berdintsu bat eramateko honelako zatiketa egiten zenez, Errebala, Arragoeta eta Untzaga-Isasi hauzoak nekazarien aldera sartuaz, Eibar, urbanismo aldetik, nekazaritzaren partekoa baino jendetza gehiagokoa zala agertzen zaigu. Hau da, XVI. mendean azkenaldirako burdin-langintzak eta merkatalgoak laboraritzari gaina hartua zuela adiarazten digu.

Eibarrek, 1600. urterako kontzeju-etxea zuen, eta urte honetako hauteskundeak ondo ezagutzen ditugu, G. Mujikak bere liburuan jaso zituenetz. Hauteskunde horiek, irailaren 29an, San Migel egunez, urtero egiten ziren. Kanpai hotsera, herritar guziak biltzen ziren, eta guziak esateaz, aitonen seme zirela esan beharrik ez dago. Herriko Ordenanzen eta ohitura zaharren araura, Alkate, Sindiko, prokuradoreak eta gainerako ofizialak hautatzen ziren.



Egilea, Gernikako arbolaren aurrean (1958).

Alkatetzarako, urte batean herri barrukoa behar zuen izan, eta beste urtean kofradiaren batekoa. Alkatea ezinezkoa zen urte bat baino gehiagorako hautatzea, eta gainera, behin izendatzen zenak ondoko lau urteetan ezin zuen herrian kargurik eduki. Baina ez hori bakarrik. Txandaka honetan, kalekoak kofradiakoa izendatzen zuten, eta urrengo urtean kofradiakoak kalekoa. Hautatu beharrezkoak hiru izaten ziren, urte batean hiru kofradiak hiru kaleetatik bana, eta urrengo urtean hiru kaleetakoak hiru kofradietatik bana. Botuetara joaz hautaturik izaten ziren hiruren izenak, hiru txarteletan idatziaz pegarra batean nahasturik sartzen ziren, eta zortzi urte bete gabeko mutiko batek pegarratik txarteletariko bat atera behar zuen, eta txartel horretan agertzen zen izena jartzen zen herriko agintari. Beraz, era honetara ez zegoen ezertariko tranpa edo azpikeririk egiterik.

Alkate izendatuak bere ondorengo alkate-ordezkoa izendatzeko eskubidea zuen, eta baita ere zenbait errejidore (orduko kontzejalak). Eta kargudunok San Andresko parrokian zin egiten zuten.

Ordenanza arautegiak aldatzerik ez zegoen, urteroko batzar nagusi horretan herri guziaren artean erabaki ezik. Eta aldakuntzarik egitekotan ere, gertakizunen esperientziak erakusten zuen araura izaten zen.

Inguruko herrietan ere Eibarko antzera jokatzen zen. Plaentziakoan millaredunak agertzen dira, baina Elgetan ez zen holakorik eta Eibarkotik hurbila dugu, "Elgueta con Anguiozar y Ubera" (1975) nere liburuan aztertu nuenez.

Euskal foruak, gure herrian hain errotuak, behar bada beren hastapenean erromatarrengandik hartuak izango dira, baina hemen bertan ondo landuak eta sustraituak. Europako mendebaldean feudalismoa hain indartsu zegoen garai hartan gure herriak ederki jakin zuen demokraziaz baliaturik jokatzen. Ondo erakutsi zuen erromanizatu gabe ere zibilizazioz bizitzen. C. Sánchez-Albornoz-ek behar bezala ezagutu bazituen, gure herria Galaico-Astur bezain ongi ezagutu bazuen, hainbeste arinkeria esan gabe geldituko zen. Zibilizatzeko latinaren bidez erromanizatzea beharrezkoa bazen, nik ez dakit zergatik duen bere deituraz Albornoz, zeren horrela balitz Tunika behar zuen izan.

Cadiz-ko Konstituzioak (1812) gauzon asko ekarri zuen, batez ere Inkizizio Santu harekin bukatzea eta besterik "Habeas Corpus" onartzea. Baina guzia berdindu beharrez zekarren indarra ez zen herri denentzat berdina eta hobea. Herrientzako Ordenanza berriak, oraindik feudalismoan zeudenentzat oso onak ziren, baina ez hemen lehendik zirenen bezain demokratikoak. Harritzekoa da, orain bezala orduan ere, kanpotik datorren ideiarik hainbeste beldur izanik, bertako hobea ezagutu gabe kanpoko txarragoa goitik behera aginduz eta behaturik sartzea.

Geroztik, gure herrietan, alkateak urte gehiegi irauntzen dute, urte askoren buruan aldatu gabe, eta maiz herriak hautatu gabe.

Gure herri erakunde demokratikoak ere zibilizazioaren izenean suntsitu beharra ote zegoen?

Marichalar y Manrique, en su "Historia de la Legislación" (1868), se lamentaban porque el Fuero general no era tan explícito en lo relativo al sistema municipal, ya que nada nos dicen acerca de la organización de los ayuntamientos, omisión que les era común tanto al fuero guipuzcoano como al vizcaíno.

Recopilaciones posteriores han mostrado los modos de gobernar los municipios vascos. Una descripción bastante completa la hizo C. de Echegaray en el capítulo quinto de su obra "Compendio de las Instituciones Forales de Guipúzcoa" (1924), más en el "Epítome", a la misma obra, y G. Monreal en el magnífico y voluminoso estudio "Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya" (1974). Muchas monografías de localidades guipuzcoanas han contribuido en la recopilación y estudio de Ordenanzas de los Concejos. Cada uno de los ayuntamientos se regía por su propia carta u Ordenanza, y me sirve como ejemplo, en esta ocasión, el estudio realizado por Gregorio de Múgica al confeccionar la monografía de Eibar.

La familia era la base institucional, que anualmente elegía a sus gobernantes municipales. Y con representantes de municipios se formaban las Juntas Generales, y de la Juntas emanaba el nombramiento anual de la Diputación y las resoluciones que ésta había de ejecutar en toda la provincia.

La Constitución de Cádiz (1812) trajo consigo muchísimas ventajas progresistas, acabó con la Inquisición y aplicó el "Habeas Corpus" de los ingleses, con el consecuente avance sobre el antiguo régimen feudal que aún perduraba en algunas partes de la Península. Pero sin ningún género de duda fue un considerable retraso para la vida municipal la normativa de allí emanada, frente a los modos democráticos por los que se regían los municipios vascos. De estos debían de haber tomado el modelo; pero, desgraciadamente, éstos quedaron sin efecto con la abolición foral.

EUSKAL BERDINTASUNA

Historigileak hainbeste aipatu zuten “Euskal berdintasuna” ere forueri loturik zegoen kondizioetariko bat zen.

Aurreko artikuluetan probintzia bakoitzak zuen bere historia bereziaz zenbait argitasun emanez eta Gipuzkoari zeritzan partean herri kontzejuak zuten garrantzia agertu nituen, herriaren egituratik sortzen zen erakundez Batzar nagusiak oinarritzeko.

Hamaseigarren mendearen haseratik aurkitzen ditugun agiriak halan erakusten digute, hemengo semeak denak oro, aitonen seme zirela. Eta izate honek ematen zieten berdintasunetzko eskubideak, noblezaren maila berdin batean, eta hau beharrezkoa zen bozen eskubidea eta karguetarako eskubidea edukitzeko. Berdintasun hau ere, noski, Gaztelako erregeak emana zen, foru “privilejio”ak bezala, euskaldunak kondizioz beharturik. Honegatik, behin eta berriz esango dugu, foruak herria eta erregearen artean jarritako kondizioak direla. Eta kondizio hoiak herriaren borondatez kontra kendu baziren, herriak ere ez du zertan obeditu, ez erregeri eta gutiago haren bendeko beste herri bati.

Espainiako liberal ezkertiarrek beti goraiatu dute Gaztelaniako komunitateen alde Padilla-k egin zuen iraultza (1520-21). Ezkertiarrek bezala demokraziaren alde agertzen diren gehienak ere bai. Baina, bestalde, jende bera da hemengo foruak atzerakoitzat hartzen dituenak, bai lehen eta bai orain. Baina noiz konturatuko ote dira foru horiek, herriaren indarrez eta diplomazia bidez lortuak zirenak, “comunero” haiek eskatzen zuten ber bera direla? Eta haiek aurrerakoiak baziren, gure foruak mende askori aurrea hartuak ziren. Ah, zenbat lan galgarri berena lortu beharrean besterena deseginez.

Elgetan, 1510. urteko Kontseju ordenantzak aurkitu nituen, eta han, ordurako denak ziren aitonen seme, denak zuten parte herriko erakundeetan. Agintariak hautatzeko, agindaritzarako eta gainerako lege guzien aurrean denak zituzten eskubide berdinak. Aldiz, Cervantes-en emaztearen herrian, Esquivas delakoan, “señorial” herri horietakoa izanarren ere, 1576an, berrehun eta berrogeitahamar familiatik hogeta hamazazpi soilik ziren aitonen seme tituludunak.

Badakigu gaur, tituluok ez dutela ezer balio, baina historiak ari garenez, historian zehar bere garrantzia izan du. Gure gurasoentzat gauzarik normalena zen eskubidezko berdintasun hau, eta honegatik behartuak eta ohituak zeuden demokraziaz jokatzeko. Ehundaka urteetan honela ohi zutenek beren idiosinkrasia berezia sortu zuten. Gizaldirik gizaldi etorri zitzaigun ohituraren kutsapena daramagu eta nekeza zaigu obligazioak ditugun lekuan eskubiderik eza. Gure izakeran sartua dugu

besteen menpetasunean kontentagaitzak izate hori. Eta hala konprenitu nahi ez gaituenak ez gaitu maite, hitzez besterik badio ere.

Hitzeri jaramon egitekoak bagina, ekonomia hain makal dabilen garaian arreta hoberik izango zuen “joya lingüística de la Hispanidad” delakoak. Hitz hutsa, gezur hutsa.

Euskal berdintasuna izeneko liburu bat ere bada hor, berdintasun honen nondikakoa tautik ere ulertu ez duen egile batena. Hasteko, ez du ezagutu gai hontaz Karmelo Etxegarayk argitaratu zuen lanik hoberenetao bat, liburu hortan Karmelo zenak asto beltzarenak jaso baditu ere. “Investigaciones Históricas referentes a Guipúzcoa” (1893) liburuaren lehen kapitulua du euskal noblezaren berdintasunari buruzkoa. Nobleza diot, eta ez aberastasuna. Garai haiei begira gaizki erabilia da “oligarquía” hitza ere, bestelako zentzua duelako. Honegatik, hau ere hitz hutsa.

Bizibide bezala, Euskal Herrian, Artzaintza garaia ekonomiaren erarik garrantzitsuena zen aldi hartan sortu zen hain zuzen aberatsa hitza, abere asko zituenarentzat, eta gaur egun dirudunentzat erabiltzen dena. Beraz, pentsa geneza aspaldiko urteetatik, Erdi-aroaren behe partetik edo Eneolitos garaitik behar bada, aberatsak izan direla. Lurrak herrienak oro zirelarik ere, abereak familia jakinen jabetasuna zuten, eta, honegatik, euskal berdintasuna esaten dugunean ezin dugu inondik ere ekonomiko berdintasunarekin nahastu.

Espainian, aitonenseme izateko, jatorritik odol garbia edukitzea eskatzen zen, sarrazeno edo mairu, edo judio odolik ez izatean. Eta, hori hola zelarik, ez dakigu gure herritarrak ala erregeak, nork jokatu zuen zuhur. Behar bada gure herrikoak, hemen ez mororik eta ez judiorik ez zela sartu agertzeaz; edo behar bada erregeak holako pretestoren bat beharko zuen euskaldunoi “privilegio” hau emateko. Enrike IV.a izan zitekean, nolako gauzatarako hain inpotente ez zenez.

Demokrata batentzat zer hoberik Larramendiren esaldi hura baino: zapatarik, sastreak, errementariak, harotzak, harginak, sonbreroginak, alogeratuak, nekazariak, tratantiak, merkatariaik eta gainerako ofizio humilak denak dira nobleak, gipuzkoarrenak badira.

Feudalismoak Europarik gehiena bendereturik zuen garai hartan, noblezako titulurik gabeak beren prolema larriak zituzten, eta garai hartako egoera hori ikusirik zer hoberik herriko seme guzientzat noblezaren mailarik tipien hori berdin lortzea baino. Eskubide minimun hau gizonak beharrezkoa zuen libre izateko; libre, inoren menpetasunezko lokarririk gabe nahi duen edo ahal duen ekintzetara joteko, merkatalgoa sortu, ola-gizon eta ola nagusi bihurtu, eta zijoan lekura zijoala gizon librearen eskubidetasunez joan, eta gobernariak hautatzeko

eskubidea ez ezik baita ere gobernariei beren mantatuan kontuak hartu ere bai. Peninsulan, gainerako herrietako gizonak ez zuten holako eskubiderik. Behar zituzten lortu, baina ez gureak desegin.

Baina, aitortu dezadan hemen ere dena ez zela zeru. Europa feudalenpean bazen, ez zen harritzekoa hemen ere zenbaitsuk holakorik nahi izatea. Baziren Erdi-aroan jauntxoak, eta geroago ere izan zen jauntxokeria nahi zuenik. Isastik hauei, "títulos de Castilla" deitzen zien, erregeren zerbitsuan merkatari, gudaiburu, diruzai, eskribau, irabazitako tituluak, edo diruz erosiak. Hauetarikoak baziren herrietan eta nahi izaten zuten agintea bortxaz eraman. Ordea, Batzar nagusiak arreta handia hartzen zuten hoiak kontra eta eskubide berdinak zaintzen. Gehiago oraindik, Bizkaian debekaturik zegoen Gaztelako titulu horien onartzea.

Garai haietarako oso aurreratua izan zen foru generalaren babesa. Zeren, Batzar nagusiak zituen foruak hutsik eziren gauza handia, baina herrien erakundean oinarritzea, gizon bakoitzaren eskubide osoa bere barne hartzen bai zituen. Badakigu, egun, horien parte asko zahartuak eta baztertu beharrezkoak direla, baina familia eta herriko batzarretatik jarritako gobernuak, herriari begira eta herriak kontuak eskatzeko ahalmenez, hemen datza foruen muina.

Al tratar del igualitarismo vasco no debemos confundir el igualitarismo de nobleza con el igualitarismo económico. Téngase en cuenta que el vocablo *aberatsa* (rico) significa abundancia de ganado, y que dicho vocablo posiblemente lo hemos heredado desde la época Eneolítica. En el país las tierras han sido comunales, pero el ganado de propiedad privada.

El igualitarismo vasco ha sido únicamente de nobleza, que por el fuero general amparaba por igual a todos los nativos en hidalgos. De este igualitarismo trató ampliamente Carmelo de Echegaray en el primer capítulo de la obra "Investigaciones referentes a Guipúzcoa" (1893).

Nuestros antepasados, cuando en Europa predominaba aún el feudalismo, buscaron los medios necesarios para lograr aquellas aspiraciones por las que lucharon los comuneros de Castilla. Y la izquierda liberal que nunca se preocupó en estudiar el contenido sustancial de la foralidad vasca, siempre la consideró retrógrada. Y la base de la foralidad residía precisamente en la familia y en el municipio, como base del gobierno de las Juntas generales. Y para esto, en aquellas

épocas, era indispensable que la nobleza fuera universal (o que no existiera la nobleza; que a fin de cuentas sería lo mismo). ¿Hay acaso algo tan maravilloso como aquella frase burlesca de Larramendi?: “Zapateros, sastres, herreros, carpinteros, canteros, sombrereros, jornaleros, labradores, tratantes, mercaderes en menudo y grueso, y otros oficios más o menos humildes todos son de nobles, siendo de guipuzcoanos”. Justamente, el Padre Larramendi, con esta frase salía al paso de tanta crítica que se hacía a esa nobleza universal de los vascos por parte de los que en otras regiones se sentían de más alta alcurnia y que no podían tolerar que con título de nobleza desempeñaran tales profesiones u ocupaciones.

Esto le hizo decir a C. de Echegaray: “puede decirse, con frase hasta cierto punto atrevida, que todos eran hidalgos en la Euskal-Erria, porque ninguno lo era en el sentido en que lo eran fuera de nuestro suelo”. Para continuar más adelante: “bastaba ser guipuzcoano de origen para ser hidalgo, y sólo en número insignificante habían penetrado en Guipúzcoa los extraños, la hidalguía resultaba universal, y los nobles de este país, que lo eran todos, no se desdeñaban de consagrarse a labores serviles, ni tenían a menos lanzarse por esos mares en busca de medios de subsistencia, ya que la tierra, dura de suyo, ingrata e improductiva, se los negaba”.

Debió ser difícil el abstraerse de aquel clima feudal de su periferia geográfica y surgían, cómo no, algunos “jauntxos” de los que Isasti llamaba con títulos de Castilla. Sobre esto, los señores Marichalar y Manrique, en el libro tantas veces citado, dejaron bien clara la cuestión: “Las Juntas cuidaron siempre con gran escrupulosidad de sostener este nivel hasta el punto, no ya de permitir el señorío de unos hidalgos sobre otros, sino aún, prohibiendo el uso de títulos, que sin ser más honoríficos, pudiesen denotar superioridad o desigualdad”.

Estos usos, en el transcurso del tiempo, formaron en el vasco una peculiar idiosincrasia para autogobernarse democráticamente. De aquí, sin duda, nuestra rebeldía a toda imposición antiplebiscitaria.

1976-VIII-9.

MATXINADA

Foruen garai hartan, erregeak, inoiz bazekien foruen kontrako dekretuak ematen. Holakorik zenean, gehien gehienetan, obedituarren kunplitu gabe uzten zen eta bertan behera gelditzen zen. Baina beti ez zen

hau gertatzen. Inoiz, erregeren korrejitzailearen bidez bete nahi izatera behartzen zen eta hemendik etortzen ziren istiluak. Anti-fuero baten itilurik handienetako bat Matxinada izan zen.

1717. urtea bukatzean, urte honen abuztuko 31n hartu zen erabakia betearazitzea eskatu zuen gobernuak, Balmaseda, Orduña eta Ebro ibaiaren mugetatik itsas-portuetara eta Pirineora Aduanak aldatzeko. Baina, Euskal Herriak, foruen araura, merkatalgoaren eskubideak libre zituen. Hau zala ta Bizkaiko Batzar nagusiak argi eta garbi agertu zion erregeri, ez zela bertako jaun eta jabe, elkarren artean zituzten kondizioak bete beharra zuen Printzea baizik. Baina, hala ere, gauzak aurrera eraman nahi zituen nonbait eta Bilboko hiria ez zegoen amor ematearen alde, ez eta ere gainerako herriak. 1718ko urriaren 4an Kontzejua bildu zen Begoñan eta Aduanak jartze honi gogor aurka egitea erabaki zuten.

Ordurako baziren zenbait gertakari, Bermeon eta Algortan Aduana guarden itsasontziak erre zituzten eta Bilbon bertan ere herria jaikita zebilen. Bizkaitik gainerako probintzietara pasatu zen iraultza giroa eta ezerk ezin zuen baretu.

Urriaren bostean Bilbo jendez bete zen. Inguruko herrietatik hara jo zuten erregeren ordezkari eta zenbait jauntxori kontuak eskatzera. Hauen arteko ziren zenbait diputatu ere, herriaren iritziz erregeren aurrean behar haina ahalegin egin ez zutenek, eta diputadu hoietako bati heriotza eman zioten. Beroaldi hortan inork ezin zuen baretu mindurik jaiki zen herria eta jauntxoetarik askok ihesari eman zioten, batzuk herbestera eta beste batzuk komentuen babespean izkutatzen. Ordu tristeak eta egintza tristeagoak izan ziren haiek. Gertakizunok, zehatz mehatz ematen ditu Labayruk bere "Historia general del Señorío de Vizcaya"ren VI. tomoko bederatzigarren kapituluaren azkenaldetik aurrea, hamargarren kapituluaren zehar.

Matxinada izena, olagizonegandik hartua izan behar zuen, hemengo forjariak matxino izena zeramatenez. A. Otazuren ustez ordea nekazarien iraultzaren itxura gehiago zuen, berak aurkitu dituen agirieri jaramon eginaz. Baina, Matxinada Gipuzkoan zehar ere zabaldu zenez, hemen, hiriak, hauzoak eta baserriak baino gehiago mugitu ziren itxurak daude. Bizkaian bertan ere, kontu izan hiriak batzarturik hartu zituztela protestaren erabakiak.

Gure inguruetan, Deba arro partean, berebiziko haserre sortu zuen Aduanak jarri nahi izate honek. Hemen ere herria jaiki zen eta lanak utzi zituzten. Gehiago oraindik, Plaentziako Errege-Armeriak ere lanak utzi zituzten. Behinpehin 1718ko azaroaren 13tik 20ra bitartean huelga egin zuten. Armeria hoiek gremioenak ziren izatez, baina beren lan guzia

Espaniako ejerzitoak eta gure probintzietakoak hornitzeko izaten ziren eta honegatik zuten erregeren arduradun bat, armak ikusi eta onezpena emateko. Garai hartako arduraduna Antonio Hidalgo de Cisneros izeneko jaun bat zen, eta honek erregeri egin zizkion gutunak ezagutzen ditugu. Simancas-go Artxibo Generalean gordetzen dira. (A.G.S., Secretaría de Guerra, Leg. 468, fol. 51-54). Hoietan agertzen da hemengo armaginak zer jokaera hartu zuten Matxinadaren aurrean. Hidalgo de Cisneros-ek gutunez zionez, arma fabrika gelditurik zegoen eta armaginek ez zutela nahi lanera itzultzerik Euskal Herriko foruen kontra eman zen erabakia baztertzeko ez zen artean. Uztailaren hogeikoan zionez, haserreak baretuz zijoaztela eta espero zuela armeriako ofizialak laster laneratuko zirela.

Agirian dago maila guzietako jendea jaiki zela. Eta agiriago oraindik Euskal Herriak munduarekin merkatalgoan libre jarraitu nahi zuela, bere gizarte egiturak eskatzen zuen araura, eta ez bestek beharturik jarritakora.

Matxinada mugimendu hura herriaren iraultza orokorra izan zen, eta ez holako edo halako mailatakoena. Aipatu dugun Labayruren obran VI. tomoko hamargarren kapituluaren azkenaldera, 103-4 orrialdeetan, Batzar nagusien agiria dator mugimendu honi buruzkoa, eta argi eta garbi jartzen dio erregeri legez kanporako agindua eman zuela. Eta Matxinada baketzeko erregeak bere ejerzitoa bialtzearen kontrako azaltzen dira.

Dena dela, gertakizun gogorak ezagutu ziren, heriotza askorekin. Honegatik, hiltzaileak epaitu eta heriotzara eraman ziren.

Hau ere erabagi gogorra eta maltzurra izan zen, zeren legezkontrako agindu baten ondorenak izanik, erregea bera ere erruduna izan bai zen. Honetarako, aldezturik, Aduanak berriz Ebrora itzultzea agindu zen. Konponketarako eman zen hitzezko agindu hau 1722ko abenduaren 16an erregearen dekretuz agertu zen. Ikus Labayruren aipatutako tomo hortako 18. eraskina, 748. orrialdean.

A. Lafargak ere oso ongi adierazia du, Bizkaiari dagokion partean bere "Aportación a la Historia social y política de Vizcaya" liburuaren zati batean.

La sedición vasca de 1718, conocida por la Machinada, fue un triste acontecimiento provocado por un Real Decreto antiforal, pretendiendo el establecimiento de las Aduanas en los puertos y frontera pirenaica del País Vasco.

Dicho Decreto fue objeto de que el Gobierno del Señorío de Vizcaya formulara una amplia exposición de sus derechos respetuosa y enérgica a la vez, advirtiendo de los gravísimos perjuicios que se originarían en un país tan pobre de agricultura, por la fragosidad del terreno, si se obligaba a los mercaderes a pagar los derechos que antes únicamente abonaban los que conducían a Castilla las mercancías después de aprovisionarse el pueblo.

En la Corte no se atendió a esta exposición del Señorío, ni la inmemorial franquicia, ni que el Rey, Señor de Vizcaya, no era un soberano absoluto que pudiera hacer lo que quisiera, sino un Príncipe que tenía que acomodarse a la práctica seguida y observada, y a las condiciones particularísimas del Señorío, al juramento de observar todas las leyes del Fuero, entre las que se encontraba la de la libertad de la compra y venta de todas las mercancías necesarias al mantenimiento de los naturales. Como muy bien describe Adolfo Lafarga.

Tal aplicación trajo grandes desmanes, así al Señorío como al resto de las provincias. Labayru trata ampliamente del asunto en su obra "Historia General del Señorío de Vizcaya" (1903), en el tomo VI desde la página 84 en adelante.

La revuelta fue general y no únicamente de labradores. Se extendió a Guipúzcoa y la misma Real Fábrica de Armas de Placencia salió a la huelga, según consta de las cartas del entonces veedor del rey señor Hidalgo de Cisneros, quien informaba que los trabajos habían sido suspendidos debido a la resolución antiforal, en cartas que se conservan en el Archivo General de Simancas (A.G.S., Secretaría de Guerra. Leg. 468, fol. 51-54).

El movimiento popular se hizo incontrolable y ocasionaron varias muertes de entre los que ellos consideraban responsables o entre los que no obraron conforme a sus responsabilidades. Pero al apaciguar la sedición se hizo ver la justicia del rey, con penas capitales contra los responsables de los asesinatos cometidos. Para esto hubo que prometer el retorno de las Aduanas a sus puntos antiguos, como más tarde se hizo constar por Real Decreto del 16 de diciembre de 1722.

La machinada fue uno de los episodios más tristes y sangrientos de los antifueros de nuestro país que a la vez testimonia la fuerza que inspiraba en el pueblo el derecho foral.

1976-VIII-16.

AZKOITIKO “ZALDUNTZOAK” ETA BEREN LANA

1975ean betetzen da Real Sociedad Económica de Madrid-en sortzearen berrehungarrena. Azkoitiko “zalduntxoak” hemen hamabi urte lehenago sortu zutenaren antzera, hoiengatik ezinagatik.

Azkoitiko “zalduntxoak”, beren lanagatik, kritikarik aski izan dute, alde eta kontra. Padre Isla, Menéndez y Pelayo eta beste batzuk irainik nahikoa altxatu zuten, eta gure egunotan oraindik badira E. Ruiz y González de Linares eta beste sasi-marxista batzuk, garai hartako burgesiaren aurrerakoitasuna ulertzeke jardunean ari direnak. Aldekorik ere izan dute, Julio de Urkijo eta Jose de Aralar bezala. Haien lana gehiegi idealizatu dutela? Hobe da ekintza onaren idealizazioa, ikusi ezinaren baretik egositako kritika baino.

Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País zelako hura juzgatzeko, bere arautegia eta agiriak behar bezala aztertu gabe ezinezkoa da. Ezinezkoa, instituzioa bat bere izatearen egituretatik eta bere lanaren frututik aparte kritikatzeko. Bestalde, garai hartako Euskal Herriko eta Espainiako egoera sozio-politikoaren giroa, European ilustraziotik etorri ziren abantailak eta Enziklopedismoaren filosofiatik indartu zen ekonomia liberala aztertu beharrezkoak ditugu, gizonak eta honen obrak jurgatu nahi baldin baditugu.

Azkoitiko “zalduntxoak”, Padre Isla-k bere ikusi-ezinez “caballeritos” deituz guttietsi nahi zituenak, garaiko egoera ondo ikertuz hartu zuten beren bidea. Ordura arte, handi nahiz asetu ezinik zabilzan jauntxoak hemendik erregeren kortera ihes egiten zuten, eta azkoitiar “zalduntxoak”, beren noblesia tituluak erregeren aurrean aprobetxatuz, erarik pragmatikoenek, jakintza aurrerapenaren helburuak jarri nahi zituzten eta neurri handi batean baita jarri ere.

1748 inguruan hasi ziren, Azkoitian bertan, Akademia gisa biltzen. Eta asmo sendo batzuk pentsamenez eta antolamenez oinharritu ondorean, 1763an Gipuzkoako Batzar Nagusiari adiarazi zioten, asmoak burutzeko Elkarte bat sortzeko baimena eskatuz. Eta Batzarraren baiezkotza hartu ondorean, ohi zen bezala, erregearen baimena lortu. Carlos IIIgarrenak 1765eko apirilaren 8ko R.O. ean onhartu zuena.

R.S.B. de los Amigos del País, bere funtsean zer zen jakiteko, hara hemen bere arautegiaren lehen artikuluan zer irakurten dugun: “El objeto de esta Sociedad es el de cultivar la inclinación y el gusto de la Nación Bascongada hacia las Ciencias, Bellas Artes y Letras; corregir y pulir sus costumbres, desterrar el ocio, la ignorancia y sus funestas consecuencias y estrechar más la unión de las tres Provincias Bascongadas de Alava, Vizcaya y Guipúzcoa”.

Ekintza honen burugoan ziren: Xabier Maria Munibe, Peñaflo-
dako Kondea (1729-1785). Toulouse-n estudiantua. Bere ondasunik
gehienak gastatu zituen R.S.B. Amigos del País-ko enpresa aurrera
ateratzen, eta bere semeak ere osasuna enpresa honen alde emanaz galdu
zuen. Elkartearen buru eta eregilerik bizkorrena izan zen. Bergarako
Areizagatar batekin ezkondu zegoan eta hemendik etorren emaztearen
herriarekin hain har-eman estua eta geroago Seminarioa hemen jartzea.

Manuel Inazio Altuna Portu (1722-1762). Amigos del País-ko
elkartea sortu baino lehentxoago hil zen, baina asmoak aurrera emateko
erakunde antolatzen lan asko egin. J.J. Rousseau-ren adiskide, honek
bere *Konfesoioak* liburuan egiten dion aipamenak agertzen duen bezala.

Joakin Maria Egia Agirre, Narros-ko markesa (1753-1803). Behar
bada hau zen hiruretatik enziklopedisten filosofiaz gehien zaletu zena eta
ideia berriak zabaltzen ahalegindu zen.

Beste asko ziren hoiengana lotu zirenak, ideiaz, asmoz edo jakitez.
Euskal Herritik ospetsuenetakoak Félix María Samaniego, Valentín
Foronda, Vicente María Santibáñez eta abar.

Beren lanaren helburu nagusiak, Bergarako Seminarioa (beren
Escuela Patriótica-ren ondorenez) eta Gasteizko Misericordia etxea.

Bergaran, lehen irakaskintza, 1766rako hasia zen. Baina 1768an
indartu zen, urte honen urriko 24an hartu zituzten erabakiekin.
Aritmetika, Algebra, Geometria, Geografia, Latin, Frantsez, Musika,
Dantza eta Esgrima erakusten zituen garai hartan. Grimaldi-ko markesa-
ren laguntza izan zuten gobernuan eta errege Carlos IIIgarrenak, 1769ko
abuztuaren 19ko R.C.-ren bidez Bergaran Jesuitak utzi beharra izan
zuten etxea eman zien. Gainerako laguntzarik ere izan zuen errege honen
aldetik. Era berean, gure probintzietako Batzar Nagusiak eta beren
bazkideak diruz laguntzen zuten.

Bertako gizonik jakintsuenak parte hartu zuten eta herbestetik ere
irakasleak ekartzen zituzten, batez ere hemen interesatzen zen espezialita-
teren batean jakitun zirenak. Kontuan izan Espainia guzian inoiz ikutu ez
ziren gaiak ere hartu zituztela. J. Odriozolak Matematikazko tratadu
berri bat egin zuen, I. Zabala bergaraarrak galtzairua urtzeko era berriak
deskubritu, L. J. Proust frantsez kimiko famatuak hemen irakasle zen
artean lortu zuen "platina" metalaren lehen urtzea. Baina denetatik
aurkimenik aipatuena, zera izan zen, Fausto Elhuyar Subiza (1755-1833)
irakasle ospetsuak, bere anaiaren laguntzarekin, Scheele sueziarrak
1781ean aurkitutako mineral zuria, tungsteno zelakoa, wolfram-aren
azido tungstikotik ikatz prozeduraz banatu, eta honela erabaki zen
Scheele-k aurkitutakoa beste metal bat zala, Bergman-ek uste izan zuen
bezala. Esperimentu hau 1786an egin zen. Elhuyar anaiak Logroñoan

jaioak ziren, beren gurasoak Ifar Euskal Herrikoak baziren ere. Aita hazpandarra zuten.

Meatokiak, olak, artesaniak eta abar, hobetzen eta indartzen ahalegindu ziren, beren ikerketen bidez. Era berean, lehen bakunazioak, komunikabideak hobetzez, basoak zaintzez, linu-haziak hobetzen eta abar. Beren estudioetarako lantegi, laboratorio, biblioteca eta abar, teoria eta praktika elkarri lotzeko. Bertako langintzak hitz gutxitan adiarazterik ez dugu, eta zehatzago ezagutu nahi dituenak Leandro Silván-en *Los estudios científicos en Vergara a fines del siglo XVIII* liburura jo beharko du.

1804an, errege Carlos IVgarrenak, Estaduaren eskuetara pasatu zuen, urte honetako uztailearen 23ko R. O. aginduz, Real Seminario de Nobles izena jarriaz. Hemen, Godoy-ren eskua ikusi zen, Euskal Herriaren eta bere instituzioen kontra eta ondorean Oinatik Unibertsitatearekin ere antzera jokatu zen, 1807an. Izan ere, Konbentzioko gerrate ondorean kritika txarren zaparrada hasi zen eta inguru honetan hasten dira Foruen kontrako tira-birak ere.

Azkoitiko “zalduntxoak”, urte gutxian lan handia burutu zuten, eta burutu zuten langintza bera baino interesanteagoa izan zen erakutsi ziguten jakintza gogoia eta zientziaren aurrerapenerako elkar-langintzaren planifikazioa. Eta, esanak esan, aurreruntz bidea irekiko badugu, haien gogoia eta itzala ispilu beharko ditugu.

En 1975 se cumple el segundo centenario de la fundación de la Real Sociedad Económica de Madrid, que se constituyó bajo el estímulo del Conde de Campomanes, con inspiración y orientación de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, que le precedió en doce años.

En realidad, la entidad vasca remonta en sus albores a las tertulias, a modo de Academia, que desde 1748 venían celebrando en Azcoitia un grupo de jóvenes intelectuales encabezados por Xabier María de Munibe, Conde de Peñaflores, y Manuel Ignacio de Altuna; a quienes el Padre Isla despectivamente les llamaría “caballeritos” de Azcoitia.

Estos “caballeritos”, interesados por toda serie de progresos que en la Europa central se venían efectuando desde el Ilustracionismo, incluso influidos por el Enciclopedismo (Menéndez y Pelayo acusó a Guipúzcoa por contar con 15 suscriptores a la *Enciclopedia*, cifra difícilmente a

superar en toda España junta. En nuestra opinión cosa muy loable para nuestra provincia) y, sin duda, por los avances de la economía liberal.

Con mentalidad progresista, planificaron una entidad cultural para arrastrar con la misma a intelectuales del país y crear un Seminario para el estudio de Ciencias, aplicando asignaturas hasta entonces no cultivadas en Universidades españolas. Hasta el extremo de convertirse el Seminario de Vergara en centro de investigación, donde se ensayaron nuevos tipos de hornos y sistemas de fundición. En sus laboratorios, Proust funde por vez primera la platina, y los hermanos Elhuyar obtienen el tungsteno separándolo del wolfram el ácido tungstico con procedimientos al carbón.

Carlos III apoyó de buen grado, pero su sucesor, influenciado por la mala política de Godoy hacia nuestro país, así como atentó contra los Fueros, hizo que por Real Orden pasara al Estado, para convertirse en un simple instituto de enseñanza. Con ello se malogró el impulso ilustracionista, en mengua de nuestro desarrollo intelectual.

1974-XII-16.

BAKAILLAU BIDEAN

Noiztik dabilta euskaldun arrantzaleak bakaillau bidean? Terranova euskaldunak aurkitu ote zuten? Maiz izan ditut holako galderak eta oraintsu bakaillau bidean dabilen adiskide bategandik.

Jabier Aranburuk, *Terranova* izeneko liburuan, egoki jaso zituen bakaillau bidean ari diren euskaldunen bizitza eta lanak, eta galde hoietaz ere zertxobait jarri zuen liburuaren bukaeran. Orain, bertan aipatzen den J. Beobideren gutun bat jaso dut toki-izenen eta hilobi zahar batzuen oharrez. Barnean igortzen didan txartel (postal) batean bera bizi den Saint Pierre et Miquelon hiriko ezkutua dator, eta kuarleteletariko bat Euskal Herrikoa du, zazpiak batean. Ezkutu edo harma hoiek León Joner jaunak eginak dira. Arrantza honen tradizioak eta euskaldunen aspaldikako aztarna horiek kezkatzen gaituzte usteetan murgilduaz aspaldiko kondairetan lausotu arte. Baina kontuz! Karmelo Etxegarai, gure historiagile handiak esan zigun: "Nik ez det esango, euskaldunak, Europako beste inork baño leen, ugarte aundi ura arkitu zutela: ori ez".

Bakaillau bidearen aztarnak zehazki jakin nahi dituenak, beharrezkoa du bale-arrantza ezagutu. Baleari jarraika joaten ziren euskaldun arrantzaleak ifarraldeko itsasoetara, eta honen ondoren aurkitu zuten bakaillau tokia. Eta M. CiriQuiain-Gaiztarro, *Los vascos en la pesca de la*

ballena (Donostia, 1961) liburuarekin, gai hau sakonen eta zabalena ikertu duen egilea dugu. Guk hemen agertuko ditugun berririk gehienak bertatik jasoak izanen dira. Baina puntu bat argitu beharra dugu, Ciriquiain-Gaiztarro Joanes Etcheberri Ziburukoaren euskarazko ber-
tsoekein baliatu bazen ere, euskarazko literaturan ez zen nonbait erdaretan haina ahalegindu —lelo zaharra dugu euskaraz ezer baliozko-
rik ez duguna eta pekatu honetan erori dira gure historiagile asko—. Honegatik, nik hemen gaineratuko ditudan berri batzuk beste lan jakingarri edo ezagugarri batetik jasoak daude, K. Etxegarairen *Euskalerriko itsas-gizonak* (1921ean Donostian irakurri zuen hitzaldia 1923an Euskal-esnaleak *Itzaldiak* liburuan argitaratua).

Euskaldunak bale-arrantzan noiztik hasi ziren inork ez daki. Ondartzara eroritzen zirenetatik hasiko ziren noski, gero uretara bila joaten hasteko. Th. Lefebvre-k dakarrenez, 1059an Baionako merkatuan bale-haragia saltzeko eskubidea zuten. Errege Alfonso VIII garrenak, Gipuzkoa bereganatzeaz, 1200. urteko abenduaren 31an, Santiago-ko Ordenari eta bere buru Gonzalo Rodríguez-i Mutrikuko gizonak hartutako balea eman zion. Zarautz hiri-bildu izendatzean, 1237an, kondiziotzat, erregeak beretzat eskatu zuen hartzen zuten bale bakoitzaren zati bat. Zati hau burutik buztanera arteko tira bat izan behar zuen. Getariak ere bete behar hau zuen 1220tik. Gainera, arrantza honen agiriak, itsas-hegalean ditugun zenbait herriren eskutu edo harmetan ditugu. Hala dira Hondarribian, Getarian, Mutrikun, Ondarruan, Lekeition, Bermeon eta Mundakan.

Bestalde, hemengo itsas-gizonen nabegaziorako ahalmena ondo finkaturik gelditu zen XIII. menderako. Donostiatik, Bermeotik eta Bilbotik Flandes-era burdina eramanez eta handik oihalak ekarriz. Ordurako La Rochelle-n eta Nantes-en euskaldunak bazituzten beren etxeak, eta 1350. urtetik Brujas hirian ere bai, beren salerosketak hain estuak zirenez gero. Esan ohi da, Etxegaraik dionez, Debako eliza ederra ere bertatik irtetzen zen Gaztelako artilak ematen zuen irabaziekin egina dela.

Euskal Herriko itsas-gizonak XVI. mendeko lehen partetik Terranova-ko bidea hartua zutela badakigu, baina lehenagoko berri zihurrik ez dugu aurkitzen. Herbesteko eta bertako idazle askok aitortzen digute Colón baino lehen joaten zirela gure arrantzaleak Ifar-Ameriketako lur haietara, baina hau egi egingo duten dokumentuak falta ditugu. Ba diteke, baina ez da gauza segurua.

Lekeitioko Ordenanzetan, 1555ean, “Tierra Nueva” (Terranova itsasalderako erabiltzen zen “jabalin” arpoia aipatzen da, eta honek, beste gabe, askoz lehenagotik datorren susmoa dakarkigu. Eta, Donostian,

hauzi baten agiriak, Ciriquiain-Gaiztarrok dakarrenez, 1526garren urtera garamazki, baina hemendik aurrera joatea abenturismo hutsa dirudi, agirien bidez egizatzen ez baldin bada.

Gai honetan ondo gogoan izan behar dugu, euskaldun arrantzaleak, ez zirela joan lur berrien bila eta beren gogoan deskubrimeturik ez egoanez, aurkitutakoaren berririk ere ezingo zuten eman. Beraz, ez du merezi Colón-en deskubrimentuarekin konparatarik egiterik, batzuk janari bila eta besteak lur berrien bila jardun zirenez gero. Bestalde, Terranova inork aurkitzekoan, "drakkark", Eric Gorriaren vikingoak X. mendean Markland-en sartzen zirela badakigu. Eta hau dakigunez, ez dugu egin behar ilusio gehiegirik gure aurrekoak hara lehen aldiz joan zirenaren ustean. Ustea, erdia ustela, dio gure errefrau zahar batek.

Hamaseigarren mendearen erdi ingurutik honuntza berri asko dugu. Mende honen bigarren partetik, bakaillau arrantzak itsasaldeko herrientzat aberastasun handia ekarri zuen. Hala ere, bakaillautzan gogor edo sakon aritzeko, gatzaren eragozpenak larriak izan behar ziren. Garai hartan ez zen Euskal Herrian nahikoa gatz, eta honen produzioa gehitu nahirik ziren. Baina, gero, zergak ere honen gainera joan ziren, 1631. urtean "Estanco de la sal" zalako zergak jasotzeak herria iraultzaara bultzatu zuena. Gatzaren premia eta balioa neurtzeko zer agiri hoberik? Eta bakaillutzak gatzik aunitz behar zuen.

Bakaillau bideak, XVI-XVIIgarren mendeetan aberastasunik ekarri zuen gure herrira.

Terranova-ko *Placencia*-n XVIIgarren mendeko euskaldun arrantzaleen bost hilobi aurkitzen ziren mende honen lehen partean, Howley-k 1908ko RIEV aldizkarian argitaratuak. Batzuk euskaraz eta beste batzuk latinez idatziak. Izen deiturretatik agiri denez, han hil ziren lapurditarrenak dira. Gure hauzoko soraluzearrak inoiz pentsatu dute *Placencia* izena bertako semeren batek emana izango zala. Plaentziar adiskideak barkatuko naute: baina, zihurrago litzake Bizkaiko itsas basterrean dagoen Plencia-tik hartua. Gaminiz zen lekuan, 1299an sortu zen orduko Placencia (gaurko Plencia); geroko agirietan agertzen denez bertako arrantzaleak ere bakaillau bidean ibili ziren eta zentzunezkoa da izen hau haiek ematea.

Euskaldunak hara zuten joera argi dago bertako zenbait leku-izenetan: Buruxumea, Buruandia, San Lorenzo xumea, Portutxoa, Mikeleportu, Etxaideportu, Txasko-portu, Opor-portu, Bizkai-bai eta abar, gaurko *Port aux Basques* delakoaz gainera. Piarres Lhandek ere *L'Emigration Basque* liburuan ematen ditu zenbait berri jakingarri. Liburu hau, Auñamendi argitaldaria orain lau urte gazteleraz argitaratu eman zuen.

Bakaillau bidearen eragozpenak, nazioartean sortu ziren hauzietatik, 1697tik hasi ziren. Urtetik urtera beheraka etorri zen. Utrecht-ko tratadu hartan ere mugatzeak bilatu nahi ziren (1713an), baina geroztik ez du ikusi lehenagoko handitasunezko girorik. Hala ere, gure egunotan oraindik iraunarazten diote. Oraingoentzat benetan lagintza gogorra bada ere, zer ez ote zen ordukoentzat?

Ciriquiain-Gaiztarrok bere liburuaren 217. orrialdean dakarrenez, Terranova-ko biztanleak eta euskaldunak har-eman onak omen zituzten, eta hango haiek zenbait euskarazko gauza ikasi ere bai. Eta, gaur, haien agurrezko hitzez esango nioke nere adiskime min Joxe Beobideri: *nola zaude, galdetzeaz; apaizak obeto*, erantzunaz.

He recibido una tarjeta postal de Saint-Pierre et Miquelon, con el escudo de la ciudad que lleva, por uno de los cuarteles, el escudo vasco Zazpirak-bat.

La pesca del bacalao en aquellas tierras de Terranova vino como continuación de los balleneros que llegaron hasta los mares del norte persiguiendo a los cetáceos y descubrieron los bancos de bacalao.

Hay testimonios escritos de la pesca de la ballena entre los siglos XI y XIII. Para este último de los siglos disponemos de pruebas evidentes del desarrollo comercial de algunos de nuestros puertos con La Rochelle y Nantes. Los puertos de Bilbao, San Sebastián y Bermeo, en el siglo XIII, exportaban mineral de hierro a Flandes e importaban textiles y otras mercancías. En Brujas se disponía de una casa comercial desde 1350. Que demuestran la potencialidad de la flota vasca en la época.

Desde primeros del XVI, los pescadores vascos tomaron la ruta de Terranova, probablemente siguiendo la pesca de la ballena, como he apuntado.

Hay quienes afirman que los vascos iban a Terranova antes que Colón descubriera América. Nos parece de género tonto tal comparación cuando las finalidades de los navegantes venían a ser tan distintas. Pero, además, no disponemos de pruebas que lo confirmen con certeza.

En los siglos XVI y XVII, la pesca del bacalao vivió su gran época de esplendor y supuso una riqueza que jamás gozaron nuestras villas costeras.

En 1697 se discutió por vez primera sobre el derecho de la pesca de la ballena en Terranova y, paralelamente, se tropezó con dificultades en la del bacalao.

Aquellos vascos dejaron tan honda huella, que hasta nuestro tiempo se han conservado lápidas funerarias escritas en vascuence y bastantes puertos y lugares llevan nombres vascos.

1975-III-3.

PLAENTZIAKO FABRIKAREN LAUREHUN URTEBURUAN. SUZKO ARMEN LEHEN BERRIAK

Aurten dira laurehun urte Plaentziako Arma Fabrika sortu zala. Sorrera honek bere hasierak izan zituen eta hauei buruz zerbait esatera nator.

Armak, Harri-arotik honakoak ditugu, baina lehenengo suzko armak Erdi-aroaren azkenaldera agertu ziren. Asko hitz egin da honetaz baina gauza zihurrik gutti esan da. XVgarren mendean hasi baziren ere, XVI.lean ezagutu ziren lehen esku-armen aurrerapenik handienak, metxazko espingardatik suharrizko arkabuz eta mosketera arte. Eta hauek Euskal Herrian izan zuten garrantziaz jardungo naiz.

Suzko-arma lehen aldiz Oinaz eta Ganboar garaiko guduetan ezagutu zen, 1420an Lazkanoko ahaide-nagusiak Loiolako etxea inguratu zutenean, eta bere hormak autsi ezinez Ihartzakora jo zuten eta hau eratxi zuten. Hemen azaldu zen "lonbarda" izeneko arma izugarri hura eta geroztik zenbait aldiz agertzen zaiguna, Lope Garzia Salazar-koaren koroniketan ikus dezakegunez.

Bizkaiko Foru zaharrak II. tituloko 38. kapituloan, 1452garren urtean, lonbarda, trabukete eta gainerako armok debekatzen ditu.

Berri hauek, egia esan, ez digute egiztatzen armok Euskal Herrian bertan eginak ziren, hala uste badugu ere.

Arma hauek Euskal Herrian egiten ziren lehen agiria Isabel la Católica-ren 1480ko Cédula Real-ean agertzen zaigu, hemengo armagineri deia eta eskaria eginez, armak behar zituela eta ahalik azkarren eta ahalik gehien egiteko aginduaz. Geroztik geroago eta eskari gehiago datoz. 1488an Mallea deiturako baten bidez eskatzen direnen artean suzko eskuarmak ere agertzen dira. Hemendik aurrerako berri asko ematen ditu Gregorio Mujikak *Monografía Histórica de Eibar*-en. Geroago, Ramiro Larrañaga nere adiskideak ere berri asko gehitu ditu, eta neronek ere berri interesgarri asko aurkitu ditut, hitzaldi batean berrituko ditudanak. Hemen, artikulo labur batean, ez baita posible dena agertzea.

Lehen parteko agirietan ez da esaten Euskal Herriko zein partetan egiten ziren. Maizenik ere, “en las fábricas de la provincia de Guipúzcoa y Señorío de Vizcaya”, batzuetan Araba ere aipatzen delarik. Baina XVIgarren mendearen lehen erdian ikusten danetik dakigunez: Plaentzia (Soraluze), Bergara, Eibar, Markina, Ermua, Elorrio eta Mondragoe dira suzko esku-armagintzan azaltzen diren herriak. Araba eta Tolosa arma-zurigintzan batez ere. Gainera, armagintzako maisutzat lehendabizikoz agertzen dena plaentziatarra da, “Juan de Churruca, *maestro armero*”, 1561ean. Honen ondotik, geroko urteetan aipatzen direnak, deituraz, Deba-arroaren erdi ingurukoak dira gehien gehienak. Inoiz arma-lantegien herrien izenak ere agertzen dira, eta argi ikus genezake Soraluze, Eibar, Bergara eta inguruetan zirela “las fábricas de Guipúzcoa y Señorío de Vizcaya” esaten denean.

XVIgarren mende honen zehar milakak eta milakak armak egiten dira. Bitartean, Bilbon eta Nafarroako Eugin artilleria egiten zen eta Mondragoen gainera hauentzat munizioa.

Ordura arte “fábrica de armas” esaten zena, herri hoietan sakabana-turik ziren lantegi ttipiak besterik etziren. Elkar-lanean ari ziren lau gremiotan bildurik. Gremio hoietako batzuk beren espezialitate bereziak zituzten. Elkar-lan honen ugaritze eta zabaltasunak antolakizun berriak eskatzen zituen, eta, orduan, armagintzan ari ziren guziak beren borondatez dildurik, hobekuntzen bila, erkargo finkatuago bat erabaki zuten eta hemendik sortu zen, 1573an, “Fábrica de armas portátiles de fuego y blancas de guerra de la villa de Placencia” izenekoa. Armagintza honek Plaentzian zituen bere sustraiak eta garai haretan, seguru asko, Plaentzia bera zen lan mota berezi honetan nagusi eta buru; eta geroko urteetan ere horrela agertu zen, XIXgarrenetik Eibarrek aurrea hartu bazion ere.

Armagintzako gremioak zer ziren Lamot eta Jovellanos-ek ederki adierazi ziguten, eta gremio horien garrantzia hain handia zelarik, beren diputadua zuten probintziako batzarretan ere.

Maiz aipatu da armaginarean oroigarritz monumentu bat jasotzea. Nere ustez inoiz garairik izatekotan aurten dala, eta non hobeto Soraluze bertan baino?

El presente año se cumple el cuarto centenario de la fundación de la fábrica de armas de fuego portátiles de Placencia.

Las armas se conocían desde el Paleolítico, pero las armas de fuego, en lo que respecta al país, hicieron su aparición en la primera mitad del siglo XV, en las guerras banderizas que asolaron el país. En 1452, el Fuero Viejo de Vizcaya prohíbe el uso de las armas de fuego. Datos estos que nos inducen a suponer que las armas se fabricaban en el país. Sin embargo, es desde 1480 de donde podemos partir con seguridad sobre la fabricación de estas armas de fuego, por Cédula Real de la reina Isabel que hace un llamamiento a los armeros vascos para proveer urgentemente al ejército. Desde esa fecha hay citas frecuentes.

Desde finales del siglo XV se fabrican las armas portátiles o manuales. En el siglo XVI se operó la primera gran transformación de las armas de fuego, desde la culebrina y la espingarda de mecha hasta el arcabuz y el mosquete de pedernal. Armas éstas que apenas tuvieron mejoras considerables hasta primeros del siglo XIX.

Armaduras y armas blancas se hacían en Alava y Tolosa principalmente; y la artillería, en Bilbao y Eugui de Navarra; pero las fábricas de armas de fuego se ven centradas en la zona central y baja de la cuenca del Deva y pueblos limítrofes de Vizcaya, que fabricaron muchos millares a lo largo del siglo XVI.

El desarrollo impuso primero la organización gremial y más tarde, su complejidad, trajo consigo la creación de una central armera, con examinador, almacenes y comercialización. Y de esta necesidad se fundó en 1573 la fábrica de armas de Placencia.

Su organización gremial nos describieron Lamot y Jovellanos, y su importancia era tal que tenían un diputado que les representaba en las Juntas generales de la provincia.

Se ha tratado bastante sobre el monumento al armero y su lugar de emplazamiento. El presente año es el más indicado para tal realización y el emplazamiento más idóneo sería Placencia, cuna de la armería.

1973-IV-2.

SAGARRA ETA SAGARDOA NOIZTIK?

Sagarra eta sagardoa noiztikakoak ditugu Euskal Herrian? Aspaldi-koak noski. Baina gauza zihurrik ez dakigu.

Historia aurrean agiri idatzirik gabe galtzen zaizkigun gauzen artekoa dugu sagar eta sagardo kontu hau. Martin de Angiozar idazlearen ustez arabeengandik hartua izan leike, baina gogoan izan

behar dugu erromatarrek ere ezagutzen zutela, eta hau hola delarik posible da berengandik ikastea. Autore batzuen eritziz, eta hauen artean E. Labayru bere Bizkaiko historian, XIVgarren mendean Euskal Herriak Normandia-ra eraman zituzten sagarrondoak eta, inguru haietan hedatu ondorean, handik zabaldu omen zen Bretainiara ere. Dena dela, Andrea Navajero italiarrak gure herrian ikusi zituen gauzen arteko zen sagardoa eta 1524an bere ibilerak kontatzen dituen liburuan jasotzen du hemengo edaririk ezagunena bezala.

Bestalde, Euskal Herriko deiturarik zaharrenen artean aurkitzen ditugu “sagar” eta “sagasti” sustraituak. Hamabosgarren mendea baino lehenagoko deiturarik urri dugu, baina hala ere, hara hauek: Sagastizabal Azpeitin, Sagasti Seguran, Sagastigutxia Beasainen eta Elgetan, Sagastiberri di Itsasondon, XIV. mendean; Sagarminaga Zeanurin eta Arteagan, Sagastiberria Ormaiztegin, Sagarzirietan eta Sagasti Elgoibarren XV. mendean aurkitzen ditugu.

Baina sagastien berri zihurak Nafarroako Santxo III.aren agirietan ditugu. Garai hortatik laster dugu Astigarrabiako San Andres eliza bere lurrekin eta sagastiekin San Millan de la Cogolla-ko monasteriora eman zuteneko berria. Beraz, XI. mende hortan sagastiak oso zabalduak ziren, Bizkai-Gipuzkoetan behinik-pehin.

XV. menderako, sagardoak zuen balioa argi ta garbi agertzen zaigu Bizkaiko foru zaharreen. Foru zahar hauek lehengo ohitura zaharren araura idatzi eta onhartu ziren 1452an. Eta XLIXgarren kapituluan dakarrenez, asmo gaiztoz sagardoak upeletatik hustutzen dituenak zigortzat heriotza izango zuela. Bestalde, sagastiak jartzeko arauak ematen dira foru bereko CL. kapituluan. Gipuzkoako foruen XXI. tituluan ere, sagardoa behar bezala gordetzeko antzerako erabakiak agertzen dira. Bilbo hiriko ordenantza zaharretan ere sagardo salketarako erregelak agertzen omen ziren eta geroago, 1534 eta 1539ko lege berritzeak ere haietan oinharritu omen ziren.

Gai hontaz zerbait idatzi duten gehienak aipatu dute Fr. Gonzalo de Arredondo-k 1500ean Fernan González kondearen historian jarri zuen bertso hura, 931garren urtean Hacinas-ko guduan parte hartu zuen Bizkaiko jaunari buruz esan zuena:

*Conde Don Lope, el Vizcaino,
rico de manzanas
pobre de pan y vino.*

Baina politena, zera da, Hacinas-ko gudurik ez dela izan historian, poetaren irudimenean baizik. Dena dela, gure herrian sagar aberastasuna

eta ogi eta ardo eskasia adiarazten digu XV. mendearen bukaeran, baina inondik ere ez X.ean.

E. Garibay-k bere gartzaroan jaso zuen Andre Milia Lasturkoren eresia, bere aizpak heriotza bide jarriak, eta XV. mendearen lehen partekoak dira. Sagar errea aipatzen duen partea bakarrik hartuko dugu:

*Zer ete da andra erdiaren zauria?
Sagar errea, eta ardao gorria.
Ala baña, kontrarioa da Milia:
Azpian lur otza gañean arria.*

Gutienez sagarraren estimazioa erakusten digute Erdi-Aroko bertso hauek. Era berean, Domenjon de Andia tolosarrak, ahaide nagusien borroken kontra Gipuzkoako Hermandadeen eta Gaztelako erregeren alde bikain jokatu zuena eta honetarik hain ospe handia irabazi zuenez, 1489an, bertso hau jarri zioten:

*Sagar eder gezatea,
gerrian ere ezpatea
Domenjon de Andia
Gipuzkoako erregia.*


Askozaz geroagokoak dira Miraballesko adar kontuarenak, baina sagarrak zituen vitaminen berri bazekitela adiarazten digute, Andre Milia-ren erditze zaurian sagar erreak zuen alimentoa bezalatsu gordin helduak hezueri gaitzarentzat. 1619an Tolosako herrian paskin batzuk agertu ziren, beretako bi euskaraz idatziak, bertso traketsez. Miraballesko jaunak, ez fama onik eta gainera hezueria, gota, omen zuen, eta hoietako bertso batean sendatzeko kontseilua eman zioten:

*Rezeta eske oi abil galdua,
gotak ondo ezтик galuoa;
edukak geldirik porrua
eta jan egik sagar eldua.*

Geroago, joan zen mendearen azken partean, Pepe Artolak eta bestek bertso ederrik egin dute sagardoari buruz.

Gure Folkloreko sagar-dantza bera ere oso aspaldikoa da.

Gai honi buruz, teknika partetik, sagasti eta sagardogintza gaiez, S. Agirre Miramón, Muzkiz dorreko kondeak, idatzi zuen lan eder bat, Gipuzkoako Diputazioak 1918an egin zuen sagarrari buruzko album bat,



Igartu-bengo baserria (Ezkioga).

eta sagardoaren estudio zehatz bat eskaini zigun 1953an Felix Mokoroak "Munibe" aldizkariaren Vgarren tomoan.

Argi agertzen da sagastien berriak historia idatziaren hasieran lausoturik galtzen zaizkigula, eta haruntzagoko zerbait jakin nahi badugu beste jokabide batzuez baliatu beharra dugula. Esate baterako, P. Areso sedimentologoa lehen aldiz ari zaigu gure harpeen azternategi-etan lore-hautsak biltzen eta analisatzen, eta hemendik lortu genezake gure herriko sagastien aintzinasuna ezagutzea.

La manzana y la sidra son productos antiquísimos en Guipúzcoa y Vizcaya. Sobre su origen existen diversas versiones. Puede ser importado por los romanos o los árabes, pero la existencia de manzanos en estado

OHARRA: Gai hontaz beste lan zehatzago bat argitaratu nuen *Egan* aldizkarian. Ikus, "Sagarra eta Sagardoa Euskal Herrian", *Egan*, 1-6, 1975, 39/42 orrialdeetan.

silvestre no descarta la posibilidad de haber sido cultivado por los indígenas desde la antigüedad. Recientemente P. Areso ha comenzado a aplicar la sedimentología en los yacimientos prehistóricos del país, que consiste en recoger y analizar el polen depositado para conocer la foresta y por deducción clima y frutos alimenticios. Tal vez por este procedimiento se logre descubrir la datación del manzano en el país; pues los documentos escritos nos remontan a los albores de nuestra historia pero nada sabemos más allá.

Los apellidos basados en sustantivos del lugar nos muestran la difusión de los manzanales en el siglo XIV, y los documentos escritos se remontan al siglo XI. La literatura eúskara de los siglos XV y XVII, en sus cantares, nos muestra el valor nutritivo de la manzana, y en el Fuero viejo de Vizcaya, aprobado en 1452, que a su vez se basaba en el derecho oral, hallaremos legislaciones de la sidra y de los manzanales. Como más tarde en el Fuero de Guipúzcoa.

Algunos autores opinan, Labayru para el caso, que los normandos llevaron el manzano del país vasco y que de allí se extendió a Bretaña.

Aspectos técnicos del cultivo de este fruto han tratado Severo de Aguirre Miramón y la Excma. Diputación de Guipúzcoa en un álbum publicado en 1918. Y un interesante estudio de la sidra aportó Félix Mocoeroa en "Munibe", tomo V, de 1953.

1975-1-27.

III
ARTEAZ
De Arte

HARRI-AROKO ARTEA

Gure lurraldeetan, gizonaren arrastoa, behe Harri-arotik dator; baina artetzat har genezakean lanik, tresneriatik aparte, ez da aurkitzen Harri-aroren erdi-aldera arte. 1970ean Axlor-en (Dima, Bizkaia) Barandiaranek bilatu zuen harrizko irudia dugu zaharrena. Mustier-aldikoa (Musturiense), 40.000. urtetik gora izango ditu. *Homo primigenius*-en gandik orain arte ezagutzen dugun agiri bakarra.

Goien Harri-aroko kultura, 40.000 urtez lehenagotik 8.000 arte-raino, *Cro-Magnon* izeneko gizakien garaia, askoz ere hedatuagoa aurkitzen dugu, materialez ugariagoa, aberatsagoa eta honegatik dugu ezagunagoa. Garai honen barruan badira *Auriñak-aldia*, *Solure-aldia*, *Madalen-aldia* eta *Azilaldia* deitzen direnak, oso aberatsak artearen aldetik, eta arkeologoak Franko-Kantabriako kulturatzat aipatzen dutena. Gizonaren arterik zaharrena noski. Jakina, Harri-aro erdiaren azkenaldetik hasita geroruntz.

Artearen ugaritasunez Madalen-aldiak du garrantzirik gehien, batez ere hormetako pinturegatik: Etxeberri, Sasixiloaga, Isturitz, Altxerri, Ekain, Goikolaua, Santimamiñe eta Venta de Laperra dira Euskal Herrian. Baina kultura honek gaurko Euskal Herriarenak baiño muga zabalagoak ditu. Frantziako Dordoina, Ariege eta Lot erresumetatik Espainiako Kantabriatik zehar Galiziara arte, ehun haizulotik gora dira kultura honen aztarnak aurkitu direnak. Harrizko tresna edo lanabesak, hezur grabaduak eta abar, teknika berdinean landuak daude, mutur batetik besteraino. Baina hormetako pinturak haitzulo gutti batzutan bakarrik daude. Agerian dago giro berdinean heldutako kultura dela. Bai tresnetan eta bai irudiak egiteko moldeetan, era berdinak somatzen dira.

Orduko gizonak beren garaiko abereak dibujatzen zituzten, hormetan, harrietan, hezurretan. Inoiz eskulturak ere bai, hezurrekin edo buztinez, eta Isturitzen hezurrezko txilibitu bat ere bai.

Hormak, inoiz, dibujuak egiteko, era egokian hautatzen zituzten, berezko formak aukeratuaz, Ekain-go bisontak egiterakoan bezala; edo aurrez egoki eratuaz, Altxerri-ko irudietan azaltzen denez; inoiz lerroak harriz irekiaz, Isturitz-eko orkatza egin da dagoen bezala; urrengo, irudiaren barru eta kanpokaldeak zulaturik, lerroa kanporuntz utziaz, Altxerri-ko elur-oreina bere lepoan axeria duela agertzen den bezala; baina, gehienetan, ahalden hormarik berdinen bilatuaz, beste gabe pintatzen zuten.

Esan dugunez, pintatzeko eran ere bada kultura mugatu baten agiria. Molde berdinak jarraitzen dira, hasi Dordoina eta Ariege-tik Galizia alderaino, behinik-pehin. Gaiak berdinak izatetik aparte,



Santimamiñeko irudiak.

dibujatzeko estilua ere bai. Zeren, bazuten estilu berezi bat, irudiak expresioz indartzeko parte batzuk handitu eta beste batzuk txikitu edo mehetuaz; tarte bat zuri utzirik prespektibak zaintzean, atzerago dauden zangoetan garbi azaltzen den bezala, pinturaren argizko alternantziak gordeaz.

Honez gainera, oraindik haruntzago joan gindezke. Errepikatze ordenamendu bat ere nabari da; horma luzeetako frisoak dibujuz hornitzea, hutsuneen betegarri irudiak formaz aldatzean, eta abar. Hutsune betetze hauek ere, batzutan famelia bateko abere taldeez. Honela dira Altamira-ko (Santander) bisontak, Ekain-go (Gipuzkoa) zaldiak, eta batez ere Lascaux-ko (Dordoina) oreinak igerian, Rouffignac-eko (Les Eyzies) mamutak, eta Teyjat-en (Dordoina) bilatu zen hezur batean dagoen elur-orein taldean batez ere.

Harpeak etxe zituzten gizon ihizari haiek elkarren arteko har-eman estuak zituzten, agertzen dugun Franko-Kantrabriako lurretan.

Estilu gordetze hau, ez da bakarrik Madalen-aldikoa; Aurinak-aldian ere nabari da, garai honetan egiten ziren hezurrezko eskulturetan ikusten denez. Alde batetik makila burutzat jo diren irudietan, eta

bestetik emakumezko irudietan. Emakumezkoak, Harri-aroko *venus*-ak deitzera etorri dira. Gainera, irudien estilizatetik sinbolu abstrakto bat biurtzen dira: Brassempouy (Landes), Lespugue (Garona goian), Laussel eta Siereuil (Dordoina) ditugu adigarririk berezienak. Baina hauen kideak ere badira, Willendorf (Austria) eta Savignano (Italia).

Glaziarren ondotik ezagutzen da arte estiluen aldatetarako grina, sinbolu hutsen abstrakzioetara joaz, Azilaldira arte. Mas D'Azil-go eskola horrela bait da. Gure eskualde honetan, Ermitia, Azpitarte, Urtiaga, Lumentxa, Atxeta..., harpeetako hezurretan bilatu dira honen aztarnak.

Hauek ditugu giza-gogoaren lehen kezken agerpenak.

Se resaltan las particularidades que distinguen al arte rupestre de la cultura Franco-cántabra del Paleolítico, cuya extensión abarca desde las regiones de Dordoina, Ariège y Lot en Francia, hasta Galicia a través de todo el litoral cantábrico.

La afinidad en el instrumental lítico y óceo, corresponden igualmente en la estilística de los dibujos, que se distingue de sobremanera en las pinturas parietales. Los motivos, el aprovechamiento y la preparación de las paredes, técnicas de ejecución, estilización de las figuras, composición de frisos, imágenes repetitivas, alternancia de luces en las perspectivas, etc., siguen normas idénticas a lo largo de la geografía en que se localizan, y en cuyo centro radica el país vasco.

La primera muestra, en lo que toca a nuestro país, se remonta al período Musturiense, de finales del Paleolítico medio, con la figura grabada en piedra que se halló en Axlor (Vizcaya). En el Paleolítico superior se conocen abundantes muestras, dentro y fuera del país. Sobre todo en el período Magdaleniense.

De más de un centenar de cuevas con hallazgos, sólo en unas pocas se han localizado pinturas parietales. Y es precisamente en éstas donde mejor se muestra la aludida unidad de estilo que describimos, y que su más alto realismo han alcanzado en las cuevas de Altamira y Lascaux, en lo que hasta hoy se ha descubierto.

El proceso evolutivo que se observa, sigue de igual manera hacia la abstracción para culminar en la etapa final del Aziliense.

En el país, Etxeberri, Sasixiloa, Isturitz, Altzerri, Ekain, Goikolaua, Santimamiñe, Venta de Laperra, etc., guardan el testimonio de estas reliquias que son la primera manifestación artística del ser humano. O,

mejor dicho, muestras de las primeras inquietudes espirituales del hombre.

1972-XI-20.

HERRI ARTEA

Herri artea geroago eta beherago doa, artesanian gutxituaz doan ezkerero.

Baina, lan honetan, plastikaren aldetik begiraturik adierazi nahi dugu, herri artearen beste sail batzuk utzirik. Hau da, literatura, musika, dantza, kirolak eta gainerako jokoak aparte utzirik. Pintura, eskultura edo hauen inguruko apaingarriak haintzat harturik.

Herri arte hau garai guzietako arte estiloetatik zerbait hartuaz heldu zaigu. Zerbait hartuaz, baina bere oinharrizko forma bereziak galtzeke. Garai bakoitzeko estilotik jaso ere, herri arteak dituen sigulu berezien jatorriasunari eutsiaz. Gurasoengandik semeetara, belaunik-belaun heziaz etorri zaigu.


Badira herri artean Harri-aroko Madalen eta Azilalдитik ezagutzen diren apaingarriak, Isturitz, Bolinkoba, Urtiaga... harpeetakoak, makiletan, goru-ardatzetan eta uztarrietan batez ere; epaiki-hortzen erako kakuak, landare eta gainerako lerroak.

Harriero-berritik, Neolitos garaitik, zenbait apaingarrizko lerro ere bai, giza eta abere irudi-eskemak, izartegi sinboloen lehen agerpenak, eta abar.

Erdi-aroarean lehen parteko mende ilun haietako sinboloak maiz aurkitzen ditugu, eguzki-lauburu, izar, epaiki-hortz, eta gainerako apaingarriak, gure garaira arte herriak bere gauzak edergarri janzteko erabili dituenak. Edergarri hauetako asko Erromatarren garaiko hilobietan ere presente dauden apaingarriak ditugu. Baina, batez ere Visigotiko garaiarekin zer ikusirik badute noski. Ziortza eta Elorrioko hilobiak, eta bigarren honetako hilarri biribilak.


Era berean, Euskal Herriko erromaniko eta gotiko garaian ere hainbeste erabili ziren (Karolingio eta Visigotiko garaian bezain ugari eta indartsu finkaturik erabili ez bazen ere) gaur arte gure herriko artesanian iraun duen apaingari ber-berak: Estibalitz, Durana, Idiazabal, Bilboko Santiago eliz-atarrietan aurkitzen diren bezala.

Baina erromaniko garaitik pizkunde garaira arte, XII. mendetik XVI.era arte, aipatu dugun sinbolojia honetaz aparte, badira gainerako gauza bereizgarriak: bataio-ponteetan agertzen diren buruak, Artaizko



0 1 m.

Aristuko mahaina (Urraul goia, Nafarroa).



Eparozko kutxa (Urraul goia, Nafarroa).



CHIMENEAS

- | | |
|----------------------------------|------------------------------------|
| 1.-Casa "Braco", de Adoain. | 7.-Casa "Echandia", de Aizcargui. |
| 2.-Casa "Estoki", de Zabalza. | 8.-Casa "Ramonena", de Elcoaz. |
| 3.-Casa "Bornas", de Zabalza. | 9.-Casa "Landicos", de Imirizaldu. |
| 4.-Casa "Marcuello", de Zabalza. | 10.-Casa de Zabalza. |
| 5.-Casa "Cordobe", de Ezcaniz. | 11.-Casa "Aristurena", de Elcoaz. |
| 6.-Casa "Adoñena", de Eparoz. | 12.-Casa "Zalba", de Eparoz. |

Urraul goiko kezuloak (Nafarroa).

buru hirukoitza eredu dala, Lusarreta, Zumarragako Antigua eta beste zenbait tokitan harrian edo zurean landuak.

Erromaniko-gotiko garaietan dugun berezitasunik nabarmena, imajinak dira, gure herri artearen aberastasunik handiena noski. Hauen artean Andra Mari ugari eta ederrik gadugu Lizarralde eta Anasagasti-ren katalogatze eta estudioetan.

Andra Mari hauek, Kataluinako erromanikoan Kristoak eta Andra Mariak bertako estilo era berezi batean bezala, gurean ere bertako estilo jakina gordetzen dute. Hemen, lerro gutxitan eta fotografia edo dibuju gabe ez da posible berezitasun horiek adieraztea estilorik nabarmena izanik ere, baina imajina horiek begirada bat aski dute zein ingurutakoak diren jakiteko. Barcelona-ko Museo Marés bisitatu nuenean, saloi batean sartzeaz bat esan nion lagundu zidanari, "Hara hor Nafarroako mendialdeko Andra Mari bat", eta hala zela ikusi zuenean zerbait harriturik gelditu zen, zeren bazekien saloi hartan lehen aldiz sartzen nintzela; baina irudiaren aurrealdean diferentziak agertzen eta ondorean Leon aldeko Kristoren imajina ederrak zuten jatortasun nabarmena ikusi (XII-XIV mendeetako Kristoak batez ere), laster konturatu zen estiloak bereiztea ez zela hain gauza zaila.

Herri artea oso landua dugu Euskal Herrian, eta bere nortasuna ez dio ematen holako imajinak eta halako ontzi edo tresnak soilik, baizik herri arteko gauzak oro gorpuzten dute muga.

Lan handietan, arkitektura bera dugu, bai etxeetan, bai elizetan: ermita, torre-zahar, baserri eta abar. Eta, hauen estiloez gainera, berauetan, aipatutako apaingarriak, herriak berak erabiliaz irauneraziz ekarri dizkigunak, ateburuetan, muebleetan (kutxetan batez ere), ontzietan eta abar; harrian, burdinan eta zurean landuak.

Lan tipiagoak izanagatik, hilarri-biribilak, argizaiolak, ontziak (kaiku, kutxuska...), makilak, errosarioak, argi asko agertzen dizkigute berezitasunik eta ugaritasunik.

Gai hontaz anitz estudio bada, Veyrin, Colas, Barandiaran, Yrizar, Zabalo, Caro Baroja, Peña Santiago, Manso de Zúñiga eta beste batzuenak. Baina oraindik ez dugu uste gai ahortua denik, baizik bada hontaz egitekorik, bada zer bildurik eta zer estudiaturik.

Únicamente reseñamos el arte popular en sus manifestaciones plásticas, al margen de la literatura, música, danzas y juegos populares.

Los principales motivos de adorno son: dibujos rectilíneos, signos astrológicos, flora, fauna, las mismas herramientas empleadas en sus

propios trabajos, figuras humanas esquematizadas o estilizadas, cruces de diversos estilos, grafía, etc. Tales motivos de ornamentación, con sello peculiar, figuran en la construcción. Es decir, en la arquitectura civil y religiosa y en torno a los elementos de la misma: encachados, dinteles, filetes, molduras, imaginería, etc.; en el mobiliario, utensilios, estelas, argaiolas, rosarios, tejidos, herrajes, makilas, husos, etc. Con detalles y formas muy peculiares que se van repitiendo generación tras generación desde tiempos muy remotos.

Constituyen un conjunto de gustos estilísticos que caracterizan acentuadamente la concepción plástica dentro del marco de las tradiciones de la cultura popular vasca.

1973-III-12.

ERDI-AROKO ARTEA

Erdi-aroan ere, Europako mendebaldeko kultura orokorra ez zen gauza monolitiko bat, herriak elkarren arteko har-emanak aski libreak eta zabalak zituzten, kulturak ez zuen mugarik, baina hala ere herri bakoitzak bere era berezia agertzen du, toki bakoitzeko hezikera giroak eraginik.

Euskal Herrian Erdi-aroaren lehen parteko materialik oso gutti heldu zaigu gure gizaldira arte.

Arkahiako ponteak, Ziortzako hilobia eta beste gauza gutti batzuk ditugu bizigotiku agiritzat. Karolingio aztarnak berriz Aralarko San Migelen, eta bizantino esmaltadun erretoa toki berean. Arginetako hilobiak (IX. mendekoak), Astigarribiako elizaren sortaldeko horma eta beste. Urri dira arkeolojiak argitu dituen agiriak. Baina Erdi-aroaren bigarren parteaz atera genezake esatekorik.

Egia esan, oso nekeza da bertakotasunaren indarra monumentu handietan arkitzea, garaiko estilo modaren korrenta eliza handiak eginaz sartzen zelako, bai hemen eta bai beste erresumetan. Baina, hala ere, erromanikoa tokian tokiko herri artearekin asko baliatu zen, eta gure lurretan ere badu horrelako adigarririk.

Erromaniko artearen aberastasuna eta ugaritasuna argi ta garbi nabari da Nafarroan eta Araban, zerbait guttiago Zuberoan eta Baxenabarren, eta urri Bizkai-Gipuzkoetan. Nekazaritzaren ekonomiak agintzen zuen garai hartan, lurrik aberatsenetan nabarmen azaltzen zaigu



Argiñetako hilobiak (Elorrio, Bizkaia).

arte estilo hoién ugaritasuna; Nafarroan: Leyre, Iranzu, Orreaga, Oliva, Iratxe, Tudela, Sangotza, Lizarra (azken hiri honetan Granada de Ega-ko Dukearen jauregia ere bai, Nafarroako Santso VI.aren bizi-leku izana); gainera hegoalderago ugariago eta aberatsago, laboraritza bera aberatsago zen neurri berean; Zuberoan: Saint-Bladiko erromes ostatu zaharra, Santa Engraziko eliza eta abar; Araban: Estibalitz, Armentia, Tuesta eta abar; Bizkai-Gipuzkoetan, esan dugunez, urriago aurkituko ditugu, baina hala ere, ate, leiho, bataio-ponte, irudi... izan zirenen lekuko. Seguru asko, ez Araba eta Nafarroan bezain aberatsak, edertasunean, handitasunean eta ugaritasunean, baina bai badira Erdiaroko artearen ageri zihurrak. Aipatu ditugun izan zirenen zatietatik aparte, Bakioko San Pelayo eta San Migel Zumetxagakoa ditugu lekukorik berezienak. Era berean ez bada ere, zerbait beranduagokoa delako, Galdakanoko Andra Mari.

Pizkunde garaiaren hasieratik, batez ere Amerikako salmentetatik sortu zen merkataritzari esker, ola-zaharren eragintza eta indartzea etorri zen eta ekonomiaren bizkortzeak girotu zuen monumentu berriak eta




Aietxu (Urraul goian). Erdi-aroko hilarria: "Hic iacet cui nomen erat Iohan".

hobeak jasotzea, inoiz lehen zahar eta ttipiagoa zen toki berean. Burdinoletan lana ugaritzeak, esku-lan gehiago behar zuen, herriak jendez gehitu ziren eta eliza handiagoen beharra ere bazen. Handitze horietan, inoiz, lehenagoko zatiak aprobetxatu ziren eta hor ditugu estilo zaharren agiritzat.

Erdi-aro honetan arkitekturazko monumentu handi horien bidez, adiarazi zen batez ere arte edertasunaren sentimena, eta herriak horretara ahalegindu ziren.

Aipatu ditugunak baino monumentu ttipiagoak ugariago ditugu. Batzuk oso bereziak gainera: Eunate, Uxue, Artaiz, Donezaharre...

Giro hartako langintza haien teknikak, lanok egiten ari ziren maisuegandik ikasletara igarotzen ziren, zuzenean, bestelako eskolarik gabe. Artistak ez zuten oraindik beren izenik agertzen. Beren buruak gordetze honek misterioz bete ditu euren lan handiak, Gotikoaren amaieran eta Pizkundearekin hastean ematen dituzte lehen aldiz beren izenak. Hemendik aurrera, beren aurpegia agertuko zuten. Baina, ez ordea herri artegintzan iharraituko zutenek; hauek beti bezala izenpetu gabe egin dituzte beren lanak.



Santa-Grazi (Basabiürria, Zuberoa).



Lamiak Puente la Reina-ko Santiago ate erromanikoan (Nafarroa).

Nafarroako erromanikoak Akitania aldekoan ditu bere iturriak, Sobrarbe aldekoak ere bere partea duela. Bestalde, arestian agertu dudan bezala, tokiko herri arteak ere izan zuen bere emaitza. Arrazoi honegatik ditugu Leireko kriptak eta Artaizko eliza, adibidez. Apaingarritzat erabiltzen ziren sinboloak ordurako herri artean erabiliak ziren.

Bizkaiko erromanikoan, inongo kutsurik izatekotan, XII. mendearen erdira arte Irlanda eta Britainia aldekoarekin ditu bere kidetasunak, eta erditik atzeruntz nolabait ere agertzen da Leon eta Gaztela aldekoarena, Gaya Nuño-k bere estudioan dionez.

Gotikoa, ugariagoa eta aberatsagoa da, noski. Baionako katedrala, Iruñekoak, Gasteizko zaharra, Oliteko gaztelua, Bilboko Santiago, Ziortza, Lekeitio, Erandio, Getaria, Arrasate, Deba...

Hemen ere herri arteak bere parteak izan du, Zumarragako Antiguak bezala. Baina, gotiko garaian herri artearen influentzia eta indarra irudietan datza, batez ere imajiniagintzan. Garai honetako imajiniak era oso berezia dute, eta imajini horien artean Andra Mari ugarik. Hauetan aurkitzen dugu berezitasunik nabarmenena.

Etxeen arkitekturan, Erdi-aroko torre-etxeak. Hauek, gehienetan kuadratuak ziren; hiri barnetik kanpora zeudenak gehienetan muño batean: Mujika, Elgetako Jalotza, Foruako Urdaibai, Iruritako Darrea eta Oinatiko Zumeltzegi bezala; edo, bestetan, harresi batez inguratutik, Mendoza, Muñatones, Ursua, berritu aurreko Butrongoa bera eta abar ditugu adibide ederrak. Hauetako asko ahaide-nagusien guduak zirela-ta eratxiak izan ziren, baina, hala ere, beste asko zutik heldu dira gure mendera arte.

El arte medieval nos ha dejado marcadas huellas en los monumentos. Del bajo medioevo apenas contamos con materiales, todo se reduce a piezas muy desperdigadas, no así en el alto medioevo que ha sido muy rico, sobre todo en las regiones más agrícolas del país. Es a partir del siglo XIV cuando empiezan los grandes monumentos en regiones de vida mixta: agrícola-comercial-ferrera, como en Vizcaya y Guipúzcoa; donde, sin embargo, existen considerables muestras románicas. En el caso de Vizcaya, más definido, con una primera parte con influencias bretona-irlandesas y una segunda parte ligada a la leonesa y castellana, según Gaya Nuño.

Peculiaridades propias, son escasas, salvo las particularidades que definen la estilística de caracteres propios en el románico de Navarra y Alava, *con influencias de Aquitania y Sobrarbe, pero con interferencias populares del país en la ornamentación.*

Volvemos a repetir que las aludidas peculiaridades que le dan carácter propio, a su vez están sujetas a las variedades existentes dentro de las corrientes generales de la cultura occidental.

En el gótico es más difícil de definir en lo que respecta a la arquitectura y a la ornamentación. El estilo implantado es más común en toda Europa. Pero desde la época de transición del románico y durante todo el transcurso del estilo gótico, se produce una imaginería popular riquísima, que se define con concepciones muy propias en la estilística. En la misma, además de imágenes de santos, se distinguen las Vírgenes (Andra Maris), tallas realizadas desde finales del siglo XIII hasta mediados del XV. Como digo, con características muy propias.

Otra de las particularidades de esta época son las torres o casas-torres, con su construcción, situación y forma de defensa o fortificación. En el texto euskérico cito algunas de estas casas como ejemplo. Asimismo

se citan los grandes monumentos religiosos y otras iglesias que pueden servir de modelo para la presente exposición.

1973-VI-4.

PIZKUNDE GARAIA

Euskal Herriko artean, herri artea alde batera utzita, zabalkundez eta aberastasunez Pizkunde garaia dugu goren. Artista ugari zen eta arte lantegiak ere ez gutxi. Baina batez ere eskulturak du indar handia eta bertarako ez-ezik herbesterako ere lan asko egin zen.

Garaiko maisurik bereziena Joanes Antxietakoa, azpeitiarra izatez, bere lantegiak Iruñean zituen.

XVI. mendearen hasieran sustraitzen da Euskal Herriko Pizkunde garai hura, plateresko estiloetatik hasita. Orduango artistarik gehienak ez zituzten oraindik beren lanak izenpetzen; bestalde, garai hartakorik agiri idatziak ere urri dira eta argi gutxi ematen digute. Mendearen erdialdea baino lehen hasi zen platereskotik romanista estilorako aldakuntza eta une berean agertzen zaizkigu izen batzuk: Pierres Picart, frantzesa, beste gauza askoren artean Oinatiko Unibertsidadearen aurrekaldea egin zuena, Joanes Ayalakoa, gasteiztarra, Ziortzako erretaula platereskoaren egilea, Andres Araozkoa, gipuzkoarra noski, besteren artean Genevilla eta Eibarko erretaulen egilea, Joanes Madariaga, Gabiria anaiak eta abar.

Hoiengandik ondorean agertzen da Joanes Antxietakoa, erak aldatuaz erromanista taxuz ari delarik. XVIgarren mendeko imajinagintzan eraberriaren goi mailak hartu zituen.

Romanista eraz, Juan de Juní, frantzitarra aurreratu zitzaion Espainian. Juní, bere aldetik, della Quercia eta Migel Anjel-en bideetatik zetorren, hauen jarraitzaile bezala. Eta, Antxieta Valladolid-en berakin lanean jardungo zala uste da. Hala ere, badira uste dutenak, Juní-ren kutsua ukatu gabe, Italian ikasketak egin izan zitekeela. Baina hortaz ez dakigu gauza zihurrik. Bere gaztaroko berri gutxi dugu. Zenbait kontratutatik dakigu gipuzkoarra zana, toki askotan ibili ondorean Iruñan jarri zuela bere irudigintzako lantegia eta Iruñean bertan hil zala 1588an.

Usteak uste, hau bai, Juní bera zen Antxietaren eskultura gehien estimatzen zuena, bere hilburukoan agertzen denez, Medina de Rioseco-



San Juan Ebanjelistaren irudia, A. Araozegina. (Eibar).

-n bukatzeke usten zuen erretaula ez zuen nahi inork amaitu zezan Joanes Antxietakoak izan ezik. Beraz, laudorio handiagorik ez da erraz.

Baina Antxietaren estiloak bere era bereziak ditu bolumenetan eta hauen ordenamenduan. Honegatik, eskola berezi bat finkatu zuen, pertsonalitate handia ematen diona, eta berakin ikasiak eta bere jarraitzaileak ez-ezik inguruko beste batzuk ere kutsatu zituen. Hauen arteko: A. Bengoetxea, P. González San Pedro, M. Ruiz de Zubieta, Lope de Larrea, B. Imberto, D. Bidarte, D. Luso, J. de Berrueta, Jerónimo Larrea, Juan Iriarte. Eta neurri batean J. Baskardo bera, Euskal Herrian barrokoaren hasiera eman zuen eskultorea.

Barrokoaren sorreran ahaztu ezina dugu Martin Basabe aulestiarra, bere herrian lantegia zuena, baina Antxietaren inguruko hoiekin ez zuen ezer ikustekorik bizkaitar honek.

Beste anitz ere badira Antxietagandik aski aparte zeudenak Pizkunde garai berean: A. Gaztelu, D. Segura, B. Gabadi, Jiménez de Alsasua, Binies, Obray eta abar. Herriak berak onhartu zuen era hori eta alde guzietatik ziren lanen eskariak. Ekonomia ere aski sendoa zen, eta Bizkaian, Iruñean, Lizarran, Tudelan eta beste zenbait tokitan zituzten artista horiek beren lantegiak.

Nafarroa lehendik ere arteaz aberatsa zen, baina Bizkai-Gipuzkoak garai honetan hornitu ziren egundoko arte aberastasunez. Eta ekonomiak zer ikusi handia izan zuen honetan. Ordurarte nekazaritza aurretik joan bazen ere, orduan hasten da Bizkai-Gipuzkoetan aintzinatik goraka zetozen burdin-olak gaineratzea. Ameriketak aurkitzeak burdinazko tresnen salmentak ugaritzez etorri ziren ondasunak.

Pizkunde garai hontan, eskultoreak haina ugaltu ez baziren ere, pintorerik ere ez zen falta. Nafarroan Ororbia eta Agredako maisu izengabeek gainera J. Bustamante, M. de Latorre, J. Lumbier eta abar; Gipuzkoan Castillo Negro eta Breheville familikoak eta Bizkaian Vázquez, Mendieta, Bedia eta abar. Bilboko pintura eskola baten berriak ere heldu zaizkigu.

Garaiko arte ugaritasuna oso nabaria da. Gainera, euskaldun artistak lehen aldiz zabaltzen dute beren artegintza herbestetara eta Aragoi. Gaztela, Leon... arkitzen dira hemengo semeen lanak. Baita ere, baziren artegintzan herbestetan bizi zirenak; adibidez: Joan Gascó edo Joan Navarro Tafallako semeak lan handiak egin zituen Vich-en, eta Baltasar Etxabe zumaiarra izan zen Mexico-n Europako pinturaren eskola sortu zuena.

Lehen lehenago ere, Erdi-aroan, beste horrenbeste gertatu zen euskaldun hargin eta arkitektoekin, katedral batzuetako agiritan agertzen denez.

Giro honen barnean bada beste arte ekintza berezi bat ere, giro berari itsatsia dena: euskaldun kaligrafoak. Joan Itziar durangoarra, *Arte de escribir*-en egilea, orduko kaligrafoen artean Europan famatuenetako bat. Pedro Madariaga arratiarra izan zuen ikasle eta jarraitzaile aurreratuenen. Geroztik hemengo kaligrafoen entzutea handia izan zen.

El Renacimiento, arte popular aparte, nos muestra la mayor riqueza de artes plásticas en la historia del país, sobre todo en escultura.

El Renacimiento está enraizado desde el comienzo del siglo XVI con el estilo plateresco. La mayoría de los trabajos son de autores anónimos y los documentos de la época son escasos para aportarnos algunas luces. No obstante, en este período aparecen figuras como el francés Picart y el alavés Ayala que seguirán la transición hacia el estilo romanista en el que empieza a destacar Andrés de Araoz.

La figura cumbre, ya entrado en el estilo romanista, es el azeitiano Juan de Anchieta que muestra acusadas influencias de Juan de Juní y se cree que trabajó con éste en Valladolid. Lo que sí es cierto, que Anchieta gozaba de la mejor consideración de Juní, pues según éste declaró al testar, quiso que fuera Anchieta y no otro el escultor que acabara la obra comenzada por él en Medina de Rioseco.

Sin embargo, la obra de Anchieta posee características propias en volúmenes y en la manera de distribuir los mismos en el espacio.

Anchieta fue un trotamundos que se asentó ya entrado en años, al montar su taller en Pamplona. Trabajó muchísimo y creó una importante escuela en la segunda mitad del siglo XVI. Entre sus discípulos y seguidores están los escultores A. de Bengoechea, P. González de S. Pedro, M. Ruiz de Zubieta, Lope de Larrea, B. Imberto, D. Vidarte, D. de Luso, etc.

Por otra parte hay otras figuras en las que no influyó tanto y que desarrollaron su obra paralelamente en este movimiento del Renacimiento: Obray, Gaztelu, Gabadi, Binies, etc.

El Renacimiento tuvo buena acogida en el país. Pero no hay que olvidar que el aspecto económico tuvo mucho que ver en ello. En épocas anteriores contábamos con riquezas artísticas en Navarra y Alava, en tierras más ligadas a la vida agrícola, y con obras bastante menos importantes en Vizcaya y Guipúzcoa. Pero el descubrimiento de América repercutió considerablemente en la apertura de nuevos mercados para los productos manufacturados que venían elaborándose desde siglos antes de la industria ferrera, y trajo consigo una riqueza que contribuyó al

desarrollo de las artes plásticas. Funcionaron varios talleres que al mismo tiempo sirvieron de escuela.

Aunque no con la abundancia de escultores, también se destacaron algunos pintores; además de los maestros anónimos de Ororbia y Agreda, J. de Bustamante, M. de Latorre, Juan de Lumbier,... en Navarra, Mendieta, Castillo Negro y los Breheville en Vizcaya y Guipúzcoa.

Se trabajó mucho en el interior y para fuera del país. Además, hubo renombrados autores residentes en otros países; por ejemplo, Juan de Gascó o Juan Navarro que realizó su obra en Vich, y Baltasar de Echave que fundó en Méjico la escuela europea de pintura.

En esta época, igualmente favorecidos por el ambiente artístico, surgieron los grandes calígrafos como los vizcainos Juan de Iciar y Pedro de Madariaga que tras de sí dejaron una estela de generaciones de calígrafos vascos.


1973-V-14.

EUSKAL PINTURAREN ESKOLA

Gizarte giro jakin baten inguruan sortu zen Euskal Pinturaren Eskola. Fueroen galeratik sortu zen euskal kezkek mugitu zituen kultura saileko ekintzak, politika, jakintza, ikerketak, musika, literatura eta abar. Era guzietatik hasi zen holako zuzpertzera, aurrera begira bere frutuak emango zituena. Zuzpertzera horren ondorioz, plastikazko arteetan ere bere eragintzak izan zituen. Euskal kulturaren pizkunde berria zortu zen. *Gizarte giro berezi baten eragina zen eta euskal hezikera bere bideak urratsen ari zen, lehengo bere sustrai zaharretan oinharriturik loratze berri baten bila.*

Giro hori, elkartasunezko kontzientziaz jabetzeaz, helburu batzuk burutzeko bide urratsea zen.

Hastapenetan, Baionan eta Bilbon genituen erromantikoen garaiko pintura eskolarik aipagarrienak. Baionan Leon Bonnat (1833-1922) zen maisu eta ikasleen artean aurreratuen bat izan zuen Georges Berges. Bilbaon ordea, ez zen maisu jakirik 1872an Antonio Maria Lekuonak (1831-1907) bere eskola ireki arte. Lekuona Bilbora heldu zenean, bertako artistak oraindik historia gaiez eta erromantikoen eraz ari ziren. Lekuona, lehen aldiz, bertako herri gaiak erabiltzen hasi zen. Lekuonaren eskolan hartu zituzten beren lehen ikasketak geroago pintore



D. Regoyos.

ospetsuak izango ziren askok. Ginea, Regoyos eta Giard agertu ziren ondorean eta hauek jarri zituzten oinharririk tinkoenak.

Batez ere Regoyos asturiarrak eta Giard bizkaitarrak ekarri zituzten Paris-ko haize berriak, orduko inpresionismoari gure lurretan hasiera emateko. Ondorean, bide beretik, Iturrino eta Losada etorri ziren argiz inguratutako pinturagintzan.

Lehen urrats horiegitik, era guzietako kritikak jaso bazituzten ere, atzetik zetozten bide berean finkatuago jarriko zirenak. Aurrerantzean, Bilbon lehen ikasketak egin ondorean Parise-ra abiatuko ziren. Beraz, San Fernandoko eskola alde batera uzten hasten dira, eta Madrildik

igaroak ere Paris-era doaz. Geroztik, Paris-ko giro berriak emango du argia. Eta horrela datoz artistak geroago eta helduago, eta heldutasunak berakin ditu bertako era berri bat sortzeko kezkek. Elkar giroko kontzientziaz jabetu ziren eta hori zen eskola berezi bat sortzeko beharrezkoena. Etxebarria, Arteta, Arrue anaiak, eta abar. Paris-en bertan, Euskal Herriko pintoreek Pako Durrio zuten ordezkari bezala laguntzaile. Eta hemen, Juan de la Encina izan zuten beren lagun kritikatzailerik.

Paris-tik itzultzen direnak girotzen dute Bilbo. Elkarre bat sortu zuten, beren arteko har-emanek lotura izateko. Zubiaurre anaiak hurbiltzen dira, eta Tellaetxek ere gogotik hartzen du bide bera. Mugimendu berak eraginda, Asentzio Martiarenak (1884-1966) sortzen du Donostia bertan antzerako eskola, Bilbokoari aski loturik, eta eskola honen inguruko ziren Jesus Olasagasti eta Daniel Vázquez Díaz (gero, gudostean, honen inguruan sortu zen Madrilgo eskola berria).

Eskolaren helburua, elkar-giroko moldez aritzea zen, bakoitzak beretasuna utzi gabe. Pinturan, erabili behar ziren gaiak baino garrantzikoagoak ziren pintatzeko erak, koloreak eta teknikak.

Elkar-giro edo kolektibismo hontatik gaindu ziren eskola tinkoago bat burutuko zuten maisuak. Eta maisutza hartu zuten horiek irakaskintzarik zabaldu bazuten ere, giroari eta inguruari ez zieten gutti zor.

Nere ustez, maisurik inportanteenak izatera heldu zirenak, honela ordenatuko nituzke, gutti gora-behera, bakoitzaren merezimenduekin:

Aurelio Arteta, post-cezannismotik bere gisarako bide berriak ireki zituenak. Bolumenak, argien alternantziak, euskal mentalitatean gogoko hartuko ziren koloreak, gizakiak eta formak, herriak berak ere ontzat emango zituenak. Inork baino indar handiagoz jaso zituen Euskal Herriko bizitza erak bere oihalegara: nekazariak, itsas-gizonak, olagizonak eta abar. Bere obra nagusitzat daude Madrilgo Banco de Bilbao-ko 12 frekoak. Eretan Puvis de Chavannes eta Gauguin gogoratzen ba digute ere berekiko sorketa indarra ukatu ezinezkoa du.

Juan Etxebarria, injinerua izatez, bere ofizioa utzita 27 urtekin oso-oso pinturara eman zena. Diruduna zenez, bere inguruko artisteri asko lagundu zien premia larrietan zirenean. Artista bezala, koloreaz biziki arduratzen zen eta lehenengo erretratu sikologikoak berak egin zituen (lehenengoak esatez, irakurleak ulertuko du Euskal Herriaz ari garela). Renoir, Cézanne eta Gauguin gogoratzen digute bere lauki batzuk.

Frantzisko Iturrino, bertako gairik gutti erabili bazuen ere, bestelako gaiekin baliatuaz baina hemen egosi zen post-cezannismo bereziaren eraz lana egin zuena. Matisse, Renoir, Cézanne zituen maisurik gogokoena.



J. Olasagasti.

Julian Tellaetxe, itsas-giroa maiteki zuena eta bere pintzelen bidez Kantabriako hegalen berri eman ziguna, itsas-gizonaren kezka eta indarra, baina batez ere zuriak erabiltzeko eran maisua, zuria, pintzelada berdinez hainbeste tonutara benderatzen zuena. Vázquez Díaz-ek ez dio gutti zor.

Jesus Olasagasti, Artetaren iharraitzaile eta honen teknikak zintzoen eraman zituena. Oihalak pintatzeko eran eta koloreetan Arteta bera bezain ona izatera heldu zen. Akatsik izatekotan, Arteta gandik jaso zuen teknika eta estiloa gorago ez eramatearena izango du, gehiago ez

eboluzionatzearena, eta ondorengo artistak aurretikoen loturatik gerora begira ez jartzearena.

Beste asko zituzten inguruko. Denak aipatzea aspergarria litzake eta maisu horiegandik hurbilen ibili zirenen izenak bakarrik emango ditugu: Manuel Losada, lehen ere aipatua; Benito Barrueta; Arrue anaiak lau ziren baina Alberto eta Ramiro ditugu aipagarrienak; Zubiaurre anaiak, aparteko eraz landuaz ihardun baziren ere, ez zabiltzan euskal eskolatik hain urruti; J. Urrutia, J. Aranoa eta J.M. Uzelay, elkarrengandik berezirik baina eskolari zeharo loturik.

Orduko Bilboko giroak bere indarrez zabaldu zuen Euskal Herri guzira pinturagintzako era. Donostian Martiarenaren eskolaren bidez, Nafarroan Ziga eta Basianok; Araban Maeztu, Ortiz de Urbina eta Amerika; Ifarraldean Veyrin eta Txoribit... guziaz errotik heldu zioten ekintza berriari.

Gerratearekin bukatu zen eskola hura, bere iharraipen pikortuan gutti batzuk iraunez, baina mugimentuaren trinkotasun hura aspaldi suntsituzat eman genezake.

La pérdida de los fueros motivó fuertes reacciones y despertó inquietudes en torno a la vida cultural del país, la política, la investigación, música, literatura, etc. Se avivaron las inquietudes para crear un medio ambiente favorable al cultivo de toda manifestación cultural, y de cuyo movimiento derivó el progreso de las artes plásticas.

El tolosano Antonio María Lecuona, formado en Pamplona y Madrid, pintor de Cámara de la corte de Carlos VII, pretendiente carlista, estableció su escuela en Bilbao (1872) y fue el iniciador de motivos costumbristas en la pintura. De su escuela partieron los post-impresionistas que crearon las bases de la Escuela de Pintura Vasca.

Desde Guiard y Regoyos, los artistas vascos, tomaron el camino de París para ampliar sus conocimientos. El post-cézannismo tuvo amplia repercusión y los grandes maestros, conscientes en torno al ambiente con deseos de transformación, desarrollaron una nueva era.

Al comenzar el siglo los artistas tomaron su compromiso estrechando lazos de conducta estética que respondería a drásticas reformas y que ratificaron con la fundación de la Asociación de Artistas Vascos. Fijaron sus bases en lo más vanguardista del país de entonces, aportando nuevas luces, nuevas técnicas que implantan una nueva concepción pictórica y la

escuela responde más a esta nueva manera y no a la temática como algunos equivocadamente han pensado.

Los grandes maestros son J. Echevarría, Iturrino, Arteta, Tellaeché, Olasagasti, etc.

Sobre todo destaca como figura central Aurelio Arteta, quien además de recoger los aspectos de la vida vasca, imprime un sello muy especial en sus coloridos, emplea la pintura en bloque, busca las alternancias de luces, trabaja de una manera eficaz en la distribución de los volúmenes, etc., que son toda una serie de factores que caracterizan la Escuela de Pintura Vasca.

1973-VIII-27.

GAURKO ESKULTURA

Gaurko Euskal Herriko eskultore batzuk oso ezagunak ditugu mundu zabalean. Baina eskultoreen ospe handia bera baino garrantzikoagoa zaigu hauen eskola finkatua.

Eskola hau, behar bada, ez da Jurgi Oteitza konformagaitzak nahi bezain sendoa, baina ukatu ezinezko eskola behinik behin. Eta arte eskola bat burutzea ez da noiz nahi lortzen den fenomeno bat. Eskola honek bere bide urratse luze eta latzak izan ditu. Eta nekeok buruturik, hor dugu eskola bat. Gizarte giro hobea batean loratu bazen emaitza hobekoak izango zituen behar bada, baina herriaren nekeak ezak nabari dituela heldu zaigu. Kontuan izan, herriaren bertan kontzientzia elkartu bat burutu ezin den garaia dela, kultura desberdin bi elkarrekin borrokan ari diren garaia. Honegatik da hain nekeza Jurgik nahi lukean tinkotasun hori.

Eskola sendoagoa eta ugariagoa izan zitekean. Baina gure eritziz, eman behar zuen guzia emateko du eta frutu emaitza onurakorragoak espero ditugu.

Eskola bada. Eta, Jurgiren eritziz, eskola batek berakin du familia baten elkartasuna. Eta hala izan behar du, elkartasunak handiagotzen gaitualako eta norberekeriak urritu eta txikitu. Hau da ber-berak oraintzu esana.

Egonezinez urduri bizi den maisu honek, presa du eskola sendo eta zabal bat lortzeko. Ideien etorria azkar eta ugari duen gizona, eta asmo guziak bat-batean finkatu nahi dituen, pentsa bezain azkar egintza ikusi

nahirik. Korrika iragan nahi ditu aspaldiko urteetan lo edo gauaren lausoan galdu genituen herri sentimenetatik urruntzen gaituen une luze haiek.

Eskola hau ez zaigu aski. Zerbait ugariago, zabalago eta sendoagoa behar dugu maisuaren eritziz. Baina ukatu ezinezkoa dugu eguneko eskultura eskola. Elkar-lanean ari ez badira ere, elkarren kideko dira; guziek iturri bateko uretik edan dutenez gero, lehen ikasketa berdinetik sortuak dira. Eskola iratzartu zuena eta bere eragile izan dena, Jurgi Oteitza dugu, gure arte historian tokatzen zaionez.

Iratzartze honek, egungo pintura ere kutsatua du, baina ezin esan dezakegu pinturan, gaur egun, eskola berezi bat dugunik, plastikazko arteetan eskola izateko behar den kidetasuna lortzeke duenez gero. Behar bada zerbait inportante lortzeko momentu punterengo baten bizi gara, nabari den kezka eta dinamika ikusirik. Arte berriak daramazkiten joerak ikusirik, baditeke, kidetasun baten inguruko era inoiz ez burutzea. Eta pintore bakoitza narotasunez abiatu da, bakoitzak bere gisara jardunez, eskolen joera eta loturetatik urrunduaz.

Ongi merezirik ospe handia duten pintoreak baditugu, mende honen hasierako euskal-eskolaren jatorrietan sustraituak eta bertatiko eboluzioari jarraituaz edo loturik; eta beste asko, oinburuak ukatuaz, zerbait berri sortaraziaz. Baina eskolatzat jo genezakean era zihur batera heldu gabe.

Eskolak behar duen heldutasun hau, eskulturan nabarmen aurkitzen dugu. Ez behar bada nahi bezain indartsua eta hedatua, baina bai eskola deitzeko hainakoa.

Egungo euskal eskultura bere era berezиеz ezagutzen da, familia bat gorpuzten du, elkar giroko kontzientziatik heldutako zerbait, eta bere lehen eragile eta maisu Jurgi Oteitza dugu.

Elkar giroko arte honek, maisu bat izatetik aparte zer berezi duen? Arbasoen sustrai zaharretan sakonduaz, lehen gizonen arte era zaharretaraino joaz eta gaurko gizoneri naturalezaren aldakuntzetatik dimenzio berriak deskubritu dizkio. Eskola osatzeko agertu ziren jarraileak: E. Txillida, N. Bazterretxea, R. Mendiburu, R. Ugarte, Larrea, T. Egibar... bakoitza bere erak hartuaz eta landuaz joanez. Maisuaren frutu eta irakaspenetatik abiatuaz, familiaren barnean, bakoitzak bere gisako erak burutu ditu. Artista andana honek euskal artearen historian aro berri bat landu du.

Una escuela de arte representa la unidad familiar. Así es y ha de ser, porque somos más en grupo que individualmente. De este modo opina el genio creador Jorge de Oteiza.

Los escultores contemporáneos que surgieron desde una base de aceptación de los nuevos principios marcados por el maestro, dan hoy un sentido de escuela sólida, compacta, que se distingue por sus sentimientos estéticos que parten desde una base común y que se han desarrollado libremente en cada individuo que se ha cultivado en torno a dicha base.

Este despertar ha repercutido también en la pintura. Pero de la pintura contemporánea no podemos afirmar que exista una escuela propiamente dicha, con una afinidad de ideas conceptuales en la plástica a la que se pueda dar tal nombre. Quizás vivimos un momento interesante en el que se está gestando algo muy importante, por las inquietudes y la actividad que se observan, que pueden desembocar en lo que en arte se ha venido a llamar escuela, por esas afinidades en ideas conceptuales. O quizás esto no se produzca jamás y, al contrario, se vayan distanciando en direcciones opuestas entre sí, liberándose cada individuo con su plena independencia para alejarse de todo lo que entendemos por escuela.

En la pintura hay figuras muy importantes, ligadas a la tradición de la llamada escuela vasca de primeros de siglo, con tendencias más o menos evolucionadas, y otros que sin querer saber de herencias tratan de abrirse paso por sí solos investigando por nuevos derroteros. Pero lo cierto es que aún no se ha realizado plenamente en una línea de escuela que por sus peculiaridades le caracterice como grupo familiar, cosa tan manifiestamente definida en la escultura.

A la actual escultura vasca se le distingue por los rasgos característicos de un bloque familiar, por una concienciación colectivista, cuyo promotor inicial y principal maestro ha sido Jorge. Sus discípulos han ejecutado una línea propia a partir de una concienciación emanada de un tronco común. Algunos ya son de renombre universal, y otros, aunque no hayan alcanzado tal renombre, reforan y solidifican cuanto hemos expuesto como bloque familiar o escuela con características propias: Basterrechea, Chillida, Mendiburu, Larrea, Ugarte, Egibar... marcan en nuestros días una etapa de la historia del arte.

1973-IV-23.

JUAN DE AYALA, PIZKUNDEAREN SORRERAN

Gutti ezagutzen den artistetarik bat da Juan de Ayala gasteiztarra. Baina, hala ere, bere izena ezta gelditu ilunpean, Nafarroako Agreda eta Ororbiako maisuak bezala. Eta, artista hontaz dakigunaren berri laburra eman nahi dugu.

Badira esaten dutenak, eta esaten ari direnak euskaldunok ez dugula izan artegintzako kulturarik eta pinturak ere etzuela sarrerarik izan joan zen mendearen azkenaldira arte. Ezjakintasuna eta jakinnaiezatasuna elkartzen direnean, beldurgarriak dira, batez ere beren eritziekin herri osoa juzgatu nahi dutenean. Holako pekatuak bada ugari, ezker eta eskubi.

Harpeetan milaka urteek direla egin zituztenak uz dezagun alde batera, herritarrak beren gogoaren gisara egindako imajina polit haiek, Erdi-Arotik barne-gogoaren eraginez esku-eztikiz eman zizkiguten frutu paregabeen egile isilak eta etxegintza estiloz eta eraz hain txukun landuak. Herritar artista hoiek guziak alde batera utziko ditugu eta estilo klasikoetan soilik ari zirenak har ditzagun, eta itsua behar luke izan gizonak Pizkunde garaian izan dugun arte aberastasuna ez ikusteko. Euskal Herriak inoiz izan duen arte aberastasunik handiena eta mamitsuena noski. Egia da etorri ziren artista frantsesak eta flamenkoak ere, beren lan ugariak utzi zizkigutela. Baina Picart, Gante, Beaugrant, Breheville eta gainerako arrotzen inguruan zenbat eta zenbat euskal deiturako artista? Hontaz jabetzeko aski dugu J.R. Castro, T. Biurrun edo M.A. Arrazolaren lanak irakurtzea.

Hala ta guzi ere, José Ramón Castrok, eskultore anitz izan dugula baina pintorerik ezetz dio, Nafarroako Riberatik aparte. Arrazolak Gipuzkoako Pizkundeaz eгина duen lanean, pintoreen zerrendan eta tesiaren barnean, agiriz egiztatzen digu hemengo pintoreen ekintza sendoa. Bestalde, Castrok ez ditu ikusi Ziortzako erretaularen ohol pintatuak, Ama Birjinaren bizitza adieraztea gaitzat dutena; zeren bestela ohartuko zen Agreda eta Ororbiakoak badituztela beren kidekoak Euskal Herriaren mendialdean.

Baina, goazen harira, eta adiarazi dezagun Juan de Ayala nor zen, Pizkundearen sorreran. Hau da, plateresko estiloz ezagutzen den garaian.

Arrazolak dakarrenez, bere lehen berriak 1536koak ditugu, Joan Mendigurenekin batean, eskultore arabarra hau ere. Elkarrekin laguntzan Oinatiko Piedad kapillagan ari ziren. Gero berriz, 1543an Ziortzako erretaula egiten hasi zen.

Baina, aintzinagoko berria ematen digu Mugartegik *La villa de Marquina* liburuaren 51/52 orrialdeetan. 1527an Jemeingo erretablea pintatze apainketan ordaintzaz Juan de Ayala-ri egin ziotela dakarte garaiko agiriak. Erretablea bera ere, behar bada, Ayala berak egina izan daiteke. Erretablea honek badu Itziargoaren antza, eta Arrazolak uste du honen parte bat Ayalak egina dala.

Beaugrant anaiak Portugaleteko Santa Mariako elizan erretableagintzan ari zirelarik anaietako bat, Guiot izenekoa, hil zen, eta 1549tik Ayala-k lagundu zion beste anaiari lan hura bukatzen.

Picart-ekin ere inoiz ihardun zen, eta Oinatiko Unibertsitateko kapillan eta San Migel parrokian agertzen du bere eskua eta artista zentzua. Uste da, Bergarako San Pedro elizan ere bereak dituela erretablearen jarlekuetako Ebanjelisten irudiak, 1545-1548 urte bitartean eginak.

Arabaren bertan, Gasteizen, Weise-ren ustez, Erregeen gurtzea San Pedro elizan, eta baita ere bereak omen dira Eskolunbe eta Markinez-ko erretableak ere.

Azken urteetako lanak Nafarroan utzi zituen. Lizarrako San Juan-go erretablearako egin zuten deira agertu zen, 1563an. Hemen, hain zuzen, Joanes Madariaga Altsasuko eskultoreakin batean agertzen zaigu. Garai hortan Zuñigan bizi omen zen eta hordukoak omen ditu Zuñiga eta Gastiaingo erretableak.

Maria Asuntzio Arrazolaren eritziz, Ayala-ren estiloa plateresko eskolaren era orokorrean tinkatzen da, baina berekiko bereiztasunak gordeaz, Pierre Picart, Juan Imberto eta Pedro de Troas-en inguruko izanarren hauegandik aparteko izatea agertuaz.

Bestalde, Camón Aznar-en aburuak ere ez dira txantxetakoak, (*Suma Artis*, XVIII, 220 orr.), Ayala-k, bere arte joerak ondo nabariak omen ditu, batez ere aurpegi-tako eder nahian, soinekoak uhin-lerroz sendo eta biribil zabaltzen direnean eta, era berean, bat-bateko errealtate bizitasuna buruetan, herritar izaerazkoa. Ondo eta estu beteaz moldatutako irudi irten eta laburretarako joeraz.

Dena dela, garai hartako maisuen artean hoberenetako bat dugu. Euskal Herrian Pizkunde garaiaren hastapenetako hau. Bere ondorean oso hurbildik iharraitzen dio Andres Araozek, baina Araoz, artegintzan Berrugeteren ondotik dabil, estilo antzerakoz.

Geroago, hauen ondotik, nabarmen ugaritu ziren eskultoreak eta romanista eskolaren gailurrean Joanes Antxieta azpeitiarra.

El escultor vitoriano Juan de Ayala aparece en la primera mitad del siglo XVI, concretamente en 1527 en Marquina (Vizcaya). Consolidado a la escuela plateresca, en los inicios del Renacimiento, codea con los grandes maestros de su época, algunos del país y otros venidos de Francia y Países Bajos, como Picart, Beaugrant, Imberto, Troas, etc., que dejaron su honda huella en los templos del país y en el avance de los estilos.

Juan de Ayala pintó y doró el retablo de la parroquia de Jemein en 1527, según consta en documentos de pago. Y probablemente es el autor de dicho retablo, aunque no conste por escrito, por la similitud con otras obras salidas de su mano. En 1536, con la colaboración de otro escultor vitoriano, Andrés de Mendiguren, hizo la capilla de la Piedad, de Oñate. En 1543 comenzó el retablo de la Colegiata de Cenarruza, con bellas pinturas en tabla con escenas de la vida de la Virgen. Entre los años 1545-1548 se le atribuyen los Evangelistas del banco del retablo de San Pedro, en Vergara. En 1549, al fallecer Guiot de Beaugrant siguió él los trabajos para finalizar el retablo de Santa María de Portugaleta, en colaboración con el hermano del fallecido. En Alava se le atribuyen los retablos de Escolumbe y Marquínez y suya es en Vitoria la Adoración de los Reyes, de San Pedro. Sus últimos trabajos los hizo en Navarra, al intervenir en los retablos de Zúñiga y Gastiain.

María Asunción Arrázola, en su obra *El Renacimiento en Guipúzcoa* trata detalladamente sobre los trabajos que Ayala hizo en nuestra provincia y le tiene en alta consideración como partícipe de los caracteres de aquella escuela plateresca. Y, Camón Aznar dice que “el arte de Ayala es de un renacimiento en el que se mezclan un anhelo de belleza en los rostros, una tendencia curvilínea en los mantos, que se despliegan en gruesos relieves de ritmos redondeados y a la vez, un espontáneo realismo en las cabezas, de una plasticidad saliente y más bien cortas y de un apretado modelado”.

A Ayala, como figura cumbre le siguió Andrés Araoz, más apegado a Berruguete; y más tarde el renacimiento en el país fue muy esplendoroso, que culminó con la escuela romanista de Anchieta.

1974-I-21.

JOANES ANTXIETA AZPEITIARRA

Aurten betetzen dira laurehun urte Joanes Antxieta azpeitiarrak Zumaiako erretaula egiten hasi zenetik eta gaurko lerroak Pizkunde

gariaian Euskal Herrian izan zen artistarik handien honi eskainiko dizkiogu.

Bere bizitzaz, zoritxarrez, ez dakigu gutti baizik. Azpeitian sortua zen, Urrestilla aldean zuten jatorrizko etxean, XVI. mendearen lehen partean. Baina artistaren lehen berriak 1565ekoak ditugu. Urte honetan Valladolid-en bizi zen, uste denez Juni-rekin lanean, eta Burgos-ko emakume batekin familia izan zuen, bataio agirian agertzen denez. Baina ezkondu, geroago ezkondu zen bere herritar Ana Agirre-koarekin.

1569an, Valladolid-etik Bribiesca-ra zenbait ostera egin zituela badakigu, bertan egonaldiak egiteko, eta seguru asko López de Gamiz-ekin Santa Clara-ko erretaulagintzan ari zen, zeren geroztik ezagutzen ditugun bere irudietan oso nabarmen arkitzen bai dira bere eskutik irten zutenekin.

1572tik 1575era bitartean Gipuzkoan arkitzen dugu, erretaulagintzan. Lehen urtean Asteasuko San Pedro-koa egiten ari zen, 1574an Zumaiaiko San Pedro-koa hasi zuen eta 1575ean Idiakeztarren kapilla egin zuen Azkoitian.

Juan de Juni-k bere hilburukoan, 1577an, Medina de Rioseco-n bukatu gabe uzten zuen erretaula Antxietak jarraitzeko eskaria egiten zuen. Bere lana bukatzeko beste bat hobea aurkitzen ez zuenez: "... es persona muy perita, hábil y suficiente y de los más esperitos que hay en todo este reino de Castilla". Hau da Antxietaren artista balioa goresten duen agiririk garrantzizkoena. Juni-ren agerpen honegatik, Camón Aznar-ek dio: "... el documento más luminoso para conocer la valoración artística de Anchieta y su significación señera en el arte español".

1576an Iruñean jarri zituen lantegia eta bizitza. Eta hil arte hiri honetan jarraituko zuen. Geroztiko lanak, Nafarroa, Aragoi, Burgos eta Gipuzkoarako bertatik egin zituen. Nafarroara joan zen urte berean Cáseda-koa egin zuen eta ondorean Aoiz eta Tafalla-koak. Aragoi-rako, Jaca-ko Katedralean Trinitateko erretaula, Zaragoza-n La Seo-ko San Migel erretaula eta abar. Burgos-erako Katedraleko erretaula nagusia eta Huelgas-ko Monasteriorako beste bat.

Iruñean bertan hil zen 1588ko azaroaren 30ean, Tolosarako Sagrarioa bukatzen ari zelarik. Katedraleko kalostrean hobiratu zuten, hil-harrian hitz hauek jarriaz: "Aquí yace Anchieta, que sus obras no alabó ni las de otros despreció".

Bere lanen ikerketak Huarte, Biurrun, Azkarate, Castro, Camón Aznar, Lecuona, Insausti eta Arrazolari zor dizkiogu gehienbat.

Cea Bermudez-en iritziz Italian estudiatu zuen, Florenzia-ko eskolan. Bere lanetan, egia esan, Italiako eraz kutsatua zegoala argi agiri da. Donatello, Della Quercia, Robbia, eta batez ere Migel Anjel

Buonarroti-ren joeregatik. Espainian bertan, italiar haiei jarraituaz ari ziren Juan de Juni, Gaspar Becerra eta López de Gamiz-ekin izan zituen har-emanak. Baina hoietatik inoren antzik izatekotan Juni-rena du zerbait.

Antxieta ezta lotzen inoren morroi, estiloen funtsa soilik jaso zuen eta bere gogora bihurturik hornitzen ditu bere gisara sortzen dituen irudiak. Anatomia ongi estudiatu batean beste artista hoiek baino gorputz naragoak egiten ditu, egoera patxarazkoak, sendo beren narotasunean. Eztu bere garaiko espainiarretan arkitzen den barroko kutsuzko ikara urduririk, ez mugimendu izugarririk. Bizitza eta heriotzaren gertakarien aurrean narotasun apalean, serenitatez, aurkituko ditugu bere gogoaren eraginez sortzen zituen irudi lanak.

Barroko kutsurik ez edukitze hau da, behar bada, bere euskalduntasunaren agerpena. Lan zehatzak, gogo eliku izakera nabari dutenak. Oteitza berak aspaldi esan zidan, barrokoa ez doala euskaldunaren gogo izakerarekin, eta gure herriari nortasunik gabeko barroko pobreak arkitzearen arrazoa hau dala.

Antxietak, Florenzia-ko manieristak izan zituen iturburu, baina Pasioaren estetika eztu hango maisuak eta Juni berak bezain harrigarria egiten. Bere irudiak barnetiko seriotasuna nabari dute, egoera apalez, gogo lasaiago batez eternitateko itxaropenari begiratuaz. Modeloak eurak, inoiz greko-erromano gisakoak gorputz biluzietan, herritarrak dira. Bestalde, bere estilo berezia zuen bolumenak eta hauen ordenamenduak antolatzean.

Trento ondorean erreformaren kontra sortu zen arte mugimendua-
ren seme zen, estetika bidez erlijioaren kontzeptu berriak adiaraztera
etorri zena, bere erretauletan Testamentu Berriko gaiak historiaturaz.

Horregatik, esanak esan eta guziez gainera, Antxietak mezu berri bat ekarren eta hau bete zuen maisu handi bat dugu. Bere eragintzak eta bere irakaskintzak ondorio handiak izan zituen Euskal Herrian, batez ere Nafarroan eta Gipuzkoan, jarraitzaile asko izan bai zituen. Garai hartako herriaren sentipenetara heldu zen. Bere artegintzan, Camón Aznar-en iritziz, gure arrazaren izakerarekin bat etorren eta Pirineoetatik Ebrora artekoak konprenitu zuten estetika joera hau beren zerbait bezala. Hola sortu zuen era bereziak gorpuztu ziren eskola

Antxietaren jarraitzailerik aurreratuenak: A. Bengoetxea, P. González de San Pedro, M. Ruiz de Zubieta, L. de Larrea, B. Imberto, D. Bidarte, D. de Luso eta abar izan ziren.

En el presente año se cumple el cuarto centenario del comienzo de las obras de ejecución del magnífico retablo mayor de San Pedro de Zumaya, cuyo autor fue el escultor azpeitiano Juan de Anchieta.

Anchieta, apegado a la escuela florentina, relacionado con Juan de Juni y López de Gámiz, junto con la escuela romanista del Renacimiento trajo a nuestro país el mensaje estético de la contrarreforma, para crear una escuela propia con numerosos discípulos y seguidores.

En el año de 1565 trabajaba en Valladolid, probablemente colaborando con Juni, según se opina.

Entre los años de 1572 a 1575 trabajó en tres villas guipuzcoanas, y en 1576 estableció definitivamente su taller en Pamplona. Su taller y su escuela.

Su valía es reconocida por el renombrado escultor francés Juan de Juni que vino a introducir el romanismo renacentista en España, quien hizo los mejores elogios de Juan de Anchieta, y que al respecto, cuando Camón Aznar le dedicó un libro monográfico al escultor vasco, llegó a decir: "... cuando Gregorio Fernández, Jordán y Becerra llenaban de retablos las iglesias castellanas, Juan de Juni, con una solemnidad sobrecogedora, afirma la superioridad de Anchieta sobre todos los escultores de su tiempo y su deseo de que su obra más querida —el retablo de Santa María de Medina de Rioseco— dejada inacabada por su enfermedad sea continuada por Juan de Anchieta porque *no hay otra persona ninguna del dicho arte de quien se pueda fiar la dicha obra sino es del dicho Juan de Anchieta.*"

Y el mismo Camón Aznar afirmará en la obra citada: "... es el sucesor lógico y genial de Miguel Angel... Gracias a Anchieta, España fue la que resumió y expresó el estado espiritual de la contrarreforma en escultura..."

Anchieta, autor de los retablos de Asteasu, Zumaya y de la capilla de los Idiáquez en Azcoitia, en Guipúzcoa; de Cáseda, Aoiz, y Tafalla, en Navarra; el de la Catedral de Burgos y del Monasterio de las Huelgas (Burgos); el de Trinidad de la Catedral de Jaca; el de San Miguel, de la Seo, de Zaragoza, etc. Es el de menos rasgos barroquistas de entre los artistas de su época, que por la sobriedad ornamental y la serenidad de sus figuras se distingue de los demás. Características éstas para Camón Aznar y J. Oteiza de su condición natural vasca.

Falleció este gran escultor en la capital navarra en 1588. Y fue sepultado en el claustro de la Catedral con una lauda que rezaba: "Aquí yace Anchieta, que sus obras no alabó ni las de otros despreció".

FRANZISKO MENDIETAKOA, PINTORE BIZKAITARRA

Francisco de Mendieta y Retes, Ayalako Mendieta herrian mundura etorria, itxura danez, baina Bilbon bizi azagutu zena XVI. mendearen azken partean, pintore ospetsu bezala ezagutu ere. Artistaz gainera, idazlea ere bazen, Bizkaiko *Coronica* baten egilea. Lan honen laugarren partea, eskerrak Juan Carlos Guerra idazleari ezagutzen dugu.

Artista hau, Gaztelako Fernando Vgarrena *Bizkaiko Foruak Zinatzearen* egilea, ez dakar oraintsu Luis Madariagak argitaratu duen *Pintores Vascos* izeneko katalogatze-liburuak.

Asko dira berari buruz idatzi dutenak, gure herrian ezagutzen diren pintoreen artean zaharrentariko bat bezala, arestian aipatu dugun Bizkaiko Koronikaren egile bezala eta baita ere Santiago parrokian Joan Baionakoaren eskultura jartzeko irudi bat borratu zuelako sortu zuen hauzi eta iskanbilagatik ere.

Bere bizitzaren zertzeladak, onduen eta gehien aztertu zituena Darío de Areitio genuen, noski. Eta honek, RIEV (1929) eta B.R.S.B. A.P. (1954) aldizkarietan eman zituen berrieri jarraituko diogu. Lanok, egilea hil ondorean, *Temas históricos vascos* (Bilbao, 1969) izeneko lan hautatuetan berriz argitaratu ziren.

Bilboko Santiago eleizan *Zahar doilorraren historia* errepresentatzen zuen ohol bat pintatu omen zuen, eta parrokia honen aldareak berriro, bertako San Juan Bataiatzailearen erretaulari bukaera eman ere bai (hemen izan bai zituen aipatu ditugun istiluak). San Antongo parrokiarako ere erretaula bat pintatu zuen, baina gaur ez dugu bere azterranik. Beste lan aipagarri askoren artean Bergarako Santa Marina eleizarako monumentu bat ere bai, baina hau ere galdua da.

Mendietaren lanik ezagunena *Bizkaiko Foruen Zina* dugu, Gernikako Batzar-etxean luzaro gorde zena eta handik Bilboko Museo de Bellas Artes-era pasatu zutena.

Delmas-ek, *Guía del Señorío de Vizcaya*-n (1965eko edizio berriaren 191. orrialdean) dionez: Gure historiako kuadru bitxi hau Londres-ko taberna batean aurkitu omen zen, eta merkatutzako itsas-ontzi bateko kapitain batek erosi omen zuen, eta hemengo itsas-bazterrara heldu bezain laster gure herrirako erregalatu omen zuen. Gaur egun, kuadru honetatik ateratako beste kopia batzuk ere ezagutzen dira.

Kuadru hau edo beronen antzerako bat dakar Darío Areitiokoak gogora (RIEV, XX, 1929, 350/351 orr.), Madrilgo Biblioteca Nacional-eko eskutitz batetik jasotako berrietatik hartua. Erregea oinhuksik agertzen den hura, Mendietarena dela baieztara heldu gabe ordea. Baina

Areitiok RIEV-en dakarren idazkia irakurrita, Biblioteca Nacional-eko eskutitz hori argi eta garbi dago Andres Poza-ko lizentziatuaren *Antiguas Lenguas de las Españas*-ko XVI. kapituluaren azken zatiaren berdina dela. Hobeto esan, Poza-gandik kopiatua. Areitio nonbait ez zen konturatu, edo bestela inoiz ez zuen irakurri Poza-ren liburua.

Bi idazkiok elkarren artean duten diferentzia batekin ohartzen gara: Poza lizentziatua, San Agustin monasterioko bizkaitarren kapilaz mintzaten delarik, Brujas-eko hirian; Areitiok, aipatu dugun eskutitzari jarraituaz, Burgos-eko hiriaz ari da eta ez Brujas-ekoaz.

Kuadru hontaz Delmas-ek jartzen dituen ibilerak hola direlarik ere, ustezko handiegia litzake Pozak Brujas-en jartzen duen kuadru ber-bera izatea. Kuadruari buruz egiten dituen adibide jeneralak elkarren antzerakoak direnez gero, ez litzake hain harrigarria. Baina errege eta zaldunak oinhutsik direla uste izateak, zalantzaren artean ere ez dirudi hain gauza zehatza (Poza-k dionez, bere garaira arte iraun zuen oinhutsik zin egiteko ohitura horrek); hala ere, harrigarriena, Poza-k egilearen berririk ez ematea da, baldin Mendieta izan balitz, biak elkarren hurbilekoak zirenez, sortzez eta adinez. Baina gai hau argi jartzea oso nekeza izango dala iduritzen zaigu.

Allende Salazar-en iritiz, Madrilgo klausura-komentu batean arkitzen den Begoñako Amaren kuadru bat ere Mendieta-arena izan daiteke, bertan agertzen diren trajeak eta *Foruak Zinatzea*-renean dauden bezalakoak direlako. Hau, estudiagarria da, pintore honen lanen azterketarako.

Mendieta-aren maixu eta laguntzaile, itxura denez, Franzisko Vázquez izan omen zen. Bilbon bizi zen pintorea hau ere. Zeren Franzisko Mendieta-koa, bere morroin zen Peru Mendieta-koaren eta María Retes-koaren semetzakoa omen zen, eta emakumezko honek ere zenbait urtean bere etxean zerbitu omen zuen. Eta, bestalde, emakumezko hau Ayalako Mendieta-koa omen zen —pintorearen jaioterria ere hau izan zitekean—. Zenbait puntu aski ilun daude. Emakume hau, 1556ean, izorra zelarik, Franzisko Vázquez-en etxetik bere herrira joan omen zen, erditzera. Gure pintore honen jaiotza ote? Hala bere anai-arrebaren bat? Zeren, 1543rako Santiagoko eleizan pintaketan ezagutzen zela, dio Areitiok, eta urteen numeruetan hutsen bat baldin ez badago, bere ama hamairu urte geroago ere haurdun zela esan behar. Edo, bestela, Vázquez de Mendieta, beste pertsonaje bat da. Hau ere ditekeena.

Areitiok dionez, Mendieta, deituraz, inoiz Vázquez de Mendieta erabiltzen omen zuen. Ene iduriz, garaiko ohitureri jaramon, eginaz, Franzisko Vázquez hori, maixu eta laguntzaile baino zerbait gehiago zela esango nuke. Orduko otseinak jauntxoeri zioten menpetasuna gogoan

edukirik, nork uka egiazko aita ez zenik? Baina arteaz eta artistaz ari garenez, gure haritik aldentzen den gauza da hau.

Dena dela, Franzisko Vázquez-ek Bilboko Kontzejuaren aurrean bere biloben gurasotzari buruz testamentatzean, Franzisko Mendieta-koa presentatu zuen fiatzaile, eta honek, Bilboko bizilagun zela egiztatzeko, beste bi artista zituen lekuko: Hernando Iburguen-goia, tailatzailea, eta Domiku Bedia-koa, pintorea.

Hara hemen beste bi artista, Euskal Herriko semeak, guretzat ez-egunak direnak. Hoiek bezala dugu ilunpean ehun urte geroagoko Joan Antonio Lizasoain ere. Honen pinturak Joakin Yrizar arkitektuak gordetzen ditu, eta 1682an Bergaran eginak omen dira.

Ez da erraz *Bizkaiko Foruen Zinatzea*-ren estiluz iritzi zihurra ematea. Errenazimentuko lan honek, Europaren erdi aldeko giroen kutsua adierazten badu ere, materialik gutxitxo dugu bera eta bere garaikorik. Argi dagoena da, oraindik iker-lan asko egin beharra dugula gure herriko artearen oinharriak behar bezala finkatu ahal izateko.

Si toda la tinta vertida y todo el tiempo perdido sobre afirmaciones y negaciones de la existencia de artistas en el país en tiempos pasados se hubiera dedicado a la investigación, hoy hubiéramos estado mucho más próximos en explayar la auténtica realidad sobre el asunto. Como en su día lo hicimos con Baltasar de Echave, en el artículo de hoy trataremos de otro pintor renacentista: Francisco de Mendieta, cuya omisión hemos observado en la obra *Pintores vascos*, de Luis Madariaga, de reciente publicación y que como primer intento de catalogación consideramos obra muy loable.

Además de pequeñas aportaciones, tomamos como base la investigación llevada a cabo por Darío de Areitio, y que vieron la luz en RIEV y en el B.R.S.V.A.P.

Francisco de Mendieta y Retes debió nacer en Mendieta (valle de Ayala), y siendo vecino de Bilbao en la segunda mitad del siglo XVI, destacó como gran pintor. Fue, además, autor de una *Corónica* de Vizcaya, cuya cuarta parte conocemos gracias al venerable escritor J. C. de Guerra.

Varios han sido los que han tratado de su figura, como uno de los pintores más antiguos conocidos en el país, como autor de los referidos Annales de Vizcaya, por el escandaloso pleito en que estuvo enzarzado por haber borrado la pintura de una imagen y en su lugar puso el escudo

de armas de Juan de Bayona por mandato de éste, en la parroquia de Santiago, pero sobre todo por el famoso cuadro de la *Jura de los Fueros de Vizcaya*, por Fernando V de Castilla.

Pintó para esta iglesia de Santiago una tabla con la historia del rico avariento, retocó los altares de esta parroquia y concluyó el retablo de San Juan Bautista (donde tuvo el altercado aludido). Para la parroquia de San Antón, del mismo Bilbao, pintó un retablo cuyo paradero actual se desconoce. Y entre otras muchas obras notables, fue también autor de un monumento para la iglesia de Santa Marina de Vergara, también desaparecida.

Lo que más se conoce de Francisco de Mendieta es su cuadro *Jura de los Fueros de Vizcaya*, que se conservó en la Casa de Juntas de Guernica y luego pasó al Museo de Bellas Artes, de Bilbao.

Según Delmas, en su *Guía del Señorío de Vizcaya*, año 1864, "Este histórico y muy curioso cuadro fue hallado en Londres en una taberna y lo compró el capitán de un buque mercante, que lo regaló a su país así que pisó sus costas". Hoy existen varias copias de esta obra.

Al parecer, Francisco Vázquez fue el maestro y protector de Francisco de Mendieta, por ser éste hijo natural de su criado Pedro de Mendieta y de María de Retes que también le sirvió algunos años. Esta, a la vez, coincidía ser de Mendieta, del valle de Ayala, pueblo donde se atribuye el nacimiento del pintor.

Es difícil opinar sobre la influencia de estilo de esta obra renacentista de la *Jura de los Fueros de Vizcaya* por Fernando El Católico. Aunque se perfilen corrientes de la Europa Central, no disponemos de material suficiente para formar conjeturas de él y de su época. Lo evidente es que aún hay mucho que investigar para formarnos el material necesario para una base sólida sobre los comienzos de la pintura moderna en nuestro país.

1977-III-20.

ZUMAIAKO ETXABE ZAHARRA

Argitara berri dugu *Discursos de la Antigüedad de la Lengua Cantabra Bascongada* (1607), Baltasar Etxaberen liburua, ez dakit zenbatgarren aldiz.

B. Etxabe zaharra, gure artean askozaz ere ezagunagoa dugu literaturatik, pinturagatik baino. Eta gaur egun, artearen aldetik eman zuena askozaz ere inportanteagoa dugu bere literatura lan hura baino.

Bere liburu hartan vasco-iberismo teoriak mantentzen ditu, bere aurretik E. Garibay (1571) eta A. de Poza-k (1587) bezala; baina geroztik ur asko igaro da zubipetik eta errebizio osoa eskatzen du teoria horrek. Hitz gutxitan agertzea posible ez denez, noizbait artikulu batean adieraziko dugu. Orain, hemen, Etxabe artista interesatzen zaigu, zalantzarik gabe, garrantzi handiagoa duena.

A. de Huartek egin badu ere Etxaberen biografiarik zehatzena (ikus, *Echave el viejo*, "Euskalerrriaren alde", 1927), Karmelo Etxegarai-koak eman zizkigun lehen berriak artista bezala, bere *La tradición artística del pueblo vasco* lanean (Bilbao, 1919).

Hala ere, Etxaberen lan guzia Mejikon dagoanez, ez da erraz aburu zuzenak ematea, besteren eskutik jasotako ageriez idatzi beharra dugunez gero.

Baltasar Etxabe Orio, Zumaian jaio zen, 1548-an. Bere familikoek olak zituzten Oikinan. Bere anaia nagusiagoa zen Joan, ola-zaharretan eta itsas-ontzigitza lanetan jarraitu zuena. Baltasar, lege-gizona, idazlea eta pintorea, 1573an Mejikora heldu zen, eta bertako Real Audiencia-ko Magistradu izan zen.

Baina bere ekintzarik gogoangarriena, pintura eskola sortzea. Europa zaharreko arte berriak Ameriketara, bereziki Mejikon, lehen aldiz zabaldu zutenetako dugu, Alonso Vázquez-ekin batean. Bere emaztea ere pintorea zen. Are gehiago, batzuen ustez, Baltasarrek, bere emazteagandik ikasi omen zuen pintura. Dena dela, bere emaztea oso ezaguna zen garai hartan "La Zumaya" izenez, hau ere zumaiarra zalako.

Baltasarrek erabili zituen gairik gehienak erlijiozkoak izan ziren. Mejikoko eleiza askotarako pintatu zuen. Zenbait erretaula oso ere bai. Bernardo de Balbuena poetak, bere bertso batean, "pintor divino" deitzen dio.

Egin zituen lanen lista, Etxegarayk biltzea lortu ahal izan zuena, aski handia da, eta 1600etik geroztikoak dira. F. Kaperotxipik 1608tik 1650era bitartekoak direla, dio. Baina hau ezina da, zeren Etxabe zaharra 1620 eta 1623 bitartean hil zalako.

Behar bada beste arrazoi bide bat dugu hemen. Baltasarrek seme bat zuen Baltasar Etxabe Ibia izen-deituraz, gurasoen artegintzari jarraitu ziona, eta "Echave el Viejo" aitarekin bereizteko "Echave el Mozo" deitzen ziotena. Eta seme honek, bere aldetik, beste seme bat zuen (Echave y Rioja deituraz) aitona eta aitak bezala Baltasar izena zuena

eta gainera pintorea zena. L. Madariagaren *Pintores Vascos*-en ikus genezakean bezala.

Etxabe zaharraren lanetan onenetakotzat jotzen da *La Oración del Huerto*, Mejikoko Academia de Bellas Artes-en gordetzen dena.

Angulo Iñiguez-ek dionez, beranduko errenazentista dugu, behar bada Toledon edo eskolatua. Baina zihur ez dakigu non egin zituen arte ikasketak, ez berak eta ez bere emazteak. Baina bere obren estiloak argi adierazten du Italia aldean dituela iturburuak, eta batez ere Mejikon bere garai eta ingurukoengandik ondo berezia dala kolorez.

Xochimilco-ko erretaulan eta Mejikoko Museoan aztertu beharko dira eskolaren jatorri zehatzak.

La nueva reedición de *Discursos de la Antigüedad...* (1607), de Baltasar de Echave nos trae el recuerdo de esta figura, más conocida en las Letras que en las Artes, en nuestro país. Pero que hoy hemos de reconocer como obra superior su valor pictórico, aún sin desquitar en lo literario.

En lo literario desarrolló la teoría del vasco-iberismo, como sus precursores E. Garibay y el Licenciado A. de Poza. Pero el actual estado sobre las investigaciones del vasco-iberismo están sujetas a una total revisión, y que tal vez, más tarde dediquemos algún artículo descriptivo del estado actual de la citada teoría.

Sobre biografía y linaje de los Echave han tratado ampliamente A. de Huarte y Adolfo de Urquijo. Sabemos que Baltasar Echave Orio, "El Viejo", nació en Zumaya en 1548, hijo de ferrones de Oiquina y que en 1573 llegó a Méjico, donde ocupó el cargo de Magistrado en la Real Audiencia.

Pero quien mejor y más datos ha recogido de su obra pictórica es Carmelo de Echegaray. Su esposa, "La Zumaya", pintora también, así como su hijo y su nieto homónimos.

Toda su obra se halla en Méjico, fechada desde 1600 en adelante. Su fallecimiento acaeció entre 1620 y 1623. Casi toda la temática ha sido religiosa, pues trabajó para muchas iglesias mejicanas.

Su estilo, renacentista tardío, es italianizante, con un gusto peculiar en el colorido que le distingue de los pintores contemporáneos que trabajaron en Méjico. No obstante, sobre el origen de su escuela habría

que investigar en sus trabajos del retablo de Xochimilco y en el Museo de Méjico.

1971-XI-29.


ARTETA-REN PLASTIKA ABURUAK

Aurten, Madrilgo Banco de Bilbao etxea egin zenetik mende erdi betetzean, toki berean erakusketa bat eskaini zaio Aurelio Artetari diru-
-etxe honen horma biribilaren biran dauden freskoen egilea den oroz. Gainera, liburu eder bat ere eskaini zaio bilbotar pintoreari, bere bizitza eta lanak estudiantuz. Liburu honen egile, J. de la Puente, M. Llano Gorostiza eta G. Perales Soriano dira. Lehenengoak, kritika eder eta jakingarri bat dakar; bigarrenak, bizitzaren alderdia historiatzen du gehien bat, eta kritikari ikutzen dionean ez darama biderik egokiena bere setakeriegatik; hirugarrenak, freskoak egiteko teknika eta Artetak honetarako zituen dohaiak agertzen ditu. Liburu hau irudiz ondo hornitua dator, batez ere Banco de Bilbao-ko lan guztiak eta bera burutzeko jarraitu zituen urratsak, aurrez gertatzen zituen marrazki edo bozetoen bidez.

Bestalde, aurten bertan, La Gran Enciclopedia Vasca argitaldariaik bi liburuxka eskaini dizkio Artetari "Biblioteca: Pintores y Escultores Vascos" sailean. Eta, azken aldi hontan euskal pinturari buruz argitaratzen ari diren liburuekin, badugu non aztertu gure mende honen hasieran indartu zen artegintza.

Zabaldu diren eritzi guztiak ez doaz bide berdinetik eta guk ere geure emaitza eskaini nahi dugu, lehenago jardun ginanez gainera eskolatzat eman den artegintzaren maisurik berezienaren gorasarez.

Hasteko argitu behar duguna zera da, gauza bat dala Euskal Herriko pintorea izatea eta beste bat Euskal Pinturaren Eskolakoa izatea. Honetarako ezta aski bertan jaioko edo herbestetik etorria bertako lurrari finkatua izatea. Euskal Pinturaren Eskola deitzera etorri dena beste gauza bat da. Eskola delako hau pintatzeko era baten inguruan konpromisoa hartzean eta bertan hezitzean oinharritzen da, eta beti ezta beharrezkoa Euskal Herriko gaiak pintatzea —Iturrino bera dugu honen adigarri—. Egia esan, 1911an sortu zen Bilbon Euskal Pintoreen Elkarte, eta gehienak ziren bertan inguratuak; baina, beretarik, postimpresionista bideetatik bakoitzak bere gisara arituaz landu ziren joera berezihok gorpuzten dute eskola estilo hori. Eta Arteta genuen dudarik gabe estilo hortako pintorerik ereduagarriena.



A. Arteta.

Eskolaren bereizkuntza hori ikertzeko, gaur oraindik, beharrezkoak zaizkigu Juan de la Encina-ren kritikak ezagutzea, eta A. Valverde-k bere *Ibar ixilean* argitaratu zuen hitzaldiarekin begiratu, gaurtikako perspektibarekin jabetzeko. M. Llano Gorostizak, bere aldetik hainbeste idatzi duelarik ere, ez dio eritzien aldetik ezeri antzik ematen. Raul Chavarri-k ostera, aburu hobeagoz ikusten du, baina lastima da joan zen mende erditik gure herrian goraka etorren mugimendu hura bere historian ez ezagutzea; hala ere, bere *Maestros de la pintura vasca*-ren sarrera luzea oso ona da. Onak diren bezala, Artetari

buruz, de la Puente eta Perales-en aburuak. Txalotzekoa den bezala, bere gogo onagatik, Waldo Aguiar pintorearena.

Arte eskola bat —Antxon Valverde-k zion bezala—, ezta materiazko gauza bat, eskuz ikutu eta begiz ikus daitekeana; ez. Zentzumenez eta sentimenez begiratu eta konprenitu beharrezko gauza izpirituala dalako.

Arteta beraren ekintza hobekuntzen goraka aldakor joan zen, bere barnetiko gogoak bultzaturik. Bere buruari gehiegi eskatzen ohitua zen eta honegatik oso konformagaitza bere izaeraz. Beti goragoko mailetara iritxi nahirik. 1930ean *Bañuzaleek* (Bañistas) lanarekin irabazi zuen Premio Nacional de Pintura, izango da bere saririk handiena, eta 1932an erakusketako lehen medailla *Itsas-gizonak* (Hombre del mar) lanagatik. Hain humilla zenez, sari bietarako bere adiskideak beharturik parte hartu behar izan zuen. Orduan, famaz jabetu zen, baina hala ere bere apaltasunetik inork ez zuen atera. Aspaldi ahaztu xamar bagenduen ere, orain berriz baliatuaz dator.

Bere obretako gairik gehienak Euskal Herriko langintzak izan ziren. Gizon eta emakumeen lanak kantatuaz. Bere ekintza bidea, Paris-ko postimpresionismo eskolatik hasi eta *El éxodo* hirukoitzera arte, Madrilgo eta Logroñoko freskoetatik igaroz, eta *Arratiako Eba*, *Laietan*, *Arrantzaleak*, *Astodun neska*, *Langile hauzoa*, *Bañuzaleak*, *Itsasoan galduak*, eta abarrek osatzen dute bere eboluzioa, formak eta adibideak artistak tinko jarraitu zituen bide luzeak erakusten dituztela, arestian aipatu dugun bezala, Euskal Pinturaren Eskolako artistarik ospetsuenaren mailan jartzen dute.

Bere artista neurria adiarazten digute, teknika eta sorketaren aldetik, freskogintzak batez ere. Hondarra, karea eta ura ondo eta azkar erabili beharrezko elementuak hormak freskoan pintatzeko. Hontan, eginala zihurtasunez jarraitu behar du artistak, lanean ari delarik. Egite teknikak geroko konponketarik ez bai du onhartzen. Gainera, kolorea ere horma bustian eman behar denez, lehortu ondorean zelan geldituko den ere aurrez pentsatua izan behar du. Teknika neketsua beraz. Pinturaren berri dakitenak konturatuko dira zein zaila den espezialitate hau.

Madrilgo Banco de Bilbao-ko hormak pintatzeko, Rikardo Bastida arkitektoak, gaia libre utzi zion bere gisara edo asmoetara pintatu zezan, eta Euskal Herriko langintzak hartu zituen, hemengo gizonei eta emakumei beren langintzak goresteko. Baina hori bezain garrantzikoa da gaia eramateko arte era, teknika eramatean erabiltzen dituen konposizio eta kolorezko balioak, impresionismoak ekarri zituen argitasunak freskoen teknikaz Europa zaharreko edergintza ereri jarraituaz, jentil aroko greko-erromano eta pizkunde garaiko maisuak

bezalako irudiak eginaz; edergintza zaharra kolore eta balio berriekin jokatuaz.

Europa zaharreko beste era, bigarren parteko freskogintzan agertzen du, Erriojako Seminarioan pintatu zuen absidean —egia esan, tokiak berak ere erlijio gaia eskatzen zion—, baina gaia hautatzean kontuan izan zuen Europako kulturaren beste partea, eta estiloaz gainera izpirituzko aburuak sentiaraziz bizantinotik gotikorako joerak hartu zituen, kolore apalagoetan, baina bere kromatikaren aberastasun osoan eramanez. Honek, hain europarra den izpirituzko munduaren heziketa sinbolizatzen du.

Hormetako bi lanok, Europako gogo orokorrarekin, artistaren aburu zabala adiarazten digute, bere ikusmira lasaia, naro begiratzen duelarik joera aldakorren eta moda laburren gainekaldetik edergintzaren betikotasuneruntz.

Nos es de rigor soslayar los conceptos plásticos de Arteta en el presente año que se cumple medio siglo de la construcción del edificio del Banco de Bilbao en Madrid, máxime cuando a Aurelio Arteta, autor de los frescos que decoran la rotonda de dicha casa, se le ha dedicado una exposición en la mencionada entidad bancaria con la publicación de un hermoso libro monográfico donde se estudian la vida y la obra del mismo, debido a las plumas de J. de la Puente, M. Llano Gorostiza y G. Perales Soriano. Por otra parte, La Gran Enciclopedia Vasca le ha dedicado dos de los cuadernos de su colección "Biblioteca: Pintores y Escultores Vascos". La personalidad de este gran pintor merece mi más elogiosa consideración.

Aurelio Arteta, formado en la Europa de comienzos de nuestro siglo y estrechamente vinculado al movimiento de pintores que radicaban en torno a Bilbao, cuya dinámica impulsó al artista a la superación de las tendencias que predominaban y de la línea tomada por sí mismo hasta el punto de considerársele como el más representativo de dicho movimiento. Su trayectoria, desde los inicios postimpresionistas de la escuela parisina hasta el tríptico titulado *El éxodo*, pasando por los frescos del Banco de Bilbao en Madrid y los del Seminario de Logroño, y los característicos lienzos, como son la *Eva arratiana*, *Layadores*, *Pescadores Vascos*, *La chica del burro*, *Barrio obrero*, *Bañistas*, *Náufragos*, etc., son todo un proceso evolutivo en una larga ruta con diversas formas y expresiones en la concepción plástica seguida tan tenazmente, que le

situan como a la figura más señera de la llamada Escuela Vasca de Pintura.

Su concepción dimensional de las perspectivas tratadas en reducidos enmarques revelan la maestría de estilo y síntesis, orden en la composición y las formas, que unidos a las características de matizaciones en rica cromática, generalmente magra con su particular alternancia de luces, son las predominantes que destacan en sus obras.

Para catalogar la calidad técnica y su capacidad creadora, debemos mostrar especial atención a sus frescos. Su difícil ejecución técnica basada en la arena, cal y agua, y el delicado proceso que exige actuar con rapidez y certeza; son palabras serias para quienes conocen las diversas modalidades pictóricas.

Arteta, para concebir los murales de la rotonda del Banco de Bilbao madrileño —para cuyo trabajo fue contratado con opción a tema libre—, supo mirar con mente serena; plasmó a su pueblo vasco dentro del temario de las principales manifestaciones de la vida de su época. Pero tan importante, es el modo con que supo desarrollar el tema, en las técnicas de ejecución, composición y los valores cromáticos empleados, conjugando las luces de la reciente aportación impresionista con la técnica al fresco y figuras idealizadas en el marco de la cultura occidental, heredados del antiguo paganismo greco-romano y los grandes maestros del Renacimiento.

La otra versión, hereditariamente europea, en su segunda etapa, plasmó en los frescos del Seminario de Logroño, con una obra esencialista que entronca con la espiritualidad bizantino-gótica.

Ambos murales manifiestan de manera simbólica la tradición cultural de la vieja Europa, con amplia y serena visión conceptual del artista cuyas perspectivas se remontan muy por encima de toda tendencia pasajera en las líneas figurativas, para realizar una obra ambiciosamente estable y duradera en el transcurso de los tiempos.

1973-XI-19.

JUAN ETXEBARRIA, BERE EHUNGARREN URTEBURUAN

Aurten betetzen dira ehun urte Juan Etxebarria jaio zenetik. Kolore armoniak oihaletara eramaten parerik ez zuen pintatzaile hau Bilbon sortu zen 1875eko apirilaren 14an.

Oraindik hurbil dugu igazko urtean Madrid-en, Banco de Bilbao-ko geletan egin zitzaion omenezko erakusketa. Eta, erakusketa bide, Joaquín de la Puente arte-kritikalariak berebiziko liburu eder bat eskaini zion. Liburuaren 142 orrialdeak zehar artistaren bizitza eta lagintza zehatz aztertzen ditu, 6 obraren kolorezko erreproduzioak, 32 lamina beltz-zuriz, zenbait fotografia, eta bukaeran Juan Etxebarria ber-beraren zenbait artikulu eta idaz-saio pinturagintzari buruz.

Etxebarriak, arte zaletasuna gaztetxotatik agertu bazuen ere, berandu heldu zion artegintzako bizitzari. Injenerutza estudiatu zuen Mittweida (Sajonia) hirian eta aitak bere siderurjika lantegien buru goan jarri zuen. Hala ere, semeak barnetik zeraman arte-mina ezagutzen zuen eta 1902an, amaren heriotza ondorean, pinturagintzari ekin zezan libre utzi zuen. Lehenengo, Bilbon bertan, Losada-ren estudiora jo zuen. Hemengo ikasketen ondotik, 1903ko abenduan, F. Iturrino eta P. Durrio lagun zituela Paris-era joan zen.


Paris-en, Gauguin-en eskolatik igaro zen, Degas, Vuillard eta Rousseau adiskide izan zituen. Pio Baroja bera ere Paris-ko egonaldi hartan ezagutu zuen.

Europar zehar zenbait ibilaldi egin zituen. Paris-en bertan eskondu zen, eta lehen semea izan zutenean, 1911an, Euskal Herrira etorri zen, Mutrikun eta Ondarroan bizitzeko.

1912an Paris-ko Udazken Gelan egin zuen erakusketa bide, Camile Mauclair kritikaginak estudio oso ona egin omen zion, garai hartako pintorerik hobereen arteko jarriaz. Era berean Guillaume Apollinaire poetaren laudorioak jaso zituen.

Gero, 1914an Madrid-era joan zen bizitzera, eta urrengo urtetik estudio bat iriki zuen Castelló kalean. Orduan heldu zion lanari jotake. 1916an Bilboko artista elkartean, urtarrilaren 21ean, iriki zuen bakarreko lehen erakusketa; geroago, urte bereko maiatzean Madrid-eko Ateneo-an berriz irikiko zuena. Juan de la Encina kritikatzailak goresmenik hobereenak eskaini zizkion. Pio Baroja bera, arte-kritikaz ihardutzen ez bazen ere, gutiago inoren zuriketaz, nornahiri zigorra emateko hobearen lausenguz aritzeko baino, eta hala ere, sentipenez eta jakitez Etxebarriak jaso zituen Barojaren ohorezko hitzik samurrenak.

Azken urteetan bihotzetik sufritzen zuen eta gaitz honek eraman zuen mundutik, Madrid-en bertan, 1931ko uztailaren 8an. Heriotza ondorean, Museo Nacional de Arte Moderno-k, bere 55 obrakin omenezko erakusketa bat antolatu zuen. Ohore handiagorik ez zen posible; baina geroztik aski ahaztua izan dugu, igaz Banco de Bilbao gogoratu arte.



J. Etxebarria.

Bere lanean, Gauguin-en eskolak ondo aprobetxatu bazituen ere, haren bideak laster utzi zituen bere gisara abiatzeko. Konformagaitza zen. Beti bide berriak aurkitu nahirik ari zenez, lehenago berak egindako lanak ere ez zituen gogoko.

Pinturagintza landuenean ari zenean, bere adiskide Iturrino bezalako *fauve* izatera heldu ez bazen ere, eskola horretatik hurbil ibili zen. Eta eskola hortakoak bezala maite zituen koloreak. Kolore gardenez, gelditu gabeko berritzean aritu izan zen bere ekintza guzian. Gris eta urdinen armonia, musker kolorez ikutuaz, doinuuzko armoniak bezala oihaletan zabalduz; koloreen poeta bihurtzeraino.

Gaietan berriz, garaiko intelektualen erretratugintzan franko aritu izan zen: Baroja, Unamuno, Valle-Inclán, Maeztu, Azorín, Juan Ramón, eta abar. Horrez gainera, paisajeak, lorak eta herritar arruntak, Granada-ko ijitoak, rusiarrak, gaztelarrak, eta batez ere euskaldungoak du toki berezia bere obran. Koloreak berriz, hemengoak ditu Gaztelanian pintatzen duenean ere.

Hein batean, inpresionisten ondorengo da, postinpresionista, haien lirismoak utzita asmakizunetara nahi zuena. Da Vinci-k bezala, artea buru-lantzat hartu zuena. Inondik ere ez zen imitatzailerik eta bide berriak irikiz etorri zen. Bere lurreko urdin freskoetan aurkitzen ditu koloreak erabiltzeko erak, eta itsasoa bera ere gure zerura begira eginaz. Honegatik, pertsonalitate berezia du postinpresionista guzien artean. Jakintzaren laguntzaz, bere psikisean, bere jatorrian aurkitzen zuen bidea.

Bere pinturaz eta izkribuz artezko aburuak berritzen lagundu zuen.

El presente año se cumple el centenario del nacimiento del pintor bilbaíno Juan de Echevarría, a quien el Banco de Bilbao en Madrid acaba de dedicarle (1974) un homenaje con la exposición de sus obras y un libro debido a la prestigiosa pluma de Joaquín de la Puente.

Echevarría dejó su profesión de ingeniero en 1902 para dedicarse exclusivamente a la pintura. Cursó sus primeros estudios en la escuela de Losada en el mismo Bilbao, para marcharse en diciembre de 1903 a París, en compañía de Francisco Iturrino y Paco Durrio.

París y sus viajes por Europa formaron al artista. En 1911 se instala en Motrico y Ondárroa, donde trabaja poco tiempo. En 1912 expone en París y el crítico Camille Mauclair le considera como a una de las revelaciones pictóricas más extraordinarias de aquel momento y afirmando que le correspondería un puesto culminante en el arte. El poeta Apollinaire también proclamó en su favor.

En 1914 marchó a Madrid, y el próximo año instaló su estudio en la calle Castelló de la capital de España, donde trabajó activamente. En enero de 1916 hizo su primera exposición individual en la Asociación de Artistas Vascos de Bilbao, y en mayo del mismo año en el Ateneo madrileño. Y a su fallecimiento, acaecido en 1931, el Museo Nacional de Arte Moderno le dedicó una exposición en homenaje póstumo.

Tuvo en él influencia el culto al color de los fauvistas, colores que

encontró en su tierra vasca y que le seguirían en sus temas castellanos, granadinos y hasta en las estepas rusas.

Además de destacar como gran retratista, sus temas preferidos fueron los paisajes y paisanajes de su tierra, de Castilla y de Granada, más los motivos de flores. En toda su obra destaca la armonía de color.

Echevarría, con su obra pictórica y sus escritos contribuyó a la renovación de las artes.

1975-I-13.

JULIAN TELLAETXEREN ITSAS GOGOIA

Egunotan, merezimendurik aski zuen Julian Tellaetxeren omenezko erakusketa idekirik aurkitzen dugu Donostiako Etxeberria Arte Gelan (Alfonso VIII kalearen 4.ean). Erakusketa idekitzean, sarrera gisa, Manuel Llano Gorostizak hitzaldi bat eman zuen, pintore honen bizitza eta lanen berri emanez. Hizlariak agertu zuenez, euskaldun pintore honi ez zitziola eman merezi zuen maila. Inpresionismo ondorean hemen sortu zen euskal eskolaren guna zer zen ongi konprenitzen ez den artean holakorik maiz gertatuko zaigu. Lehenago ere esana dugu, bi gauzak ematen diotela bere nortasuna euskal eskola deritzan honi: gaia eta pintatzeko era. Jesus Olasagastik aski ongi ikusi zuen bezala. Honek agertu zituen iritzieri buruz ikus M. Flores Kaperotxipiren "Arte vasco" (1954) liburuaren 248. orrialdea. Aburu horiek kontuan harturik, J. Tellaetxek bi gauza betetzen dituela, euskal gaia eta hemen girotu zen pintatzeko era.

Badakigu hemengo artistok beren hastapenetan Paris-ko inpresionisten eskola hartu zutela, Regoyos, Guiard eta Guinea lekuko, baina Iturrinoren "fauvismo"tik eta honen ondoren bere bide berezia markatzen hasten da, eta hauetakoa bat dugu Julian Tellaetxe.

Tellaetxe Bergaran sortua zen, 1884an, baina bere gaztarotik menturazale zen nonbait eta itsasaldera jo zuen, piloto izateko, eta Lekeition bizi izan zen urte askoan. Bere gaztaroan ogibidea itsas lanetan arituaz, itsas gogoia bere barne muinetaraino sartua gelditu zitziola dirudi bere artegintzak adiarazten digun itsas-mina lekuko.

Itsas zabaletan zehar ibili ondorean pinturari heldu zion. Egia esan, hamasei urterako E. Chicharro-ren eskolatik pasatua zen eta hamazortzikin Paris-ko Julien eta Colarosi-ren akademietatik igaro. Hogetazaz-



J. Tellaetxe.

pikin, 1911. urtean, Euskal Artisten Elkartearen sortzaileen artean aurkitzen dugu eta geroztik eten gabe jarraitu zion bere arte lanari.

Orduan, itsas-minak zeraman bere pintzela, bere oihaletan ageri denez. Maite bai zituen gure itsas-hegalak eta gure itsas-jendea. Hauck hartu zituen gai, itsaso paisajeak baino areago marinelen bizitza-lanak eta horien inguru guzia, itsasontziak, itsas bazterreko jendea bere zereginetan, haurrak altzoan dituzten emakumezkoak beren senarren zaí, baina batez ere arrantzale sendoak pentsakor, itsas-gizon hauen psikolojia adiaraziz. Jende honen mundua barnetik erakusten digularik.

Konparaketak egiten zaleak direnak Gauguin eta Matisse-ren kidetasunak aurkituko dituzte irudiak edo marrak egiteko eran, postinpresionisteri lotu nahiko dituzte gure astistok, baina hauek ere bakoitzak bere erak eta estiloak dituzte, bakoitzak bere nortasuna gordeaz, Paris-ko eskola hartakoak bakoitzak bere era zuen bezala. Eta Euskal Herriko artistak hangoen jokera baliaturik hemen beren gisa helderaino jarraitu bazuten, mamitze honetatik dagokio, bertako eskola baten ingurua lortzea. Eta eskola honetan nortasun handia zuen Tellaetxek, gaiz eta eraz.

Etnia, marinel gizartea eta hoiengue ingurua sentitzen zuen eta poesia darioten oihaletan pintatu zituen, folklokerian erorigabe. Bere lanak, bertsolarienak bezala, bat-batekoak dira. Estilo arinez baina sarkorrak; garbi ta zintzo egindako lanak, handikeririk gabe, gai ximpletan jasoko zituen jende apalak era apalez.

Bere oihaletan, azpitik okres eta gaintetik gorriaz, urdinez, beltzez eta batez ere zuriz edo gris eta zurizko gamaz. Kolore guti, baina biziak eta oihaletan ongi armonizatuak. Bere dibujogintza oso segurua zen, lerro eta marrak zalantza gabe eramanez eta gaintetiko pintaketak oso ximpleak, oihaletan doi doi beteak edo guztiz bete gabeak. Gehiegizko pintaketetara heldu gabe uzten zituen eta bere dibujogintza eta langintza osoa biluzik ageri dira. Biluzik, bere lanaren teknika guzia ikus eta ikertzeko eran, baina bete beterik ikuslearen begietarako. Sanginazko dibujoetan dimensioak agertzen ditu, baina orio oihaletan gehien geometria zapala da, kolorezko ekilibrioak eta dibujoen linealtasunaz ardura gehiago jarriaz. Laukirik gehien gehienak, beraz, ahalik ikutu gutienegingak dira, berebiziko grazia dutelarik. Nortasun handia nabari dutela.

Errepublikara garaietan, Donostian, Aszentzio Martiarenaren ordezkot egiten zuen, honen eskolan. Gudatean, Euskal Artisten Erakusketak antolatu zituen Europako herri askotan, eta Jose Maria Uzelayekin baten zer ikusirik badu Picassok "Gernika" pinta zezan. Gero, beste artista eta intelektuala askok bezala, desterruan ikusi zuen bere burua. 1952an Peru-ko Tesoro Artístico Nacional-eko zainzaile izendatu zuten. Eta Lima bertan hil zen. Bere seme Albertok dionez 1957ko Gabon egunean hil omen zen.

Paris-tikako haize berrieri leihoa idekiz hemengo eskola sortu zuten artista aintzinlarietako bat zen. Itsas naturaren inguruan bere gogoaren giroa aurkitu zuena eta bere pintzelaren bidez giro honek nabari zuen poesia oihaletan itsatsi zuena.

En la Sala de Arte Echeberría (Alfonso VIII, 4) de la ciudad permanece abierta al público la exposición-homenaje al pintor Julián de Tellaeche. Una preciosa antología de este autor invade las salas bien iluminadas. En la inauguración intervino Manuel Llano Gorostiza con una conferencia sobre la vida y las obras de este gran pintor vergarés.

Tellaeche fue marino en su juventud y llegó a sentir de tal manera el ambiente marino que a la hora de pintar le fluye casi exclusivamente el asunto de las gentes de mar. Prefería lo humano y no el paisaje. Por esto, no pintaba el mar, sino sus cosas, "el mar quiere no ser mirado, sino navegado y luego sugerido". Diría el propio pintor, y es la mejor interpretación en cuanto a su temática. El hombre y las cosas que éste creó, los navíos de amplias velas y las sufridas maternidades y los puertos y las faenas en los mismos, predominan casi exclusivamente en la obra de Tellaeche.

Pintor de dibujo fino y seguro, que empasta sobre fondos de ocre depositando sus limpios y puros colores, predominando gamas de azul y blanco, de blanco y gris, contrastados a veces con el rojo. Los lienzos a veces los dejaba sin cubrir del todo.

Con una simpleza natural hizo una gran obra, que por su tema y estilo conviene situarle entre los grandes maestros de la escuela vasca de pintura de la primera mitad de nuestro siglo.

1976-X-25.

OTEITZA GURE ARTEAN

Gehienok jakitun garanez, Hondarribiako "Txantxangorri" etxean abuztuaren 20an iriki zuen Jurgi Oteitzak bere lanen erakusketa, eta hil honen azkenera arte iraungo du.

Presentatzen dituen lanak: 29 multiple Arantzazuko erlijio sailekoak eta 39 eskultura bere lan orokorraren antologia gisa. Harria, brontzea eta burdina darabilzki materialez. Ezta bere lan guzia eta ezta guttiagorik ere, baizik muestratxo bat besterik ez.

Bere obrak estetikazko iker saioak dira, bide berrien bilaketaz eginak. Pizkunde garaitik datorkigun estetika uste hertsiekin bukatu nahi du, era berri bat sortzeko urratsak markatuz. Hontaz, bere lana eta pertsonalitatea neurtzeko beharrezkoa zaigu "Alfaguara"k bere *Nueva forma* sailaren Arte Bibliotekan 1968an argitaratu zuen liburua ezagutzea, *Oteiza escultor, 1933-68*. Juan Daniel Fullaondo, Anjel



Arantzazu apostoluak, J. Oteizak egina.

Crespo eta Rafael Moneo-ren estudioekin eta Oteizaren zenbait agirirekin, argazki ugariz hornitua.

Hondarriako erakusketa honetan azaltzen dituen adibidezko lanak, izpiritu eta etika bidetik Kandinsky, Malevich eta Mondrian-en joeretatik abiatzen dira. Gainera estatua hutsen saioak, estetikaz bukatutzat dituenak ere agertzen ditu.

Jurgi Oteitza Enbil, Orion sortu zen 1908an. Gazterik, 1931garren urtean Gipuzkoako artista berrientzat bi-urterik behingo sariketa irabazi zuenean medicina karrera utzi eta bete betean eskulturagintzari oratu zion. 1933an, saribera berriz bereganatu zuen eta urte bete geroago, Donostian, lehen aldiz jarri zuen bakarriko erakusketa. Gero, urte askoan Hego-Ameriketara ibili zen. Buenos Aires eta Bogotá-n arte irakasle ere izan zen.

1948an itzuli zen Ameriketatik. Handik, herriaren aldeko idealak ondo finkaturik ekarri zituen. Ideal horien alderako plangintzak ere muntatu zituen, baina gure herria maila horretara irixten ez zelako edo konprenitzera heltzen ez zelako, artistaren asmoak ez ziren errotu bere nahien neurrian eta anitz atsekabe eraman ditu bata bestearen ondorean.

1950ean eman zioen Arantzazuko elizaren ataurreko eskulturagintza. Lanaren estudioa 1952an hasi zuen eta urrengo urtean burutu. Baina eragozpenak sortu zitzaizkion eta dena bertanbehera gelditu zen. Sei urte ondoren lortu zuen lanak iharraitzeko baimena eta 1969an bukatu. Langitza horiek eta bertarako erabilitako aburuak, muestraz edo argazkiz agertzen dira Hondarribiako erakusketa honetan.

Bitartean, Arantzazuko lanak geldiaraziak ziren tarte hortan, 1951an Milan-go IX. Hiru-urteroko ohorezko diploma jaso zuen, eta 1957an Sao Paolo-ko IV. Biurterokoa, mundu guzian ospe handia emango ziona.

Hala ere, tamalez, gure herrian asko ziren, eta oraindik ere ba dira, bere arte aburuak konprenitu ezin dutenak eta konprenitzen ez duenaren kontra altxatzen direnak, baketan utzi gabe oztopuak jartzen. Bestalde, zenbait artista berrik ukatu nahi dute bere iritzien eraginezko hasieratik sortu zirela. Ezbehar guzi hauek gizona erreta utzi dute, eta hor dabilta batzuk nondik huts tipiren bat aurkituko, adi, kontralanari heltzeko.

Ukatu ezinezkoa, eta guziok aitortu beharrezkoa, hau da: Oteitza, gure herri artearen gogoetatik arituz, garai guzietako herri artearen iharraipena estudiaturaz eta bertan oinarrirituz, gizarte berri bati begira, bere estetika usteen ekintza guzian sorketa izan du helburu. Arte zaharretan erroturik gaurko Europan egiten denaren arabera aurrerakoiez. Asmo hau mamitu nahirik, 1966an Gaur taldearen Euskal Eskola *Manifestoa* argitaratu zuen Donostian. A. Arias, N. Bazterretxea, E. Txillida, R. Mendiburu, Ruiz Balerdi, J. A. Sistiaga eta Zumeta zituen bere inguruko, orduan egin zuten erakusketan; eta erakusketa honen katalogoan argitaratu zuten aipatzen dugun agiria.

Gipuzkoan Gaur taldea bezala, Bizkaian Hemen, Araban Orain eta Nafarroan Danok izeneko taldeekin osatu nahi izan zuten. Baina, batzuen aldetik gure artearen aurrerakoitasuna isilarazi nahi zen, eta oztopoa oztopoen ondotik. Herriko tradizioan errotutako estetika berria gure garaiko mundu zabalera erakutsi nahi zen; baina, urte berean, Iruñean eten zituzten gure artisten asmoak.

Euskal Eskolak bere lekua behar zuen, bere garaian noski, arteak gaurkotuaz aurrera joteko. Euskal Herriko edozein hiri nagusi zatekeen egoki, baina zoritxarrez artistak ez dute izan holako laguntzarik. Hala ere, zabaldutako haziak hor gelditzen dira eta behar bada egunen batean frutu hoberik emango digute.

Jurgik, orain, euskal gogo ihardunak idatzi nahi ditu eta Nafarroako Alzuzara erretiratzen, euskal estetikaren sentzibilitatea iratzartzeko.

El día 30 del presente mes se clausurará la exposición de despedida a Guipúzcoa del genial escultor Jorge de Oteiza, que desde el 20 de julio permanece abierta al público en los locales de "Txantxangorri", en Fuenterrabía.

En la misma se exponen 29 múltiples de la serie religiosa de Aránzazu y 39 esculturas como muestra antológica. Una exposición digna de ser visitada.

El último decenio Oteiza ha luchado por la transformación y puesta al día de las artes plásticas y la creación de una sólida escuela vasca, abriendo perspectivas en la búsqueda de oportunidades para el ensayo de una acción conjunta de recuperación artística en un nuevo arte compuesto, del arte vasco en vanguardia europea y nuestros lenguajes populares en tradición, como nos dirá él mismo, y sin posibilidad de repetirse. Sus empeños resultaron baldíos.

Fullaondo que le considera, junto con Picasso y Gaudí, como a uno de los mejores artistas del siglo XX, dice de él: "Jorge de Oteiza continúa con su curiosidad tan despierta como la de un niño, con su capacidad de reacción recrecida, con su ardiente deseo de comunicación y afecto que habrá de sobrevivir a todas las ofensas, a todos los rechazos, a todas las traiciones".

Nosotros, los que siempre nos hemos mantenido mucho más cerca de lo que él mismo se supone, le tendremos presente a través de su afectiva gran obra que nos queda para siempre. Y hasta abrigamos la esperanza de que de las semillas espirituales que él dispersó a los cuatro vientos del país, ha de surgir una nueva era en los conceptos estéticos.

1974-IX-23.

E. TXILLIDA

Hil honen 21ean jaso du Eduardo Txillidak "Prix Rembrandt 1975" saria. Honen aurretik edo bateratsu, 1974ko Diano Marina sariaren hautapena ere izan du.

Gure gaurko artista aintzinzaleak honelako sariak jasotzen dituzte-larik pozez baina kezkatu jartzen naute. Nere buruari galde hau egiten diot: Etxean behar haina begiramendu ba ote dute? Gehiñetan, begiramendua eta ikasbidea kanpotik bai datorkigu.

E. Txillida, gure artista hau, Donostian sortu zen 1924ko urtarrilaren 10ean. Hogei urtera heldu baino lehen hasi zen arkitektura estudiatzen, baina lau urte barru eskulturaz arduratuko zen. Paristik ibili ondorean, 1949an, eskulturgintzari ekin zion.

1966ko udaberrian zortzi artista gipuzkoarrek, "Gaur" izenez, Donostian egin zuten antologiako erakusketan parte izan zuten. Erakusketa honekin zabaldu zuten Manifestuak arte aro berriaren eraginaren hasiera ekarri zuten gure herrira, plastikaz nabari zen atzerapena baztertu eta sorkunde berriaren kontzientziaz jabetzeko. Zortzi artista haietatik berezietako bat agertu zen Eduardo Txillida.

Lehenagoko imitazioetatik aparte eta urruti abiatu ziren, eta Txillidak bereziki, ideia-indarra erabiliko du geroztiko bideetan zehar, goruntz eta zabal. Onhartu nahi ez zutenak eta etsaiak ere konturatu ziren aro berri baten mugimendua etorrela, eta horregatik izan zuten hainbeste kontrako indar, hainbeste eragozpen; ilunpean egoanari behar baino argi gehiago emango ote zioten beldurrez. Argia, falta zaionari ukatzen zaion gauza bait da.

Baina, orain, goazen Txillidaren eskulturgintzaren harira: Gauzen ideia ustezko zerbaitetik sortzen da Txillidaren arte ekintza, Volboudt-ek bere liburu ederrean dionez. Fullaondok markatu zizkigun bere arte librearen joera giltzak zer ziren. Lehenagoko arrazoizko bete beharrak utziaz, libertatearen gogotik adiarazteko. Bere ekintzak, bizi nahiaren borrokara garamazki, eta egungo kontseptu berrieri zentzuna eta bihotza idekiz, burdina, harria eta zuraren modulo tentzioak hutsuneetan, airean, orekan jartzen ditu; gizonaren lekuko, forma berriak airean utziaz, oraindik inoiz agertu gabeko kosmos zati baten gisa. Eta, materia guzien artean burdina du gogozkoena. Bertan agertzen du gogoaren eta giharraren indarra.

Ideaz erabiltzen dituen gauzarik gehienak, bertan oinharriturik gauzen era berriak asmatzeko, Euskal Herriko tresna edo lanabesak ditu. Hoiek hartzen bai ditu bere etorriaren iturburu.

Berari ez zaio axolarik bere lanak guretako bakoitzari zer esan edo adiaraziko diguten, bere eskuetatik irtetzen diren materiazko sinbolojiak, norbaiti zentzumena edo sentimena kezkatzen bazaio aski du. Artistaren irudiko hori du bere bete beharra. Hortik iratzartzen bait da herri gogo, hortik bultzatzen bakoitzak bere izate arrazoien bide bat.

Aurreko astean "Zeruko Argia"n (Ikus 628 zenbakia, martxoaren 16koa), 1975eko Rembrandt saria dalata, Txillida berak hau aitortzen zuen: "Nere lanak euskal pentsamenduaren zainetan errotuak daude... neure eskulturgintza guztian zehar, ardatz edo oinarri nagusiak

euskaldunen pentsaeran eta kondairan tinkatu ditut". Eta, honegatik, berari ematen zaion saria, azken batean, bere herriarena dela.

Bijoaz gure zorionak Eduardo Txillida artista bikainari!

En breve intervalo, el escultor donostiarra Eduardo Chillida, se ha hecho acreedor de dos importantes premios: Diano Marina de 1974 y Rembrandt de 1975, que acaba de recibir la pasada semana.

Para tratar de comprender su obra, recordaremos que Fullaondo nos trazó sus coordenadas vitales, de la pasión antirracionalista, protestante, expresionista, anhelante de trascendencia en relación con los canónicos límites racionalistas, el afán lacerado y lacerante de una misma integral captación del vasto testimonio vital.

El arte escultórico de Chillida arranca, según Volboudt, de "cierta suposición de la idea de las cosas". Base de estas ideas son los aperos nuestros, y que a partir de los mismos el artista transforma para hallar nuevos módulos que forman efectos espaciales. Y esta obra espacial consiste en la articulación flexionada del metal —siendo ésta la materia más trabajada del artista que nos ocupa—, con una proporción, una medida ideal, necesario para concluir el conjunto.

Piedra, madera y hierro son los elementos materiales que él emplea, con predominancia, según queda dicho, de los hierros forjados.

El eje principal de su obra, de su idea-fuerza, son las cosas de trabajo del pueblo vasco y que él, partiendo de los mismos, va creando simbologías que le identifiquen con el sentir del pueblo mismo, e incita e invita a éste a un despertar de la conciencia plástica.

Vaya nuestro reconocimiento y nuestra enhorabuena al gran artista.

1975-III-24.

N. BASTERRETXEA

Nestor Basterretxea artistak, abuztuaren 28tik hil honen 20ra arte, Hondarribiako Txantxangorri bere lanen erakusketa jarria du. Lan horiek, batez ere azken aldian egin dituen eskultura eta erreliebeak eta lehenago egin zuen euskal kosmogonika sailaren antolojiak hornitzen dute. Euskal kosmogonika saileko lanik gehienak argazkiz jarriak ditu.

Txantxangorri etxearen gelak aski txikiak direnez gero. Hala ere, muestra batzuk, diren bezala, osorik daude.

Basterretxeak, bere gaien oinharritzat, euskal etnografiarekin aspalditik konprometitu zen, tresna, lanabes, mito eta abar etorriaren ideatzak harturik. Euskal Herri zaharraren mundu kulturaleko gauzak monumentu eraz sinbolizatu nahi ditu, eta bere ekintzaz hilarri biribiletara heldu da. Hauek ditu Txantxangorri ipintzen dituen azken lanak.

Lehen sala hilarriz betea aurkituko dugu. Antzerako moduluekin jokatzuz era askotariko hilarriak lortuaz. Badirudi harri horiek gure herriaren larriminen lekuko direla. Hileta zorizko oihartzuna nabari dute, bizi nahiaren borrokan. Nortasunean iraun nahi duen herriaren izan-nahi gogoia agertzen dutela esango nuke. Bizi nahia heriotzaren aurrez aurre, Orixek bere poemaren sarreran agertu zuen ideia hari bikain lotzen zaio Nestor Basterretxearen artegintza, batez ere 1972tik honerat dakarren kosmogonika sailetik heltzen dena. Igarrita edo igarri gabe, edo hobeto esan gizartearen kontestu berak era berdinean eraginez, Orixeren etorri-deizko bertsoa Basterretxeak bere egin duela dirudi:

*Zatozkida, Goi-arnas
eizu nerekin lan,
erri baten arnasa
mamitu dezadan.
Geroak esan beza:
"Erri bat izan zan"
edo-ta ats emaiogun
ontan iraun dezan.*

Lanok, denboraren barnean, materiaren bidez, hor geldituko zaizkigu gure herriaren gogo iraunkorren lekuko.

Gure lehena berritza, jatortasunaren haritik jarraitzea, gogo-muinen iraupen nahiak hor azaltzen dira plastika arte bidez. Sigiluek bide, gure jatorrizko kulturaren balioak, betikotasunera begira jarri nahi ditu gure artista honek. Behintzat, bere sigiluak hor uzten dizkigu, herri baten jatortasunaren seinale.

Nestorrek, jatorrizko izatearen ekintzan jarri du bere konpromisoa, bere kontzientziaren deiari jaramon eginez. Iragan zaharraren oroitzua bizia, geroari begira lehenaren berritza duela proposamenduz.

Kultura zaharrek beren artea adiarazi zuten era haietara jotzen du azken batean: mitora. Honela, gaurkotuaz, arbasoak arteari eman zien funtzio ber-bera ematen dio, jainkoari edo herriari eskainia.

Egilearen teknika aldetik ere badu Nestorrek gauza bereizgarriak. Lana zehatz eta ongi bukatzen duenetakoa da. Bere egituraz, nahasmen-
duen antolakizunetan diharduenaren gisa. Eta, batez ere, azaletik sakonerako irten uneen ekilibrioa mantentzeak indartzen du bere eskulturagintza.

Marmolean, alabastroan, harbelean edo naiz zurean egiten dituen grafiak oso lan bereziak ditu. Pintorearen eskua nabari dute. Zurezkoak, maiz, erreliebez edo irten-uneez hornituak.

Euskal kulturaz arduratzen direnentzat, oraindik sentimen jatorren jabe den herri arruntarentzat, geroari begira hezitu behar diren haurrentzat, bihotz taupadak zintzo eta sendo dituzten guzientzat, eta nork daki gogoia lokarturik dutenen iratzarpenerako ere, benetan ezagugarriak dira Txantxangorriin N. Basterretxeak erakusten dituen lanak.

Néstor Basterrechea expone en las salas de Txantxangorri de la ciudad de Fuenterrabía, desde el 28 de agosto hasta el 20 de septiembre. Entre el material expuesto figuran una muestra de su serie cosmogónica vasca, un nutrido número de estelas discoideas y algunos relieves en madera y piedra.

Destaca los valores étnicos de nuestro pueblo, a cuyo temario se comprometió plenamente N. Basterrechea desde 1972.

Su obra parece inspirarse en aquella invocación que Orixé hizo en la introducción al magno libro de poemas *Euskaldunak*: “Venme soplo divino / a ayudarme en la empresa / de plasmar en epopeya / el hálito de un pueblo. / La posteridad proclame / si “ese Pueblo se fue” / o si hemos de darle aliento / a que perdure en su ser.” Precepto éste que hemos mantenido los euskarólogos de nuestra generación frente a las desfavorables circunstancias.

Recordaré aquí lo que el gran poeta Gabriel Celaya dijo al conocer su serie cosmogónica vasca, ya que no puedo expresarme en castellano con la certeza del admirado poeta: “Creo que esta exposición nos invita a una reconcentración en la profundidad de Euskalerría, que nos servirá para apretar como una pólvora nuestras insoslayables razones vitales y, llegar, con un nuevo arte, y con todo lo que sea preciso, a lo que nuestra necesidad de respirar exige”.

He aquí lo que declaró el propio artista respecto a esta serie: “Son el resultado de haber sentido muy intensa la necesidad de introvertirme en

nuestra raíces más profundas y sugerentes. Interpretar en imágenes y nuevos rostros las ideas implícitas en nuestra original cosmogonía de la que nació la mitología, como una metafísica primaria: dotar con apariencias tangibles —resueltas desde una estética actual— aquel universo mental y físico de nuestros primeros gestos de tribu, que en un milagro de supervivencia iba a concretarse en la realidad de nuestro singular pueblo vasco. He andado un camino que me ha parecido que hacía siglos lo venía caminando: en él he encontrado los nombres inventados para los genios y divinidades que fueron símbolos, creencias, amenazas, dolor y esperanza. Misteriosa realidad en la dilatada noche de nuestra antigua vida”.

1975-IX-15.

J. L. ZUMETA

Jose Luis Zumeta usurbildar pintore gaztea, bere kolore gardenez, artista berezia da. Eta, berezia izanik ere, gogoz, herri-lurrean bazkatzen duenetakoa, zeren herriaren erro zaharretan bilakari ari bai da. Artistarik gehienak erori diren ohikeriazko rutina edo usuario hoietatik oso aparte aurkitzen da, hainbeste zapal dutako mundu hertsia horrek ez bai du beretzat tokirik. Bera, sorkundeari emana da. Herriaren gogo-zahar adiarazpenetan bilaketa aspergaitzean murgilduz hartzen ditu gaiak. Gogo-zaharrean eta inguruko geografiaren argilurretan arituaz.

Santiago Amon-ek, artista honi buruz idaztean, hara zer dio: Dana lur-azal, geologika aztarrika sakona, lur-taupada, oraindik izenik jaso gabe zeuden gure esentzi eta izateei egindako deihadar zaharra, hots, herri arima bat lanean Jose Luis Zumeta, bere azti-oihal, bere zirriburru, bere ñaurketa bakoitzean, herrien izenik, ohituren aipamenik, jai-egunen noizkorik agertzen ez duen mapa batean lau hegala zabalitzen dihardu lur eta koloreak, hotz-bero eta odol bultzadak agian, eta zuzenki agian, Euskal Herriaz mintzo dira, baina ez berritasun arabera bezala hartuaz mugarik gabean, errotu gaberik, ez; oinarri asmagaitzeko lur batean eraikitako erresumaren lekuko bezala baizik; herriaren arbaso taupada, “herri-sentikariarekin” bildu eta mamitua.

Duela pare bat urte, Ezoziko elizan igarri nion Zumetaren herri-sentipenari, bere koloreen partetik. Kolore biziak, alaiak, gure itsas-herrietan ontziak duten bezala. Pintakera hoietaz izan nituen gogoetak Zumetaren kromatikara eramaten ninduan. Herri pintoreen lanetan

aurkitzen nituen kolorezko ideiak gogozko elkartasun batera bultzatzen ninduen. Kolore haien doinu hotsa lehenago Zumetaren lanetan nabaritu bai nuen.

Gainerakoan, Zumetaren egitura, teknikaz, lehen bozeto arin baten gaineretik koloretuz doala dirudi, eginahalak nola betea markatzen diola, ariketaren bidez, reflejoak kondizionaturik. Baina bolumenak, marraz, eta kolorez, ongi gordeaz, indar neurriak ekilibrio egoki baten barnean taxutuak zaintzen duelarik.

Bere obrak, irudimenezko sentierak askatuz, egunerokotasunari muga jartzen dio. Eta, honela, egoera berri baten aurrera aldatzen gaitu, asmakizunetatik eta iduripen berrietatik abiarazteko, edo eguneroko usuario neketsuetatik liberatzeko. Lehen sentipenetatik ekintzara bultzatzen gaitu eta bigarrenetik gogo lasaipenezko deskantsura.

Gogozko ahalmenak iratzartzeko lan bikainak ditugu Zumetarenak. Nik ez dakit holako artista bategandik probetxu gehiago nola ez dugun atara. Lasai aritu gara esanaz, gizona ez dela ogitik bakarrik bizi. Baina artistaren etorriari ez diogu behar haina frutu ateratzen. Hori gainera, Zumetaren lanetatik emaitza ederrik dugula aspaldi honetan.

Liburuetan zenbateraino lagundu lezakean Gero argitaldaria erakutsi digu bere liburu azaletan. Baina J. L. Zumetarena bereziki, Harzabalen *Laino guzien azpitik... eta sasi guztien gainetik...* liburuen apaingarriz ikus genezake artistaren presentziak gogo-bihotzak noraino alaitzen dituen. Hor behintzat, Zumetak, irudizko ideia batzuk behar bada Georges Braque-gandik hartu baditu ere, oso goimailetara joan da, eta poesia bera berebiziko onduen girotzen du irakurlearen lagungarri.

Baina Zumetak, hala ere, bere dohainik berezienak olio-pinturaz oihal handietan eman ditu. Eta, azken saioz, lur-egoziz. Bere pintura zeramikazko bidriauetara eramanez, lan handi bezain zoragarri ederra egin du Usurbilgo frontoiaren horma gibelean eta Pasaiako itsas-geltokian. Era honetara, koloreei erreliebea emateaz gainera, denborak zehar lana gordetzeko era bat aurkitu du, zeren ez urak, ez eguzkiak eta ez hotz-beroak ez bai dute galduko. Bestalde, gure herrietan beharrezkoa dugu artisten lanak maiz ikusteko aukerak jartzea, eguneroko neketan lasaipena eta irudimen-gogoa bizkortzeko diranez.

Ikastola berriak egiten ari diren arkitektoak ez dakit nora begira dauden. Eskola bakoitzean holako mural bat behar litzake, haurren irudimena irekitzen eta indartzen lagungarri diralako. Usurbil eta Pasaiako muralak ikusi ondorean denok dugu zer pentsa.

José Luis Zumeta es un pintor usurbildarra muy conocido en la provincia. Con sus colores primarios va buscando motivos en el mismo sustrato del pueblo. Su abstracción nos incita a leer en nuestro interior a través de la meditación a la que su obra nos incita. Sus lienzos se prestan para animar las paredes de cualquier despacho o casa moderna de lisa decoración. Pero, a la vez, nos trae íntima nostalgia de algo muy enraizado en el pueblo; por ejemplo, además de los navíos de los puertos vascos, en su cromática he llegado a asociar con la decoración del interior del templo de Ezozia. Pero es más importante aún la liberación conceptual que nos produce en la imaginación la pintura de Zumeta, con sus masas bien equilibradas y los colores bien ordenados, donde han discurrido libremente los reflejos imaginativos del artista. Su pericia queda bien clara en las ilustraciones de los dos libros de poemas eúskaros de Harzabal. Pero, en realidad, las obras maestras son los grandes lienzos trabajados al óleo. Sus últimos ensayos, muy acertados por cierto, son los murales del frontón de Usúrbil y de la estación marítima de Pasajes. Montado con ladrillos cerámicos vidriados con los mismos colores y líneas que utiliza en los lienzos. Técnica muy acertada, que además de permitir relieve puede aguantar perfectamente las inclemencias. Y estamos seguros de que a su pintura le va muy bien. Por descontado que en los centros docentes iría muy bien, ya que serviría a la apertura mental de los niños a la imaginación. ¿Y no sería también una buena solución para tantos muros indecorosos de nuestras poblaciones? Sería la manera de contar con la presencia perenne de las artes plásticas ante los ciudadanos.

1975-IX-8.

LEINZKO ERROMANIKOAZ

Maiz salatu da Gipuzkoako erromaniko arterik eza. Egia esan, Gipuzkoako Erdi Aroan ezta izan ez monastegi eta ez kolejiata handirik, Nafarroako erresuman edo Asturias eta Leon-en bezala. Baina, kontu honetan, behar bada gauzak bere senetik ateratzea da arrazoi horregatik erromaniko artea ukatzea.

Otoi nekazaritza ekonomia gailen zen garaiko artea dela erromanikoa eta Gipuzkoako lurraldeak ezin zuela eman mesetak edo Nafarroak haina, erregeen korte ingurutik aski urruti zegoela eta gainera monastegi-

rik gabe. Egoera horregatik ezina da monumentu handi eta aberatsik aurkitzea, baina horrek eztu esan nahi erromanikorik ez zenik. Aurkitzekotan eliza tipietan aurkitu behar dugu eta hirietan baino maizago nekazari hauzo eta herrixketan. Batez ere elizaurrez biltzen ziren hauzoetan. Eta gaurko Gipuzkoan arrazoi honek eramango gaitu Leintz haranera, beste inñora baino lehen.

Leinzko lurraldean elizaurrez biltzen diren hauzo asko dira, hiri-bilduetara loturik ere beren erakundeak nortasunez gordetzen dituztenak; Elizaurre edo Anteiglesia bezala, oraindik orain ere, beren elizkizunak eta hauzo alkateak gordetzen dituztela. Artzaingoaren ondotik gure probintziako erakunderik zaharrena noski.

Egia esan, Leintz Karistio lurra zen eta Gipuzkoako Bardulia partetik berezia, baina hemengo adibide hauek berdin zerbitzen digute Barduliako Berastegi, Elduaien, Berrobi eskualdera jotzen badugu ere. Erromaniko artegintza indartsu zabaldu zen eta ez zuen ezagutu mugarik kristautasuna hedaturik zegoen Europako mendebaldean. Gainera, Euskal Herrian zehar igaro zen Santiago-bidea, artegintza hau zabaltzen hainbeste lagundu zuena.

Baina, jo dezagun Leintz aldera. Leintz haraneko artziprestago zaharrak San Emeterio eta San Zeledonio zituen bere lehen patroitzat. Diokleziano inperioaren garaian, IV. mendean, Kalahorran martire izan zirenak eta Kristautza Euskal Herrian sartzearekin zer ikusirik dutenak. Adibide honek historian zehar aintzina galtzen den aspaldikotasuna agertzen digu eta kontuan izatekoa da.

Leinzko hiririk nagusiena Mondragoe zen, 1260an hiri-bildu bihurturik zenbait Elizaurre bere inguru hartu zituena. Elizaurre horietan ditugu oraindik orain ere erromaniko artearen aztarnak, leiho eta ate ederrik gordetzen delarik. Esate baterako, Bedoñako Santa Eulalia elizak ekialdeko horman dituen leiho ederrak, puntu erdizko uztaiz eta kapitelak irudiz horniturik. Garagartzako San Migel elizan ate polit bat, geroztik erantsi zioten serora etxeak estaltzen duela, eta bataio ponteak. Udalako San Estebanen beste ate bat. Eta Uribarriko Andra Mari elizak ere ate eta ponte erromanikoak ditu. Ate hauek, ojiba formaren hasierakoak dira eta berandukoak nonbait, XIII. mendekoak noski. Baina hala ere ezin ukatu erromanikoak ez direnik. Hala ere, Bedoñako leihoa XII. mendekotzat jo genezake.

Aretxabaletan, Bedarretako San Migel eliza zenaren ate eta lehioa, gaur egun hilerria dena. Aintzinako parroikia hura erre zen eta han bertan gordetzen da atea eta atea baino lehenagokoa den leiho polit bat, zoko batekin, apaindura aberatsez hornitua, Estibalizko elizaren kidetasunezkoa. Arenazako atea, Isurietako leihoaren parte bat, Galartzako ponteak

Apotzagako hilerri aurrean eta Apotzaga bertako San Migel elizaren atea eta ponteak.

Esakoriatzan, Zarimuzen elizaren atzeko horman lehenagoko eliza zaharren zatiak erromaniko apaingarriekin. Gellanoko atea eta Bolibarko leiho ederra, kanpantorreko atetzat dagoena eta apaizaren etxeko baratzean gordetzen diren zenbait harri; eta hoi ez gainera, bertako bataio-ponte zaharra Donostiako San Telmo museoa dagoena.

Gatzagan, Dorletako Amaren eliza lehenagoko zaharrago baten materialak aprobeixturik eginga da eta hor-hemen aurkituko ditugu erromaniko edergarri hornitutako harriak, batez ere hegoaldeko horman.

Leinzko eliza hauen agiri idatziak ez dira hain zaharrak, Dorletakoa izan ezik. Dorletako elizaren agiri zaharrena 1138koa da, baina beste guztiak XIVtik XVI. mendekoak. Hala ere, arte agiriak hor daude lekuko, XII eta XIII. mendeetan ziren elizen adiarazgarri.

Gipuzkoan eliza osorik ez dugu. Baziren baina ez dute iraun Bizkaiko Bakioko San Pelaio eta Zumetxagako San Migel bezala. Bestalde, materialen urritasunagatik ezta gauza erraza nondik norako joerak edo kidetasunak zituen, hemengo erromanikoak; Gaya Nuño-k Bizkaikoarekin egin zituen bezalako konparaketak egiteko. Baina arkeologiaren agiriak hor daude.

Eta agiriok Leinzen bakarrik ez ditugu. Gipuzkoaren lurralde guzian sakabanaturik aurkituko ditugu, toki baten inguruan Leinzko ugaritasunik ez bada ere.

Erromanikoa ez ezik erromanikoaren aurreko aztarnarik ere badugu. Astigarriako elizak, Deba ibaiaren lasao aldera, atzeko horma zaharra, absidea, bere bi leihoekin, prerromanikoa du. Ekialdera begira baina kalostrearen barnekaldetik. Bere lehen agiriak 1086koak ditugu.

Alderik alde probintzia igaroaz mugitzen bagara, lehenagoko elizen ate erromanikoak aurkituko ditugu Azkoitiko hilerrian (aintzinako Baldatarren parrokiaren zena), Albizturko Santa Marina Argisiaingoa, Tolosako San Estebango atea orain Santa Mariako bataiategian ipinita dagoena, Abalzisketakoa, Berastegi, Elduaian eta Berrobikoak, eta Hernani ta San Pedro Pasaiaikoak.

Bataio ponteak ugariago dira, eliza zaharretatik onduen gorde direnak ponteak bai dira, eta hauetarik ederrena soilik aipatuko dugu, Ormaiztegiko San Andres parrokiakoa.

Igeldoko elizak, ponteaz gainera bi leiho gordetzen ditu eta Zumaiako Santiago ermitak leiho bat. Irudi askorik ezta, baina bai aipamen berezia merezi dutenik, eta hoi arteko garrantzitsuenak:

Junkal (Irun), Ugarte (Amezqueta) eta Itziargo Andra Mariak, eta hauekin batean Eibarko San Pedro.

Argi ta garbi nabari da Leinzko ateak eta Berastegi, Elduaian, Berrobikoak ez direla eskola berekoak, ezta ere Tolosa, Abalzisketa-koak, hiru joeratakoak direla nabari da, baina estudio sakon bat egiteko hobeto begiratu beharko litzake eta Nafarroa eta Arabakoekin konparaketak egin. Gauza bera gertatuko zaigu beste zenbaiten artean Azkoiti eta Zegamako kapitelekin, bi era desberdinetakoak direnez.

Dena dela, azken urte hauetan M. Lekuona, L. Peña Basurto, F. Arozena, L. Murugarren eta beste zenbaitek, neu ere tartean naizela, argibide eta aurkibide berririk eman dugu Gipuzkoako erromanikoari buruz.

Gainera, ondo kontuan izatekoa dugu Santiagorako bide zaharra, Nafarroako Santxo Handiaren garaian mesetako bidea ireki baino lehen Kantabriako itsas-hegaletatik zijoala.

En el alto medioevo, Guipúzcoa, lejos de la corte real y de los grandes monasterios, no tuvo posibilidad de poseer considerables monumentos artísticos de la época del románico. Que de hallar algunas muestras más fácilmente las hallaremos en las anteiglesias rurales que no en las villas, debido al condicionante factor de la economía agrícola, predominante en aquella época. Por esta razón localizaremos las muestras del arte románico en diversos pueblecitos, casi insignificantes hoy y, sobre todo, en los barrios que constituían las antiguas anteiglesias, como en el caso del Valle de Léniz.

En Guipúzcoa no existe ningún monumento importante como en Navarra, Alava o Soule. Además, a diferencia de Vizcaya, ni se ha conservado ninguna iglesia enteramente románica y sí, puertas, ventanas, pilas bautismales y hasta imágenes que evidencian la presencia del románico. Como restos de los templos que sin duda los hubo, son las preciosas tallas escultóricas de las Vírgenes de Junkal (Irún), Ugarte (Amézqueta) e Iciar, sin olvidar el San Pedro, de Eibar. Puertas de diferentes escuelas y épocas, desde las de Berástegui, Elduayen y Berrobi a las de Tolosa y Abalcisqueta; o desde las de Léniz a las de Ichaso y Gavrira se observan distintas corrientes. Sin embargo, hallaremos similitud en las puertas de Azcoitia (antigua parroquia de los Balda, hoy cementerio) y Ugarte. Las pilas bautismales son abundantes y entre las mismas destaca la de Ormaiztegui, por su original ornamentación. En Astigarribia, cerca

de la desembocadura del río Deva, su ábside prerrománico, con noticias escritas de 1086.

Pero volviendo al Valle de Léniz hemos de destacar las copiosas muestras que se conservan en sus anteiglesias: en Bedoña, Garagarza, Udala y Uribarri, de Mondragón; Arenaza, Isurieta, Galarza y Apozaga, de Arechavaleta, más la portada del cementerio de este pueblo; Zarimuz, Guellano y Bolívar, en Escoriaza; y en el Santuario de Dorleta, en Salinas. Son una variada muestra arqueológica que testimonia la abundancia de templos rurales medievales en la provincia.

Ante este hecho debemos recordar que la primitiva ruta jacobea, antes de que se abriera el camino general de la meseta en época de Sancho III el Mayor de Navarra, iba por la costa.

1976-X-18.

EUSKAL HERRIKO ARTISTEN ERAGINA

Maizegi esan da gure herriak, historian zehar, ez duela erakutsi edergintzarako dohainik, eta uste hori oraindik oso zabaldua aurkitzen da. Artista gehiegirik ez dugu izan, baina ez uste den bezain guti ere. Eta haizpeetako pinturak alde batera utzirik, historia idatziaren garaietakoa ere aurkitu geneza. Aurkitu ez ezik, eskolak eta era berrien sortzaile edo sartzailerik ere badugu.

Era berrien sortzaile esatean, ez naiz ari gaur egungo eskultura eskolako maisu ezagunetaz, Oteitza, Txillida, Mendiburu, Basterretxea eta abar. Hoen artegintzako sortzailetasuna inork ez du dudan jartzen.

Eskola sortzaile edo era berrien sartzzaile esatean ere, ez naiz ari Paris-ko impresionismoa, fauvismoa edo postin impresionismoa handik ekarri eta hemen hedatu zuten Regoyos, Guiart, Iturrino, Etxebarria, Arteta eta beren inguruko haietat. Ez. Aurretikorik ere bada.

Cean-Bermúdez eta Viñaza-ko kondearen lanetan aurkituko ditugu Espainiako lehen artisten artean Euskal Herriko semeak.

Oraintsu Valladolid-era egin dudan osterata batean burutapen eta gogoetarik aski izan dut gai honi buruzkorik. Eta geroago eta harrituago gelditzen naiz gure lehenari buruz zer dakigun konturatzean. Ohi dudan bezala, joaten naizen lekura joaten naizela, tokiko arterik edo artistarik berezienen lanak hobeto ezagutzera ahalegintzen naiz, bertan egotearen aukera aprobetxatuz. Eta Valladolid-en bada aukerarik bertako edo bertan lana egin duten maisu handiak ondo ezagutzeko, A. Berruguete, J.

Juní eta G. Fernández behinik-behin. Guk ezagutzen dugun Joanes Antxieta ren lanen antzerakorik ere bada, izenik gabekoetan, hango eskultura museoan. Eta, besteak beste, han konturatzen da bat gure Antxieta zein urruti zegoen Berruguete-gandik eta zelako bereizkuntzak situen Jean de Juní-gandik. Askok hauekin hertsu jarri badute ere.

Gauzak aurkitzeko gida-liburu ederrik ere ezta falta izaten eta hauetako bat dugu J. J. Martín González-en liburua Valladolid-ko arteari buruz 1972an argitaratua. Liburu honek 124. orrialdean adiarazten duenez, Santiago eliza Juan de Arandia elgoibartarraren zuzendaritzapean egina da, 1490 urte inguruan eraikia, eta García de Olabe izan zuen laguntzaile. Eta, Elgoibarko arkitekto honek bere gain eramanean zuen San Benito El Real elizaren plangintza eta zuzendaritza ere. Ikus, liburu honen 96garren orrialdean. Eliza hau 1499an hasi zuen. Pizkunde garaia sartua bazen ere, arkitekto honek oraindik gotiko bukaerako erak erabiltzen zituen. Santiagoko eliza zoladura batekoa da eta San Benitokoak hiru zola ditu. Bigarren honen sabaia gotiko klasiko eraz daude, bi aldeetakoak beheko direla, eta ez hemen maiz aurkitzen direnak bezala, hiru sabaia altura berdinez (euskal-gotiko esan ohi dena). Izarrez gurutzaturiko estilo apalez diseñatua.

Garai berean, Albacete-ko Yeste-ko elizagintzan ari zen Ortuño de Bollar bizkaitarra, Ereñoko semea. Eta, baita ere, Juan de Olotzaga gure herritarra, garai berean, Huesca-ko katedrala bukatzen ari zen. Beste arkitekto eta artista batzuk ere garai berean aurkitzen dira Aragoi partean, Lonbierre eta Peña nafarrak, Pedro Ligoreta (gipuzkoarra noski) eta Idroaga tafallakoa. Eta beste artista asko, Karmelo Etxegaraik *La tradición artística del pueblo basco* hitzaldietan agertu zituenak (1919an liburu bezala argitaratua), Espainia guzian artegintzan ari zirenak.

XVI. mendearen hasieran Vich-en bizi zen Juan Gaskó edo Juan Nabarro bezala ezagutzen zen pintore tafallarra, hiri hartan hainbeste lan bikain egin zuena. Garai berean ari zen Barcelona-n K. Etxegaraik aipatzen ez zuen Martín Díez de Liatzaso eskultorea (1). Eta, hamaseigarrenaren lehen parte horretan aurkitzen den Vasco de la Zarza bera ere ez ote zen hemengoa, jatorriz behinik-behin? Orduko idazteko erak kontuan izanik, Lazartza edo zela esango genuke.

Norbaitek uste izango du gehiegi etxeratzten ari garela, baina garai hartako eta lehenagoko hemengo lanak kontuan hartzen baldin baditugu, Euskal Herriko semeak ere edergintzan antzuak ez zirela laster

(1) Diego Angulo Iniguez, *Historia del Arte*, tomo segundo, Madrid, 1962, p. 80.

ikusiko dugu. Hor ditugu lekuko, J. E. Uranga eta F. Iñíguez Almenech-en *Arte medieval navarro* (1971-1973); Gasteizko apezpikutegiaren *Catálogo Monumental* (1967tik hiru tomo handi argitaratuak direna); M. A. Arrazolaren *El renacimiento en Guipúzcoa* (1967-1969); Biurrun eta Castro-ren lanak, eta abar.

Hori, bertako obra handieri dagokien aldetik. Baina, gure artistak Espainia guzian hain sakabanaturik lanean ari ziren garai hartan, Gasteizen Ayalatarren pizkunde garaiko eskola indartsua izan zen. Nafarroan artegintzako lantegi asko ziren, eta Antxieta azpeitiarra, Leon eta Gaztelaniako lurretan bere lanak utzi ondorean bizpahiru urtez Gipuzkoan jardun zen gero Iruñean lantegi handi bat jarri zuena. Antxietak ikasle asko izan zituen eta era berritzeak ekarri zituela, ezin uka. Juni bezala, Migel Anjelen estiloen jarraitzaile zen, baina Camón Aznar-ek egin zion estudioan argi eta garbi jartzen du Trento-ko kontsilioak eman zuen liturgia berriaren norma Espainian lehen aldiz Antxietak erabiltzen duela. Bada zerbait hori ere, horrez gainera eskulturen egiturak eurak ere kontuan edukitzen baditugu.

Bilbon, garai hartan, pintura eskola bat ari zen eta bertatik irten zen Franzisko Mendieta, Gernikako arbolaren aurrean erregeak zin egiten pintatu zuena.

Zerbait geroagokoa dugu Baltasar Etxabe zumaiarra, Mexico-n pinturaren eskola sortu zuena. Bere emazte zumaiarra ere pintatzailea omen zen. Berak non egin zituen ikasketak, ez dugu agiri zihurrik. Bere eskolaren jarraitzaile, Mexico-n bertan, bere semea eta biloba izan ziren. Artista hauen garrantzia argi dago *Cuarenta siglos de plástica mexicana* (1970) askoren artean burututako lan ederrean.

Zurbaran, Berruguete eta Goya, beren deituren aldetik hemengo jatorrikoak badira ere, apenaz zuten hemengo girotikako ezer. Iriarte berak ere, Murillo-ren inguruko eskolan paisaje bereziak eginarren ez dugu uste ezer ikustekorik duenik; baina hainbeste artista sakabanatugatik ez genduke gauza bera esango. Europako estiloen korrentean joan baziren ere, sortze, berritze eta eskolagintzan beren eragina erakutsi zuten. Eraginaren agiriak, etxean bertan eta herbesteetan sakabanaturik aurkitu ditugu.

Gaur egun bibliografia handiegia dugu Euskal Herriko artegintzari buruz aspaldiko topiko zahar haiek desegintzeko, eta agiririk aski gure arbasoek edergintzarako zuten grinari buruz.

Se ha exagerado mucho sobre la ausencia de artistas en el país, aparte de las reconocidas escuelas postimpresionistas importadas de París y el brote contemporáneo de escultores y pintores.

En mi reciente viaje a Valladolid, capital donde hay dos hermosos templos construidos bajo diseño y dirección del arquitecto algoibarrés Juan de Arandía, de finales del siglo XV, y un incomparable museo nacional de escultura (en lo que respecta al renacimiento y barroco), donde he tenido ocasión de observar las afinidades escultóricas entre Juní y Anchieta, pero no con Berruguete, como algunos apuntan erróneamente. Todo ello me dio motivo para meditar en torno a los muchísimos artistas vascos que desde finales del siglo XV hasta entrar el XVII trabajaron dentro y fuera del país. En León, Castilla, Aragón, Cataluña, etc. Destacándose mucho más los arquitectos y escultores sobre los pintores. No obstante, hubo excepciones como en aquel pintor que adquirió renombre en la ciudad de Vich, el tafallés Juan Gascó o Juan Navarro. Muchos son citados por Carmelo de Echegaray en su obra *La tradición artística del pueblo vasco*, a los que habría que añadir muchos más que se han ido descubriendo en los últimos años.

Durante el Renacimiento funcionaron importantes escuelas y talleres de arte en nuestra tierra, como se desprende de las investigaciones llevadas a cabo por J. Ramón de Castro, J. E. Uranga, María A. Arrázola, el equipo del Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria, etc., que nos atestiguan un movimiento pujante en todo el país.

Dentro de las corrientes de los estilos europeos, hubo artistas con inquietudes creacionistas o reformistas. Pongo por ejemplo, como el caso de Anchieta, que introdujo en España temas de los cánones establecidos en el Concilio de Trento para el arte religioso, como afirma Camón Aznar en la biografía al escultor azpeitiano. Y pintores como los zumayanos Baltasar de Echave y señora, que crearon la escuela de pintura europea en México.

Menos conocido, a falta de documentación, pero no menos importante es el arte medieval de Navarra y de Alava, regiones de grandes monumentos de autores desconocidos.

La bibliografía dispersa es suficientemente amplia para acabar con el viejo tópico de nuestra carencia de aptitudes artísticas.

1976-III-15.

ANGIOZARKO SAN MIGEL

(Pizkunde garaiko Artea Angiozarren)

Gipuzkoako zenbait herri ttikik itxuraz tokatzen zaien baina eliza handiagoak dituzte, eta eliza handi eta eder hoietako bat dugu Angiozarko parrokia ere, San Migel Arkangeluaren santu izenekoa. Eliza hau Pizkunde garaiaeren lehen partekoa dugu. Hain berezirik aurkitzen den hauzo hau Elgetarena izan zen 1928ra arte, baina urte honetatik Bergararena da. Hain aparte dagoenez, ez da hain ezaguna gipuzkoarrentzat, eta honegatik edo María Asunción Arrazolari ere ihes egin zion *El renacimiento en Guipúzcoa* delako obra interesgarri hartan katalogatzetik.


Elizaren arkitektura, ataria eta aldara nagusian dagoen San Migelen irudiak, plateresko deritzen zaion estilokoak dira, Pizkundeaeren lehen partekoak, eta behar bada P. Picart edo bere inguruan Oinatiko Unibertsitatean lana egin zutenek badute zer ikusirik, elkarren antzera-koak direnez gero. Gainera, agiri zaharrak adiarazten digutenez, 1562an Oinatiko Gebaratarrak ziren parrokia honen patroitzakoak.

Eliza hau solairu bakarrekoa da eta sabai-uzten egituratik agertzen denez, plateresko era du. Bere dibujoa *Elgueta* monografiaren 104garren orrialdean argitaratu nuen (1).

Elizaren erretaula nagusia Neoklasikoa da, baina bertako irudi nagusia, San Migel Arkangelua, pizkunde garai honetakoa. Bere estiloz Borgoina edo Flamendar eskolaren joera du.

Plateresko arte aldetik, arkitekturaz duen sabai egituratik aparte, ataria du ederrena. Hareharri landuz egina da, eta irudien gaiak Bibliatikakoak ditu, Testamendu zahar eta berriko sinboluz. Atearen uztaiari hiru profetaren buruak, mairuen erazko turbantez eta pergami-nozko roiloak inguratutik. Beren gaintetik, goiko kantoiak aprobetxatuz, pasioko sinboluak agertzen dira. Baina ateko irudirik garrantzi-tsuena bi aldeetako zokoetan daudenak dira, ebangelisten irudiak. Goikaldeko gorputzean, San Juan eskubian eta San Lukas ezkerrean. Esan bezala, ateaeren bi alderdietan. Baina beren azpian bi zokoak hutsik daude, San Markos eta San Mateo falta direla. Irudi hoiek zeuden oinpeko apalak zulaturik daude, bertan urbenedikatuarentzat tokia eginaz. Zer pena. Bi sainduak osatu izan balute, atari hau, Oinatiko Unibertsitatekoarekin batean Gipuzkoan dugun ate platereskorik monu-

(1) J. San Martín, *Elgueta, con Angiozar y Ubera*. San Sebastián, 1975.



Angiozarko San Migel elizaren sabai estruktura. (Gipuzkoa).

mentalena izango zen. Baina, hala ere, estilo honen urritasunagatik, hoberenetakoa da. Zer esanik ere ez Eibarko San Andres elizarena baino ederragoa dela, hutsune hori gora-behera.

Atariaren gainekaldea bera ere oso ederra da. Bi alderdien gaina bi medaila handikin bukatzen da, beren barnean San Paulo eta San Pedro-ren buruak agertuaz. Beren erdian eta zoko handi batean sarturik San Migel Arkangelua azpian bi aingeru dituelarik.

Atari hau patxara handizkoa da, bi alderdietako gorputzak balaustradadun bina kolumnaren tartean direla.

Bere lantze era orokorrak, agertu dudan bezala, Oinatiko Unibertitatearen fatxada landu zutenen esku bera nabari dute. Baina, segurantziz jakiteko, behar bada Oinati bertako Protokolo artxibotik atera beharko dira honen aztarnak.

Baina Angiozarren bada besterik ere Pizkunde garaiko artearen adiarazgarri. Elizako sagrarioa bera ere errenazimendukoa da, baina behar bada XVI. mendearen azken partekoa, romanista erakoa. Hau da, elizaren arkitektura era (ataria eta San Migelen irudi nagusia barne) baino geroxeagokoa. Sagrarioaren aurrea Jaunaren Asentzioz eta bi alderdietan San Pedro eta San Pauloren irudiak altoerreliebean atereak.

Gainekaldetik bi aingeru ederren eskulturak. Irudi guziak polikromiaz daude, panelen atzekalde gerotzik pintatua izan bada ere.

Erretaula neoklasikoaren alderdi bietan barroko estilozko oihal pintatuak daude, goikaldeko biak gerezitiko irudien atzekaldetik.

Angiozarko lurraldeak baditu bere barne hauzo bereziak, etxalde ederrez hornituak. Azken urte hoietan beheraka datoz, familiak hirietara joanala. Baina oraindik nortasun handia erakusten dute hauzo hauek, batez ere Marindano, Partegoitia eta Zabaleta-mendik.

Marindanon dago Elizamendi. Bertako Andra Mariaren irudia, XVI. mendearen hasierakoa bada ere, gotikoaren azken parteko estilozkoa da, flamendar eskolako. Baina badira pare bat irudi, San Roke eta San Juan Bataiatzailea, herri arte eskolakoak.

Partegoitiako San Bizente elizan Andra Mari katalogatu gabe bat dago, XVI. mendearen azken partekoa, polikromatua. Baita ere, hauzo hontan dago Arregi-torrea, Gipuzkoako probintzian interesdun monumentoetan sartzea merezi duena.

Zabaleta mendiko ermita, San Bartolome da. Gotiko bukaerako leiho polit bat du, bere uzta konopial hoietakoaz. Eta handik ez hain urruti, Lamarain baserria, gotiko arkitekturaz egina.

Arte balio horiek erakusten digute Angiozarren aspaldiko ekonomia aberastasuna, zeren baliorik handienak XV eta XVI. mendeetan aurkitzeaz aski argi bait dago nekazaritzaren arorik onena ezagutu zuela, gure probintzia honi dagokion mailan.

Como di a conocer en la monografía “Elgueta, con Anguiozar y Ubera”, publicada el pasado año, la parroquia de San Miguel Arcángel de Anguiozar es un templo renacentista sin catalogar como tal estilo artístico. En él destacan su hermosa nave con la estructura de su bóveda enteramente de estilo plateresco, la imagen del santo titular, en el retablo mayor que es de estilo neoclásico, y sobre todo la portada.

Esta portada de piedra sillar, con dos cuerpos entre columnas balaustradas por ambos lados, coronados por dos medallones y con una hornacina con la imagen de San Miguel Arcángel, es la puerta plateresca más bonita de Guipúzcoa después de la de la Universidad de Oñate. Contiene representaciones bíblicas, con símbolos del Viejo y Nuevo Testamento. En el arco, tres cabezas de profetas tocados con turbantes, y en torno a cada una de ellas campean rollos de pergamino. Sobre dichos profetas, aprovechando los ángulos superiores, motivos simbólicos de la Pasión. A izquierda y derecha, entre dos columnas y formando dos

cuerpos, hay cuatro hornacinas; las hornacinas de los cuerpos superiores están ocupadas por los evangelistas San Juan y San Lucas, pero las hornacinas inferiores están vacías, faltando en las mismas las imágenes de San Marcos y San Mateo, y las peanas se han ahuecado posteriormente para provechar de aguabenditeras. En los medallones aludidos, de la parte superior, como remate, figuran las cabezas de San Pedro y San Pablo en altorrelieve. La primera noticia escrita del templo se remonta al año 1562.

En el mismo Anguiozar existen otras muestras renacentistas de considerable valor artístico. El sagrario romanista de la misma parroquia, las imágenes que se conservan en el Santuario de Nuestra Señora de Elizamendi en el barrio de Marindano, más la imagen de Andra Mari de la ermita San Vicente Mártir del barrio de Partegoitia. También es digna de mencionar la casa torre Arregia o Arregi-torrea, que no figura entre las casas-torre en el catálogo de monumentos de interés provincial.

1976-IX-27.

GIPUZKOAKO ARTE BALIOAK NORA EZEAN

Gipuzkoa, egia esan, ez da monumento handiak dituena, baina bai arte ugaritasuna duena eta arte herrikoi berezia duena.

Aberastasunik gehien eleizetan dugu, zer esanik ere ez. Gaur, eleizak berritzeari emanak dira herri askotan, eta, berritzeakin, gehienetan kontu gutxi izaten dute lehendik ziren baliozko gauzak aprobetxatzeaz. Aldareak ez-ezik, erretaulak, imajinak eta pinturak baztertzen dira, lehenago edo geroago aldenduaz betiko galduko direnak.

Kontu honetan, uste dut, ordua dala diozesis bakoitzak bere museoa egiteko. Duguna galzorian jarri baino lehen, zer nora eroan ahal izateko tokia. Nafarroak, bere probintziarena ederki bildu du, Santanderrek oraintsu Santilla de Mar-en bildu duen bezala, eta Bizkaian, Apellanizen zuzendaritzapean, hasi berri dira. Gipuzkoan noiz?

Eleiza konponketak berez dakar bertako artearen gauza asko zokoratzea eta galzorian uztea, baztertuko direnei aurrez destino egoki bat ematen ez bazaie. Behar beharrezkoa dugu gauzak nora bildu edukitzea.

J. San Martín, *Elgueia, con Anguiozar y Ubera*. San Sebastián, 1975.

Zoritxarrez, gainera, Bizkaiak, Javier de Ybarra-ren *Catálogo de Monumentos de Vizcaya* bat du. Gipuzkoan, nik dakidanez, oraindik inbentario txiki bat ere ez da, ez gordetzeko, ez ikusteko eta ez estudiatzeko.

Gure historiak hitz asko egin da, baita mendeetako ekonomiari buruz ere, baina inor ez da konturatu XV eta XVIgarren mendeetako aberastasuna arteak garbi asko adierazten digula. XIVgarrenaren azken aldetik goraka joan zen, XVgarrenean agertzen zaizkigu arkitektura aldetik lehen monumentu handiak, eta XVIgarreneko aberastasuna ugari nabari da. Esan Beharra dut, Errenazimenduko parte hau María Asunción Arrazolaren *El Renacimiento en Guipúzcoa* hiru liburuetan jasoa dugula.

Orduko aberastasuna, Amerikak deskubritu ondorean emengo olazaharrentzat zabaldu zen merkataritzaren emaitzetatikakoa izan zen. Han ez zen burdinarik ezagutzen eta are gutxiago burdinazko tresnarik. Gaztelako erregeak urrea bilatu zuen eta hemengo ola-gizonak merkataria.

Baina zer gutxi estudiatu den hau. Gure Historiagileak mende horietako ekonomiaren gorakada ikusten zuten, baina horren iturri garbia ez hain garbi. XVIIgarren mendean, Europako beste zenbait tokitatik konpetentzia gogorrek sortu zirenean, hemengo ekonomia beherako hasten da.

Gaur, arrazoi askogatik, arte balio hauk zaindu bearra dugu. Kulturari eta historiari zor dizkiogu. Baina zaintze hau, ez da imajina zahartuak, pipiak joak, berritzea, ez. Pipia hil eta zurak sendatzea aski da, zaharturik dauden bezala uzteko, zeren konponketa askoren ondotik batek ez daki egiazko iduria zer den ere.

Galzorian daudenak bildu, esan dugu. Eta, honetarako, beste probintzia askotan egin den bezala, museo bat idekitzea da hoberena. Baina ez hiru-buruan, edo, behinik-behin, ez hiri-buruan bakarrik. Materialak hain ugari ditugunez, ene iduriz, herrialderik herrialde museoak egin ezinik ez dugu. Adibidez, inguru bakoitzeko herrietatik horniturik. Hainbeste torre-zahar usteltzen ditugunak horretarako serbitsu ederrik emango liguteke. Elkarren artean turismo bideak antolatu. Bestalde, arte-kultura gure herrian bizkortzeko, norpere herriko arte balioak hobeto ezagutzeko, estudio gaiak gertatzeko, kanpotiarrei turismo bideak zabaltzeko, eta abar. Baina, batez ere, arte zaharra galzoritik ateratzeko eta gure baileretako ikasleak arte-estiloak testoetatik gaizki ikasi beharrean beren begiez hobeto eta azkarrago ikasi ahal izateko.

Gipuzkoatik irten gabe, erromaniku ate, lehiu, imajina; gotiku eta

errenazimentuko arkitekturak eta erretaulak; taula flamenkoak, Greco, Zurbaran, Goya, Divino Morales, Iriarte ... pinturak; Picart, Antxieta, Araoz, Bengoetxea, Larrea, Gregorio Fernández, Mesa, Imberto ... eskulturak ikusi genezazke.

Bestalde, horniduraz, galduaz badoaz ere, etnografia aldetik, tresna eta gainerako herri-artearen materialak ere asko ditugu.

Zumalakarregi eta Legazpiren (Ormaiztegin eta Zumarragan) etxeak ongi daude, baina beste asko gertatu ahal genezazke, hobeto hornituak eta zabalkunde gehiagorekin. Guziak lehenaren gordegarri eta gerokoen jakingarri.

Ante el riesgo de perder irremediamente muchas obras de arte, se aconseja el ejemplo a seguir de los museos de Navarra y Santander (Pamplona y Santillana del Mar) recientemente. Por una cueta módica para su manutención, nos proporcionarían, en la práctica, interés turístico, ayudar a los habitantes de la provincia a una elevación de la cultura artística a través de los valores de su propio suelo; al mismo tiempo se conservará un patrimonio de la provincia, que les pertenece a generaciones venideras tanto como a nosotros.

De muchas iglesias restauradas, imágenes, pinturas, sagrarios y retablos, van a parar a los trasteros y de aquí a la desaparición. Es necesario, por no decir muy preciso y urgente, dar a estos materiales de arte un destino seguro, y para esto nada mejor que valerse de las casastorres (algunas abandonadas y con necesidad de restaurar) distribuidas por las cuencas o valles y centrar materiales para completar e incrementar museos en las mismas.

La conservación facilitaría estudios, incluso del aspecto económico del país, que aún están por hacer con ayuda de las riquezas artísticas de cada época. Por ejemplo, dan base, para pensar y precisar hasta cierta medida sobre la comercialización de los productos manufacturados del hierro a raíz del descubrimiento de América, a finales del siglo XV y a lo largo de todo el XVI que produce los grandes monumentos y los artísticos retablos en toda la geografía guipuzcoana.

Estos museos, además de las piezas de arte clásico, se podían dotar con materiales de arte popular y de otros valores del campo de la etnografía en general, que de día en día son más escasos.

1972-VIII-28.

“50 AÑOS DE PINTURA VASCA”

(1885-1935)

Erakusketa zoragarri hau ongi goratu zuen J. Intxaustik otsailaren bateko “Hoja del Lunes”-eko euskarazko orrian, baina hala ere neronek egin dudan bizitatik atera ditudan gogoetak laburki emango ditut.

Erakusketa ikusgarria benetan “*50 Años de Pintura Vasca*” dalakoa, Donostiako San Telmon jarri digutena. Urte askotan hainbeste eztabaida sortu zuen “euskal eskola”ren ageri ederra benetan. Baina eskola berezi baten ageri zehatza ote?

San Telmon bildu dituzte mende honen lehen parteko euskal pintoreen lanak, erakusketaren izenburuak dion bezala. Hala ere, ene ustez, garai berekoak izateak ez du esan nahi eskola berekoak zirenik. Honetarako barne-gogozko kezka berdintsua behar da, eta honetatik sortzen den elkarrekiko ekintzak kideko oinharri batzutatik jakineko helburuetarantz eramanez lan egiteak egiten du eskola berezi bat.

Eskola hori bazen, dudarik gabe, gai eta estetika jakin batzuen kezka araberaz. Bere azertzaile eta kritikoak ere bazituen, Juan de la Encina nagusi zelarik. Eskola horrek inguratzen zuen ardatzean maixurik berezienak, lehen aldiko Regoyos eta Guiard alde batera utzirik, Arteta, Etxebarria, R. Arrue, Iturrino, Tellaetxe, eta besteren batek girotzen zuen inguru berezia.

Hoiekin batean, zerbait gazteago ziren J. Olasagasti eta J. Aranoa, San Telmon hutsune nabarmena agertzen dutenak (hala ere, salgai jarri duten katalogoan arkitzen dira behinipehin, hain ongi errepresentatuak ez badaude ere). Vázquez Díaz bera ere ez zen gaizki etorriko erakusketa horretara, zeren hura ere giro honek kutsatu zuenez, gerago bere gisarako geometriazko joeraz pintura planuzko eraz erabiltzeaz hartu zuen berezitasuna eta ospea, noski.

Mendearen lehen partetik Bilbon girotu zen eskolak bere frutu onurakorrak eman zituen. Postinpresionismoan oinharriturik ere, ondorerako giro berezi bat sortu zuen Euskal Herrian. Gaur, oraindik ere, gure plastikaren estetikan itsatsia duguna.

Eta euskal arte honetaz jardutzean ez dut aipatu nahi euskal gaiak soilik pintatzen zituztenak bakarrik, ez; baizik estiluzko joeretan kidesan zaindu zituztenak bereziki, era hortako pinturagintzan saiatu zirenak. Hain zuzen, eskola honek, Arteta buru zelarik, etnografia gaiak atzean utzi zituen sozial gaietan gehiago sartzeko. Zeren, San Telmoko erakusketa ikusita, argi dago bi zatitan banantzen zirela: inpresionismoaren ondorenez jabeturik pintatu zutenak, eta hortik

aparteko era modernista edo klasiku zaharren bideak jarraitzen zituztenak. Azken hauen arteko, Maeztu, A. Arrue, Zuloaga, Salaberria eta abar. Hauk nonbait ez zuten inoiz konprenitu mugimendu berriaren sorketazko grina.

Eskola berriak argi berria eta teknika berezia nabari ditu; maixu nagusiak, Etxebarria bere kolorez eta lehen psikologiku erretratu gintzan, eta Arteta bere gai indartsuen bidez konposizioz eta lerroz ondo horniturik, eta batez ere argien alde-contrak, alternantziak, Puvís de Chabannes eta Cézanne-ren oroitzak dakartzki. Joera hauek hain bizi erabiltzeaz du Artetak bere nortasun handia. Dohain hauegatik, A. Valverde zenak oso ongi zion: "Arteta dugu gure eskolaren habe sendoena".

Artetak eta Etxebarriak, Regoyos-engandik eta Paris-tik har zituzten beren erroak gure herrian ondo sustraitu zituzten.

Artea maite duenak, eta euskal eskola zer zen jakin nahi duenak, badiu zer ikusi, zer pentsa eta zer dastatu erakusketa bikain honetan.

En el Museo donostiarra de San Telmo se nos ha brindado la oportunidad de poder contemplar la hermosa exposición de "50 Años de Pintura Vasca". En la misma se presenta una muestra general en donde entra también la tan discutida "escuela vasca de pintura".

Dicha escuela representa una manifestación de toma de conciencia para la realización en común dentro de unas directrices basadas en el post-impresionismo importado de París. Conscientes de ello laboraron hacia rutas inéditas del creacionismo. En esta escuela no deberían integrar todos los que han pintado en una misma época, sino los que tomaron ese concienciamiento creacionista, estética y temática, a partir desde un punto determinado. El eje principal, el más representativo, arranca desde Regoyos y Guiard y es consolidado por Arteta, Echevarría, R. Arrue, Iturrino, Tellache y otros. Se observa la ausencia de J. Olasagasti y J. Aranoa que, aunque figuren en el catálogo, no están bien representados y deberían figurar entre los que formaban el núcleo de la citada escuela.

Y la escuela no se caracteriza por pintar temas del país, sino por una manera de pintar. Esta escuela fue, precisamente, encabezada por Arteta, quien dejó atrás los temas etnográficos para introducirse en temas sociales.

Por esto, en la exposición deberemos distinguir las dos tendencias que se distancian entre sí: los que parten del impresionismo hacia nuevas creaciones y los que hicieron o no sus pinitos en el impresionismo pero que quedaron estancados en el modernismo y los que nunca salieron de la pintura clásica. Entre éstos tenemos a A. Arrue, Maeztu, Zubiaurre, Zuloaga, Salaverría, etc.

A la nueva escuela le distingue su afán de renovación con las nuevas luces y nuevas técnicas, que se interpretan claramente en los principales maestros: luces y efectos cromáticos de Regoyos; los extraordinarios valores cromáticos y estudios psicológicos en los retratos de Echeverría; y la composición lineal, con la utilización de la pintura en bloque y las alternancias de luces en Arteta, que en cierto modo recuerdan a Puvís de Chabannes y a Cézanne. Bien acertó A. Valverde al decir que Arteta era el pilar más robusto de la llamada escuela vasca de pintura.

Los aficionados a las Artes recibirán nociones de lo que consistía la escuela vasca que floreció en la primera mitad de nuestro siglo. En esta interesante exposición hay mucho para ver y pensar.

1972-II-7.

EGUNGO ARTISTEN AGIRIA

Maiz salatu dugu egungo artisteri falta zaien begiramena eta laguntza. Aurretiko artikuluan ere San Telmoko museoak hontaz duen hutsunea aipatu genuen. Herri guzietako aristokraziak, kapitalistak, konstruktoreak, dirudunak eta instituzioak ahalegindu dira beren artisteri laguntzen, beren edergintza beren etxeetan ez ezik hirietan herriari begira jarriaz. Garaian garaiko artistak ekintza berria eskaintzen du, sorketa berri baten bidez giro berria bultzarazten duena. Baina gaur, ez gure aristokraziak eta ez gure instituzioak, ez dute holako egarririk eta gure herriari bere kulturaren desarrolloan ez zaio laguntzen behar duen bezala.

Hala ere, zorionez, den denak ez daude ahaztuta. Lankide Aurrezkiak Mondragoeko Olandion egin dituen ofizina berrietan gogoan izan dute egungo artisten lana. Lankide Aurrezkiak Olandion etxe moderno hau egin zuanean, bertako zuzendaritzako batzuk konturatu ziren etxe hutsak beste gabe zelako hoztasuna zuen eta nonbait A. Kallejari bururatu zitzaion herrian sorketazko edergintzan ari zirenen lanen agerpenekin horniturik bete zezakeela etxeak barnetik behar zuen

gogozko zerbait hori eta artistarik berezianak deitu zituzten. Orain, beren obrak, hor daude. Nik dakidanik, egungo artisten agerpen bakarra izanen da publikoari begira. Agerpen bakarra, taldean esan nahi dut. Eta hain zuzen ere, taldean agertze horrek ematen dio bere indar berezia. Elkar girotzen bai dute.

Mundu guzian entzute handia hartu duten artistok behar zuten olako erakustoki bateratu bat, toki berean bildurik. Honako hauen lanak osatzen dute erakusketa: J. Oteitza, N. Basterretxea, A. Ibarrola, R. Mendiburu, J. A. Sistiaga, R. Ruiz Balerdi, V. Larrea, J. R. Carrera, K. Ortiz de Elgea eta J. L. Zumetak. 1966an Gaur zeritzan talde bereziak egin zuen agiriaren deiari jaramon egin zion lehen belaunaldi hartakoak dira. Eduardo Txillidaren hutsune nabarmena ageri da eta Lankide Aurrezkoa ahalegindu behar litzake hutsune hau betetzen. Holakorik egingo balu, erakusketa hau munduan bakarra eta hoberena litzake, gure herkide eta gizaldiko artistenik.

Atari aurrekaldean Jurgi Oteitzaren eskultura handi bat, karaitzezko hiru gorputz batean, Malevich modulo irekiz egina; Harri ernai zaintzailea da. Hogeigarren mendeko menhir baten gisa zero aldera zutitzen delarik, zaintzailearen sinboluz egina. Malevich moduluen inguruan egin zituen saiaretako bat da, eskala handira eramana. Etxaurrean espazioara forma berri bat irekitzen du, sortzailearen gogozko hala beharrez. Gero etxe barnean ikusiko ditugun eskultura lanen egileen maisu izan zen Oteitza (eskultoreena ez ezik, pintoreena ere bai neurri handi batean), besteok sortzailetarako eraginez kutsatu zituelako. Honegatik, gure herriko artista mugimendu berriaren maisu eta aita izan da.

Barnean, eskilarak igo ta beste gabe, Remijio Mendibururen Ukubil-mailua deritzan eskultura dugu lehen lehenik. Haritz zurarekin egina, bere barne loturetatik espaziora irekiaz. Euskal arkitekturaren zura-tekniketan oinarriturik egina da, bere indar berezia adiaraziz.

Aurrekaldean Jose Luis Zumetaren burutapenezko lan bat. Tokiz beharturik egina dela dirudi eta ez du artistaren maila betetzen. Uko ezinezko orijinaltasuna du eta dituen kolore zatietan antz ematen zaio usurbildarrak berekiko dituen kromatikari.

Sarreraren ezkeraldera Jose Ramon Karreraren eskultura bikain bat, bere hoberenetako bat noski. Gizonaren azka deritza. Fundizio zatiz hornitua da, estructures tentzioen adigarriz egina. Barnetik kanpora begira, argiaren islaz, oso efekto polita egiten du.

Atzekaldera Bizente Larrearen brontzez funditutako eskultura espazial hoietako bat, nukleo baten azaletik kanpokaldera irekiaz sortzen

dena. Egile honegandik ezagutzen ditugun lanetatik hoberenetako bat da.

Alde bereko horman Jose Antonio Sistiagaren oihala handi bat, Ifar-mendebal izenekoa, zuriaren gainean kolore urkinzkak lerroz eta marraz mugimendu espazialez eginak. Nortasun handiko lana da.

Bertatik laster, beste horman, Agustin Ibarrolaren oihala handi bat, Siderurgia langintzaz. Egileak, hemen, presondegietako amets larriak oroitzen dituela dirudi, zeren lehen espetxe haietaz egin zituen barroteen lerroak, goitik behera eta ezkerretik eskubira, langileek preso hartzen dituen lantegien antzera. Lana bera, oso betea da baina behar bada ez egile honen mailakoa. Hobeak egin izan ditu.

Aurreraxeago Karmelo Ortiz de Elgearen oihala, ez hain handia. Hau ere, beste oihalak bezala, orio-pinturaz egina. Gainerakoak astraktoak dira, baina hemen irudiak ere nabari dira. Estrukturalista eraz egina, kromatika oso aberatsa eta behar dituen bolumenen ekilibrioak ondo zaindurik.

Bigarren eskilarak igota, beste zola batean, Rafael Ruiz Balerdiren oihala. Ez da maiz egiten dituen bizeral horietakoa, baina bai bertatik hurbil dabilen estruktura gisakoa. Mintzez estrukturatua esango genduke. Tinta morez oso aberats apaindua. Gustagarria benetan.

Azkenik, goiko gela honen erdian, Nestor Bazterretxearen bronzeko eskuldura eder bat, Eate deritzana. Lehenago zurean egina nonbait eta gero brontzez funditua. Espaziala izatez, baina aparteko anitz planuzko erreliebez, ardura handiz landua. Lan bikaina benetan.

Gaur egungo museo paregabea dugu lankide Aurrezkiaren sarrerako parte hau. Beste inon ez dugu hemengo aukerarik, bat batean gure herriak eman dituen artistarik hoberenetakoak beren lanak erakusten dituztena.

Herri batek plastika artez munduari ematen dion erantzuna da, gure gizaldiaren girotik sortua, batzuk arte zaharretan oinarriturik eta beste batzuk bat-batean beren gogotik sortua. Herri baten balioa adiarazten dute, beren gogoetaren aldetik begiraturik. Nora baino norabaiteko aurrerabidean abiatzen duena. Eta hor daude guziona gogoari nolabaiteko bultzara eman nahirik, lokartutako giroa iratzartu nahirik.

Txalogarria benetan Lankide Aurrezkiak egin duena. Baina gainerako gure instituzioak nora begira daude?

La única exposición permanente de las muestras de los artistas más representativos de la nueva generación del país es la que sirve de

decoración a la entrada y el vestíbulo de las oficinas centrales de la Caja Laboral Popular en la loma de Olandiano en Mondragón.

Digo los más representativos, por lo menos cuanto a una nueva visión de las artes plásticas. Se trata de una muestra de los artistas que respondieron con asociarse a aquel manifiesto del Grupo Gaur en 1966, valorando más el creacionismo que la rutina académica.

El conjunto artístico lo componen las obras escultóricas de J. de Oteiza, N. de Basterrechea, R. Mendiburu, V. Larrea, J. R. Carrera y J. L. Zumeta; más las obras pictóricas de A. Ibarrola, J. A. Sistiaga, R. Ruiz Balerdi y C. Ortiz de Elguea.

El edificio que en sí es muy moderno, queda aún más valorado con este conjunto que constituye la presencia de nuestros artistas actuales.

Observamos la ausencia de la obra de E. Chillida. Vacío éste que esperamos sabrán subsanar los que han sido capaces de comprender en su conjunto la valía de este movimiento contemporáneo, el más importante del país, cuya fama traspasa las fronteras.

Otras instituciones deberían seguir la pauta marcada por la Caja Laboral Popular en su afán de valorar el arte creativista de nuestro propio pueblo.

1976-VII-12.

IV
MUSIKAZ
De Música

EUSKAL MUSIKA

Euskal musikaz asko hitz egin da, zenbait parteren estudio bereziak ere bagenituen, baina musikazko historia osatu bat falta zitzaigun, historian zehar alde orotarik begitarturik, eta hau da Jose Antonio Arama Martijak oraintsu eskaini diguna. Aspaldian esperoan geuden lana eta oztopo askoren ondorean argia ikustera heldu dena. Lehendik "Lur eta gizon, Euskal Herria" liburuko lana ("Euskal musika", 179-197 orrialdeetan eta liburuaren azkenaldian zekarren bibliografia) ezagutzen duenak, behar bada, gutiagorik ez zuen espero.

"Música vasca" liburuan, gaia bere mamitik hartu du J. A. Arana Martija jaunak eta hain beharrezkoa genuen estudioa burutu du.

Herbesteetan ibili naizenean eta nere burua euskaldun bezala agertu, inork gutaz ezer adiaraztekorik bazuen, hizkuntzarekin batean musika izan da. Baina gaur arte hontaz ez genuen lan osaturik.

Arana Martijaren liburua bi parte handitan banatzen da, baina parteon aurretik aurkezpen luze bat dakar, gure musikak izan dituen prolemak eta musika berritzeaz izan daitezkenek. Lehen partea historiari hornitzen da eta bigarrena euskal musika zer den edo zertan datzanari buruzko teoriari.

Jabier Bello-Porturen gutuna darama hitzaurre gisa. Historiaren partearen gorazarreak agertzen ditu, orain arte holako bildumarik ez zela aitortuaz, sarrerako hitzak ere gogozkoak izan ditu nonbait, baina bigarren parteko teoriari buruzkoan bere zalantzak dituela dirudi. Esan nahietan gelditzen da, baina, arbuia gabe, hor uzten du.

Ni ez naiz sartuko bigarren parte horrekin, euskal musika zer den edo zer ez den. Hontaz nere formazioa ahula bait da. Baina liburuaren historia partea, hirutik biko dena, gogozkoa izan dut. Bertako berrien ugaritasuna, agertzen duen ordena eta abar, gure kulturaren historian lehen aldiz agertzen du gorputz osatu bat. Jakina, orain arte zatika egina egoanaren bilduma bat da; baina jakituriaz antolaturik eta aburu argiz adiarazirik. Liburu atsegina eta ulertteraza. Sarrerako hitzetan egileak berak ongi dion bezala, ez da guzia biltzen duena eta ezta azken hitza duena ere, baina bai lehen oinarriak finkatuko dituena.

Dena dela, puntu guzietan ez gara ados etorriko. Unamunok, poeta baino musikoagoak ginela esaten bazuen ere, herri musika asko bere poesiari, bere kantari esker, konserbatu direla esango genduke.

Gure kulturako parterik gehienak bezala, musika ere egoera larrian aurkitzen dela adiarazten digu. Sorkundera begira desarrollatuko bada, plangintza eta irakaskintza antolatu beharrak agertzen ditu. Eta honetarako laguntza instituzioetatik behar. Hemen ere gure instituzioen

gogorik eza nabari da, gainerako arloetan bezala. Noiz lortuko herriarena dena herriari itzuliko dion politika jatorra? Honelako iritziak ateratzen ditugu Arana Martijaren sarrera hitzak irakurri ondorean.

Bere hizkuntza berezia duen herriak, bere kultura berezia du. Hizkuntza eta kultura elkarki lotuak dabilta eta gure herriak historian zehar bere kulturazko pertsonalitatea nabari du.

Historia ez ezik, historia aurea ere agertzen digu, Isturitzeko Oxozelaia harpean Passemard-ek aurkitu zuen hezurrezko txistuaz eta Foruako Atxetan Barandiaranek aurkitu zuen turutaz. Historia aurrekoztat agertzen ditu Aste Santuan ezagutu genituen karraka edo matrakak, baina hoiek bezain zaharrak izanen ditugu Eguberrietan eta Ekainean, eguzkiaren goi-beheetan ezagutu diren kanta, jauzi eta doinuak.

Baina, usteak utzirik, historian barna aritzeaz harriturik utzi gaitu hainbeste berri eta ageri ematen dituelarik. Beste historia batean gu eskolatzen ahalegindu zirenak, Alfonso X.aren kanta eta musikazko irakaspenak ematen ahalegindu ziren, baina garai bereko Teobaldo Igoarenik ez digute erakutsi, bere musika lehentxoagokoa izanarren. Baina alperrik da hontaz jardutzea, eta gu geurea egiten ahalegindu gaitez.

Erromaniko garaitik elizetako irudietan aurkitzen diren musikariak ere agertzen ditu. Hontaz, lehenago zerbait emana zigun Aita Donostiak bere "Música y músicos en el país vasco" liburuan. Egia esan, erromaniko artea XII. mendearen erdi aldera hasi zen irudizko edergarriak azaltzen, eta ordura arte irudirik gabekoak zirenez ilunpean itzaltzen zaigu garai horren aurrekaldea.

Erdi-aro honetan posible da Arana Martijaren musikari zerrenda zerbait gehitzea. Unkastilloko erromanikoan ere badira musikari irudiak, XII. mendeak. Baina bibliografiako hutsune bat ere nabari zaigu eta hontaz ohar bat erantsiko nioke: Maria Carmen Lakarraren "Aportación al estudio de la pintura mural gótica en Navarra" (1974) liburuan, 28. laminan, Oliteko San Pedron herri musikari bat agertzen da *cornumasa* edo *gaita utricular* zelakoa jotzen, aingerua artzaineri Berri ona emanez agertzen zaienean. Liburu honetan, gainera, Iruñako katedraleko errefertorioan dauden heraldikazko pinturen argazki ederak dakarzki, bertako musikariak argi asko agertzen dituztenak. Behar bada J. E. Uranga eta F. Iñiguez Almanech jaunen "Arte medieval navarro" (1971-1973) hiru tomoak hobeto begiratu behar lirake Erdi-Aroko musika tresnak katalogatzeko. Bestalde, J. Caro Barojak "Etnografía Histórica de Navarra" (1972) liburuaren hirugarren tomoan Etxanoko eliza erromanikoan aurkitzen diren musikari errenak dakarzki (liburuaren 264 orrialdean, 38 eta 39 irudietan agertzen dituenak), gauza



Otxagabian "El Bobo" dantza.

berezi bezala; baina liburu beraren 279/284 eta 434/437 orrialdeetan musikazko berri gehiago ematen digu.

Pizkunde garaiarekin, hamaseigarren mendetik, berri ugariagoak aurkitzen dira, polifoniaz eta organisteri buruzkoak batez ere, eta egileak zehatz mehatz jaso ditu ageriok. Joanes Antxieta eta Gonzalo M. de Bizkargi ditugu aipatuenen arteko. Lehenengoa azpeitiarra eta bigarrena azkoitiarra. XVI. mende hontan, Eibarko San Andres parrokiako ordenanzetan, 1559an, bertako elizkizunetan erabiltzen ziren musiken berri jakingarriak aurkitzen dira. Gregorio Mujikak Eibarko Monografian jaso zituen eta neronek aurtengo San Juan jaietako programan ere emana dut honen berri. Bigarren argitalpen baterako kontuan izan behar luke.

Puntu honetara heltzean, liburuaren 50. orrialdean zuzenketa bat egin beharrean naiz. 12 kantu liburuak ez dira Erdi-Arokoak, baizik 1673koak, nik egileari inoiz aipatu diodan Erdi-Aroko kodize hura, bat besterik ez da, XIII.aren azkenaldikoa edo behar bada XIV.aren lehen partekoa, lerro bakarrean idatzia eta bere berriak Boletín de la R. S. V. de

los Amigos del País-en eman nituen, XXVI (1970) urtean 490garren orrialdean.

Danbolin edo txistu eta dantzak, herrietako agirien lehen liburuetan aurkitzen dira, baina egileak ongi dion bezala, herriz herri guziak bildu beharra dugu. Neronek ere aurkitu nuen Elgetako diru-kontu liburu zaharrean, 1566an, danbolinteroa (txistularia noski) nola ordaindu zen eta 1600ean dantzariak eta danbolinteroa nola ordaindu ziren (ikus *Elgueta* monografiaren 58 eta 121 orrialdeetan).

Barrokoa zabaltasunez agertzen zaigu, eta Ilustrazioko eragina nabarmen. Erromantiko garaiarekin (Iztueta lekuko) herri musika baliatzen da. Fenomenu hau Europa guzkoa da noski. Honegatik, abertzaletasunaren hasierak dira. Abertzaletasuna ez bai dator foruen galeratik eta S. Aranaren irakaskuntzatik bakarrik, behar bada hauek zer ikusirik handiena izan bazuten ere. "Música vasca"ren egileak ere argi erakusien digunez, erromantikoen eraginetik edo mugimendutik hasten dela esango genuke, beste erantsiak lagungarri izan badira ere.

Barroko garaitik honerat musikaririk aipagarrienen zerrendak ere ematen dizkigu. Liburu aberatsa eta oso balioskoa gure herriaren kultura ezagutzeko. Gainerakoan, ez naiz nor euskal musikaren iritziak bere barnetik emateko eta liburuaren bigarren parteaz ez dut ezer esatekorik. Hala ere, egilearen zentzuzko aburuak, beren parterik gehienez ontzat hartzekoak direla esango genuke.

La obra de José Antonio Arana Martija constituye un corpus general de nuestra historia musical. "Música vasca", como bien dice el autor en su introducción, no pretende ni puede ser definitivo. El ha reunido los materiales desperdigados en estudios parciales y debidamente seleccionados y ordenados, con muy buen criterio, ha sabido mostrarnos en un interesante volumen.

La obra lleva una carta-prólogo de Javier Bello-Portu y una introducción del propio autor. La primera parte trata sobre la historia de la música vasca, que constituye las dos terceras partes del libro; más una segunda parte sobre conceptos teóricos en torno a ¿qué es la música vasca?

Aparte de los instrumentos musicales del paleolítico, la iconografía medieval nos aporta interesantes referencias musicales. Con el Renacimiento empieza prácticamente la documentación escrita y desde entonces

abundan los datos y las noticias. Pero como bien dice Bello-Portu, donde habrá que distinguir entre lo auténtico y el accidente.

En mi exposición hago un comentario general de divulgación de la obra, que bien merecida se la tiene y aprovecho para anotar algunas fuentes donde se debería hurgar para la ampliación de datos.

Desde ahora, el libro de Arana Martija será imprescindible para todo tipo de estudios musicales, e incluso culturales, del país.

1976-VI-28.

AITA DONOSTIAREN MUSIKA LANERI BURUZ, AITA RIEZUKIN HIZKETAN

Hamar urte igaro dira Aita Donostiaren *Obras Musicales*-en lehen tomoa argitaratu zenetik. Une beretik interesatu nintzen lan hoietaz eta ordutikoak ditut A. Jorge de Riezu-rekingo har-emanak. Baztan aldera noanean, gutxitan huts egiten dut bera bisitatzetik. Atsegingarri zaizkit elkar-hizketak langile azkar honekin, eta beti jasotzen dut gauza jakingarriak. Musikatik aparte ere, euskal kultura orokorra barnetik ezagutzen duen gizona dugu Aita Jorge.

A. Donostia hil zen urte berean, 1956an, A. Riezu biografia labur bat argitaratu zuen. Bertatik ikus genezakeanez, Aita Donostia, mende honen lehen parteko euskal kulturaren pizkunde mugimentuari zeharo loturik zegoala; mugimendu honen eragilerik bizkorrenetakoak musikariak izan zirenez gero.

Azken agerraldian galdera hauek egin nizkion:

—*Zure liburuxka hartatik dakit A. Donostia zenaren adiskide mina zinela. Zer duzu bere oroitzapenik onena?*

—Bere oroitzarik hoberena, ez dut holako edo halako gertakaria edo izatea, ez; baizik A. Donostia, bere pertsonaren izate guztia zen aldetik. Adiskide minak ginen, hori bai. Elkar ongi konprenitzetik zetorren adiskidetasun hori. Elkar lagundu ginen, eta nik beragandik asko ikasi behar izan nuen; berak nigandik baino gehiago, noski. Oroitzarik onenetakoak, hemengo egotaldiak izango dira. Aspaldikoa da hau. Gogoratzen naiz bere gisara antolaturik zuen “Estudio” hartaz, baratze bazterrean, uso eta untxi artean. Han igaran genituen gure ordu librerik gehienak. Libreak? —nolabait deitzeko gure estudio orduak—. Goizeko bostak laurden gutxiagotan jaikitzen ginen, eta irakaskintza lanak bukatu ondoan, pianuz zerbait jotzeko eskaintza egiten zidan. Nik, bere

Preludioak eskatuko nizkion, baina bere buruaren handi-nahirik ez zuen gogoko eta biontzat hain atsegingarri ziren Chopin-en Gauezkoak, Schubert-en Improptu, edo erromantikuen garaiko beste zerbait.

—*Noiz eta zergatik erabaki zenuen bere lan guzia argitaratzea?*

—Aita Donostiak asmo asko eta handiak zituen, hortarako gogorik ere ez zitzaion falta, baina buruko tumor gaizto batek uste baino lehen eraman zuen. Nik, maiz esaten nion: “Kanzioneroa, Kanzioneroa!”. Baina bere erantzuna: “Denbora dut, adinez heltzen den lana danez gero, eta laster etorriko da”. 1955eko urtearen lehen parteko egun batean etorri zitzaidan, esanez: “Berri on bat: Gaur hasi dut Kanzioneroa”. “Ba, —erantzun nion— konta zazu eskaini nizun laguntzarekin”. Egun gutxira Barcelona-ra joan beharra sortu zitzaion. Udaran itzuli zen, baina alde batetik lanik anitz zuen eta bestetik udara partean ez zitzaion laket. Udazkenean, handik eta hemendik zituen deieri erantzunez, zenbait tokitan hitzaldiak ematen hasi zen. 1956ko urtarrilean, bere 70 urte betetzearen aurreko egunean hain zuzen, heriotzara eramango zuen gaitzaren lehen ezbeharra izan zuen. Urtearen lehen partean, oraindik oroitzen naiz, hiru hitzaldi eman zituela. Nork esango zuen, bere bizitzako azken hitzaldiak? Gasteizen, Donostian eta Bilbon. Hirugarrena martxoan. Handik egun gutxi barru geixotu zen eta abuztuaren 30ean hil. Hemen gelditu ziren bere lanak. Horiekin zerbait egin behar zen. Sacro-Musical aldizkarian motete batzuk eta Erviti-nean kanta batzuk argitaratu nituen, baina hori ez zen aski. Beste inor ez zen arduratzen eta, direla hamabirenbat urte, nere lepora hartu nuen lanen argitaratzea. Aita Probintzialari nere gogoia agertu nionean, beldurtu zen, bide erdian porrot eginik edo geldituko ote nintzen. Luzaro pentsatua nuela, nere zalantzak izan nituela, eta abar, adierazi nion. Eta, aurrera. Lehenengoz diruaren larritasunak izan nituen, baina laster konturatu nintzen holako ekintza baterako dirua bera baino lehenagokoak zirela burua eta bihotza.

—*Zelan duzu gaurko egoera? Nahikoa laguntza ba ote duzu?*

—Lehen tomoa: *Navidad*, 1.000 alekoa egin nuen eta poliki-poliki agortzera heldu zen. Orain, berriz argitaratu beharra izan dut. Eleiz-musikak eta bestelakoak tarteka-marteka eman nahi izan ditut, eta honegatik ez doaz tomoak bere ordenan argitaratuaz. Bigarren VI. tomoa atera nuen, *Lili eder bat*. Eta geroztik nahi nuen argitalpenok bizkortu, baina poliki saltzen direnez, ezina zait auto-finanziatzea. Honetarako, hirurehun harpidedun gehiago beharko nituzke. Bestalde, salketak zuzenean eraman nahi ditut, salneurriak garestiago ez izateko.

—*Nola duzu argitalpenen egoera zehatza?*

—Harpideduna zeran aldetik dakizun bezala, hauek dira orain arte argitaratuak: *I-Navidad, II-Pascua, III-Jesucristo, IV-Marial, VI-Lili*



A. Doñostiaren omenez eraikitako monumentua, Agiña mendian. (Lesaka. Nafarroa).

eder bat, VII-Goizean goiz, VIII-Itsasoetan, IX-Larre gorrian eta X-Piano. Dakizun bezala, era askotakoak dira, beretarik gehienak noski herri kanta eta doinuak, hortik dute tomo batzuk kantaren izena. Denak dira A. Donostia berak koruan ahoz kantatzeko edo musikagailuz errepresentatzeko armonisatuak. Orain arteko tomo bakoitzak, bere 31×22 zm. neurrian, 150 orrialde inguru ditu. Sarrera labur bat, konposizioak eta atze-hitza daramate. Atzeko hitz hauetan, bibliografia, oharrak eta kanten erdal itzulpenak datoz. Argitaratu berri da X. tomoa, Pianuzko obrak ditu. Bertan datoz A. Donostiari hainbeste ospe eman zioten Preludioak. Beste tomoak baino mardulagoa ere bada (241 orrialdekoa) eta, dituen gaiegatik, harrera hobea izango duen esperantzatan nago. Ondorean, atzeraturik gelditu den *V-Santoral* argitaratuko dut, laster batean, eta beste bi tomo gelditzen zaizkit, organurako eta kamara-musikazkoak; baina hauek oraindik behar bezala antolatu gabe ditut. Hauekin bukatuko nuke *Obras Musicales* partea.

—*Eta, besterik zer duzu?*

—Nere pentsamenduan dut Folklore lanekin jarraitzea. Behar bada musika lanak baino interesgarriagoa. Baina, hau, editorialen batekin egiteko asmoa dut. Lau partetan joango litzake, zortziren bat tomo gutzira: folklore artikulua, sineskeriak, kanta zaharrak, eta abar. Lan honekin lehen mailako ikertzaile bat bezala agertuko litzaziguke A. Donostia. Baina lan hau garbira pasatzeko laguntasuna beharko nuke, eta hauen artean espezialista batzuk ere bai, zeren euskalkietatik bilketak direnez, hauek behar duten oharrez aterako bada. Materialik gehienok Nafarroan jasoak dira, Goi-Nafarroan eta Behe-Nafarroan, Zuberoan eta Lapurdin. Gutti Gipuzkoan eta Araban eta baterez Bizkaikorik.

—*Ez da lan txikia burutu ahal izateko. Baina zure kemen gartsutik horrenbeste espero dut.*

—Hori bakarrik balitz.

—*Zer? Besterik ere bai al da?*

—Bai. Lanok bukatu ondorean A. Donostiaren biografia bat egin nahiko nuke, lehen egin nuen liburuxka hura baino handiagoa, batez ere anekdotiko aldetik dituen gaiaz oinharriturik. Jainkoak honeraino lagunduko ahal dit.

Ez dira egintza txarrak Aita Riezu-renak, eginak eta asmoetakoak. Bi hitzetan oso errez eskertu dut elkar-hizketarako eman didan aukera, baina uste dut Euskal Herriak nekez eskertuko diola lan hauek aurrera ateratzen hartu dituen lanak eta arazoak. Izan ere, euskal kulturarekin zorrak kitatuko baditugu, beharrezkoa zaigu A. Donostiaren lanen argitaratzea. Batez ere euskal-musikaren kulturen gizonik garrantzikoena zaigun aldetik. Honetarako, hitz gutxi eta laguntza asko behar. “Hitzetan lander, eginetan eder”, gure esatera zaharrak dion bezala eta A. Riezuk ongi bete duen eran.

Hace unos 10 años, al comenzar la publicación de las *Obras Musicales* del Padre Donostia, hice mis primeros contactos con el Padre Jorge de Riezu, que dirige dicha edición. Desde entonces, cada vez que se me presenta la ocasión de visitar el hermoso valle del Baztán, procuro

OHARRA: Aipatzen diren tomo guziaz argitaratuak dira. Orain, obra guziaz osatzeko, XII. tomoa falta da, *De cámara* deituko dena.

llegar hasta el Colegio de Lecároz, atraído por el agradable conversar del P. Jorge, que a sus dotes musicales une profundos conocimientos de la cultura tradicional del país. Durante mi última visita le hice una serie de preguntas en forma de interviú.

El recuerdo más grato que conserva del P. Donostia no es tal o cual suceso o convivencia, sino la conducta de toda su persona en su manera de ser y de actuar. Pero especialmente recuerda con emoción aquellos años vividos tan estrechamente en el mismo Lecároz, cuando el P. Donostia tenía montado un "Estudio" a su manera en un rincón de la huerta, en la vecindad de las palomas y los conejos. Y que al final de la jornada de su profesorado sabía obsequiarle con música selecta de la época de los románticos, para entregarse a continuación a sus respectivos trabajos de estudios, al margen de las obligaciones cotidianas que comenzaban a las cinco y cuarto de la mañana.

Pero al preguntarle sobre su decisión de emprender la magna empresa de editar sus obras completas, terció, que siempre le ilusionó y en innumerables ocasiones él mismo le incitó persuasivamente. Pero el P. Donostia iba dejando para última hora, alegando que era obra de la madurez, y le sobrevino la muerte cuando él aún no la esperaba. Fallecido el maestro, después de mucho reflexionar, como no veía a nadie con ánimos de hacerlo, él tomó por su cuenta la tarea de sacar a la luz.

El primer volumen, *Navidad*, le sirvió como experiencia. Quedó convencido que para una empresa de éstas no es lo primordial el dinero, sino la cabeza y el corazón. No obstante, tuvo sus primeras dificultades y sus primeros colaboradores. De forma que las deficiencias de lo uno compensara con lo otro.

Recientemente ha distribuido el volumen décimo. De cada tomo se han hecho tiradas de 1.000 ejemplares. Ha ido alternando entre tema religioso y profano. El primer tomo ha tenido que ser reeditado. La situación le está siendo más favorable, ahora que está muy próximo a la autofinanciación. Pero aún necesita más suscriptores para desenvolverse con más holgura.

Los tomos publicados son: *I-Navidad*, *II-Pascua*, *III-Jesucristo*, *IV-Marial*, *VI-Lili eder bat*, *VII-Goizean goiz*, *VIII-Itsasoetan*, *IX-Larre gorrian* y *X-Piano*. Los temas son muy variados. La mayoría se basan en músicas populares o de autores ya popularizados, arreglados por el P. Donostia para la instrumentación y para coros. Pero algunas de las obras son de su propia creación. Cada tomo, de 31 x 22 cms. oscila entre las 150 páginas. Llevan una breve introducción y un apéndice con bibliografía, notas y versiones en castellano. El volumen *X-Piano*, es más extenso que los anteriores y en el mismo se recogen los Preludios Vascos que tanta

fama le dieron al Padre Donostia. Cree que éste tendrá mayor acogida. Le seguirá al mismo el tomo *V-Santoral*, que quedó rezagado y finalizará con los volúmenes para órgano y para música de cámara.

Pero ahí no termina toda la obra y el P. Riezu piensa continuar con las *Obras Folkloricas*. Que posiblemente lo hará a través de algún editor. En su temario: artículos y conferencias sobre folklore, recopilaciones de creencias, supersticiones, antiguos cantares, etc. con sus respectivas notas documentales. Para dicho trabajo requeriría alguna colaboración. Dicha obra situaría al P. Donostia entre los investigadores de primerísima línea y constituiría una gran riqueza para el acervo cultural vasco. En esta especialidad, su campo de acción fue sobre todo Navarra, Alta y Baja; Soule y Labourd. Poco de Guipúzcoa y de Alava y nada de Vizcaya.

De culminar la edición de toda esta obra (probablemente la obra más importante de la cultura musical vasca) él emprendería con una biografía más extensa que la que publicó en 1956, a su fallecimiento, y estaría basada principalmente en lo anecdótico.

Todo se puede esperar del tesón con que ha sabido llevar las cosas este hombre parco en palabras y largo en hechos.

1972-VII-3.

EUSKAL HERRIKO KORUEN HEZIKETA TRADIZIOAZ

Egun hauetan ospe eta harrera handia izan du Errenderiako Andra Mari Koralaren diskoak, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak hain asmo txalogarriz argitaratuak. Egunotan, baita ere, mende honen hasieratik hainbeste meritukin lanean ari den Orfeón Donostiarrak bere gorazarrea jaso du Madriden. Eta, hauek kontuan harturik, euskal koruen jatortasunari eskaini nahi diogu gaurko artikulua hau.

Koruko musikaren kultura, gainerako heziketa guziak bezala, ezta bat-batean sortzen den gauza, ihardunez urteen buruan lortzen den heldutasunezko zerbait da, eta Euskal Herriak badu hontan bere tradizio zaharra.

Tradizio hau, bi alderditatik letorke: a) Erdi-arotik Europako mendebaldean hedatu zen eliz-koruena, Aita Donostiak bere *Música y Músicos en el País Vasco* liburuaren 6garren orrialdean argi jartzen duen bezala, eta geroago M. H. Anglés-ek Nafarroako Erdi-aroko musika

estudiatzean ikustarazten digun bezala. Gainera, soinu-joleak erromaniko irudietan ere aurkitzen dira. b) Herri-musikaren tradizioetikakoa, bestalde. Baziren "eresiak" XIV eta XV. mendekoak, beren letra batzuk ezagutzen ditugu, baina hala ere, agirien bidez ezin dugu zihurtatu beren garaiko doinurik. Herri-doinurik zaharrenetakoak, agirien argira, XVII eta XVIII. mendekoak ditugu, Aita Riezuk oraintsu argitaratu digun *Nafarroa-ko Euskal-kantu zaharrak* liburu bikainaren sarreran esaten digun bezala.

Beraz, gure herriko koruen heziketa tradizioa, aipatu dugun bi alderdietako etorkiz hornitua dugu. Erliziozko tradizioa argi utzi zen 1928an Gasteizen egin zen "IV Congreso Nacional de Música Sacra" zelakoan, batez ere bertan antolatu zen erakusketaren bidez. Eliza askotatik agertu ziren Erdi-aroko koru-kantuen liburuak. Herrikoa berriz, nabari ageri da Eguberri kantetan, Santa Agata, Maiak, eta abar, gure folklorean arkitzen dugunez.

Lehen batean, Europako Erdi-aroaren emaitza bezala, Akitania aldeko kutsuzko heziketa agertzen zaigu. Bai orduan eta bai geroztik, latinez kantatu ziren. Baina aspaldiko urteetan, eresi haien garaitik noski, euskarazkoak geroago eta maizago azaltzen zaizkigu. Doinu asko, esan dugunez, XVIIgarretik dokumentaturik ditugu, eta ezta batere harritzekoa sarri gregoriano kantuen kutsukoak ere aurkitzea. Dena dela, aspaldiko urteetatik landu da koruen heziketa Euskal Herrian eta joan zen mendean tradizio heldu batekin agertzen gara, nahiz eta XIXgarrenean italiano musikaren kutsua erantsi.

Onduen ezagutzen dudana historia gure herrikoa denez, Eibartik irtetzeke aurkitu nezake aipatzen dudana tradizio heziketa hau.

Eibarko San Andres parrokiaren agiri idatzirik zaharrenak, adibidez, XIII. mendekoak ditugu, eta eliza honetan oraindik gordetzen da XIIgarren mendeko San Pedro-ren irudi bat. Baina, horrez gainera, bazen XIIIgarren mendearen azken aldeko kantu-liburu bat ere —azken gerrate inguruan galdu omen zen—. Liburu horren aztarrenak neronek jarraituak ditut eta hortaz lan bat ere argitaratu dut R. S. V. Amigos del País-en Boletinean, 1970ean. Erdi-aroko kantoral horrek korua zenaren aztarrena ematen digu. Geroztik, hamazazpigarrenera arte, agiri idatzirik hain urri dugun herri honetan, ezin izan dugu gainerako berririk aurkitu. 1603an, Joanes Abanzabalegi agertzen zaigu parrokiako koruaren zuzendari edo arduradun saritua (*chantre beneficiado*) bezala. Urte guziko meza-kantatuen liburuak, 1673koak 12 tomotan, osorik gordetzen dira eta beren itxuraz asko erabiliak izan ziren.

Fray Joseph Eizaga Etxebarria eibartarra izan zen 1658an Eibarren bertan parrokiarako organua egin zuena, 1667an Arraterako beste bat

egin zuen bezala. Eta, XVIIgarren mende honetatik, nere adiskide Ramón Sarasuak ongi estudiantua duenez, etengabeko jatorria izan du koruak. 1887an sortu zen lehen Orfeoia, Gorriti nafarraren zuzendaritzapean, gure mende honen hasieran berritua, Gisasolatarren eraginez.

Musika sortzaileak ere izan ditu Eibarrek, XVIII.ean Egiguren eta Sostoa anaiak, hirurak frantziskotarrak, eta gure mende honen hasieran Juanito Gisasola paregabea (joan zen astelenean "Hoja del Lunes" honetan "Amatiño" k artikulu bat eskaini ziona, bere heriotzaren 25 urte betetzen direlako) eta Agustín Zuluaga. Bigarren hau, Durangon sortu bazen ere, gaztetxo zala Eibarrera etorri zen eta hemen bihotz-gogoz eibartartu zen.

Baina, Juanito Gisasolaren dohaina, musika sortzaileaz aparte, parrokiako organu-jotzaile, bertako koruaren zuzendari eta hainbeste entzute hartzera heldu zen Eibarko Orfeoiaren zuzendaria izatetik datza. Gure ohorerik handienak irabazi zituen.

La publicación de un hermoso disco de la Coral Andra Mari de Rentería por la Caja de Ahorros Provincial, y los últimos éxitos del Orfeo Donostiarra han despertado el interés del público por las masas corales vascas. Motivo por el que dedicamos estas líneas sobre la tradición histórica de las masas corales en el país.

Esta tradición de masas corales, a juzgar por la documentación acumulada, es antiquísima en el país, y su herencia nos viene de doble vertiente, de la música culta religiosa enraizada en el medioevo del occidente europeo y de la tradición popular desarrollada en el propio país. De la primera se poseen bastantes cantorales medievales y renacentistas, y que han sido estudiados por el P. Donostia y por M. H. Inglés. De la segunda, aunque se conozcan letras de endechas de los siglos XIV y XV, no podemos documentar las melodías más allá del siglo XVII, como afirma el Padre Riezu en la introducción a su reciente obra *Nafarroa-ko Euskal-kantu zaharrak* (Viejas canciones vascas de Navarra).

En los cantorales religiosos medievales, cuyas letras están en latín, se observan influencias aquitanas. En la tradición popular se conocen las costumbres folklóricas de los coros de Navidad, Santa Agueda, etc., y también en ella se observan manifiestamente las interferencias del canto gregoriano.

Un ejemplo de esta tradición musical es la que encuentro en mi pueblo natal de Eibar, de cuya historia me he preocupado y, desde luego,

es sin duda de las historias que mejor conozco, y es muy lógico que me base en él al pretender demostrar la cultura musical que ha podido marchar paralelamente en otros pueblos del país. Además, tocante a la música, poseo una copia de un estudio inédito de mi amigo Ramón Sarasúa, a quien presté alguna colaboración.

Contábamos con un cantoral medieval, de finales del siglo XIII, hoy desaparecido; sabemos que al comenzar el siglo XVII nuestra parroquia tenía un *chantre beneficiado*, y en el mismo siglo fue construido el órgano por un eibarrés, así como hubo una donación de la colección de 12 tomos de cantorales en pergamino para las misas de todo el año. En el siglo XVIII surgieron compositores como Eguiguren y los hermanos Sostoa, y a finales del XIX el navarro residente en Tolosa Gorriti, organizó un orfeón en Eibar, que más tarde fue reorganizado por los Guisasola.

1973-XII-10.

KANTA BERRI

Euskal kulturak ezer aberatsik badu, herri-literatura du aberatsenetakoa, noski. Herri-kanta zaharrak ugari ditugu, eta ugaritasun horretatik hauta genezazke edonongo herri-literaturaren gorenengo mailetan jartzeko bezalakoak.

Arrotzak, jatorrizko euskal kulturaren bilatzen dutenik bereizgarriena, musika da. Baina musikak, gehienetan, letragatik iraun dute, edo herriak letraren interesagatik gorde du. Poesia herrikoia baina barna murgildu ahal izateko, euskararen jabetasuna beharrezkoa dugu, zeren euskararik ez dakitenak doinuaren dohainak jasoko dituzte baina ez dute poesian sarrerarik.

Egungo kanta berriak, gehienbat, kanta-zaharrak ditu oinharri eta eragile. Hemen ere argi ikusi genezake bat-batean ez dela ezer sortzerik, eta gaurko kanta-berri sortzaileak, munduko era berriko kantak gogoan edukitzetik aparte, gure kanta zaharretatik hornitu dirala. Bestalde, protesta giroko kantetarako, gogoan eduki behar dugu aspalditik goraka etorren olerkaritza berria izan dutela iturburu. Ekintza honen muestra bezala eman nuen, urte gutxi dala, *Uhin berri* izeneko bilduma liburua. Hemen ere poeta gazte berri askoren izenak emango nituzke, baina utzi dezadan beste baterako poesia berriaren mugimendua.

Kanta zahar eta poesia berriaren emaitzetatik, munduko moda berriak ere kontuan izanik, sortu zen gaurko kanta-berri mugimendua.

Lehenengo Labegerie (1960 inguruan), gero E. Etxamendi eta “Ez dok amairu” taldea.

Talde bezala agertzean, “Ez dok amairu”koak, beren barne zituzten, erarik orokorrean, aipatu ditugun balioak, kanta-zaharrak Laboak hain ederki berriturik agerreraziaz eta Lertxundi eta Lete berri sortzaile, baina kanta berriak sortze honetan ondo kontuan hartu zituzten kanta-zaharren poesia moldeak eta berdin doinuenak. Folklore jatorraren emaitza eta egungo poesiagintza berria elkar uztartu zituzten. Hauek, honetarako, beren maisu izan zuten Julian Lekuona. Oinharri hauetan bizkortu zen euskal kanta-berriaren mugimendua.

Paco Ibáñez-ek, orain urte batzuk, Espainian lehen aldiz Madrilgo Teatro de la Comedia-n kantatu zuenean, “Triunfo”n egin zituen deklarazioetan, protestako kantetan goren zeudenen arteko Raimon, Pi de la Serra, Guillermina Motta eta Xabier Lete jarri zituen eredutzat.

Lau urte bete dira Ramón Padilla-k bere liburuan kanta berria zer zen, eta bereziki protesta-kanten mugak zer ziren. Ikusten da, arte guzietan bezala, hemen ere estetika berezi batzuk badirela, espresio-bide: musika, letra eta abotsa elkarri loturik beharra.

Gaurko giroagatik, nahiz taldeka edo nahiz bakarka, kanta-berria asko ugari da. Bai bakarka eta bai taldeka, bada kantari bikainik, baina gehienak ez dakite doinua eta letra elkarri behar bezala lotzen. Kanta berriak, letran, ritmoa erabiltzeko duenean ere, zerbait adierazteko edo liluratzeko hitzak behar ditu, nolabaiteko sentimendua erakutsiko duena. Eta, protestako kanta ere ez da ikaragarriak esatea —edo, gutxienez ere ez hau bakarrik—, baizik hauek herriari hobeto edo bizkorrago eman ahal izateko, jantzi estetiko bat behar dute, eta bizitzaren kontestean girotutako esanak edo esan-nahiak; eta, honetan, musikak ere zer ikusi handia du.

Azken urte hauetan kanta-berrien epai-mahaietara eramán naute, zenbait aldiz, letraren eritzia emateko, eta ez dut izan non hautatu handirik. Poesiaren aldetik, gehienetan ez dut aurkitu ez funtsik eta ezta kutsurik ere.

Gure poeta gazteak, frutu ugari ematen ari zaizkigun artean, ezinezkoa zaigu besapean gitarra hartzeko den nornahik bere kantak egiten hastea, sentimentuak sentimenkerietara nahastuz; gaurko poesiaren ederra bere abotsez eman beharrean. Gainera, gaurko poeten artean era guzietako gaiak gustu askotara emanak dituztelarik.

Kantariok, gaurko poetekin edo poesia ezagutzen dutenen kontseilu-ekin baliaturik egin behar lituzteke beren antolakizunak.

Los extranjeros, por lo general, lo que más admiran de la cultura popular vasca ha sido la música, por su variedad y por lo extraordinario de algunas piezas. Pero han sido pocos los que han reparado en la poesía que llevan muchas de estas melodías que han perdurado en el pueblo gracias al valor del contenido de la letra. Y el cancionero vasco, puede decirse, que es una de las mayores riquezas de la literatura popular.

Este cancionero ha servido de base al movimiento de la nueva canción. Los de "Ez dok amairu", como conjunto, supieron valerse del mismo, y causaron un buen impacto en el pueblo. Aunque los iniciadores de la nueva canción fueron Labeguerye y Etchamendy/

En los estilos de la nueva canción han tenido muchos seguidores, pero pocos, muy pocos, han sabido acertar en una sólida y perfecta conjugación entre música y letra. Muchos cantantes que únicamente deberían ser intérpretes, se han metido a creadores ellos mismos de música y poesía, que cuando no han plagiado parte de lo uno han maltratado los conceptos estéticos de lo otro. Yo que he sido varias veces miembro de jurados de los concursos de la nueva canción, para opinar de la letra, puedo decir que me he llevado verdaderas decepciones por la ausencia de la poesía. Y es bien triste que esto ocurra cuando disponemos de tanta riqueza en el cancionero tradicional y en la joven poesía actual.

Es lástima que no se sepa aprovechar mejor el acervo del cancionero y la rica y variada poesía euskérica del momento, donde hay abundante material y para todos los gustos.

1972-VIII-7.

V
HIZKUNTZA ETA
LITERATURAZ
De Lengua y Literatura

EUSKAL LITERATURA LANDUAREN HASTAPENAK

1545ean euskarazko lehen liburu inprimatua agertzea, behar bada, ezta hain harrigarria. Bernat Etchepare euskaltzalea izatez aparte Pizkunde garaiazen hastapenetako semea zen, eta inprenta sortzetik ez hain urrutikoa. Abantaila honek eta ideien iraultzak berakin zekarren herri hizkuntzez baliatzea. Baina gure herrian Etchepare aski soilik aurkitzen dugu. Ingurukorik gabe, eta lehen liburu inprimatua izanarren, ez dugu uste ondorengo mugimendurekin ezer ikustekorik izan zuenik. Beraz, Literatura landuaren mugimendua esatekorik ez zen sortuko XVII. mendearen lehen partera arte.

I. Sarasolak bere *Euskal Literaturaren Historia* deritzan liburuaren 16/17 orrialdeetan egiten zuen galde hura hartu nuen nere pentsa moldez edo ikus moldez saio bat egiteko gaia. Euskaltzaindian protokolo gisa egiten den sarrera hitzaldia egiteko erabili nuena, eta Euskera, XX. zenbakian argitaratua dena. (1)

Nere ustez, erlijio borrokak piztu zuten euskal literaturaren lehen mugimendua. (Otoi, literatura landuarena, zeren ahozko literatura lehenagokoa bai zen). Alemanian Luteroren Biblia itzulpenekin gertatu zenaren antzera.

Hugonoteak azaldu ziren Euskal Herrira. Calvinoren dotrina nahi zuten zabaldu, eta honetarako bidezkoena zuten Nafarroako erregetzaren aurka gerra egin zutenen aurrez aurre jarri. Calvin-ek, bere dotrinen lehen partean, Eliza eta Estadia elkarregandik bereiztea eskatzen zuen, eta ifarraldekoak ondo gogoan zuten Errege Katolikoak Nafarroan izan zuen jokabidea, Leringo kondearekin baliaturik, eta Bidaxuneko Agarramont eta bere inguruko jaunek Juana Albret Nafarroako erreginaren inguruan bildurik, Calvinoren aldeko bidea hartu zuten. Bere eginkizunetako bat zen lehenengo jauntxoak irabaztea eta gero herri xehea, P. Lafittek ongi zion bezala, eta Leizarragari agindu zioten *Testamentu Berria* euskaraz jartzea. Gainera, erreginak berak argitaratu ere, 1571an. Horrez gainera, Orthez-en Unibertsitate antzerako bat ere sortu zuten eta zuberotarrik gehienak bereganatu zituzten. Baxe-Nabarren ere egin zuten lanik aski, baina herri xehea oso katolikoa zenez gero, nekeza zitzairen beren ideiak zabaltzea. Gainera katolikoak ere ez zeuden lo.

(1) J. S. M., *Literatura landuaren sorrerako giroa. Axularren garaira arte*, "Euskera", XX, 1975, 195-208 orrialdean.

Baina, ordurako Trentoko kontsilioa egina zen, erlijio hauziak bideratzeko, eta bertan eman ziren herri hizkuntzetara joteko arauak ere. Hugonoteak berandu ari zirelako eta herriaren nahia bestelakoa zelako, kontsilio hartatik etorri ziren arauen aurrean ez zuten ezer egitekorik. Euskal Herria bera ordurako oso zatitua zen eta ez zegoen politika orokor baten kontzientziarik. Ondorioz, Ziburun eta Saran apaiz katolikoak bizkortu ziren eta Calvindarren mugimentu hari erantzunez predikuak eta izkribuak hasi ziren, dotrinak, kantikak, otoitzak, aszetika saioak eta abar, laster batean anitz liburu emango zituen mugimendua.

Mugazemendik ez zen holakorik gertatu. Hemen, denak katoliko izatez aparte, Foruen babespean goxo bizi ziren; Gaztela zale bihurturik, eta inork ezer idazten bazuen ere, gazteleraz izaten zen. Hemengo intelektualak gazteleraz idatzia, herri euskaldunak ezin ulertu. Eta honek ezinezko bihurtzen zuen literatura mugimendu bat loratzea. Zaldibia, Garibai, Poza, Etxabe eta abar, euskararen alde apologiagintzan jardun ziren, baina erdaraz; ifarraldean, hainbeste apologiarik gabe euskara hutsean ari ziren artean. Honegatik eskertu zuen Klaberia apezak Joanes Etcheberri honako bertsu hauekin:

*Burlatzen naiz Garibaiez
Bai halaber Etxabez,
Zenak mintzatu baitira
Erdaraz Eskaldunez.*

*Ezen zirenaz geroztik
Eskaldunak hek biek,
Eskaraz behar zituzten
Egin bere historiak.*

*Eskaraz egin dituzu
Etxeberri, zure obrak,
Ohoratu nahiz zeure
Ahalaz herritarrak.*

*Zer errefrau eder baita
Hizkuntza arrotzetan
Hura aditzera ematen
Daroezu beretan.*

IESVS CHRIST
GVRE IAVNAREN
TESTAMENTV
BBRIA.



MATTH. XVII.

*Haur da ene Seme maïtes, ceinesan neure at sequin ona
harsen baïtes, huns beha çaquizqnsore.*

ROCKEYLLA

Pierre Hautm. Impprimeur

1576.

ACADIVGD
Ex Legato Cl. Viri PROSPERI MARCHANDI.

*Esker bada eta aithor
Duzula berezia
Zeren xoratu duzun
Herritarren mihia.*

Irakaspen ederra dugu oraindik orain ere, fedea egintzaz betetzea komenigarriagoa baldin bada.

Ifar Euskal Herrian ideologia borrokek bizkortu zuten euskarazko literatura landua. Politika eta erlijioa nahastu ziren eta elkarren arteko norgehiagoka sortu zen lehenbizi; kalbindarrak beren dotrina berriak hedatu nahirik eta katolikoek kontra-kanpaina bat ondorean. Dena izan zen euskal literaturaren bizkortzerako eta pizteko. Horrela, XVI. mendearen azkenaldean eta XVII.aren lehenak sustraitu zuen gure literaturaren hastapena.

Con el renacimiento comenzaron los primeros brotes de la literatura culta en vascuence. Indudablemente, existía la tradición literaria oral, cuya influencia se observa en las obras de Detchepare y de Etcheberry de Ciboure.

La razón por la que el movimiento literario tomó fuerza en una de las zonas económicamente menos favorecidas del país se debe principalmente a la introducción de los hugonotes, que comenzaron a actuar por el Nordeste de Euskal Herria en la segunda mitad del siglo XVI, atrayendo a Juana de Albret, reina de Navarra, y a los señores que se agrupaban en torno a los agramonteses fieles a la dinastía navarra. Entre otras obras, pusieron en vascuence el *Nuevo Testamento* (1571).

Era difícil que prosperaran las ideas calvinistas en un pueblo católico, mas las reacciones del Concilio de Trento pronto se hicieron sentir. De la labor iniciada en oposición y reconquista surgió el movimiento literario, formándose las escuelas en el entorno de Ciboure y Sara, de donde partió la culminación de la obra *Gero*, de Axular.

No ocurrió lo propio a esta parte del país, que vivía un bienestar económico a raíz del descubrimiento de América y bajo el amparo de los fueros. Los intelectuales vascos de la época ensalzaron el idioma, pero escribieron en castellano; y en una lengua que el pueblo no entendía era imposible que prosperase el florecimiento literario. Hecho éste del que se

burló Clavería en unos versos dirigidos a homenajear a aquel escritor tan fértil, Etcheberry de Ciboure.

1976-VIII-23.

LEHEN LIBURU INPRIMATUAK

Aurten betetzen dira bosteun urte Espainian lehen liburua inprimatu zenetik. 1474an Valencia-ko hirian ikusi zuen argia *Obres o Trobes en Lahor de la Verge Maria* izenburuz, katalan hizkuntzaz idatzia zen, eta Lambert Palmart alemana izan zen bere inprimatzailea.

Urtebete lehenago hiru alemanak jarri zuten, edo jarri omen zuten, lehen inprimategia Zaragoza-n, agiriak agertzen dutenez, baina ezta ezagutzen beren liburu inprimaturik. Beraz, egoera honetan, lehenagokorik ezagutzen ez den artean, Valencia-n katalanez argitaratu zena jo behar dugu Espainiako lehen liburu inprimatutzat.

Esan beharrik ez dago liburuak gizonarentzat zelako aurrerapenak ekarri dituen. Egia esan, ezta erraz jakitea aurrerapeneri esker lortu zuela gizonak inprimategia asmatzea, edo aurrerapenen premiak eraginik behartu zuen inprimategia lortzera. Azken batean dena da bat. Eta, dena dela, lehenago eskuz izkrimaturik hain urri eta garesti ziren liburuak inprimatzeaz merkatu eta ugaritu ziren, jakintzaren aurrerapena bizkorragotzeko. Gaur egun, gizonaren zientzia guziaz liburuari loturik aurkituko dugu.

Gutenberg, Fust eta Schoffer hasi ziren, XVgarren mendearen erdialdera, Mainz hirian (Alemania) lehen aldiz letra soltez baliatuaz inprimatzen. Gutenberg-en lantegian argitaratu zen lehen liburua *Biblia* izan zen, 1456an.

Euskal Herrian argitaratu zen lehen liburua, Brocar argitaratzaileak Iruñean 1489an latinez eman zuena da, Nafarroa oraindik bere erregetzaren jabe zen garaian, Iruñeko eliz-nagusiaren esku liburu bat *Manuale secundum consuetudinem ecclesiae pampilonensis* izenez.

Ez dakigu Brocar frantsesa ala alemana zen, baina berak erabili zituen letra formatatik alemanian bere ikasketak egina zela dirudi. XVIgarren mendean Lizarran inprimatu ziren anitz liburu, Migel Egia Lizarra bertakoak eta Anvers flamendar argitaratzaileak emanak. Anvers zelako hau, Lizarratik Iruñera pasatu zen eta 1561ean Sancius Elso-ren *Doctrina...* euskarazkoa argitaratu zuen. Guk dakigunez Euskal

Catálogo de obras
euskaras
Catálogo general
cronológico

de las obras impresas referentes
á las Provincias de =

Navarra, Guipuzcoa,

Bizcaya, Madarra

á sus hijos y á su lengua euskara
hára o escritos en ella, forma-
do en vista de los trabajos de

los **D. Antonio Gallardo**

D. Brunet Nájiz y

Romero, Alende Salazar,

J. Vinson y otros con un índice

de autores por orden alfabético y
notas correspondientes arreglado
para uso exclusivo de su autor

G. de Sorraín:

: Barcelona 1891.

Herrian bertan argitaratutako liburuetatik lehenengoa. Aurretikoak herbestean ikusi zuten argia, hemen inprimategirik ez zenez.

Euskarazko lehen liburu inprimatua Bordelen argitaratu zen Etxeparerena izan zen, 1545ean. Lizarraga kalbindarraren *Testamentu Berria*, *Kalendrera* eta *ABC* Rochelan argitaratu ziren, 1571an.

Bilbon argitaratu zen lehen liburua, Julio Urkixo-ren iritiz, Mathias Mares inprimatzaileak eman zuena da, G. Ossorio portugesak, latinez idatzi zuen *De Gloria & Nobilitate*, 1578garren urtean. Mares-ek argitaratu zuen Bilbon bertan Poza-ren *De la antigua lengua de las Españas*, gazteleraz, 1587an. Baina Bilbon euskaraz argitaratu zen lehen liburua Ostolaza-ren *Doctrina* izan zen, Cole de Ibarra-ren inprimategian 1596an.

Baionan argitaratu zen lehenengoa, euskaraz, *Tresora* izan zen, 1642an, Bovrdot inprimatzaileak emana.

Gipuzkoan ez dugu aurkitzen inprimategirik XVII. mendearen azkenera arte. Donostian bazen Huarte inprimatzailea, 1672an *Relación verídica* argitaratu zuena, geroago Tolosan, 1696an *Nueva recopilación de los Fueros* argitaratu zuena bera, argitaratze honetan Ugarte bezala agertzen bada ere.

Arabako inprimategiak beranduagokoak dira. XVIII.aren lehen partean sortzen dira. Eta Gasteizen argitaratu zen 1731an Arzadun-en *Cristinaubaren dotrinaren explicacínua euskeras*.

Arnaldo Guillermo Brocar, Nafarroako inprenta sortu zuena, 1503rako Logroño-n arkitzen dugu bere lantegiarekin eta urte horretan Lacediera-ren *Liber de oraculo morale* argitaratzen du. Geroago, Brocar, Cisneros kardenalak deitua izan zen *Biblia Políglota* argitaratzeko, eta lan hau Alcalá de Henares-en bete zuen 1514-1517 bitartean. Migel Egia Lizarran inprimeria jarri zuena Brocar-en suhina zen.

Nafarroan nahikoa azkar sortu ziren inprimeriak, Bilbon XVIgarren mendearen bigarren partean, eta gainerakoan, Euskal Herrian, gutti ezagutu da XIXgarren mendera arte.

El presente año se cumple el quinto centenario del primer libro impreso en España; el mismo vio la luz en la imprenta que el alemán Lambert Palmart montó en Valencia. Dicha obra, escrita en catalán, se titulaba *Obres o Trobes en Lahor de la Verge Maria*.

Las primeras impresiones con tipos móviles se hicieron en la ciudad alemana de Maguncia a mediados del siglo XV por Gutenberg, Fust y

Schoffer. Una *Biblia* escrita en latín salió de los talleres de Gutenberg en 1456.

Un año antes que en Valencia, en 1473, se sabe que tres alemanes instalaron una imprenta en Zaragoza, pero no se conoce ninguna obra impresa que preceda en fecha a la aludida obra valenciana.

La primera obra impresa de nuestro país, corresponde a Brocar de Pamplona, siendo Navarra reino independiente. Se trata de un manual de la Iglesia de Pamplona, escrito en latín y publicado en 1489. No se sabe si Brocar era francés o alemán, por los caracteres empleados se cree que hizo su aprendizaje en Alemania. Su yerno, el estellés Miguel de Eguía (1) instaló una imprenta en Estella a mediados del siglo XVI, donde poco después se instalaría también el flamenco Anvers que luego pasó a Pamplona y fue quien imprimió la doctrina de Elso en vascuence, en 1561 y del que hoy no se conoce ningún ejemplar.

El primer libro impreso en vascuence, los poemas de Detchepare, vieron la luz en Burdeos en 1545. Y las obras del calvinista Lizarraga, el *Nuevo Testamento* inclusive, se editaron en La Rochela en 1571.

El primer libro que se imprimió en Bilbao, según Julio de Urquijo, fue *De Gloria & Nobilitate*, en 1578, escrito en latín por el portugués G. Ossorio, por el impresor Mathias Mares. Este mismo fue quien imprimió la obra *De la antigua lengua de las Españas*, del Licenciado Poza, en 1587. Y en el mismo Bilbao, en 1596, el impresor Cole de Ibarra dio a la luz la doctrina en euskara, de Ostolaza.

La obra euskara *Tresora* vio la luz en Bayona en 1642. En Guipúzcoa la imprenta es más tardía. En la segunda mitad del siglo XVII trabaja el impresor Hugarte en San Sebastián y Tolosa, quien imprimió en la capital foral, en 1696, la *Nueva recopilación de los Fueros*. En Alava no encontraremos hasta la siguiente centuria; y en 1731, se imprimió la doctrina explicada, del durangués Arzadún.

Brocar, que introdujo la imprenta en Navarra, fue quien por mandato del Cardenal Cisneros se encargó de imprimir la *Biblia Políglota Complutense*.

1974-VII-8.

(1) Por las investigaciones llevadas a cabo por J. Goñi Gaztanbide, hoy sabemos que Miguel de Eguía era guipuzcoano, hijo de Legorreta, y estaba casado con una hija del impresor Brocar.

ETXEPAREREN INGURUAN

“Bake gizonak, ulertzen ahalegintzen garanok”

“Bake gizonak, ulertzen ahalegintzen garanok” zion Espriu-k bere poema batean. Ezta gutti. Elkar ulertu ezinezko bakeak erraiak mintzen bai ditu. Eta, hizkuntzak ezta jartzen mugarik borondate onez gogotsu elkar ulertu ahal izateko. Honegatik agertu zuen katalan poeta handi honek: “*Diversos són els homes i diverses les parles, i han convingut molts noms a un sol amor*”.

Honegatik, gaurko hontan, gure literaturaren sorreraz iritziak eman dituzten atzerritarrak dakarzkigu, Vinson, Dogson, Schuchardt eta Espriu, frantsesa, inglesa, alemana eta katalana, ordena berean. Bake gizonak, ulertzen lagunduko dituztenak, gure Etxepareren inguru.

Vinson, Dogson eta Schuchardt gizon oso ezagunak ditugu euskal literaturaz zerbaite arduratu garenontzat. Salvador Espriu-k ere ezta behar gure artean aurkezpenik, zenbait aldiz gure literaturaz eta gure lurrez kezkatu da, baina hala izan ez balitz ere, bere ospea hain handia da. Donostian, nik dakidanik, inoiz eta behin eman den katalanezko teatroa bere *Primera història d'Esther* izan da, orain hiru edo lau urte dela. Poeta bezala ere oso handia da, handia eta sakona. Sakontasun horren hondarrera heltzea ezta gauza erraza. Poeta landua, poeta pentsalaria, era berritutako hizkuntzaz, gogoaren barrendik murgilduaz doana. Hasera batean nekeza egiten zaigu, baina bere gogoari hurbiltzen garelarik, beregana lotuagoko gaitu, behin eta berriz irakurriaz ere azpergaitz egitera arte. Gure egunotakoa dugu, lehenean sustraiturik geroari begira doana.

Herria, gizona, hizkuntza, ingurua, kosmosa, sinboluz nahasirik, zori bidez, jardungo zaigu bere lanetan.

Ez dakit noiztikakoa izango duen gure herriarenganako begiramen-a, baina bere obrak hainbeste hizkuntzatara itzuliak dituen poeta honek, noizbait gure herriari ere kantatu dio, “Pais Basc” izeneko poema batean. Poema honek hiru zati ditu: *Ilargia*, *Karlos Ospetsuaren hilobia* eta *Haizea*. Jatorriaz, historia etsipenez eta esperantzaz, noski. Euskafatuak “Egan” aldizkarian argitaratu nituen 1967an.

Egile honen bi poema liburu euskaratu ditut, bata argitaratua eta bestea oraindik argitara gabea, eta hoiek bide, berakin zenbait har-eman izateko aukera ere izan dut; eta jakina, gure eta beren literaturari buruzko solasak maiz erabili ditugu. Bost urte igaro dira Bernat Etxepareren eritziak ere eman zizkidanetik. Aburu jakingarriak gure literaturaren haseretako liburu honi buruzkoak.

Literatura jakintzaz hain hornitua den Espriu katalanarentzat, gure Etxepare ingles poeta zaharren kidekoa da.

Etxeparen poemeri, Vinson-ek frantsez forma aurkitzen zien, Dogson-ek eta Schuchardt-ek euskal kutsua, bertako bertsolaritza eta koblakaritzarena, kanta zaharrak lekuko. Batez ere, koblakari zaharra-
goen antza zuela esan behar. Hala ere, euskaldunok ez gara Europatik aparteko zerbait, eta inguruko kulturkidetasuna ezta harritzekoa.

Dogson-ek ez dakit zer neurritan ezagutuko zuen Inglaterrako Erdi Aroko literatura. Behar bada, ez zitzaion gogoratu konparaketa egiterik ere. Dakiguna da, Provenzal literaturak, poesian bereziki, influentzia handia izan zuela Frantsian eta Euskal Herrian bertan (Zuberoako kanta zahar asko ditugu lekuko).

Baina Salvador Espriu-k oso ongi ezagutzen du Provenzal literatura zaharra; eta Etxepareri, inoren antzik aurkitzekotan, esan dugun bezala, Erdi Aroko ingles poetena aurkitzen dio. Jakina, Espriu-k hain ongi ezagutzen ez duena, zera da, Euskal Herriko bertsolaritza eta koblakaritza. Guk geuk ere, egia esan, ez dugu material zaharretik gehiegirik, behar bezalako konparazio azterketak egin ahal izateko, eta konparazioak egiterakoan geroztiko herri kantekin gehiago baliatu beharra dugu, lehengorik urri dugulako.

Lehendik ditugun eritziez gainera, Espriu-ren hau ere haintzat hartu beharra dugu. Gure Etxepare "Poetagan —poeta handi bat noski, adiarazteko eretan hain lotura borobilak aurkitzen ez badira ere— oraindik Erdi Aroko taxura nabari da; hain zuzen, lehenagoko ingles poeten kidetasuna du, haien pareko izan ez arren; hauxe da, behintzat, nire inprezioa. «Judizio jenerala», «Ezkonduien koplak», «Amorez errekeritzia» eta «Amorosen disputa» poema ikusgarriak dira. Liluragarriak, «Kontrapaz» eta «Sautrela»; ikaragarria, «Mosen Berbat Etxepare kantua»; oso sinpatikoa, «Emazte fabore», hain ongi azertaturiko hamairugarren bertso horrekin".

Ikusmolde polita benetan. Lehenez gainera argigarri zaiguna. Gainera, oraingo hau, gu bezala herri-minez kezkatu arituz dabilen bategandik, edo kezka honen indarrez bere herriko literaturagintzan goi mailalara heldu dena. Honako hitz hauek esan zituena:

*Itsu zaharrai galdetzen zion izuak
bihar nere herririk izango ote nuen.
Eta ezpainik gabeko ahoak hasi zuen
inoiz bukatzen ez dan irri-barrezko algarra.*

Salvador Espriu, poeta de grandes dimensiones, autor de varias obras teatrales, no necesita de presentación entre nosotros, aunque le citemos en esta ocasión junto a nombres extranjeros muy conocidos en la crítica de la literatura vasca. Espriu, alguna vez se ha ocupado de nuestra cultura y de nuestra literatura, e incluso nos ha dedicado un poema bajo el título "Pais Basc" ("Revista de Occidente", año IV. Seg. ép., núm. 42). A raíz de una traducciones suyas entablé contacto epistolar del que derivaron comentarios de interés en torno a nuestras respectivas literaturas, particularmente sobre las posibles influencias de la poesía medieval inglesa en la obra de D'Etchepare, autor del primer libro impreso en vascuence, en 1545. Libro de poemas, que son las primicias de nuestra literatura.

Vinson encontraba influencia francesa en la obra poética de D'Etchepare, para Dogson y Schuchardt estaba enraizada en la vieja poesía popular vasca, algunos opinaron derivar de los trovadores provenzales; pero, para Espriu, de encontrar alguna semejanza, la tiene de la poesía medieval inglesa.

Como el país vasco no es ningún cuerpo extraño en el occidente de Europa, a decir por Telesforo de Aranzadi, nada tendría de particular que hubiera un poco de cada corriente. Todas las opiniones son dignamente considerables, sobre todo cuando parten de hombres que han sabido tratar con nobleza y cariño los materiales de otras lenguas distintas a la suya.

*"... homes de pau,
que procurem entendre."*

1974-VI-10.

ILUSTRAZIOAREN ERAGINA EUSKAL LITERATURAN

Lehenago, Pizkunde garaian, ideia berritzeak, inprimerien sorrera eta erlijiozko borroken eraginez Euskal Herriko ifarraldean literatura-gintza hasi zen bezalatsu, Hamazazpigarrenaren azken partean inprimategietan brontzezko plantxak zurezkoen ordeztartzean liburuak apain-garriz irtetzen hasi ziren, lehenago eskuz egin beharrezko hornidurak inprimatuz, eta berritzeok idazkera bera ere aldatuz. Ilustraziogabeko liburuek, ilustratuak bere ederrez adiarazten zuten inguru haren ordezt,

beharrezkotzat zuten idatzitako adiarazpenaren ingurua agertu beharra eta hemendik etorri zen idazmoldeen aldakuntza, baina baita ere ideian berritzeak eurak ere izan ziren ilustrazioaren mugitzaile. Orduan, era berritze honek zer ikusi handia izan zuen Euskal Herriaren hegoaldean, literaturagintzari heltzeko.

Lehendik baziren zenbait dotrina euskaratuak, ahozko literatura ere bere aldetik jarraitzen zen, baina literatura landua esan genezakeana orduan hasi zen. Kulturadunak ziren aurrenengo, baina herriarentzat idatziaz. Seguru asko era berrien eraginak mugitu zuen Larramendi, euskaraz guti baino idatzi ez bazuen ere, hor ditugu hiztegia, gramatika (*El imposible vencido* delakoa), "Corografía" eta abar. Bere inguru, Mendiburu, Kardaberaz eta Ubillos, gehiena erlijio gaiez egin bazuten ere, herria kultur bideetara eramaten ahalegindu ziren, herriari bere hizkuntzaz adiaraziz. Ondorean Enziklopedia zaleak agertuko ziren eta, hoién kutsapenak jarriko zituen alde hontako euskal literaturaren oinarriak.

Behar bada, edo seguru asko, Sor Luisa izenordez Peñafiorida-ko kondeak 1762an agerrarazi zuen "Gabon-sariak" izeneko antzerki erako lanak markatzen du gure egiazko ilustrazioaren sarrera.

Xabier Maria Munibe, Peñafiorida-ko kondeak, Frantziatik haize berriak ekarri zituen, eta lehendik errotzen zetorren euskal literaturaren girora lotu zen, Larramendi eta bere jarraitzaileak, Joanes Etxeberri Sarakoa (1725. urtetik 1749ra arte Azkoitiko mediku zena), Mondragoeko eskribau zen Barrutia, Gernikako de la Gandara eta abar, hemen ziren euskal literaturaz kezkatuak.

Azkoitiko "zalduntxoek" hasiera bateko giroa oso euskaltzalea izan zen; geroago, zoritxarrez, erdaraz landu zituzten beren gaiak. Dena dela, hor dago "Gabon-sariak" izeneko agerraldia, gure ilustrazioko lehen izpia erakusten diguna. R.S.B. de los Amigos del País deitu elkarte bera sortu baino lau urte lehenagokoa.

Kutsapenezko eraginetan ezta gauza erraza muga zehatzak jartzea, baina mugarik jartzekotan Miserikordiako Sor Luisa-ren izenez agertu zen "Gabon-sariak" jarriko nuke nik. Hala agertu nuen 1974ko abenduaren 27an Azkoitiko Insausti jauregian irakurri nuen txosten hartan (Ikus, "Euskera", XX, 1975, 453/458 orrialdeak).

Teatro antzera egindako obra honek, ikasi batek egindako kanta herrikoiak ditu. Estilo jolaskorra, baina batez ere erudiziozkoa, jakintzaz hornitua, eta hau da hain zuzen ilustrazio garaiko agergarrikerik bereziena.

Gizarte krisis handien inguruan idatzia da eta bere gogoko gizartegintza berria kantatuko zuen Jesus Salbatzailearen ohoretan.

Behar bada Bergarako Mintegiaren sorrera ideiak bere baitan hasi ziren garaia eta *Testamentu zaharreko* pasarteak gogoan (Isaias, II, 4.):

*Ezpatak, lantzak eta
beste arma guziak
Erositzen dituzte
Errementariak;
Ta alperrikan ez dediñ
Galdu burni hura,
Enpleatzera diaz
Gure probetxura.*

*Atxur, burdiñara ta
Golde bihurturik,
Nekazari langiñak
Ongi giaturik,
Emango digu lurrak
Garia ta artoa,
Gaztaña, sagardoa
Ta ardo nahikoa.*

Idealetan gora joango da eta Paradisu berri baten ametsa ekarriko digu:

*Ez da honezkero esango
Gezurrik batere,
Egia esango dute
Dendariak ere:
Juan da hemendik tranpa
Ta pede gaiztoa
Ia ur bage saltzen da
Tabernan ardoa.*

Honela, Hamazortzigarren mendearen azkenaldirako euskal literatura tinkatzen da mugazemendik, era aski irekian, ondotik etorriko zaizkigu Añibarro, Mogeldarrak, Mateo Zabala, Iturriaga eta abar, Iztuetarekin erromantikoen garaira lotu arte eta hauegandik gure gizaldira arte.

En la literatura culta, el país vasco peninsular arrancó con dos siglos de retraso respecto al país vasco continental. Al margen de la tradición oral que venía de siglos atrás, el movimiento literario escrito, como tal movimiento en vascuence, se introdujo en Guipúzcoa y Vizcaya por el influjo de las corrientes del Ilustracionismo.

Larramendi, Cardaveraz, Mendiburu y Ubillos fueron los principales iniciadores, sin olvidar a Joanes de Etcheberry de Sara (médico de Azcoitia en la primera mitad del siglo XVIII) y Javier María de Munive, Conde de Peñafiorida. Este último fue quien marcó las nuevas orientaciones de las letras vascas con su "*Gabon-sariak*" (1762), al que le siguió "*El borracho burlado*" (1764). Y que tampoco debemos olvidar a sus contemporáneos Barrutia de Aramayona y De la Gándara de Guernica.

El caso es que, con el Conde de Peñafiorida, tomó un nuevo rumbo la literatura culta; y la continuidad con los Moguel, Añibarro, Mateo Zabala, Iturriaga, Aguirre de Asteasu, Iztueta, etc., fue tomando cuerpo, para darle en muy pocos años una perspectiva amplia al desarrollo literario que ininterrumpidamente llega hasta nuestros días.

1976-X-11.

XVIII. MENDEKO BIZITZA ETA OHITURAK EUSKAL LITERATURAN

Literatura, historian zehar, bizitza molde askoren iturria dugu, lan askok jasotzen bai dituzte bere garaiko gizartearen bizi era eta kezkak. Maiz, literaturako obra asko, bere garaiko kronika bikainak dira, eta gaur, historia herrien eboluzioaren aldetik gehiago begiratzen den denboran, beharrezkoak ditugu literatura lanok igaro ziren denboren gizartearen iturritzat. Alde honetatik asko dugu egitekorik eta askok hainbeste aldiz ukatu diguten euskarazko literaturak badu zer eman garrantzizkorik. Bere emaitza hain ugaria ez bada ere, behar beharrezkoa herri bat bere sustraietatik ezagutuko badugu.

XVI. mendean Garibayk utzitako kondairak alde batetik eta errefrau zaharrak (1596koak) bestetik; XVII. ean Oihenart bere kondairekin, errefrau eta poemekin, Joanes Etxeberri Ziburukoa bere *Manual Devotionezcoa* (1627) deitu liburuarekin, bizitzako une larri askotarako otoitzez, bizitza bere agertzen duelarik; Sarako eskolaren pentsamenduak, Hoyarzabal-Etxeberriren nabegazioneko liburua (1677an argitaratua).

tua), eta abar. Lan hauk oraindik ez dira aprobetxatu behar diren neurrian, eta hauek gabe ezin dezakegu egin ganorazko historiariak.

Baina goazen, kontu honetan, XVIIIgarren mendeari lotzera. Hemen material ugariago dugu, eta XIXgarrean, zer esanik ere ez, askoz ere gehiago.

Behar bada, XVIII.mendekorik ez dugu hain ugari, baina duguna bai biziki ona. Larramendik idatzi zuen *Corografía-z* aparte (1757an idatzia eta 1882an argitaratua), eta G. Humboldt-en ibilaldi ezaugarriak ere alde batera utzirik —ezagunagoak bai ditugu—, bada euskerazko literaturan besterik. Pedro Inazio Barrutiaren antzerkiak (1757) garaiko siniskeriak jasotzen bai ditu ere, gizarte-kondaira aldetik besterik ditugu Juan Antonio Mogel (1745-1804) eta Juan Inazio Iztueta (1767-1845) idazleen lanak, lehenengoa *Peru Abarca*-kin (1881era arte argitaratzerik izan ez zuena), eta bigarrena bere *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira* (1824) —lan honen eraskin bezala, handik bi urtera, *Guipuzcoaco soñu zar eta itz-neurtu*-ak argitaratu zituen—, baina batez ere *Guipuzcoaco provinciaren condaira* (1847) egilea hil ondorean argitaratua.

Hamazortzigarrenaren erditik hondar alderakoa da idazle hauek jasotzen dutena. Gauzak bat batean sortzen ez direnez, gero agertuko dugun bezala, lehenagotik etorren herriko ohiturak jasotze hori. Mogekek, bere *Peru Abarka*-ri elkar-hizketa moldea eta funtsaren ideia Juan Luis Vives-engandik hartu zuen; baina herri ohiturak era horretara jasotzea oso berea du Mogekek.

Peru Abarka-n, euskara biziaren garra adierazteko, Peru eta Maisu Juan-en arteko elkar-hizketan bidez kontatzen ditu garai hartako bizi-modu erak, horduko ola zaharrak zer ziren, linuaren lanak sorotik hasi eta atorra bihurtu arte, anatomia, bertsolaritza, barberuaren lanak, eta abar. Garaiak giroturik jaso zuen horrela, noski.

Europan, XVIII. mende erdialdetik sortu zen herri ohiturak haintzat hartzea eta letretara jasotzea. Eta, hauek, gaur egun beharrezkoak ditugu herrien bereizkuntzat eta beren kondairak ezagutuko baditugu.

Thomas Percy-ren *Reliques of Ancient English Poetry* lanak, 1765ean argitaratuak, lehenengo Britainiako isletan eta gero, poliki poliki, Europa guzian sortu zuen herri-kanta zaharrak jasotzeko zaletasuna. Ondorean jatorrizko ohitura herrikoien bilketak egitea, kantuez gainera, beste gauza askoren artean, gizarte bizitzara arte. Herrien jatorrizko kultura honi, William John Thoms ingles arkeologoak deitu zion lehen aldiz “Folklore”, Londres-ko “The Atheneum” aldizkarian agertu zuen estudio batean 1846an. Jardunak ekarri zuen izena, zeren argi dago mende bat lehenagotik arduratu zirela langintza horietaz.

Europako giro horrek eraginik, bestela ez da ulertzen garai berean —edo zerbait ondoreago— zelan egin zezazken Iztuetak burutu zituen lanak. Iztueta ez zen jakitun handi bat, baina gizon herrikoï zuhurra zenez, argia eta jakintzaz arduratua, bere egoera apaletik ongi bete zezazkean hain agerian zituen ohiturak biltzea. Iztuetaren lehen lanak, dantza, doinu, musikagailu, kanta, bertsolaritza eta beste zenbait jostaketa. Baina bere azken lanak, *Gipuzkoako probintziaren kondaira*-k, orduan modan ziren zenbait fantasia alde batera utzirik, gure historiako berri jakingarriak dakarzki. Bigarren parte guzia eta hirugarrenaren lehen zatia probintziako bizitza, langintza eta ohituren buruzkoa dugu. Zehatz mehatz ematen du Gipuzkoako herrietan zer zen eta zer egiten zen, estadistika ta guzi, 25. orritik 255. ra bitartean, berri ugariez.

Lan ttipiagoen artean, J. A. Mogel eta J. I. Iztueta-renak ditugu aipagarrienak. Hauek haintzat hartu gabe ez da Euskal Herriko XVIII. mendeko gizarte historia serioa egiterik. Iztueta berak bere hitzez zion bezala:

*Non nekatu badute gizon jakintiak
Eman nahi badituzte hemengo herriak.*

Hauek, etnografia laneri loturik emanen digute lehenaren berri.

XIX. mendean material ugariago dugu, karlista gerrateko bertso-paperak orduko ideen eta gertaeren argigarri baditugu ere, A. Chahoren (1810-1858) koronikak, erromantiku kutsuz puztuta daudelako kontuz begiratu behar baditugu ere, berririk aski ematen digute. Eta Hiribarrenek *Eskaldunac* (1853) poeman ere ohitura hoietakoak jasotzen ditu, baina hemeretzigarrenari jarraitzen badiogu luze joan gindezke.

Exponemos algunas observaciones sobre lo que pueden aportar algunas obras de la literatura vasca a la historia del país, concretamente en obras del siglo XVIII. Si bien algunas nos vienen reflejando aspectos de la vida tradicional desde el siglo XVI, diríamos que es sobre todo desde el XVIII de una manera evidente, e incluso siguiendo criterios de las recopilaciones folklóricas, como en el caso de Iztueta. Del siglo XIX ya disponemos de abundante material.

Ahora que las historias se presentan, en su concepción moderna, como una evolución de la conciencia colectiva, desde el punto de vista de su desarrollo social, económico y cultural, los historiadores, etnólogos y

sociólogos prestan mucha atención a la literatura. Y es en este punto donde el vascuence, como vehículo de expresión, es el elemento indispensable para la transmisión de la cultura tradicional.

Sobre vida social y costumbres del siglo XVIII, aparte de la *Corografía* de Larramendi (obra escrita en 1757), hacemos resaltar el valor positivo que encierran las obras de Juan Antonio de Moguel y Juan Ignacio de Iztueta, principalmente, como descripciones etnográficas. Este último, aunque escribió en el siglo XIX, las tradiciones populares que él recoge pertenecen al siglo anterior. Siguiendo las corrientes de la época, Iztueta fue el iniciador consciente de las disciplinas de una especialidad que recogía las costumbres vigentes, y que un año después de su fallecimiento comenzarían a llamarle "Folklore" para distinguirlo de la ciencia arqueológica.

Ambos autores coinciden en ser los primeros cronistas del bersolarismo.

1972-VII-24.

TEATRO ZAHARRA

Euskarazko teatro zaharraz jardutzean nor nahiri bururatuko zaizkio Zuberoako pastoralak, hauek Erdi-Arotik datorzkigun herri teatroak direnez. Pastoralak, izan ere, aparteko teatro jenero berezi bat dira, gure herri literaturari nortasun handia ematen diotenak. Hontaz argibiderik behar duenak G. Hérelle-k RIEV aldizkarian 1907tik 1926ra bitartean argitaratu zituen lan jakingarrietan bilatu lezake.

Gaur hemen ikutu nahi dudana bestelakoa da, egile jakinak molde klasikoagoetan edo beste hizkuntzetan ugari landu den teatro motetakoa. Bere lehen agiri idatziak XVIIIgarren mendearen erdi aldekoak dira: P. Barrutia, Sor Luisa eta X. Munibe egileenak.

Uste dugu garai haretan bazirela herriz-herri erabiltzen ziren edo ibiltzen ziren ahozko teatroak, Bourges-ek aipatu zituen erakoak. Elémir Bourges-ek Donibane-Lohitzunen ezagutu zituen XIXgarren mendearen azkenaldera eta haietako batetik egin zuen bere *Gonzalve*. Hala aipatzen omen du J. Variot-ek bere *Théâtre de Tradition populaire* lanean P. Lafitte-k *Gonzalve* euskaratzean egin zion hitzaurrean dionez, eta Bourges-ek euskal teatro araberan egindako antzerki horrek teatro español zaharreko "entremés" hoberenen eite handia omen du. Baina ahozko hauek nonbait galdu zaizkigu eta nekez aurkitu lezake.

Honegatik, XVIII.eko hirurak eman beharko digute zitekeanaren lehen argi laburra. Argi motelegia ezertariko eskola oinharririk jarri ahal izateko, batez ere ezagutzen diren hirurak elkarregandik aski desberdinak direnez gero.

Hiru antzerkiok Auspoa argitaldariaik agertu zituen *Teatro zaarra* izeneko liburu batiak bildurik (Auspoa Liburutegiaren 48. zenbakia) 1965ean, G. Arestiren hitzaurrez. Hamazortzigarren mende hortan laugarren bat ere ba omen zen. Joakin Azpiazu josulagunaren *Euskera zaarraren apurtxoak* izeneko hitzaldian agerrarazia (ikus *Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak*, 132/134 orr. Euskaltzaindia, 1926) baina geroztik bere berririk ez duguna.

Pedro Barrutia (1682-1759) Aramaion sortua eta Arrasateko eskribauak XVIII.ren lehen partean idatzia utzi zuen *Gabonetako ikuskizuna* (edo *Acto para la Noche Buena*) izeneko komedia bat. Bere egiturak, herri teatroa bada ere, ez du ikustekorik Zuberoako pastora-lekin, ezta geroztik ezagutu ditugun euskarazko komediekin ere. Umoretsua da, pertsonajeak eta teatrularien buruak maiz nahasten dira eta gainera moldeetan ba du gaurko teatrogile famatuen aide bat. Tokiak ere bere erara erabiltzen ditu eta Arrasatetik Belenera, Oinatira haina bide dago. Garaiko sineskera, kuttunak, azti jauna, belar sendagarriak eta abar erabiltzen ditu Gabon eta Jaiotza inguruan. Irudimenari amain emanik doa zein batean hala bestean.

Sor Luisaren *Gabon-sariak* 1762an Azkoitian agertuak dira. Batzuen ustez X. Munibek bere parte a izan zitekean antzerki honetan. Egia esan, bi eskuren lana nabari da, baina gure eritzian batak ere ez du *El Borracho burlado*-ren egilearen antzik, batez ere euskararen aldetik. Sor Luisak egin zion sarrera hitzetan dionez. Martin Beltz izeneko koblakari zahar bat izan zuen bertsogintzako laguntzaile, eta lanari begiratu bat eman ondoren argi asko agertzen da noiz ari den Sor Luisa eta noiz koblakari zaharra, bertsoen molde arauetara begiratzen badugu. Behar bada, gaiak biziagoak ere molde jatorrezkoetan nabari dira. Martin Beltzen ahotik herria mintzo da, ilustrazionismoaren eraginez eta matxinaden ondorean zituen kezka agerrereziaz, eta obraren azkenaldean, koplak jostailuetan, justiziaren alderako ideiak dakarzki mezu erara.

Franzisko Xabier Maria de Munibe e Idiakez, Peñafloidako Kondea, dugu *El Borracho burlado* komediaren egilea, 1764an Bergaran argitaratua. Erdara-euskara bi hizkuntzak nahasturik umore jarioz egina da. Maiz erabiltzen du bertsoetarako zortziko txikiaren neurria, baina Sor Luisa-renean baino bertso traketsagoak agertzen dira. Beraz, Munibek Sor Luisa-renari ikuturen bat edo konponketaren bat egin

zezakean, komediagile azkarragoa agertzen denezkero, antzerki moldaketaren aldetik, baina ez gainerakoan (1).

Muniberen obra, alaia, jolaskorra eta oso bizia da, herriaren entretenigarri egina. Bere moldez ezeren antzik izatekotan frantsezen Erdi-Aroko *farce* haien kutsua du. Egia esan, Moliere eta Racine-k ere *farce* haietan dituzte beren aide oinharriak eta Munibek autore entzutetsu horiek ezagutuko zituen noski, Frantsian estudiatu zuenez.

Dena dela, euskal literaturan lan bitxiak ditugu XVIIIgarren mendeko hiru antzerki hauek.

Geroztik, joan zen mendearen azkenaldera sortu zuen Marzelino Soroak Donostia inguruko teatro mugimentua, gure literaturan garai berezi bat markatzen duena, eta bere azken jarraitzailek azkarrenetakoak izan ziren mende honen hasieran T. Altzaga eta A. Barriola.

Del antiguo teatro vasco, aparte de las pastorales, teatro suletino de ascendencia medieval y que para G. Hérelle fueron motivo de meticulosos estudios, solamente disponemos de tres obras de mediados del siglo XVIII. Hubo teatrillos populares que funcionaban de feria en feria con obras que debieron transmitirse por vía oral y que el escritor francés Elémir Bourges llegó a presenciar algunas a finales del siglo pasado en San Juan de Luz. Eran del género de entremeses y en una de ellas se inspiró Bouges para su obra *Gonzalve*. Pero de aquellas piezas teatrales nada escrito ha llegado hasta nosotros.

Referente a las obras del siglo XVIII, de la primera de ellas, Pedro Barrutia (1682-1759) dejó un manuscrito de *Acto para la Noche-Buena*, que debió ser representada en Mondragón en la primera mitad del dieciocho. Obra de desbordante imaginación, donde actores y personajes se entremezclan como en algunas obras de distinguidos autores contemporáneos. El tema se desarrolla en un ambiente popular, donde no faltan creencias mágicas y fórmulas de medicina popular.

Sor Luisa, es la autora de una obra cantada que fue representada en Azcoitia en 1762. Colaboró con ella un viejo trovador cuyas estrofas se destacan por su técnica de bersolarismo y por las ideas de la época que emana a través de sus cantos. Una poesía comprometida, diríamos,

(1) Hala ere, gaur egun badakigu Sor Luisa izenpean Peñafloreda-ko kondeak idatzi zuela "*Gavon-sariac*"; L. Akesolo eta J. L. Telletxea Idigoras jaunek eman dizkiguten argibideen ondotik. Ikus, neronek Euskaltzaindian aurkeztu nuen txostena: *Euskera*, XX (1975), 453-8 orrialdeak.

dentro del contexto social que siguieron a las revueltas de las "machinadas".

El tercer autor es X. Munibe, el Conde de Peñaflorida, con una comedia bilingüe a la manera de las farsas francesas del alto medioevo. Emplea un humor socarrón, y frecuentemente recurre en euskera al verso de métrica del *zortziko* menor.

Son tres piezas muy originales éstas del siglo XVIII, sobre todo la de P. Barrutia.

Modernamente, a finales del XIX, se desarrolló un importante movimiento en el cultivo de comedias teatrales euskéricas en San Sebastián. Su iniciador fue Marcelino Soroa y, de entre sus muchos seguidores, a primeros del presente siglo, destacaron T. Alzaga y A. Barriola.

1973-X-22.

ERROMANTIKOEN GARAIA

Euskal literaturak XIX. mendean jarri zituen bere erro sendoak. Pizkunde garaian, XVI.ean, Etxepare eta Leizarragarekin ifar Euskal Herrian hasi zen literatura idatzia lantzen, ifarraldean bertan mamitu zen barrokoan (XVII.ean), Saratik Ziburura girotu zen eskola haren buru Axular zela. Alde hontan, aldiz, XVIII. mendearen hastapenetan iratzartu zen, Larramendigandik hasita, Ilustrazioaren eraginez eta neoklasiko giroz lehen ekintzak agertuz. Baina bai mugazandik eta bai mugazemendik, literatura mugimendu indartsu bezala lortzea joan zen mendeko erromantikoen garaitik datorkigu.

Une horretatik abiada handiagoa dakar gure egunok arte.

Erromantiko garai hortan Austro-Hungaro inperioa eroriaz Europako herri asko beren nortasunez jabetu zen. Eta gurean ere izan zen iskanbilarik aski eta baita gudu negargarririk ere. Baina foruak galduaz herriaren nortasuna galzorian jarri zelarik, ondore bezala berbizkunde berri bat loratzen hasiko zen mendearen bukaerara. Horrez gainera industriaketa handien garaia zetorren Labe Handiekin eta gizarte aldaketak geroago eta abiadura handiagoz ariko ziren. Cadiz-ko Konstituziotik lehen abertzale mugimenduak eta lehen langileria mugimenduak hasi ziren arte bada hor historia nahasi eta luze bat oraindik zehatz estudiatu gabe. Egia esan, azken urte hauetan aurrerapen

asko egin da parte hontako historia azterketetan eta lan ederrik ere bada. Guziak aipatzera zerrenda luzea eman beharko nuke. Hala ere, berriz diot, badela hor oraindik zer jorratu.

Gaurkoz, adiarazpen hori utziaz, goazen eragin horren inguru bizkortu zen literatura ikustera.

Erromantikoen garai hura ez zen ernaitu burruketatik bakarrik. Ba zen besterik ere. Aspaldiagotik inglesak folklore bilketaz hartua zuten bide bera hartu zuten kontinenteko herriak ere eta beren nortasunak zuzperten hasiak ziren. Gainera, literaturaren balio berriak planteatu zirenez, hau ere mugitzaile bihurtu zen.

J. I. Iztueta dugu aldi berri honen hastapenean, bere folklore bilketaz. Ez dakigu zenbateraino ohartua zen bere baitan, behar bada ekintza berriaz jabetu gabe aritu zen. Nere ustez, ondorioz arduratu gabe lan egin zuen, baina garaiko modak eraginik eta honen jakinaren gain.

Folklorea sistematikoki biltzen lehen lehena izan zen Penintsulan, katalanak eta gaztelarrak baino lehenagotik noski, Joakin Maria de Navascués-k bere historiagintzan holakorik ez bazekien ere. Eta egunen batean gure Iztuetari eman beharko zaio ohore hau. Bere obrak hor daude, Hemeretzigarren mendearen lehen partean euskaraz idatziak.

Gainera, erromantikoen garai hortan, bereziki, euskal literatura mundutarra indartzen da. Eliz liburuak lehenengo martxan jarraitzen dute baina gainerako mundutar gaiak gehituaz hasi ziren, idekiak eta aberastuaz. Lehenagokoekin proportzioen konparaketak egiten baditugu, sekular gehiago aurkituko ditugu. Bertsolaritza ere bizi zegoen berriak baditugu, eta karlisten gerrateetan bertso paperak propagandarako zuten balioa ere ezagutzen dugu.

Iztuetaren ondotik kultura urratsen datoz, mugazandik D'Abbadie (1810-1901) euskaltzale paregabea poesia sariak jarriaz herriz herri ibiliko zena eta Chaho (1810-1858) kondairak idatziaz eta lehen euskal politikaren ideiak emanez; mugazemendik Iparraguirre (1820-1881) herriaren sentipenez poesiagintzan eta hauek ber-berak gitarraz kantatuz eta Bilintx (1831-1876) maitasunezko kantak era erromatikorik bikainen egingo zituena. Hauek izan ziren garai hartan herriaren ohitura jatorrerri eusten eta hauetan sustraiturik garaian garaia zegoen arabaraz era berritzen.

Mendearen hasiera berean Gilen Humboldt alemanaren estudioak ere izan zuten ikustekorik euskal kulturazko lanak zuzpertzaz, eta mendearen erdialdera etorriko zitzaigun Luis Luziano Bonaparte printzea gure euskalkiak ikertzera eta lehen atlas linguistikoa egitera. Eta herri kanten bilketak eginen zituzten G. Borrow, Fr.-Michel eta beste

zenbait arrotzek. Herritarrik ere bazen. Oroi Sallaberryren kanta liburua eta J. Manterolak sortu zuen kanta bilduma aldizkaria.

Jose Manterola gaztetxo zelarrik sartu zen euskal kulturako lanetan, Gipuzkoako gida liburu bat idatzi zuen hogetabi urte besterik ez zituenean eta bere barnetik zekarren gogo gartsuari esker, hala bere jakinduriari, Donostiako Biblioteca Munizipalaren zuzendari izendatu zuten, eta 1876ko uztailaren batean foruak kentzeko eman zen legearen kontra protesta egin zuelako Institutoko katedratik bota zuten. Baina holako zigorrak gizonari ez diote bere gizentasuna kentzen. Urrengo urtean "Cancionero Vasco" deitu aldizkaria sortu zuen eta handik lau urtera "Euskal Erria" aldizkaria, honen inguru Euskal Herriko intelektuallak lanera lotu eta bultzatuaz.

Manterolaren eraginetik sortu zen inoiz gure artean Donostiako eskola esanez adiarazi duguna, poesia, ipuiak eta antzerkiak argitaratuaz. A. Arzak, M. Soroa, B. Iraola, R. Artola, P. López Alén, S. Baroja eta beste, Karmelo Etxegaraireren belaunaldira arte bazen langile azkarrik euskal idazleen artean.

Erromantikoen eragin hau, azkenean, Bizkai aldera kutsatu zen. F. Arrese-Beitia dugu erromantikoen azken aldi hortan, eta horien gogoia beste maila batera eraman zuten Arana Goirik politikaren aldetik eta Azkuek hizkuntza ikerketa aldetik. Eta, hein batean, nork esan hoiek ere erromantikoak ez zirenik?

Jakina, garai honen bukaeran inoiz ere ez dugu ahaztu behar J. Vinson zenak bibliografia katalogatzen egin zuen lan handia, ukatu ezinezko kultura baten agiri ederra.

Los primeros brotes de la literatura escrita en vascuence surgieron en el reino navarro, en su período final, impulsados por la corriente del Renacimiento, y que fue afianzando sus bases en el barroco con la escuela de Sara-Ciboure que culmina con la obra de Axular.

En el siglo XVIII, dentro del contexto neoclásico y con influencias del Ilustracionismo arranca el cultivo literario a esta parte del país, principalmente en Guipúzcoa con Larramendi y sus seguidores, sin olvidar la valiosa aportación de Javier María de Munive, Conde de Peñaflores.

Entre los hitos que va marcando el tiempo, el período romántico del siglo pasado es lo más importante y decisivo para el florecimiento de la literatura euskara. Este gran movimiento se inicia con Iztueta que empieza una recopilación sistemática del folklore, que supone una

valoración del acervo popular, del que los extranjeros Borrow y Fr.-Michel se interesaron de lleno en fecha inmediata al zaldibiarra.

Las guerras carlistas, la pérdida foral, la iniciación del gran desarrollo industrial, transformaron las estructuras sociales del país y mucho tuvieron que ver con la toma de conciencia. Pero sobre todo, D'Abbadie con los famosos concursos de poesía, Chaho con sus ideas políticas, Iparraguirre con sus canciones y Bilintx con sus finas poesías amatorias contribuyeron eficazmente al gran desarrollo del cultivo literario. Marcan, además, la importancia de la literatura profana. Por otra parte, la labor científica del príncipe L. L. Bonaparte también sirvió de estímulo en el despertar, en la larga trayectoria que va desde Humboldt hasta Vinson.

José Manterola que fue director de la Biblioteca Municipal de San Sebastián, que en 1876 fue depuesto del cargo de catedrático del Instituto por su protesta contra la ley de la abolición foral, es el hombre clave del gran movimiento literario. En 1877 creó el "Cancionero Vasco" donde iría recopilando canciones y poesías y en 1880 fundó la revista cultural "Euskal Erria". De esta iniciativa suya surge en San Sebastián de finales de siglo aquel ambiente literario con interesantes aportaciones en poesía, teatro y cuentos, con autores como A. Arzac, M. Soroa, V. Iraola, R. Artola, P. López Alén, S. Baroja, etc. Su repercusión trascendió a otras provincias, sobre todo a Vizcaya, donde hallaremos el último de aquellos románticos en F. Arrese-Beitia.

1976-XI-1.

IPARRAGUIRRE (I)

Euskal poeta erromantikoen artetik foruen alde irten zenik gartsuena Iparragirre zen noski. Herriaren sentipenak kantatuko zituen koblakari berria. Ez zen ez Xenpelarrek desafiaturik baserritar legeko bertsolaritzan plazan bat-bateko bertsoetan arituko zen horietakoa, baina bai alde aurretik gertatutako bertsoz eta musikaz kanta ederrak sortuko zituena. Era berri bat zekarren bertsolaritzatik baino koblakaritzatik hurbilago zebilen kantari honek.

Gure poeta hau Urretxuan jaio zen 1820ko abuztuaren 20an. Bost urte zituenerako Zerainen zuten osaba maisu baten etxera bidali zuten eskolak hartzera, eta hamabi urterako Gasteizera bidalia zuten latin eta bestelako estudioak egitera. Gurasoak Madrid-era joan ziren bizitzen,

han gozotegi bat jarriaz eta hamahiru urte kunplitu gabe hara eraman zuten, eta jesuiten ikastetxe batean sartu zuten.

Ikusten denez, gurasoak asko arduratzen ziren mutilaren eskolekin, baina hau nonbait gogaitu xamar edo herri-minez zen. Errege Fernando VII.aren heriotzarekin, 1833. urteko irailaren 29an sutu zen lehen karlistadaren gudua. Jose Mari Iparragirrek 13 urte besterik ez zituen, eta goiz batez, "Ama, banoa eskolara" esanez alde egin omen zuen eta Euskal Herrira jo omen zuen. Zeraingo osaba maisuarengana. Honek apenaz ontzat hartu zuen ilobaren jokabidea, eta Lazkaora bidali zuen konfesatzera. Ez dakigu agindua bete zuen, baina laster ihes egin zuen osabaren babespetik karlisten kanpamendu batera boluntario presentatzeko. Foruen defentzaren deia sentitu zuen hamalau urte bete zituenerako.

Idurimen argia eta odol bizia omen zuen, eta izakera honen bultzadaz abentura zale. 1834-1839ko lehen karlistadako gerra honetan hiru aldiz zauritua izan omen zen, Bizkaiko Arrigorriaga eta Kastrexanana eta Nafarroako Mendigorriaran.

Bergarako besarkada hura, Espartero eta Maroto bide, konponketazko akordioa omen zen. Dena dela, Esparterok foruak errespetatzeko hitza eman zuen, baina ondorean saldukeria bihurtu zen. Alde aurretik susmo txarra hartu zutenek ere baziren, eta hauen arteko gure Iparragirre. Eta hauetarik asko herbestera tu ziren eta Iparragirre bera ere han zen desterruko ogi mingotsa jatera.

Buhame bizitzaren hasiera da. Honako kanta hau bururatuko zuen ibileraren hasiera:

*Gazte gaztetatikan
Herriatik kanpora,
Estranjeri aldean
pasa det denbora.
Egia, alde guzietan,
toki onak badira,
baina bihotzak dio
zuaz Euskal-Herrira.*

Oraindik hogeitau urterik ez zuen. Lehendik handiki baten etxean zerbitzari ibili zen eta han ikasi zuen frantsesa, eta han nonbait sortu zitzaion liburuak irakurtzeko grina, bereziki frantses poetak irakurtzeko. Kanturako baritono abots ederra zuela ohartu zen eta Carolina Duprez izeneko emakumazko batekin teatro eta kantua ikasten hasi zen.



Iparragirre Urretxuan eraikitako monumentua. (Gipuzkoa).

Kantari hasi zen, teatroetako tauletan eta plazarik plaza. Baina Napoleon III.aren denborak heldu zirenez gero persegitua izan zen, zeren "Marsellesa" kantatzen zuelarik herria azaldatzen omen zen. Gobernariak begitan hartu zuten eta Frantsiatik ospa egin beharra izan zuen.

Munduz mundu abiatu zen, Italia, Suiza eta Alemanian zehar ibili ondorean Britainia Handira jo zuen, bere ondasun guztia abotsa eta gitarra zituela.

*Gitarra zartxo bat da
neretzat laguna;
honela ibiltzen da
arjista euskalduna;
egun batean pobre
beste batez jauna,
kantari pasatzen dut
nik beti eguna.*

Goian zerua eta behean lurra, buhamiarik gorrienean ibili ere. Musika ta letrak berak sortzen zituen eta haurtzarotikako kokatuezinak zeraman itsasuntzia haizeak bezala. Hala ere, bere bihotza non zuen kanta horren azken bertsoak erakusten digu:

*Agur Euskal-Herria,
baina ez betiko;
bost edo sei urtean
ez dut ikusiko.
Jaunari eskatzen diot
grazia emateko
nere lur maite hontan
hezurrak uzteko.*

Egun batez, kantaldi baten ondorean Mazarredo jenerala hurbildu omen zitzaion eta bostekoa eman ondorean bere arazoa konpontzea agindu omen zion, Euskal Herrira itzuli zedin. Eta handik laster eskuratu zuen Espainiako enbaxadoreagandik behar zuen agiri-papera. Honela, itsasuntziz Bilbora jo zuen, hamairu urtez herbesteetan ibili ondorean. Hogetahamabi urte zituen sorterriratu zenean.

Bilbora heldu bezain laster hasi zen kanta saioak eratzen, sos batzuk irabazteko. Ama oraindik Madrid-en bizi zuen, eta laster hartu zuen harako bidea. Gertakariz esan ohi da, kasik hogei urteren buruan

amagana itzuli zenean, honek galdetu ziola: “Ene seme, hau ahal da eskolatik etortzeko ordua?”.

Han eta hemen, laster jabetu zen garai hartako giroarekin. Foruen parterik gehiena galdua zen eta gainerakoa galzorian eta herria hontaz kezkatuak zebilen. Madrid-en zeuden euskaldunekin lagun egin zen eta Montera kaleko San Luis kafetegira joaten zen. 1853garren urtea zen, adiskideei aurrez aditzera eman zien euskal kanta eder bat prestatzen ari zela. Gau batean, kafetegiko salan, Altuna durangarrak pianoz lagunduaz, Gernikako Arbola delakoa kantatu zuen.

Haren hotsa bizkor zabaldu zen gure herrietan, eta Madrid-tik etorri zen hemen herriz herri kantatzera. Arazo hontaz lehendik bero zen herriak ez zuen asko behar sutzeko, eta halakoa izan zen Iparragirren jira. Honegatik, herria sutzen zuelako, Espainiako gobernuak preso sartzea agindu zuen eta Tolosako presondegian eduki ondoren epaiturik, Euskal Herritik hat desterratu zuten. Ordukoa du beste kanta polit hau:

*Zibilak esan dute
biziro egoki,
Tolosan behar dela
gauza hau erabaki;
giltzapean sartu naute
poliki poliki,
negar egingo luke
nere amak baleki.*

Kanta honek bere bukaeran dion bezala, orduan hartu zuen Santander aldera. Santander eta Asturias aldean ibili zen lehenbizi. Galizian, Portugalen eta Andaluzian gero. Bi urte igaro ondorean berriz jo zuen Euskal Herrira.

Herriaren kantari bihurtua zen. Gernikako Arbola ahoz aho zebilen Euskal Herriaren kantarik nagusia bezala. Kanta honen doinua Juan Jose Altunarena zela esan dutenek eta defenditu dutenek ere badira. Baina hontaz ez du merezi eztabaidatzerik. Ostolaza zelako baten gutun hura medio, aski azterketa egin da, baina inork ezin izan du frogatu Iparragirrerena eta ez besterena izan daitekeanik. Fermín Herrán-ek nahikoa garbi utzi zuen 1890ean Iparragirreren omenez argitaratu zuen bilduma hartan. Inazio Belaustegik 1920an argitaratu zuen biografian ere garbi uzten du *Zibilak esan dute*, *Nere etorrera* eta *Adio Euskal Herriari* doinuak egiteko gauza zenaz hobe dugula zalantzari ez jarri.

José María Iparraguirre fue el poeta épico del período romántico del país. Su talante aventurero le llevó a enrolarse voluntario cuando solamente contaba los catorce años, en la primera guerra carlista. Su lucha por la defensa foral y su desengaño por el convenio de Vergara, le dejarían marcada la ideología para el resto de su vida. En su primer destierro, en Francia, aprendió el canto y recorrió varios países con su aire estrafalario pero atrayente, simpático y cordial, iniciando su gran aventura. El bardo romántico mostró en todo su tiempo lealtad a su tierra y a sus libertades basadas en el derecho foral.

A su regreso, en 1853, en el café San Luis, de Madrid, presentó ante sus amigos el "Gernikako Arbola" que se convertiría en himno a la libertad. Con el que inició un itinerario por tierras vascas y que fue truncado por las autoridades por considerar que alentaba la rebeldía del pueblo vasco. Fue apresado y desterrado. De nuevo vive la bohemia en compañía de su guitarra.

Poeta, músico y cantante que, por los azares de la época, convirtió su vida en una larga aventura. Partícipe y expositor de los sentimientos de su pueblo. Muchas de sus canciones aún se mantienen vivas en la voz popular de Euskal Herria, tal vez porque no ha colmado las aspiraciones cantadas por el bardo urretxuarra.

1976-IX-6.

IPARRAGIRRE (II)

Iparragirre bigarrenez herriratu zenean maitemindurik ibili omen zen eta garai hartakoak ditugu "Zugana, Manuela" eta "Nere maitiaren-tzat". Bigarren hau lehen bertsoaren hasierako hitzetatik ezagunagoa dugu eta bere doinu atseginarekin gure egunotan ere kantatzen da:

*Ume eder bat ikusi nuen
Donostiako kalean,
hitz erditxo bat hari esan gabe
nola pasatu parean?
Gorputza zuen liraina eta
oinak zebiltzen aidean;
politagorik ez dut ikusi
nere begien aurrean.*

Donostiako ume eder hau ez dakigu nor zen, burua galduarazi zion Manuela hura ez noski. Manuelak bere aldetik ez zion nahi bezala erantzun eta gure kantariak etsipenez beterik adiaraziko zuen:

*Amodioz beterik,
esperantza gabe,
zergaitik egin zinen
bihotz honen jabe?
Zuk esan behar zendun:
Hemendikan alde,
egiaz ez naiz ni
bizardunen zale.*

Baina Iparragirrek bestelako eragozpenik ere bazuen. Askoren begietarako bizardun buhamea eta aski arlotea izan zitekeanez gainera. Tolosako ostatu batean zerbitzari ari zen Anjela Kerexeta ezagutu zuen, bera baino hemeretzi urte gazteagoa, baina maitasunarentzat mugarik ez denez, elkarganako har-emanean hasi ziren. Bera ikusi gabe ezin zela egon eta Donostiako lengusina baten etxera eraman zuen eta han egin zion ezkontzarako proposamena.

Euskal Herriko apezak paper asko eskatzen omen zioten, herrialde askotan ibilia zenez haietako nonbaiten lehendik ezkondua zen jakiteko. Emazteak hala aitortu zion Grandmontagne idazleari (ikus, “Los inmigrantes prósperos” liburua). Eta honegatik pentsatu zuten Ameriketara joatea, han eragozpenik gabe eskontzeko. Esan eta egin. 1858ko abuztuaren 29an Baionan hartu zuten Buenos Aires-erako itsas-ontzia. Hango euskaldunak ongi-etorri ona egin zioten, Biba Iparragirre! oihukatuz.

Gerratean bere kapitan izan zen ostalari baten etxera jo zuen. Eta Patxiku Mendia zeritzan adiskide honi esan omen zion: “Neskatxa hau andregaiia dut, eta uste dut eskonduko naizela honekin”. Egun guti barru ezkondu ere, Buenos Aires-ko San Inazio elizan.

Bizimoduan jartzeko proposamendu asko izan zituen, baina ez zen negozio gizona eta azkenean Uruguay-n artzain jarri zen.

Grandmontagne-k jasotakotik dakigu hango ibileren berri. Gitarra joaz kantatu eta ardiak zaindu, hori omen zen bere bizitza. Baina ardiak erraz galtzen zituen, eta emazte kezkatuari esaten omen zion: “Galdu direnok etorriko dira. Itzultzen ez badira, beste nonbaiten hobeto daudelako da; hoiek ere libertadea maite dute, eta nik ardientzat ere beren foruak nahi ditut”. Garai hartan, Iparragirrerentzat, libertadea eta

foruak gauza bera ziren. Baina era honetara laster galdu zituen bere ondasunak, asiendak.

Montevideo-ra jo zuen eta nafar baten laguntzaz ostatua jarri zuen "Gernikako Arbola" izenez. Eskuzabala zenez, behartsueri ez zien kobratzen eta itxura denez Montevideo-ko behartsu guziek ikasi zuten harako bidea. Iparragirre, bere solas eta kantekin bakarrik arduratzen zen eta berriz ere behea jota gelditu zen. Orduan, Arizabalo deiturazko pasaiar batek lagundurik artalde berriaren jabe egin zen eta berriro ere artzai joan zen. Oraingoan urte asko igaro zituen isilik. Hil ote zen berria ere zabaldu zen. Isilik egon bazen ere, ez ordea geldirik. Senitartea ederki gehitu zuen, zortzi seme-alabaz hornituaz.

Bere egoeraren berri jakin zutenean herritar asko mugitu ziren hona ekarri nahirik. Bestalde, une haretantxe jaso zuen euskal foruen galeraren berri eta erotu beharrean jarri omen zen gizona, amorruren amorruez negar egiteraino, egunetik egunera umore txarragoaz, bere baitan egonezinez. Berriz gerra sutzeko ere konforme omen zen.

Buenos Aires-ko "Laurak-Bat" elkarteak egin zituen diru bilketaz ahal izan zuen herriratzea. Gainera, hemengo Diputazioek pensinotxo bat jartzeko ideia eman zuen Becerro de Bengoa arabarrak eta esperantzarik aski ekarri zuen.

Bakarrik etorri zen, gero familia ekartzeko asmoz. Bordeleko kaian lurra hartu zuen 1877ko urrilean. Hendaiara heltzean kantatu zuen "Nere etorrera lur maitera". Hau ere oso ezaguna:

*Hara, nun diran mendi maiteak,
hara, nun diran zelaiak,
baserri eder zuri zuriak,
iturri eta hibaiak.
Hendaian nago zoraturikan,
zabal zabalik begiak;
hara, España, lur hoberikan
ez da Europa guzian!*

*O!, Euskal Herri, eder maitea,
hara hemen zure semea,
bere lurrari muñ ematera
beste gabe etorria.
Zuregantikan emango nuke
pozik bai nere bizia,
beti zuretzat, hil arteraiño,
gorputz ta arima guzia.*

Euskal Herriko hirietan harrera ona izan zuen. Gabiriko Txapartegi baserria hartu zuen bizilekutzat, amaren sortetxea zena.

Zahartzaroan ere bazituen kanturako animoak eta 1878ko otsailean Madrid-eko Price-n kantatu zuen Kantabria itsasoan ito ziren hirureun arrantzalaren familien alde.

Zahar saria lortu eta hiru hilabetera hil zen. 1881eko apirilaren 6an, Zozabarro-txiki baserrian, pulmoniaz. Lagunarteko afari baten ondorean, gau euritsuan berandu xamar jo omen zuen etxe aldera eta Txapartegirako zubia urak eramana aurkitu zuen eta Zozabarroko estalpe batean gaua pasatu zuen, bustita eta hotzez. Eta hemendik sortu omen pulmonia, ustekabean hilobira eramango zuena. Honela bete zen bere desio zahar hura:

*Jaunari eskatzen diot
grazia emateko:
nere lur maite hontan
hezurrak uzteko.*

Poeta kantari hura joan zen, baina bere gogoia guregan dugu, herriagan, oraindik aspaldiko kontu hura zuritu gabe dugunez.

Iparraguirre, después de su primer exilio voluntario, tras la primera guerra carlista, sufrió dos destierros: de Francia fue expulsado por cantar la "Marsellesa" y de su propio país por el "Gernikako Arbola"; ambos inspirados por y para la libertad del pueblo.

En el segundo retorno a la patria compuso las amatorias "Zugana, Manuela" y "Ume eder bat". Por esa época se enamoró de Angela Querejeta de diecisiete años, cuando él contaba con treinta y seis. Se prometieron en casamiento, pero según las declaraciones hechas por Angela al escritor Grandmontagne, tenían sus dificultades: "porque en las Provincias Vascongadas los curas le pedían muchos papeles para casarnos, pues los padres no podían saber si ya se habría casado antes en las tierras extranjeras que había andado". Por esto pensaron emigrar a Buenos Aires, donde se unieron en matrimonio.

En Argentina tuvo ocasiones y ayuda para dedicarse a los negocios, pero su espíritu errante eligió el pastoreo en Uruguay.

Pasaron muchos años sin que se supiera nada de él. Con la total pérdida de los Fueros reapareció, inquieto y deseoso en volver al país. El centro Laurak Bat de Buenos Aires abrió una suscripción para facilitarle

el viaje de regreso. Así partió, con la idea de reclamar más tarde su familia. Y, de pronto, un buen día se presentó en Hendaya, tras haber desembarcado en Burdeos y cantó aquella hermosa composición "Hara nun diran...". Recibió el homenaje de las capitales vascas, y a los pocos meses actúa en el Price de Madrid en pro de los familiares de una catástrofe marinera. Las Diputaciones le fijaron una pensión, de la que poco había de disfrutar, pues falleció a los 61 años de edad, de una pulmonía (y no de envenenamiento de setas, como aseguran algunos).

Se calló el bardo trotamundos, pero no así su canción que se sigue escuchando de la boca del pueblo, con las mismas aspiraciones de libertad que durante los debates de la cuestión foral.

1976-IX-13.

BILINTX (I)

Gure poeta erromantikoetatik herriaren aurrean arrakastarik handiena izan dutenak Iparragirre eta Bilintx ditugu. Mende baten ondotik ere, oraindik herriak gogotik kantatzen ditu hoiek egin zituzten kantak. Iparragirre herri-minezkoetan bezala, Bilintx maite-minezkoetan maisu genuen.

Aurtengo uztailaren 22an etorriko dira ehun urte Bilintx hil zenetik. Donostian sortu eta Donostian hil zen berrogetabost urte besterik ez zituela. Aditzea dugunez, omenaldi handi bat gertatzekotan dira eta merezimendurik badu Bilintxek inork merezi baldin badu. Ekintzen arteko bat bere idazlanak osorik argitaratzea izango omen da. Betor ordu onean!

Bere merituak handiagoak dira ordurarte ezer apenaz egoala konturatzen bagara. Karmelo Etxegaraik ongi esan zuen bezala, ifarraldeko euskaldunak belaunik belau bazituzten, garai hartan, beren maisuak, baina alde hontan holakorik ez zen. Hauek ziren Etxegarairen hitzak: "Gizaldi zaharretatik zetorren han euskeraz neurtitzetan idazteko ohitura. Hemen bersolariak besterik etziranean, han baziran Etxepare ta Oihenart, *Argia darizanari* neurtitz samur bigungarriak jarri zizkion gizon jakintsua. Bilintxek etzuen aurrekorik: *Solferinoko itsua*-ren egile Salaberrik bai. Bilintxek erbestekoetatik ikasi izan behar zuen zekiena, batez ere gaztelaniaz idazten zutenetatik".

Hemen Etxegaraik diona, argi gelditu bedi, gaztelaniazkoetatik poesiagintzaren forma edo funtsa zela, zeren bertso egitura bertako bertsolarien eskolatikakoa bai zuen. Egia esan, Bilintx, garai hartarako, bertsolari berri bat zen, bertsolaritza eraberritu zuena. Baina aitortu beharra dugu garai hartakoa zela Xenpelar, bertsolaritzaren mailan jatorragotzat jo genezakeana.

Karlisten gerratea eta foruak galzorian zeudelarik, giro honek kondizionatu edo bultzatu zuen Iparragirre kanta haiek egitera. Garaiko prolemen eragina. Baina Bilintx berak ere bazituen bere barne prolemek maite-minezko bertsoen bultzagarri. Hautzaroan izan zuen ezbehar batek arpegia oso itxusi utzi zion eta hemendik zetorkion "Moko" goitizena eta neskatzak despreziaturik bizitzea:

*Beti nik damari
loriak ugari!
batez ere zerbait
maite nauenari;
damak herriz neri,
gezurra dirudi!,
osinez pagatu
lorezko zor hori.*

Despreziatze horri maite-min handiagoz erantzuten zekien Bilintxek, bere maitasuna ase ezinezko egarrira erori arte. Bata bestearen ondorean hartu zituen amoriosko ukapenak, baina ez zuen lotsarik galdu ukapenezko gertakizunok bertsoz jartzeko. Behar bada poesiagintza zuen bere gogoaren irtenbide. Holako ezezko ukapen horietatik politenetako bat "Behin batian Loiolan"ekin hasten diren bertso saila da: hara bukaera:

*—Dama polita zera,
polita guztiz, ai!
baina halare zaude
oraindik ezkon gai;
eskon gaitezen biok!
esan zaidazu bai!
—Ni zurekin eskondu?
ni zurekin? Ja jai!*

Irakurria zen, eta irakurtzeak asko lagundu zion nonbait maite-minezko poemak era egokiz eta hain biribil egiteko. Heine, Bécquer,

Campoamor, Aguilera eta beste zenbaiten lanak ezagutzen zituen. Honegatik, ezta harritzekoa holako poesiagintza landuaz jabetzea. Eta ez zen beti jardun amorio galduei edo ukapenezkoei buruz, ez; bestelakorik ere egin zuen. Maiz, ezinak bultzaturik ari bazen ere, maitasunaren idealisazio batean gorderik jardungo zen, ondore bezala. Orduan, "Joana Bixenta Olabe" edo "Juramentua" bezalakoak idatziko ditu.

Bigarren honen hasiera zein polita den ikusteko, hara hemen lehen bertsoa:

*Begi urdiñak dituzu eta
arpegi zuri gorria,
nere biotzak maite zaituen
aingeru zoragarria;
zumia bezin biguna eta
miia da zure gerría,
estutu gabe hartu liteke
bi eskuekin neurria.*

Era honetako bertsoetarako etorri ederra zuen. Amorearen nahi horrek jarri zion lehen baldintza argi dator "Kontzezirentzat" egin zituen bertsoen hasieran:

*Kantatuzera indar haundiko
desio hatek narama,*

Bere indar handiko desio hortatik irten ziren holako maite-minezko poesia polit hauek:

*Dama gazte polit bat
bada Donostian,
berdinik ez duena
zeruan azpian,
biotza mugitzen zait
modu txit ez-tian,
nere pensamentura
datorren guztian.*

Itxusitasunagatik despreziatzeak maite-minezko poesia sentikorretara behartu zuen, herriko bertsolarietan oinarrituarren, herbesteetako poetegandik ere ikasbiderik jaso zuen. Bere garai haren inguruan hasi

zen, hain zuzen, euskaltzale mugimendu garrantzitsu bat eta inguru girotu hartatik burutu zuen Jose Manterolak bere ekintza emankorra.

Indalezio Bizkarrondo, "Bilintx" bezala ezagunagoa dugun donostiarra maite-minezko poesian euskal literaturan beti betiko toki berezi bat izango duena da. Manterolak "Cancionero Vasco"n 1878an argitaratu zituen kanta eta poemen ondotik Euskal-Esnaleak, K. Etxegarairen hitzaurrez, bilduma polit bat eratu zuen 1911. urtean, geroago Errenderiako Makazagak beste bat, baina bere bertso eta hitz-lauzkoak osorik ez ziren ikusiko Auspoa liburutegiak 1962an *Bertso ta lan guziak* izeneko liburu hura agertu arte.

Maite-minezkoak ez-ezik irri-bertsorik ere badu eta urrengo artikuluan emango dugu hauen berri.

San Sebastián se apresta a rendir homenaje al poeta Bilintx en el centenario de su fallecimiento. Este con Iparraguirre son los dos poetas que mejor cantaron en el período romántico. Ambos muy arraigados en el pueblo, aún se siguen cantando.

Fue además uno de los precursores del movimiento literario que se desarrolló en la segunda mitad del siglo pasado en la capital guipuzcoana.

Bilintx tenía la cara deformada a consecuencia de un accidente sufrido en la niñez y por este motivo recibió rechazos amorosos que le impulsaron a componer bellas poesías amoratorias. Algunas sobre sus desengaños, otras inspiradas por su desbordante deseo de amor. A veces son tristes pero la mayoría son delicadas poesías de un hombre muy sensible, hombre de un gran corazón que supo afrontar con serenidad las adversidades de su desdichada vida.

También compuso poesías satíricas, pero el comentario sobre éstas lo dejamos para el próximo artículo.

1976-IV-12.

BILINTX (II)

Bertsolarien eraz hainbeste kanta polit idatzi zituen Bilintx, bat bateko bertsoak egiteko gauza ote zen? Benito Jamar jaunari ber berak aitortu omen zion: "Ni ez nazu maixua. Bertsoak antolatzen ditut

udazkeneko arratsaldetan kupelako lehenengo zizarrarekin kantatzeko modukoak”.

Hala ere, guk, puntu honetan, gure zalantzak ditugu. “Aspaldian Joxepa” izeneko bertsoetan berak bestelakorik ere aitortzen bai du:

*Ni bertsolaria naiz
bainan det aditu,
ez nintzaizula zuri
hala iruritu,
zuk horla pentsatzia
ez da zer harritu,
nere jakinduririk
ez nuen argitu,
zergatikan ez nintzan
premia arkitu.*

Baina, Joxepa zelako hau Hondarribiako emakume bertsolari ospetsua zenez, sail honetako lehen eta bigarren bertsoen adiarazpenez, Bilintxek bertsolari bizita egin ziola dirudi; hala ere, Joxepak bere dudamudak agertu zituen nonbait. Auspoa Liburutegiak 1962an argitaratu zuen liburuaren hitzaurrean, baietz dio. Domingo Kanpañari botatakoa, Dunixi zenaren artikulu bat eta “Aspaldian Joxepa” bertsoak lekuko, baiezkotan dago; bigarren hontan Bilintxen desafioa agertzen denez. Baina, baita ere Pepe Artolak kontatu zuenez Bilintx igande arratsalde batean Hernanin bertsolari batekin aritu zelako eta bereala benderatu zuelako. Bestalde, Antonio Peña y Goñi zenak ere hala kontatua. Dena dela, ez dut uste bat batekoan hain habila izango zenik. Domingo Kanpaña zena berakin lankide zenez, behar bada maiz ikusia zuen mando gainean eta alde zuretik pentsaturik izan zitekean, bestela bat batekoan ere bertsolari bikaina izan behar zuen eta ospe handiagoa edo entzute handiagoa helduko zen gure garaira bertsolari eskolaren bidez. Hala gertatu bai zen Xenpelarrekin.

Domingo Kanpañari bota zion bertso honek ez du ez hutsik eta ez betegarririk:

*Mando baten gaiñian
Domingo Kanpaña,
ez dijoa hutsikan
asto horren gaiña;
azpian dijoana
mandua da, baiña,*

*gaiñekua ere bada
azpikua haiña:
Mando baten gaiñian
bestia, halajaiña!*

Jose Mari kalegarbitzailearen zaldiari egindakoak, bertsolari eskolan egokituak dira, Domingo Kanpañari egin zion ziri-bertsoa hainakoa noski, eta gainera bederatziko puntuko neurrian eginak. Honako bi bertso hauek jartzen ditugu “Zaldi baten bizitza”ren adibidez:

*Horra sei bertso kale-
-garbitzailleari,
zeiña bere izenez
dan Jose Mari:
erreza lezazkike
hiru Ave-Mari,
indarra etortzeko
zaldi zuriari,
animali hori
urriki zait neri,
falta du ugari
egoteko guri,
kartoiakin egiña
dala diruri.*

.....

*Lan sobra du baiñan
janaria falta,
urrikigarria da
dakarren planta;
gaixoak ez lezake
luzaro aguinta,
flakiarekin ezin
mugitu du anka,
pentzu gutxi jan ta
kalean jiraka,
gaizki bizi da ta
indarrrik ez daka,
ezin karriatu du
karro bat kaka.*

Humorezko bertso ederrik aipatzean ezin ahaztua da "Potajiarena", Oihartzunera pilota partidua ikustera joan zen baten gertatu zitzaionari buruzkoak. Partidu ondorean ostatura joan bazkaltzera eta aurren zerbitzen zen apaiz batek sakia bere esku zuenez, bazkariaren partidua bere alde atera omen zuen, eta ondoko urteetan ez omen zuen ahaztutzeko.

Adiarazpenez, pare bat bertso ekarriko ditugu. Baina lehen bertsoa bera ere merezi du, bertsolarien ohitura zaharrezko klixez egina dagoenez:

*Egunaren izena
ez dakit nola zan,
haiña seiñalagarri
partidu bat bazan
pelotan jokatzeko
Oihartzungo plazan,
nahi det nere orduko
gertaera esan,
urrengoan beste bat
eskarmenta dezan.*

.....

*Nere ditxa guziak
badute ajia,
noski naiz Jaungoikoak
ahaztutzat lagia;
goseak egin nuen
hango hiajia
kulpa zuenarentzat
dakat korajia,
apaiz batek jan zuen
nere potajia.*

.....

*Geroztik ostatuan
sartu ordurako,
galdea egin gabe
ez det nik faltako;
egun hartan apaizik
ea dan harako,*

*ez apaiz jaun guziak
igualak diralako,
baitzik batek heldurra
sartu ziralako.*

Izatez, ateraldi onekoa zen gure Bilintx. Arestian aipatu dugun Auspoa Liburutegiak egin zion atarikoan bada exenplu politik, bere bizitzako gora beherak kontazen dituen partean.

Gizon fiña zen nolabait ere eta adarra joaz egin zituen bertsoak ere, beren humore jarioan, zakarkeriarik gabekoak dira. Behar bada maitementan uxatua izan zen gaztearen barne tristurak eman zion gizatasunaren araberez. Bere barne-gogoaren sentipenean ikutua izan zen gaztaroaren eraginezkoa.

Jamar zenari agertu zion bezala, ez zien baliorik ematen bere bertsoeri eta hortik etorri da bere lan asko zokoratzea eta galtzea. Baina, herriak nonbait ez zuen izan iritsi berdina eta beregandik irten ziren bertsoak, liburuetan ez ezik ehundakak bertso-paper argitalpenetan agertuak izan dira. Paperetan argitaratuak eta ahoz aho kantatuak, egileak berak espero ez zuen neurrian.

Como en el artículo anterior tratamos las poesías amorias, en el presente recordamos al Bilintx de las composiciones humorísticas. Las mismas encajan perfectamente en el estilo más ortodoxo del bersolarismo tradicional.

Algunas referencias nos ponen en la pista de haber alcanzado capacidad en la improvisación, según consta en la introducción a la obra completa, publicada por Auspoa en 1962. No obstante, ese no era el fuerte de Bilintx. El escribía, sirviéndose de las técnicas empleadas en el bersolarismo.

Su sano sentido del humor y su agudeza a la hora de componer, se perfilan, sobre todo, en "Domingo Kanpaña", "Zaldi baten bizitza" y "Potajiarena".

Por lo que el autor manifestó en su día a Benito Jamar, sabemos que él no valoraba sus propias composiciones; sin embargo, algunas han sido publicadas innumerables veces y cantadas por el pueblo en el transcurso de cien años. ¿Qué mayor gloria para un poeta?

BILINTX (III)

Bilintx, bere bizitzan zoritxarreko izan zen. Berak aitortu zuenez: "Bizitzak makillazoka erabili nau, asto bihurri baten gisa". Eta nork esango zuen heriotza tristeagoak eramango zuenik? Dohakabea!

Indalezio Bizkarrondo "Bilintx", Donostian jaioa zen 1831ko apirilaren 30ean. Eta Donostian bertan hil zen 1876ko uztailearen 22an. Auspoak argitaratu zuen liburuaren hitzaurrean ongi dion bezala, Madriden euskal fueroak kentzeko agindua firmatu zen egun berean.

1976ko urtarrilaren 20an, San Sebastian egunaren arratsaldean, karlisten tropak Donostia inguraturik zuten tokitik artilleriaz bota zituzten granadetako batek jo zuen eta hil zorian jaso zuten Bilintx gizajoa. Oraindik sei hilabete bizi izan zen, ohean etsipenez, minez eta oinazez. Zauriturik erori zen goiz berean *Diario de San Sebastián*-en argitaratu omen zuen bere azken bertsoa:

*Nik hau pentsatu nuen
behin zu ikusita,
hori bai dala guztiz
neskatxa polita;
nahi balu nere izan
gaude eskongai ta,
maiteko nuke nola
ama eta aita,
nere bizia haiño
gehiago're baita.*

Bilintxen esku-izkribuetan, Auspoaren argitalpenak 143. orrialdean dionez, bertso honek J. Manterolaren oharra omen zuen, Bilintxen azken bertsoa hau dela esanez, baina Auspoaren ohargileak bere zalantzak jartzen ditu. Egia esan, gartzaroan idatzia dirudi eta behar bada Manterolaren esan nahia azkenen argitaratua izango zen. Manterolaren esan nahiakin bat bai dator Curros Enríquez gailego poetak kontatu zuena.

Manuel Curros Enríquez poetak "La canción de Vilinch" izeneko poema bat egin zuen, eta bada bertan poetak berekiko hartzen dituzten lizentzia horietakorik Bilintxen heriotza adiarazteko. Honegatik, Karmelo Etxegaraik 1911ko *Neurtitzak eta neurri gabeko itzak* liburuari egin zion hitzaurre hartan uste zuen Curros Enríquez-ek ez zekiela Bilintxen heriotzaren berri askorik. Puntu hau neronek argitu nuen "Egan"

aldizkariko lantxo batean (ikus, "Egan", 1970eko 1-3 zenbakiaren 100garren orrialdean), eta ongi dagit orduan esanak berriztatzea.

Gailego poeta Euskal Herrian ibili zen Madridedeko "El Imparcial" -eko kronista eta San Sebastian biharamunean idatzi zuen kronikan adiarazi zuen Bilintxi gertatua, goizean "Diario de San Sebastián"en poesia hura eman zuena arratsaldean hil zorian erori zela, eta bertso bera ere osorik argitaratu zuen bere kronikan (euskaraz ez jakitzearen huts bat edo beste nabari badira ere). Kronika horretan laudoriorik aski egiten dio Bilintxi, eta Cirilo Latierra adiskideak lagunduta bizitatu omen zuen bere etxean, Portu kaleko bosgarrenean.

Anka biak zeharo puskatuta gelditu omen zen, sufrimendu bizian heriotzara arte. Lehen, haurtzaroan erorita aurpegia itxuragabetua zenez eta neskak baztertzen zutelako hainbeste sufritu bazuen ere, beste askoren artean honako bertso honek argi dion bezala:

*Triste bizi naiz eta
hilko banintz hobe,
badauzkat bihotzian
zenbait atsekabe;
dama bat maitatzen det
baiñan... haren jabe
sekulan izateko
esperantza gabe.*

Sufrimendu handiagorik ezagutu zuen azken txar hartan. Txarragoa izan zen gainera hainbeste desio zuen emakumezkoagandiko maitasuna ezagutu eta maitasun horren ondorioz hiru frutu izatetik laster hil beharra.

Behar bada emazte izatera heldu zenari kantatuak ziren bertso honekin hasten zirenak (heriotza ondorean argitaratuak bai dira):

*Loriak udan intza bezela
maite det dama gazte bat,
hari hainbeste nahi diotarik
ez da munduan beste bat;
iñoiz edo behin pasatzen badet
ikusi gabe aste bat,
bihotz guztira banatutzen zait
halako gauza triste bat.*

1869. urte inguruan ezkondu zen bera baino hamabosten bat urte gazteagoa zen Nikolasa Erkizia izeneko azkoitiar batekin. Bost urte soilik eramango zituen ezkondata eta bi seme eta alaba bat utzi zituen. Bere ogibidez arotza zen. Teatro zaharraeko konserje egin zuten baina ez zuen utzi arozgintza eta horrez gainera, emaztearekin, dنداتxo bat ere jarri omen zuen. Badirudi maiteminezko penak garaitu zituela eta bizimodu hobe batean sartua zela, eta hara hor berrogeta bost urtekin era horretan hil beharra.

Berak bere poesia baliozkotzat ez bazuen ere, inguruan izan zuen bestelako ustea zuenik ere. Curros Enríquez-ek euskararik ez zuen jakingo, baina jasoak zituen iritziak ezin hobegoak ziren. Manterola bera ere konturatua zen Bilintxen poeta nortasunez eta 1870ean edo 1871an hasi omen zitzaion eskeka, bere *Cancionero Vasco*-n dionez, eta eskerrak honi salbatu ziren bertso asko ta asko. Gure egunotan Auspoak mezedo ederra egin zigun *Bertso ta lan guziak* bilduma batean agertzeaz.

Cuando el poeta Bilintx contrajo matrimonio a los treinta y ocho años de edad, parecía haber superado sus desdichas amorosas que tanto le habían hecho sufrir en su juventud y nadie se hubiera imaginado que sólo le quedaban cinco años de vida. Durante el sitio de San Sebastián, en la segunda guerra carlista, justo el día de San Sebastián de 1876, fue alcanzado por una granada que le hirió mortalmente destrozándole las dos piernas y falleció tras una larga y dolorosa agonía que duró seis meses.

El poeta gallego Curros Enríquez, a la sazón cronista de "El Imparcial" de Madrid en el país vasco, autor del poema "La canción de Vilinch", le dedicó una bella semblanza con fecha del día 21 de enero de 1876, que tan pronto tuvo noticia del suceso se personó en su domicilio acompañado de Latierra, amigo de Bilintx. He aquí algunos párrafos del distinguido poeta gallego: "Hay en San Sebastián un poeta eminentemente popular: hijo de este país, escaso de instrucción, pero dotado de privilegiadas luces, de una imaginación viva y fecunda y de un corazón lleno de entusiasmo y de elevados y puros sentimientos; este poeta es en estas provincias una especie de Ossian, cuyos cantares, inspirados en el más noble concepto de la libertad, ora son repetidos con entusiasmo por los defensores de la honra nacional de estas montañas". Y seguiría más adelante: "¡Es tan triste decir que agoniza un poeta! ¡Es tan triste decir que el que ayer por la mañana escribió para el *Diario de San Sebastián*

esta melancólica balada: 'Nik hau pentsatu nuen / behin zu ikusita / ...' caía por la tarde mortalmente herido de una granada al lado de su esposa y de sus tiernos hijos! Nada más cierto, sin embargo. Cuando lo supe, anoche mismo, yo, que conocía al nobilísimo Vilinch por varios de sus cantares y por referencias, acompañado de su buen amigo don Cirilo Latierra, fui a su casa, calle del Puerto número 5, y lo que entonces sentí aún lo recuerdo ahora con dolor".

Este fue el trágico fin del gran poeta donostiarra.

1976-IV-26.

LANGILERIAREN KEZKAK EUSKAL LITERATURAN

Literatura konprometitua deritzen zaio era berriko gizarte gaien problematikaz oinarriturik langileriaren alde agertzen direnei; konprometitua baino taxuzkoagoa iduritzen zaigu, kezkatua. Idazleak, poetak edo bertsolariak, gizarte egoera baten lekuko, justiziaren alde kezkatuak egiten duen literaturagintza bait da.

Egia esan, kronika mailakoa lehendik erabiltzen zen. Baina kronikaren barna, langileriaren kezka egiten dena, mota bereizi bat da. Gure artean, batzuk ezetz uste bazuten ere, era honetakorik egin da.

Etxahunen "Oi laborari gaxua!" bera ere mota hoietakoa dugu. Eta, era berean, Euskal Herrian egin denik protesta kantarik kartsuena ere bai noski.

Gizarte arazoa, beharraren bultzadaz, kezka eraginez, poeta bihotz-minduak bazerabilten beren gaietan. Dibarrartek erabili zituen gaiok, baina *humanisme* mailatik ez zen pasatu. Lehen hastapenetan hala izan bai zen. Adibidez, era hortakoa dugu Elizanbururen "Lehen eta horai" poema ere.

Agiriok nekazaritzakoak ditugu, baina industria langilerian ere aurkituko ditugu. Mikel Ugaldek bere *Langileria Historian zehar* (1971-1973) bi tomoetan gai honi buruzko materialik aski jaso baditu ere, literaturatikakoarekin ezta asko baliatu. "Egan" aldizkarian (4-6 zenb., 153 orr., 1969) A. Zavala-ren *Lexo bertsolaria* aipatzean egin nituen hontaz zenbait ohar. *Lexo bertsolaria*, langilea zen aldetik, bere garaiko ekintzak eta borrokak bizi zituen. Bertsolari honek, 1894an, boto emateari eta huelgari buruzko bertso paperak atera zituen. Hara bederatzi puntuko bi azken bertsoak:

*Guregandik ibilli da
ainbeste komeri,
batzuek ez diote
utzi lanari;
kargarik ez diot bota
kulpa gabiarri,
pazientzia eskatu
denan Jabiari;
bengantza ugari,
egin digute guri,
saltsan enaiz ari,
egia da ori...
penarik dubena bada
kejatu beri.*

*Motigua orrengatik
sartu gabe preso
eskapatuko al da
Juan Jose Lezo?
gure gañera dator
amaika eraso,
alare ez gabiltza
estutuak oso;
egun animoso
izan kurioso,
paperak eroso
nai duenak jaso,
bi sosetan badira
amalau bertso.*

Juan Jose Sarasola, Lexo bertsolaria, Lezon sortua zen 1867an, eta Errenderian lana egin zuen bere gaztaroan. Hordukoak ditugu bere langile kezkatu-rikoko bertsoak. 1903an, zortzi orduko lanaren alde agertu zen bere bertsoetan. Nonbait, urte hortan jarria baizen Donostian langileak zortzi ordutik gora lanik ez egiteko:

*Aurten mudantza berria
Donostian da jarria:
orduetako neurria;
zortzi orduan irabazten da
jornaleruen ogia;*

*argitu zaigu begia;
au ez da txorakeria,
bazan zerbaiten premia!*

Eta bertso paper honetan oso borrokalari agertzen zaigu, hondoko honetan ikus dezakegunez:

*Agintzalleak kejavu
ezin dirala bajatu,
aundienera jokatu;
langillearen izerditikan
zenbaitek nai du zupatu;
bere legiak ukatu,
oponiua trukatu,
ori ez al da pekatu?*

Urrengo urtean, 1904an, igandeak jai egitearen alde ere bertsoak atera zituen:

*Milla beatzireun eta laugarren
urtian gera gertatzen,
oraingo fiesta dominikalen
ordenak errespetatzen;
etsai gaiztuak asiagatik
noizian ta bein tentatzen,
.....*

Baina, lastima, lehen bertsoa bakarrik ezagutzen da; gainerakoak galduak dira.

Jose Manuel Lizarralde, Urkiologi bertsolaria, Azkoitian sortu zen 1872an. Jornaleru bezala Azkoitian bertan lan egin zuen, eta langileen sindikatuak indartzen ibilia zen, ikus berak bere buruari "sindikalista" deitzen zion hau:

*Sindikalista danai
eiten diet erreku,
txarrak ez du balio,
onez biar degu:
errespetoz ibilli
iñola al badegu,*

langillien asuntua
zuzenduko degu.

Ber-berak, 1920an abarketagiñak izan zuten huelgari buruzkoak egin zituen, nagusiak eta agintariak salatu zituen, beren justiziarik ezagatik, eta eskirolei, langile "enbasterueri" ere bere parte emanaz.

Bertsolarien kantetatik aparteko batzuk ere kantatzen ziren Eibarren nere hartzaroan, "Forjarien kantak", abanera doinuz. Oso kanta gogorra da, bere ideia egitura, utopiazko sozialismo garaikoa da. Itxura danetz, kantok ez ziren Eibarren bertan sortuak, baizik lehenago beste nonbait erabiliak eta Eibarko gertakizunetarako hartuak.

Langileriaren kezka hauek, ez dira lehen aipatu ditudan Etxahun, Dibarrart eta Elizanbururen kupidaz erakoak, ez; hauek justiziaren aurrez aurre, eginbearraren bideak markatuz doaz, langileriaren elkartasun bidetik.

Herriko poetek, poeta langileek, beren garaiko giro edo problemen lekuko agertzen zaizkigu, historiaren kronikagile. Poeta landuak, gure olerkariak, geroago agertuko zaizkigu. Beste herri batzuetan ere berdina gertatu da. Eta, gure herriko poetetan, nik dakidanez, edo besterik aurkitzen ez den artean, Lauaxeta dugu lehenbizikoa, *Arrats-beran* (1935) liburuko "Langile eraildu bati" poema politarekin. Gure egunotan, literatura mota hau asko landu da. Baina oraingoan iratzarpena oso berandukoa izanda bertsolari zaharrak eta Lauaxeta kontuan izaten baditugu.

La literatura comprometida se viene cultivando desde época reciente. Tema que los poetas de expresión vasca han desarrollado considerablemente desde primeros de la década del sesenta. Pero, sin embargo, en la literatura popular vasca no era un tema extraño desde finales del siglo pasado. Al margen de los poemas de Etxahun, Dibarrart, Elissamburu, etc., que tocaron motivos sociales en defensa de los más humildes, una literatura comprometida, con una verdadera concienciación de solidaridad obrera en defensa de sus propios intereses, no encontramos hasta finales del siglo pasado y primeros del presente.

Esta literatura comprometida, surge desde el bersolarismo, del obrero bersolari. Lexo, en 1894 alentó las huelgas, en 1903 compuso pro la jornada de ocho horas, en 1904 por la fiesta dominical, etc.; y Urkiolegi, en 1920 cantó los avatares de una huelga en Azcoitia y propagó la unión

sindical. En Eibar, en 1913, se cantaron "Gaur forjariak", cuyo texto completo di a conocer en la revista "Anaitasuna" (1).

Los poetas cultos se mantuvieron desconectados de la inquietud popular. Y es Lauaxeta quien en su libro *Arrats-beran* incluye un sentido poema al obrero muerto en una manifestación.

Con el presente artículo he querido testimoniar la existencia de una "Crónica" de literatura popular muy considerable para un estudio de los movimientos obreros.

1975-VIII-18.

TXIRRITA BERTSOLARIA

Txirrita, Bertsolari famatua hauxe, baldin famaturik bada. Bere azken bertsoetako batean zion:

*Gazterik asi nintzan da
oraindaiño bitartian,
zenbait umore eder jarri det
Kantabriako partian,
pixka batian ez naiz aztuko
sartuagatik lurpian,
nere aitamenak izango dira
beste larogei urtian.*

Ez zitzaion arrazoirik falta, bestela ez genuen oraingoan berari buruz luma hartu beharrik.

Hernaniko Latze-zaar baserrian sortu zen 1860an, eta bere egizko izen deiturak Jose Manuel Lujanbio Retegi zituen. Bere gaztaroa eta zahartzaroa San Markos mendiaren azpikaldean dagoen Txirrita baserrian igaro zituen eta hemendik zetorkion "Txirrita" izenordea.

(1) "Anaitasuna", 212 zenbakia (1971-V-30, 14 orrialdean).

Según las diversas opiniones recogidas, estas canciones fueron empleadas en las huelgas de 1913, pero otros remontan a la huelga general provocada por los gremios armeros contra la fábrica Quintana Hermanos, en 1897. Las circunstancias que concurren a ella podemos consultar en las obras *Viaje por el país de los recuerdos* de Toribio Echevarría (México, 1968), pp. 23/25 y *Eibar. Síntesis de monografía histórica* de Pedro Celaya (San Sebastián, 1970), pp. 60/62.

Ogibidea, hargintza zuen. Baina, diotenez, apenaz omen zuen lanerako grinarik, ondorengo ateraldi honek adiarazten duenez. Lan bila ari zen batean, lantegiko nagusi bati galdetu omen zion:

—Aizu, nagusi jauna: lanik bai al dezute neretzat?

—Lan gutxi zeukagu —ihardetsi zion nagusiak, eta Txirritak berealakoan erantzun ere:

—Lan gutxi aski det nik bada.

Egun batean, markes bat alderatu eta begira jarri zitzaion lana nola egiten zuen. Orduan Txirritak bertso hau botu zion:

*Txikitandikan artua nuen
argintzan afiziyua,
beñere aprendiz ibilli gabe
ikasi ofiziyua;
eman ezker materiala
gaiñera despaziyua,
denborarekin egingo nuke
Markesen palaziyua.*

Bere langintzako beste ateraldi bat honako hau da. Errenderiako elizan lanean ari zela, erretoreak (bikarioak) arrantxua litro erdi ardorekin ekarri zion. Eta Txirritak esan zion:

—Bai al daki edateko gogorik batedan ere?

—Argiñik ez da izaten edaten ez duenik.

Erretorak hala uste bazuan ere, Txirritak laster bueltatu zion berea, esanaz:

—Bai, jauna, bai; argiñik izan daiteke, baiñan apaizik ez.

Ateraldi bizkorretan ez zion inork urrik ematen gure bertsolariari, naiz bertsoz edo naiz hizlaxoz.

1936ko ekainaren hiruan hil zen Errenderiako Txirrita baserrian, anaiarteko gerra krudela ezagutu gabe. Baina lurpean sartuagatik bere aipamenik ez zela ahaztuko beste larogei urtean, Auspoa Liburutegiak egiztatzen digu Txirrita zenari eskainiak dituen hiru liburu ederrez: *Txirrita* (bizitza ta bat-bateko bertsoak) 1962an argitaratua, eta *Txirritaren bertsoak* bi liburuetan, 1971an argitaratuak. Guziak Antton Zabala langile trebeak bilduak.

Hemen bertso askorik ematerik ez dugunez, bere dohainaren adiarazgarri ziri-bertso labur batzuk agertuko ditugu. Honetan, Pello Errotarekin elkarri botatakoak izango ditu politenak. Izan ere, hain gogoko zuten elkar zirikatzea. Hara hemen bazkari batean Pello tentatzen kantatu zuena:

*Zenbat platera beteta ekarri
ainbeste ustuta bialdu,
dudarik gabe gizon flakuak
jaten geyago biar du,
matrail-ezurrak gelditu gabe
pasatu dituk bi ordu,
amaika arroa egingo intzan
beti orrela jan bau.*

Pellori, bere aldetik, Txirrita mutilzaharra zen aldetik tentatzea gustatzen zitzaion. Bein batean puntu hau jarri zion:

*Txirrita, ezkontzeko
xoxak bear dia.*

Eta Txirritak erantzunez osatua:

*Ni saiatzen naiz baiña
ezin det ordia,
interesa ez bada
gaztetan gordia,
zartzian joan biar
miserikordi'a.*

Beste behin, noiz ezkonduko zen galdea egin zion norbaitek:

*—Txirrita, ezkontzeko
ez al dek iderik?
—Andregaiarengana
ez dakit biderik,
ez det nererik beirik
ain gutxi iririk;
alaba agindu dit
amona piririk,
baiñan ez dit sartuko
orlako ziririk.*

Bertso saio batean, nonbait, Zapirainek puntu zaila eman zion estuasunean sartzeko ustean, baina hara "bist" puntuari nola egin zion "txist":

—*Nai nuke baneukake
zuk dezun ainbat bist.*
—*Guk badegu txakur bat
deitzen zaiona List,
atiaren gaiñetik,
iju eitian pist,
azpiko zulotikan
azkar sartzen da txist.*

1935ean Donostian egin zen bertsolari txapelketan, hizkuntzaren garbizaletasuna modan egoan garaian, bertsolarien herri euskara apenaz zen guzien gogoko, eta gaitzat hizkuntza goraltzea agindu zitzaenez, hara Txirritaren bertsoa:

*Larogei urte gaiñean ditut
nago anketako miñez,
Donostiara etorria naiz
erren aundia egiñez,
bi bastoïrekin txit larri nabil
pausorik eman eziñez,
euskera iya aztu zait eta
erderarikan jakiñ ez,
maixu batekin eskolan laster
asi bear det latiñez.*

“Albaiteruena” deitzen zitzaion taberna batean xoxak gastatu eta hala ere juerga batean dantzatzuz jarraituz txorkatila bihurritu zuenez, bestek etxera eraman beharra izan zuten eta bere esplikazioa holakoa izan zen:

*Albaiteruen sala
demoniño ortan
demoniñozko estropozu bat
egin nuen bertan,
demoniñuak emen,
demoniñuak an,
demoniñuak beti
gorputzaren bueltan,
demoniñuak sasoi zeukaten
demoniñuetan.*

Hemen ordea berebiziko onduen dantzatu zuen hizkuntza; erraz erabiltzen ez duenak holakorik ezin bete.

Baina dena ez zen irriparra eta festa, bertso seniorik ere egin zuen Txirritak. Hala dira Pello Mari Otañori eskainiak, Diostegi artzaiari eginak, eta beste asko. Epiko erakoak ere baditu, “Gure aurreko guraso zaarrak” eta “Orain bi milla urte” Ernion erromarrek izan ziren ustezko gudaketeri buruz eta abar, adibidez.

Baina, bere bertsorik maiteenak, seguru asko, Txirrita ber berak 1930ean bilduak izango dira, Errenderiako Makazagak 120 bertsodun liburuxka batean argitaratuak Txirritarren testamentua izenez. Izan ere, nork ez ditu gogorutzen, zerbait bertsozale denak: “Neska-zar bat tentatzen”, “Nagusia ta maizterra”, “Ijituak”, “Atso gezurti bati”, “Zeruko Aita, marka itzatzu...”, eta ehundaka tituluak eta milaka bertsoak, irudimen biziarekin eta etorri azkarrez emanak. Larogei urtean ez ezik euskara bizi den arteraino jendearen oroitzapenean gordeko direnak.

Orraitiok, bertsolaritzan eman zituen fruetuetatik juzgatu behar bagenuke gizon hau, ezin esan alperra zenik. Buruzko alperreria izan balu ezituen egingo horrenbeste bertso sail. Berezko etorria bazuen ere, ez zen burua nekatu gabekoa. Bere egiatzko langintza, bertsolaritza, asko eta ongo landu zuen.

El bersolari Txirrita adquirió tal fama en vida que él mismo preconizó, en una composición improvisada, que no se le olvidaría aún después de ser enterrado en otros ochenta años. Transcurrido la mitad del tiempo señalado, aún se le recuerda como a uno de los más grandes poetas populares del país. Como humorista, Txirrita era inigualable. Los aficionados al bersolarismo cuentan anécdotas y cantan estrofas de este gran genio improvisador de versos.

Txirrita, de talante bohemio, tenía fama de vago. Esta fama le puede encajar en su profesión laboral de cantero, al que el poeta popular estaba obligado por el sustento, pero no así de su vida de bersolari, donde compuso miles y miles de estrofas, y por cierto no todas humorísticas, si bien destacó más en éstas, sino que también cuenta con buen repertorio de poemas sentimentales y épicos.

Nació en el caserío Latze-zaar de Hernani en 1860 y falleció en el caserío Txirrita de Rentería, donde vivió la mayor parte y de donde le venía su apodo.

En 1930 él mismo preparó una breve antología que tituló *Txirrita'ren Testamentua*. Antonio Zavala, por su parte, ha reunido su desperdigada obra para publicar en tres tomos de la colección "Auspoa", constituyendo un éxito editorial.

1975-X-13.

AZKOITIKO IDAZLE IKASIAK

Lehenguneko artikuluan agertu nituen Azkoitiko bertsolari zahar-
rak, eta herri honetan euskal idazle bikainak ere eman direnez, herriaren
sorrerako 650 urteburu hontan, idazle aipagarriok ere agertu nahi
nitezke. Gure egunotan ere bada azkoitiar idazle bikainik baina guziak
adiarazten luzeegi joango nintzake eta hil zirenei soilik oratuko diet.

Joanes Etxeberri Sarakoa 1725ean Azkoitira mediku etorri zen eta
bertan bizi 1749an hil zan arte. Lan askoren egilea eta euskaltzale
burukatua zanez, seguru asko bera izango zen herrian euskaltzaletasuna
zabaldu zuena, edo gutienez euskaraz idazteko ohitura.

Azkoitian agertu zen lehen lana, *Gabon Sariak*, 1762an, Luisa
Miserikordiakoak gertatua, Azkoitiko eliza nagusian kantatzeko egi-
na. (1).

1748an, bertako seme Altuna, Munibe eta Egia jaunak (Padre Isla-k
burlaz "Los tres caballeros de Azcoitia" deituko zituenak, eta geroago
Menéndez y Pelayo ospetsuak bere *Historia de los Heterodoxos*-era
eramango zituenak) Sociedad de Amigos del País elkarte sortu zuten,
akademia gisa. Beren zientzia eta kultura gaien artean haintzat hartu
zuten euskara ere. Eta, hoietako batek, Xabier Maria de Munibe,
Peñafloridako Konde jaunak, *El borracho burlado, ópera cómica en
castellano y vascuence* idatzi zuen 1764an.

Vicenta Mogel, Juan Antonio-ren iloba, Azkoitian sortu zen, bere
aita herriko mediku zen artean, 1782an. Esopo-ren alegiak euskaratu
zituen eta 1804an argitaratu *Ipui onak* izenez.

Jose Franzisko Aizkibel (1798-1865), hemen sortu zen eta Erroman
bizi kanonigo bati laguntzen bere gaztarorik gehienez. Han hartu zituen
ikastaroak. Geroago, Duque de Granada-ren sekretario izan zen eta

(1) Luisa de la Misericordia Peñafloridaren izenordea omen zen. Ikus: B.R.S.B.A.P., XXII, 157
orr. Tellechea Idigoras eta egile bera "Papeles viejos", 193 orr.

honekin Europako bazter askotara heldu zen. 1833an Euskal Herrian zehar ibili zen. Ulibarri-rekin har-emanak izan zituen eta honek euskarazko liburu asko eman zizkion hiztegi handi bat egiteko asmoetan ebilela jakin zuenean. *De la Bibliografía y Literatura Bascongada y de sus diferentes dialectos*, esku-izkribuzko liburu bat utzi zuen, berrehunen bat libururen berri ematen zuena. Euskaldunok, euskara eta euskal liburuak behar haina ez maitatzeagatik mindurik aurkitzen zen. Bere azken urteetan Toledo-n bizi zen eta bertan hil 1865ean.

Aizkibelen obra nagusia, zera zen, *Diccionario Basco-Español titulado Euskeratik Erdarara biurtzeko Itzegia* (Tolosa, 1885). M. Larramendiren Erdara-euskarazkoa oinharritzat harturik egina. Baina, Larramendirenari Paris-en ber-berak Pouvreau-ren hiztegi argitaragabetik eta Amigos del País-eko zen Azpitarte, Gasteizen bizi zen elgoi-bartarraren hiztegiak (hau ere argitaragabea) ere aprobetxatu zen.

Aizkibel izan zen *c*-ren ordez *z* eta *k*, eta *qu*-ren ordez *k* sartu zituena, idazteko norma bezala. Lehenago Hiribarrenek ere *k* maiz erabili zuen *Eskaldunak* izeneko poeman (1853an argitaratua). Donostiako kazetari famatu batek oraindik oraintsu zion, Sabino Aranak sartu zuela "la disturbante K", eta Euskaltzaindiak berak ere onartua duela.

Jose Ignacio de Arana, S.J. (1838-1896), "Arantzazuko" kantaren egilea ere herri honetan jaio zen. Euskal Literatura eta bibliografia ongi ezagutzen zituen, eta "Euskal Erria" aldizkarian maiz idazten zuen. Bere obra: *San Ignacio-ren bizitza* (Bilbao, 1872), euskaraz eta erdaraz egile izenik gabe. *Bai, pekatu da liberalkeria* (Baiona, 1888), Sardá y Salvany-ren *El liberalismo es pecado*-tik itzulia. San Ignacio-ren bizitza liburuaren bukaeran euskararen laudorioak eta euskaraz idazteko zenbait erregela dakarzki. Nonbait, *k* letra ez zuen Aizkibelek haina maite. Bere asmoetako euskal ortografia batua, 1890ean argitaratu zuen *Disertación sobre la ortografía Eúskara* izeneko lan batean eta berak sartu zituen zenbait letra gangordun, ahozkeria garbiago bati jarraitu nahian.

Aita Aranak Bonaparte printzearekin har-emanak izan zituen, eta Aita Uriartek gipuzkeraz jarri zuen *Testamentu Berria* eskatu zion, gutun batean esanaz: "Ori guzia liburu eder lodicho bat bacarrean argitaraturic, euskalherri guziraco baña batez ere apaiz jentearentzaco prochuric andienecoa litzaque".

Ignacio María Mancisidor ere jesuita genduen (1907-1961). Comillas-en Filosofia estudiantua, doktoradutza egin arte. Euskaltzaindiaren laguntzailea. Zenbait aldizkaritan idatzi zuen euskaraz, "Deya" izenekoan San Mateo-ren Ebanjelioa euskaratu eta Fray Luis de León-en zenbait pasarte. Horrez gainera bost liburu idatzi zituen bere herriko

euskara jatorrean oinharriturik. Beren artetik aipagarrienak: *Jesukristo' ren bizitza* (1953) eta *Santu Bizitzak* (1958-1959). Beren euskara samurratetik gomendagarri dira euskarazko irakurketan ohitura hartze-ko.

Hilak bakarrik aipatzean, libururik argitaratu ez bazuen ere, Trino Uria-rekin gogoratu beharra dugu. Igaz hil zen eta liburu hauek utzi zituen euskarara itzuliak: Omar Kayan-en poemak eta *Cantar de los Cantares* Vulgata-tik eta Renan-en adizioetatik itzulita. Horrez gainera Azkoitiko euskararen antologia bat gertatzen ari zen.

En un artículo anterior me ocupé del bersolarismo en Azcoitia, con motivo del 650 aniversario de la fundación de esta villa guipuzcoana y en el presente reseñaré los escritores cultos de la misma. Limitándome únicamente a los finados.

Los primeros brotes literarios vinieron a partir de Joannes de Etcheberri de Sara, siendo éste médico titular de la villa entre los años 1725 y 1749.

Luisa de la Misericordia publicó en 1762 una representación cantada de motivo navideño.

Uno de los "caballeritos" de Azcoitia, Xabier María de Munibe, publicó en 1764 la ópera cómica bilingüe *El borracho burlado*.

Vicenta de Moguel, sobrina del autor de *Peru Abarka*, hizo la traducción de las fábulas de Esopo, que fueron publicadas en 1804.

J. F. Aizkibel, que dejó una bibliografía manuscrita, es el autor del importante diccionario vasco-español, publicado en Tolosa en 1885. Recientemente dijo un periodista guipuzcoano que "la disturbante K" introducida por S. de Arana fue también aceptada por la Academia de la Lengua Vasca. Pero, quien introdujo la K, como norma, fue Aizkibel; pues antes la habían utilizado algunos autores sin considerar como regla; por ejemplo, Hiribarren en su poema *Euskaldunak*, en 1853.

José Ignacio de Arana fue otro innovador de la ortografía al emplear las primeras letras con tilde. Lo que hace que fueran dos azcoitianos los que implantaron reglas ortográficas que algunos han atribuido a un personaje posterior. El jesuita J. I. de Arana, además de una obra con normas ortográficas, escribió una biografía de San Ignacio que fue publicada en 1872. Mantuvo relación epistolar con L. L. Bonaparte.

El escritor contemporáneo, Ignacio María Mancisidor, jesuita doctorado en Comillas, entre otras obras, publicó una sobre Cristo y otra sobre la vida de los santos.

Trino de Uría, fallecido el pasado año, cronista oficial de la villa, que yo sepa no escribió ningún libro (sí colaboró en revistas culturales); sus traducciones de los poemas de Omar Kayan y del libro del *Cantar de los Cantares* permanecen inéditas.

En nuestros días y entre nosotros contamos con muchísimos escritores eúskaros azcoitianos. Esta villa se puede vanagloriar como pocas por el número y calidad de sus escritores en vascuence.

1974-XI-11.

AZKOITIKO BERTSOLARI ZAHARRAK

Aurten, Azkoitiko herriak sorrerako 650 urteburua ospatzen du, eta, ospakizun hau medio, Kultur Hamabostaldia antolatuta dute. Antolakizun honen barnean eman nuen hitzaldian bertako bertsolari zaharren jatorriasuna agertu nuen, eta gaurkoan gai hau ikutu nahi nuke herri honen ohorez.

Nere hitzaldian argi utzi nuen bezala, Azkoitiko bertsolari zaharrak, herri literaturan bi gauza dira oso nabarmen utzi dizkigutenak, bertako humore joria eta kronikagintza berezia.

Luisa Miserikordiakoak XVIIIgarren mendean aipatu zuen Martin Beltz bertsolaria beste baterako utziko dugu eta joan zen mendeko eta gure mendeko lehen partekoak soilik aipatuko ditugu. Gainera, batzuk aipatu besterik ez.

Antonio Zavalak, Auspoa liburutegian, hiru liburu argitaratuak ditu Azkoitiko bertsolariei buruz. Beraz, aski material dugu esku artean bertsolari hoiere joeren berri jakiteko. Lehena, Juan Mari Zubizarreta izan zen. Bost urte dira argitaratu zuela. Bigarren liburua, *Atano ta Estrada*, urte bete geroago argitaratu zuen; Atano anaiak, Juan María eta José María-renak eta Estradarenak biltzen dituen. Hirugarrenean, *Azkoitia'ko zenbait bertsolari* izenezkoa bederatzi bertsolariren antologia polita da: Kortazar, Uztarri, Sokin, Muno ta Otsolarre anaiak, Lorenzo Garate, Urkiologi, Patxi Laja eta Balentxi. Gehienok izenordeak dira.

Azkoitiarren humorearen agerri hoberik nekez aurkitu genezake. Uztarriren "Bertso berriak Bizkaiko txerriari", liburuaren 39/44 orrialdeetakoak, aspalditik ezagutzen ziren bertso barrengarrien arteko. Baina,

ezagunenak utzita guti ezagunetara joko dugu. Gaztaina sasoia ere badator eta Otsolarrek gaztaina janari jarritakoak aipatuko ditugu, azkoitiar euskera jatorrean:

*Toki guzietan iguela da
gaztaña orren errenta
egosita ere zerbait badu
ala geiago erreta?
Bat ere ez dute balio
idukitzia gordeta,
ori dabillen tokian dantzau
biarko dek korneta.*

Otsolarre zenak, negu gogor batean, abereentzat nahikoa janari ez zuelako ahoz ukuiloa arintzeko, bere astoa Erlo aldeko larre gorrira atera zuen eta han txabola ondoan abandonaturik utzi, esanaz:

*Eztaukezu zaiilla
ondo izatie:
euria eiten badu
emen txabolie;
egunez otie ta
gabien kôstie,
nai dezun aña ja'izu,
baukezu astie!*

Holako bertsoak sailean jasotzen dira liburuan. Balentxi zenaren ahotik ere bada humorezkorik, hauzi bati buruzko "Bertso berriak" agertzen duten grazia berezia paregabea bait da. Tratante batek bei esneduna saldu zion Balentxiri, baina etxera orduko antzua zen eta ondoko egun batean lekukoekin hauzitegira jo zuen eta hauzia bere alde epaitu zen. Orduangoak dira bertsuok, eta hemen zati adigarri bat besterik ez dugu emango:

*Bi abogadù liburutatik
txandan artikulu letzen,
gogor saiatu bakoitzak bere
aldia defenditutzen;
sekretaiuak ordu bi pasan
jardun zuan eskribitzen,*

*jueza ere an zeuan baña
ez nintzan asko bildurtzen.*

.....
*Txorakeriya etzan izaten
bei ura jaizten astia,
modu artako animaliyak
gustagarriyak ezta;
ostika baten jotzen ezpanindu
aundiagua bestia,
kalte aundiyak egiñ ziztan nei
nola zan fubolista.*

Bertso berriak deitu paperak, beren bete beharrik nagusia berriak ematea zuten, kronikagintza. Karlista gerrateko “bolanderak” ere horrela ziren. Horrela zirenez “Zubizarretak kasoak agertu nai ditu” deritzanak. Bere humorean ere, hala dira Balentxirenak, gertakizunen berri emaile direnez. Balentxik, bere garaiko egoeraren arabera, langileriaren alde eta pobreen alde ere bertso politak osatu zituen. Bederatzi puntukoetan jarri zituen bertsoetako bat hau da:

*Esango det langille
jendiaren traza:
irabazten danakin
miseriyan pasa;
mundu guztian dago
jire aldrebasa,
urtetiken urtera
gareztitu gauza;
alkarrentzat nobleza
eztago erreza;
Jaungoiko jueza,
begiratu beza:
errukarriya dago
kaleko pobreza.*

Urkiologik ordea, hitz soiletatik eta erregetatik guti espero zuen, eta “sindikalistan soziedadeko pertsona batek jarriak” kantatzen duen bertsoetan, langileen batasunerako deia egiten du, 1920an Azkoitin izan ziren greba gogorretan. Ikusten denez, bertsolari hau makinisten sindikatokoa zen. Egoera gogor hari bertso gogorrez erantzun zion Urkiologik:

*Justiziyaren kontra dijuaz
agintariyen ordenak,
ezer esan da uts egitia
sufritzen bizi geranak.
Diruarekin alperrik galdu
arrazoiaren almenak,
guardiak ainbat kulpa badute
ori eragin dutenak.*

Eta ondorean jartzen dituen zortziko txikikoak ez dira ahulagoak. Bertsolaria gaiaren mamiak darama, inoiz puntu axolakabeak eta potoak egitera arte:

*Sindikalista danai
eiten diet erregu,
txarrak ez du baliyo,
onez biar degu:
errespetoz ibilli
iñola al badegu,
langillien asuntua
zuzenduko degu.*

Gainerakoetan ere, Urkiologirenak aski pobreak dira puntuen aldetik, baina indar handikoak gaiaren aldetik. Hara hau azken adibidez:

*Arrazoietan jarri
gaitian begira:
pabrikarako atiak
zertan itxi dira?
Orrelakorik etzan
justuak balira,
goseak errenditzen
pobriak ai dira.*

Hori da bertsolariaren kronikagintza nabarmena, bere garaiko gertaerak, kezkek eta prolemak adiaraziaz. Maiz, prolemok gizona gizon danetikakoak badira ere. Gure historiagintzarako bada hor materialik.

Con motivo del 650 aniversario de la fundación de la villa de Azcoitia y la celebración de la Quincena Cultural en la misma, saco a consideración del lector euskaldún la literatura popular del bersolarismo a través de los tres libros que lleva publicados la colección Auspoa, con material recopilado de viejos bersolaris de dicha localidad. Selecciono muestras fragmentadas de tres autores, como ejemplo.

En primer lugar, pongo de manifiesto la idiosincrasia azcoitiana, con su peculiar sentido del humor; y en segundo lugar, vuelvo a insistir, una vez más, en la importancia de la crónica en el género del bersolarismo. Un claro ejemplo son los versos compuestos durante las luchas de clases a primeros de siglo, con las huelgas de 1920, que motivaron las agudas estrofas de Urkiologi. Un material digno de tener en cuenta por los historiadores del país.

1974-XI-4.

EMAKUMEAK EUSKAL LITERATURAN

Euskal literaturagintzan, zoritxarrez, emakumezkorik gutti izan dugu. Bai lehen eta bai orain, emakume idazleak oso gutti aurkitzen dira gure literaturan. Urritasun hau nabarmen agertu zuen Mari Carmen Garmendiak *Hegatsez* izeneko hitz-lauzko bilduman. Bilduma honetan bertan ere, hirurogei idazletatik hiru bakarrik dira emakumezkoak.

Aurten, ONU-k nazioarteko emakume urtea izendatu duanez, gure lagunkide emakumezko idazleak gehituko balira, ez legoke gaizki.

Emakume euskal idazleak, beren urritasunean ere, aspalditik aurkitzen zaizkigu. Hasteko, XV. mendeko hiru ezagutzen ditugu eresigintzan. Andra Milia Lasturko, Peru Garzia de Orenen emaztea haurgintzan hil zelarik eta senarrak une berean lehendik adiskide zuen Marina Arrazolakin ezkontzea pentsatu, andre Miliaren aizpak Mondragoeko hiletetan bedonek jarritako eresiak kantatu omen zituen. Eresi hoietatik lau bertuko koplak ezagutzen ditugu, poesiaz ederki jantziak. Aski hedatuak daude "Zer ete da andra erdiaren zauria? / Sagar errea eta ardao gorria..." hasten direnak. Hirugarren bertsoetik ikus genezake beren egitura:

*Iausi da zerurean arria,
Aurkitu dau Lastur-en torre barria,*

*Edegi dio almeneari erdia.
Lastur-era bear dozu, Milia.*

Miliaren aizparen bertso hauek ez ziren gelditu ihardespelik gabe. Gainera, erantzun ere, emakumezkoak erantzun zion. Andra Santxa Hortiz, Peru Garzia de Orogen arrebak. Bere lehenengo bertsoa, honela da:

*Ez dauko Peru Garziak bearrik
Ain gatx andia apukaduagatik,
Zeruetako mandatua izanik,
Andrariok ala kunpli jasorik.*

Beste bat gehiago ezagutzen da, Milia bizi zen artean ohorez kunplituia izan zela agerraraziz. Miliaren aizparenak ere gehiago ezagutzen dira, guregana heldu ziren zatiak baino ez badira ere. Azken bertsoan beste bi andra ere aipatzen ditu, Mondragoen gaizki hartuak izan zirenak, eta jakingarria dugu emakumezkoaren berdintasuna XX. mende hontan oraindik lortu ezinik gabiltzanean:

*Mondragoeri artu deusat gorroto,
Giputz andraok artu ditu gaxtoto:
Iturriotz kalean andra Maria Balda-ko,
Arte kalean andra Oxanda Gabiola-ko,
errebalean andra Milia Lastur-ko.*

Eta ez da hau garai hartako kasu bakarra. 1464an, Ibarretan Martin Bañez Artazubietako hil zutenean, bere emazte zen andra Santxa Otxoa Ozaetakoak, kronika zaharrak diotenez, honako eresi hau kantatu omen zuen:

*Oñetako lurrau jabilt ikara,
Lau aragiok berean berala,
Martin Bañez Ibarretan il dala.
Artuko dot esku batean gezia,
Bestean zuzi iraxegia,
Erreko dot Aramayo guztia.*

Bere indarrean bertso biribila benetan. Poesiagintza ongi benderatzen zuten adiarazgarriak ditugu hamagosgarren mendeko hiru andra horienak.

Ondoko urteetan, herri kanta batzuetan emakumezkoak eginda-koak nabari badira ere, batez ere haurrak lotartzeko sehaska kantetan, hutsune handia dugu. Azkoitiko *Gabon sariak*-ren egiletzat genuen Luisa Miserikordiakoa ere (batzuk Sor Luisa-tzat erabili dutena) baztertu beharra dugu, Xabier Maria Munibe Peñafloidako kondearena dala zihur jakitera heldu garanez.

Hau hola delarik, Azkoitian bertan sortu zen Bizenta Antonia Mogel dugu lehen emakumezko idazlea euskal literatura. B. A. Mogel, Juan Antonio apaizaren iloba eta ikaslea, 1782ean jaio zen eta 1854an hil. Esopo-ren ipuiak itzuli zituen eta *Ipui onak* izenez argitaratu, 1804an. Azken urteetan, Bilbon bizi zalarik (Abandon, hobeto esateko), Paulo Ullibarriren adiskide izan zen eta honen eskariz nonbait, Gabon-kantak idatzi zituan, Julio de Urkixok RIEV aldizkariaren lehenengo eta hirugarrengo tomoetan argitaratu zituenak. Bizentak, Juan Jose izeneko anaia bat ere euskal idazlea zuen. Bere bizitza ta laneri buruzko zertzeladak *Ipui onak*-ren hirugarren argitalpenari egin nion hitzaurrean ematen nituen. Ikus, Auspoa (28), 1963an argitaratua. Ipuiak gipuzkeraz daude —joskeretan zenbait huts baditu ere, badu zer irakatsi—, eta kantak zein alegiak, bere gisara bertsoz osatuta, bizkaieraz.

Beste mende bateko isil-unea gorde zuten (edo gordearazi zitzaien) Euskal Herriko emakumeak. XIX. mendearen azken partean Rosario Artola, Ramonen alaba eta Peperen arreba, hasi zen poesiagintzan, 1889an “Euskal-Erria” aldizkarian, eta 1918an hil zan arte jarraituaz.

Beste idazle baten iloba eta ikasle zen Rosa Bustintza (Kirikiño-ren iloba eta ikasle) mende honen partetik ipui eta alegiak idazten hasi zen.

Gaur bizi direnen arteko zaharrenetakoak ditugu Julene Azpeitia zumaiarra hainbeste artikulua, ipui, irrati-saio eta abar idatzia. Bere bizitzarik gehiena Bizkaian irakasle pasatu du, 1920an gastronomiazko liburutxo saritu bat argitaratu zuen, gero haurrentzako irakurgaiak. *Amandriaren altzoan* eta *Zuentzat* izenekoak ditu argitaratu dituen liburuetan garrintzitsuenak. Aspaldiko urteetan Euskaltzaindiko lagun-tzailea dugu.

Eta Tene Mujika debaarra, adin berekoa *Miren Itziar'i idazkiak eta olerkiak* lan saritua 1923an argitaratu zuena, *Gogo-oñazeak* eta *Gabon antzerkiak* ere sarituak izan zituen, 1935ean argitaratuak; eta *Joan Joxe* bakarriketak ere saria jaso zuen.

Oraindik hoiek baino urtebete zaharragoa dugu Marie Ariztia saratarra, 1887an sortua, mugazandiko aldizkarietan maiz izkribatzen duena, *Amattoren uzta* (1934) liburuaren egilea eta herri-ipuien biltzaile eta argitaratzailea, *Laburditar ipuñak* (Anuario de Eusko-Folklore, XIV, 1934).

Gazteagoak aipatzeaz bide lerragarrietan erori gindezke. Gaur egun, idazle gazteagoetarik, nahi haina ez bada ere, anitz bada. M. K. Garmendiak *Hegatsez* liburuan jartzen du zerrenda labur bat. (Bertako M. Hegiaphal ez da emakumezkoa, gizonezkoa baizik.) Baina literatura-gintzan lanik sakonena egiten ari direnak aipamen berezia merezi dute: M. J. Minaberry, antzerkiak eta haurren ipui eztitsuak izkribatu dituena; M. L. Iriondo ere bide beretik arituz antzerki eta ipuin egilea; A. Lasa eta A. Urretavizcaya poesiaren arloetan hain naro ari direnak.

Euskal literaturaren alorrak langintzarako hain dira zabalak, oraindik lan asko dugu aurrerantz eramateko, ikastoletan andereñoak bezala, idazle arloak ere gehituaz bete beharrak ditugu, eta urte honetan emakumezkoaren integrazio aldera egiten diren lanak beste asko langintza honetara behartzeaz poztuko ginake.

La escasa participación de la mujer vasca en el desarrollo de la literatura lo dejó muy patente María Carmen Garmendia, en su interesante aportación a la antología de prosistas contemporáneos *Hegatsez* (1971). Y en este año internacional de la mujer queremos volver a tocar el tema.

Del siglo XV se conocen a tres autoras de endechas, poetisas de extraordinaria calidad a juzgar por las composiciones. Por las mismas se adivina que las endechas eran un género muy desarrollado en dicha época y sin duda habría muchas más cuya memoria no se ha conservado. Un lapso de tiempo de siglos separan aquellas poetisas tan remotas.

En el cancionero popular encontraremos composiciones anónimas donde se vislumbran poetisas, sobre todo en las canciones de cuna. Pero la primera escritora conocida es Vicenta Moguel, que tradujo las fábulas de Esopo, y fueron publicadas en 1804, y que asimismo compuso algunos villancicos. Vicenta, sobrina y discípula de Juan Antonio, el autor de *Peru Abarka* y hermana del también escritor Juan José, se encuentra sola en su tiempo y había de transcurrir un siglo más hasta que surgieran otras escritoras. Estas corresponderían a las comprometidas al movimiento iniciado a raíz de la pérdida del derecho foral, que son: Julene Azpeitia y Tene Múgica, que con las mismas coincide en edad Marie Ariztia. Son las mismas, autoras de varias obras y están muy próximas a cumplir los noventa años de edad. Desde las mismas arranca una lista ininterrumpida de escritoras eúskaras, sin abundancia por cierto. M. C. Garmendia las menciona en el trabajo aludido.

En nuestros días, por su labor constante y el contenido de sus obras, destacan: J. M. Minaberry y M. L. Iriondo en teatro y cuentos; y A. Lasa y A. Urretavizcaya en poesía.

Con las campañas de promoción de la integración de la mujer, esperamos y deseamos se incremente la relación en el quehacer literario.

1975-II-24.

EUSKAL "COMIC"

Hasi berri dira "Anaitasuna" eta "Zeruko Argia" aldizkariak hamabosteroko komika orria zabaltzen. J. K. Egillior eta B. Barandiaranek elkar lanean egingo duten "Krisket" eta "Popolo" komikia eta X. Kintana eta J. M. Gómez de Umaranek osatuko duten "Aimar" nafar kondairaz. Iraunarazteko, Jainkoak urte askoan gordeko ahal ditu, betozko belzdun triperre jainkotiarrik ere kontra izango dutenez.

Antton Olariagak, bere aldetik *Eta abar* izeneko komikiazko liburu bat argitaratu digu oraintsu, eta 1973garren urtearen bukaeran, Donostiako Auñamendi argitaldaria *"Txiki" marrazkilaria ta umoredun* liburua, Matxin Labayenek bildua bere aitaren sarrera aurkezpenez zuela.

Egoera honen aurrez-aurre, nornahik esango luke euskal "comic" delakoaren berbizkundera dela. Hala bedi.

Euskaraz, literatura ilunik aisago egin da, komikarrik baino. Baina gure gai ilun asko komikagarri direnez, ondoko urteetan komikiak gairik izango dute.

Euskal "comic" delakoaren historiarik egin behar bagenuke, lehen lehen aztu izenezkoa genduke John Zabalo "Txiki" (1892-1948). "Comic" delakoa Ifar-Ameriketan sortu zen joan zen mendearen bukaeran eta handik Britainia Handira zabaldu. Gure "Txiki", Donostiar gurasoegandik Manchester-en jaioa eta lehen ikaskuntzak bertan eginga. Honegatik, bere dibujugintzak inongo antzik badu, hangoa du. Hala ere, gogoz hemen hezi zenez, hango hazia hemen erein eta heldu zuela ezango genuke.

"Argia"ren egutegi azalik gehienak, 1926tik 1936ra bitartean, Txikik eginak dira. Baina 1922an egutegia sortu zenetik etorren bere barnean biñetagitza, eta noizpehinka izkirikiak ere bai. Ordurako "Euskal-Herriaren alde" aldizkarirako zenbait biñeta eginak zituen. Hoziez gainera "El Pueblo Vasco" eta "El Día"ko dibujugilea zen.

Auñamendi argitaldariai atera duen bilduma hortan, guztia jaso ez bada ere, bere lanik onenak agertzen dira. Bere ahalmena adiarazten digu. Batzuetan lastima izan da bere komikarrik hobereenen sekuentzia guziak ez jasotzea, "Txomin Arlote"rena, esate baterako. Etenda dagoenez baliorik aski galtzen du 2, 3, 9, 11, 12 eta 13garren dibujoak falta diralako. Zeren osorik egotera ez zuen testu beharrik ere, behar bezala konprenitu ahal izateko. Dena dela, liburu honetatik garbi ikusenezake Txikiren ahalmena eta nortasun paregabea. Txikik amaika liburu jarri zituen edergarriz, *Garoa*-ren bigarren argitalpena, I. Lopez-Mendizabalena *Umearen laguna* (1920), *Xabierto* (1925) eta beste zenbait.

Garai hartan, Txiki kendu ezker, komikarrik gutxi egin zen. Inoiz herbestekoenak harturik hemen argitaratu ziren. 1935eko Argia-ren egutegian Peter B. Kyne-ren kondairazko ipuia, euskaratua. Aurreko zenbait egutegitan ere izkirimiriren bate edo beste ikusten dira, gehienak ingles jatorrikoak edo hango kutsuzkoak, nabari denez. Gerra aurrean euskarazko TBO-ren bat ere egiten omen zen. Hautzaroan zerbait ikusia ere banuen, baina ez dut beren berri zehatzik.

Liburuak maiz azaltzen ziren komikazko edo kondairazko edergarriekin. Inoiz garaiko artisten laguntzaz. Hala, Bermeoko arrantzaleen bizikeraz R. Ortuzarrek argitaratu zuen *Oroigarriak* liburua Julian Tellaetxeren edergarriz eгина zen 1925ean. Pisarrin-ek 1922an B. Garitaonandiaren *Ipuin laburrak*-ri egindako dibujotxoak aski pobreak ziren. Della Croce-ren *Bertolda eta Bertoldin*, Otxoluak euskaratua, 1932an, italiarretik hartutako komikiak zituen. Ander Jauregibeitiak, J. Altunak euskaratutako Grimm anaiei *Ipuñak* argitaratzeko dibuju politak erantsi zizkion, 1919an, beren klasikotasunean ere komikien erakoak sartuaz. Era berean, Legoadiren itzulpenean, 1930. inguruan, Hermes-en dibujuak ditu. Eta gerra aurretikorik "Gaztetxu" zeritzan haur aldizkari bat bezala badakigu, bere xehetasunik nik neuk ezagutzen ez badut ere.

Zenbait aldizkari eta liburutan baziren Tillac, Goiko, J. Guinea eta abarrek apaingarri edo lagungarri eginak. Hoietarik zerbait bada Azkueren *Euskalerraren Yakintza* liburuetan.

Geroztik, M. J. Minaberryk bere haurrentzako ipuian *Itchulingo anderea* (1963) eta *Xoria kantari* (1965) liburuzketan Henri Laulhé-ren irudi politak dakarzi.

Garai hortan sortu zen "Pan-pin", Charrittonen ekintzaz, eta hemen ere egin zen komikarrik, herbestetik hartuak eta hemen sortuak, Julen Zabaletarenak bezala. Gero, "Kili-Kili"n J. A. Retolazak 1966tik haurretzat eta gatzetxoentzat komika ederrik egin du. "Zeruko Argia"n,

J. A. Letamendiak "Neuk" izenez bere-bereak egitean eta "Geuk" izenez beste norbaitekin har-emanean sortuak. Baita ere, astekari honetan, Jon Zabaletak gauza politik argitaratu ditu eta azken bolada honetan Antton Olariagak. Iruñako Etorkezunakoak haurrentzako egiten duten aldizkarian, 1972tik hasita, lan ederra egin dute, batez ere ipui klasikoak hain eder argitaratzeaz. Hauek ere herbestetik hartuak dira, baina uko ezinezkoa bertakoaren pizgarri ez direnik.

Gauzak zehatz agertzea beti da nekeza, baina liburuen arteko komiketan kontuan izan beharrekoak izango ditugu Kaxildo Alkortaren *Giza zirriborroa*-koak zein ikastoletako haurrek argitaratu dituzten liburuxketakoak. Hauen artean komikagintza gehiago hedatzea ez litzake lan txarra.

Las publicaciones "Zeruko Argia" y "Anaitasuna" han comenzado a distribuir dos hojas quincenales de "comic" como suplemento a dichas revistas y A. Olariaga ha dado a la luz un libro de este género.

Los comics, historietas gráficas de humor, se pusieron de moda en Norteamérica al final del pasado siglo, y, por los años veinte, J. de Zabalo "Txiki", los introdujo en las publicaciones vascas.

Zabalo era un extraordinario dibujante, difícilmente superable en el humorismo. Machin Labayen ha tenido el acierto de recopilar sus trabajos en una antología y hace año y medio dio a la luz la Editorial Auñamendi bajo el título "*Txiki*" *dibujante y humorista*.

Estos últimos años, el comic, aunque se haya desarrollado más en las publicaciones infantiles, está siendo cada vez más solicitado por el sector adulto y algunas revistas prestan especial atención, por la sal que aportan, intercalándolos en los textos o destinándoles un espacio en la publicación.

Y lo que en toda publicación se está prodigando era lógico que en vascuence tuviera cada vez más aceptación. En el texto en vascuence hago algunas anotaciones descriptivas a considerar en una historia del comic en la literatura vasca.

1975-V-26.

HAURREN LITERATURA EUSKARAZ

1974. urteko liburuak aipatu orduko konturatuta nintzan euskaraz haurrentzako egiten den literaturaz. Inoiz baino lan gehiago egiten da, baina haurrentzako liburu eta liburuxkak zabalkunde kaxkarra dute, ikastoletatik landa. Eta ikastoletan bertan ere ez dute ematen den guziaren berri.

Gaurko hontan, arrazoi hoiegatik berri labur batzuk eman nahi nituzke, zabalkunde lagungarri.

Haurrendako literatura hau, gehien gehiena, hamarren bat urtera artekoekin pentsatuz egina da. Goragoko maila batean, gaztetxoenean ere, sail ederrik bete da. Beste egun batean arduratuko gara hontaz.

Haurren literatura lanetan, gudate ondorean, Txarriton hasi zen "Pan-pin"-ekin, orain dela hamabosten bat urte. Gero, 1966an multikopiaturiko orrietan eta 1968tik inprimaturik, Jose Antonio Retolaza izan da "Kili-kili" aldizkariaren sortzaile eta eusle. Geroztik bere inguruan sortu zituen Lan ta Lan (1972) kuadernuak eta gipuzkerazko Txeru (1973). Euskal alorreko fruturik gehienak izerdi asko kostatakoak dira, batez ere haurrentzako aldizkarigintzan, eta honen berri ondo daki J. A. Retolaza jaunak.

Lehen pauso haien ondotik, gauza berezi eta bitxirik ere sortu da. 1970ean, Donostiako Plan, S.L. argitaldaria, I. Beobide banatzaile duela, ipui klasikoak argitaratzeari ekin zion, *Peter Pan*, *Tom Sawyer*, *Pinotxo*,... eta beste zenbait. Edilik ere antzerako langintzari heldu zion, eta hala jarraitzen du Eva eta Oyarzabal ipui laburren sailekin. Cinsa-k ere ipui laburrok argitaratu izan ditu. Bilboko Ediciones Laida-k ere irudiz aberats atera ditu klasiko hoiek.

Bertako idazleak sortutako ipui edo irakurgarrik ere etzaigu falta. *Balearen arrantza* eta *Amazonetako indioak* argitaratu ziren 1971an, Etxabururen *Txolintxu* urrengo urtean, eta *Txuri eta gorri eta kikirriki* M. Lekuonak 1973an. Ordurako aurrerapen handia egina zen *Tintin*-en obretarik hiru argitaratzeaz. Eta urte berean argitaratu zen liburuxkarik bitxienetako bat, *Iruzkia abestia*, Assis-ko Frantzes sailduaren bizitza, J. M. Satrustegik euskaratua, Joan Redorta zeramikagin famatuaren irudiz. Lehenago itzultzaile berak gertatu zigan J. M. Sánchez-Silva-ren *Ardo ta ogi*, *Martxelin*.

Ipui klasikoetan, beren irudien eder eta ugaritasunagatik, Etorkizuna argitaldaria Panpina sailekoak datoz guzietatik jantzienak. Greg, L. Carrol, Hoffman... egileen ipui ezagunak emanez bere lehen frutuak agertu zituen.

Gordailukoak, haurren irakaskintzako liburuxketatik aparteko irakurgai asko atera dituzte. Eta egin dutenik gauzarik politenetakoa, ikastoletako haurrak berek egindako ipui, kondaira eta abar, beren marrazkiz argitaratzea. Haurrari sorketarako eman lezaiokeen aukerarik bikaina dugu hau.

Kardaberaz taldeak ere, bere eginkizuna hau izan ezarren, zerbai egina du alor honetan, *Euskalerrri zaarreko jainko txikiak* aparte, gimnasiako liburuxka bat, *Ume txikientzako soinketa*.

Oso gogozko izango nuke azken urteetan Plan, S.L. - I. Beobide, Gordailu, Edili, Cinsa, Kardaberaz, Iker, Etorkizuna, Ed. Laida (Editorial Fher, S.A.), eta abar, haurren literaturaz hain arduratsu saiatu direnen lan guziak jasotzen. Baina ezinezkoa dugu. Tamalez uzten dugu irakurlea zehatzago iformatzeke, baina argitaldarien izenetatik liburu-dendetara joaz behar dutena aurkitu lezake.

Bukatzeko, haurren literaturaz egin den aurrerapenaren adierazpenez, 1974an argitaratu diren lanik ezagugarrienak aipatuko ditugu.

Iruñako Etorkizunak, bere Panpina sailari jarraituz, Grimm anaien *Hansel eta Gretel* eta Sayrach-en *Gudu garratza* argitaratu ditu. Aurretikoak bezala, irudi ugari eta kolorez ongi hornituak. Haurrentzako egina, haurren mentalitate berak ongien epaitzen duenez, gure haurren eritziz orain arte euskaraz irakurri dituztenetan gogozkoenak dira. Ezta guti esatea.

Cinsa eta Gordailu ditugu igazko urtean ipui eta irakurgaiz liburuxkarik gehien argitaratu dituztenak, hogeiren bat ale guztiz. Irakurgai hoietako gehienak gauzak irakasteko dira. Horrez gainera, Bilboko Iker izango dugu irakaskintzarako libururik gehien argitaratu diguna. Eta Cinsa-Iker elkarren artean, X. Mendigurenek hain eztiki eta jator itzuli dituen *Zaldi hegalaria*, *Sindbaden ibilerak* eta *Hiru anaien larrialdiak*, A. Montilla-ren irudi politez.

Gaur egun, ezin dugu esan haur euskaldunak zer irakurririk ez dutenik. Gainera, lanetarik asko bi edo hiru euskalkitan; beste asko euskara batuan. Gure egoera honetan, gure herrigintzan, guzietarik behar dugu eta guziak dira errespetagarri. Kritika zitalak baino ekintza isila hobe, burua jasoko badugu.

Nagusien setakeriaz haurrak guti ohartzen dira, hauek ikasketarako eta irakurgaitarako materiala behar dute.

En el número del mes de enero comenté la producción literaria de 1974, siguiendo la misma norma de años anteriores. Pero hasta la fecha

no me había ocupado de la literatura infantil en vascuence. En aquellos años difíciles de la postguerra comenzó la revista "Pan-pin", y bastante más tarde "Kili-kili" (éste último, con sus cuadernos derivados, sigue manteniéndose gracias al esfuerzo personal del señor Retolaza). Las dificultades, estos últimos años, se vienen superando por varias casas editoras, algunas de ellas especializadas en publicaciones para la infancia, bien sean obras didácticas, lecturas o cuentos.

Se han publicado traducciones de autores clásicos: Hoffman, Grimm, Collodi, Stevenson, Twain, etc., más fragmentos de *Las mil y una noches*, además de otros autores más modernos como son Sayrach, Hergé, Greg, etc.

La cosecha propia en cuentos infantiles es escasa. Sin embargo, destacan las publicaciones de cuadernos confeccionados con narraciones, cuentos y leyendas compuestas por los propios niños de ikastolas, con ilustraciones inclusive. Contribuyendo con éxito a un desarrollo eficaz de la imaginación, impulsándoles a la capacitación creativa.

Entre libritos y cuadernos, algunos artísticamente ilustrados, se habrán publicado más de cuarenta obras durante el pasado año de 1974. Mas, aun siendo una producción importante, ello no colma la capacidad devoradora de los niños. Pero, actualmente, tampoco podemos decir que los niños euskaldunes no disponen de lectura.

1975-II-10.

GAZTETXOEN LITERATURA EUSKARAZ

Igazko liburueri buruzko artikulua ondoen haurren literaturari buruzko bat agertu nuen, eta honek bedonekin eskatzen du gaztetxoeneri buruzkoa ere. Hemen, gaztetxoak esatean, hamalau urte ingurura heldu direnak ditugu gogoan. Irakurleak ondotoxo daki adin guztietako gogoak, pentsamenduz, ulertzez, gustoz eta abar, ez direla berdinak, eta adin bakoitzak bere mailarako gaiak eta erak eskatzen dituela. Honek ere ez du esan nahi beti horrela denik, zeren inoiz gertatzen baida *Mila ta bat gauetako* zati batzuk edinean helduak gogozago irakurtzen dituela, baita ere Saint-Exupéry-ren *Printze txikia* edo Tagore-ren *Erregeren karteroa*. Honegatik, urteen galga hau ez da hain estua.

Timun Mas, S.A.-k argitaratu zuen *Margo Ederdun Enziklopedia* aurrerapen oso handia izan zen gaztetxoentzako liburugintzan. Baina,

hala ere, gure hutsunerik handiena gaztetxoentzako liburuetan dugu. Hamairu hamalautik hogei hogetabost urtera artekoentzako literaturan.

Didaktika saila pizkabat hornituago daukagu. Ikastola liburutegiak baditu lan monografiko politak: Ogia, Erleak eta ezta, Olentzaro, Onddoak eta abar. Zientzia sailean ostera: Haizeak, euria eta klima, Uraren indarra eta abar.

F. Zabala eta J. A. Iglesias-ek 1971an *Euskal-Herriko historiaren laburpena*, ikaskaiak eratzeko modu egoki batean argitaratu zen, eta honek bere lagunkideko du J. Erzibengoa eta P. Ezkiagaren *Euskal Literatura*, 1972 eta 1974 bitartean hiru tomo agertuak dira baina oraindik ez da bukatu.

1971-72 bitartean Walt Disney-ren zuzendaritzapean antolatua zen *Gauza harrigarriak* izeneko enziklopedia ederra agertu zen. Zazpi tomok osatzen dute Itsasoko gauza harrigarriak, Animalien bizitza izkutua, Jendeak eta bizilekuak, Izadiaren gauza harrigarriak, Oihaneko gauza harrigarriak, Mundu berdearen gauza harrigarriak eta Txorien gauza harrigarriak.

Antoine de Saint-Exupéry ospetsuaren *Printze txikia*, egile beraren marrazkiekin, Salbador Garmendiak itzulia, abantaila ederra izan zen urte guti dela. Gaztetxoentzat liburu paregabea denez.

Lehentxoago, adin honetara hutsunek bete nahirik eta bide batez bertako herri ipuien zabalkundez, J. M. Barandiaranek bildutako ipuien antologia argitaratu zuen Aingeru Irigarayk, eta nik nere aldetik, era berean edo antzera, R. M. Azkuek jasotako ipui hautatuez; lehena *Euskalerriko ipuiñak* eta bigarrena *Aintziñako ipuiñak* izenez Zarauzko Itxaropena argitaldaria agertu zituen.

Donostiako Plan S.L. etxeak eta I. Beobidek, urte gutxi dala, oraindik salgai dauden liburuxka klasikoak argitaratu zituen: Stevenson-en *Altxorraren isla*, Collodi-ren *Pinotxo*, *Peter Pan* eta Mark Twain-en *Tom Sawyer-en ibilerak*.

Hergé-ren *Tintin-en gertaera arrigarriak* hiru tomotan Etor-ek argitaratu zituen.

Adin maila honetarako bezalakoa da Sánchez-Silva-ren *Ardo ta ogi, Martxelin* ere.

Gehienok, ikusten denez, itzulpenak ditugu. Esan bezala, gaztetxo-en literatura gutxi landu da, eta itzulpenok gutxi badira ere, oraindik gutxiago dira euskaraz sortutako orijinalak. 1973an agertu ziren lan polit batzuk, beren arteko Lurdes Iriondoren bi antzerki *Martin Arotza eta Jaun Deabrua* bata eta *Sendagile maltzurra* bestea, eta autore berak urte berean *Hego-haizearen ipuinak* irakurgai atsegin bezala.

Gaztetxoen literaturaz, gure produzioa hain bajua dala ongi markatzen digu igazko liburu kontaduriak. Eta, estadistika hutsezko kontaduria hontaz zertxobait argitu nahi nuke. Erresponstabilitate gutxiko batzuk, aldizkari baten bidez aditzera eman dute, nere datoak ez direla gauza zihurra. Ez dakit holakorik nondik atera dezakeen, zeren “Hoja del Lunes”-ean liburu guziak aipatu ezinez, aipagarrienen adiarazpen laburra egiten dut, baina euskal literaturaren inguruan dabilenak ondotxo jakin behar luke liburuen zerrenda osoa, titulu, egile eta argitaratzaile, 1968tik honuntza “Egan” aldizkarian argitaratu izan dudala. Estadistikaren araberez ateratako konklusioak ere, ikus atera berri den 1974-ko “Egan”-en 124garren orrialdean.

Baina, ganorarik gabeko uste nahasleak alde batera utzirik, goazen igaz gaztetxoen mailan argitaratu zenaren berri ematera. Maila honetan ere sartzekoak dira lehenago aipatutako “Txinpartak” sailekoak, X. Mendigurenek itzuliak A. Montilla-ren irudiz: *Zaldi hegalaria*, *Sindbaden ibilerak* eta *Hiru anaien larrialdiak*. Era honetako liburuxkak inoiz ez ditugu sartu urteko liburu zerrendetan. Zerrenda hoietarako, gutienez, berrogetahamar orrialdetik gorakoak bakarrik izan ditugu kontuan, UNESCO-ren normatibari jarraituaz.

Igazko itzulpenen arteko libururik aipagarriena, eta itzulpenetan liburu bakarra (gaztetxoen mailarako), Bernardo Atxagak euskaratutako Daniel de Foe-ren *Robinson Crusoe* izan zen. Bilboko Cinsa-k argitaratu zuen, eta inprimeriako huts bategatik X. Kintana agertzen da itzultzaile bezala.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxak, aurreko urteko Irun sariak argitaratu zituen eta hauen arteko *Ipuiak* (bost ipuiren bilduma), beretatik batzuk gaztetxoentzat bezalakoak dira.

Poema zahar berritu bat izan da urteko libururik politenetakoa, Arturo Campi3n-en “Sancho Garc3s”, Erdi-Aroko historian oinharritua, Jesus Mari Arrieta itzulia eta era berritua, euskara atsegingarrian jarria gainera, Gero argitaldaria Kimu sailean emana.

Gaztetxoen mailako literatura euskaraz hornitzen oraindik lan handia dugu. Haurren literaturan eta nagusientzako egiten denean, proportzioz, askoz ere aurreratuagoak gaude. Literatura aurreramen honek, ondorioz, maila guzietara hedatzea eskatzen du, eta era berean zientziak euskaraz gehiago lantzea. Eta, zientziak aipatu ditugunez, esan beharrean aurkitzen gara, igazko urtean Donostiako ingineru gazteek “Elhuyar” izeneko zientzia aldizkari bat euskara hutsean argitaratzen hasiak direla.

La mayor laguna de nuestro desarrollo literario está en las obras destinadas a la edad juvenil. Las enciclopedias traducidas de Timun Mas, S.A. y del equipo de Walt Disney han ayudado bastante en este campo.

Existen otras traducciones de obras de los autores Saint-Exupéry, Hergé, Stevenson, Collodi, Twain, Sánchez-Silva, etc., pero aun así constituye un material insuficiente.

Se han escrito unas pocas obras de teatro y cuentos originales, entre los que destacan los de María Lurdes Iriondo. Y antologías de cuentos populares seleccionados de las recopilaciones de Barandiarán y Azkue.

Entre las obras publicadas en 1974 merecen mención especial *Robinson Crusoe* de Foe, traducida por Bernardo Achaga, la antología de cuentos Premio Ciudad de Irún 1973, y *Sancho Garcés* (Antso Gartzreiz) de A. Campión, traducción con adaptaciones por J. M. Arrieta.

Respecto a los datos proporcionados sobre nuestra producción literaria, hay quienes han mostrado alguna desconfianza. Pero, sepan nuestros lectores, que desde 1968 en la revista literaria "Egan" del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" se vienen publicando las listas íntegras de los libros editados en vascuence, salvo obras didácticas.

La escasez de obras literarias para las edades juveniles es un hecho evidente. Pero la noticia grata que nos ha deparado el año 1974 es la del lanzamiento de una revista de ciencias bajo el título "Elhuyar", acogida a la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País y por iniciativa de un grupo de jóvenes ingenieros donostiarras.

1975-III-17.

GERRAONDOKO EUSKAL LITERATURAZ

Gaur egungo euskal literaturak duen indarra, gerraondoko belaunaldi berri eta berezi baten ondorena da. Belaunaldi harek bazuen lehenagokoekin zer ikusirik, mende honen hasierako mugimendurekin, autore zaharragoekin eta baita ere herri literaturarekin. Baina ekarri zuen mezu berria, Europako literaturaren haize berrietara joaz garaian garaiko mailara eramatea izan zen, egungo sentipen eta pentsamenean araberaz jardutera. Eta gai honi buruzko ohar batzuk markatu nahi nituzke gure literaturaren historiarako.

Mugazandiko Ipar Euskal Herrian hasi zen literatura lantze mugimendua, 1944garren urte inguruan, "Herria" astekaria sortzeaz,

honen inguruan. Zenbait liburu ere argitaratzen hasiak ziren, Charritton-en *Eskualdunak* (1943) eta L. Leon-en *Jesu-Kristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua* (1946) eta abar.

Desherrituak ere zenbait lan argitaratzen hasi ziren, T. M.-Olasok *Urrundik* (Mexico, 1945), poema liburua, eta tolosar Irazustak eta Eizagirrek eleberriak, *Joñixio* eta *Ekaitzpean* (Buenos Aires-en, 1946 eta 1948an), Lontzi Abaren alegiak Txilen (1947-1948) eta abar.

Hego Euskal Herrian, Salbatore Mitxelenaren *Arantzazu, euskal poema* (1949), Orixeren *Euskaldunak* (1950) eta Yon Etxaideren *Alostorrea* (1950) izan ziren liburu argitaratzeen hastapenak. Eta Zarauzko Itxaropenak Kuliska Sorta izeneko euskarazko liburu sailari ekin zion 1952an. Hasiera motel harek ondore hobeak ezagutu zituen.

Garai haretako eraginik onurakorrena Jokin Zaitegik 1950. urtean Guatemalako puntan sortu zuen "Euzko-gogo" aldizkaria izan zen. Kultura mailazko aldizkaria euskara hutsean egina. Gerraondorengo idazleen belaunaldi berria han hasi ginen idazten. Guatemalan argitaratu zen 1950-1955.etan eta Miarrizten 1956tik 1959an suntsitu arteraino. Han eman genituen gure ahaleginak eta ez dakit inoiz behar den neurrian eskertuko dugun hainbeste lagundu zigun Zaitegi jauna. Gabriel Aresti bera ere han hasi zen bere lehen olerkiak argitaratzen, 1954an.

Donostian Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-ek sortu zuen "Egan" izeneko literatura aldizkaria. Bere lehen partean erderazkoa izan zen, baina euskarazko lanak ere onhartzen hasi zenean, hauek gehiturik, 1953tik euskara hutsean hasi zen, eta oraindik ere hala jarraitzen du R. S. V. Amigos del País eta J. Urkixo Mintegiaren babespean.

Orduan aritu ginen Kixote guti haiek ez ginen ondo ikusiak eta urte latzak izan ziren euskal idazleentzat. I. Sarasolak bere *Euskal Literaturaren Historia*-n "Kontinuitateko generazioa" deitzen du, eta Nikolas Alzolak oraintsuko "Zeruko Argia" batean "Katakunbetako belaunaldia". Hain isilean egindako lan harentzat bigarren hau egokiago dator.

Garai hartan inoiz biltzeginenon artetik oraindik euskarazko lanetan aritzen garenak: Y. Etxaide, Aurre-Apr aiz, N. Alzona, A. Irigoyen, Txillardegia, Aresti eta abar. Abar honetan guti batzuk gehiago izango dira, orain oroitzen ez naizenak. Lehenagokoak ere inoiz inguru genituen, N. Etxaniz, Gaztelu, S. Onaindia eta abar. Bestalde, Arantzazun bertan bazen talde berezi bat, S. Mitxelena, E. Agirretxe, Aztiri (Alustiza) eta beste, eskola berezi bat ere sortu zutena, eta hemendik etorri ziren B. Gandiaga, A. Bilbao, J. Azurmendi, J. Intxausti eta beste zenbait.

ZAITEGI eta PLAZAOLA'tar IOKIN'ek, Ph. D.

PLATON'EN KONTRAKO ATARIAN



Jon Mirande eta Iratzederrek, bestaldetik, Europako haize freskoak ekarri zizkiguten, bereziki poesia egiteko moldez edo eraz, eta baita gaiak berritzeaz ere. Egia esan, Europatik gu baino hurbilago zeuden. Honegatik, ezjakin batzuk esan digute kanpoko haizeak etxe barnera sartu genituela. Baina ideiak kanpoan sortzen direnean, zein industria-gintzan, hala kulturaren, hartu beharrezkoak dira egungoari lotuko gaituen dinamikaz jarraitu nahi badugu. Gainera, gauza bera egin zigun Lauaxetak, gauza bera Orixek, gauza bera egin ziguten bezala aintzinakoek ere.

Katakunbetako belaunaldiaren gogo asmoetakoa izan zen idazle izen handidun eta bitxieri jaramon gutiago egitea eta talde lana zabaltzea. Gure euskararen egoerak hala erakusten zigun, autore soila gutiago baliatu eta orokortasunaren bila jarraitu. Idazle taldea gehitu, egunean egungo gauzeri eta prolemeri begira literatura berri bat sendotuaz herria bera iratzartzeko. Bestela gureak egina zuen. Hala jotaku ezik jai zegoen.

Gainera, literatura zaharra baliatzen erakutsi ziguten L. Mitxelena, F. Krutwing eta L. Villasantek.

Garai hartako fruturik helduenetakoak izan genituen Y. Etxaideren *Joanak joan* (1955) eta *Amasei seme Euskalerriko* (1958), Txillardegiren *Leturriaren egunkari ezkutua* (1957) eta *Peru Leartzako* (1960), G. Arestiren *Maldan behera* (1960) eta *Harri eta Herri* (1964). Gainera, azken honek teatroa berritzeko ahaleginak egin zituen. Ez zuen lortu, baina bai lortu zuen euskara errazago eta irekiago baten bidezko eraginez idazle berriei bidea markatzea.

Ahaztu ezinezkoak ditugu J. A. Loidiren *Amabost egun Urgain'en* (1955) lehenbiziko polizi eleberria, N. Etxanizen eta E. Erkiagaren poesiak eta liburuak, Ørixek, Mitxelena eta Lafitteren aburuak, S. Onaindiaren aldizkarietarako bilketak eta lan bildumak. Eta, gero, gogo berriak bultzaraziz, "Jakin" aldizkariaren eragina Arantzazutik.

Ohar hauek zerbait osatuagoaren beharrezkotzat jotzen ditut eta aipamena merezi duten asko aipatzeka utziko ditudanez, barkamena eskatzen diet.

Recientemente ha dado a la luz la nueva casa editora euskara Kriselu un libro de I. Sarasola bajo el título de *Euskal Literatura numerotan* (la literatura vasca en números). Obra que me incita a una serie de anotaciones sobre la literatura de postguerra, fuente donde se incrementó la producción literaria cuyo nivel se eleva progresivamente.

La entrega a una labor silenciosa, por imperativos de la época, de un grupo reducido de escritores fue decisiva para el renacer de un movimiento dinámico.

La literatura vasca de postguerra se reanudó en torno al semanario "Herria" allende la frontera, en 1944. Poco más tarde se hicieron importantes ediciones de libros en Sudamérica, y la reacción no se hizo esperar. A esta parte del país se inauguró con la obra de Salvador Michelena *Arantzazu, euskal poema* en 1949, a la que siguieron otras obras, entre las mismas el gran poema *Euskaldunak* de Orixe, en 1950. Seguidamente, la Editorial Icharopena, de Zarauz, comenzó la colección *Kuliska Sorta* y las ediciones de libros vinieron poco a poco creciendo con la ampliación de casas editoras.

"Euzko-gogoa" y "Egan" fueron las primeras revistas en cuyas páginas colaboraron los escritores de la nueva generación, con ideas renovadoras, y cuyos frutos no se hicieron esperar en novelas, cuentos, poesía y teatro.

1975-XI-10.

GERRAONDOKO EUSKAL LIBURUGINTZAZ

Martxoaren 27an Donostia eta Loiolako Herri Irratiak hain bikain antolatu zuten "24 orduak euskaraz", ez dago dudarik ondore ona izan duela eta euskararentzat esperientzia ederra izan zela. Irratilarien ahalmena eta herriaren erantzuna erakutsi ziren, eta ezta guti egoera hauetan agertzeko. Batzuen ekintzak asmo hutsetan gelditzen diren garai honetan, Euskal Herriko bi irratiok holako ekintza burutzea ezta txantxetakoa. Egia esan, aspalditik datoz irratiok beren eguneroko eskaintzaz, oraingo hontan espero genituen mugak baino gorago joan badira ere. Txalo zuei!, ibiliaz egiten den bide-zola lortu duzutelako.

Besteak beste, liburu argitaldarien mahai inguruan utzi zidaten alki hartara huts egin nuen, ordu berean beste toki batean lotua nintzalako. Baina nere gaia hain ximplea zenez, ni gabe ere banekin ondo eramango zena, argitaldariai osatzeaz informazio zehatzagoa eta seguruagoa eman zezakeenaz, nik eman nezakeena baino.

Orduan emango nituen zabalkunde ximpleak ekarriko ditut gaurkoan, huts haren nolabaiteko osagarritz.

Gerraondoko euskal liburugintza (euskara soilean esan nahi dut) Salvatore Mitxelenaren *Arantzazun*, euskal poema-rekin hasten da, 1949an. Handik laster, 1950ean argitaratu zen Orixe-ren *Euskaldunak* poema handia, 1935erako idatzirik zuena nonbait, baina gerragatik argitaratzerik izan ez zuena.

Ifar Euskal Herrian bost edo sei urte lehenago hasiak ziren eta herbestetan ere bai, hemendik ihesik joan zirenen ekintzaz. 1942an, Madrid-eko Espasa-Calpe-k Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza*-ren bigarren tomoa argitaratu zuen, baina gerra aurrean ekin zion lanaren jarraipenezkoa zen eta ez ekintza berri batetik sortua. Honegatik jartzen dugu mugatzat 1949ko *Arantzazu*, euskal poema.

Sail edo kolekzio berezi batekin liburugintzari lehen lehenik heldu ziona Zarauzko Itxaropena argitaldaria izan zen, "Kuliska Sorta" rekin, 1952an. Eta bere ondorean, 1961ean, A. Zavala bertso liburuz eta literatura arruntez sortu zuen Auspoa liburutegiarekin. Zenbait urtean bi argitaldariok izan ziren euskal liburugintzan aritu ziren bakarrak, han hemenka ateratzen ziren zenbait liburu soilez aparte. Egia esan, beste sail batzuk ere hasi ziren, Euskaltzaindia bere "Len eta orain"ekin bezala, baina bizitza laburra izan zuten. Irakurlerik eza zen prolema nagusia eta argitalpenean eralgitako dirua partzea oso gauza nekeza izaten zen. Gainera, harpidedun asko, laguntze alderakoak izaten ziren; irakurlerik urri.

Ondoko ekintzaz, Jakin hasi zen 1965ean, izen bereko aldizkariaren inguruan; baina sail bereziarekin 1971an.

Ordurako, 1969an, alde batetik Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A. hasi zen, geroago eta motelako etorri bada ere, eta bereziki Lur Editoriala, bost urteren buruan berrogeiren bat liburu argitaratu zituen.

1971an Etor hasi zen urtean hamar liburu argitaratuaz, baina 1973an holako etendura izan zuen eta Etor izenez jarraitzen duenak lehen baino gutiago argitaratzen du, eta etenduratik sortu zen Gero argitaldaria (bere "Kimu" gaztetxoentzako sail bereziarekin) lehengo ritmo hura jarraitzen du, urtean gutienez hamar liburu haina argitaratuaz.

Urte berean sortu zen Kardaberaz bilduma ere, hastapenetan ekintza tipiagoa izan bazuen ere, azken aldera geroago eta gehiago ari dena.

1975etik, igaztik noski, hamar liburutik gora argitaratuaz datorkiguna Kriselu dugu.

Beste argitaldari berririk era badugu, baina ez hain ugariak: Iruñean Idatz izenekoa, Durangon Leopoldu Zugaza izenekoa eta beste.

Besterik ere badugu lehenagotik, hain ugariak ez direnak, Ikas, Edili, Ezkila, Cinsa, Iker, Hegosa eta abar. Hozie gainera noizbeinka

elebitara (euskaraz eta erdaraz edo erdaraz eta euskaraz) liburuak argitaratzen dituztenak ere badira, gehienok erdarazko ekintzari lotuak badaude ere: Ed. Auñamendi, La Gran Enciclopedia Vasca, Sociedad de Ediciones y Publicaciones eta abar. Horiez gainera, zenbait Aurrezki Kutxak ere argitaratzen dituzte.

Tarteka euskarazkoak argitaratzen dituztenen arteko, beste honako hauek ere sartu beharrezkoak ditugu: Buenos Aires-ko Ekin, Baionako Editions Gure Herria, Arantzazu argitaldaria, Editions Herria, Donostiako Txertoa eta abar.

Editorialetatik aparte, egile asko diran liburuak beren kontura ateratzen dituztenak, zabalkunderako etxeren bat hartuaz edo beraiek zuzenki zaltzeko.

Bestalde, gaztetxo eta haurren literaturaz gauzarik berezienak soilik aipatuko ditugu: Timun Mas, S.A. argitaldaria urrats handia eman zuen "Margo ederdu Enziklopedia" argitaratzeaz, 1968tik 1971ra bitartean. Eta ondorean, Walt Disney-ren "Gauza Harrigarriak" izeneko enziklopedia, 1971tik 1972ra bitartean. Eta Hergé-ren "Tin-tin"en hiru tomo Etor-ek 1972an.

Geroztik hainbat itzulpen eta etxeko idazleengandikoak sortu dira. Etor, Gero, Iker, Gordailu argitaldaria egin dizkigute eta eskaintzen ari zaizkigu liburu ederrik, bai irakurgai bezala eta bai E.G.B.-rako testu liburuz. Ikastolak hauei esker lortu dute eskuartean behar beharrezko zituzten material didaktikoak.

Euskarazko liburugintzaren abiadura honela etorri zaigu, 1963garren urtetik —otoi: kontu honetan ez ditugu sartzen ikastoletarako liburuak, ez liturgia liburuak eta ezta ere euskararen irakaskintzakoak, baizik literaturaren ingurukoak, itzulpen eta birargitalpenak barne direla—. Hara: 1963an 25 liburu, ondoko urtean hiru gutiago eta 1965ean 33ra igo zenetik goraka dator 1968ra arte; eta urrengo urtean. 1969an, beste gorakada bat egin zuen 50era heltzeaz; goraka aritu zen 1972an 57ra igo arte, baina geroztik maila hortan mantentzen da, guti gora-behera.

1950etik 1960ra bitartean, 500etik 800 alera bitarteko argitalpenak izaten ziren; gaur ordea, 1.000tik beherakorik ez da, eta gehienak 1.500dik 2.000ra artekoak izaten dira eta maiz hemendik gorakoak.

Azken urte hauetan, esan beharra dago, E.G.B. eta irakaskintzako irakurgaiak askoz gehituaz datoz eta 5.000 aleko argitalpenak izaten dituzte. Haur eta gaztetxoentzako liburuak ere ugariago egiten dira eta hoi argitalpenak ere ikastola testuen hainakoak dira, gehienetan.

Baina, bukatzeko, literatura sorketazkoari begira ohar bat eginen dut: poesiak 1964/70rako goiak hartu zituen, eta bat edo beste izan ezik, lehengoaren errentaz bizi dela esango genuke. Saiaera da azken urte

hoietan gehien landu dena. Eleberria, poliki, baina aurrerantza doa. Ipuiak gutiegi idazten dira. Antzerkia geldi samar dago. Beraz, produzioa gehitu da, baina kalitaterik ezta ikusten saiaeratik kanpo.

La producción de libros en vascuence, en postguerra, en el país vasco de Francia comenzó en torno al semanario *Herria*, en 1944, y con obras de exiliados en América en 1946. A esta parte de la frontera arranca con la publicación de *Arantzazu, euskal poema* de Salvador Michelena en 1949, y seguidamente con el poema *Euskaldunak* de Nicolás de Ormaechea "Orixe" en 1950. Pero el primer paso serio hacia una producción de obras literarias lo dio Itxaropena, de Zarauz, con la creación de una colección (*Kuliska Sorta*) en 1952. Con una producción más profusa nos vino Auspoa en 1961, y desde aquellas fechas se ha venido incrementando ininterrumpidamente.

Lur en 1969, Etor, Jakin y Kardaberaz bilduma en 1971 vinieron a marcar nuevos hitos a la creciente producción. Sus ritmos productivos han sido desiguales. Y en fechas más próximas, Gero en 1973 y Kriselu en 1975, nos han aportado nuevos avances en la producción de libros en vascuence.

Existen otras casas editoras con menor producción, como son Ikas, Edili, Ezkila, Cinsa, Iker, Hegosa, etc., más otras que publican normalmente ediciones bilingües, Ed. Auñamendi, L. G. E. V., S. G. E. P. S. A., etc.

De las 25 obras literarias de 1963 se ha pasado a las 57 de 1972. Además de otras obras didácticas, litúrgicas y de literatura infantil, aparte de la producción señalada. Y las tiradas de ejemplares se han duplicado desde 1960 a 1972.

1976-IV-5.

EUSKAL LITERATURA NUMEROTAN

"Euskal Literatura numerotan", hala titulatzten da Ibon Sarasola adiskidearen azken liburuetariko bat. 1975ean sortu den Kriselu izeneko argitaldari berri batek emana da, eta urte honen barnean, nik dakidanik, hamar liburu argitaratu ditu argitaldari berri honek.

Ibonen lan guziak bezala, aztergai eta argibide ezagugarriak dakarzki. Batez ere gure literatura, euskaraz argitaratzen diren liburuen bidez, zientzia gisa aztertzeko metodologia berri bat dakar; ez teoria hutsez, baizik xeheki landutako liburu honen bidez. Euskal irakurleen artean harrera ona izan duela iduritzen zait eta bakoitzari zer pentsa ematekoa da. Nere aldetik gorezmenik kartsuenak merezi ditu liburu honek.

Era honetako lehen liburua denez gero, zer esanik ere ez, hutsen bat edo beste izango du, baina hutsok tipiak izango dira bere on askoren ondoan.

Hasteko, tipikerizko ohar bat egingo genioke, urrengorako kontuan har dezan. Bederatzigarren orrialdean, liburu hautapeneri buruz dihardualarik, Unesco-ren arabera jarraitzeko 48 orrialdetik gorakoak hartu behar direla oinarri, eta kontuak zehatz eramateko "Depósito Legal" haintzat hartu behar dela. Haserako puntu hau eta ondorean I.N.L.E.-ren estadistikari lotzeak ez ditu egileak hain argi azaltzen. Zeren nondik atera ditu mugazandiko liburuen berriak? Haiek ez dute ez "Depósito Legal"ik ezta bere antzerakorik ere, eta I.N.L.E.-ek bere katalogoetan ez ditu jasotzen Ifar Euskal Herrian argitaratzen diren liburuak. Beraz, handikaldekoen berriak atera dituen iturria ere ezagugarri izango zen. Gainera, ez dakigu liburuetan begiratu duen "Depósito Legal"-en argitasuna ala alderantziz, errejistroko agirietatik liburuak aurkitu dituen. Holako lan batean hasierako argitasunak zehatzago behar zituen.

Liburu produzioa aztertzeko hara nola mugatzen duen bere lana: Gerra aurrekoak 1934-1935 urteak (hobeto esan, bien urte erdiak, 1934.aren azken sei hilabeteak eta 1935. lehen sei hilabeteak) eta gerraondoko 1962-1963 eta 1972-1973. Muga bi horietan ere sei hilabeteak zatituaz.

Hortik abiaturik anitz helburutara jotzen du. Hemengo produzio estadistikak Espainiakoarekin konparaketaz jarriaz eta Espainiakoa Europako zenbait naziokoekin. Estadistikok kuadroak eginaz agerraraziz. Estadistika horietatik lehen golpean argi ikusten duguna zera da, besteekin egiten den konparaketan, gerraondoko 1962-1963koa euskarazko produzioa beheraxeago dagoela. Baina hau argi dago mugazemendik 1937tik 1949ra bitartean dena galerazia zegoela ikusirik. Eta berriz hastean lehengo idazle askoren hutsuneaz aparte belaunaldi baten hutsa nabari dela, non eta nola jarraitu ezinezkoaren kontua. Honegatik, gerraondoko hasierak latzak izan ziren bizkor joan ahal izateko. Geroztik goraka datorrena da euskarazko liburuen produzioa eta ez zait iduritzen goi muga batera heldu denik. Parte batean I. Sarasola berak bestelako iritzia agertzen du, goi maila batera heldua dena, baina

ikastolak eta alfabetatze kanpainak goraka doazen artean ez dugu ikusten produzioa gelditzeko arrazoirik.

Populazio edo biztanleez katalanen produzioa baino zerbait handitxoagoa dugu, baina Islandiakoarekin konparatzeko oso urruti gaude. Hizkuntzaren ofizialtasuna izanen dugu etorkizunean goraka igotzeko garrantzitsuena, eta hau ez zaigu erregaluz etorriko, ez horixe. Azken politika erabagiak oraindik ere ez digute erakusten agintarien borondate onik, eta behetik gorako ekintzak bakarrik irikitzen digu esperantza bakarra, herriaren gogoia sendotuaz handituko dena. Beraz, egoera hau hain itsua ez denak egun hobeen argia ikusiko du. Gure artean geroago eta gehiago dira konturatzen direnak hizkuntza maite ez dutenek ez dutela herririk maite eta gizon zintzorik ez dela ezkontzen maitatzen ez duenarekin.

Produzio estadistika horiei, zenbat liburuko argitalpenak direnaren argi bidea falta zaie. Euskarazkoetan, batanazbeste 1.000-tik 1.500 alerakoak izaten dira. Katalanez 3.000tik 5.000 alera artekoak nonbait. Beste hizkuntzetakoak zenbatekoak? Gaztelez badira 50.000 alekoak ere, gehienak hiru edo lau mila doi doi badira ere. Honek garrantzi handia du ekonomiaren aldetik. Hala ere, gure hizkuntza bezalakoarentzat, ekonomia gora behera hau az da azken hitza. Sarasolaren liburuaren 22garren orrialdeko agiriak lekuko, islandesarekin gertatzen dena ikusten badugu, laster konturatuko gara hizkuntzaren ofizialtasunetik gure kultura bideak eta irakaskintzak eskuratuaz noraino joan gindezkean. Ez dugu itxaropena galtzerik.

Ondorean, Ibonek, euskal liburugintzaren klasifikazioari heltzen dio, materiak banatuaz eta hauen eboluzioa adiaraziaz, azterketarako gai hartu dituan liburu guzien tituluak eta egileak, argitaratze lekua eta urtea. Aurrez mugatutako urte horien barneko liburuak dira. Gero, gaiak numeroz kuadroetan jartzen ditu. Beste kapitulu batean idazlegoaren estruktura epez-epe agertzen digu. Epe bakoitzeko grafikoak agertzen digutenez, gerraondoko lehen epean euskal liburugintzan ari ziren gehienak, diferentzia handiarekin, elizgizonak ziren (1962-1963 epean), baina azken epean sekularrak ari dira goitik. Beraz, 1972-1973 epean, sekularrak gehiago izateaz aparte adinez gazteagoak dira. Arrazoi biologiko honek erakusten digu etorkizuna nondik joan leikean.

Azken kapituluan euskararen batasunaren egoera ikutzen du, 1972-1973 epea aztertuz. 27. eta 28. kuadroak ikusi ondorean (99 eta 100 orrialdeetan) hara zelako aldiak nabari diren: sekularrak, 27 batasunaren aldekoak eta 7 batasunaren kontrakoak; elizgozonak, 16 batasunaren aldekoak eta 12 batasunaren kontrakoak. Agiri hauen aurrean, beste honako bereizketa egiten du egileak, sekularrak eta apez edo elizgizonak

aparte harturik: elizgizonetatik oro, % 57,1 batasunaren aldekoak; eta sekularrak orotara, % 79,4 batasunaren aldekoak. Diferentzia hoién aurrean, proportzioz, elizgizonen atzerapena nabari da, eta bukatzeko, adinari begiraturik, 50 urtez beherakoen artean batasunaren aurka dauden lau idazleak apaizak direla. Hemen ere zer pentsa agerrarazten digu.

Eraskinezko kapitulu tipi batean euskal literatura zaharreko liburugintzaren xehetasun batzuk ematen ditu, 1545etik 1879ra bitartekoak, era orokorrez.

Azter lan ederra Ibon Sarasolaren liburu hau, euskal literaturaren ekintzaren lagungarri.

Ibon Sarasola, con su obra *Euskal Literatura numerotan* introduce una metodología práctica para someter la literatura euskara contemporánea a un análisis científico, para ver la perspectiva general desde varios ángulos. Comienza con una estadística de la producción tomando por base el último y el primer semestre de los años 1934-1935, 1962-1963 y 1972-1973. El primer capítulo trata escuetamente de la producción general; en el segundo capítulo clasifica los temas de dicha producción y su evolución. Además, en este segundo capítulo muestra la relación general de autores y títulos de las obras de los años referidos, y por último presenta en cuadros estadísticos la producción clasificada en la materia correspondiente según la normativa de la Unesco. En el tercer capítulo trata de la estructura de los escritores en cada época, y el cuarto capítulo, en torno a la situación de la unificación del euskera escrito en la época 1972-1973. Un 70,3 % de los escritores siguen la normativa recomendada por la Academia de la Lengua Vasca en 1968, y el resto están diseminados en distintos dialectos, según los datos estadísticos del señor Sarasola. Y finalmente contiene un apéndice con datos generales de la producción literaria en vascuence desde 1545 (fecha del primer libro impreso en vascuence) hasta 1879 (fecha en que comenzaron los premios de poesía instaurados por D'Abbadie a este lado de la frontera del país).

Es un libro que no tiene desperdicio y que ayuda a comprender la evolución de la literatura vasca a través de los tiempos y, sobre todo, el desarrollo alcanzado en época contemporánea. Además, en el primer capítulo, el autor, ha tenido el buen cuidado de establecer tablas comparativas de las producciones españolas, francesas y de otros países de Europa.

1976-I-12.

EUSKARA ZIENTZIA BIDEAN?

Edozein hizkuntza literaturagintzan heldutasun batean sartzen denean, berehala zientzia lanetan sartzen da. Euskarak, edo euskal idazleak, gogoak aspaldikoak ditu baina oraintsu ekin dio aspaldiko nahi horretan abiatuz. Injineru eta ekonomista gazteak elkaturik eta R. S. V. Amigos del País-en laguntzaz eta babesez “Elhuyar” izeneko aldizkaria sortu dute. XVIII, mendean, Peñafloidako kondearen zuzendaritzapean sortu zen elkarteak Bergarako Mintegian irakasle eta ikertzaile izan zuen Fausto Elhuyar errioxarraren oroimenez.

Egun guti dela “Elhuyar” aldizkariaren bigarren zenbakia zabaldu da: Matematika, fisika, biologia, hidroeletrika, eta zientzia eta teknikerako hizkuntzaz dira orain arte erabili dituen gaiak.

Bat-batean nekeza egiten zaigu holako aldizkari batek euskaraz bizi-bidea izan lezakean uste izatea ere. Baina gogoaren ahalmena nekez da neurtzen. Lehenago ere euskaldunok egin dugu holakorik. Eta hau aitortzean 1950ean Guatemala-ko puntan sortu zen “Euzko-gogoa”kin gogoratzen naiz. Orduan eta han sortu bai zen euskaraz inoiz izan zen kulturazko aldizkaririk hedatuena. Eta, garai hartako egoeran nork uste izango zuen bederatzi urte luzeetan biziko zenik? Literatura, historia, linguistika eta beste zenbait jakintza era orokorrez erabili zituen, eta gaietan ez-zezik gerra ondorengo bideak irekitzean lagundu zuen. Eta oraingo hau urrats handia dugu.

Zientzia gaiak apenaz landu dira euskaraz. Liburu banakaren bat bada. XVII. mendean Nabegazioneko liburua idatzi zuen Piarres Etxeberri. XVIIIgarrenean J. A. Mogelek idatzi zuen *Peru Abarkan* ere bada anatomia eta teknika gaia, eta Justo Garateren iritziz literatura zaharrean euskaraz idatzi diren liburuen artean bikainena da, zientzia alderditik begiraturik. Fisika eta Kimika G. Jauregi aramaioarrak egin zituen. Lakoizketak landaren hiztegia hornitu zuen. Telesforo Aranzadi berak ere, perretxikoak eta landarak eta arrainak estudiatzean beren euskal izenak jaso zituen. Bouda eta Baumgartl jaunek hortaz baliaturik tesis bat osatu zuten. Azkue eta Lhande-ren hiztegieta bada gairik estudio horietan baliatu ahal izateko, eta Barandiaranen bilketa lana ere aipagarria da. Aranzadi Zientzia Elkarrekin ere lan ederrik egin digu hiztegi osatzen, eta berari esker Ediciones Omega delakoak txori, perretxiku, arbola direlako esku-liburuetan arkitzen dira hiztegiok. Olabideren anatomia hiztegiak oinarritzat zerbitu zion A. Goenari bere *Giza-bizia* hornitzeko. Bere eraginez medikuntzakoak ere euskarazko lanetara zerbait behartuak omen dira. “Elhuyar” aldizkariaren bigarren

aleak bere 36/48 orrialdeetan ematen digu orain arte zientziaz euskaraz egin denaren zenbait berri, M. Zalbiden bibliografia oharrez.

Eta oraingo hau aurreramen izigarria dugu lehen egin denaren gainean. L. Bandres, Tx. Peillen, E. Erguin, J. M. Goñi, J. R. Etxebarria, A. Sagarna, G. Larrañaga eta aipatutako M. Zalbideren lanak argitaratzen dira bi zenbakiotan

Gure giroan izango dira hiztegi jatorrez baliatzen ez diren usteak, baina uste hau ederra da txukunkiariaren trukez ezer egin gabe gelditzeko. Baina hizkuntzak, biziko bada, plazara irten beharra du, eta plazaratzeko hitz abstraktoak bereganatu beharra, nondikakoak direnari jaramonik egin gabe. Elizak berak bere garaian horri begiratu balio, behar bada gaur ez genun euskararik; baina elizak bere garaian latinetik bezala, guk ere teknika hitzak nonnahitik jaso beharra dugu. Eta, honetarako ez da biderik egokiena non zelan sortu zen aztertzea eta haren etimologia jakin ondorean guk gurera berria asmatzea. Hala ere, bere muinean hango ideiakoa izango bait da, eta ideiaaren itzulpena bera ez da asko hobea.

“Elhuyar”koak, txikieria hoietan gehiegi arduratu gabe, gaiaren funtsera lotuak datoz, euskara alor berrietara ekarriaz, ekin eta eraginak bideak irekiko dituen uste garbian.

Oraindik urte gutxi dela, ez genuen horrelakorik espero. Gure mende honen lehen partean Euskal-Esnaleakoak “Itzaldiak” sailarekin jakintza bideari zabalera berri bat eman zioten, baina oraingo hauek askozaz haruntzago doaz beren asmo eta ekintzetan, “Elhuyar” aldizkaria lekuko.

Prueba evidente de la madurez de la literatura eúskara en nuestros días es la revista de ciencias, enteramente en vascuence, que ha aparecido bajo el título de “Elhuyar”, como suplemento al Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, en San Sebastián, por iniciativa de un grupo de jóvenes ingenieros de diversas especialidades.

Es muy escaso, por no decir escasísimo, el material que se dispone en vascuence en temas científicos. Algún libro que se ha tenido como pieza rara, como un manual de navegación del siglo XVII y otras obras que sin ser muy técnicas hayan descrito o tratado estos temas. Es el caso de *Peru Abarka* de Moguel, en forma de una enciclopedia, escrito en el siglo XVIII. Sobre esta obra dijo el Dr. Justo Gárate en 1936: “Si me

OHARRA: Ekintza honen ondorenez, 1976an argitaratu zen Aranizadi Elkarteke talde baten egin zuten *Natur Zientziak. Hiztegia*.

preguntaran: "¿Cuál cree usted que es el libro vasco cuya traducción es más interesante desde el lado científico?", yo elegiría sin vacilar "*Peru Abarka*".

Euskal-Esnalea hizo un sano intento, a primeros de nuestro siglo, en elevar a la cultura moderna el vascuence escrito con su colección de conferencias "Itzaldiak". La creación de una revista cultural titulada "Euzko-gogoa" en Guatemala, en 1950, constituyó otro nuevo avance; pero el lanzamiento de una revista científica no tiene parangón en la historia del vascuence escrito.

Matemáticas, física, hidroeléctrica, biología, etc., son las materias tratadas en los dos primeros números de la revista, con aportaciones de L. Bandrés, J. M. Goñi, D. Peillen, E. Ergüin, J. R. Echebarría, A. Sagarna, G. Larrañaga y M. Zalbide.

Las recopilaciones de aquellos infatigables Aranzadi, Lacoizqueta, Azkue, Lhande, etc., prestarán un gran servicio a estos jóvenes animosos a lo largo de su empresa por elevar la vieja lengua del pueblo a las técnicas más modernas de la cultura occidental, de la que, a decir de Aranzadi, nuestro pueblo no era ningún cuerpo extraño dentro de este mundo cultural del occidente europeo.

Deseamos larga vida a la revista "Elhuyar" y vaya nuestra sincera felicitación a los jóvenes promotores por su gran lección en la fe con obras.

1975-V-5.

LANTEGIETARAKO EUSKARA TEKNIKOA

Gure gurasoak, zertan ziharduenik gabe jardun ziran egunean egunekoa betetzen, hizkuntza eurengan sustraitua zegoenez kultura eta teknika gaiak be euskeraren bidietatik eroiezen. Ha ez zan herrigintza, herri bizitza baiño.

Ofizialtasunik barik, eurenari guttietsirik, ahulduaz juan zan usterik barik eguneroko ekintzatik gerokoari emotea. Era honetan, poliki poliki beste kultura baten bendeko bihurtzen juan ginan, mendeak zihar hauzoko kulturatik zetorrenaren morroi bihurtzen, kasik konturatu barik.

Gaur, morroitzza horren bendetik urtengo badogu, bihar biharrezkua dogu sustrai jatorretatik geure herrigintzara jotea. Lehengo emaitzak ahortu ziranez, iturburu barriak zabaltzen egin gehinke gure herrigintza.

Bide hau hain argi ikusten ez dabenak be badira eta horregatik ezkribitzen dot gaur eibartarrez, gainerako gipuzkoarrak konturatu daittezen euren txokoko euskara baino zabalaguaren biharren garela herrigintza honetan burua alzatuko badogu. Gainera, lantegietarako euskara teknikora beste inungo herrik ez dabelako emon guk haina. Badakigu kaleko zaldiari be mendikoari legetxe zaldia edo zaldixa deitu bihar geuntsagula, kaballua deitu biharrian. Baina baita badakigu telefonua jatorragoa dala urrutizkiña baiño. Euskara tekniko gintzan beste ezertan baiño gehiago daukagu besteetatik datozen aurrerapenak datozen moduan hartu biharra. Teknika hiztegietan lege bihurtu da joera hau eta guk pe mundu guztian moduan jokatu biharra daukagu. Baiña baita be badakigu gure geuriak ditugunak be gorde ez-ezik erabilli bihar ditugula.

Gogozko asmuok bideratzeko, argitaratu barri da “*Zortzi urte arteko Hiztegia*”, Euskaltzaindiak preparatua eta Gipuzkoako Diputaziñuaren laguntzaz agertu dana.

Pozarren ikusi dogu Elgoibarko Danobat, S. Coop. lantegiak atara daben liburutxo, “*Tecnico-industrial Hiztegia*” (Erdara-Euskara) izen-ekoa, baiña pozgarriago izan da guretzat Eibarren jasotako hainbat hitz bertan irakurtzea. Gure gurasuak trebiak izan ziran benetan teknikazko gauzak euskeraz erabiltzen. Eta alde honetatik ezin uka Euskal Herriko kulturagintzaren pizkunderako zerbait emon ez dogunik. Danobat lantegiak Elhuyar taldekuen laguntzaz egin daben liburutxo horretan argi dagoan gauza da.

Nunbait oso aspaldikoa dogu eibartarrok euskara teknikoaren zaletasuna. Eibarren bertan jaio zan Juan Antonio Mogel, “Peru Abarka” liburuaren egillea. Mogelek, liburu horretan, hamazortzigarren mendeko bizitza erak eta ohiturak jaso zituan, eta liburuaren iaugarren parteko alkarrizketan aitziniako ola-zaharretako langintzak eta bertako erremintak zehaztasunez jaso zituan. Berari esker dakigu gaur, XVIIIgarren mendean hartako olak zelakuak ziran. Toribio Etxebarria berak egin eban “*Lexicón del euskera dialectal de Eibar*” (1965-66) liburuan be teknika hitz asko jasotzen da. Baiña nik nere aldetik luzaroko ekintza izan neban Eibarren erabiltzen ziran hitz teknikoak jasotzen eta bihar zan moduan ordenaturik Euskaltzaindiko “Euskera” aldizkarian argitaratu nituan 1958 eta 1959an. Beste hiztegitxo bat eratu eban Jabier Zubiaurrek, ola-zaharretan (ferrerietan) erabiltzen ziran hitzez eta “Euskera” bertan argitaratuak dira 1960an; honek, gehienak Larramendi eta Mogelegandik jaso zituan, erdal itzulpenak ipiniaz. Euretatik ikusten da, bertako eta kanpokoz, eibartarrok euskera teknikorako ze bihar ederra burutu dogun.

Eibarko burdiña lantegietan erabiltzen ziran hitzez berrehunenbat fitxa hornitzen dira, eta bada bertan gauza politik. *Barautsa* nundik eta zelan hartua edo asmatua dan jakitzea ezta gauza erraza, baiña bertatik dator *barauts-etxe*, erderaz “portabrocas” deitzen dana; era berian ditugu *hortz-etxe*, “portacuchillas” eta *epaiki-etxe*, “portasierra” edo “arco de sierra”. Gaztelerara herbestetik sartu barri dan “agripar” edo “gripar” hitzarentzat be guk aspalditik geunkagun *alekia*. Materialetan be jatorrago gorde ditugu gure hitzak, beste leku batzuetan aspaldi galdu ziranak; esate baterako, “plomo”, *beruna* gorde dogun legetxe.

Armagintzan barriz zer esanik be ez. Erderatik etorritakoeri be bertako forma emoten jakin eben gure gurasuak. *Kaiñogiña*, *txispagiña*, *kaxagiña* eta *aparejugiña*, hor ditugu sasoi bateko gremio zaharren agiritzat. *Baskulagiña* berandukoa dogu, arma zaharrak baskularik gabiak ziran, baskula geroago asmatua zalako. Europako lehenengo gerratian sartu ei zan *txantxilloia*, frantseseko “échantillon”-dik hartua.

Berbak, hitzak, gauzen izenak, betikoa izan da hizkuntza bata besteari hartzea, hizkuntza biziak lege izan dabe alkarren artian, eta gurean ezin zeikean beste era batera izan.

Baiña batutako hitz teknikoetan gehien harritu ninduana, tenplean erabiltzen ziran hitzak dira: *galda*, *gori*, *iraotu*, *suberatu*, *urebagi*, eta abar. Hitzok gure teknikako aurrerapenetan aspaldikotasuna erakusten deuskuenak dira, eta bertatik neurtzen da gure gurasuak galtzairuak tratatzeko ohituretan ze aittuak ziran.

Aurtengo otsailaren 16an, Madrid-eko Ateneo-an eibartar batek emon eban euskarazko hitzaldi eder eta jakingarri bat, “Euskara teknikoa” gaiaz. Han izateko aukera izan neban eta pozgarri izan jatan ehundik gora entzulek zelan jarraitu eben ikustia. Eibartar hizlaria Jose Ramon Etxebarria izan zan, Bilboko Unibersidadeko Facultad de Ciencias-eko irakasle dana. Han bertan agertu eban historian zihar gure euskara teknikoa zelan etorri dan, bai ederto azaldu be aurkitzen diran problemak eta euron bideratzeak nundik eruan, gaur eguneko egoera zertan dan eta euron ondorioa etorkizunari begira. Gure herrigintza honetan nundik nora jua bihar garan argi eta garbi erakutsi zeuskun Jose Ramonek. Ikusten danez gure herriko esaera zaharra ondo tajutua dauka: atziak erakusten dau aurria zelan erabili. Eta gaurtik geruari begira goiazzen artian ez goiaz gaizki.

Aurrerantzien be jarraituko ahal dau Eibarrek era honetako frutuak eskintzen. Hala bedi.

OHARRA: Urte honetan argitaratua izan da *III Semana de Antropología Vasca*, bi tomotan, teknikeri buruz, eta hortik ere bada aipatzen dugun hiztegitxo honi zer itsatsi.

Adecuar al presente con miras al futuro, es la problemática que se le presenta al vascuence, para acomodar su terminología técnica. Tarea normal de toda lengua en su proceso evolutivo. Es el fin que persigue el diccionario *Zortzi urte arteko Hiztegia*, dividido por materias, preparado por la Real Academia de la Lengua Vasca y editado bajo el patrocinio de la Excma. Diputación de Guipúzcoa para su aplicación en las escuelas para los niños comprendidos hasta los ocho años.

Por esta razón hemos visto con agrado el vocabulario técnico-industrial editado por Danobat, S. Coop. de Elgóibar, preparado con la colaboración del grupo Elhuyar de San Sebastián. En esta nomenclatura nos ha sido muy grato a los eibarreses el ver que han sabido sacar provecho al vocabulario técnico que tradicionalmente se ha utilizado en nuestra villa.

La aportación de Eibar y los eibarreses a la terminología técnica en vascuence, en lo que respecta a la metalurgia, ha sido un caso insólito en nuestra historia. Juan Antonio Moguel, el autor de "Peru Abarka" era nacido en Eibar y en la cuarta parte de los diálogos, dicha obra recoge, además de las formas de vida y del trabajo en las ferrerías, un vocabulario completo de las máquinas y herramientas usadas en aquellas ferrerías del siglo XVIII. Toribio Echevarría, por su parte, en su obra "Lexicón del euskera dialectal de Eibar" recoge, asimismo, considerable repertorio de la terminología armera y metalúrgica. J. Zubiaurre codificó los términos usados en las ferrerías, con sus equivalencias en castellano. Y el que suscribe, compuso un extenso vocabulario técnico de la metalurgia, publicado en "Euskera" (1958 y 1959), órgano de Euskaltzaindia.

Esta propensión le es tan suya a Eibar, que el 16 de febrero del presente año, a un eibarrés le correspondió pronunciar una conferencia en vascuence sobre el euskera técnico en el Ateneo de Madrid. Este ilustre eibarrés es José Ramón Echevarría, profesor de la Facultad de Ciencias de la Universidad Autónoma de Bilbao. Tuve la fortuna de asistir a su conferencia por coincidir aquellos días en Madrid y me alegró muchísimo presenciar a más de un centenar de oyentes euskaldunes, residentes en Madrid, que siguieron la conferencia con muchísima atención, a juzgar por los numerosos diálogos sostenidos al final de la exposición del señor Echevarría.

1976-V-31.

UNAMUNO ETA EUSKARA

Oraindik orain ere, euskararen kontra datozen argudioak Unamunok aspaldi eman zituenak besterik ez dira. Duela hile batsuk, guraso hizkuntzeri buruz berbiztu ziren eztabaidetan ere hala ikusi genuen. Badirudi bajoitzak bere gogorako onduen datorkionari heltzen diola.

Beti izan naiz Unamuno zale pentsamenduzko saiaeretan, batez ere esistentzialismoko aburuetatik hainbeste eta hain sakon jardun zen Migel Unamunokoarena. Gaur, jakintzak geldirik ez daudenez, Unamunoren pentsamenduak errebizio zehatza eskatzen du, eta askoz gehiago hizkuntzari buruzko gaietan.

Kulturaren izenean euskararen etsai agertu direnen arteko dugu *Indice* aldizkaria, Unamunoren esanak ahotan harturik. Baina Unamunok 1902. urtean argitaratu zuen *La cuestión del vascuence* saiaeraren geroztik ur asko pasatu da zubipetik. Geroztiko hizkuntzalariak, soziologoak eta pedagogoak eurak bestelako usterik agertu dute. Egungo munduko erakunde nagusiak zer bide hartu duten ikusi besterik ez dugu. Kontu hauetan, jakin nahi duenak badaki; jakin nahi eztuenak irauen du itsu.

Salbatore Mitxelenak argitaratu zuen *Unamuno eta Abendats*-en nahikoa maitasun azaldu zuen bilbotar pentsatzailearen alde, baina euskararen kontuan ez zetorren bat. Geroago, Martín Ugaldek *Unamuno y el vascuence* izeneko beste saiaera liburu bat, prolemaren haritik hildoz jarraitzen duen liburua, 1966an argitaratu zen, gazteleraz gainera, baina *Indice*koak ez dira enteratu eta lehenagoko topiko zaharrerri jarraitzen diote. Bapo!

Hauzi hontaz neronek ere zerbait idatzi nuen eta berriz helduko diot gai berari, askoren enteragarri. Gai hau *Euskararen inguruan* izenez 1969an argitaratu nuen saiaeraren lehen kapituluari erabili nuen eta bertako zati batzuk hartuko ditut, Unamunoren *La cuestión del vascuence* ber-beraren hitzetatik arrapostuaz. Berak zion: "Cada pueblo ha ido asentando en su lenguaje su concepción abstracta del mundo y de la vida, y en la extensión y comprensión que da a cada vocablo va implícita su filosofía" (M. de Unamuno, *Obras completas*, t. III, pág. 765). Eta berak euskarari gunik aurkitu ez bazion, ez zen euskararen errua, bere euskararekiko ezjakintasunarena baizik.

Gure ahoak farre egiten eta gure begiek nigar egiten euskararekin ikasi genuenontzat, gauzak besterik dira. Beraz, zergatik ez euskaldun irau? Zer da gure gunetikakoa? Unamuno berak gaztelerarentzat esan zuen honako hau ez ote?: "La lengua, he de repetirlo una vez más, es la sangre del espíritu" (*Obras completas*, t. III, pág. 1.081). Gure diferentzia

bakarra, berak gazteleran aurkitu zuen guna, guk euskaraz aurkitzen dugula. Berak gaztelerarentzat aurkitu zituen arrazoi berdinak zergatik ez guk euskararen baitan? Hainbeste hitz egin da aspaldiko urteetan kulturaren eta aurrerapenaren izenean gure hizkuntza baztertu dezagun, Unamunok eskatzen zuen bezala, ia geure buruak ere ezagutu ezinera arte, eta iritziak ere bere errotik atera ditugu.

Gainera, azken batean, euskararen arazoan, Unamunoren helburuak eta gureak ez dira berdinak, eta bere atzoko usteak ez dira gure gaurko iritzietarako baliorik dutenak. Gaurko munduak bestelako ikus-molderik du. Unibersoa guztiok osatzen dugun zerbait da, eta unibersalismoaren aurkakoa da osatzen dutenetarikoren bat baztertzea.

Egia da, "euskaldun zertako?", arazo honetaz egin den galderarik sakonena da, noski. Bere denboran indarra zuena, baina gaur egungo ikus-moldeetara lotzen ez dena.

Baina Unamuno berak hizkuntzaren balioaz erabili zituen hitzak aski ditugu bere tesis hura botatzeko. Arestian aipatu dudan nere saiaera horren (*Euskararen inguruan*) lehen kapituluaren helburua hori izan zen.

Baita ere, esan beharra dago, Unamunok ez zuela aurkitu ezer merezigarririk euskal literaturan. Dena ezagutu ote zuen? Nik ezetz uste. Unamunok, bizkaiko euskalkiz, zerbait idatzi zuen, eta bere euskarazko izkribu horiek eta euskarari buruz agertzen dituen iritziak ditugu lekuko. Bere jakintzak ez zuen ahalmenik euskara ongi irentsi ahal izateko. Bestalde, herri literaturarenik ez zekien ezer. Geroago eta gehiago baliatzera datorren herri literatura ez zuen inondik ikusi.

Baina euskararekiko eta euskal kulturarekiko huts horiek ez dira arrazoi bakarra. Eskubidetasunaren arrazoiak ere badira. Munduan gizon bakoitzari bere eskubidea errespetatu behar zaion bezala, herri bakoitzari ere bere errespetua zor zaio. Euskaraz hezi eta hazi ginenontzat zergatik ez besteak haina eskubide?

Gaur, zorionez, gizarte arazoak eta linguistika berriak bestelako bideak daramazkite. Estrukturalismo jakintzak, hizkuntzeri itsatsirik, bestelako arrazoirik ematen digute.

Baina arraina ahotik hartzen denez, betor Unamunoren irakaspenetarikoa bat: "Adueñarnos de nuestra habla es cobrar tierra, independencia y libertad espirituales" (*Obras completas*, t. VI, pág. 957). Hitzok biribilago ezin dira etorri gure alde. Beraz, euskaldunok, iratzar lo-zorroitik.

Urteak igaro ondorean ere, Humboldt jakintsuaren zentzuzko esaera hari arrazoi eman beharrean gara: hizkuntza bakoitzak barruti liluragarri bat markatzen duela, mintzatzen den herria bere gisa inguratzen duena.

Aquella tesis de Unamuno, "La cuestión del vascuence" presentada en 1902, si en su día era muy discutible, hoy resulta desfasada. Recurrir a la misma para menospreciar al vascuence, como en ocasiones se está haciendo, ya no tiene sentido en nuestros días. Además de que sus argumentos están superados, hemos de tener muy en cuenta que a Unamuno le surgieron considerables antitesis. Si alguna parte de sus pensamientos merece revisión, en lo que respecta a la lengua apenas le queda base que lo sostenga. Varios autores han debatido aquella tesis unamuniana, aparte de que los derroteros modernos de la sociolingüística están marcando otro rumbo en el Universo. Y, por último, en 1966, M. de Ugalde publicó un libro muy documentado y bastante definitivo sobre el tema. Pero, además, los conceptos sobre el valor de una lengua que fueron emitidos por el propio Unamuno en trabajos posteriores, contrarrestan rotundamente sus argumentos anteriores. Los mismos me sirvieron para rebatir su propia tesis en uno de los capítulos del ensayo que publiqué en 1969 en torno al vascuence (*Euskararen inguruan*). Para ejemplo, cualquiera de los tres párrafos transcritos de sus obras (que van intercalados en el texto en vascuence) atestiguan cuanto digo.

1975-X-27.

EUSKARARENTZAT BERRI HOBEAK

Irakaskintzarako lege berriak leiho bat ireki digu. Euskararentzat berri onak? Ez deritzagu hainbestearino. Hala ere urrats handia da, eta esan genezakegu: Euskararentzat berri hobeak.

Agustin Kardaberazek 1761ean argitaratu zuen *Euskeraren berri onak* izeneko liburua, eta bere 16 eta 17. orrialdeetan, hau zion: "Emen guraso ta maisuak falta andi bat erremediatu bear dute, ta gure euskerari orañdaño baño mesede geiago egiñ. Gendeen artean beste linguajerik euskera baño ditxa gabeagorik ezta ikusi, ta, gure jatorrizko edo jaiotzako izkera ez baliz bezala, ta euskaraz itzegitea pekaturik aundiena baliz bezala, giza artetik kendu ta lurpean ondatu nai dute, ta eskoletan sortija edo siñaleakin, azote ta kastiguakin, eragotzi nai dute. Zer erakeria itsuagorik au baño? Euskaldun prestuak, ez arren orrelako ofensarik zuen lehengo ta beti bear dezuten euskerari egin. Zuen juizioa non da? Euskalerrietan nola gauza onik izan da?"

Foruen garaian hori gertatzen bazen, foruak galduz gero zer espero zezakean gure euskarak? Carlos III.ak 1768an eman zuen Real Cédula hartan eskoletan gaztelera behartzea eskatu zuen eta denborarekin euskara ere honen agindupera erori zen. Era honetara, historian zehar, gure hizkuntzak, egun onak baino maizago izan ditu egun txarrak. Orain, atertu gabeko zigorra, baretu dela dirudi. Autonomiaren garaian argi izpi bat ezagutu zuen, eta oraingo lege berriak egunsenti berri baten esperantza dakar.

Egia esan, oraingo hau, borondatez eskatzen dutenei ikasbiderako erraztasunak ematea besterik ez da. Hala ere gauza handia da, Espainiako Estaduaren lehen urrats hau, eskoletan haureri euskara irakasteko.

Arazo honetan Europa guziak abantaila handiak egin ditu azken urte hauetan, herrien Europaren aldeko politika ideiak geroago eta aurrerago ari dira eta nolabaiteko eragina zabaldu du bere lau aldeetara. Espainia hartzen ari den bidea bera, UNESCO-k azken urteetan nazioeri eskatzen ari zenari erantzun egoki bat ematea da. Esan ditekete lehen muga jartzen zigun hizotz hura eten dela eta bidea urraturik dugula. Izan ere, UNESCO-k hizkuntza guzientzat errespetua eta laguntza eskatzen bai du, munduaren bake biderako.

Antonio Tovar-ek *La lucha de lenguas en la Península Ibérica* (1968) lanean zionez: Mundu modernoan era modernoak bakarrik salbatu lezakeala hizkuntza, eskolak lehen mailakoak ez ezik maila nagusietakoak ere bai, radioa, telebista eta abar, beharrezkoa direla hizkuntza salbatzeko.

Eskoletan euskara ikastetik, denborarekin, euskararen bidez ikastera ere jo beharra izango da. Orain gurasoak beren aldetik antolatuturik eta beren lepotik ordaindurik mantentzen dituzten ikastolak betetzen dutenaren arabera, Estaduak ere bereak dituen herri eskola ofizialetan horrenbeste egin beharko du. Dena dela, berriz ere esango dugu, lehengo ezer ezetik urrats onuragarri hontara heltzea guziok poztekoa dela.

Administrazio ofizialetan ere, euskarak lekua izango du. Ordua zen. Zeren, izan ere, lotsagarria zen jatorrizko hizkuntza naturalak gauza ofizialetan eskubiderik eza. Garena ukatzea bai zen. Oraindik orain ere, egiazko hizkuntza ofizialtzat geroztik sartu zaigun hizkuntza bakarrik dugu. Kontu honetan, zapalaketarekin bukatuko badugu, beharrezkotzat jotzen dugu lehenbait lehen berdintasun batera heltzea. Hau bai da gutienik eskatu genezakeana, eskubide berdinak izatea.

A. Kardaberazek bezala salatu zituen J. A. Mogelek ere Euskal Herriko irakaskintzan euskararen kontra egiten zen diskriminazioa. 1829an, Yose Paulo Ulibarririk egin zituen ahaleginak Gernikako

batzarreak euskarari laguntasun ofiziala eman zekion. Eta, 1830ean, Agustín Pascual Iturriagak, era berean, Gipuzkoako Batzar jeneralari Memoria bat aurkeztu zion. Foruen azken partean, euskaltzale horien asmoak, bide hobekoetatik zijoazten, baina eskubideak galtzeaz gauzak txartotu ziren.

Gure egunokartekoa guztiok ezagutzen dugu. Hain zuzen, egunotan hartu dut Justo Garateren lan bat, *El anillo escolar en la proscripción del euskera* izenez. Bol. del Instituto Americano de Estudios Vascos-en argitaratua. J. Garatek gai hau lehenago ere maiz erabilia du R. S. B. Amigos del País-ko beletinean. Beti bezala agiri zehatzat ematen dizkigu. Kardaberaz, Mogel, P. Iturriaga eta oraingo euskal idazleen testigantzak agerraraziz, eta bereziki Miguel Unamuno-ren joko iluna salatuz. Izan ere, Unamuno-ren jokoa oso makurra izan zen euskara kontuan, urriaren 27ko artikuluan erakutsi genuen bezala.

Garatek, Arturo Campión-en *Blancos y Negros* (1898) nobelako pasarteak gogorazten dizkigu. Nor ez litzake tristetuko Martiniko gaxoaren larritasunak ezaguturik? Nork ez ditu ezagutu erdararik ez zekiten euskaldunak beren buruak gutietsirik?

Garateren herritar zen T. Aranzadi berak ere hala salatu zuen eskoletako eratzuna. Oinatin 1918an egin ziren batzarretan. Eta hemendik eraman zuen J. Caro Barojak *Los vascos*-era (1949), 317 eta 327 orrialdeetan dakarrenez. Gauza bera edo antzerakoa gertatzen zen bestelako irakaskintza mailetan ere. Apaizen seminarioan bertan ere bai. M. Ugalderekin *Hablando con los vascos*-en J. M. Barandiaranek kontatutakotik ikusten denez.

Zorionez, garai berri baten aurrez aurre gaude. Bueltia datorrela dirudi eta euskarak egun hobeen argia ikusiko duen esperantza ederra dugu. Hala bedi!

El nuevo decreto sobre la regulación del aprendizaje de las lenguas que se vienen llamando vernáculos o regionales, no deja de ser un importante avance. Sabemos que el decreto ha quedado corto para adoptar las medidas necesarias que urgen para la salvación del vascuence, que es lo que se trata en el fondo. Pues si de veras —y así lo creemos— hay una sana intención por su salvación, esperamos continúe una amplia apertura para superar de una vez este problema y establecer los mismos derechos a la lengua natural como las que goza la introducida.

Antonio Tovar, en su obra *La lucha de lenguas en la Península Ibérica* decía bien claramente que “En un mundo moderno sólo los me-

dios modernos (escuela y grados superiores de educación, radio y televisión, etc.) pueden asegurar la conservación de la lengua”.

La discriminación lingüística que nos muestra el panorama histórico no es para recurrir a la cura con remedios menores. Un trabajo reciente del Dr. Justo Gárate sobre “El anillo escolar en la proscripción del euskera” recoge abundante material sobre la represión sufrida por el vascuence desde el siglo XVIII hasta nuestros días.

De todas formas, este decreto es un inicio muy grato y muy favorable, y digamos con el autor del primer libro impreso en vascuence, Bernat Dechepare (1545), “*Debile principivm melior fortuna seqvatur*”.

1975-XII-1.

SAN MILLAN DE LA COGOLLA

Ekainaren hamabostean ospatu zuen Euskaltzaindiak, San Millan de la Cogollan, lehen euskal esaldien mila urtehurrena.

Euskara hain zaharra delarik, hizkuntza idatzi bezala berrienetakoa dugu. Idazteko moldeak, letrak, latinetik hartu ziruen. Latinak kultura idatziaz aurea zeramanez, hemen, bertako ikasiak ere latin hizkuntza erabiltzen zuten idatzitako eginkizunetan. Hau da Errioxan gertatzen zaiguna Erdi-aroko agiritan, eta latinez ez dagoena garaiko erroman-tzean dago. Eta, erromantze hau, Aragoi-Nafarroan agiri idatzietan erabiltzen zena, gaurko gazteleratik baino katalan hizkuntzatik hurbilago dago.

Erromatarren garaian, Akitania erresuman arkitzen diren oroitarrietan, “*ara roma*” bezala ezagutzen direnak, zenbait izen eta zenbait hitz arkitzen dira. Inoiz hitz soila edo pertsona izena baino zerbait gehiago ere bai, Lerga-ko harrian bezala, “*ume sahar*” (ume zahar), adibidez. Baina aintzinako idatzi haiek esaldietara ez dira heltzen. Esaldiak, orain mila urte, Donemiliako glossetan hasten dira, eta lehen lehenak “*jzioqui dugu*” (“izotu dugu”, gaur esango genunean eraz) eta “*guc ajutu ez dugu*” (“guk ez dugu aiutu”, egungo joskeraz). Bizkai aldean oraindik erabiltzen den “*adiutu*” hitza irakurri behar dugu hemen.

NOTA del autor: El citado trabajo del Dr. Gárate sobre el anillo escolar, ampliado, ha vuelto a ver la luz, y esta vez en la prestigiosa revista navarra “*Fontes Linguae Vasconum*”, VIII (1976), pp. 367/387.

Bai erromatarren garaiko oroitarrietan idatzia eta bai Erdi-aroan zehar euskaraz idatzia ezagutzerik nahi baldin badugu, beharrezkoa zaigu Mitxelenak orain hamar urte argitaratu zigun *Textos arcaicos vascos* liburu ezaugarria. Liburu honen 41/44 orrialdeetan dugu "Glosas Emilianenses"i buruzko atala. Alfonso Irigoyen-ek garai horretako izkribu agirieri buruz egin zuen euskaltzain sarrera hitzaldia Kukullako Donemiliagan eta gaiak zehaztasun handiz aztertu zituenez, aurrerantzean kontuak izan beharko dugu bere ikerketa lana.

Kukullako erromes ohiturak, VI-VII mende inguruko Donemilia bera baino lehenagokoak dira behar bada. "Monasterio de Yuso"n bada oroitarri bat, erromatarren "ara" horietakoa, "*Dergetio*" jartzen duena. Bosgarren mendean, Berceo herri izena "*Vergegio*" bezala agertzen da, eta dena bat dela dirudi. Gainera, erromatarren Tritium Magallum (Tricio) hiria ez dago hain urruti. Pundu hau behar bezala ezagutzeko arkeologoak egin beharko dute lana.

Euskaltzaindiak Instituto de Estudios Riojanos-ekin batean egin zuen batzar ageri hartan, beste zenbait gauzaren artean, Latxagaren *Errioxa'ko San Millan*, euskal iturri izeneko liburu polita aurkeztu zen. Latxagaren orain artekoak bezala, liburu baliosa, jakingarria, txukun egina eta erraz eta atseginez irakurtzekoa. Arte aldetiko adiarazpenetan eta mendeen aipamenetan hutsen bat edo bestez ohartu gara. Suso Monasterioaren parterik zaharrena, Visigotiko zaharra, VI-VII mende-etakoa da (lurpeko geleri buruz ari gara), eta elizaren arkitektura zaharra X. mendeko Visigotikoa (Latxagak 22garren orrialdean dakartzkin dibujoak X eta XI. mendeetakoak dira), J. E. Uranga eta F. Iñiguez-ek *Arte medieval navarro*-ren lehen tomoaren 185/214 orrialdeetan dakartenez. Erromanikoaren lehen partea, Nafarroako Santxo III-garrenaren aginduz jaso zenez, XI. mendearen lehen partekoa izan behar. Eta, mende honen askenaldera altxatu zena dakar 25garren orrialdean, elizaren Mozarabe partea.

Liburuaren barna, Erdi-aroak eta geroztik inguru haietan jasotzen diren euskal hitz, izen eta esaldiak ere jasotzen ditu, baina lastima da agirietako grafia dagoen bezala ez errezpetatzea. Dena dela, bertan jasotzen da lehen aldiz "*Cella alboheta*" ere, liburuaren 28/29 orrialde-etan dionez, Merino Urrutiak bildua. Hemen baditeke egileari biltzaileak horrela ematea.

X. mende hartan Errioxa Nafarroarena zenez, Gartzia Santxonis Nafarroako erregeak kapera batzuk eman zizkion Donemiliagako monasterioari eta agiri hartan agertzen da "qui vulgo dicitur *Cella alboheta*" (= kela alboheta), eta honek argi ta garbi jartzen digu glossak

idatzi ziren garaian Errioxako inguru haietan herriak euskaraz mintzatzzen zuela.

Geroagokoak ditugu Gonzalo Berzeo-koaren idazkiak (XIII. mendearen lehen partekoak), zenbait euskal izen jasotzen direnak.

Lehen euskal esaldi horiez aparte, Kukullako Donemiliagak, agertu dugun bezala, badu besterik ere gure sentimenak bertaratzeko. Historiak anaitasunez lotzen gaitu eta arte zahar paregabeak lehenaren misterioetan lausotzen.

Beheko eliza Nafarroako Garzia IVgarrenak hasi eta Santxo IXgarrenak bukatu zuen lehen zati batean. Gaur, arkitekturaren aldetik gordetzen duen baliozkoena Pizkundearen lehen parteko platereskoa du, kalostrea barna delarik. Geroztik barroko gehigarriak ere izan ditu. Baina barroko garaikorik, arkitektura baino garrantzikoagoak ditu pinturak, eta pinturen artean Rizi-ren lan handi eta bikainak. Baina, denen gainez, marfilezko bi kutxatilla, biak erromanikoak, bata XIgarren mendekoa Donemiliagaren errelikiak gordetzeko egina, eta bestea XIIgarrenaren azkenaldikoa nonbait, San Felizes-en errelikiak gordetzeko egina. Liburutegi eder bat era badu, liburu zaharrez hornitua.

Edergarri guzi hauek bisitagarri egiten digu Kukullako Donemiliaga.

La Academia de la Lengua Vasca y el Instituto de Estudios Riojanos han celebrado recientemente el milenario de las "Glosas Emilianeses" en San Millán de la Cogolla, donde figuran las primeras frases escritas en vascuence. En las antiguas lápidas aquitanas en el Pirineo central y occidental, del período romano, se conocen inscripciones donde figuran nombres e incluso palabras en vascuence, pero ninguna frase completa se conoce hasta las referidas glosas escritas en la Rioja.

Un estudio sintetizado del contenido de estas frases lo hallaremos en la obra *Textos arcaicos vascos* (páginas 41/44) de Luis Mitxelena.

Lo que San Millán representó para los vascos del medioevo lo describe Latxaga en su ameno libro de divulgación, *Errioxa'ko San Millán, euskal iturri*, de reciente publicación y cuya presentación se hizo con motivo de la citada reunión.

Hay en San Millán dos templos monumentales, que en ambos hay reconstrucciones y ampliaciones de diversas épocas. La primera fase del Monasterio de Suso, las cuevas artificiales, son visigóticas de los siglos VI y VII, más hay una primera parte arquitectónica, también de estilo visigótico, del siglo X, que es todo lo que comprende el pórtico y la nave

dividida en dos partes por tres arcos de herradura. Una continuación de la misma nave, con dos arcos semicirculares, de estilo románico, constituyen parte de la reconstrucción llevada a cabo por orden de Sancho el Mayor de Navarra a primeros del siglo XI. Mas tiene otro añadido de estilo mozárabe de la segunda mitad del siglo XI.

En el Monasterio de Suso es admirable el conjunto renacentista con su claustro. La parte barroca tampoco es despreciable, y se pueden admirar las pinturas de Rizzi. Pero lo más extraordinario del templo son las arquetas románicas, de marfil iconografiado, que se hicieron para conservar en ellas las reliquias de San Millán y de San Felices.

El lugar guarda un atractivo especial por sus bellezas artísticas y naturales.

1974-VII-15.

ARABAKO EUSKARA

Arabako euskarak bere hondarreraino jo du eta laster ez zaigu euskalki honen lorratzik ere geldituko. Gasteizen bertan Bizkai-Gipuzkoetatik joandako industriak eraman dituzten familiegandik eta gasteiztarrak aspalditik erakutsia duten euskaltzaletasunetik sortuak diren ikastola eta alfabetatze taldeetatik indartuaz datorren ekintza girotik ezer sortzekotan ere, ezta izango Arabako euskalkia, Gasteizen orain erakusten diren euskara motak: batuan, gipuzkeran eta bizkaieran oinarritzen dira. Bada hor zer hautaturik. Baina, nere iritzian, Gasteizen, Arabako euskara ez erakustekotan beste inon baino arrazoi handiagoa aurkituko dugu euskara batua erakusteko.

Baina gaurko hontan beste gauza batek naroa Arabako euskarari buruz. Irakurri berri dut J. M. de Sasía jaunak Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos deritzan aldizkariaren 105. zenbakian argitaratu duen "En torno al euskera alavés" izeneko lan ederraren lehen partea. Bibliografia osoa biltzen ez badu ere, berri jakingarri asko eskaintzen digu.

Harritzekoa da asken bi mendetan Arabako euskarak izan duen gainbehera bizkorra. Orain, laster suntsitzeko zorian aurkitzen zaigu. Eta arabarrak euskaldun zirenen kontzientzia hartuko badute Sasía jaunaren antzerako lanen premian daude.

Hil honen 28an Arabako Diputazioak eta Euskaltzaindiak Odón de Apraiz jaunari omenaldia eskainiko diote eta ordurako behar bada

kalean izango da O. de Apraizen idazlanen bilduma. Jakingarriak izango dira bere lanok, batez ere Arabako euskara zer izan den eta noiztik nora galduaz joan den ezagutzeko. Gai hontaz zenbat zekien ongi adiarazi zigun Lakarreran "Vasconia medieval" liburuari 1958an Boletín de la Institución "Sancho el Sabio"n eskaini zion aburuzko lan hartan, eta Jon Bilboaren Bibliografiatzko lanen lehen liburuko 198garren orrialdean begiratzen badugu, beste lan askoren berri jakingo dugu. Baina, horrez gainera, beste zenbait lan oraindik argitara gabeak ere izango omen ditu bilduma horrek.

Askok errazegi esan izan dute Araban egiten zen euskara bizkaiera dela, baina hori ezta egia. Behar bada, beste euskalkietatik inoren antzik izatekotan edo inorgandik hurbil egotekotan Bizkaikoa izanen du sendirik hurbilena. Eta, zalantzarik gabe, orain oraindik bizi den tokietan, Bilerreal, Ubidea, Elosu, Olaeta eta inguru hoietakoa.

Bizkaiaren hegoaldeetik urak Ebro partera ebakitzen diren aldetik hasten zaigu euskalkien bereizkuntza. Otxandion bertan egiten dena ere ezta Durangaldeko euskara mota zehatza, ezta gutiagorik ere. Honegatik, Andres Iturzaeta otxandiarrek idatzitako "Berbaldiak" Frai Juan Antonio Unzueta abadiñoarrak "Bizcaico eusqueran ibiniac" agertzen zaizkigu 1894an. Argi dago Abadiñoako batentzat Otxandioko euskara ez dela bizkaiera. Sei urte geroago Iturzaetak berak argitaratu zituen "Esaldiac" ordea, egile ber berak bizkaieraz jarriak dira. Hontaz, Otxandion oraindik gordetzen diren Iturzaetaren esku-izkribuak begiratu beharrezkoak dira, Araba aldeko euskararen mota bat direnez gero.

Euskalkiak elkarrengandik urrunduaz hobeto bereizten dira, jakina; baina toki hurbilean aurkitu genezakeen bereizketarik nabarmenena, Arabako kasu honetan, mendiz harandik eta mendiz hemendikoa da, Ebro Alderako hegaletatik Kantabria alderako hegaletara. Igaz, 1975ean, Karmel aldizkariaren 2. zenbakiaren 52/57 orrialdeetan Patxi Uribarrenen lan eder bat argitaratu zen, "Aramaio Araba ote da?", galdez eta adibideak emanez. Eta 4garren zenbakiaren 52/56 orrialdeetan erantzuna eta argibideak emanez Puxanaren lan bat, "Oleta Aramaio ote da?" Geografia politikaz Arabako diren herri eta hauzo hoietan hizkuntzaren morfologiaz dauden bereizketen berri emanez. Honelako lanak behar ditugu euskalkiok non eta zelan mugatzen diren zehazki jakingo badugu.

Hauek hola izanik, Azkueren "Cancionero popular vasco" delako bilduma ederrean aurkitzen diren mendiz harandikoak, Otxandio eta Ubidea barne direla, Arabako euskalkikoak areago dira Bizkaikoak baino. Eta uste hontatik ondo ari zaigu Gorka Knörr kantaria inguru hoietakoak bilduz eta plazetan kantatuz.

Beste gauza bat izango da Federiko Barrenengoak Aiala parteko agiriak erakutsiko digutena. Behar bada Jose Paul Ulibarriren euskaratik hurbil aurkituko dena. Eta zeharo bestelakoa Sabandoko Gamizena, nafar joerazkoa, hurbiltasunagatik eta Iruñan eskolatua eta bizia izan zelako. Pedro Barrutia ordea, Leinz haraneko euskaratik hurbilago dabilena. Hiru idazle arabar hiru mota desberdinez.

Arabak, bestek baino lehen izan du euskararen hiztegia. Hau da, N. Landuchio-ren *Dictionarium Linguae Cantabrigae* (1562), M. Agud eta L. Mitxelena jaunek "Julio Urkixo" Mintegiaren babesean 1958an argitaratua.

Oraindik lan asko dugu egiteko Arabako euskara zer zen era zehatzez jakiteko, Odón Apraizen lanok agiri berririk emango digute gai hontaz. Araba bera, batez ere Gasteiz, egoera berri baten aurrez aurre agertzen zaigu, eta lan hoiek izango aldira gogo bizkortze baten lagungarri, iratzartze berri batetik Araban euskara berbizteko. Hau opa diogu.

J. M. de Sasía ha publicado recientemente un trabajo titulado "En torno al eúskera alavés" en el Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos. Lo que acabo de leer es la primera parte del trabajo que promete ser una interesante síntesis general sobre el tema. En la documentación, bastante completa, observamos una pequeña laguna de estudios publicados en vascuence en las revistas Euskera, Egan y Karmel.

Este trabajo nos trae a la mente otro próximo a ver la luz. Se trata de las obras completas de Odón de Apraiz, actualmente en prensa y que se espera su presentación el día 28 del presente mes, durante el homenaje que al autor le rendirá la Diputación Foral de Alava con la cooperación de la Real Academia de la Lengua Vasca, de la que el señor Apraiz es miembro de honor.

La variedad dialectal alavesa, muy próxima a la vizcaína en lo que hoy se conoce, en la frontera con Vizcaya se afirma en los municipios y aldeas de la vertiente del Ebro, Ochandiano, Olaeta y Ubidea. Así nos corroboran el criterio seguido por Fr. J. A. de Unzueta de Abadiano y los estudios recientes presentados en los números 2 y 4 de 1975 en la revista Karmel.

Alava vive un momento interesante, por la inmigración guipuzcoana y vizcaína y por el despertar de la conciencia colectiva de la propia provincia. Se puede pensar en la conservación donde aún se habla

euskera e incluso en la recuperación de otros puntos de su geografía. Para esto, Alava cuenta con gente activa dedicada a la literatura, a los estudios, a la enseñanza y a la canción moderna. Que respiran y aspiran un renacer de su primitiva lengua.

Alava cuenta con pocos escritores antiguos en vascuence, pero éstos pocos han contribuido con aportaciones de gran interés: P. Barrutia de Aramayona (1682-1759) autor de una pieza teatral, J. B. Gámiz de Sabando (1696-1773) autor de los poemas "Dabilzentxoak", J. P. Ulibarri de Oquendo (1775-1847) autor de un calendario y de un extenso epistolario. Cuenta además con el Diccionario de Landuchio, del año 1562.

1976-XII-13.

EUSKALTZAINDIA (I)

1918an, Oñatin izan zen Euskal Ikaskuntzaren lehen bilera sortu zen Euskaltzaindia, Euskal Herriko Diputazioen babespean. Bere egintza, hizkuntzaren inguruko estudioak eta hizkuntzaren bizia indartzea, euskaldunak zuzpertzuz. Honetarako, bi sailen beharra adierazi zen, linguistika estudioak eramango zituena eta herriari begira ikastaroak antolatu eta argitaldarieri lagundu. Horrez gainera, Euskaltzaindiko bulegoak itzulpen laguntzak eskaini, gaztigatzei erantzun eta abar. Handik hilabete gutxira, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko Diputazioak ontzat hartu zuten.

Oñatiko bilera haietan lau gizon izendatu ziren euskaltzain, eta beren esku utzi zen Euskaltzaindia antolatzea. Hauek, sortu berri zen Euskal Ikaskuntza elkartearen laguntzarekin, 1919ko irailaren 11rako eratu zuten lehen bilera. Gipuzkoako Diputazioan izan zen eta asmoak aurrera eramateko, beste zenbait gauzaren artean, euskaltzain berri hauek izendatu zituzten: Eguzkitza, Intzagaray, Landerretxe, Lhande eta Olabide.

Urte berean, urrengo bilera batean, Azkue izendatu zuten euskaltzainburu eta Eleizalde idazkari. Ohorezko euskaltzain egin zituzten Schuchardt, Vison eta Uhlenbeck; eta 44 laguntzaile izendatu ziren.

1920an sortu zen *Euskera* aldizkaria, Euskaltzaindiaren boletin bezala, hizkuntzaren ikerketeri leku emateko, eta bertan jasotzen dira elkartearen lan eta agiriak. Aldizkari honek, bere lehen parte bat izan zuen 1920tik 1937ra arte, eta bigarren aldian 1956tik argitaratzen da.



Euskaltzaindikoko batzar batean, 1927an. Ezkerretik eskubira, zutik: N. Ormaetxea, J. Elissalde, S. Altube, J. Urkuxo eta R. Olabide; iserita: J. Eguzkitza, B. Etxegai, R. M. Azkue eta G. Lacombe.

Gaur, behar beharrezko dokumentutzat dute euskeraren azterketa lanetan ari direnek. Euskaltzaindiaren historia zehatzago bat ere, neronek gertaturik, urre-eztaietan, aldizkari honetan agertu zen. Ikusi, *Euskera*, XIII. tomoa (1968), 293/299 orrialdeetan.

Euskaltzaindiak bere urte larriak igaro ditu, bere ekintza lana behar bezala burutu ahal izateko. Ikusi besterik ez dugu, berakin batera sortu zen, edo hobeto esan bere gidatzaile nausia zen Euskal Ikaskuntza elkartearen suntsitu zala. Euskaltzaindia, izatez, Euskal Ikaskuntzaren hizkuntzari buruzko sail bat bezala zen, bere nortasun eta jabetasun guziaz bazuen ere, eta elkargo nagusi hura bezala, zenbait urtean galzorian agertu zen. Alde guzietako eta era guzietako eragozpenak izan ditu — inoiz, gainera, euskal hizkuntzaren aldeko direnetatik ere bai, maiz ezinezko ekintzen eskariak eginaz—. Hala ere, giro larrietan zehar, bere lana aurrera eraman du. Ez seguru askok nahiko zuen bezain gartsuki, baina ez eta ere Euskaltzaindiaren barnean gaudenok nahi izan dugun indarrarekin. Gauza bat da nahi izatea, eta beste bat ahal izatea. Baina dudarik ez dago sortzaileak nahi izan zuten izpiritu berarekin jokatu dala,

Urkixok zion eran: indarrak elkartuaz, denok eta bakoitzak, bakarrean eta elkarturik, hizkuntzaren berbizkundearen alde.

Eginak egin ere, Euskaltzaindiko gehienok gaude gure ekintzari gutxi-etsirik. Beraz, ez da harritzekoa ere, kanpotik, egin ahal duguna baino gehiago eskatzea. Baina, era berean esango dugu, kanpotik laguntzen zaigunaren neurrian hobetu eta gehitu ahal izango dugula gure ekintza lana.

Kontu honetan, adierazpen ederra dugu alfabetatze kanpañen bidez egin dugun, eta egiten ari garen, lana. Euskaraz mintzatzen diranei irakurtzen eta idazten erakutsiaz (beharrezko lana hau ere, euskaldunoi eskolan euskararik erakutsi ez digutenez), erakusketa hau ondoren onak ematen ari da eta oraindik gehitu eta indartu beharrean gaude Euskal Herriko txoko guzietara heldu arte. Gainera, irakurtzen eta idazten erakustetik aparte, euskal literaturaren berriak ere ematen dira.

Izan ere, hogeigarren mende honetan, gauzarik lotsagarrienetako bat dugu, zenbait herrik oraindik beren askolarik eza, beren hizkuntzak ofizialtasunik ez izatea. Hau da gurearekin gertatzen dena ere, euskara gure jatorrizko hizkuntza naturala izanik, mintzatzen den herrietan ere ofizialtasunik ez edukitzea. Honek, bere ondorio ditu herri-giroan egonezina eta nahieza sortzea, bizitzaren zenbait parte nahasteko. Herri bati bere izakera naturala ukatzea bai da; eta honek ezin du ekarri ondoren onik.

Bestalde, baita ere, esan beharra dugu, zenbait puntutan hizkuntza eguneroko har-emanetarako elkarren arteko komunikatzea baino zerbait gehiago dala. Zeren, gainera, jatorrizko kulturaren emaitzak dituen iturria dalako. Adibidez, argi dago herri-literaturaren agerpenik bereziena dugula bere bidez; baina honi beste gauza asko gaineratuko genizkioke artikulu honetan bere haritik irtetzea ez balitz. Dena dela, gauza hauek ere zeharo loturik daude Euskaltzaindiaren bizitzarekin eta noizbait ikutuko ditugu. Oraingoz, eta urrengoan elkartearen laneri jarraituko diogu, gainerakoak geroagorako utzirik.

El día 5 de septiembre de 1918, durante el Primer Congreso de Estudios Vascos celebrado en la Universidad de Oñate, bajo el patrocinio de las Diputaciones vascas, se llegó al acuerdo de crear un organismo de investigación y tutela del euskera, dividido en dos secciones: sección de investigación, cuyo objeto sería el estudio de todos los problemas de lingüística euskérica en todas sus facetas; y sección de labor práctica de tutela y restauración del idioma vasco en todos los órdenes sociales,

publicaciones, ayuda a los establecimientos docentes que implanten la enseñanza del vascuence, oficinas de traducción, consultorio de corporaciones, etc. Y a los pocos meses aprobaron el proyecto las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya.

En la primera reunión celebrada en la Diputación de Guipúzcoa, el 11 de septiembre de 1919, los académicos numerarios designaron en el Congreso de Oñate: R. M. de Azkue, A. Campión, L. de Eleizalde y J. de Urquijo, hicieron la elección de otros miembros de número para componer Euskaltzaindia. En tal ocasión correspondió a Egusquiza, Inzagaray, Landerretche, Lhande y Olavide.

Aquel mismo año 1919, Azkue es elegido presidente por mayoría de votos y Elizalde secretario. Y dentro del mismo año, en reunión del mes de octubre, fueron nombrados honorarios: Schuchardt, Vinsón y Uhlenbeck; más 44 miembros correspondientes.

En 1920 fundó la revista especializada a estudios de la lengua, bajo el título de *Euskera*, órgano que recoge los trabajos y actas de la Academia y que hoy viene a ser una documentación indispensable para cualquier estudio sobre el idioma. Tuvo un primer período desde 1920 a 1937, y en su segunda época se viene publicando periódicamente desde 1956. En esta publicación encontraremos también una historia más detallada de los primeros 50 años de vida de la institución: ved *Euskera*, tomo XIII (1968), páginas 293/299.

La Academia, no hay duda, ha atravesado años muy difíciles, y ha sufrido incompreensiones —y éstas, muchas veces, por parte de personas que precian el idioma vasco—. A pesar de que la trayectoria general seguida haya sido aquella que nos aconsejó el eminente vascófilo que tanto honró a Euskaltzaindia, don Julio de Urquijo, al decir: "...es preciso que los trabajos y esfuerzos existan y que todos y cada uno de nosotros, aislada y colectivamente, coadyuvemos al resurgimiento del idioma".

A este respecto tenemos un buen ejemplo de cooperación y desarrollo incremental con las campañas de alfabetización, organizadas por la Academia, para enseñar a leer y escribir a los vasco parlantes (necesidad imperiosa, porque a los vascos no se nos ha enseñado nuestra lengua en las escuelas), está dando resultados óptimos y es necesario su propagación. Que además de enseñar a leer y escribir se dan nociones de literatura vasca.

Dicho sea de paso que, quizás, uno de los hechos más bochornosos del siglo veinte sea, que aún haya lenguas que no tengan reconocimiento oficial dentro del territorio hablado. Y esta negación a un hecho natural ha provocado un desequilibrio que afecta a diversos órdenes de la vida social. Porque es atentar contra la libertad natural de una comunidad.

Por otra parte, hemos de añadir también, que la lengua es algo más que un instrumento de comunicación entre los que la emplean a diario. Pues es, además, la fuente de donde mana el caudal de la cultura tradicional del pueblo. Para un ejemplo, la literatura popular, es evidentemente una de las manifestaciones más importantes; pero a ésta siguen otras facetas cuya enumeración detallada nos extendería excesivamente de los propósitos del presente artículo, pero que en otra ocasión abordaremos puesto que están ligadas a la vida de la Academia de la Lengua Vasca.

1972-IV-10.

EUSKALTZAINDIA (II)

Lehen partean aipatzen genuen bezala, Euskaltzaindia urte larriak igaroaz doa, bere babeseko hizkuntzaren ofizialtasunik ezak dituen eragozpenak ditu kaltegarri. Guztion gogoetan daude L. Mitxelenaren hitz haiek: gaurko munduan, ofizialtasunik ez duen hizkuntza, nekez biziko da, gorde ahal izateko behar dituen laguntza beharrezkoenak baldin ez baditu. Eta, bestalde, galtze hau ez da izango inorendako probetxugarri eta bai guztiontzako kaltegarri.

Eragozpen hoieri gaineratzen badiogu, diru laguntzarik urri duela bere gainetik dituen aldundegietatik, lanak behar bezala bizkortu ahal izateko; laster konturatuko gara elkartearen ekintza bere lankideen borondatezko indar soilari begira dagoela.

Egoera honek bultzatzen du hizkuntzaren bizibide indarren alde gehiago begiratzea, etorkizuna zuzpertz dadin.

Hala ere, bere ahalmenok hain neurtuak daudelarik ere, espezialidazko hiztegitxoak osatu ditu; adibidez: Aritmetika, Geometria, Geografia, eta abar. Lehen mailetakako ikastaroetarako hiztegi bat ere bai. Arkitektura hiztegia aurrera daroa, "Eusko-Folklore" urtekarietan eta Azkue, Lhande eta Mujikaren hiztegietan oinharriturik. Eta beste zenbait hiztegi txikietatik aparte Euskal-Erdal hiztegi nagusiaren lanak jarraitzen ditu, Azkuerenean onharriturik, gehigarri eta zuzenketaz, L. Mitxelenaren zuzendaritzapean.

Euskara idatziaren batasuna, bere zereginetako bat du Euskaltzaindiak. Irakaskintzak testu bateratuak behar ditu, kultura hizkuntzen bideetatik jarraitu nahi bada behintzat. Diru-galera handiegia litzake

euskalki bakoitzari bere ikas-liburuak egitea; batez ere, euskalkiok enbor batetik sortutako adarrak direla dakigularik. Badakigu lan luzea dela, baina ez ezina. Eta ez dugu zalantzarik behar beharrezkoa dugula literaturaren ugaritze eta indartzeko. Orain arte, batasunerako gomen-datu diren normak, Ortografia, Hiztegia eta Idatz-arauak dira. Bide hestuegiak jarri gabe eta euskalkiak barreiatu gabe egin da. Hobeto esan, euskalkiok elkarregana gehien hurbiltzen diren parteetan.

Euskalduneri euskaraz irakurtzen eta idazten irakasteko alfabetatze kanpainak herriz-herri hedatuak daude eta azken urteotan irakurle asko ugaritu da, batez ere gazteriaren aldetik. Gainera, euskal literaturaren berriak ere ematen dira.

Bi urterik behin egiten ziren bertsolari txapelketak berriz hastekotan dira, beren antolakizunetan era berrituak. Honek adierazten digu, Euskaltzaindia, ahozko literaturarekin ere arduratzen dela.

Aurrezki Kutxen laguntzarekin, literatura sariketak ere antolatzen dira. Hauen artean, aspaldi denik, urtez-urte egiten direnak: bi urtetik behin "Txomin Agirre" nobela saria (aurten tokatzen da) eta "Toribio Altzaga" antzerki saria (datorren urtean); urterokoak, "Lizardi" izenez olerkientzat eta "Xenpelar" izenez bertso-paperena.

Bere elkartasunean egiten diren estudioen artean, gaur egun, ikerketetan lagungarri izango diren fitxeroak antolatzen ari da, espezialisten lagungarri, eta bere frutuak luzarora ikusiko dira. Toki-izenen azterketan ari da, herri eta hauzoetatik hasita leku-izenez jarraitzeko. Euskal izenen zerrendak gertatzen ari da, behar bezala dokumentaturik; lan honen lehen parte bat Nafarroako diru-etxe batek argitaratuko du.

Bukatzen ari da gaur euskaraz salgai dauden liburu guzien katalogu bat, egile eta gaien ordanementuz. Milatik gora badira.

"Euskera" du Euskaltzaindiak bere aldizkaria, bereak dituen lanak edo naiz bere lankideenak argitaratzeko; iker-lanak, agiriak eta abar. Beste artikulua batean adieraziko dugu zehatzako "Euskera" zer den. Liburuak argitaratzea bere egitekoa ez bada ere, bere bizitzan zehar asko argitaratu ditu —batzuk aldizkariaren separata bezala, zabalkunde handiagorako—, eta liburu hoietatik garrantzizkoenak dira noski, iker sailean: Azkueren *Morfología vasca* (1925), S. Altuberen *Erderismos* (1930) eta J. Haritschelharren *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* (1969-1970), eta abar. Literatura aldetik, A. Anabitarteren *Usauri* (1930) eta *Donostia* (1933) nobelak; eta autore zaharragoetakoak: Axularren *Gero* (1954), Arrese-Beitiaren *Olerkiak* (1954), Lardizabalen *Testamentu berriko kondaira* (1957), Azkueren *Cancionero popular vasco*, eraskinekin birargitaratua, (1968), eta abar.

Araba, Gipuzkoa eta Laburdin ordezkari-tza bulegoak ditu, eta Bilbon bere etxea (C/. Ribera, 6-1^o). Etxe honetan bere liburutegia du, linguistika orokorrez, euskal linguistikaz eta euskal literaturaz hornitua, batez ere kanpotik hartzen dituen laguntzori esker, eta “Euskera” aldizkariaren trukez hartzen dituen liburu eta aldizkariarekin aberastuaz datorrena.

Urtearen buruan euskal kulturari dagokion galdera asko jasotzen ditu, batez herbesteetako Unibersidadeetatik, eta bere sekretaritzaren bidez erantzuten dira edo lankideen esku utziaz, galdetzen denaren gora-beheran. Denborarekin, aipatu dugun fitxeroa izango da lan honetan gehien lagunduko duena.

Como habíamos apuntado en la primera parte, la Academia de la Lengua Vasca atraviesa años difíciles, originados principalmente por la falta de oficialidad de la lengua que representa. Están en el ánimo de sus miembros aquellas frases de L. Michelena: “Una lengua no oficial difícilmente subsistirá en el mundo de hoy si no dispone del mínimo de medios necesarios para su conservación. En segundo lugar, esta desaparición no supondría un provecho para nadie y sí un empobrecimiento para todos”.

Si a esto añadimos que el apoyo material de las corporaciones a que pertenece es muy escaso para un normal desarrollo en las actividades, nos percataremos de que la buena marcha de la institución está condicionada a merced de los esfuerzos voluntarios de sus miembros.

Estas circunstancias especiales impulsan a una dedicación mayor a la tutela de la lengua, atendiendo al fortalecimiento de la supervivencia.

A pesar de sus limitadas posibilidades, ha formado vocabularios de especialidades, por ejemplo: Aritmética, Geometría, Geografía, etc. Un vocabulario para uso correspondiente en primer grado de enseñanza básica. Se está formando un vocabulario técnico de arquitectura, basado en los Anuarios de “Eusko-Folklore”. Aparte de otros breves vocabularios de especialidades, se sigue trabajando sobre un Diccionario Vasco-Español-Francés, basado en el de Azkue, con adiciones y correcciones bajo la experta dirección de L. Michelena.

La unificación de la lengua escrita entra dentro de las cláusulas fundacionales de la Academia. La enseñanza necesita de textos unificados, si hemos de seguir el ejemplo de otras lenguas cultas. Es decir, de una lengua escrita común. Pues sería ruinoso pretender que cada dialecto disponga de sus propios textos; sobre todo cuando sabemos que

estos dialectos han partido desde un tronco común. Conscientes de que es una labor larga, no desalentadora. Y no hay duda, que es vital para el desarrollo de la literatura. Por otra parte, hemos de añadir, que hasta la fecha los acuerdos recomendados no afectan a ningún dialecto.

Las campañas de alfabetización, para enseñar a leer y escribir a los vasco parlantes, está dando óptimos resultados. Que además de enseñar a leer y escribir se dan nociones de literatura vasca.

Los campeonatos de bersolaris, celebrados en bienios pasados, volverán a reanudarse en breve, con nuevas estructuras en su organización.

Sus certámenes literarios, con las ayudas de las Cajas de Ahorros, se vienen celebrando normalmente: los concursos bienales "D. Aguirre" de novela y "T. Alzaga" de teatro; anuales, "Lizardi" de poesía y "Xenpelar" de "bertso-paperak" (hojas volantes de bersolaris).

Entre sus diversos estudios en equipo, en los momentos actuales, se lleva a cabo la organización de ficheros de investigación, para consulta de especialistas, cuyos frutos veremos a largo plazo. Estudio sistemático de los topónimos de entidades de población, a la que seguirá de toponimia menor. Un nomenclátor de nombres de pila, debidamente documentados y que un adelanto del mismo publicará una entidad navarra.

Se está ultimando un catálogo general de todos los libros en vascuence que hoy se hallan a la venta, por orden de autores y de materias. Rebasará el millar de títulos.

Publica un boletín bajo el título de "Euskera" desde 1920, donde se recogen los trabajos de investigación y actas de la corporación, y del que nos ocuparemos en el próximo artículo. Aunque no es misión suya la edición de libros, ha publicado muchísimos en el transcurso de su vida — algunos como separatas del referido boletín—, y de entre los mismos descuellan, por su importancia: *Morfología vasca* de Azkue (1925), *Erderismos* de S. de Altuve (1930) y *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* de J. Haritschelhar (1969-1970), etc. Así como otras obras de valor literario, como son, las novelas *Usauri* (1930) y *Donostia* (1933) de A. Anabitarte, y obras antiguas, como *Gero* de Axular (1954) *Testamentu berriko kondaira* de Lardizabal (1957), *Olerkiak* de Arrese-Beitia (1954), *Cancionero popular vasco*, reedición con apéndice de Azkue (1968), etc.

En su domicilio de Bilbao (C/. Ribera, 6-1º), dispone de una biblioteca especializada a la lingüística general, y lingüística y literatura vasca, que de día en día se enriquece con ayuda de particulares e intercambio del boletín "Euskera",

En el transcurso del año atiende numerosas consultas relacionadas con la cultura vasca, sobre todo formuladas desde las Universidades

extranjeras. Con el tiempo, los aludidos ficheros facilitarán muchísimo esta labor.

1972-V-8.

“EUSKERA”

“Euskera” du izentzat Euskaltzaindiaren aldizkariak eta irten berri dugu bere bigarren aldiko XVI. tomoa, 1971koa. Zenbaki honek, euskaltzainburuaren agurra eta idazkariak gertaturik elkartearen urre-ztaien kronika dakarzki sarrera gisa. Ondoren, urre-ztaietan Euskal Herriko huri nagusietan Euskaltzaindikoak, bere berrogetamar urte betetzean, ospagarri eman zituzten hitzaldiak. Hitzaldietariko gehienak lehengo denboretan hizkuntzaren ikerketan edo euskal literatura ekintzetan lan bereziak eskaini zizkigutenean ohorez eta oroigarri dira. Euskaltzaindiaren barne-antolaketa berritzeaz eta batasuneruntza hartu diren azken erabakiak, elkartearen agiriak (1968 eta 1969, urre-ztaien garaikoak), bibliografia eta euskaltzain guzien zerrenda, elkartea sortu zenetik gaur arte. 256 orrialdeko liburua, zenbait fotografia edergarri dituelarik.

“Euskera”, normalki, hiru hizkuntzaz baliaturik agertzen da (euskera, gaztelera eta frantsesa). Lehen aldi bat izan zuen 1920tik 1937ra bitartean, eta 1956tik gaur arte bigarren aldiz argitaratzen da.

Bere bete beharrak: elkargoaren agiri eta lan bereziak, euskaltzain eta laguntzaileen lanak eta arrotz edo kanpoko euskalarien linguistika lanak.

Lan hauek, gehienetan, hizkuntzaren kidetasun edo senidetasunezkoak, morfologiazkoak, (hizkuntzaren barne-egiturazkoak), hiztegiak, euskalkiz, toki-izenez, testu zahar eta berrien estudioz, ahozko literatura eta gramatiken estudioak, eta abar. Antzinako eskutitzak argitaratzea, testu zaharrak eta arraroak birargitaratzea, bileretako agiri eta erabakiak argitaratze, euskeraren batasunerako arauak ematea eta hauek irakas-kintzara bideratzea, e. abr.

“Euskera”n, kolaboratu zuten eta lagunduaz jarraitzen dutenen artean, euskal letretan hain izen handia edukitzera heldu ziren gizonen lanak agertu dira: S. Altube, A. Arrue, J. Artetxe, R. M. Azkue, A. Irigaray, P. Lhande, M. Lekuona, I. López-Mendizabal, R. Olabide, N. Ormaetxea “Orixe”, L. Villasante, eta abar; eta euskal gaietan ospetsuak direnak: J. M. Barandiaran, A. Campión, L. Dassance, I. M. Etxaide,

Karmelo eta Bonifazio Etxegaray, L. Elizalde, J. Garate, Aita Intza, J.M. Lojendio, G. López de Guereñu, J.M. Satustegui, P. Yrizar, e. abr.; mundu guzian ospe handia duten linguistak: G. Bahr, Ch. Bouda, P. Broussain, H. Gavel, J. Haritschelhar, G. Lacombe, P. Lafitte, P. Lafón, L. Mitxelena, A. Tovar, e. abr. Eta izen hauek, beste gabe, aldizkari honen kultura-hizkuntza balioa adierazten digute, eta honegatik da Euskal Herriko kultura elkarteetan eta Europa eta Ameriketako linguistika elkarteetan eta Unibersidadeetan hain maite eta onetsia izatea.

“Euskera”k neurritz: 300dik 400 orrialde inguru ditu urtero, 21,5 x15,5 zentimetru luze-zabalez. Argitalde bakoitzean 1.100dik 1.500 ale izaten ditu, gaien gora-beheran doa hau, eta inoiz 2.000 ere argitaratu izan dira; eta Euskaltzaindiko, harpidedun eta beste aldizkari batzuen trukez banatzen da. Nahi duten guziak jaso dezake harpidedun bezala, Euskaltzaindira izena ematea aski da (Euskaltzaindia. Ribera, 6-10. Bilbao - 5).

Euskaltzaindia ahalegintzen da aldizkari hau hobetzeaz eta bere zabalkundea gehitzeaz. Inprimeriara eramana du aurtengo lehen zenbakia (XVII -I, 1972): Iker saila, gai laburrak, berriak, erabakiak eta bibliografia izango ditu bere egituraz. Beste zenbaiten artean Justo Garate, Tx. Peillen, M. Lekuona, J. M. Etxaburu, Aita Intzakoa, P. Lafitte, C. Santamaría, L. Akesolo, R. Lafón, P. Uribarren eta abarren lanak agerreraziko ditu.

Euskaltzaindiaz, alde edo kontra, kanpotik mintzatzen diren guziak hobe lukete lehenbizi bere aldizkari hau ezagutu. Gauzak diren bezala kontatu ahal izateko.

“Euskera”ren kolezioa, garrantziduna izateaz aparte, gaur gaurkoz derrigorrezkoa da euskeraren inguruko edozer iker-lanetarako.

Acaba de salir a la luz “Euskera”, que hace el tomo XVI de la segunda época, correspondiente al año 1971. El mismo, después de una presentación del presidente y una breve crónica de las bodas de oro de la institución, recoge actos y disertaciones que tuvieron lugar en distintas capitales del país por miembros de la Academia en conmemoración del cincuentenario, realzando la memoria de distinguidas personalidades del pasado en las investigaciones y letras vascas. Le siguen los últimos acuerdos sobre la reestructuración interna de la Academia para mayor eficacia en los trabajos, normas a utilizar hacia la unificación escrita,

actas, bibliografía y relación de académicos desde su fundación. Un volumen de 256 páginas, con varias ilustraciones fotográficas.

"Euskera" es el órgano oficial de la Academia de la Lengua Vasca. Normalmente trilingüe (vascuence, castellano y francés). Tuvo un primer período desde 1920 hasta 1937, y en su segundo período se viene publicando desde 1956 hasta nuestros días.

Está destinada a recoger, además de actas de la institución y trabajos propios de la Academia, investigaciones diversas de los miembros que componen la entidad, así como otras colaboraciones de lingüística vasca de personas ajenas a la Academia.

Estos trabajos vienen a ser, en términos generales, estudios de lingüística comparativa, parentescos idiomáticos, morfología del idioma, lexicografía, dialectología, toponimia, estudios sobre textos conocidos y sobre recopilaciones orales, etc. Publicación de antiguos manuscritos, reproducciones en facsímil de algunos textos antiguos y raros del idioma, publicación de los acuerdos tomados en sesiones académicas, normas orientativas para el euskera escrito y su utilización en la enseñanza, etc.

En "Euskera", han prestado y siguen prestando su colaboración relevantes personalidades de las letras vascas, como son: S. Altuve, A. Arrúe, J. de Arteche, R. M. de Azkue, A. Irigaray, P. Lhande, M. Lecuona, I. López-Mendizábal, R. Olavide, N. Ormaechea "Orixe", L. Villasante, etc.; otros investigadores de conocida reputación en temas del país, como son: J. M. de Barandiarán, A. Campión, L. Dassance, I. M. Echaide, C. y B. de Echegaray, L. Eleizalde, Dr. Gárate, R.P. Inza, J. M. Lojendio, G. López de Guereñu, J. M. Satrústegui, P. Irizar, etc.; y lingüistas de renombre universal: G. Bahr, Ch. Bouda, P. Broussain, H. Gavel, J. Haritschelhar, G. Lacombe, P. Lafitte, P. Lafón, L. Michelena, A. Tovar, etc. Y estas firmas de prestigiosa autoridad, sin más, garantizan la calidad lingüístico-cultural de esta publicación, y hace que sea solicitada con gran estimación por los centros culturales del país y los centros lingüísticos y Universidades de Europa y América.

La extensión de "Euskera" es de 300 a 400 páginas anualmente, en formato de 21,5 x 15,5 cm. El número de ejemplares por cada tirada es de 1.100 a 1.500 normalmente, depende del tema; y se distributen entre sus miembros y suscriptores, así como en intercambio de otras publicaciones. Pueden recibir como suscriptores todas las personas que deseen, basta con dirigirse a su domicilio social: Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6 1º. Bilbao - 5.

La Academia se interesa en reactivar la publicación en mejora de la misma en sí y en conseguir su máxima difusión. Ha entrado en prensa el primer número del volumen XVII (de 1972), que se comprondrá de:

sección de investigación, breves aportaciones de investigación, noticiario, acuerdos y actas, y recensión de libros. En la misma, colaboran entre otros: Dr. Gárate, D. Peillen, M. Lecuona, J. M. Echaburu, R.P. Inza, P. Lafitte, C. Santamaría, L. Aquesolo, R. Lafón, F. Uribarren, etc.

A los que desde fuera hablan en pro o en contra sobre la Academia, en primer lugar, más les valiera conocer esta publicación.

La colección de "Euskera", además de importante, hoy por hoy es indispensable para toda clase de investigación en torno a la lengua vasca.

1972-V-29.

EUSKALTZAINDIAREN NORTASUNEZ

Joan zen ostiralean, Gobernu Barcelona-n bildurik, Euskaltzaindia dekretuz onhartzea erabaki zuen, euskeraren instituzioa mailan. Askorentzat harritzekoa izango da 1918an sortutako Euskaltzaindiak oraindik nortasun ofizialik ez izatea, baina ezta hori egia zehatza. Euskaltzaindia, 1919an onhartu zuten lau Diputazioak eta geroztik hoi en babespean iraun du. Gertatu dena hau da: geroztik etorri diren lege berrien aurrean ez zela behar bezala ezarria izan. Alde batetik Diputazioen eskubideak eurak ere ez ziren lehengoak eta bestetik 1964an elkarte edo bazkunerik buruz zortu zen lege berriaren aurrean agertu zitzaizkion zalantzak. Baina izatezko nortasunik inork ez zion ukatu.

Urtetxoak dira lege kontuko arazo batetik gertatu zitzaionak erabakiren bat hartzera behartu zela, eta 1970eko urtarrileko batzarrean Euskaltzaindiko lege-gizonen esku utzi zen gure garaiko legeak eskatzen zuten araura jartzeko behar ziren bideak estudiantzea, eta urte bereko maiatzeko batzarrean mintzatu zen Arrue jauna lehen argitasunak emanez eta ondoko urteetan etengabeko eskariak eta jesticioak egin dira, bera Arrue aurren dela.

Hainbeste ahaleginen ondorean, eta etsipenik aski ere izan ondoren, esperantza berri bat sortu zitzaigun Robles Piquer jauna heziketa ministro izendatu zenean, zeren hau izan bai zen lehenago gailegoentzat Rosalia de Castro, katalanentzat Jacinto Verdaguer eta euskaldunontzat José María Iparragirre izeneko literatura sariak sortu zituen. Bestalde, Gobernu berri irekiago baten aurrean ginen eta horrez gainera 1918an Oinatiko Euskal-Ikaskuntza batzarrak irikitzean hain promesa ederrak egin zituen errege Alfonso XIII.aren biloba, errege. Promesa ederrak diogu, bere hitzak bai ziren: "*Consagraos al estudio y fomento de todo*

cuanto pueda contribuir al adelanto y progreso del País, cultivad vuestra lengua, el milenario y venerable euskera, joya preciadísima del tesoro de la humanidad que habéis recibido de vuestros padres y debéis legar, incólume, a vuestros hijos”, batzar haretan esanak.

Gora-behera hoiegatik Euskaltzaindia inoiz ez zen gelditu, bere lema “Ekin eta Jarrai”ri itsatsia eraman du bere bizitza. Urte batzuk besteak baino hobekak izan baditu ere, ez du izan loak hartzerik. Lehen partean gerokoetan baino laguntza gehiago izan zuen eta Azkue buru zela aldi luze on bat igaro zuen, ekintza ederrez beterik. Gudatean izan zuen geldione bat, eta behar bada berakin batera sortu zen Eusko-Ikaskuntza bezala suntsituko zen. Baina 1941ean, Bizkaiko Diputazioaren Junta de Cultura de Vizcaya-ko burugokoak ziren J. M. Areilza (gaur Ministro dena), J. B. Merino Urrutia (gaur euskaltzain ohorezko dena) eta Igartua (orduan Bizkaiko Diputazioko idazkari-ordezko zena) jaun hoiek eskatu zien Azkue zenari Euskaltzaindiaren lanetan jarraitzeko. Azkuek berriz altxatu zuen lena, “Ekin eta Jarrai”. Eta laster hasi zen elkargoari odol berria sartzen, euskalari eta euskal idazle berriak izendatuaz.

Ez ziren haiek euskararentzat urterik egokienak, baina ilunian ere bazen langilerik. Hiru edo lau Kixoteren lanak zeramaten, baina zori onez Kixoteak gehituaz etorri zirenez, errealitatearen egoera haizeak aldatuaz etorri ziren. Gaur egun, euskara, beste arpegi batekin azaltzen zaigu. Euskaltzaindiaren frutuak agerian daudelako ikusten dira gauzak argiago eta itxaroperentsuago, baita ere, arrazoi honegatik eginen dute batuaeren etsaiak zaunka. Baina lehen guti garenok batasuna behar.

Dena dela, eskerrak Robles Piquer jaunari berak aspalditik Espainiako hizkuntzen alde erakutsi zuen gogo ona mamitzen lagundu digulako. Orain Euskaltzaindiaren nortasuna Gobernuak legez onhartu du euskararen instituziotzat. Lehendik zituen egitekoak, iker sailean eta jagon sailean aritzeko, finkatuagoak gelditzen dira bere arautegi osoa aldakuntzarik gabe onhartu den ezkerero.

Eta Euskaltzaindiak badu lanik egiteko, bere arautegi horren lehen artikulua agintzen duena betetzen: euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitu; hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea; hiztegia biltzea; bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea; euskararen enplegua aitzinatzea; hizkuntzaren eskubideak zaintzea; hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea; literatur eta ikas lehiaketak eragitea; filologia eta linguistikako istudioak suztatzea, euskara eta euskal literaturaren irakas-aulkiak sortuaz; hartarako titulu eta ageriak ematea.

Lehen ekintzetariko bat, Mitxelena gureganatzea nahi genuke holako jakintsurik urri dugun ezkerero, eta hau ere posible dela ikusi dugu.

En el Consejo de Ministros celebrado en Barcelona en viernes día 20 se reconoció la Academia de la Lengua Vasca, que en lo sucesivo se denominará Real Academia de la Lengua Vasca, "Euskaltzaindia", y se aprueban los estatutos de esta Academia.

Algunos se extrañarán de este hecho, porque la Academia de la Lengua Vasca fue fundada en 1918 y reconocida por las cuatro Diputaciones vascas en 1919. Tuvo una primera etapa brillante bajo la dirección de R. M. de Azkue. Pero la nueva Ley de Asociaciones promulgada en 1964 le afectó a su forma constitucional y era de rigor la puesta al día de su personalidad jurídica. En enero de 1970 se encomendó a los juristas de la corporación el estudio para la normalización por los cauces legales, y que en mayo del mismo año, en sesión ordinaria, el señor Arrúe presentó un plan al respecto. Hubo que actualizar los estatutos, sin alterar en lo esencial y confrontando con los de la Real Academia de la Lengua y la Real Academia Gallega, y que fueron aprobados definitivamente en abril de 1972. Desde cuya fecha se ha venido gestionando ininterrumpidamente.

El señor Robles Piquer, actual ministro de Educación y Ciencia, quien en su día creó los premios literarios nacionales Rosalía de Castro, Jacinto Verdaguer y José María Iparraguirre, para las lenguas gallega, catalana y vasca respectivamente, tomó conciencia del caso tan pronto como ocupó su cargo y ha puesto los medios necesarios para la regulación de Euskaltzaindia, para los fines y naturaleza para los que fue creada en 1918.

Estos fines son la investigación y tutela del idioma vasco, cuyos estatutos, aprobados en el consejo ministerial del pasado viernes, en su primer artículo, dicen: "investigar y formular las leyes gramaticales del idioma vasco, dar orientaciones y normas para el cultivo literario del mismo, inventariar su léxico, laborar por la formación de un lenguaje literario unificado en léxico gramática y grafía, promover su uso, velar por los derechos de la lengua, trabajar en la capacitación de la lengua a fin de que ésta pueda ser medio de expresión de la comunidad a todos los niveles, fomentar la celebración de concursos literarios y didácticos, promover los estudios de filología y lingüística con la creación de cátedras de lengua y literatura vascas y expedir los oportunos títulos y certificados".

1976-II-23.

VI
OROITZAPENEZ
En recuerdo

PIO BAROJA

Pio Barojaren lanak berezkoa dute irakurlea zenbait gogoetara bultzatzea, bere lanak irakurrita ez da kezka gabe egoterik. Era berean lan zabala eta ugaria, alde askotatik begiratzea eskatzen duena da. Hemen, etxealdetik begiraturik atera ditugun iduripen labur batzuk emango ditugu.

Idazlearen handitasuna inork uka ezinezkoa da. Gizon bakana benetan. Literaturaren molde zaharrak puskatu zituen, idazkera bizkortuaz, era berri eraginkorrago bati bidea emateko. Ideiak labur eta azkar adierazteko eran, behini-pehina, euskal kutsua zuela esan oi da.

Bere nobelagintzarako Stendhal-en ideia hura zuen oinharritzko: "bidez dabilen izpilua bezala". Gauzak ikus bezala bere errealitate osoan agertzen zituen, kontatzeko ahalmen bereziaz. Eta, gainera adierazpen hauek esateko era egokiz hornitzen zekien.

Irakurlea atseginez eramatera abiatzen da bere irakurgaien barna, holako giroz inguratzen bai zituen nahiz paisajeak edo nahiz hurietao pasarteak. Agertzen dituen pertsonajeak ere, eguneroko errealidadetik atereak, bizi-biziri aurkitzen dira. Izan ere, egilea, oharle bikaina zen, begi-zorrozduna. Eta estiluz erreza, zuzena eta samurra.

Izate hauek eman zioten literaturan hain goimailako tokia.

Etxe barnetik begiraturik, badirudi inor ez dela gogoratzen bere aitaren izateaz. Oso gutxi dakite bere aita ere idazlea zala. Ogibidezko meatz-injinerutzatik aparte literatura zuela bere griña nagusia: operak, antzerkiak, artikulak eta poesiak idatzi zituen. Iruñean, 1882an hamabosteroko aldizkari bat ere sortu zuen, *Bai, jauna, bai*, izenez (6 zenbaki bakarrik argitaratu ziren, eta hauek bere idazkiz beterik). Irudimen asko eta lumore gehiago zuen gizona zen.

Ez dakigu zenbateraino kutsatu zuen literatura bideetan bere seme hau, baina gutxienez, Pio-ri, ez zitzaion arrotz idazle giroa. Bere liberal mentalidadea aitagandik zekarren. Esan nahien harira zuzenki joatea ere bai noski. Humorea aitarena baino garratzagoa du, minduagoa, baina adierazpen argi eta garbien dohaina berak bere barnetik sortua zuen Piok. Hain zuzen, bere izatea gehien bereizten duen dohaina.

Aitak gehiena euskaraz idatzi zuen. Donostian XIX, mendearen bigarren partean sortu zen giroaren seme zalako. Piok ez zuen bilatu holako girorik. Bestalde, historia eta tradizioen etsai zen, bere aitortenez. Egiz, erdara ondo menderatu zuen, baina ez euskara. Euskarari hain landua ez egoan agiri ederrak ditugu berak bere lanetan maiz sartzen dituen euskarazko esanaldi eta kanteri libreki egiten zizkion itzulpenak.



Pio Baroja, bere anai Rikardoren irudian.

Euskaraz idatzi ez bazuen ere, euskararentzat begiramendu maitekorra agertzen zuen bere lanen parte askotan, eta batez ere euskararen alde jokatu zuen 1953an, oraindik gure hizkuntzaren alde mintzatzea kinka larrian egoan garaian, *El País Vasco*-ren hitzaurrean.

Hala ere, alde honetatik, ez goaz juzgatzeraz bere jokabidea. Gizon bakoitza bera eta bere inguruko giroak daroanez, bakoitzak daki bere arrazioen berri. Eta, inoiz, norpere arrazoiak jakitzen ere ez da hain erraza.

Azkoitiko “zalduntxoak” begi onez ikusten zituen eta haien bidea opa zioen euskal intelektualei.

Euskal girotik begiraturik pozgarri zaigu bere lanen bidez mundu zabalera eman duen euskal folklore eta historia zatiak. Historia gorrotagarri bazitzaion ere, XIXgarren mendeko berririk aski eman digu bere obran, batez ere *Abiraneta*-ren bizitzan.

Ipui eta ohitura zaharrez ditugu *Vidas sombrías*. *La dama de Urtubi* (hain atsegingarri zitzaion akelarreak adieraziaz hau), eta kanta zaharrez hornitua gainera *La Leyenda de Jaun de Alzate*.

Gure herriak mundura eman dituen ibilkari, abenturero ausart eta izate berezizko semeak ere ugari arkituko ditugu, batez ere *Las inquietudes de Shanti Andía*, *Zalacain el aventurero*, *Los pilotos de altura*, *La estrella del capitán Chimista*, eta abar. Klerikalismo itsuaren kritika *El cura de Monleon*-en langileriaren burrukak jasotzen dituen bezala *La casa de Aizgorri*-n.

Euskal munduak bere obran leku zabalago izan duenez gero. Mundu hau mundu zabalago bati erakutsiarren ere, euskaldunok ez gendun jakin bizi zelarik gizon berezi hau behar bezala konprenitzen eta chungarren urteburuan eskainiko ahal diogu opari hobea gorik.

En mi artículo en vascuence doy a entender que la lectura de Pío Baroja, por lo general, resulta inquietante para cualquiera. Nuestro genio de las letras ha sido de grandes dimensiones literarias. Al mismo tiempo, y éste es tal vez su mayor mérito, fue un renovador del estilo, que destaca por su sencillez con descripciones directas, flexibles y siempre sugestivas, que nos penetran fácilmente en los ambientes. El mismo confesó ser “un tipo antihistórico, antirretórico y poco tradicionalista”. De ahí que rompiera muchos moldes. Era sobre todo un gran observador, que poseía una retentiva extraordinaria. En la novelística se guió por el concepto de Stendhal, “espejo que recorre el camino”. Era a la vez realista en la narrativa, y sus personajes parecen vivos.

Se observan algunas influencias heredadas de su padre Serafín, cosa nada extraña. Este era un liberal, ingeniero de minas por profesión y literato por vocación. De él la sobriedad, cosa a la vez muy genérica entre vascos. Era autor de óperas, dramas, artículos y poemas, casi todo escrito en vascuence. Estaba impregnado por un humor picaresco y optimista, en el hijo el humor era bastante agrio, satírico a veces. En la sobriedad de estilo es posible que tuviera influencias del padre, pero el estilo expresivo lo era de su propia creación, y que era lo que más le caracterizaba como escritor. El padre incluso llegó a fundar una revista, en 1882, que sólo vieron las luz seis números.

Serafín vivió la época brillante de la literatura éuskara en San Sebastián, circunstancia que el hijo no conoció sino de una manera

OHARRA: Gai honi buruz zabalago eta zehatzago ihardun nuen “Baroja aita-semeak” saioan. Etor argitaldaria *Pío Baroja. Bere ehunurteburuan (1872-1972)* izenean argitaratu zuen elkar lanezko bilduma liburuan.

bastante decadente. El hombre es fruto de su tiempo y muy libre (al menos debiera ser) de optar el camino a seguir, y don Pío escribió sólo en castellano, sin que se observara ninguna presión contraria por parte de su padre. No obstante, merece sea estudiado con detenimiento.

Por las traducciones libres que él hacía a frases y cantares con los que sabía salpicar magistralmente sus obras, se desprende que no estaba muy fuerte en vascuence, y tal vez aquí habría que buscar la razón de su opción. Sin embargo, siempre que se le presentó la ocasión mostró cariño hacia el vascuence.

Admiraba la obra de Los Caballeritos de Azcoitia, y decía que era el camino a seguir por nuestros intelectuales.

En su obra hay interesantes valores folklóricos, e incluso de historia del siglo XIX. Pongo por caso *Aviraneta*.

Los sucesos del país y las leyendas le inspiraron grandes obras como *Vidas sombrías*, *La dama de Urtubi*, *La leyenda de Jaun de Alzate*, etc. Y personajes singulares y aventureros de toda clase figuran en otras como *Las inquietudes de Shanti Andía*, *Zalacain el aventurero*, *Los pilotos de altura*, *La estrella del capitán Chimista*, etc. Tampoco faltaron críticas al abusivo clericalismo, como en *El cura de Monleón*, y agitaciones obreras como en *La casa de Aizgorri*.

Todo un mundo vasco mostrado a un mundo más amplio. Y a pesar de ello los vascos no le supimos comprender en la medida que él se merecía. Sea éste, el centenario de su nacimiento, el motivo para que le dediquemos algo digno que él bien se merece.

1972-I-17.

I. OJANGURENEN OHOREZ

Indaleki Ojanguren, neretzat bigarren aita bat bezala zen, mendi-ibili askotako adiskide mina, eta arte ikusketetakoa ere ez gutxitan. Beti ondo elkarraitu ginen. Mendizaletasunean bera izan nuen lehen urratsen gidari, baita ere gure inguruetakako monumentuak eta folklorea ezagutzen, eta batez ere fotografiaren arte zaletasunean. Inori ezer zor badiot, nere izate moduaren aldetik, Ojanguneri zor diot beste inori ez beste.

Otsailaren 18an hil zen Eibarren. Hemen bertan sortu zen 1887ko azaroaren 15ean.



J. Ojanguren Aizkomendi dolmenean (Egilaz, Araba).

Fotografian eta mendizaletasunean zituen bere entzuteak, bere ohoreak, bere barne-muinetatik zaletasun hauen eraginez bizi zen gizon honek.

Dinamikoa, eta bere aparteko langiletasunak eta izatez ekarren berezko kolezio-zaletasunak eragin zion bizitzaren zehar jardun zen ekintza, milak kilometruak oinez eginaz, artxibo ikaragarri bat pilatzea: paisajeak, mendi-gaillurrak, baserriak, eskutuak, eleizak, ermitak, udalaxeak, herri-gizonak, ohiturak, gertaerak, monumentuak, e.a., Euskal Herrikoak batez ere. Bere fitxeroetan mende erdi bateko irudizko testigantza biltzen da.

Berak utzi digun gauzarik interesgarriena, dokumentuzko balio handia duen artxiboa da. Artean, floklorean, heraldikan eta historian oso bakana. Artxibu hau, gaur, Gipuzkoako Diputazioarena da. Euskal Herriko argazki-negatiboak, 7.000tik gora ditu.

Beraz, ez da harritzekoa Euskal Herriko garrantzidun liburu askok Ojangurenen fotografiak daramazkite. Hauetarik gogoratzen garen batzuk ditugu: Pikabearen *Album gráfico descriptivo de Guipúzcoa*, Carreras Candi-ren zuzendaritzapean egindako *Geografía General del*

País Vasco-Navarro, R. M. Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza*, Jabier de Ibarren *Catálogo de Monumentos de Vizcaya*, Pío Barojaren *El País Vasco*, eta abar.

Eibartar jatorra, herriko semeen humorez hornitua, ateraldi zelebre ugaridun gizona. Hauetaz eta bere bizitzako zertzelada askoz jardun nintzen *Egan* (1966, 92/95 orrialdeetan) eta *Pyrenaica* (1967, 41/47 orr.) aldizkarietan.

Humore aparteko honen ageriak ditugu bere ateraldiak. Bere artxibua ezagutzean, hain lan handiaren aurrean harriturik gelditu zen bati, esan zion: Zenbat bihar egingo nukean nik, biharra egin beharrik izan ez banu. Eibartarrentzat, lana, biharra da (= beharra); zeren lana beharrezkoa ez balitz, inork ez zuen egingo.

Eta, ateraldiak aipatzean, *Egan*-en jaso ez nuen batekin oroitzen naiz. Aralargo San Miguelen gertatua. Aita Kaputxino batek predikatzeko omen zuen, ez dakit zer jairen eleizkizunetan, ohi den baino errezu gehiagorekin noski, eta ondorean oturuntza. Baina oturuntza honetan zeharo bestaldera gertatu omen zen, janaria urri. Gure fotografia ez omen egoan bere onean, hain neurririk gabeko errezu luzean ondorean hain bazkari laburra egiteaz. Guzien ondorean heldu omen zen han zirenei fotografiak ateratzeko ordua. Argazkiok ondo ateratzeko, argiak onduen jotzen zuen alderdia hautatu omen zuen, baina fraile bizarduna kontrako iritiz hasi omen zen bere ustea jarri nahirik, argirik egokiena zeharretarago jarrita egoala ezalduz. Kontradizio hartatik irten ahal izateko, Ojangurennek bere nortasuna agertu omen zion, esanez: “Zu arduratu zaite arimentzako argiarekin. Zeren, hemen, ni naiz fotografia, eta zu frailea”.

Bere zaletasunik berezienak fotografia eta mendia ziren, eta kezka berdina kolezionatu zituen baserriak eta ermitak, mendi-gailurretara igotzen zen bezala, Euskal Herriko mendirik apalenetatik hasi eta Pirineo, Picos de Europa eta Sierra Nevada-ko gailurrik altuenetara arte. Berrogei urteren buruan, eten gabe, zortzi aldiz egin zuen ehun mendi desberdinetara igotzeko konkursoa. Gainera, mendizaletasunaren eragile sutsu bat izan zen deporte hau Euskal Herrian sartu zenetik. Eta deporte honetan irabazi zituen merezimenduegatik Mérito Deportivo de Montaña izeneko medallak hartu zituen 1943 eta 1946an. Eibarko Club Deportivoan zuzendaritzan kargudun izan zen zenbait aldiz, eta presidente ere bai behin baino gehiagotan, eta 1953an, elkarte honek, bere omenezko fotografia erakusketa berezi bat antolatu zuen, eta 1966an elkartearen ohorezko presidente izendatu.

Izan bedi baketan bere bizitzako eginkizunak hain ongi bete zituen gizona, berak hainbeste maitatzen zituen goietan.

Ojanguren, ha sido para mí como un segundo padre. Compañero de innumerables excursiones deportivas y artísticas. Ambos nos compenetrábamos muy bien en nuestras aficiones comunes. Es más. El fue mi principal guía en la iniciación al montañismo, en el conocimiento de los monumentos, lugares históricos y folklóricos, y en la fotografía.

Era un hombre dinámico, con gran capacidad para el trabajo, que unido a su temperamento intuitivo de coleccionista, hicieron que con perseverante y recia actitud que en el transcurso de su vida, recorriendo miles de kilómetros a pie, acumulara en su archivo: paisajes, cumbres, caseríos, escudos, iglesias, ermitas, ayuntamientos, tipos populares, personalidades, costumbres, escenas diversas, monumentos, etc., del país en general. En sus ficheros se reúne medio siglo de testimonio gráfico.

El 18 de febrero fallece en Eibar, en la villa donde había nacido el 15 de noviembre de 1887.

El nos deja algo transcendental: su archivo de inmenso valor documental. Que en su género artístico, folklórico, heráldico e histórico es único en el país. Este archivo, hoy, es propiedad de la Diputación de Guipúzcoa. Y se calculan en más de 7.000 negativos de toda la geografía del País Vasco.

La prueba es que todo libro importante del país que lleve ilustraciones fotográficas, por lo general, contiene la huella de Ojanguren.

Estaba el hombre, además, impregnado de un castizo humor eibarrés. Su anecdotario es amplio y genial. Del mismo y de algunos otros aspectos de su vida me ocupé en las revistas *Egan* y *Pyrenaica* de los años 1966 y 1967, respectivamente.

La presente anécdota, que omití en *Egan*, refleja su imaginación ocurrente y su gran sentido del humor. Sucedió en San Miguel de Aralar. En no se qué festividad religiosa, oficiaba un Padre Capuchino, con abundantes rezos, más extensos que de ordinario, y con banquete a continuación, donde a la inversa, escaseaba de todo. Parece ser que el fotógrafo, que había sido requerido para la festividad, por la desproporción entre la abundancia de los rezos y la falta de comida, se encontraba un poco incomodado. No enfadado, porque él nunca se enfadaba. En esto, llegó la hora de fotografiar a los asistentes. Y nuestro fotógrafo buscaba la luz más adecuada para la pose, pero el fraile le contradecía, interponiendo su opinión particular sobre la luz más apropiada. Para salir del trance, Ojanguren impuso su autoridad, diciendo: "Usted preocúpese de la luz para las ánimas. Pues aquí, el fotógrafo soy yo y usted el fraile".

Como queda dicho, sus dos grandes vocaciones fueron la fotografía

y el montañismo, y con el mismo afán que coleccionó las fotografías, hizo también de las ascensiones a las montañas, desde las alturas más modestas de las cuatro provincias hasta las cumbres más elevadas de los Pirineos, Picos de Europa, Sierra Nevada, etc. No en vano se le ha conocido con el apodo de "El fotógrafo Aguila". Efectuó ocho concursos de cien montañas diferentes durante cuarenta años consecutivos. Verdadero propagador del montañismo desde la época heroica de este deporte. Merecedor de las medallas al Mérito Deportivo de Montaña, en sus categorías regional en 1943 y nacional en 1946. Varias veces ocupó la presidencia de la comisión de montaña y de la junta directiva del Club Deportivo de Eibar, entidad ésta que en 1953 le homenajeó con la dedicación de un extraordinario concurso fotográfico a escala nacional, y en 1966 le nombró presidente de honor.

Hombre que ha cumplido con su deber, descanse en paz en las alturas que él tanto amó.

1972-II-28.

RENE LAFON

René Lafon hizkuntzalari, euskaltzale eta euskaltzaina Arcachon-en hil da otsailaren 4an. Gironde-ko Mérignac-en sortua zen, Bordeletik sei kilometrora, 1899ko abuztuaren 4an.

Euskal linguistikaren alorrean izan dugun gizonik handienetakoa genuen Lafon jauna. Euskara, liburuetan ez-ezik, herrian bertan ikasia zuen. Honegatik, lehengo hizkuntza idatzia eta egungo hizkuntza bizia sustraiz ezagutzen zuen. Gainera, beste hizkuntza askorekin batean Georgiako kartvelesak ere ikasi zituen eta honi esker burutu zuen "vasco-caucásico"z egin denik teoria tesisik sakonena.

Karrera bukatu, lehen urteetan filosofia irakasle izan zen eta Grezia zaharreko filosofia jakintza estudiantzeko. Dumésil-ek agertu zionez, Caucaso aldeko hizkuntzatan zituen gerkerak bere iturburuak. Beraz, Caucaso-koak ere estudiantu nahi zituen eta hara hemen nondik konturatu zen bere auzoko Euskal Herrikoak ere bazuela zer ikusirik. Orduan hasi zen euskara ikasten. P.Lafitek dionez, filosofiaren bidez etorri zitzaigun gizon jakintsu hau euskal kulturaren alorrera.

1944an, XVIgarren mendeko euskal aditzaz tesis handi bat aurkeztuz irabazi zuen bere doktoradutza. Eta, 1948an berak ireki zuen

Bardeleko Unibertsitateko euskal katedra, hizkuntza eta literaturaren ikasketetarako. Hogetabat urtez eduki duena eta gure adiskide eta euskaltzainkide den Haritschelhar jaunari utzi diona.

27 urtekin hasita, hamar urtez Larrañen udara igaroaz ikasi zuen xuberotar euskara. Alemanak kontzentrazio-eremuetan preso zutela, era berean zeuden baxenabartarrekin jarraitu zituen euskararen ikasketak.

Euskaltzaindiaren historian euskaltzain numeruko bakarra izan da Euskal Herriko semea izan gabe izendapen hortara heldu dena. Zer esanik eman zuen, baina ohore guziak ondo irabaziak zituen Lafon jaunak. Hiru aldiz bakarrik izan nuen pertsonalki mintzatzeko aukera eta hiruretan euskaraz soilki mintzatu ginen. Ongien erabiltzen zuena xuberotarra bazen ere, Lapurdiko euskarari samur solasten zen.

Esan dugunez, Caucaso aldeko zenbait hizkuntza ere han bertan ikasiak zituen, eta ezta mirestekoa hemen euskaltzaina izatea, han Tiflis-eko Unibertsitateak “doctor honoris causa” izendatua zuenez gero. Frantzian, gobernuko zientzia-ikerketak saileko eta “Legion d’honneur”eko zalduna zen.

Euskara ikerketak egin zituen, filologia, hiztegia, dialektologia, deklinabidea, aditza, joskera, autore zaharren mintzaira (batez ere Detxepare, Leizarraga, Retolaza eta Oihenart).

Arestian agertu dugun bezala, euskara caucasikoekin konparaketan egin diren lanik sakonenen egilea dugu. Bere teoriak *Etudes Basques et Caucasiques* izenez Salamanca-ko Unibertsitatearen “Acta Salmaticensia” argitaldarian agertu zen 1952an. Batzuk arbutzan duten “h” letra bera, Lafon-entzat euskal hizkuntzak bere muin zaharretikakoa zuen, eta aipatu dugun tesis honetan garrantzi handikoa gainera. Teoria horietan Dumézil, Trombetti eta Marr hizkuntzalarien jarraitzaile genuen Lafon.

Baina euskarak beste hizkuntzekin duen ahidetasun estudio horren bezain sakona edo sakonagoa da *Le système du verbe basque au XVIème siècle* (1944). Berari esker, Larrañeko euskalkiaren berezitasunak ere xehetasunez jasoak dira.

G. Lacombe eta H. Gavel izan zituen, hasiera batean, euskararen estudioetan maisu eta gidari. Ondo benderatu zuen gure hizkuntza eta lan ederrik ere badu euskaraz idatzia. Gainera, idazleak berakin behar duen irudimenezko adierazpenak erabiltzeko ahalmenez. Ia dena xuberotarrez idatzi zuen eta hara nola oroitzen zen ikasketak egin zituen garaiz eta tokiz, idatziz: “Herriak eta herritarrek beretu zititziñ gure bihotzak. Larrañerat üsü juañ güntützün. Holtzarte, Phistta, Sakhertia, Organbideska, San Jüsefen ermita, Erroimendi, Ahanolatze, Orhi, zien izenak orai berian ene bihotzaren barneti khantatzen ari tützü. Hola ikhasi dit

egünko üskara bizia. Librü zaharretan lehenagoko mintzajia üstüdiatü dit. Bena eniziün lan hunik eginen, ezpanü üskara bizia ezagütü.” (“Gure Herria”, 1963-ko Urria, 219garren orrialdean).

Gure gora beherak bere sentitzen zituen Lafon-ek, eta Euskaltzaindiak euskara idatziaren batasunerako deia egin zuenez, xuberotarrez idaztetik batasuneruntz jo zuen, lapurtar gramatika joeraz harturik, Hala agertu zigun bere hitzaldia Beskoitzen, 1971ean Joanes Leizarragaren omenez, berak ere ororen errege-bidea hartzen zuela esanez (ikus “Euskera”, XVII, 1972, 148/154 orr.).

Gaur egun, euskararen estudioak aurrera eraman ahal izateko oso beharrezkoa zaizkigu Lafon-en lanak biltzea. Liburu batzuk ezik, lanik gehienak han-hemenka aldizkarietan sakabanaturik daude. Bere adiskide eta Euskaltzaindiko buruordezko den Haritschelhar jaunak bibliografia bilduma bat badu eta merezi luke lan guzien bilketa. Holako asmoren bat aurrera eraman nahia bada, sortzez euskalduna izan gabe gure hizkuntzaren alde hainbeste frutu onuragarri eman duen honen ohorez.

A primeros del pasado mes de febrero falleció en Arcachon el eminente lingüista y profesor de la Universidad de Burdeos, René Lafon. Con él, los estudios vascos han perdido uno de los hombres más importantes de nuestros días.

En 1944 se doctoró con una tesis sobre el sistema del verbo vasco en el siglo XVI. En 1948 creó la cátedra vasca de la Universidad de Burdeos, para los estudios de la lengua y literatura vascas. Dirigió la misma durante 21 años e hizo que le sucediera el actual vicepresidente de la Academia de la Lengua Vasca, señor Haritschelhar.

René Lafon, girondés de nacimiento, empezó a estudiar el vascuence a los 27 años y durante diez años consecutivos pasó el verano en Larrau. En adelante, cultivó, entre otras lenguas, el vascuence hablado y escrito.

Los méritos especiales que concurrían en su persona hicieron que la Academia de la Lengua Vasca le aceptara entre sus miembros de número sin ser vasco de nacimiento. Asimismo estudió algunas lenguas caucásicas y la Universidad de Tiflis le nombró “doctor honoris causa”. En Francia, además de caballero de la Legión de Honor, era miembro permanente del “Institut de Recherches Scientifiques”.

Era autor, entre otras obras, del estudio más profundo sobre la

teoría vasco-caucásica, que fue publicada por la Universidad de Salamanca en 1952.

Aparte de algunos libros, la mayoría de sus trabajos están muy desparramados en numerosas revistas científicas de diversos países europeos. El señor Haritschelhar es poseedor de un índice bibliográfico completo, y sería nuestro mayor deseo la recopilación de todos los trabajos referentes a nuestro pueblo.

René Lafon, que en paz descanse, nos deja una gran laguna en los estudios vascos.

1974-III-11.

BACHILLER ZALDIBIA

Gipuzkoako historigilearen laurehungarren urteburuan.

Hil honen 28an beteko dira laurehun urte Bachiller Juan Martínez de Zaldibia hil zenetik. Bachiller Zaldibiak idatzi zuen Gipuzkoako lehen historia, *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas* deritzana. 1560an Gipuzkoako Batzarrari eskaini zion, argitara zezan, baina ez zuen izan argia ikusterik. Harrigarria bada ere, 1944ra arte argitara gabe iraun zuan. Urte honetan, Joakin de Irizar jaunaren eskariz, probintziako Diputazioak argitaratu zuen, Fausto Arozenaren sarrera eta oharrekin.

Bachiller Zaldibia, tolosarra zen. Noiz jaio zenik ez dakigu, baina 1575eko apirilaren 28an hil zela bai. Garibay Mondragoarraren garaikoa zen, baina honek bere *Compendio historial* baino lehenago idatzi zuen Zaldibiak bere *Suma* delakoa. Lan honen orijinala ez, baina bere zenbait kopia heldu ziren gure garaira arte.

Gure aspaldiko berriok oso baliozkoak ditugu. Gure lehenari buruzko agiri idatzirik urri bai dugu. Eta Fausto Arozenaren sarrerak asko jatzten du liburuaren gaia behar bezala irentsi ahal izateko. Historiak, beti, historiagileen araura izan dira, batez ere lehengo denboretan. Baina Arozena bezalako histori-kritikagile baten eskutik segurantzia gehiago dugu hobeto bideratuak joateko.

Euskaldunok erromarrekiko guduari badakigu jaramon guti egin behar zaiola. Zaldibiak harrotu zuen gerrate haiei buruzkoa A. Schultenek arrazoï bidez desegin zuen, Egun badakigu Beotibarko gudua bera

ere ez zela izango hain garrantzitsua, baina ezta Campionek eta K. Etxegaraiak uste zuten bezain borroka tipia ere.

Ahaide nagusien borrokaz berri jakingarriak eman zituen, batez ere anaiarteko hauzien sorreraz. Gainerako gehienez gipuzkoartasunak daroa egilea.

Garai hartarako, Zaldibia, kulturaz jantzia genuen, probintziako Ordenanzen bilketan lan egin zuen, 1582ko gutun batean agertzen denez. Azkenik Migel Aranburuk burutu zuen *Nueva Recopilación* delako foru-testugintza eta 1696an argitaratua izan zen.

Tolosako alkate izana zen, eta 1557an herriak kapitan ere izendatu zuen. Zenbait aldiz diputadu ere izana zen eta hauzi nekezetan gidaritza eraman ere bai. Osasunez apenaz omen zen sendo eta apoplegia gaitzak eraman omen zuen mundutik.

Bere ondorengo historigileak, gure probintzian, batibat, Lope de Isasti eta Pablo Gorosabel izan ditugu lehengo mendeetan. Gerokoentzat nahi ta nahiezkoak dira hoiien iturri ezaupenak.

Zaldibiaren garaian, gure alde hontan (Hego Euskal Herrian esan nahi dut) ez zen euskarazko obrarik idazten, eliz-dotrinatxoren bat edo izan ezik. Kulturazale handi nahiak bakarrik ziren bestelako zerbait idazteko gauza zirenak, eta hauek, beren handi nahian, eta Gaztelako erregeak emandako aitonen- seme tituluen pozez, gaztelaren zale borrokatuak agertzen ziren. Beraz, hori hola zalerik ez zen batere harritzeko beren lanak erderaz egitea. Eta, ordainez, herriak ez zuen erantzunik herri-gogora heltzen ez zenarentzat. Hala ere, aitortu beharra dugu, liburuak tarteka ematen dituen euskarazko zatiak bizi-biziak direla, esan nahiez eta idazmoldez.

Beotibarko guduari buruz, hedatua omen zen esan hura: "Beotibar, Beotibar hic dia dutac Martin de Oybar". Eta beste bertso hau, aintzinagoko esku-izkriburen batetik jaso:

*Milla urte igaro eta, hura bere bidean,
Guipuzcoarrocc sartu dira Gazteluko echean;
Nafarroquin bildu dira Veotibaren pelean.*

Zaldibia berak jarritako ortografia errespetatzen dugu, bere letrari zintzoago itsatsi gaitezen.

Zenbait urtetan Hondarribian bizia omen zen, 1516garren urte inguruan behinik-pehin, eta bertako berriak beste toki batzuetakoak baino zehatzago jasotzen ditu, Tolosa eta Donostiarekin batean. Mugaherriko gertakizunen ondorez hara zer bertso jaso zuen:

*Juan de Lazcano Beltzarana,
Guipuzcoaco Capitana,
Franzez osteac jaquingo du,
ura ondarrabian zana.*

Chanfarron jaun frantzesak egin zuen desafioari erantzun zion Juan Pérez de Azkue hondarrabiarrak eta heriotza eman zion honek. Bere oroiz bator ondoko bertso hau:

*Mosiur Chanfarron jaun andia,
Irun calean daza illa.*

El próximo día 28 se cumple el cuarto centenario de la muerte del Bachiller Juan Martínez de Zaldibia, autor de *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas*, que viene a ser la primera historia de la provincia. La obra fue ofrecida a las Juntas Generales de Guipúzcoa, para su publicación, en 1560, pero ha permanecido inédita hasta 1944, que fue editada por la Diputación al aprobar la moción suscrita por don Joaquín de Yrizar. De la introducción y notas se encargó don Fausto Arocena, cuya orientación hizo posible la buena interpretación de la obra.

El Bachiller Zaldibia era de Tolosa y ocupó altos cargos en su villa natal y en la provincia. Trabajó también en la recopilación de ordenanzas de Guipúzcoa. Como dice Arocena, como historiador, resulta poco crítico. A él se debe, sin embargo, entre otras noticias, la versión confesadamente incompleta del desafío de los Parientes Mayores.

Hay que poner reparo sobre la guerra cántabro-romana, que como aclaró Adolf Schulten no acaeció en tierra vasca. Y, en cuanto a la batalla de Beotibar no resultaría tan tremenda como afirma Zaldibia, pero tampoco tan diminuta como pretendieron Campián y C. Echegaray, a cuya parte dedica Arocena considerable espacio en la introducción.

En aquel siglo XVI, los guipuzcoanos estaban fielmente adheridos al rey de Castilla y a la hidalguía que éste les reservaba. Por ésto y por la moda de la romanización de la escritura, no debe extrañarnos que un intelectual guipuzcoano como Zaldibia escribiera su obra en castellano;

en lengua bastante extraña para su pueblo, y que tal vez por ello no encontró el apoyo deseado. Los fueros también se recopilaron en castellano, pero éstos tenían su razón de ser, desde el momento que constituían el convenio entre la provincia y el rey.

En la obra de Zaldibia sólo hay algunos párrafos y versos, muy escasos, en vascuence.

1975-IV-7.

GABRIEL ARESTI POETAREN HERIOTZA

*Lur honetan
ehortziko naute
Ohore hau ez dautate ukatuko.
Gizonek.*

Behin holako bertso librean mintzatu zen euskal poeta hil zaigu, berrogeta bi urte bete baino lehen.

Aresti, denen gainez edo ezer baino lehen, poeta handi bat zen, mundu hobego baten alde sufritzen zuena. Eta trantze honetan, adiskidearen doluminez, poetaren hitzez esan nezake: "Neure dolorea bularraren lezean".

Bilbon jaioa, 1933ko urriaren 14an. Hamasei urtekin hasi zen euskaraz ikasten eta hogetabat zituenerako hasi zen euskaraz idazten Guatemalako "Euzko-gogoa" aldizkarian. Ogibidez Profesor Mercantil zen, eta 1957an Euskaltzaindiko laguntzaile izendatua izan zen. Egan, Euskera, Olerti, Zeruko Argia eta Anaitasuna aldizkarietan idatzi izan zuen euskaraz.

Maldan behera (1960), *Harri eta Herri* (1964), *Euskal Harria* (1967) eta *Harrisko herri hau* (1970) poesia liburuen egilea, eta *Lau Teatro Arestiar* izeneko liburuan, Lur editorialak R. Saizarbitoriaren hitzaurrez 1973an argitaratutakoan, biltzen dira 1961etik 1964ra idatzi zituen antzerkiak, eta haez gainera 1969an *Beste mundukoak eta zoro bat*. Beste lan berezi batzuk ere baditu: *Malgizon-en abendurismoa* (1972) izeneko kontaerak; *Mundu-munduan* (1965) erdi antzerki erdi nobela; *Hiztegi tipia* (1973), A-tik D-ra arteko hiztegia; eta bere azterketa lanik berezienak, "Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous"

eta "Léxico empleado por Leizarraga de Briscous" lanak "Fontes Linguae Vasconum"en 11 eta 13 zenbakietan (1972-1973).

Beste honako lan hauek itzuli zituen euskarara: B. Brecht-en *Xixtima zoriotsu bat*; T. Meabe-ren *Hamalau alegia*; F. Marcos da portela-ren *Nekazariaren dotrina*; eta Nazin Hikmet-en *Lau gartzelak*.

Gainera, Kriselu argitaldarien sortzailea eta egun argitaldari berritu honen zuzendarietako bat.

Euskal poesia berriaren eragilerik handiena, batez ere *Harri eta Herri* liburuko bertso libre eta sozial gaietatik hasita. Antzerkian ere, era berritzearen alde ahaleginak egin zituenetako bat. Jaso zituen saririk aipagarrienak poesian "Loramendi" izenekoa 1959, "Orixe" 1963, "Lizardi" 1966 eta "J.M. Iparragirre" 1968; antzerkian "T. Alzaga" 1961.

Lanok ikusi besterik ez dugu langile borrokatua zela igartzeko. Baina denen gainez, esan dugunez, poeta handi bat. Konformagaitza. Nekatuta euskararekin jabetu zenez, gure herkideok ardura gehiagoz bide bere har zezaten ahalegintzen zena. Hizkuntza, herria, eta batez ere langileria zituen maite eta beregatik edo beren alde sufritzen zuena kantatzen zuen erarik errazenean adiaraziz:

*Gauza zelariak,
errezak
edonork konprenitzekoak.*

Eta era honen bidez sentiaraziko zituen bazterrak, eta poeta berriak sortuko ziren hor-hemen gure hizkuntza zaharrari gooa berritzeko.

*Kantabriako itsasoaren kostaldera joan nintzen,
eta Izaroren aurrean negarrez,
nire poemaren urrezko orriak
entregatu nizkien
uhineri,
hobe baita itorik hil,
goseak baino.*

Mundu hontako gehienak bezala lasai bizi zezakean, ezerekin arduratu gabe; baina ezin, justiziazko mundu hobe baten egarriak zeraman eta "...munduhonetan isuri den odolaren espilu" nahi zuen izan. Inoiz, poetak, holako galdeak egiten zizkion bere buruari:

*Zergatik metitu ote naiz
halako enplego txar batean?*

*Zergatik sartu ote nituen
sudurrak
hain kirats txarreko
zer-egin honetan?
Baina zergatik?
Ez nintzen ni ederki bizi
Bilboko hirian,
gaztelaniaz,
hispanidadean?
Baina ez.
Nire leinuaren ezagugarria da.*

Poetak, emaztea eta hiru alaba uzten ditu, bere sufrimenduzko poesian maiz presente aurkituko ditugunak. Bere azken poema liburua-
ren bertso batean hara nola azaltzen zituen herrienganako maitasun
etsipendua eta familiaganako lotura:

*Inor ez da profeta
bere mendean.
Berriz etorri naiz
pentsamendura,
eta andre alabarik ez banu,
pozik
hilen
nintzake,
ene esanak kontsidera litzan
euskal herriak.*

Poetaren bertso asko eta asko kanta bihurtu dira gaurko gazteen
ahoetan. Eta, une hoietan, hemendik aurrera, errusinola bezala ari diren
kantariok ez dezatela atertu bere hitzik, zeren gogoko izanzen zuen hotsa:

*Errusinolaren kantuak
nire arima
bakez
betetzen du.*

Azkenean, urte bete baino geiagoan sufritu behar izan duen
irtitasunaren ondotik, betiko bakea aurkitu du.

*Hiltzeko edo ez hiltzeko
beti geratzen baitzaio
gizonari
esperantzaren
bat.*

Esanaz bukatzen zuen bere azken poeta liburua, *Harrizko herri hau*. Bere penak, gogoz nahi zuen bakea aurkituko dute heriotzaren barruan. Bego atsedenean.

Tras larga enfermedad, a los cuarenta y dos años de edad, ha fallecido en Bilbao el poeta vasco Gabriel Aresti. La noticia ha llenado de luto las letras eúskaras. Y ha sido muy doloroso para todos los que hemos compartido su amistad. El poeta bilbaíno era casado y tenía tres hijas.

Era notable autor de cuatro obras de poesía y cinco piezas teatrales. Merecedor de importantes premios en ambos géneros. Ha sido, sin duda, el más importante de los renovadores de la poesía moderna de postguerra, y la nueva canción vasca halló en las poesías de Aresti una de las fuentes nutritivas.

Era miembro correspondiente de la Academia de la Lengua Vasca. Además de un diccionario que ha dejado inacabado, hizo el desglose total de las formas verbales y el léxico empleado por Leizarraga en su traducción del Nuevo Testamento, publicado en 1571.

Había colaborado casi en todas las publicaciones en vascuence, desde el año de 1954, fecha en que empezó a escribir en vascuence en la revista "Euzko-gogoa".

Tradujo al vascuence, además de poemas de Blas de Otero y Gabriel Celaya y otros autores, una obra teatral de B. Brecht, libros de poemas de T. Meabe y Nazim Hikmet, y *La doctrina del labriego* atribuida a F. Marcos da Portala.

Como entrañable amigo, puedo decir que era extremadamente sensible al mundo que le rodeaba. En sus poesías encontraremos frases como ésta: "Ya sé lo que me ha aguardado en este mundo, porque siempre vivo penando". Poeta que sólo encontró sufrimiento por el amor a su pueblo. Descanse en paz.

1975-VI-9.

GABRIEL ARESTIK GALEGOTIK EGIN ZITUEN ITZULPENAK

Aspalditik ezagutzen zituen Gabriel Arestik idazle galegoak. Maite zuen Curros Enríquez eta bere poemagintzaren hastapenetatik ezagutzen zuen Celso Emilio Ferreiro ere. Hain zuzen, ez zen kasualidadezko gauza *Harri eta Herri*-ren tituloa; oroi Celso berak bi urte lehenago argitaratu zuen *Longa noite de Pedra*. Eta ondoko poesia liburuok ere harriz bataiatuko zituen gure Arestik, *Euskal Harria* eta *Harrizko herri hau*.

Baina kutsapenok alde batera utziaz, G. Arestik galegotik itzuli zituen lanen berri emateaz agertu nahi nuke Iberiako hizkuntzen alde zekarren asmo ona anitz urtez jarrai dezan.

Arestiren desioetariko bat zen herri euskaldun batean finkatzea eta familia bertara eramanaz bere hiru alaberi euskaraz irakasteko aukera ematea. Rikardo Arregiren bidez Gipuzkoako Beterri aldean egin zituen harako gestio batzuk, eta Bergara ingurua ere laket zitzaion, berak zionez. Bilbon ez bai zuen aurkitzen aukerarik ez girorik bere gogoia aurrera eramateko. Azkenik, Bilboko agentzia baten bidez Eibarko lantegi batean bulego-buru izateko bidea lortu zuen. Honegatik, 1966.aren urte erdi hemen Eibarren bizi izan zen. Gizajoak ez zuen batere suerterik izan. Lantegia aspaldi komunista izandako batena zen, baina ugazaba izatera heldu zenetik beste nagusiak baino txarragoa zena.

Herrian lagun asko egin zituen, baina pena handia zuen hemen bertako euskara gainbeheraz ikusiaz. Bere sentipenak, hemengo egoerari buruz, bi poematxotan azaldu zituen *Euskal Harria*-ren 95 eta 125 orrialdeetan. Une haietan zenbait greba eta manifestazio gertatu ziren eta hurbildik ezagutzera heldu zen Aresti, eta harridurazko poza zentitzen zuen populuak deiak eta dehadarrak euskaraz egiten zituelako. Arratsean bakar xamar agertzen zenez, gure etxera bidea hartzen zuen eta gehienetan hemen afaltzen zuen.

Gure elkarrizketa luzeetatik ikusten nuen haren burua gelditu ezinezko motorra zela, egintza asmoz betea. Bion artean euskal literaturako ehun poema onenak hautatzea ere bururatu zitzaion. Ez bururatu bakarrik, baizik hasi ere hasi ginen. Nere liburutegitik ezagutu zituen Meaberen alegiak, gero euskaraz jarriko zituenak. Baina gailego idazleei buruz asko mintzatzen zen, poema osoak buruz zekizkin, eta berakiko har-eman hau probetxuzkoa izan zitzaidan zenbait egile ezagutzeko.

Eibartik joatean berakin eraman zuen T. Meaberen obra, euskarara itzulita argitaratzeko asmoz. Eta asmoetan aurrera egitekoa zenez, nonbait ez zen konformatzen euskarazkoarekin bakarrik, eta asmo handiago baten sartu zen. Deitu zituen katalan eta gailego adiskideak,

liburua lau hizkuntzetan agertzeko. Gainera, honetarako, argitaldaria ere ber berak sortu zuen, Kriselu izenez. 1968an agertu zen *14 Alegia* izeneko liburu eder eta apaina. Tomás Meaberren gaztelerazko originalaren ondotik bere euskarazkoa eta Xesus Alonso Montero-k galegoz eta Ricard Salvat-ek katalanez itzuliak. Dionisio Blanco-k egin zizkion dibujuak ditu liburuaren edergarri.

Liburuaren inprimeriako probak eskuartean zituela, igande batez, udara pasa familiarekin aurkitzen zen Mundakara deitu ninduan. Liburuaren maketaz zenbait iritzi nahi zituen. Ordurako euskara idatzia-
ren batasunez kezkatu zebilen eta *c* letra erabiltzen hasia zen, protesta gisa, beste batzuk batasun bidera amor eman zezaten. Hortaz eztabaida batzuk izan genituen, baina berean gelditu zen.

Meaberren liburu hura izan zen gailegoekin har-eman hestuagoak edukitzearen hasiera. Eta Meaberena argitara bezin azkar heldu zion F. Marcos da Portela-ren *O catecismo do labrego* euskaratzeari. Hala argitaratu zuen urrengo urtean, 1969an, bere Kriselu zelako argitaldari tipi hartan, *Nekazariaren dotrina* izenez. Meabenetik honera bitartean Arantzazuko bilera hura izan zen, Euskaltzaindiak euskara idatziaren normak gomendatuko zituen. Guretariko askok amor eman genduen eta ez zitzaidan iduritzen oraindik Arestik lehengo jokabide hura jarraitu behar zuenik eta Egan aldizkarian bere grafiaren kontrako aburu batzuk agertu nituen (ikus, Egan, 4-6, 1969 zenbakiaren 155. orrialdea).

Geroztiko itzulpenik gehienak Xesus Alonso Montero-ren eskariz egin zituen, eta eskerrak jaun honi lan guziok biltzeko zoria izan dut.

Ediciones Júcar-ek 1974an “La vela latina” izeneko sailean argitaratu duen Castelaoren *Nós*, X. Alonso Montero-ren hitzaurre luze batekin; G. Arestiren euskarazko itzulpenez dator. A. Buelo Vallejo-k egin zion gaztelerazkoa eta R. Salvat-ek katalanezkoa. Jokaera honekin Arestik eman zuen hasiera hari jarraitzen zaio.

Urte berean, 1974an, Akal Editor-ek, X. Alonso Montero-ren zuzendaritzapean egiten duen “Arealonguiña” sailean Federico García Lorca-ren *Seis poemas galegos* argitaratu du; G. Arestik euskaratua, Anxel Fole-k gazteleratua eta R. Salvat-ek katalaneratua. Hemen, euskarazkoaren hasieran Arestik emandako ohar bat aurkitzen da, honela diona: “Lorca poemak intelektual batzuek scribez zituen gailego intelektualen batean. Nic, eçagutzen dudun heuscararic intelektualenean jarri nahi ukan ditut. Leizarragaren heuscaran.” Hau ezta harriztekoa Aresti zenagan. Oroi Arestiren azterketa lanik sakonenak bi hauek ditugula: “Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous” eta “Léxico empleado por Leizarraga de Briscous” izeneko lanak Iruñako

Principe de Viana-ren "Fontes Linguae Vasconum" aldizkariaren II eta 13. zenbakiak (1972-1973).

Azkenik, Ediciós do Castro delakoak, Cruñan 1975ean, V. Paz-Andrade-ren *Pranto matricial* libiruxka argitaratu du. Rafael Dieste-ren sarrera labur bat darama. Paz-Andrade-k Castelao-ri eskainitako sei poemak osatzen dute. Hemen Iberiako hizkuntzak zabalago aurkitzen dira. Gailego originalaren ondotik Guillem de Almeida-k portugaleraz jarria dator, G. Arestik euskaraz, Francesco Vallverdú-k katalaneraz eta María de Villarino-k gazteleraz. Gainera, liburuaren 93. orrialdean G. Aresti zenaren lanen fitxa dakar.

Horiez gainera, aipatu dugun Castelao-ren *Nós* argitaratu zuen Ediciones Júcar-erako Asterix-en liburuak itzultzen ari zen Gabriel heriotzak gugandik eraman zuenean. Hala aditzera eman zidan gutunez Silverio Cañada jaunak. Baina zoritxarrez lan hau bukatu gabe utzi zuen. Aresti zenaren borradoreetatik Jesus Mari Arrietak osaturik, aurtan argitaratu ditu Asterix-en bost liburu euskaraz Mas-Ivars Editores, S.L. delakoak eta liburu-dendetan salgai aurkituko ditugu.

Beste liburuok aurkitzeko ordea, argitaldariatara zuzenean jo beharra dugu zeren hemen oso nekez aurkitu genezazke.

Gure artean hain guti ezagutzen dugun Arestiren ekintza hau herrien arteko anaitasunera begira egina zen, bakoitzaren hizkuntza balioak ezautaraziz. Gogo hau Meaberen liburuari egin zion atarian agertu zigun Gabriel adiskideak:

*Cierra los ojos muy suave,
meabe,
pestaña contra pestaña:
Solo es español quien sabe,
meabe,
las cuatro lenguas de España.*

Lastima izan zen guk holako poeta bat hain gazte galtzea, lastima izan zen bezala Aresti bera azken itzulpenok argitaraturik ikustera ez heltzea.

Nuestro malogrado amigo y poeta Gabriel Aresti que vivió en Eibar gran parte de 1966 y que casi diariamente me visitaba, durante aquella convivencia me dió buena prueba sobre sus conocimientos de la literatura gallega, y se mostraba muy entusiasmado por el gran progreso alcanzado

en el período contemporáneo. Junto con los vascos Blas de Otero y Gabriel Celaya, a Celso Emilio Ferreiro le tenía entre sus poetas preferidos.

Un buen día, hurgando entre mis libros localizó las *Parábolas* de Tomás Meabe y se lo llevó con el propósito de vertir al vascuence. Así lo hizo. Pero aún no conforme, recurrió a los amigos de Galicia y Cataluña para que la edición fuera tetralingüe. De esta manera realizó su deseo en 1968. Este fué el inicio de una nueva modalidad de libros tetralingües. El mismo año coincidió con otra edición tetralingüe, con la *Declaración Universal de los Derechos del Hombre* por la Editorial Moret de La Coruña, cuya versión euskara se debía a Nicolás Ormaechea "Orixe". Y a continuación G. Aresti mantuvo su deseo de editar libros tetralingües, en las cuatro lenguas de la Península, cuyo empeño ha culminado con la reciente obra pentalingüe *Pranto matricial* de Paz-Andrade.

Además de su traducción de *O catecismo do labrego*, puso en vascuence y tuvieron ediciones tetralingües, *Nós* de Castelao y *Seis poemas galegos* de García Lorca.

Aresti era partidario de difundir las relaciones interlingües de la Península, para que todos supieramos algo de sus parcelas culturales. Desafortunadamente no pudo desarrollar más estos deseos tan suyos ni llegó a ver publicadas algunas de las aludidas obras.

1976-X-4.

GERHARD BÄHR EUSKALDUNGOAN

Euskaldungoaren ikerketan atzerritar jakitunei asko zor diegu, baina Gerhard Bahr ezin dugu sartu, oso-osoan, atzerritarren arteko. Bera, guraso alemanegandik, Legazpiko Udana hauzoan sortu zen 1900.urtean eta bertan igaro zuen bere haurtzaro guzia. Bere aita Kataberako meatokien zuzendari zelarrik.

Aurtengo maiatzaren seian bete dira bere jaiotzaren hirurogetahamar urteak, eta inork merezi badu, Bahr zenak ongi merezia du oroitzapenezko artikulua bat. Hau dalata, Legazpiko "La Salle" hilero-koan Inazio Arbide jaunak eskaini dizkio pare bat artikulua eta guk ere gure aldetik gaurko honekin nolabait kunplitu nahi genuke.

G. Bahr, hamairu urtekin alemaniara estudiantzera joan arte hemen bizi izan zen, Geroztik han eta hemen igaro zituen bere gaztaroko urteak. Adinez heldu zen, baina zahartzarorik ez zuen ezagutu. Gerrak hartu

zuen eta itzultzaile edo adiarazle uniforme itsusi batekin batetik bestera ibili beharra izan zuen, eta gudatearen azken egunetan, rusoak Berlin-en sartzean hil omen zuten, 1945eko apirilaren 27an. Egiatzko zientzi gizona zenez, euskaldungoak ikertzaile bikain bat galdu zuen.

Lan jakingarriak argitaratu zituen, RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) aldizkarian, 1926.urtetik 1936.era bitartean eta "Euskera"n 1931tik 1935era bitartean. Bere lan hoi en eskergarri, Euskaltzaindiak bere urgazle edo laguntzaileen arteko izendatu zuen.

Euskara oso ongi zekien, bere lan batzuetan argi erakutsi zuenez. 1928an, Iruñean, *H. Schuchardt zana* izeneko liburuxka bat argitaratu zuen aleman jakitun haren oroiz. "Euskal esnalea"n, 1922an, "Uaño naiz xirietaz" izeneko lan bat, eta 1931an, "Euskera" aldizkarian, "Ostrailika ta ostadarra Gipuzkoan" izenekoa. Gure euskara zein jator erabiltzen zuen adiarazteko, azken lan honen hasierako zatitxoa jasoko dugu, dagoan dagoenez: "Zeri nagokion garbi, baiña alik laburrena esatearren, itz bi aurretik. Gipuzkoan billatu ditudan ostrailika ta ostadarraren izen ezagun ta agirienak aztertu, beren sustraia ta zentzuna, egiñalean, adierazi, berekin zerikusirik duten uste eta siniskeri batzuek aitatu eta beste errietakoekin berdinkaratu (erkatu), auxe da nere asmoa". Irakurleak, hemendik argi ikus lezake euskaraz garbi bezain jator zekiela.

Bere ikerketazko lanak oso zehatzak izan ziren, Gipuzkoako aditz ezudioak, batez ere Legazpi inguruan, eta liguistikazko eta etnologiazko lanak: leku-izenak, abereenak, landarenak, ahaide arteko izenak eta abar. Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-ren lehen tomoaren 424/425 orrialdeetan ikus dezakegu bere frutua, hain urte gutian emateko aski aberatsa izan zela.

Hizkuntza eta ohitura zaharrez gehien landu zuen. Baina ibiltari handia eta oharle ona zenez gero, beste sail batzuk ere ikutu zituen. Honegatik, gure mendietan trikuharri arraztoak idoro zituen. Nonbait, 1931an Julio Urkixori egin zion gutun batean dionez, J.M. Barandiarani aditzera eman omen zion Legazpi eta Antzuola arteko mendietan zeuden harripilak Neolitos garaikoak izan zitezkeela, eta Jentiletxe izeneko batean ehorte aztarnak zeudela, Saturnino Telleriakin begiratu zuenez. Egia esan, garai hartan, Barandiaranek etzuen denbora gehiegirik, hartzen zituen dei guziera berehala erantzuteko; baina hala ere, Lakiola gaineraino heldu omen zen eta trikuharri baten aztarnak aurkitu. Geroago, 1951an, Jesus Elozegi izan zen Bahr-ek zion Jentiletxe toki hortan eta inguruko Arrolamendin trikuharriak aurkitu zituena, (ikus: "Munibe", IV, 1952, 135. orrialdean). Hain zuzen, hor dugu ikertzailearen begi zoliaren agiri ederra.

G. Bahr-en lanik sakonena, bere doktoradutzako tesia izan zen, *Baskisch und Iberisch* izenburuduna, 1940ean Göttingen-go Unibertsitateak onartua. Gerrate garaia zenez, askok galdutzat emana zuten, baina Karl Bouda-k tesiaren kopia bat zuen eta 1948an “Eusko Jakintza”n argitaratu zuen.

Lan horretan, euskara hizkuntza berezitat jotzen du, isla bezala. Hala ere, Bouda ez dator guztiz bat, zeren honek uste bai du Kaukasoko hizkuntzekin baduela zer ikusirik.

Azterketa horietan desegintzen duena, zera da, euskal-iberiko teoria zaharra. Egia esan, ordurako nahikoa eroria zegoen. Schuchardt, berak ongi demostraturik utzi zuen ustekoa zen (1908), baina E. Zyhlarz-en kritikak eman zion lehen zigorra. L. Mitxelenak dionez, G. Bahr izan zen “vasco-iberismo” delako teoriaren kontrako eritziak gure artean zabaldu zituen, RIEV-en 1934an “El vasco y el camítico” lana argitaratzean.

Oraintsu Mexicon hil den Pedro Bosch Gimpera ere urte hortakoa zen, Euskal Herri zaharreko eta Iberiako bi kulturen artean idoro zituen desberdintasunegatik. Hala ere, jakitunen artean zalantza handiak ziren. Hizkuntzari zegokiona linguistikaren arrazoiez eman behar zen, eta alde honetatik Gerhard Bahr abiatu zen. Geroago, Manuel Gómez-Moreno-ren lan bilduak (1949) etorri ziren eusko-ibero teoria lurperatxera eta, ordutik, G. Bahr zenaren jakintasuna oso goian jartzen da.

Al cumplir el 75 aniversario del nacimiento de Bahr, I. Arbide ha dedicado artículos en su memoria en una publicación de Legazpia. Pues el euskarólogo Gerhard Bahr (1900-1945) nació en el barrio de Udana de Legazpia, siendo su padre alemán, director-gerente de las minas de Katabera.

Gerhard, cuando tenía trece años marchó a Alemania a estudiar. En 1918 regresó al país vasco para permanecer durante dos años, y en este período empezó con los estudios vascos. Habiendo estudiado algunas lenguas antiguas, le interesaba perfeccionar el vascuence que aprendió de niño. En este empeño contribuyó eficazmente su hermana Mercedes.

Fue profesor en varias ciudades de Alemania del Norte, hasta quedarse definitivamente en Hannover, donde le sorprendió la guerra. No obstante, siguió los estudios en preparar su tesis doctoral sobre la teoría del “vasco-iberismo”, presentada en la Universidad de Göttingen en 1940. Movilizado, sirvió de intérprete francés en la guerra, y murió de un balazo en abril de 1945, cuando los rusos ocupaban Berlín.

Colaboró en RIEV entre los años 1926 y 1936, y en "Euskera" entre 1931 y 1935, en castellano y en vascuence, sobre lingüística comparada, sobre formas verbales de Guipúzcoa, principalmente del área de Legazpia, asimismo en torno a nombres de animales y de plantas, sobre toponimia y etnografía, y sobre nombres de parentescos.

En vascuence publicó un librito dedicado a la memoria de H. Schuchardt, y publicó otros trabajos en lengua euskara en "Euskal esnalea" (1922) y "Euskera" (1931). Por su meritoria labor de investigación y sus conocimientos la Academia de la Lengua Vasca le nombró miembro correspondiente.

Excursionista por nuestras montañas y gran observador, dio la pista de la estación dolménica de Arrolamendi, catalogada por J. Elósegui en 1951.

Desde 1934 aportó interesantes argumentos en contra de la teoría de parentesco "vasco-ibérico". Y sobre dicho tema trató en su tesis doctoral titulada *Baskisch und Iberisch*, que fué publicada por Bouda en "Eusko Jakintza" (1948). En conclusión, aboga por ser el vascuence lengua isla. Teoría que Karl Bouda no comparte totalmente al no aceptar en lo que respecta a las lenguas caucásicas, donde él encuentra algún parentesco lejano. De esta opinión era también el profesor René Lafon, fallecido el pasado año. La verdad es que en lo referente a las lenguas ibéricas, la teoría de Bahr recobra fuerza y alcanza gran valor después de los estudios llevados a cabo sobre escrituras ibéricas por Manuel Gómez-Moreno, recopilados en 1949. En este punto de la investigación a Gerhard Bahr le asisten los méritos prioritarios desde el lado lingüístico.

1975-VII-14.

MENDARO TXIRRISTAKA BERTSOLARIA

Behin baino gehiagotan esan dugunez, gure argitaldaririk gehienak berandu ibiltzen dira euren liburu zabalkundeetan. Gainera, harpideduneri baino lehenago zabaltzen dizkie liburu-denderi, eta argitaldarien sailik gehienetara izena emana dugunok, uste dut, ateratzen diren liburuen berri jakiten azkenak izaten garela. Huts hau, ez dakit nik zergatik, baina euskarazko argitaldaririk gehienena da. Ez luke hala behar, baina...

Igazko urtearen azken partean argitaratu zen "Mendaro Txirristaka bertsolaria" izenekoak, baina aurtengo urtea aski aurrera zijoala jaso

nuen. Honegatik, irakurle, ez harritu hain berandu berari buruz idazten ba dut.

Gure liburu aipatzeetan ez diogu ezkaintza askorik eman Auspoa Liburutegiari, herri literaturaren mailan lan ederrik egiten ariarren. Igazko urtean, Uztapideren *Lengo egunak gogoan*-ez aparte, Mendaro Txirristakaren bilduma da noski liburu berezietako bat, eta luzeenetakoa ere bai. Esku-liburu erakoa izanarren, laurehun orrialdetik gora bertsoz hornituak ditu.

Garai batean hain hedatua izan zen:

*Quisiera ser alcalde
Donostiakoa...*

eta beste bertso zelebre askoren egileak ongi merezia zuen bertso bilduma hau, eta Antonio Zavala langileak bai bildu ere. Lan ederra. Mendaro Txirristakak erdi erdara erdi euskarazkoak ez-ezik, erdara hutsezko bertsoak ere egin zituen, baina bilduma hontan, erdara-euskarazko guti batzuez aparte, euskarazkoak soilik biltzen ditu.

Gehienok, “libertitzeko” direnez gero, ezin ba gehiegirik eskatu, poesiaren alderdiari dagokionetik, baina ezin uka irakurleak “libertzioa” aurkituko ez duenik.

Badakigu oso bohemioa zala, baina jarri zitzaion alper fardelaren fama ez dagokio ongi bertsogintzan hainbeste lan egin duen bati. Hori bai, Xenpelarri hain gogoko ez zitzaion “komediante moduan” bizi zen, Iparragirren gisara. Herbeste urrutietan zapatak urratu zituen, era askotako ogibidez, baina batez ere kanta-kantari bertso-paperak salduaz.

Etorri handikoa zen eta gaiak eguneroko gertakizunetan nahi haina aurkizen zituen. Besterik ezean bere buruari aterako zizkion bertsoak, berak berari parre eginaz edo bere penak eta aldrebeskeriak kontatuz:

*Konseju onak ez ditut
goguan iduki,
nere moduko danak
nik ditut erruki.*

Maiz aitortzen du bide zuzena erabili ezaren damua. Bere gogozko lanetan, bertsoz jendea “libertitzen” ogibidea izan balu, beretzat eta guretzat izango zen probetxuzko, baina gizajoak, ber-berak ere ezin zuen konprenitu gertatzen zitzaion kontrajoera. Bizioen kontra ere maiz ari

zen, baina bere exenpluak ez ziren egokienak, bizimodu egoera baten ezinak hortaratu zuenez.

Amodiozko bertsoetan Bilintxen joerak hartzen ditu. Izan ere, inori imitazioz jarduntzekotan, nori hobeto? Bilintx izan bai zen amodio kontuko bertsoetan nagusi. Baina bere estilokorik ere badu Mendaro Txirristakak. Ez du jakingo poesia egiturazko bertso biribilik egiten, baina humorea alderdi guzietatik nabari zaio. Deba-arruko humore berezia, zirisartzailea. Honakorik aski du:

*Zesareo Tankredo
da tabernerua:
azukrerikan gabe
ur zikin berua,
duro bateren ordaiñ
zigarro purua;
erosten duana da
ni bezin erua.*

Gauzen garestitzearen protestaz handiak esaten ditu. Behartsuen alde bertso asko ditu, baina gehienetan oinarri gabeko arrazoiz. Soluzioak ez ditu ikusten ekonomia hobetzetik, langileriaren elkartasunetik eta gizonak berek sortzen duten aberastasunaren errepartu berdinetik. Hontan ez du Eibarko Txikillanaren antzik. Mendaro Txirristakak, gaitzak nabarmen ikus eta sufritzen ditu, baina gaitzaren iturburuen berririk ez daki. Uste du, agintaritza handi baten jabe izatera heldu ezkeru gaitzak konpondu lezazkela. Honegatik, Donostiako alkate izatearen poderioz, bere agindua aski litzake:

*Naizenian alkate
Donostiakua,
merke izango dezute
urdai azpikua,
baita ere ardi-gazta
Idiazabalkua,
ogi txuri biguñ
ta ardua naikua.*

Ikusten dugunez, janak haina edariak kezkatzen zuen, eta edarietan ere bazituen bere mailak:

*Sagarduak ez badu sagarraren antzik,
mutil zarreri ezin alaitu biotzik;
edan biarko degu, iñun bada maatsik,
ardo txuri goxua, ez badegu beltzik.*

Neskazahar eta atsoekin sartzen zenean, alajaina; Jainkoak aparta!
Hemen genuen mutila. Hara mustratxo bat:

*Zentzurikan ez arren ustez jakintsua,
dezula adiskidea Kontxexi atsua;
zuk bezela mingaiña duana indartsua,
kilkarra maiatzian bezin berritsua.*

Baina bestelakorik ere badu. Bere garaiko kronikagina ere bada. Cubako gerran bera ibili zeneko bertsoak, hemendik 1923an Afrikako gerrari eginak, Alfonso XIII.ari Espainiatik aldetzean, eta abar, historia aldetik begiraturik oso baliozkoak dira. Maiz, bertan, historiako liburuetan baino hobeto ikusten bai dugu herritarren garaiko giroa eta gogoia. Sarri historia politak egiten dira, baina garaiko errealitatea besterik izaten da.

Gainera, liburu honetan aurkitzen dira, lehenago egilerik gabekotzat genituen zenbait bertso-kanta, eta orain konturatzen gara bere jabetasuna dutela.

Azkenik, askok galdetuko dute ia Mendaro Txirristaka hau nor zen. Bere bataio izen-deiturak: Eusebio Mugerza Azpiazu, Mendaroko Garagartzan sortua 1874an, azken urteetan Donostian bizia eta 1955ean Pasaian hila. Hautzarroan Pedro Migel Urruzuno zenari meza ematen laguntzen zion. Aitortzen duenez, Urruzunoren kontseju oneri ez omen zion jaramon askorik egin, aitortu ere, damuz aitortzen zuen. Baina morala kutsatu ez bazion ere, nonbait humorea txertatu zion.

Liburu polit honen barna, lau sailletako bertsoak aurkituko ditugu: bere buruari eginak; gizarteko gora-beherak; dama-galaiak, senar-emazteak, neska-mutilzaharrak; gure herria, gure gizonak, gure jokuak. Beraz zernahitarik bada. Eta bertsuok ez dira bat-batekoak, alde zurretik paperean idatziaz antolatutak baizik.

No es nada fácil interpretar en unas breves líneas la figura de un personaje bohemio tan singular como Mendaro Txirristaka (1874-1955). Un hombre, aunque parezca increíble, empeñado en ganarse la vida con

la venta del producto de sus propios versos. Naturalmente, tuvo que recurrir, a lo largo de su vida a valerle de otros oficios y deambuló por varios países arrastrando su bohemia, pero al cabo del tiempo vuelve de nuevo a vendedor ambulante de versos por las ferias de nuestra tierra.

No era bersolari improvisador, él preparaba escribiendo. Están sus versos faltos de una formación básica en las técnicas de dicción y hasta de composición de las que saben hacer buen uso nuestros bersolaris castizos. En las poesías de amor se vuelve un imitador de Bilintx, quien le salva de algún modo. Por otra parte, no le faltó inspiración y supo valerle de sencillos motivos cotidianos en las composiciones, cuando no se hacía portavoz de los grandes acontecimientos históricos de su tiempo. Pero es en temas humorísticos donde destaca su personalidad auténtica. En lo satírico es donde Mendaro Txirristaka se desenvuelve a sus anchas.

El libro antológico de sus obras, recopilado y presentado por A. Zavala, ha sido presentado al público por la editorial Auspoa, y hemos de decir que constituye una valiosa aportación para nuestra literatura popular del género del bersolarismo.

1975-VII-21.

ULIBARRIREN OMENEZ

Yose Paulo Ulibarri Galindez, Arabako Okondo (Okendo) herri-
txoan sortu zen duela berrehun urte. Sortzez arabarra izanagatik,
gaztetatik Bilbon bizi zen, albaiteru eta perratzaile lanetan. Zenbait
kargu ere izan zituen Abandoko udaletxean eta Gernikako batzarretan
ere parte hartu zuen. Euskaltzale borrokatua zen eta ibili zen toki
guzietan agertu zen euskareren alde kementsu.

Euskaltzale ez ezik, euskal idazle ere bagenuen. *Egunari euskeraz-
koa* argitaratu zuen 1815ean. Euskarazko lehen egunkaria noski.
Leizagarragaren *kalendrer*a beste gisa batekoa zenez gero. Eta, esku-
-izkribuz, *Gutunliburua* utzi zigun.

Bere jaiotzako berrehun urteak betetzean, Okendoko herriak,
Arabako Diputazioaren eta Euskaltzaindiaren laguntzaz omenaldi berezi
bat ezkainiko dio datorren igandean (abustuaren 17an). Hitzaldiak,
kantaldiak eta dantzaldiak hornituko dute eskainiko zaion omenaldia.
Baina, gainera, egun horretan aurkeztuko da lehen aldiz bere *Gutunli-
burua* inprimiturik.

Jose Manterolak aipatzen zuen Ulibarri bere aldizkarian, baina geroztik urte askoan oso isilik eduki zen bere izena, 1915ean Fernando de la Quadra Salcedo eta Julio de Urkixok berriz aipatu arte. Gure garai hontan N. Alzola (Anai Berriotxo) bizkaitarrak berriro zigun eta ondorean beste bizkaitar batek, Lino Akesolok, bere bizitza eta lanak aztertu.

Yose Paulo Ulibarriren gaztaroan, Okendo, euskaldun hutsa zen, bere bertso batean aitortzen zigunez:

*Okondo-ko erria
da euskaldun bere izatia*

1831an Anituari idatzi zion gutun batean dionez: “Oraindino ni etorri nintzanian, imini barriya zan ardaotegi bat erri guztirako. Besterik ez eguan. Eta euzkerazko eskola bi, elexa biyetan, eta erderazkoa... erriyan erdian gura dabenentzako”. Honegatik zion Yon Etxaide adiskideak, Ukondoko herriak erakuspide eder bat eman ziola aldi hartako Euskal Herriari, elizaren babespean euskal ikastola ipiniaz.

1829. urtean, Gernikako batzarretan, ahalegin guztiak egin zituen euskarari laguntasun ofiziala eman zekion eta Bizkaiko eskoletan aginduzkoa izan zedin bere irakaspena. Gogoan eduki dezagun —Yon Etxaidek ongi dion bezala— batez ere, bera bakarrik izan zela, aldi hartako euskal giro urrian, ahalegin sutsuak egin zituena euskara ofizialki aitortzeko, euskal-ikastolak ipintzeko, euskal-akademia bati sortzea emateko eta hiztegi ta gramatikak argitaratzeko.

Bere garai hartan, Aita Zabala bezalako euskaltzale bati ere utopia hutsak zerizkion Ulibarriren asmoak. Giro ustelaren kontra jokatu zuen Ulibarrik, soil soilik, eta behar bada bere eraginari esker, 1841ean Bizkaiko batzarrak euskararen alde hartu zituen honako erabaki hauek: egunero erabagien laburpena euskaraz egin eta urrengo eguneko batzarrean irakurtzea, eta Institutoan euskara irakastea.

Ez hori bakarrik, Ulibarrik Bizkaiko Foru guzia euskaraturik ipini nahi izan zuen.

Gutunliburuan, bere ideiaz, erregezaletasuna agertzen du, Cadiz-ko lege berrien aurkako, eta liberalen politikari “debruziñoa” deitzen dio, batez ere euskaldunen Foruei ikutu ziotelako. 1834an Don Carlos-ek Elizondon eman zuen “dekretoa” bere Gutunliburuan euskaraturik ezarri zuen. Euskararen eta Euskal Herriaren zoriona D. Carlos-en aldetik etorri zezakean ustekoa bai zen.

Erljio kontuan berriz, biderik zintzoena zeritzanetik jarraitu nahi zuen. Katoliko osoa zen. Bere gutun batean emazteari aitortzen zion: "Nik eguño eztoz, ez txantxetan bere, Yainkoen legeen aginduen kontra ezer esan". Eta elkarren arteko har-emanetz, senar-emazte kontukoak, nahikoa naturaltasunez idazten ditu.

Gutunliburua, euskal eskutitz sorta bikaina dugu. Gutunez gainera beste gauzajakingarri batzuk ere baditu. Azken orriak bertso-lanez bete zituen, 1823tik hasita. Baina, batez ere, Gutunliburu honek argi adiarazten digu Ulibarririk bere garaiko gizon handi askorekin har-eman handiak zituela, eta, honegatik, bertako izkribu asko XIX. mendearen lehen parteko historiaren agiri baliosak dira

Euskal literaturaz ondo horniturik zuen bere liburutegia. Ikusten denez ezagunak zituen Axular, Larramendi, Kardaberaz, Astarloa, Añibarro, Mogel, Fr. Bartolome, Iztueta eta abar.

Bilbon 1814tik 1832ra bitartean argitaratu ziren Gabon kantak, anitz Bizenta Mogelenak ziren, baina Ulibarriren eragina eta laguntza nabari dira, L. Akesolok hain ongi uste duenez.

Yose Paulo Ulibarri, Abandon hil zen 1847. urtean.

Gaurko giroan, euskara beherago dagoelarik ere, euskararen alde zituen asmoak ez dirudite hain utopikoak. Foruak kentzetik bertatik sortu bai zen gure herriaren iratzarpena.

El próximo domingo, día 17 de agosto, se celebrará el segundo centenario del nacimiento de José Pablo de Ulibarri, herrador-veterinario y político-vascófilo. Los actos tendrán lugar en su pueblo natal de Oquendo (Alava), con diversas conferencias, canciones de coro y danzas tradicionales. Además, se presentará su libro inédito impreso en facsímil.

Este libro inédito se titula *Gutunliburua* (Libro de cartas) y en él están copiadas muchísimas cartas, y su interés reside en que Ulibarri mantuvo relación epistolar con altas personalidades de la política y también con el mundo cultural vasco. Motivo éste que le valora como importante documento histórico de la primera parte del siglo pasado.

Pero donde más se distingue Ulibarri es en sus gestiones en pro del vascuence. El R.P. Lino Aquesolo le considera el "gran campeón en la lucha por su lengua vernácula".

Vivió desde su juventud en Abando (Bilbao), sin perder su amor al pueblo que le vio nacer. Ocupó varios cargos en Abando y fue apoderado en las Juntas de Guernica, donde intervino para que las actas se redacta-

ran en euskera y se implantara en las escuelas de Vizcaya la obligatoriedad de la enseñanza en vascuence.

Huelga decir que era fuerista y partidario de D. Carlos.

José Pablo falleció en Bilbao el año 1847.

1975-VIII-11.

JEAN BARBIER

Aurten ehun urte betetzen dira Jean Barbier zenaren sortzetik. Donibane-Garazin jaioa zen. Euskal literaturaren alorrean lan ederrik egin zuen: poesia, ipuiak, antzerkiak, saiaerak eta eleberri bat ere idatzi zuen. Bere garaian, aldizkarietan anitz izkribatu zuen eta adiskide andana batekin "Gure Herria" aldizkariaren sortzaileetakoa izan zen. Bere lan asko aldizkari honetan argitaratu ziren.

Ifar Euskal Herrian oso zaleak dira kanta bildumen liburu eta liburuxkak maiz argitaratzen eta horietan nekez faltatuko da Jean Barbierren kantaren bat, herriz herri bere zenbait kanta arrunt zabalduak bai dira. Gure artean, Mikel Laboa kantari hasi zen garaian, Barbierren "Gure amatxo" izan zuen hastapenetako bat eta oraindik gure egunotan nork ez du ezagutzen plazetan edo radioz entzuna?

*Oilarra kukurruka etxean da ari,
Jadanikan Amatxo otoitzez Jaunari;
Bi eskuak ikaran, so kurutzeari:
Jaunak beha diezon egun berriari.*

Aspalditik entzun ez dudana zera da, Irrintzina izenekoa, 1898an Senperen lehen saria irabazi zuen hura, musika polit bati erantsita hemengo koruak iñoiz kantatzen zutena, hain eztsitu osatutako lehen bertsoarekin:

*Gau eder batek ninduen
hatzeman mendi gainetan.
Iguzkia aintzinean
emeki etzan zitautan.
Azken abereak etxera
zoazin ene oinetan,*

*bazter guziak zituztela
inharrosten marrumetan.*

Bi kanta horien hasierekin jabetuko da irakurlea J. Barbierren nortasunez. Piarres Lafitte dugu bere bizitza onduen aztertu duena eta bere esanen hildoz adiaraziko dugu, laburki, bere bizitzaren berria. Sorterrian, Hazparnen, Larresoron, Baionan eta Tolosan egin zituen eskolak. Teologia dotorgoa bildu-eta, Larresoroko Seminario ttipian erakasle sartu zen. Orotan denek haren lana ezinago estimatua zen. 1913an Senpereko erretorgoa hartzen du, artoski, kartsuki, maiteki gidatzen duela. 1931ko urrian hil zen.

Euskalduna baitzen errotik, bere aita-amen mintzairari funtsez heldua zegoen. Baxenabartarra ikasia zuen bere etxekoekin, baina Lapurdin egotearen bortxaz eta lapurtarren liburuak irakurtuaz, mintzaira lerratu zitzaion “nafar-lapurtar” esaten diogun hizkuntzaruntz.

Haren lumatik atera diren liburuak izan dira: *Nere kantak* (1910), *Ama Birjina Lurden* (1920), *Supaster xokoan* (1926), *Ixtorio-mixterio* (1930), *Légendes du Pays Basque d'après la tradition* (1931). Beste lan asko aldizkarietan argitaratu zituen: *Kauserak edo Kruxpetak* izeneko antzerkia (1924), *Piarres* eleberria (1926-1929), bi zatitan, eta abar.

Lafittek dionez, bertso lanak irtetzen zaizkion bezala jartzen zituen, inolazko konponketarik gabe. Behar bada hobeak izango ziren begira-mendu gehiagoz landu balitu, baina dauden bezala, herritasunez beterik daude, bizitasun berezia dariela. Eta honek ere bere alde onak ditu.

1925ean, *Trois légendes sur Axular* bilketa lana agertu zuen “Gure Herria” aldizkarian. Geroago, bertan oinnarriturik edo, Axularren itzala izeneko bertsoak egin zituen. Urte batzuk dira J.M. Barandiaranek ere bildu eta aztertu zituela honelako kondairak, Axularren itzalari buruz. Barbierren poemaren bi bertso soilik emango ditugu, itzal merezigarriaren ohorez:

*Zuhaitz handiak, lore ttikiak
berekín dakar itzala,
nahi bezenbat argitugatik,
gizon orok hala hala!
Itzalik gabe, aditua nahiz,
Aingeruak ditezkelá.
Huna non dioten Axularrez:
Itzalik gabe bizi zela.*

*"Itzalik" gabe, hura bezala,
nahi girea, anaiak?
Gure Axular bezenbat garbi
nahi girea guziak!
Galtxagorriri, harek bezala,
utzi erdaldunkeriak,
aztaparretan utz debruari
beraren kaskoinkeriak!*

Literaturan biltzaile eta sortzaile zenez, aztertzailetarako ere dohain bereziak agertu zituen; honen ondoriozkoak ditu egin zituen saiaera laburrak. Hauen artean, heriotzari buruzkoa, bertsoz ere jarria, azkenaldi hontan euskaraz eta erdaraz gai hau dutenek aprobetxatu gabea da.

Bere paperen artean, P. Lafittek, argitaratu gabego lan asko aurkituak ditu, batez ere bertsoak. Baina argitara gabeko hauen artean berezietako bat buhamien (ijitoen) bizitza eta ohiturazko lan eder bat, 1971. urtean Lafitte berak argitaratua *Antxitxarburu-ko buhamiak* izenez. 1895ean idatzia zen. Behar bada gai berarekin frantsezez beste lan bat egina zuelako edo egiteko asmoa zuelako utzi zezakean argitaratu gabe, zeren 1904-1905 urteetan *Les Bohémiens d'Antchitcharburu* bere irakurtzaileei eskaini bai zien.

Lerro hautatik bijoaz gure laudorioak J. Barbier zenari bere ehungarren urteburu honetan.

El presente año se cumple el centenario del nacimiento del escritor Jean Barbier, natural de San Juan de Pie de Puerto, en la Baja Navarra. Jean Barbier era sacerdote, que doctorado en teología fue profesor en el seminario de Ustaritz, vicario de la Catedral de Bayona y párroco de Saint-Pée-sur-Nivelle. Fecundo escritor que además de varios libros escritos en euskera dejó extensa obra desperdigada en revistas, a veces bajo los seudónimos de "Ganich", "Nehor" y otros más. Recopiló y escribió de propia creación, cantares, cuentos y leyendas, compuso comedia teatral, breves ensayos y una novela titulada *Piarres*. Dejó, además, algunos trabajos inéditos que hoy obran en poder de P. Lafitte, quien hace cuatro años dio a la luz un tratado sobre la vida y costumbres de los gitanos de Antchitcharburu, trabajo anterior a otro del mismo tema que el autor dio en francés.

M. Laboa difundió por Guipúzcoa su canción que comienza por “Oilarra kukurruka...”, y hace ya bastantes años algunas masas corales de esta parte cantaban aquella otra “Gau eder batek ninduan...” con una dulce melodía. A Jean Barbier corresponde un lugar preferente en las letras eúskaras aunque esté por hacer un profundo estudio de su obra.

1975-IX-1.

KARMELO ETXEGARAI

Bihar beteko dira berrogetahamar urte Karmelo Etxegarai hil zela.

Gure mende honen hasieretan euskal kulturaren afloan hainbeste lan burutu zuen Etxegarai hura, batez ere historia ikerketetan agertu zen nortasun handiz.

Gizon jakitun hura Azpeitian sortu zen 1865eko uztaillaren hiruan. Gaztetxo gelditu zen aitarik gabe, eta estudioetan lagundu nahi zion osaba ere laster galdu zuen. Bere gogozko asmoak etenda gelditu baziren ere, ez ordea bere ahalmenak. Hamazazpi urte zituanerako behar gorrian aurkitzen zen bere familia eta lanari heldu behar izan zion. Baina ordurako euskarazko poesiak egiteari emana zegoen.

1884an Gipuzkako Diputazioak bere artxiboa ordenatzeko eta bertatik “archivo manual” zelako bat antolatzeke hartu zuen. 1885ean, Diputazio Jauregia erretzean, han galdu zen Karmelok egin zuen lana. Baina urrengo urtetik lan handiagoa eskuratu zion, artxiboa eta liburutegiaren antolaketa. Geroztik, Etxegarai, etengabe jardungo zen azterketan eta antolaketan. 1891ean, Diputazioak, ofizial mailara jaso zuen eta bost urte geroago, bere ikerketen ezkergarri eta aurrerantzean aukera hobekak izateko, hiru probintzietako kronista ofizialtzat izendatu zuten eta bere bizilekutzat Gernika izan zuen. Eta hemen hil zen 1925eko azaroaren lauan.

Eusko-Ikaskuntzako burutzakoa izan zen, Euskaltzaina, Real Academia de Historiako urgazlea eta Bellas Artes-ko ordezkaria. Guziok bere lanen ordainezko izendapenak.

M. Menéndez Pelayo-rekin har-emanak izan zituen eta beragandiko ikasiak ere bai noski, historiagile bezala. Gainera, Menéndez Pelayo bereak hilburukoan “albacea”tzat izendatzeaz ohorez bete zuen gure azpeitiarra.

Biblioteca Nacional-eko agiri zaharrak aztertu zituen, bereziki Vargas Ponce-ren kolezioa Academia de la Historia-koa; baita ere El Escorial-eko biblioteka aztertu zuen eta lan hauen frututzat agerrarazi bere historiako lehen liburuak.

Bere lanik berezietakoak, historiari dagokion aldetik: "Investigaciones históricas referentes a Guipúzcoa" (1893), "Las provincias vascongadas a fines de la Edad Media" (1895), "Vizcaya" (Geografía General del País Vasco-Navarro delakoaren temoetarik Bizkaia), eta abar. Gainera, Gorosabelen "Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa" argitaratu zuen, bost tomotan eta bere seigarren bat gehituaz. Bestalde, historia azterketak jarraitzeko iturriak markatuz ere lan ederrik utzi zigun.

Beste gai bat, Etxegaraik maiz erabilia, Euskal Herriko foruak izan ziren. Donostiakoari buruz erdaraz eta euskaraz idatzi zuen, Gipuzkoarenak "Compendio" eta "Epitome" oso ezagunak ditugu, gure foru zaharrak sakonago ezagutzen laguntzen digutenak.

Bere hitzaldiak, guziak irakurriak eta gehienak argitaratuak, iker lan edo saiaera sakonak dira gehienak. Hoiien artean dugu "La tradición artística del pueblo vasco" (bi hitzaldi, argitaratuak), Euskal Herriko artista zaharrei buruz hainbeste argi ematen diguna.

Hoeiz gañera bere anai Bonifazioren estudioak bideratu zituen.

Baina euskaraz egin zuen lana ere ez zen hain txikia. Arestian esan dudanez, gaztetxotatik hasi zen poesiagintzan, baina bere garairako ez nolana hiko. 1882an, Donostiako Lora-Jokoetan bi aipamen eraman zituen, eta urrengo urtean Donostian, Iruñan eta Markiñan saritua izan zen. Markiñan, bertako Euskal-Jaietan, D'Abbadie jaunak jartzen zuen, ontzako urrea eraman zuen. Poesiaz gainera kondairazko ipuiak ere idazten zituen eta hauetako batekin ere saria jaso zuen. Estudio, saiaera eta beren inguruko zenbait hitzaldi ere emanak zituen euskaraz. "Euskalerriko itsas-gizonak" Euskal-Esnaleetako liburuxka batean argitaratua, gai honi buruzko estudio sakon bat da, eta beste horrenbeste esango genuke Euskaltzaindian sartzerakoan Mogeltarreri buruz eman zuen hitzaldia, "Euskera" aldizkarian argitaratua.

Eta hitzaurreak? Zenbat eta zenbat libururi egin zizkion? Hemen ere, bere ogibidezko lanaren eraginez erdaraz euskaraz baino gehiago egitera behartu zen, baina, esate baterako, Bilintxen liburuari egin zion hura ere ez zen lan makala.

Lan guzietan erudizio handia erakusten du. Liburu zahar eta berri, zein esku-izkribu zahar, denetan nabari du gizon argi eta zintzoa zenaren agiria.

Hil ondorean, 1928an, egile askoren artean hornitutako omenezko liburu bat argitaratu zen, baina ez litzake lan txarra izango bere obra guziaz argitaratzea, liburuetatik aparte hainbeste lan jakingarri aldizkarietan sakabanaturik daudenez gero. Bere ondasun horretatik bada zer ikasirik.

Mañana se cumple el cincuenta aniversario del fallecimiento de Don Carmelo de Echegaray, quien en vida pudo ostentar el título de Cronista oficial de las Provincias Vascongadas, nombramiento hecho en 1896 por las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya en honor a sus investigaciones históricas.

Autor de numerosas obras en castellano y en vascuence. Dirigido y recomendado por don Aureliano Fernández-Guerra, examinó los códices que se custodian en la Biblioteca Nacional, y los manuscritos, especialmente la colección Vargas Ponce, de la biblioteca de la Academia Academia de la Historia; realizó también detenidas investigaciones en la riquísima biblioteca de El Escorial. Aparte, tomó orientaciones de don Marcelino Menéndez Pelayo, de quien recibió el señor Echegaray la distinción honrosa de nombrarle uno de sus albaceas testamentarios.

A sus numerosos estudios históricos se unen las informaciones de las fuentes de investigación, análisis sobre los fueros, investigaciones sobre artistas y catalogación de monumentos, organización de archivos, etc. Dio numerosas conferencias (todas ellas escritas) y prologó numerosos libros. En vascuence, cultivó desde su juventud la poesía, siendo galardonado en numerosos concursos, y asimismo escribió leyendas, y fue autor de numerosos ensayos históricos y de prólogos a diversas obras. Fue vocal de la Junta Permanente de la Sociedad de Estudios Vascos, miembro de número de la Academia de la Lengua Vasca, correspondiente de la Real Academia de Historia, y delegado Regio de Bellas Artes en Guipúzcoa.

En 1928 se le dedicó el volumen homenaje, pero sería de gran interés agrupar toda su obra completa, que hoy se halla tan desperdigada, y de tan difícil acceso porque la mayoría se halla agotada.

1975-XI-3.

OHARRA: "Karmelo Etxegaraireren historia iker lanak", *Egan* aldizkariaren 1975 urteko 1-6 zenbakiaren 28/32 orrialdean.

PEDRO BOSCH GIMPERA IKERTZAILEA

Duela urte bete hil zen Pedro Bosch Gimpera ikertzaile jakituna. Garai berean zerbait idatzi nahi nuen, baina beste zeregin batzuk galerazi zuten nere asmoa. Orainezkero hor geldituko zen asmoa asmo, inoiz betetzera heldu gabe, oraintzu, bi aldiz, bere oroitzua izan ez banu.

Bere aspaldiko lan asko, Historia zahar, arkeologia eta etnografia estudiantetarako, oraindik oinharrizkoak ditugu. Eta gaiok hain gogoko ditudanez, ahaleginik egin dut liburuok handik edo hemendik lortzeko. *Historia de Oriente* bi tomoak, 1927-28an argitaratuak, uste baino merkeago aurkitu ditut Barcelona-ko liburu-denda batean. Bere *Etnología de la Península Ibérica*-rekin ez dut izan holako suerterik.

Bere ikasle izanak eta orain Arkeologiako irakasle den Tarradell-ek dionez, lan horiek, hain zaharrak direlarik ere, beren ehunetik hirurogeiko partean baliozkoak direla.

Azken "Munibe" eskuratu zait, aurtengo 1-2 zenbakiak osatzen dituen eta Juan Mari Apellanizen lan eder batekin aurkitu naiz. Neolitos garaitik Metalen garaira arteko azterketaren aburu berriak agertzen dituen. Apellanizek Santimamiñe eta ingurua hartzen ditu onharri lehengizonen lurrontzietatik eta bestelako lanabesetatik irizpide berriak emateko. 1973an argitaratu zuen *Corpus de materiales...* lanaren ondorioak dira. Lan teknikoa benetan. Teoria aldetik ikusten dugu Bosch Gimpera-ren aldetik ez doala, baizik ondorengo Martin Almagro hurbil. Hala ere, Apellanizek aitortzen du Bosch Gimpera-ren hasierako oinharriari esker ezagutu direla ondorengo aurrerapenak. Hemendik ikusten dugu, Kataluñako Arkeologiaren aita izan zela hemengoan hastapenen bideak markatu zituena. Izan ere, T. Aranzadiren adiskidea zen, biak Barcelonako Unibertsitatean irakasle zirenez.

Pedro Bosch Gimpera-ak hemengo Arkeologiaz jarri zituen teoriak-ko oinharriak trikuharriari (dolmeneri) buruzkoak izan ziren. Lehen batean Portugal aldetik ekarritakoa zela uste zuen, geroago bestelako iritziez aldatuz joan bazen ere. Teoriak izan dute aldakuntzarik, baina lanerako plangintzak hor daude bere laguntzaz markatu ziren bezala. Gainera, pozgarri zaigu, Apellanizen lanetik ikus dezakegun bezala, urteak igaroaz ere hemengo ikerketaz arduratzen zela jakiteak. 1923 jarri zituen lehen teoria haiek, geroago, 1932 zuzenketaz berrituko zituenak. J. M. Barandiaranek egiten zituen azterketak eta sintesisek arretaz jarraitzen zituen. Eta ondoko ikerketak eta teoriak ezagutu ondorean berearen zuzenketak egiten jarraitu zuen.

Bestelako lanik ere egin zuen Euskal Herriari buruz, J. Bilbaoren *Eusko-Bibliographia* (Ed. Auñamendi-k argitaratua) dugu lekuko. Obra

honen bigarren tomoa ikusi besterik ez dago, gure herriarekin zer ikusirik duen lanez 106/108 orrialdeak erakusten digute.

Mexico-n hil zen igazko urriaren 9an, 83 urte zituelarik. Izatez Barcelona-n jaio zen 1891ko martxoaren 2lean.

Bere espezialitatean mundu guzian zuen ospe handia, eta Kataluñan bertan zer esanik ere ez. Unibersitatean nortasun handiko maisua izan zen eta Kataluñako Arkeologia Eskolaren sortzailea. Gazterik, Barcelona-n bertan Filosofia eta Letrak estudiatu zituen, eta greko literaturaz izan zituen bere lehenbiziko kezka. Madrid-en eta Alemania-n gehitu zituen bere estudioak. Dotoradutza egin ondorean ososorik sakondu zen Arkeologia eta Historia zaharrea, bere zaletasunak hontan finkaturik. Barcelona-ra itzultzean bertako Unibertsitateko irakasle, eta historia aurreko ikerketaz arituko ziren mihintegien sortzaile izan zen. 1919 Katalan Unibertsitateko Batzar nagusi bat antolatu zuen, eta ondorean "Servei d'Investigació Arqueologica del Institut d'Estudis Catalans" antolatu zuen.

Bere herriaren alderako maitasuna erakutsi zuen, eta bere jakintza-aren itzala lagungarri izan zen Unibertsitateko ikasleen artean kataluñiako hizkuntza eta kulturaren alderako kezka sartzeko. Bere *La universitat i Catalunya* liburuaren sarreran agertzen duen bezala.

Ibero eta kelta azternategietan arkeologia lanetan aritu izan zen. Matarranya, Maestrazgo-ko pinturetan eta Sant Cugat del Valles-ko monastegian ikerketak egin da gure mende honen lehen partean. Eta georago Ampurias-ko azterketetan zuzendari izan zen.

Bere aspaldiko lan haieri esker Espainiako Arkeologia azterketen oinharriak jarri zituen. Zientzia hoietaz anitz idatzi zuen, bibliografia handi baten jabe da eta bere agiri horiek balio handikoak ditugu. Bere *Etnología de la Península Ibérica*, esate batera, oraindik ere oinharritzko lana da gai hontaz zerbait egin nahi duenarentzat.

1933tik 1939ra Barcelona-ko Unibertsitateko erretora izan zen. Gerraondorean, desherriturik, Oxford-en irakasle izan zen, baina Europako gudaketagatik Amerika aldera jo zuen, Panamá eta Colombia-an egon ondorean Mejiçora jo zuen 1941ean bertako Unibersitatean irakasle izateko. Han bertan ere Arkeologia lanak jarraitu zituen bere heriotzara arte.

El 9 de octubre de 1974 falleció en México el profesor Pedro Bosch Gimpera. Que no pude ocuparme de él en el momento oportuno por razones que no vienen al caso. El último ejemplar de la revista *Munibe* de

la "Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi" me ha traído a la memoria al singular investigador catalán, fundador de las bases de la investigación Arqueológica de Cataluña, que introdujo moderna metodología para estos estudios en la Península, y por tanto en nuestra tierra vasca; mas en lo que respeta del Neolítico a la Edad de los Metales, como muestra J. M. Apellániz en su trabajo de la aludida revista *Munibe*.

P. Bosch Gimpera nació en Barcelona en 1891. Estudió Filosofía y Letras para ampliar estudios en Madrid y Alemania. Doctorado, se entregó intensamente a la Arqueología e Historia antigua. Profesor en la Universidad de Barcelona, creó seminarios de investigación de Prehistoria e Historia antigua, fundó la Escuela Arqueológica Catalana, y publicó valiosas obras llamadas a ser durante varias generaciones básicas para estas disciplinas. Su obra científica a través de libros y revistas especializadas constituye una bibliografía vasta y de gran valor documental. Únicamente de sus trabajos relacionados con nuestra tierra, J. Bilbao le dedica las páginas 106/108 del tomo II de su voluminosa obra *Eusko-Bibliographia* (Bibliografía vasca editada por Auñamendi). *Etnología de la Península Ibérica*, *Historia de la Antigüedad*, etc. son sus obras fundamentales.

Investigó en yacimientos ibéricos y celtas, Matarranya, Maestrazgo, Monasterio de Sant Cugat del Vallés, etc., y fue director en Ampurias.

Desde 1933 rector de la Universidad de Barcelona. En 1939 salió exilado. Sus últimos años vivió en Méjico de profesor de la Universidad, donde también ha llevado a cabo importantes trabajos arqueológicos.

Fue un hombre que amó apasionadamente a su tierra. Organizó en 1919 el Congreso Universitario Catalán y creó el "Servei d'Investigació Arqueológica del Institut d'Estudis Catalans". En 1929 había organizado el Congreso Internacional de Arqueología y en 1935 la Conferencia Internacional de Prehistoria de la Mediterránea.

1975-XII-8.

BITOR GARITAONANDIAREN EHUNGARREN URTEBURUAN

Datorren larunbatean, martxoaren 6an, beteko dira ehun urte Bitor Garitaonandia zena Zaldibarren sortu zenetik, eta egun hori hautatu du Euskaltzaïndiak bere laguntzaile edo urgazle zen euskal idazle eta euskaltzale burrukatuari zor zaion omenaldia egiteko.

Bitor Garitaonandia Argia astekariaren sortzaile eta zuzendaria izan zen eta horrez gainera antzerki eta ipuin idazle trebea. Bizkai partean Durangaldeko Zaldibarren jaio zen 1876ko martxoaren 6an, eta Donostian hil zen 1929ko irailaren 3an. Bere bizitzan bete zuen lana handia zelarik ere askoz gehiago espero zitekean hain gazte hil ez balitz.

Bere aita herriko maisu zen. Bitorrek txikitatik erakutsi zuen musikarako zaletasuna, tiple-abots ona omen zuen eta bere aitak zortzi urte zituenerako Ermura bidalia zuen musika ikastera eta handik laster Durangora Kruz Gabiolaren irakaskintzak hartzera.

Orduñako Jesu-Lagunak tiple on baten bila zabilizatenez, harako hautatu omen zuten, hamahiru urte zituelarik. Orduñan batxilerra estudiatzeko aukera izan zuen eta handik Salamanca-ko Jesu-Lagunen etxera jo zuen apaiz egiteko asmoz. Apaiz egin ondorean Zamora-ko katedraleko kantaria izatea irabazi zuen. Lau urte ondorenean Donostiako Jesuitetara kantari etortzeko aukera izan zuen eta hemen hasi zituen bere euskarazko lanak. Intzagarai zenak zionez, aldi hartan ez omen zen elizkizun nagusirik Bitor gabe, musikaz ezer goratu behar bazen bera omen zen aurrengo. Euskal Herri guzikoak Lourdes-era erromes joan zirenean ere musika zuzendari bera izan omen zen.

Jose Maria Irure jaunak aztertu zuen B. Garitaonandia zenaren bizitza, hau hil ondorean eman zuen hitzaldi batean (hitzaldi hau Euskal-Esnalea aldizkarian argitaratu zen, XX, 1930, 318. zenbakian). Bertan aitortzen duenez, Bitor Donostiaratu zen garai hartan, euskaraz ba omen ziren aldizkari politak eta euskararen alde lanean gogor ari zirenak, baina batzuk jakitunentzako zirala-ta, besteak euskara aditu-ezinezkoa zebiltela-ta, edo banaka banakak baizik ez zitzaizkion herriari eskuetaratzen. Bitartean, zerbañt irakurtzekotan nahi ta nahi ez erdaraz egin behar. Berak zionez, errua ez zen herriarena bakarrik; jakin nahia beheko mailetara ere sartzea ez zen harritzekoa, eta jakin nahi hori asetzeko euskaraz ez zela ezer aurkitzen eta bide berriren bat hartu beharra zegoela. Euskara gordetzeko herriari euskaraz irakurtzen eta idazten erakustea zela bide bakarra, eta bere adiskideekin asteroko berria sortzea pentsatu zuen.

Garitaonandia zenak markatu dituen asmoetako astekariaren helburuak: Euskal Herria euskal-elertiaz zaletuarazteko, jakin nahia asetzeko, euskaraz zer irakurri eskaini, herri irakaskuntza era guztietan eragitzeko: Euskal Herriko ohiturak azaldu eta maitarazi. Leopoldo Elio Gasteizko apezpikuaren baimena lortu zuten, 1921ean, eta urte berean sortu zuten Argia izeneko asterokoa, Bitor zuzendaritzarako aukeratuz. Hil arteraino bere zuzendari izan zen. Zazpi urtean. Eta, zazpi urte hoi

buruan zazpimila ale ateratzen ziren. Beraz, euskarazko kazetaritzarentzat abantaila handia izan zen.

Horrez gainera, 1922tik Argiaren Egutegia argitaratzen hasi zen, almanaka gisa. Bai asterokoak eta bai egutegiak arrakasta handia izan zuten 1936ra artean. Gudarekin suntsitu ziren.

Argia hasi zen urte berean, 1921ean, Bitor Garitaonandiak bi eliz-liburu argitaratu zituen, *Argi-Donoa* eta *Argi-Dono laburra*.

Baina beste idazlanik ere eskaini zigun. 1919an Euskal-Esnaleak bere babespean eratzen zituen hitzaldietarik bi eman zituen. *Usandizaga, here bizitza ta eres-egikuntza* gaiez, gero 1920an "Itzaldiak" izeneko liburuxkan argitaratuko zirenak. Lan jakingarria benetan, musika alorreko jakintzaz mamiturik.

1922an Euskaltzaindiak argitaratu zion *Ipuin laburrak umetxoentzat deitu liburua, eta 1925ean, Euskaltzaindi berak here urgazle edo laguntzaile izendatu zuen.*

Baina, literaturaz, Argia astekarian agertu zuen lan kementsu eta burutsuaz aparte, antzerkigintzan eman zituen here lanik ederrenetakoak. Hiru lan argitaratu zituen, zein baino zein politagoak: Izartxo, 1917an Donostiako Udaletxeak saritua eta urte berean errepresentatua izan zena, 1918an lehen aldiz argitaratua; Aitona ta billoba 1920an argitaratua; eta Ongillearen saria, 1922koa. Antzerkiok oraintsura arte errepresentatuak izan dira.

Bere adinik helduenean, jakintza mailak igaro ondorean eta lanean kementsu ari zela hil zitzaigun berrogetahamahiru urtekin.

El próximo sábado, día 6 de marzo, la Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, le rendirá homenaje al escritor Víctor Garitaonandía en su pueblo natal de Zaldibar (Vizcaya), con motivo del centenario de su nacimiento.

Víctor Garitaonandía, sacerdote, músico y destacado escritor eúskaro, era miembro correspondiente de Euskaltzaindia. Alcanzó renombre con sus intervenciones músico-religiosas en los años veinte de la vida donostiarra. Pero se distinguió particularmente en actividades literarias en vascuence. Fue uno de los fundadores del semanario Argia en 1921, del que tomó su dirección que llevaría hasta su fallecimiento en 1929. Durante su mandato, la tirada del semanario Argia, alcanzó la cifra de 7.000 ejemplares.

En 1921 publicó dos obras religiosas, “Argi-Donoa” y “Argi-Done laburra”, que tuvieron varias ediciones. Creó el almanaque “Argia-ren Egutegia” al arrimo del mencionado semanario. En 1919 dio dos conferencias sobre la vida y obra de Usandizaga, y que un año más tarde se publicarían en el libro “Itzaldiak” de Euskal-Esnalea. En 1922 Euskaltzaindia le publicó un libro de cuentos infantiles, “Ipuin laburrak umetxoentzat”. Pero su producción literaria de mayor importancia son sus tres obras teatrales: “Iziartxo” que en 1917 mereció el primer premio del certamen del Ayuntamiento de San Sebastián, obra que fue representada aquel mismo año por la Academia de Declamación, y que vio la luz en libreto un año más tarde; a la misma le siguieron las obras “Aitona ta billoba” (1920) y “Ongillearen saria” (1922).

Falleció a los 53 años, en plena actividad literaria y al frente del citado semanario eúskaro, Argia.

1976-III-1.

ISIDORO DE FAGOAGA, KANTARIA ETA IDAZLEA

Egun batzuk dira Isidoro de Fagoaga nafar kantari eta idazle handia hil zela. Berakin mntelektual eta euskaltzale bikain bat galdu dugu.

Isidoro, Bidasoako Beran sortua zen 1895eko apirilaren 4an; operako tenor bezala eta saiolari bezala agertu zuen bere nortasuna; bere lanetan ez ezik, Martin Ugalderen *Hablando con los vascos* liburuan ere argi lagatzen du bere nortasun handi hori. Liburu hontatik ikusten dugu haurtzarotik ze kezkatia zen eta ze gazterik irten zen munduz mundu barne kezka eraginik eta kantari bezala helburu batzuk lortu nahirik. Hogei urtekin joan zen Italiara eta Parma-n irabazi zuen Conservatorioan estudiantzeko beka, Toscanini, Campanini eta Pizzetti-k estudiatu zuten toki berean.

Bere gogoaz bete zuenez, bederatzi alditan parte hartu zuen Miláneko Scala famatuan Toscanini, Elmendorff eta Sigfrido Wagner (Ricardo-ren semea) aipatuen zuzendaritzapean, Wagner-en obra guziak kantatuaz eta Robbiani-ren *Ana Karenina* eta Pizzetti-ren *Arrotza* lehen aldiz emanaz. Era berean ibili zen Erroma-ko Operan, Napoles-ko San Karlosen, Turín-eko Regio-n, eta hitz batean, Italiako saloirik handienetan, Alemanian, Espainian eta Hego-Ameriketean. Hemen, Guridiren *Amaya*

berak eman zuen lehen aldiz. Scala-ko orkestarekin Columbia-k grabatu zizkion Wagner-en obrarik berezienak, *Parsifal*, *Tannhauser*, eta abar, eta *Hirukoitzaren* parterik berezienak. Nonbait, Ugaldereen liburutik ikus genezakeanez, *Parsifal* eta *Walkiria* zituen operarik gogozkoenak.

Italiako egonaldian, gaztaroan, ordu libreetan literaturaz eta arteaz aldizkarietan eta egunkarietan idazten hasi zen. Milán-en eta Bolonia-n hitzaldiak eman zituen Bayreuth-era egin zuen joan-etorriari buruz.

Baina 1937an eten zuen operako tenor bezala jarraitzea, bere borondatez utzi zuen nazi-fazistek garai hartan egiten zituztenen protestaz, eta hala agertu zituen bere arrazoiak *Pedro Garat*, "*El orfeo de Francia*" liburuaren sarreran. Geroztik intelektual bideak soilik eraman zituen.

Intelektual ekintzan "Gernika" izeneko aldizkariaren sortzaile eta zuzendari izan zen, izen bereko elkargo baten inguruan argitaratuaz. Lehen partean Donibane-Lohizunen eta gero Buenos Aires-en. Aldizkari honetan hiru edo lau hizkuntzako lanak argitaratzen ziren eta bertatik ezagutu nituen nik Iratzeder, Jon Mirande eta beste batzuk. Oso irekia zen, era askotakoak idazten zuten eta eztabaidarik ere sortzen zen, baina hala ere zuzendariak aski ongi zekien gauzak bideratzen eta baretzen. Gainera, bere idazkiak jakingarriak izaten ziren. Unamuno eta Iparragirreri buruz orduan idatzi zituenak ahaztu ezinezkoak dira. Hoiek, gero, bere liburuetan datz.

Gutierrez bost liburu idatzi zituen, zein baino zein hobeak, eta beste lan asko hor gelditu dira aldizkarietan sakabanaturik. Azken urteotan Amigos del País-ko Boletinean lan sakonik idatzi digu, euskal operari buruz, Donibane-Garaziko Huartez eta abar. Euskal Opera Yon Etxaidek euskaraturik "Egan" aldizkarian argitaratu zen 1974an. Fagoagak erdaraz idazten zuen, euskalduna izanik ere gaztetxotatik hainbeste urtez herbesteetan ibilia zenez euskara zerbait moteldua zuen eta idazteko ohiturarik ez zuen hartu. Hala ere, nerekin beti euskaraz mintzatzen zen.

Aspaldiko urteetan Buenos Aires-ko "La Prensa"n idatzi du eta azken aldi hontan Donostiako "El Diario Vasco"n.

Baina bere liburuetan uzten digu bere lumatik irten diren lanek onenak *Pedro Garat*, *El Orfeo de Francia* (Buenos Aires, 1948), E. Gandia, G. Marañon eta J. Garatek goraiapatutako liburua, Pedro Garati buruz egin denik biografiarik hoberena noski. Frantsiako krisi handietako pertsonaje hau, erregeen gorteko kantaria. Izan ere nork eraman zezakean bizitza adieraztea beste kantari handi batek baino hobeto? Honegatik, kantaria eta bere ingurua barnetik erakusten ditu Fagoaga idazleak.

Garatarrendako grina sartu zitzaion eta *Domingo Garat, El Defensor del Biltzar* (Buenos Aires, 1951) idatzi zuen, matxinadaren ondorean Uztaritzeko Biltzarrak defenditu zituenari buruz. Liburu honetan, Domingoren bizitzaz gainera, garaiko politika giroa eta euskaldunen Biltzarren alderako jokabidea sakonki estudiatzen ditu. Mugazandiko euskaldunak beren eskubideak noiz eta zelan galdu zituzten ezagutzeko libururik onenetakoa noski. Hoiien ondotik ahaideko zen Jose Garatena ere egin nahi zuen. Hau bai zen Justizia ministro Frantsiako erregea sententziatu zuena. Familiko hiru Garat hoiien bizitza eta egintzak adierazi nahi zituen, baina Jose-renik ez zuen bukatu.

Retablo vasco (Zarautz, 1959) euskal kantari eta musikarien berri ematen du, Huarte, Ravel, Paoli, Gayarre eta Eslava. Baina liburu erdia baino gehiago Gayarrerri buruzkoa da. Julio Enciso-ren memoriez gainera beste osagarri asko ematen dituena. Eta, Gayarre aztertzeko era berriak, beste kantari bikain batena izateaz aparte. Isidoro ber-berak 1950ean Gayarretarren artxiboan aurkitu zuen Julianen euskarazko gutun bat ere argitaratzen du, lehenago, 1951an, "Gernika" aldizkarian argitaratu zuena.

Unamuno a orillas del Bidasoa y otros ensayos (Donostia, 1964), saiaera laburrez hornitutako liburu eder bat da. Unamuno, Grandmontagne, Wordsworth, Herrera y Reissig, Larramendi, Azkue, Baroja, personajeeri buruzko ez gainera beste ikuskera batzuk dakarzki.

Eta, *Los poetas y el país vasco* (Donostia, 1969) liburuan Victor Hugo, Unamuno eta Francis Jammes, E. Rostand, Loti, euskaldunak Cervantes-en Bizitzan eta lanetan, eta J. M. Iparragirre. Azken hau kapitulurik luzeenetakoa eta interesgarrienetakoa ere bai. Hemen ere, gure kantari bohemio hura ikusteko era bereziak zituen, bereziak bezain bereak, zeren berari ere bizitza aski bohemioa gertatu zitzaionez, guk baino era egokiagoz begiratzen daki artista hoiei buruzkoa. Eta aburu jakintsuez aparte, Iparragirrek azken partean Buenos Aires-en 1877an agertu zuen damuzko kantaren zatiak adiarazten ditu, Karlos zazpigarrena uxatuaz, eta berak "Gernika" aldizkarian eman arte ezagutzen ez zirenak.

Musika eta antzerkiaren aldera grinaturik zegoen honek, azkenik *El teatro por dentro* eskaini zigun. Hoietara bezain Euskal Herriaren alde grinatua zegoen gizona, martxoaren 15ean hil zaigu.

Euskaldungoa bizi den arte iraunendu bere oroitzak gure herrian.

El día quince de marzo acaba de fallecer Isidoro de Fagoaga, cantante y escritor navarro, nació en Vera de Bidasoa el 4 de abril de 1895. Parte de su vida y su talento quedaron plasmados en la obra *Hablando con los vascos* de Martín de Ugalde.

Tenor lírico de óperas wagnerianas, que actuó durante nueve temporadas en la Scala de Milán bajo la dirección de Toscanini, Elmendorff, y Sigfrido Wagner (hijo de Ricardo) interpretando la totalidad del repertorio wagneriano. Actuó en los principales escenarios de Italia, Alemania, España y Sudamérica.

Desde muy joven, en Italia, en períodos de asueto, escribió sobre temas literarios y artísticos. Allí donde fue, llevó sus sentimientos patrios, su amor y su fidelidad a la tierra que supo mantener aún cuando se hallaba en la cumbre de su fama. Estos sentimientos fueron los que le impulsaron en 1937 a interrumpir su carrera artística en protesta a los abusos nazis, como manifestó en la introducción a su obra *Pedro Garat, El orfeo de Francia*, y se entregó de lleno a actividades de carácter intelectual, cuyo resultado testimonian sus libros: *Pedro Garat, El Orfeo de Francia, Domingo Garat, el defensor del Biltzar, Retablo vasco, Unamuno a orillas del Bidasoa y otros ensayos, Los poetas y el país vasco* y por último *El teatro por dentro*. Además de numerosos artículos y ensayos en revistas especializadas, siendo entre otras colaborador asiduo de "La Nación" de Buenos Aires. Fue uno de los fundadores y director de los cuadernos literario-culturales "Gernika", de la Asociación de su nombre, publicados en Saint-Jean-de Luz y Buenos Aires entre los años 1947 y 1953.

Este gran humanista, navarro de pro, se destacó como singular personaje en las artes y en las letras, y su memoria ha de perdurar entre nosotros.

1976-III-29.

Joxe Erramun Zubillaga

EUSKALDUNAK ARGENTINAN

"Aranzazu" aldizkariak apirilko zenbakian zekarren Aztiriren artikulu bat, "Euskaldun jator bat hil da Argentina-n" izenekoa, eta bertatik jakin dut Joxe Erramun Zubillaga Bedaioarraren hil berria.

Emigrante baten ibileraz bi liburu eder argitaratu zituen eskal idazle hau abenduaren 25ean hil zen Buenos Aires ondoko Ramos Mejia herrian.

Joxe Erramun Zubillaga Bedaion sortua zen 1891. urtean eta hogeitau urte zituanetako joan zen Argentinara. Bere bizitzaren azken partean orrialde ederrik idatzi zigun, hizlaxoz, bere ibilereri buruz. Idazki horietatik ikusten dugu euskaldunak urrutiko lur haietan izan dituzten langintzak, jokabideak, ekintzak eta ikus moldeak. Zubillaga, bere jakinduria urriarekin ere, oharle bikaina zen, bere lanetatik agiri denez.

Ameriketan ibili ziren euskaldun konkistadore eta emigranteei buruz berri asko bildu zituzten Segundo de Ispizua eta Pierre Lhandek. Baina gure artean gutiago ezagutzen dira Francisco Grandmontagne-ren “Los inmigrantes prósperos” liburuaren orrialdeetan datozenak. Grandmontagne izan zen joan zen mendearen azkenaldean Jose R. de Uriartekin batean “La Vasconia” aldizkaria sortu zuena eta bere zuzendari izan zena. Aipatutako liburu horretan Buenos Aires-ko euskarari buruzko berriak ere ematen ditu. Baina Ildefonso Gurrutxaga azpeitiarra herbesteraturik hara joan zenerako, berak esan zidanez, ez zen ezer gelditzen euskalki berri bat sor zitekean ustezko “euskara bonarense” hartatik. Gainera, liburu hortan argitaratzen dira gure Iparragirrek Ameriketan zehar izan zituen gora beherak, Anjela Kerexeta bere emazte zenari jasoak.

Antzerako liburuak izango dira hor-hemen eta hoiek fitxatu beharra dugu gure herritarren berriak, gizontasun eta gizonkeriekin batean, Amerika aldean izan zituen jokabideak jasotzeko. “Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos” delako aldizkariak Buenos Airestik holako lan ederrik bildu izan du bere orrialdeetan, baina oraindik gehiago ahalegindu behar litzake.

Urteak dira, nere aldetik, mundu irekiari begira tokian tokiko literaturetatik zerbait ezagutu nahirik irakurketa luzeeri loturik ibili nintzena, eta Domingo Faustiko Sarmiento-ren “Facundo” eskuratu nuenean, Argentinako giroaz zerbait jakin nahiaz, harriturik gelditu nintzen liburu berari erantsirik zetorren “Recuerdos de Provincia” ezagutzeaz. Zenbat eta zenbat berri gure jakingarri! Liburu honetaz zerbait idatzia du aipatu dudan Boletín hortan Justo Garate adiskideak, baina bada oraindik zer jaso eta zer iker. Liburu horretan, “Recuerdos de provincia” delakoan, ematen ditu, esate baterako, Malleatarren berriak, Juan Eujenio Mallea-gandik hasita. Malleatarrak, mediku eta idazle, Argentinaren kulturagintzarako gizon on asko emanak dira, gure egunotako Eduardo Malleara arte behinik behin. Honek beronek ere lan askotan ematen ditu holako berriak; Sarmiento bera ere ahaidekoa bai zen.

Baina emigrazio hoiekin oroitzeaz, euskaldun idazleak ezin ahaztu. Ifar Euskal Herrikoak bertsoz agertu zizkiguten Montevideo-rakoak, esne saltzaileenak eta abar. Baina J.A. Irazustak indianoen ohiturazko eleberri bat idatzi zigun, "Joañixio" izenekoak, eta bere ibileren kontaerak "Bizia garratza da..." izeneko liburuan. Bigarren hau tristea da, gehienetan tristeak diren bezala munduz mundu irten beharra izan duten gizonen bizitza. Orainago Sabin Irizarrek eskaini zigun "Txingo", gertaldi eta ibilkeriak, euskara bizi eta gihartsu batean. Baina haritik landa joan ez gaitezan, bedaiotarragana itzuliko gara.

Hamabi urte datoz Auspoa liburutegiak Joxe Erramun Zubillagaren "Lardasketa" argitaratu zuenetik. Berrogetahamar urte kasik euskaraz mintzatu gabe igaro ondorean hasi zen Zubillaga bere "ibilli-aldiak lardaskatzen" euskara idatzian jartzeko. Lehenbizi, Nafarroa eta Gipuzkoa tarteko Bedaioko mendietan artzai izana, gero Bahía Blanca-n esne-salketan aritu zen zazpi urtez. Handik, aspertu zanean, Buenos Aires-era jo zuen eta beste irabazpiderik ezin aurkituz, hasi zan han ere esneketari. Ondorean, kafe-etxe bat hartu zuen bere kontura eta morroi bat ipini zuen esne-partitzen. Eta hogetahamazazpi urte zituela ezkondu zen Mariana Saldubehere lapurtarrakin. Baina bere irapazpide nagusiena geroago eraiki zuen: Beti Jai izeneko frontoia, edari eta janari tokiekin. Urteen joan-etorrian tratulari zuhurra bihurtu zen, eta Argentinako dirua beheraka ikusi zuenean, balio handiz saldu zuen etxe hori. Hastapen latz haiek egoki garaituaz dirutu zen.

1969. urtean "Euskaldunak Argentina'n" izeneko liburua idatzi zuen, 1972an Buenos Aires-ko Ekin euskal argitaldariak inprimatua. Liburu honetako euskara ez da berdina, neolojismoz beterik dator, euskara bizi eta jatorretik lehen liburua baino urrutiago noski. Honegatik, bere irakurketa nekezagoa eta aspergarriagoa da. Baina agiri jakingarri asko dakartzki.

Beste bi liburu utzi omen ditu argitara gabeak: "Ene sorterrria" eta "Aralar"ko lapurra" izenekoak. Lehenengoan bere sorterriaren adiarazpen zehatz bat ematen omen du eta bigarrenean Aralar mendian gertatu zen lapurketa baten kondaira. Behar bada argitaratu zituen biak bezain onak ez dira izango eta gutiago bigarrenaren euskara motaz badatoz.

Dena dela, hor daude "Lardasketa" eta "Euskaldunak Argentina'n" bi liburuok, euskaldunok munduz mundu zer izan diranen historiagintzarako kronika bezala, eta euskal literaturaren baliagarri.

Por el número correspondiente al mes de abril de la revista Aránzazu he sabido del fallecimiento de José Ramón Zubillaga en Buenos Aires.

Zubillaga nació en el barrio de Bedayo de Tolosa en 1891 y con veinte años emigró a la Argentina. Pasó sus primeros años en Bahía Blanca, dedicándose como otros muchos coterráneos a la venta de la leche. De allí pasó a Buenos Aires, donde pronto puso una cafetería por su cuenta. Se casó con una laburdina. Tuvo visión y perseverancia para los negocios y más tarde levantaría un frontón con bar-restaurante, al que le dió por nombre "Beti Jai".

Escribió en un vascuence popular sus memorias de emigrante, que publicó Auspoa en 1964 bajo el título "Lardasketa", y en 1969 escribió una información general sobre vascos en la Argentina; libro publicado por Ekin de Buenos Aires en 1972 con el título "Euskaldunak Argentina'n". Y ha dejado dos obras inéditas a su fallecimiento.

En su día Ispizua y Lhande escribieron sobre conquistadores y colonizadores vascos en América, y narraciones de vivencias otros autores como Grandmontagne y Sarmiento. Más algunos autores eúskaros, Juan Antonio Irazusta, Sabin Irizar, etc. Todos ellos dignos de consideración para un estudio del comportamiento de los vascos en tierras americanas. Sin olvidar, desde luego, los numerosos trabajos que en vascuence y castellano se han publicado en el Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos.

Las narraciones de José Ramón Zubillaga (q.e.p.d.), no desmerecen junto a los renombrados autores.

1976-V-3.

LOUIS DASSANCE (1888-1976)

Ipar Euskal Herrian instituzio bat zen Louis Dassance jauna, gure mende honen lehen partetik honerat, mugazandiko Euskal Herrian euskara eta euskal kulturaren inguru izan diren mugimenduen eragilerik zintzoenetakoa, ekintza guzietan aurrenengo agertuaz.

Pilotazale bikaina. Frantziako pilota federazioaren sortzaileetako bat zen eta errebote jokoaren legeak jarri zituen. L. Bombín eta R. Bozas-Urrutiaren "El gran libro de la Pelota"-ren lehen tomoan ikus geneza bere lan bat errebotean erabiltzen diren legeri buruzkoa, J. Elissaldekin batean egina. Eta pilotaz ari delarik ere ezin ahaztu bere

barnean zeraman euskaltzaletasuna; lanaren bukaeran hara zer zion: “Euskara ongi da liburuetan... mila aldiz hobego euskaldun plazetan!!!”.

Ogibidez laborari injinerua zen, Paris-ko Institut National Agronomique delakoan estudiatua, eta laborarien eta herritarren intereseri haina atxikia zen euskal kulturari.

Euskaltzale andana batekin “Gure Herria”ren sortzaileetako izan zen 1921ean. Urte berean sortu zuten “Eskualzaleen Biltzarra” eta 1925ean Jean Etchepare medikuaren ordez ezarri zuten buru eta 32 urtez iraun zuen elkargo horren buruzagitzan. Behar bada denbora horretan izan ziren alkargo horren egunik ederrenak, bazkiderik anitz lortuaz, gazte arteko euskal sariketak sortuaz, teatrolariak, bertsolariak eta abar. 1944an “Herria” sortu zenetik bere laguntzailerik kartsuenetako bat izan zen eta bere azken egunak arte kolaboratzen jarraitu zuena. “Gure Almanaka”n ere orrialde ederrik eskaini zizun.

1949an euskaltzain oso izendatua izan zen. Bere sarrera hitzaldia Donostiako Diputazio jauregian egin nahi zen, baina azken orduan debekatua izan zenez, geroago Baionan egin beharra izan zuen. Oraindik ez dakigu zer zen onartzen ez zena, euskaltzaina ala bere “Legion d’Honneur” izatea, zeren orotan bere zerbitzuak zintzo eskaini zituen Dassance jauna Frantsiak ohorez ematen duen titulurik handienan jabe bai zen.

Louis Dassance Lapurdiko Uztaritzen sortu zen 1888ko abuztuaren 20an, eta bere jaioterrian hil da apirilaren 14an.

Euskaltzaindiaren azken batzarrean Pierre Lafitte jaunak eman zizkigun adiskidearen bizitza eta lanen xehetasunak, eta bere hildoari jarraituz eman nezazke berri zehatz jakingarriak.

Gaztaroan, bere lanetatik landa, laket izan zuen bidez eta xendraz oihanetan gaindi ihizan ibiltzea, bazter guzien ezagutza eginez, ohartuz bai hegaztieri, bai landare berezieneri, geroxeago euskaraz eman behar bai zaizkigun hoietaz xehetasun andana bat.

14eko gerran, 28 urte zituen eta bere adinekoekin joan beharra izan zuen gudu bortitzetarat, eta bere egintzematik bi medailarekin itzuli zen berriz ere laborantzari oratzeko.

Uztaritz bere sorterria biziki maite zuen eta bertako historia ondo ezagutzen zuen. Liburuxka bat ere atera zuen Uztaritze zaharraz: “Ustaritz: ses assemblées, sou tribunal”. 1939an herriko auzapez, alkate, izendatu zuten eta hogeitaz urtez iraun zuen kargu horretan, 1959an berak gazteago bati utzi arte.

Euskarazko lanik sakonenak “Gure Herria” aldizkarian eman zituen, hor dira bere hitzaldi andana bat, hor Pierre Topet-Etxahun,

Beñat Mardo, Elizanburu eta Goroztarzu poeteri buruzko lanak, Lapurdi zaharreko berriak, bertso zaharrak, pilotari buruzko azterketak eta hor, baita ere, Darrigol gramatikaliariaren berriak. Hortik aparte, esan dugunez, "Herria" asterokoan eta "Gure Almanaka"n eman zituen anitz idazlan.

Anartean Dassance jauna ari izan zen toki-izen biltzen, dantza-jauzi zaharrak jasoaz ikertzen, eta kantzak biltzen. Izan ere, "Kantu, Kanta, khantore" (Baiona, 1967), P. Lafitte eta biak gertatua bai da. Eta Azkueren "Cancionero Vasco"ren bigarren argitalpenari oharpen baliosak egin zizkion eraskiñean.

Bere euskararen aldeko ekintza, bizian zehar eten gabekoa izan zen 1957an "Ikas" batasuna bultzatu zuen euskara eskoletan sarrarazi nahiz. Eta 1960an "Conseil de Defense du langues et cultures régionales" deritzan Parisko elkargoko buru-orde ezarri zuten. Gainera, hasera haseratik Baionako "Musée Basque" delakoa onartu eta lagundurik, haren adiskideen buru ere egon zen.

Hitz hoiekin bukatu zuen P. Lafitte jaunak bere adiarazpena: "Bainan bera nor zer zen Luis Dassance jauna? "Gizona" zela erraitea aski dela uste dugu, gizonki eraman baitu bere bizi guzia, zuhurtzia handiarekin, beti denen zerbitzuko, denekilakoa eginez, zuzenki bainan arraiki, pazientzia legetzat harturik, Jainkoa lagun: ezen fededuna zen: ez zuen bere fedeaz espanturik egiten, bainan ez zuen izkutatzen: laket zuen elizan ibiltzea eta aitortzen zuen euskal liturgia berriak barna hunkitzen ziola bihotza."

El 14 de abril falleció en su pueblo natal de Ustaritz, a los 88 años de edad, el destacado vascólogo Louis Dassance. Ingeniero agrónomo de profesión, caballero de la Legión de Honor y miembro de número de la Real Academia de la Lengua Vasca.

El señor Dassance fue uno de los fundadores de la entidad "Eskualzaleen Biltzarra" y presidente de la misma durante treinta y dos años. Fue además uno de los fundadores de la revista "Gure Herria" en 1921, y donde vino dando a la luz los trabajos más interesantes de sus investigaciones en torno a la cultura y literatura vasca. Fundador de Ikas para la difusión del vascuence en las escuelas y miembro del Consejo de Defensa de las lenguas y culturas regionales de París. Colaboró intensamente en el semanario "Herria" desde su fundación en 1944. Sin duda, durante cincuenta años ha sido uno de los personajes más

importantes en la propagación de la cultura vasca en el país vasco de Francia.

Además, Dassance era un gran aficionado a la pelota, y dentro de este deporte a la especialidad de rebote. Miembro fundador de la Federación Francesa de Pelota Vasca, le correspondió a él establecer las reglas de la especialidad citada.

Conocedor de la historia y amante del pueblo que le vio nacer, escribió una monografía sobre Ustaritz. Además, fue alcalde de este municipio durante veinte años.

En la última sesión académica, su gran amigo Pierre Lafitte presentó una semblanza de la vida y obra del distinguido miembro que hemos perdido.

1976-V-17.

JON MIRANDE, ORHOITUZ

Jon Mirande zenaren beste liburu bat plazaratu da. Gazterik joan zitzaigun idazle oroigarri honek sigilu berezia utzi zuen euskal literaturan.

Kriselu argitaldaria, bere ekintza ederrean berriki eman digu Jon Miranderen poema guziez hornitutako liburua, "Orhoituz" du izen burutzat, liburuaren bederatzigarren poematik hartua eta galdu genuen poeta paristarrez gogoratu nahirik. Poemok Andolin Eguzkitzak bilduak dira eta bere hitzaurrez aurkezten dizkigu.

Mirande euskal poesia berriaren gurasoetako bat izanik, liburu honen garrantzia agiri agirian dugu. Bere poemak ezagutu gabe ezinezkoa litzaziguke gerraondoko poesia berria behar bezala ezagutzea. Liburu sailik berriena dugun Kriselu argitaldarien hamaseigarren alea da. Kriselu bere bizitza laburrean hainbeste liburu eman dituelarik ere, harritzekoa izan da Eibarren maiatzaren 29 eta 30ean izan den liburu azokan ale bat bera ere ez agertzea. Honelako hutsuneak ulertu ezinak dira, eta ez dio onik egiten gure literaturaren mugimenduari.

Jon Mirandek 47 urte zituen hil zenean, 1972ko abenduaren 28an hila aurkitu zuten. Paris-en bertan sortu zen 1925ean, eta garaiko kezkeri loturik, beste zenbait joeren artean, bere gizaldiko esistentziari buruzko pentsakerak ere ikutua zen eta eragin horrek eraman zuen honako poemagintzara:

*Bihar edo etzi
non naiz neu izango?
(Ai! ez naiz ordongo,*

*negar dagit asko,
gorputz, bihotz-minez,
gauzetako minez.)*

Baina bere poeta nortasuna ez zen esistentziaren aldetikako joera horregatik, baizik, beste zenbait gauzaren artean, bereziki, gerraondoko poeteri mezu berria ekarri zielako. Aspertutako topikoetatik hat eta erromantiko atzeratuetatik hat, esan nahi berriak ekarri zituen, arnasa irekiagoarentzat haize berriak ekarriz.

Gogotik estudiatzeari eman zen, baita beti bakardadeetan ibilia eta buruan sartzen zitzaizkion ideiak aski radikalizatzen zituen. Europako egoeraz nazi-fazista politikaren joeretakoa zela jakitzea aski da, bere kasketaldien berri jakiteko. Bere kaxara jardutze honek ez du esan nahi ideietan eta ekintzetan alde onik ez zuenik, ezta gutiagorik ere. Maiz, holako izakerazkoengandik probetxuzko ideiarik asko urten izan du eta Mirandegandik ere ikaskizunik jaso dugu. Batez ere gerraondoko gizaldia literatura berritzera bultzarazi zuenetatik pertsonajerik berezietako bat zen Jon Mirande.

Emakume zalea zen eta amoriozko poesiari ere libreki emana zen, hemen garai hartan ohi ez zen bezala. Behar bada Etxeparekoaz geroztik euskal literaturan ez zen aditu berea bezalako poesiarik:

*Ez lotsa izan, ene hau, othoi,
bekhatu del'egiten degun hoi.
Nurk daki bekhatia zer dene?
Ez zuk, ez nik!... Zerbait dakit hale
zirela eder badakit doi-doi.*

Honela, lasai agertuko zituen bere usteak inguruko giroan nola hartuko ziren begiratu gabe. Dena dela, zintzotasunik inork ez dio ukatuko.

Era berean agertu zituen bere ideiak "Euskaldungoaren etsaiak" izeneko lan hartan (Ikus, "Gernika" aldizkariaren 23. zenbakia, 85/87 orrialdeak. Buenos Aires-en 1953an argitaratua). Horrek ez zuen bere alderako giroa hobetu. Eta Euskaltzaindiak "bereak eta bost jasan" tituela, ez zen izan A. Eguzkitzak liburuaren hitzaurrean dion bezala, laguntzaile zen baina numeroko izateko ezin zuen maioria bereganatu;

honen arrazoiak argi daude. Eztabaidarik izan bazen ere, maioria bere alde ez zuenez alperrikoa zen bere izena aurrera eraman nahi izatea. Beraz, gauzak hobe da beretik atera gabe uztea.

Euskal poemagintzara ekarri zigunik onena, zera zen, hizkuntza poetikoaren indarra, adiarazpenak agertzeko era berezia, esateko ereri neurriari eta puntuari baino garrantzi gehiago emanez, irudimenari bide irekiagoak ematea. Eta bere irudimen paregabearen bidez ongi agertzen zaiguna da. Holako goxotasun eztsua nabari bait da bere poemetan, hizkuntza erabiltzeko eraz. Har dezagun adibidez Undina-ren lehen bertsoa:

*Itsaso hurrunen harmonietan
Uhinen alhaba jaió zinaden.
Geroztik zabilta zure orhoitzan
uharte gardenak ezin eriden.*

Egia esan, Paris-en sortu bazen ere, gurasoak zuberotarrak zituen, eta zuberotarren artean ohi den bezala, herri kantik ongi ezagutzen zituen. Zeren Miranderen poemetan eta gainerako zenbait lanetan argi asko nabari da herri kanten ezagutza hau.

1970ean, Lur editorialak Miranderen “*Haur besoetakoa*” izeneko eleberri laburra argitaratu zuen eta hura izan zen bere bizitzako euskarazko lehen liburua. Artikuluak, ipuiak, saioak eta itzulpenak pilaka argitaratuak dira euskarazko aldizkarietan: Gernika, Eusko-gogoia, Elgar, Egan, eta Igela izenekoetan bereziki. Orain, A. Eguzkitzari esker, lortu dugu bere olerkien bilduma.

“Orhoituz” liburu honetan bada poesia politik eta oharretatik ikusiko ditugun urteak gogoan edukitzen baditugu oraindik gogozko-ago izango ditugu. Honako hauek politenetakoak noski: Igelak, Akelarre, Jauregi hotzean, Orhoituz, Neskatzak, Paris-beuret, Zakhur hil bati, Nil igitur mors ets... eta Oianone.

OHARRA: Artikulu hau publikatu geroztik Gero argitaldariak argitaratu du *Mirande-ren idazlan hautatuak* deritzan liburua.

Jon Mirande (1925 - 1972), parisino de padres suletinos, fue un gran poeta. A él le deben mucho las nuevas corrientes de la poesía euskara actual, así como la nueva canción vasca. El que conocía nuestro cancionero popular y a la vez las nuevas tendencias de la poesía europea, conjugó ambos estilos y difundió nuevos criterios, revalorizando el lenguaje poético muy por encima de las reglas del metro y de la rima, a pesar de que él realizó casi la totalidad de su obra en métrica bien medida, algunas poesías y sus escritos en prosa son el exponente de su criterio. Sus ideas eran muy particulares y su temática, generalmente muy original, era sincera con todas las consecuencias; cantó su angustia existencial, sus amoríos a veces hasta eróticos y ensalzó los antiguos valores míticos.

Tuvo muchas contradicciones consigo mismo y mucho más con los demás. Fue un hombre que sufrió mucho. Al perder a sus padres vivió sólo y apenado y en diciembre de 1972 le encontraron muerto en su casa.

Escribió bastante, tanto en prosa como en verso, e incluso vertió narraciones y cuentos de varias lenguas al vascuence. Pues es preciso decir que conocía muchas lenguas. Recientemente, A. Eguzquiza ha recopilado su obra poética completa, que se hallaba desperdigada en varias revistas literarias vascas, y ha publicado bajo el título "Orhoituz", que viene a constituir una de las obras decisivas para el conocimiento de la historia del movimiento literario de postguerra.

1976-VI-7.

XALBADOR (I)

Heriotza mingarri batek ikutu gaitu euskaldunen bihotzak. Eta,

*heriotzeak eginarazten
dauka zonbait gogoeta;*

bere omenaldi egunean hil zaigu Xalbador bertsolaria, bertsolari arruntaren mailetatik askoz goragoko dohainez Euskal Herri guzian maitasunez bereganatu zuen gizona. Holako poetarik guti izan du gure herriak, eta nekez sortuko zaigu beste bat. Uste gabeen, oraindik sasoiko,

*behin betikotz isildu zauku
gure errexiñoleta.*

Ber berak bertsolari adiskide baten heriotzaz egin zituenetik hartzen ditugu lerro hauek. Bere izateaz hoberik ezingo genuke asma. Halakoa bai zen Xalbadorren etorria gai sentikor bat mamitzean. Halakoa zen poeta honen biotza. Eta hark lagun maitagarri bati eskainiak orain guk beretzat hartzea legezkoa deritzagu.

Azaroaren zazpian, igandez, Euskal Herri guztitik heldutako jendez bete zen Urepel, Xalbadorren sorterrria. Alde guzietakoak erakutsi nahi zioten bereganako borondatea eta zenbait sari. Bere bigarren liburua ere han aurkezten zen. Ni ere goizean goiz harako abiatu nintzen, baina bidean izan nuen ezbehar bategatik gelditu nintzen bertaraino heldu gabe.

Bihotzeko eritasunez omenaldian bertan eraman zuen herioak, emozioz leher eginik, eguneroko berrietatik irakurleak dakien bezala. Honegatik, ez naiz jardungo gauza bera esaten eta bertsolari adiskididearen artegintzaz eta gizentasunez oroitu nahi dut.

“Herria” eta “Gure Herria” aldizkarietatik ezagutu nituen bere lehen bertsoak, hirurogeia baino lehen. Haietariko bat, “Esperantzarik gabeko amodioa” izenekoa, maiz irakurri ere bai. Egun batean Azkaineraino joan nintzen bera bertsoan entzutearren. 1960tik mugazemendiko txapelketetan hasi zen. Baxenabarreko euskarak ez zion laguntzen gipuzkoar publikoaren aurrean, baina bere bertsogintzaren ederra inork ukatu ezinezkoa zen. Egia esan, ez zen txapelketarako hain yayoa, zeren gaia hain gogokoa ez zuenean bertso oso motelak ere egiten zituen. Beste batzuk betegarri eginak ere hark bezain ederrak egiten zekizkiten, baina berak ez. Berak, gai hunkigarri bat hartzen zuenean bestek baino goragoko mailetatik eramango zuen bere bertsoa. Epai-mahaikoentzat ere ez zen hain gauza erraza txapelketa batean bere balioak neurtzea. Baina baliorik handiena biharamunetik zenbait bertso herrian hedaturik aurkitzea zen. Lehen lehenik mugazandik, bere euskalkitik urbil, baina denborarekin mugak hautsi zituen bere bertsogintza xarmantak.

Bertso horiek bazekarten esaldi eta egitura berririk gure garaiko bertsolaritzara. Hala ere, bere erroa herri kanta zaharretikakoa zuen Xalbadorrek. Bere bertsoak irakurriz laster konturatuko gara Euskal Herriaren kantategiaren jabe zela. “Dohaina eta lana” izeneko bertsoak Otxalde eta Etxahun bertso saioaren oroitza ekarriko digu, adibidez. Baina artegintza berri batekin. Lehengo bertsolarien gisa, zenbait klitxez baliatzeaz badaki, baina sorketa berrieri begira ariko zaigu. Sorketan aurkitzen zuen Xalbadorrek bere gogo. Sorketa ideiak, esaldiak eta bertsoaren egitura guzia eratzeaz. Adibiderik asko aurkituko dugu bere bertsoak irakurtzean, nahiz paperean idatzitakoetarik edo nahiz plazan bat-batean botatakoetatik. Sinbolojiaz ere ederki baliatzen zekien. Hara

1962ko Erregen eguneko saio hartan Donostian agurrez egin zuen hura:

*Egun Erregen eguna da ta
nik ere hartu indarra,
nunbait ni ere Erregen gisa
bidean hasi beharra,
goizean etxetik erten eta
abiatu naiz azkarra,
gero Donostiren par-parean
gelditu zeraut izarra.*

Egun berean, Basarri, Uztapide eta Azpillagarekin batean musean jokatzera zuen gaitzat eta berari zegokion partetik grazia bizkor batean aritu zen. Orixek gogoko zuen Elizanbururen "Festa biharamuna", jokoaren partida hain ederki eramanezko bertsoak zirelako, baina egun hartan Xalbadorrek bat-batean jarri zituenak Elizanburuk paperean idatzi zituenak bezain onak ziren. Basarrikin pareja, beste bien kontra egin beharra zuen, eta hara hemen bere txandako hiru bertsoak soilik:

*Zeinek dezake haueri
partida ekendu,
Uztapidek eskuetan
jokua omen du,
nik gaizki eginak otoi,
Basarri, konpondu,
bainan gezur guziak
utzi ene kondu.*

*Baduela dionak
berdin batere eztu,
jokoan nihor ezpaita
nehoiz aski prestu,
etzazutela ibili
horren bertze jestu,
beldurra iduki gutaz
nola gauden esku.*

*Museko berri badakit
nik ere lehenago,
zonbait partida tabernan
jokaturik nago,*



Xalbador (Sara, 1960).

*Uztapide erregez
beterik badago,
haundia tira zazu ta
txikira hordako.*

Baina bertso apartekoen artean. bat-batekoetan behintzat, 1965eko Urte Berri eguneko txapelketakoak ditugu. Gaia, emazte hil zenaren soñekoari bi bertso botatzea jarri ziotenean:

*Pentsa zazute alargundu bat
ez daike izan urusa,
dolamen hunek, oi!, ez dezala
ainitz gehiago luza,
orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza,
haren arropa hantxet dilindan
penaz ikusten dut hutsa.*

*Geroztik nihaur ere nabila
guzia beltzez jantzirik,
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak besterik;
ez pentsa gero, andre gaxoa,
baden munduan besterik
zure arropa berriz soinean
har dezaken emazterik.*

Baina guzi horiek nonbait ez ziren aski izan Xalbadorren bertsoegin-tza behar bezala ulertzeko. Honelako bertsoak sailean betearren, gipuzkoarrak ez ziren konturatu hoiien edertasunez. 1967ko txapelketan, epai-mahaiak azken saioa Uztapidekin jokatzeko aurrera pasatu zuelako txistu joka hartu zuten bertsolari pare gabea. Txistuak ez ezik bazen han protesta ohiu eta bullarik ere. Baina Xalbador, isilune bat hartu bezain azkar hasi zen agurrezko bertso honekin:

*Anai-arrebak, ez otoi, pentsa
neure gustura nagonik,
poz gehiago izango nuen
albotik beha egonik;
zuek ezpazerate kontentua
errua ez daukat, ez, nik...*

(Une honetan jendea txaloka hasi zen eta ezin jarraituz gelditu zen bertsolaria; gero, honela bukatu zuen bere bertso hau:)

*zuek ezpazerate kontentu
errua ez daukat, ez, nik,
txistuak jo dituzute bainan
maite zaituztet oraindik!*

Egun hartatik gipuzkoarren bihotzak eta begirapenik hoberenak irabazi zituen Xalbadorrek. Orain, Xalbador bezala ezagutzen genuen Fernando Aire gizon maitagarri hura hiltzeaz gipuzkoar jator askok izan dute egun hura beren oroipenean. Geroztik alde hontako herririk gehienetan entzun bait da Baxenabarkoaren abotsa.

Goian bego, fede sendo baten jabe zen Xalbador handia.

La afición al bersolarismo se ha visto conmovida por el fallecimiento de Fernando Aire, "Xalbador", una de las figuras cimeras de todos los tiempos en el género de la poesía popular improvisada: el bersolarismo.

Su extraordinaria calidad de poeta sólo era comparable con el puñado de autores de renombre y los anónimos que engrosaron el rico arsenal del cancionero vasco.

Es este un reconocimiento que el propio pueblo le ha mostrado estos últimos años. Poeta de valía indiscutible y hombre amado por cuantos llegaron a tratarle. Justamente falleció cuando se le tributaba un homenaje popular en su pueblo natal de Urepel.

Además de sus colaboraciones en verso y prosa en las publicaciones "Herria" y "Gure Herria", recorrió los salones y las plazas de todo el país improvisando versos, generalmente de pie forzado. Y, en esta modalidad, cuando el tema tocaba las fibras sensibles de Xalbador, impresionaba al público por su aguda imaginación, la originalidad de las ideas y por la matización en la composición estructural que tan magistralmente llevaba en el conjunto de cada poema. Xalbador conocía bien los esquemas de la poesía tradicional vasca y dentro de sus cánones iba lanzando al viento sus originales poemas. Muchos de éstos fueron recogidos por las buenas manos de A. Zavala y publicados en su colección Auspoa. Xalbador, por sus éxitos, cada vez era más solicitado, y su pérdida ha sido muy sentida.

Este hombre de fe envidiable, que nos ha dejado tan doloridos, ¡ojalá! descanse en paz en el gran homenaje que él esperaba en la eternidad; pues bien merecido lo tenía.

1976-XI-15.

XALBADOR (II)

Odolaren mintzoa, hala du Xalbadorren liburuak izentzat. Bere gogoetazko, bertso hautatuak biltzen bai ditu liburu hontan. Orotarik bada. Baina batez ere, liburuaren bukaeraz jartzen duen azken agurrezko bertsoan ziguna:

*zortaka ixurtzerat hor baitut utzia
herri huni diotan maitasun guzia.*

Behar bada, bigarren titulatzat ongi zetorkion “Xalbadorren testamentua”, Txirritak bera bizi zen artean argitaratu zuen liburu bakarrari jarri zionaren araura. Egilearen sentipen eta pentsamenen bidez, bada hor zernahitarik; ezta bertso liburu soil bat.

Emil Larrereren aintzin solas eder bat du ataritzat. Hitzaurregile honek, “egun oso batez irentsi baidut liburu hau, batean irakurritz eta bestean kantatuz”, dio. Nik ere ezin izan dut eskutik utz liburuaren azkena jo arte.

Larreke aztertzen du liburuaren funtsa. Bi zatitan adiarazten digu egilearen bihotz kezkatia eta hari arantzapetik sortzen zaizkion loreak. Etxea eta familia, lana eta nekea, adiskideak euskara eta herria, Jainkoa eta fedea nola diren Xalbadorren baitan; eta bere artegintzan, gogoetalari indartsua, poeta edo olerkari serioa eta irripar eragilea. Hoiek ziren Xalbador bertsolariaren neurri oparotsuak. Ber berak Mixel Monako zenari jarritako bertsoak oroitarazten digu bere buru-bihotzen neurria eta beragatik esan genezake:

*Penetan da etxea, penetan auzoa,
horiekin batean herri bat osoa;
gizon baten galtzea ez baita goxoa,
guziz, gizona bazen zu bezalakoa.*

Odolaren mintzoa deritzan honek bertsolaritzako liburu guzien markak bete ditu. Bertsolari liburuak, gehienetan, era jakineko irakurle-goia izanen dute, bertsozaleen artekoa; baina Xalbadorren liburuarekin ezta holakorik gertatuko. Hain da aberatsa, bai gaiez eta bai eraz. Herri poesiaren arte aldetik bada zer irakur eta zer ikas. Edozein irakurlentzako aspertu ezinezko liburua da. Gainera, liburuaren haseran, lehen 32 orrialdeak hiz-lauz ditu eta Xalbadorrek honetan ere bere dohainak erakusten dizkigu. Orrialde hauetan bere gaztaroko zaletasunak eta bertsolaritzara adiarazten dizkigu, lagunez ere oroitzuz.

Bertsolaritzaz, lehenago Manuel Lekuonak eskani zigun estudio sakon bat, arte eta teknikaren alderdiak ongi aztertzen dituen, eta historiak ere baditugu A. Zabalak eta S. Onaindiak eginak, baina bertsolariak bere ekinza beren barnetik ikusirik falta zitzaigun eta hau Xalbadorren liburuak betetzen digu; behinik pehin bere ikusmoldetik erakusten diguna.

Xalbadorrek gaztetatik zuen kanturako zaletasuna eta gaztetxo zelarik ohartu zen larradietan zituen artzain lagunegandik euskaldunen kantuz. Beraz, euskal kantategia ezagutuaz jo zuen bertsolaritzara. Bertsolari izateko: "Nehork ez lezake sinets eni segurik zonbat gosta zautan", esango digu. Luzaz entseatuz, bere baitan ari eta ari burutzen joan zen:

*Miatu behar laike ahal bezain barna,
lur hoberenak ere baitu bere lana.*

Bertsolari zaharragoengandik jaso zituen erakutsietan, batek esan omen zion, "hobe zela pota egitea, ezen ez arrazoin txar bat emaita pertsuaren bururatzeagatik."

Bertsolari ofizioa hartzearen nekeaz ere mintzatuko zaigu. Era berean ofizioa hartetik irudimenaren bizkortzeaz. Bazekin bertsolaritzara ez zela bere etxaldearen onurakor, baita ere osasunaren kalterako, baina hogeitaz laburtuko bazuen ere bere bizia, bere bizitik puxka bat gure herri maitearentzat emateaz konformatzen zen. Honegatik, holako gizon bategandik ez zen harritzekoa honako ateraldi hau:

*Nihori nehoiz ezin dut gorde
ene aurpegi iluna,
gorputza latza badaukat ere
bihotza daukat biguna.*

Neurri eta pundueri garrantzi gehiegi ez ote zion ematen, batek galde egin zionean, hara zer erantzun zion: "arrazoinamendu txar bat ongi

rimaturik, pertsuago da, arrazoinamendu on bat gaizki rimaturik baino. Irinik hoberenarekin egin oreka ere ez da ogi, labean axala egin artean". Baina, hori bai, puntu pobreak salatuko ditu, atzizki soilez edo azken silaba hutsez gaizki osatuak. Bertsu idazteaz ere gauza jakingarri-rik adiaraziko digu. Eta liburu hontako gehienak idatziak dira. Poema handi bat osatzen dutenak, gurasoengandik hasi, sortetxeari, herriari, artzaintzako ogibideari, amodioari, laguneri eta abar, hola jarraituko du liburu mardularen orrialdeak zehar.

Bertso biribilak, mami eta azalez ondo hornituak.

Gipuzkoaz ere asko oroitzen da. Euskaldun deserrituak, ez Espainiak eta ez Frantsiak beren estadupeko lurretan hartzerik nahi ez zituztenak bere etxean hartuko zituela esan zuenetik zenbait eragozpen izan zuen mugazemendik, eta Galarretako frontoian bertsoetan jardutzea debekatu ziotelako, bere sentipenak agertzen ditu 267. orrialdetik, baina probintzia honi zion maitasuna argi ta garbi erakusten digu 313. orrialdetik.

Hizkuntzagaratik esaten dituenegatik zer esan? Xalbadorri ere ongi sufriarazi zion gure egoerak, baita ere salatu mintzaira uzten duten anaiak:

*Badakit askoz ere nukela hobea
nehoiz ez agertu ene dolorea;
odolaren mintzoa eduki gordea
nahiko nuke, bainan ezin dut ordea.*

*Hil hobi huntan noizbait norbait balabila,
zure izaitearen herrestoen bila,
lurpetik entzunen du deihadar bipila:
Hemen dago ama bat bere haurrek hila!*

Fede sendo baten jabe zenez, moralaren alderdiak eliz dotrinan edo Bibliako adibidez epaituz baliatzen da. Hontan, bere iritziak, inguru beretik agertzen ditu, eta beti bertsoaren ederra ondo eramanez. Bertso gintzaren tresna nagusia hizkuntza zuenez ez da batere harritzekoa bere hizkuntzaganako maitasun hori:

*Anai-arrebak, entzun ene aho-hotsa:
izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertxetik bere xtean bitarik bakotxa,
izaite horrendako segurra hil hotza.*

Odolaren mintzoa (la voz de la sangre) es el título de la extraordinaria obra de Xalbador; poeta popular de gran talla, que acaba de fallecer. Lleva prólogo del académico Emil Larre y una larga introducción del propio autor, donde describe su mocedad y sus inicios como bersolari, y expone sus conceptos sobre el arte de la poesía. Esta introducción descubre al Xalbador prosista, que sabe expresarse con gran estilo y precisión en la descripción de las ideas.

En esta obra esencialmente poética, Xalbador canta en primer lugar a sus progenitores, a la casa solariega, a la tierra, a los amigos,... para extenderse a campos más amplios. En toda la obra se perfila su inquebrantable fe y el gran amor a la tierra y a sus hombres, y sobre todo a la lengua que constituye su vehículo de expresión. Se aprecia perfectamente que el autor se ha nutrido en las fuentes claras de nuestro cancionero popular. Pero esto no le impide el ser original, además de gran poeta, y desde ahora se puede augurar que muchos de sus poemas han de perdurar engrosados en dicho cancionero. Es además una crónica contemporánea que quedará como un hito más en la historia de nuestra literatura.

Un libro para leer y para cantar con amenidad. Digo para cantar, porque la mayoría de los poemas van acompañados de música.

Sesenta y nueve fotografías ilustran esta obra editada por Auspoa.

1976-XI-29.

ODON DE APRAIZ-en omenez

Gaur bertan, Arabako Diputazioak eta Euskaltzaindiak omenaldi berezi bat eskainiko dio Odón de Apraiz gasteitzar jator eta jakintsuari. Apraiz Buesa anaiak azkarrak izan dira kultur lanetan eta emaitza ederrik utzi digute beren bizitzaren zehar.

Odón de Apraiz Buesa Gasteizen jaio zen 1896. urteko martxoaren 5ean. Historia zientzietan lizentziatu zen eta gai berean Doktoratutza hartu zuen, Salamanca-n eta Madrid-en estudiatu ondoren. "El País Vasco durante la Revolución Francesa" izan zuen tesi lana. Nik dakidanik inon argitara gabea. Bai, ordea, bertako agirien berriak, Gure Herria (1924) aldizkarian argitaratu zituenak.

Euskaltzaindiaren sorreratik bere laguntzaileetarikoa zen, 1919an izendatua, eta 1968an, Akademiaren urre eztaietan euskaltzain ohorezko izendatu zen.

Hamalau urtekin hasi zen euskeraz ikasten, bere kontura, lehen aldiz Abendañon udaran familiakin egiten zituen egotaldietan, hala holako metodoak erabiliaz. Eta bere karrerako lehen urtea aprobatu zuenean, hamazazpi urte inguru zituela, Aramaioara joan zen “euskarak hartzera”, garai hartan Eibartik Hagurahin aldera “erdarak hartzera” joaten ziren bezala. Beraz, Kintanak eta Tobarrek urrengo “Euskaldun berriekin euskaraz” saileak tokia emango diotela uste dut. Ondo irabazia bai dauka.

Ogibidez, Geografia eta Historiako katedratiko izana da. Eibarren Errepublikara garaian Institutoa iriki zenean, bertara etorri zen irakasle. Nik orduan ezagutu nuen, mutiko bat nintzela. Hezikuntzan itzal handia izan zuen eta herrian ondo ikusia zen. Gerrarekin bukatu zen Instituto hura eta geroztik urte askoren buruan ez nuen bere berririk izan. La Laguna, Reus eta Gasteizen irakasle izan zen ondoko urteetan eta bere sortiri honetan jubilatu zen.

Bere lanik gehienak argitaratu gabe zituen eta orain, bere omenaldi egunez, Arabako Foru Diputazioaren Kultur Kontseiluak bilduma eder bat aurkeztuko du. Geroago beste bilduma bat agertuko da batzuk bere oroiz eskainia.

Ezta gauza erraza izango bere lan guziak oro biltzea. J. Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-ren lehen tomoan bada zerbait, baina ez guztia. Inork osatuagoa egitekotan, behar bada Antonio Odriozola izango da gizonik aukerakoena.

Argitaraturik ezagutzen ziren lanak ere oso zakabanaturik zeuden eta gainera, beste asko, izenordezkoekin argitaratuak. Erabili zituen izenordeak, hauek ziren: Olarizu, P. de Araizondo, Argitza eta Olari. Horiez gainera, estranjerian publikatzen zituen lanentzat Ziarpá ere erabiltzen zuen. Bizkaitarra, Arabarra, Euzkadi, Tierra Vasca aldizkarietan euskaraz idatzi zuen, 1913tik 1936ra bitartean. Gazteleraz eta frantsez bezala beste honako hauetan: RIEV, Euskalerrriaren alde, Ateneo, Euskal Eснаlea, Gure Herria, Yakintza, Mediterráneo, Bol. Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País eta besteren batzuetan.

Arabako euskarari buruzko lan asko egin zituen, Revista Internacional de Estudios Vascos-en 1920an hasi eta Ateneo-ko “El idioma en Alava - Toponimia alavesa”tik zehar 1958an Bol. de la Institución “Sancho el Sabio”ren orrialdeetara arte.

Euskaraz idatzi dituenetatik, nik neuk, guti ezagutzen ditut, baina Karmelo Etxegaraireren omenezko liburuan idatzi zuen “Euskal olerkiaren berezikai bat” oso lan ederra dela esan nezake.

Euskaltzaindia sortu berrian, 1920an, Odón de Apraiz Euskaltzaindiaren ardurapean linguistica legeak ikastera atzerrira bialtzea erabaki

zen. Lehenengo, urte horretan, Paris-ko Unibetsitatean egon zen. Urrengo urtean, Schuchardt-ek Ulhembeck-engana bideratu zuen eta honek bere aldetik, Jud gomendatu zion eta Zurich-era bidalia izan zen. Ikasle argi eta bizkorra zen nonbait, 1921eko ekainaren 27ko agirian agertzen denez: “Odón de Apraiz gazte azkar onek dasa, Euskaltzaindiaren berekiko nayaren berri baduela. Udaran Ondarroan izango dala, ta anditxek erantzungo duela.”

Zurich-tik Turín eta Pramollo (Piamonte) aldera jo zuen Paulo Scheuermeier-ekin, Jaun hau parte hortako Atlas Linguistikogintzaren zuzendaria zenez, berakin Linguistica-Geografia praktikak egiteko. Ikaskuntza horiek oso baliozkoak izan zituen eta, ondore bezala, Euskal Herriko zenbait pundutan inkestagan jardun zuen 1924an. Egia esan, ikasketa horiek zer ikusi handia izan zuten Euskaltzaindiak elkar lanean eratu zuen. “Erizkizundi irukoitza”rekin. Ifarraldeko Euskal Herrian 20 tokitan egin zituen euskalki azterketarako inkesta betetzeak, Euskaltzaindiaren aginduz, eta era berean Euskal Herriko mendebaldean Debarruko 12 tokitan.

Lan horietako asko Euskaltzaindiaren “Euskera” aldizkarian argitaratuak daude. Beste batzuk ordea, artxibaturik gordetzen dira. Azken urteotan gai hontaz lanik gehien egiten ari dena Pedro Yrizar adiskidea dugu eta berak aztertu dituen paperetatik ageri denez, honako herri hauetan lan egin zuen: Lapurdiko Ainhoa, Sara Urruña, Donibane Lohizun, Arrangoitze, Uztaritze, Hazparne, Bezkoitze, Urketa eta Bardoze; Baxenabarreko Heleta, Larzabale, Donibane Garazi eta Aldude; eta Debarruko Gatzaga, Eibar, Elgeta, Bergara, Antzuola eta Plaentzian.

1922an, Gernikan, Euskal Ikaskuntzazko Hirugarren Batzarretan “Investigación dialectológica del euskera” zeritzan txosten bat aurkestu zuen (Ikus, III Congreso de Estudios Vascos, liburua 95garren orrialdea). Baina beste lan asko bezala, hau ere argitaratu gabe gelditu zen. Orain, bere lanen bilduma zehatz bat egitea kostako da. Baina, dena dela, ongi hartuko da Arabako Foru Diputaziokoek eskainduko dutena.

Zer penagarria izan den gizon jakitun hoiek gudarekin izan duten burubidea, Kulturaz heldutasunera iritxi ondorean etorkizun guzia etenda ikusi barrez. Oraindik urteak joango zaizkigu gure kulturak izan duen atzerapen handiaz konturatu orduko.

Baina gure ohorezko eskaintzak, gaur zurekin dituzu Odón adiskidea. Eta, jakin zazu, Fenis hegaltzia bezala edo Sisifo-ren gisa besterik ezean, herri gogotsu hau berriz ere zutituko dela, zu bezalako seme kartsuen jabe denez gero.

Hoy, en la ciudad de Vitoria, la Diputación Foral de Alava y la Real Academia de la Lengua Vasca le rendirán homenaje a Don Odón de Apraiz. Intervendrán en el acto, además de los presidentes de ambas corporaciones, don José Miguel de Barandiarán y don Luis Michelena en torno a la lengua y cultura en Alava. Durante el acto se hará la presentación de la obra antológica del homenajeado.

Odón de Apraiz, natural de Vitoria, con licenciatura y doctorado en Ciencias Históricas en Salamanca y Madrid, compartió sus estudios paralelamente y en libre sobre la lengua y cultura vasca. Miembro correspondiente de Euskaltzaindia desde su fundación y miembro de honor desde 1968. Becado por la Academia estudió en la Universidad de París en 1920. En 1921 pasó a la de Zurich, donde daba una clase como docente privado a cuatro profesores. Realizó prácticas de Geografía Lingüística en Turín y Pramollo, con el director del Atlas Lingüístico Suizo-Italiano, Scheuermeier. Como consecuencia de estas orientaciones que él consideraba valiosísimas, contribuyó con encuestas dialectales en 20 puntos del País Vasco de Francia y en otros 12 puntos de la cuenca del Deva en Guipúzcoa, para precisar los límites de los dialectos vizcaíno y guipuzcoano, y que parcialmente fueron publicados en los trabajos de equipo "Erizkizundi irukoitza" en el boletín de la Academia. Sobre el tema, presentó al III Congreso de Estudios Vascos, en 1922, el informe "Investigación dialectológica del euskera", que no fue publicado.

Parte de su obra está dispersa en numerosas publicaciones y otra gran parte permanecía inédita. Entre sus muchos trabajos en castellano y vascuence, además de los estudios lingüísticos destaca la "Geografía General del País Vasco" del Instituto Gallach de Barcelona.

Fue catedrático de Geografía e Historia de los Institutos de Eibar, La Laguna, Reus y Vitoria.

En resumen, un hombre que ha desarrollado una intensa actividad cultural a lo largo de su vida y, por tanto, justo acreedor del homenaje que hoy se le tributa.

A la antología de sus obras próximamente le seguirá una miscelánea de trabajos de diversos autores y diversos temas del país.

1976-XII-27.

VII
OROTARIK
Varios

EKAIN

Ekaingo harpean, Zestuatik hurbil baina Debako lurretan, 1969an arkitu ziren Harri-aroko Madalen-aldiko pinturak. 11.000 urte dituzte pinturok, C^o 14 analisisak erakutsi digunez. Gehienak beltzez eginak, batzuk gorritz eta beste batzuk gorri-beltzez. Banakaren bat hildo hutses eta beste batzuk lehen hildoaz eginak eta gero gainetik pintatuaz. Guztiz: 33 zaldi, 10 bisonta, 4 basaker, 2 hartz, 2 orein ar-emeak, eta izoki 1, eta beste arrain bat.

Ekaingo pintura hauek orain arte munduan ("franko-kantabria" honetako kultura zaharrean aurkitzen bai dira munduko lehen pinturak) ezagutzen direnen arteko bost edo sei hoberenen barnean sartzen dira. Zaldi idurietan Lascaux-ekin batean hoberena. Pintura horien estudioa ikus J.M. Barandiaran eta J. Altuna jaunek egin zuten *La cueva de Ekain y sus figuras rupestres* ("Munibe", XXI, 1969, fasc. 4, 331/386 orrialdeak, 54 fotografia gehigarri dituela).

Abuztu honetan ikustaldi bat egitera hurbildu gara, eta han arkitu ditugu hamalau lagun azternategian lanean jotake, Jesus Altunaren zuzendaritzapean P. Areso sedimentologian eta M. Aizpurua palinologian espezialistak bere laguntzaile dituela eta Arrasate eta Orioko ikasleekin talde eder bat osaturik.

Altuna adiskideak, ohi duen atsegintasunez, lagundu digu larruspeak zehar pinturak ikustera. Aspergaitz zaigu holako arte zahar aberatsa behin eta berriz ikustea. Sinestu ezinezkoa egiten zaigu orain hamaika mila urteko gizonak kanpoan ikusten zituzten ihiza abereak gero barnean buruz, muestrarik gabe, hain ongi nola pintatu zezakeen. Harrigarria benetan.

Gero, harpe atarian, azternategi zola nola ikertzen zuten ikusiaz, laneri buruz mintzatu gara. Aurten laugarren azterketa daramate. Sarreran bakarrik arkitu dituzten gizonaren sutokiak eta badirudi beste azternategirik ez dela izango, gizonaren arraztoak emango dituenik. Sarrerako azternategi hontatik pinturetara doan zeharzuluan hartzen eta beste zenbait animaliren arraztoak aurkitu dituzte, gizona bertan bizi baino lehenagokoak noski.

Sarrerako azternategian, azal-azaleko lehen mailan Menasta garai-ko zeramika apur bat azaldu zen. Bigarren mailan Mesolitos azkenaldiko aztarnak. Azpirago, beste maila bat, Mesolitos hasierakoa, Azilaldia. Orain, metro t'erdira, Goien-paleolitosko Madalen-aldia. Orain arteko mailarik sendoena, eta pinturen garaikoa noski. Sutoki handi bat arkitu dute, eta toki honetan agertu dira gaur arte dituzte materialik gehienak. Tresnen artetik aipagarrienak, irudizko plaketa bat: basaker bat eta orein

bat hildoz dibujaturik; hezurrezko arpoiak, zulakaitzak, raspadoreak eta antiz igeiki txiki (mikrolitos garaiko "laminillas de dorso" deritzen zaien horietakoak), hegal zanpatuak, eta abar.

Giro hotzeko abereen hezurak ere bai: elur-oreinarenak (reno), elur-erbi, ifar-sagu (*microtus oeconomus*), eta abar.

Harpean bertan arkitu dute bioxido-manganeso (*pirolusita*, MnO_2) pinturagintzarako erabili zuten mea are.

Maila guzietako lore-hautsak bildu dituzte, analisatu ondorean garai bakoitzeko zuhaitz eta landarak ezagutzeko, eta hemendik garaietako giroak jakiteko. Hain zuzen, Aizpurua eta Aresok elkar lanean eramango dute estudio hau, bertarako espezialistatuak daudenez gero. Eta guk dakigunez, lehen aldiz egingo da Hego Euskal Herrian holako ikerketa.

Esan beharrik ez dago iker-lanean ari diren guziok "Aranzadi" Zientzia Elkartekoak direla, holako lanetarako elkarte bakarra ez-ekiz probintzian dugunik prestuena dalako.

Aurtengo lanetarako, nonbait, aurreko urteetan baino laguntza gehiago dute, eskerrak Gipuzkoako Diputazioko Junta de Coordinación Cultural delakoari eta Debako Fundación Ostolaza-ri. Honegatik lanean pozago aurkitzen ditugu eta ezta gutxiagorako gure artean holako langintzak inoiz ez bai dira behar bezala laguntzen.

La cueva de Ekain, descubierta en 1969, próxima a Cestona en territorio de Deva, guarda un conjunto de pinturas rupestres de hace 11.000 años según se ha podido comprobar a la luz del análisis sometido al C¹⁴. Pertenece a la época Magdaleniense del Paleolítico superior. El conjunto viene a situarse entre las cinco o seis mejores de las pinturas murales prehistóricas descubiertas en el mundo hasta la fecha, y el gran friso de los caballos sólo es comparable con Lascaux. Su primer estudio lo publicaron J. M. de Barandiarán y Jesús Altuna en "Munibe" tomo XXI, de 1969.

El presente año efectúan la cuarta excavación, bajo la dirección del experto paleontólogo Jesús Altuna, con la valiosa cooperación de los especialistas P. Areso sedimentólogo y M. Aizpurua palinólogo, y un grupo de estudiantes, de Mondragón y Orío en su mayoría. Todos miembros de la S.C.N. Aranzadi.

Han alcanzado los niveles de la época de las pinturas murales. Han descubierto una plaqueta con grabados de ciervos, más arpones de hueso, buriles, raspadores, etc., e innumerables laminillas de dorso. Asimismo

restos óseos de animales de clima frío. También han hallado el yacimiento y lugar de elaboración del bióxido de manganeso con que preparaban las pinturas.

Han recogido muestras de los depósitos de polen en todos los niveles excavados, para el estudio de la flora de cada época, cuyo análisis ayudará a deducir los diversos climas en el transcurso del tiempo.

Durante nuestra visita hemos encontrado al grupo con más animosidad que otros años, debido, sin duda, por los interesantes descubrimientos y por una ayuda económica más sustancial por parte de la Junta de Cooperación Cultural de la Diputación de Guipúzcoa y por la Fundación Ostolaza de Deva, que contribuirá a unos resultados más inmediatos para la investigación de uno de los yacimientos Paleolíticos más importantes de la cultura franco-cantábra.

1974-IX-9.

ASTIGARRIBIA

Maiz gertatzen zaiguna da, gauza baten bila irten eta beste bat aurkitu. Hamar urte baino gehiago dira horrelako bat gertatu zaidala. Astigarribiako elizara joan nintzen, transizioko Kristo baten urratsak jarraituaz, eta perra formadun lehio bitxi harekin tope egin nuen; erromaniko aurretikoa noski.

Leiho hari atera nion argazkia zabaldu nuen Erdi-Aroko arkeologiaz arduratzen diren batzuen artean (M. Lekuona-k *¿Arte visigótico en Gipúzcoa?* izenez Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País. XIX (1963) urteko 3garren kuadernuan argitaratu zuen argazki hura), eta handik hasi zen geroko urtetan Astigarribiak eman dituen zer esanak. Azterketa probetxuzkorik ere egin da eta agiri zaharretan jasoak berriz aipatu dira.

XI eta XIIgarren mendeetako berrietan aipatzen zen Astigarribiako San Andres Apostoluaren eliza. Gaztelako Alfonso VIgarrenak San Millan de la Cogolla-ko Monasteriora eman zuenekoa, Peñalen-go zatiketaren ondorean, 1081ean; eta Baionako apezpiku zen Dom Beñat Astaratzek 1108an eliza konsagratu zuenekoa.

Hormak garbitu eta lurrak jaso zituzten. Ezer askorik bilatu ez bada ere, lehen lehengo elizaren ekialdeko horma zaharra agertu zen eta hilobien artean bat visigotiku antzerakoa.

Lanetan ari ziren M. Lekuona eta L. P. Peña Santiago adiskideei zenbait oharketa egin nizkien; batez ere, kanpokaldeko hormak, kalostrea egiten zutena, XIV.mende inguruan jasotako harresia zela, oiñaz eta ganboar garaiko guduetakoa edo (Deba ibaian, Irarrazabal ganboar eta Sasiola oiñaztar aide-nagusien etxeen bitartean bai dago Astigarribia hauzoa); kalostre honen lurpean ere hilobirik egoan begiratu beharra, eta Bizkai inguruetan, bertatik ez hain urruti diren visigotiku aztarnekin konparatu beharra. Zeren, XI eta XIIgarren medeetan, Astigarribia ez zen Gipuzkoa. Gipuzkoa, Itziardik Donostiara artekoa zen, hiri honi Nafarroako erregeak eman zion foruan dion bezala.

Garai hartako beste zenbait agiritan ere horrela azaltzen da. Ikusten denez, lehenagoko geografia-politiko baten ondoren zen, erromatarrak Karistio izenez ezagutu zuten parte; beraz, ez Vardulia parte.

Kalahorrako apezpikuaren muga lehengo geografia-politiko horri jaramon eginaz jarri zen nonbait. Baina, muga hoiien edierazgarriena, euskalkiak dira. Gaurko Gipuzkoan oraindik, orduko Karistio lurak ziren partean bizkaieraz egiten da. Deba ibaiaren alderdi bietan, goitik behera, Altzolara arte; eta Altzolatik behera ezker partetik bakarrik, Astigarribiara arte. Mutriku kaskoan, Debako herrian eta Mendaroko Garagarzan hasten da gipuzkera, baina hoiek Iruñeko apezpikoarenak ziren, ez Kalahorrakoarenak.

Mende haietan, XI eta XIIgarrenean, Bizkaia, Nafarroa eta Gaztelaniaren artean zenbait burruka izan ziren lur hauek zirela ta. 1179an, Nafarroako eta Gaztelaniako erregeak, bake-bidez, Itziartik Durangora eta hauen tartetik Araba ikutu arte, tarte-mugatzat hartzea erabaki zuten. Esan ohi zen bezala: *inter Bizcariam et Ipuzcuam*. Behar bada ordukoa dugu Markina harana. Karolinjioen *Marka*-tik hartua. Izen honekin ezagutu ditugu historian Soraluze, Eibar eta Elgoibar, eta gaur oraindik irautzen du Bizkaiko Markiñan.

Itsasotik ibaian gora, aitzarte meharraren bestaldean, leku seguruan gordea dago Astigarribia. Portua eta erromes bidea. Nafarroako Santxo IIIgarrenaren denborara arte Santiagorako biderik ibiliena noski. Arabeak hegoalderako botatzeak iriki bai zuen ezagunagoa zaigun erromesen bide jenerala.

Pundu guzi hauek gogoan izanik, iritziak eta ikerketak gehitu beharra dagola iduritzen zaigu. Gure ustez hau adieraziko genuke; egiteko dugarri buruz:

Bat: Kalostrearen lurpea aztertu. Hemen ez dugu asko espero, XIV. mendearen geroztikoa dala iduritzen zaigulako. Baina nork daki bestelako argirik ez ote digun emango?

Bi: Karistioen lur-barrutian beste toki batzuekin batean estudiatu beharra. Astigarribia dagoen lekuak, duen historia ezagaturik, berak eskatzen du soilki ez estudiatzea. Bolibar, Zenarrutza, Zengotitako San Juan, eta Elorrioko Argifietarekin batean behinik-pehin. Pedro Vázquez-en iritziz, Zenarrutzako hilobietako bat visigotikoa bai da. Gainera, Mañariko harpe batean pitxar visigotiku bat ere agertu zen. Eta, han hola bada, Astigarribiakoa zergatik ez?

Hiru: Ditekeana, arabeak Nafarroak utzita, Astigarribia portutzat edukitzea, eta visigotikua ez, baina mozarabe edo bien tarteko zerbait. Leioa nekez jetxi genezake, bere estiloagatik, XI.etik behera. Hau, mozarabe dala dirudi. Gainera, jakina, mozarabe elizak badaude arabeak inoiz heldu ez ziren tokietan. Lurrak menperatzea ez zala nahi-ta-etzkoa, esan nahi dugu.

Lau: Horma zaharra, arkitekturaz, Pirineo aldekoa da taxuraz. Teilatu gailur zutiduna. Eta honek beste gauza bat gogoratzen digu, Aralarko San Migelen bilatu den karolinjio aztarna alde batetik eta Markina harana (karolinjio *Marka*) bestaldetik.

Herriak elkarren arteko kultura har-emanak aski libre egiten zituztelarik, dena da posible. Eta, dena dela, ikerketen jarraipenak argi gehiago emango digu.

Desde hace diez años aproximadamente se viene investigando y tratando de Astigarribia, donde existe la ermita de San Andrés Apóstol, documentada en los siglos XI y XII.

Era conocida en la misma una ventana con arco de herradura, pero con arquivoltas por ambos lados, que por su estilo puede ser mozárabe, aunque tampoco se ajusta con precisión o exactitud a los que conocemos de dicho estilo.

En las investigaciones llevadas a cabo por Manuel Lecuona, Luis Pedro Peña Santiago, Manuel Urcola y José Luis Otegui, al desencalar los muros apareció su pared oriental enteramente prerrománica, y en las excavaciones, de entre los sepulcros descubiertos, había uno con trazas visigóticas.

Como advertí en su día a mis amigos M. Lecuona y L. P. Peña, el doble muro que forma el claustro debe ser fortificación del siglo XIV, de la época de las guerras banderizas.

La incognita de su época arcaica aún sigue en pie. Pero quedan algunas posibilidades de seguir indagando aún más allá. No se puede dar

por agotada la investigación, y a este respecto hacemos algunas sugerencias; que son:

a) Excavación del claustro. Aun a sabiendas de que será muy difícil que pueda aportar datos arqueológicos de períodos anteriores al siglo XIV, sí es conveniente mirar.

b) Realizar estudios comparativos, considerando en conjunto el territorio de los antiguos Caristios, donde se conocen descubrimientos visigóticos en Bolívar (Cenarruza inclusive) y Mañaria, así como las sepulturas de Arguiñeta en Elorrio. Hay reminiscencias de una entidad distinta, que eclesiásticamente ha coincidido con los límites de los dialectos del euskera con el obispado de Calahorra (pues aunque hoy nos extrañe, la cuenca del Deva no entró a formar parte de Guipúzcoa hasta el comienzo del siglo XIII).

c) De posible utilización como puerto franco por los árabes, en su acercamiento a la corona de Navarra.

d) El muro oriental, de aguda cúspide, acusa influencias de la arquitectura nórdica y pirenaica, que nos trae el recuerdo de Roncesvalles. Pero también hemos de considerar los recientes descubrimientos carolingios de San Miguel de Aralar. De raíz carolingia era también el nombre del valle de Marquina (de *Marca*), que comprendía un extenso territorio de las cuencas del Deva y Artibay, *inter Bizcariam et Ipuzcuam*, que coincide con la tierra franca que los reyes de Castilla y Navarra pusieron por medio entre el Señorío de Vizcaya y la provincia de Guipúzcoa (en aquel entonces merindad navarra posiblemente), en 1179, para acabar con los litigios que venían produciéndose desde finales del siglo anterior. En la historia medieval, eran del valle de Marquina, Elgóibar, Eibar y Placencia cuando menos, y hoy sólo perdura su nombre en la villa de Marquina y en Echebarria de Marquina (en vascuence Markin-Etxebarri) en la provincia de Vizcaya, cuenca del Artibay.

Considerar el territorio vizcaíno más próximo en las futuras investigaciones, es necesario. No sólo porque antaño formaran una misma entidad política, sino porque las fronteras de los pueblos jamás se han resistido a las corrientes e intercambios culturales. Y una continuación de investigaciones en este sentido siempre nos puede deparar sorpresas inesperadas.

1972-X-30.

ARRATE

Itsasotik bostehun metrotik gora dagoen muino zabal baten gainean dago Arrate. Tokia bera ikusgarria bada ere, bertatik ikusten diren lurraldeak ez dira gutxiago.

Euskal kanta-zaharretan agertzen denez, aintzinako denboretatik, Arrateko Andra Mariaren ospea oso zabaldua eta entzute handikoa izan da Bizkai-Gipuzkoetan: *Arrateko zelaiko | bai floridadea! | Andixik gora dago | zerura bidea...*

1927an txistulariak beren zaindaritzat izendatu zuten. Behar bada gogoan edukirik XVIIIgarren mendearen lehen parteko grabadu bat badela Arrateko zelaian aurrezku dantza agertzen dena txistu-tanbolinen doinuz. Baina aintzinagotik duen fama, Salbea kantatzeko ohitura izan zuen gauzarik bereziena, herri-kantak dioten bezala:

*Arraten altarea | erramuz jantzirik,
Lirio zuririk eta | lirio gorriarik.
Antxe kantaten dabe | Salbea ederki,
Neu here araxe noa | ikasi al hanegi
Gabean Salbea ta | goizean mezea.
Birjiña Arrateko | zeruko lorea.*

Aita Lizarralderen iritziz, XIIIgarren mendearen azkenalditik gurtzen da Andra Mari hau, baina gaur dugun imajina XIVgarrenaren lehen partekoa da. Eta Arrateko lehen agerien berria 1498koa dugu.

“Auñamendi” argitaldariaren *Diccionario Enciclopédico Vasco-n* (Vol. II, p. 566) nion bezala, bertan jaso ahal izan diren zenbait sinesmen eta ohitura, kristautasunaren aurretikoak dira, mitolojiaren hodeietan galtzen direnak.

Oraingo eliza XVI. mendearen azken partekoa da, baina atearen ezkerreko aldean dagoen urbedinkatu harriak salatzen du lehendik zen eliza gotikoaren itxura. Ekialdeko zolaren hormak ere gotiko egituraz eraikitakoak dira. Bestalde, 1508garrena baino lehenagotik ezagutzen zen Eibarren “Cofradía de Ntra. Sra. de Arrate” izeneko erromes-hospitala. Arraten bertan ere aintzinatik ezagutu zen holako beste hostatu bat.

Neguaeren gogorragatik, eibartarren eskariari erantzunez, Pio IVgarrenak 1573an bidali zuen ageri bategatik aldatu zen Arrateko jai-eguna abenduaren zortzitik irailaren zortzira.

Aurten, ohiturari jarraiki, Arrateko Amaren kapapetik pasatzera doazenak, eliza berrituarekin aurkituko dira. Alperrikako kinkaileriarik

aski kendu dute eta bazterrak garbi eta txukun jarri dira. Birjinaren imajina ere azaleko pitxirik gabe, irudia soilik den bezala jarria. Izan ere, arte aldetik, irudiaren arkaismoa eta arte-herrikoiaren kutsua zituen jantzirik berezienak. Eta orain dagoen bezala hobeto iduritzen zaigu.

Lan hauek Ulazia elgoibartar arkitektu gaztearen zuzendaritzapean eraman dira. Eta bere asmoak betetzen lagunduko bagenio, ikustekorik izango dugu aurki Arrate aldean. Elizaren biran, azpitik saloi handi bat egin nahi du, eta gainetik eliz-aterpea lehendik pentsatua egoan bezala.

Baina azpiko saloi horietan, bileretarako toki batetik aparte, museo bat jartzeko bezalako gela handi bat egin nahi du. Ez da ez asmu txarra Eibarren hain sakabanaturik eta inoiz galzorian ditugun arte lanak biltzeko. Hemen hornituko litzake lehenagoko artikuluan eskatzen nituen museoetariko bat.

Horretarako, Arratek, berez du jendea eramateko era. Tokiaren edertasuna eta XIV. mendeko Andra Mari irudiaz gainera, San Lorenzo gotikoa, Santa Ana errenazimendukoa, San Jose barrokoa, hiru imajina ederrak, eta Zuloagaren pinturak.

Baina Eibarko parrokietan badira baliozko gauzak, imajinetan bakarrik. erromanikotik barrokora arteko estilo guzietakoak, ayuntamientoak ere bai pintura ederrik honetan lagundu nahiko balu, eta hoi ez gainera ederki egongo litzake Eibarko artesianiako material batzuen erakusketa, direla zintzeladuak edo damaskinaduak.

Ez da ideia txarra aurrera eraman ahal bada. Don Pedro Arratekoak lehendik ere erakutsia digu honetarako kemena baduela eta orain ere konfiantza osoa dugu bere gain. Ahal izatea nahi izateari loturik doa, eta honetan herriko semeak dute hitza.

El próximo día 8 se celebrará la fiesta anual de la Arrate. Lugar de peregrinación tradicional, donde se venera la Virgen, representativa del misterio de la Purísima Concepción, que según Lizarralde recibe culto desde la segunda mitad del siglo XIII. La imagen es de primeros del siglo XIV. El primer testimonio histórico se remonta a 1498.

El cancionero popular vasco cuenta con interesantes muestras arcaicas dedicadas a esta Virgen. Las leyendas y creencias en torno a la Andra Mari, como ya apunté en otra ocasión, tienen reminiscencias precristianas, como aquella estrofa conocida de *Aida txuri ta belio...*, por ejemplo.

El actual edificio se remonta a principios del siglo XVII. Pero en su puerta conserva una aguabenditera gótica que con su ábside de estructura gótica testimonian la primitiva iglesia.

El siglo XVI se trasladó la fiesta de la Virgen del 8 de diciembre al 8 de septiembre, por rigores de la estación invernal y previa autorización del Papa Pío IV.

El presente año, los romeros que acudan a pasar por debajo del manto de la Virgen, se encontrarán con una iglesia remozada, libre de materiales que superflamente recargaban el templo, vuelto al estilo rústico primitivo que le pertenecía genuinamente. Creemos que con ello resaltan más la bonita talla de Andra Mari, y asimismo las de San Lorenzo gótico-popular, Santa Ana renacentista y San José barroco; e igualmente los cuatro lienzos de Zuloaga. Todas ellas, imágenes y pinturas, verdaderas obras para piezas de museo.

Pero el joven arquitecto Ulacia, que dirige las obras, parece que quiere ir más allá, y en las dependencias que proyecta abrir en torno a la iglesia montar un museo donde se destinarían tantas obras diseminadas en Eibar, especialmente en las parroquias, más un muestrario de la artesanía eibarresa, del cincelado, incrustado, damasquinado, etc. Material fácil de reunir con un poco de buena voluntad, en donaciones o en depósito. Que además de conservar y poder admirar los valores artísticos de la localidad, ayudaría a fomentar cultura artística en general, sobre todo a los estudiantes de bachiller, que son numerosos en la villa y que hoy se ven obligados a estudiar a través de áridos textos. Aparte, consistiría un atractivo más para el turismo.


El Santuario de Arrate cuenta con un párroco capaz de llevar adelante esta empresa si los eibarreses saben ayudar con un poco de buena voluntad. Confiamos en ello.

1972-IX-4.

URIARTEKO ANDRA MARI, ERDI-AROKO ELIZA

Elgetako elizan gordetzen da Uriarteko Andra Mari, A. Lizarralde-ren ustez, Haurra hain desberdina ez balu, Euskal Herriko Andra Maririk ederrenetakoa litzakeala. A. Anasagastik ere antzerako eritzia eman zuen "Aránzazu" aldizkarian imajina honi buruz idaztean. Hala ere, nik esango nuke, XIVgarren mendearen erdialdeko irudien artean eredugarria dala.

Uriarteko Andra Mari



Irudi honek metro bat doi-doi du alturazko neurritz. Izeritako Birjina horietakoa da eta Haurra ezkerreko belaun gainean aurrekaldera begira du.

Lastima da imajina berritua izatea. Nahiago genuen zen bezala zahar ezagutzea. Jakina, gaur egun ahal da zura zaharra sendatzea, zahartasuneko itxuran gordetzeko; baina, orain zenbait urte, konponketa handiagoak behar ziren gerora begira irauarazteko.

Imajina honek, bere lagun, Santa Anaren irudi polita du, zaharra-go, XIV. mendearen hasierakoa. Zutik dago eta 0,75 m. neurtzen du. Bere izate osoan herriko artistaren baten eskua agerrarazten du. Andra Mariaren lagun aipatzen dugu, irudi biak Uriarteko eliza zaharretik eramanak direlako. Hoziez gainera bazen San Prudentzioren irudi polit bat ere, XVI. mendekoa, orain Elgetako parrokiaren sakristian gordetzen dena.

Irudi horiek, Elgetak dituen arte baliorik zaharrenak ditugu noski. Baina, non zen Uriarteko eliza? Galdera ez da hain harrigarria. Urte gutxiren barnean hara zelan galtzen diren aztarnak. Adineko elgatarrak oroitzen dira non zen, Bergara aldera, Maalako (Magdalena-ko) hospital zaharra eta Torre baino beherago, galtzara zaharraren ondoan, Jaolatza eta Uberara begira dagoen hegian. Laster, oroitzapene-

tik ere galtzeko zorian, Jalotza Erdi-aroko torrea bezala. Bere inguruan gaztañadi eder bat du, zelaitxo batekin.

Eliza zenaren horma zati batzuk oraindik zutik daude. Ojibadun ate bat sarkaldera begira, kapitela handi batekin. Hegoaldean beste ate bat, bestearen antzekoa. Baina, hau harrigarria, kapitelaren adergarri itsas-ontzia agerrera du. Noe-ren itsas-ontzia ote? Dena dela, gauza bitxia da. Gure inguruetan ez dugu holakorik ezagutzen, eta ezin diogu kidekorik aurkitu. Arabako Astulezko elizaren leiho erromanikoak duen kapituletako bat gogoratzen digu, baina Arabakoan bi buru agertzen dira itsas-ontziaren gainetik. Eta, Elgetakoa, bestelako iduririk gabe, naharo luzatzen da atearen bi alderdietatik.

Elizaren ate hauen parte, arkitektura estiloz, XIV. mendearen hasierakoa da. Santa Ana irudiaren garaikoa. Elizak, saeterak ditu atek zaintzeko. Eta, atek, galtzara zaharrari atzea emenda daude. Galtzara aldera oraindik zutik dituen horma zatietan saeterak soilik ageri dira. Argi dago, Erdi-arogan, eliza eta gudarteko gorde-leku izan zela, garai hartako beste eliza asko bezala. Aterpe ta guzi, 17 metro luze eta 8 m. zabal ditu neurriz.

Hain bitxia denez gero, merezi luke berriz jasotzea, bi atek erori baino lehen. Gipuzkoan beste elizak ez dituzten berezitasunak dituelako batez ere.

Gainera, konponduko balitz, aipatu ditugun Andra Mari eta Santa Ana irudiak, non hobeto bertan baino? Gipuzkoan ermita gutxik duten Erdi-aro giroa hartuko luke. Lehendik zuena. Zeren hori bai du bere izatez.

Gainera, kondariak dionari jaramon egiten badiogu, hala behar luke.

Etsetxo baserriko anderak kontatu zidan, Patxi Sagastiguttia bere aita zenari entzuna (15 urte dira hil zena, 91 urtekin), eliza hiri barnera eraman nahi omen zuten, baina Uriarteko Andra Marik gauero materialak lehengo lekura itzultzen zituela. Materialok nork eramaten ote zituenaren zai jarri zutela gizon bat zelatari, eta Ama Birjinak begia galduarazi ziola, esanez:

*Aida txuri ta beilegi;
begira dagan horri
begixa atara begi.*

Eta, era hontara lortu zuela Andra Mariak lehengo lekuan irauntzea.

Kontaera hau oso zabaldua dago Ama Birjinen artean. Daba-arroan bertan Itziar, Arantzazu, Arrate eta Ezoziko Andra Mariak dituzte kondaira berdinak.

Elgetan esaten denez, Uriarteko eliza omen da bertako parrokia zaharra. Baina uste hori agiriekin egiztatu ezin den artean, usteak uste iharraituko du. Behar bada, eliza jasotzerik balitz, merezi luke eliz-barruko lurpean azterketa egitea, ia hilobirik agertzen den. Parrokia zen ala ez jakiteko bide bakarra hori da noski.

Tokiaren ederra, gaztañadi naharoarekin, Elgetarentzat zabalkunderako ederki letorke, herri kaskotik hain hurbil egoteaz, jolas-leku edo etseden-leku bezala.

Urbanizatze berrian kontuan izan ote dute paraje eder hau? Elgetak leku ederrik badu ere, holakorik ez ugari.

En la iglesia parroquial de Elgueta se guardan una imagen de la Virgen con el Niño y otra de Santa Ana, que corresponden a la imaginería del país del siglo XIV.

Las mismas son las obras de arte más antiguas de esta villa. Proceden de la iglesia de Uriarte, y fueron estudiadas por los padres franciscanos Lizarralde y Anasagasti.

La pequeña Iglesia de Uriarte, en ruinas, se sitúa en la ladera que desciende hacia Vergara, dominando el Valle de Ubera, pero al mismo tiempo la colina de la torre medieval de Jaolanza, convertida en caserío, y sin catalogar como tal torre por la Comisión de Monumentos.

Los restos de la iglesia de Uriarte son también medievales. Una puerta ojival a la parte occidental, con amplio capitel y otra puerta similar al mediodía, donde el capitel ornamentado representa un navío. Ambas puertas son defendidas por saeteras. Denuncian el estilo arquitectónico de primeros de siglo XIV. A cuya época corresponde la imagen de Santa Ana. Y la de la Virgen parece un poco posterior.

Las ruinas del templo ubican próximas a la antigua calzada, a cuyo lado, en las partes de pared que aún se conservan, solamente se perciben saeteras. Atestiguan una iglesia que hacía las veces de fortaleza o refugio.

Por las partes que conserva se ve que reúne particularidades originales, y merecería ser reconstruida. Que en tal caso, las aludidas imágenes deberían pasar a su primitivo destino. Con ello, la iglesia de Uriarte recobraría su aire eminentemente medieval, como fue en efecto antes de convertirse en ruina. Y sería de los templos rurales más interesantes y originales de la provincia.

Recogí la clásica leyenda sobre las contradicciones entre la Virgen y los habitantes de la villa en torno al emplazamiento del templo.

El lugar, no lejos del casco de la Villa, con un castaño de los pocos que se conservan, es propio para buscar expansión y recreo.

Ignoro si lo habrán tomado en cuenta en el nuevo plan de urbanismo. Elgueta dispone de bellos lugares, pero éste es de los que desgraciadamente no abundan.

1973-VIII-6.

EUSKAL KIROLAK

Euskal kirolak ez dira inoiz erabili ditudan gaiak, pilota-jokoa edo izan ezik, baina gaur adierazi nahi dudanak ez du ikutzen hau. Haurtzarotik nekarrek bertsolaritzarako zaletasunak behartu ninduen haizkora-joko, harrijasotze, soka-tira eta beste zenbait euskal-joko ezagutzera, hauek, Euskal Herriko plazetan maiz bertsolariekin batean izaten zirelako. Ahari-talkak, oilar-jokoak, idi-demak eta hauek antzera odola ikusi behar zen lekuetarako joerarik ez nuen; hauek ezin izan ditut sufritu. Palankaririk urri zen gure denboretan eta estropadak itsas-hegaletarakoentzat ziren.

Guzti hauek, dotore egindako liburu mardul batean ikusi ditut, liburu bikaina benetan Rafael Agirre Franco-k eskaini digun *Juegos y deportes vascos*. Arestian aipatu ditudan deporte eta jokoez gainera beste asko biltzen ditu liburu honetan. Era bakoitzak toki zabala du, kapituluz jarririk, bakoitzaren bereizkuntzak eta historia adierazi ondorean, beregatik jasotzen diren esaerak eta gertaerak kontatuaz, aspaldi hontako markak ere agertuaz. Euskal bertso eta hizlauzko idazkiak ere asko ditu, aintzinakoak eta orainagokoak, joko hauei buruz eginak eta euskarazko izkribu bakoitzaren ondotik bere erdal itzulpena. Beraz, oraingoan ezingo nuke esan euskal gaiek estudiantzeko euskal literaturarekin baliatu ez direnik. R. Agirre Franco-k probetxu ederra atera du euskarazko literaturatik, eta pozgarria ez-ezik txalogarria deritzat.

Ez pentsa joku guziak indarrezkoak direnik, eta direnak ere, inoiz, indarrag gainera beste dohain batzuk ere eskatzen dituzte, habiltasunaren ahalmena, buru argitasuna, urte askoren buruan hobetuaz eraman diren tekniken ezagutza, eta abar.

Behar bada, egileak aski garbi utzi ez duena, diru-jokoa, trabesak, izan direla gehien bat ere aintzinago denboretarik gaur arte irauneraztearen eusle. Badakigu apostu horiek ez direla guzia, ez da gutxiagorik ere, baina bai joko hauetan garrantzizkoak.

Ez dugu ezan beharrik ere gaurko mundu berrian asko eta askorentzat axolagabeko gauzak direla, baina jakin bezate gainerako deporteak ere ez direla asko gehiago, eta hauek behinik behin gure herriko asaba-zaharregandik datorzkigunak direla eta gainera gure ja-torritzko kulturari loturik daudenak.

Liburu honekin euskal kirolen ageri ederra gelditzen zaigu. Ez dugu esango guzia ahorturik utzi duenik, baina bai bere funtsean dituzten berri askoren xehetasunak. Eta batez ere azken hogetamar urteetakoen berri zehatzak.

Marka kontuan, Eibarko "Agiñazpi"neko Silberio zenaren paperak aurkitu balitu, behar bada marka gehiagoren berri eta izen gehiago eman zezakean. Silberio Mandiolak aspaldiko urteetatik hartu zuen markak boltsiloko blokean jasotzeko ohitura, blok horietako batzuk galduak izan behar dira baina beste asko bere seme Txominen eskuetan daude. Ongi litzake hauek biltzea.

Honegatik, beren garaian entzute handia izan zuten zenbait marka lortuko zituen. Esate baterako, Txomin Zenarruzabeitia pultsulariarena (bere fotografia agertzen da liburuaren 244. orrialdean), berun-totxoaz, 1942an Eibarko zezen-plazan 128.800 kilo jaso zituela.

"Abontza" anaiak ziren Eibarren txinga eramaten azkarrenak, hauetako batek, Patxi Azpitarte "Patxi Abontza"k (honen argazkia ere, liburuaren 459 orrialdean dator), Abadiñon San Blas egun baten, 1935.urte inguruan, egin zuen bere markarik handiena hamabi iltze t'erdia eramatean.

Harrijasotzaileen artean, "Agerre" anaietatik hirugarrenik ez dela aipatzen ohartu gare: Eusebio Lopetegi "Agerre III". Honen fotografia bat B. Estornés Lasaren *Orígenes de los Vascos*-en 3.tomoko 320 eta 321 orrialdeen tarteko irudien planan dator, lehen azaleko azken-aurrekoa. Honenik, nik dakidanik, 1960ko martxoaren 19an, Markiñan, 138 kiloko harri kubikuakin, 14 jaso-aldi 2 minutuan. Eta 1961eko ekainaren 21ean, Elorrión, 163ko oratu-leku gabeko harri-erretangularrakin, 12 jaso-aldi 3 minutuan.

Eta, 1935eko azaroaren 17an Eibarren jokatu zen trabes batean, "Errekartetxo" eta "Ikain"en artean, 125 kiloko harri kubikuakin, "Errekartetxo"k irabazi zuen, 31 jaso-aldikin 10 minutuan.

Hemendik ikus geneza oraindik biltzekorik badala, baina hala ere, gure laudoriorik zintzoenak berakin ditu liburu honek. Inoiz, berak ere

lehenagoko periodistaren bati jasorik, baditu euskal-gaiztozko hitz xebreak ere. Hauetakoa bat da "ciegokalari", "itsukalari" esateko. Behar bada egokiago gure haur jolasetan erabiltzen zen "itsuka" edo "beditsuka". Baina hauk uskeriak dira liburu mardularen barna.

Liburu aberats honek 687 orrialde ditu, bere 21 x 28 zentimetroko neurriak, edergarri ugari dituelarik. Ageri zehatzez hornitua. Ikusten da egileak lan handi eta luzea hartu zuela beregain eta egoki burutzen jakin zuela. "Auñamendi" argitaratzailearen lana ere ez da izan ausardi txikia. Eskertzekoak dira egile eta argitaratzaile, gure ohitura zaharretatik oraindik bete gabe gelditzen zitzaigun hutsunea kitatu digutelako.

Considero importante la obra *Juegos y deportes vascos* de Rafael Aguirre Franco, como obra en sí y porque nos viene a cubrir una gran laguna entre las publicaciones de viejas tradiciones. Voluminoso libro que abarca todos los deportes rurales, o por lo menos los más generalizados del país: Haizkolaris, harrijasotzailes, pelea de carneros, lucha de gallos, segalaris, korrikalaris, palankaris, arrastre de piedra, soka-tira, bolos, toka, regatas y otros juegos. Incluso algunas páginas sobre la mujer y el deporte rural. Queda excluido el de la pelota, que ha sido ya objeto de numerosos estudios.

En capítulos separados, cada una de las especialidades lleva un modo de introducción historiando e intercalando lo legendario y lo anecdótico, para pasar a una descripción detallada de las técnicas, normas y marcas.

Y en esta ocasión, afortunadamente, no puedo decir que el autor no ha sabido valerse de las fuentes de la literatura vasca. Pues ha sabido sacar buen provecho, tanto de la literatura antigua como de la moderna.

En todas estas pruebas, además de la fuerza en sí, entra en juego ingenio, habilidad, destreza, incluso agilidad mental. Es considerable el grado de perfección técnica a que se ha llegado en el transcurso del tiempo en algunas de las especialidades del deporte rural vasco. Por ejemplo, como muestra de ello, quedó patente al aplicar la técnica de tiro de la barra en el lanzamiento de jabalina, cuando los atletas se preparaban para la Olimpiada de Melbourne, en 1956 (ved la página 346 de la obra), y que causó tal alarma en los medios deportivos del mundo que se apresuraron a modificar los reglamentos. Buena muestra en demostración de los métodos técnicos empleados en nuestros deportes rurales.

Uno de los principales móviles que han dado vida a estos juegos, es sin lugar a dudas la apuesta, como ocurre en el juego de la pelota. Las

apuestas están íntimamente ligadas y en parte son las mantenedoras de los juegos rurales.

Con todo, tampoco diremos que la obra es de un contenido exhaustivo dentro de los marcos encuadrados por el autor —cosa imposible de lograr sobre épocas pasadas—, pero sí diremos que es una obra muy seria, trabajada con verdadero rigor, y muy completa en lo que respecta a las últimas décadas

Señalamos algunas omisiones de escasa importancia sobre marcas y nombres y la posibilidad de ampliar datos de los blocks que dejó Silverio Mandiola “Agiñazpi” (q.e.p.d.).

Es digno de encomiar la rica documentación que nos aporta la obra, gracias a la larga y paciente labor del autor. De no haber recogido en una obra de éstas, muchísimos datos se nos habrían perdido irremediabilmente para siempre.

1972-IX-25.

PILOTARIEN HISTORIETAN ARGITZEN EZ DENA

Alde batetik Peña y Goñik eta besterik Blazyk, pilota jokoaren berri asko eman zizkiguten, nahikoa ondo hornitutako kondaireetan, geroztik Bombín-ek eta oraintxu Abril-ek ere berritu digute pilotarien historia.

Beste asko ere jardun dira deporte honi buruz. Behar bada ez goian aipatzen ditudanak bezin zehatz. Baina tartean beste azterketarik ere egina da euskal kulturari buruz jardun direnen artean, eta, dirudianez, hioen berririk ez dute historiagintzan ari direnok. Ez noa hioen lan jakingarriak ukatzera, ez; hori ez da nere egitekoa. Baina adibide batzuk eman nahi nituzke guztien jakingarri.

Pilota jokia, nor hori hartu dion eta nondik nora etorria den bila ibiltzeari alperrikakoa derizkiogu. Ez bait da agiri zehatzik non noiztik edo non zelan jokatu den bereizkuntzak egiteko. Honegatik, argibiderako, historiako berrien gehigarri batzuk eman nahi ditugu.

Adibidez, Rodney Gallop-ek zionez. Euskal-Herrian, pilota jokia, historia aurretik datorkiguna omen dugu. Eta hontaz eman zigun aski argi eta aski agiri. Bestalde, orain ba dakigu pilota noizbait artzainen jokia izan zela, J. M. Barandiaran eta M. Lekuonak eman dizkiguten zenbait agirik argitzen digutenez. Oraindik artzaintzak irauten duen lekuetan aurkituko ditugu zenbait toki-izen: Aralar mendietan “Pelota

soro" eta Oiartzungo Zaldin inguruan "Pillota soro", esate baterako. Era zaharrea hormarik gabe ere jokatzen bai zen. Puntu hauek ondo gogoan izan behar ditugu Abril-en *Dos siglos de pelota vasca* liburuaren 22garren orrialdea irakurtean. Jakina, Abril-en asmoa ez zen lehenagoko historia zaharra egitea, azken bi dendetakoa baizik, eta honegatik dugu liburu hau hain garrantzizkoa.

Azken urte hoietan pilotaren historiak idatzi dituztenak ez dute aipatu Euskal-Herriko lehendabiziko dokumentu idatzia, 1331-koa. Aitortu beharra dago, 1331-ko urte horretan Nafarroako erregeek pilotan jokatzeke tokia egin zutela Iruñean. Fr. Fernando de Mendozak Nafarroako artxiboan aurkitu zuen agiri hau, eta bere berri eman zuen "Euskalerriaren alde" (1916) aldizkarian.

Geroztiko agiri zaharrak ezagunagoak ditugu. Historiagileak jasoak dituzte. Adibidez, Joanes Lange-k Nafarroatik igarotzean (1526) idatzi zuena, hemen apaizei ere pilotan jokatzen uzten ziela esanez; eta Andrea Navajerok, Lapurditik igarotzean (1528), bertako herri guztietan pilotan jokatzen zela eta jokoaren eta frontoien zenbait xehetasun eman zituen; XVIgarren mendearen lehen partean, Nafarroako apezpikua zen P. de Sandoval-ek ere aipatzen zuen pilota jokoa bere *Historia del Emperador Carlos V* izeneko liburuan.

Arkeologia aldetik ba ditugu anitz agiri, ondo ezagunak. L. Colas-en *La Tombe Basque* (1923) liburuan maiz agertzen dira pilota eta pilotarien irudiak hilarri zaharretan. Hauetako batzuk urtearekin daude, eta Gilen Diriarte Garris-koarena dugu zaharrena noski, 1629-an hila zen pilotari hau. Baina, batzuen ustez, Arabako Luzkanoko hilobia, erromatar garaikoa da, baina ez da hain segurua bertako irudia pala eta pilota dirala.

Laster dira berreun urte, 1791 urtean Jovellanos-ek, bere *Diarios* -etan dakarrenez, Bergarako Real Seminario famatu hartan ikasleak beren jolas orduetan pilotan ari zirela agertzen diguna.

Pilotaren historietan holako hutsune asko aurkitzen ditugu oraindik, historia hoiek idazten dituztenak euskal kulturari buruzko azterketak hurbildik jarraitzen ez dituztelako, baina batez ere huts larriagoak dira pilotaren bibliografiak egitean auskerazko literatura kontuan ez izatea. J. Iguaran-en bibliografian ere aurkitzen ditugu hutsune hoiek. Hiribarren, Iztueta eta Zaldubik, bertso ederrik idatzi ziguten pilota jokoiari buruz, baina hoiiez gainera ere ba dira beste asko, XVIIgarren mendearen hasiera bertatik honuntza. Bertatik ikusten dugu, pilotaren historia iturriak oraindik agortzeke daudela. Etxeberri Ziburukoa, Axular, J. A. Mogel, Agirre Asteasukoa eta beste asko ditugu pilotari

buruzko gauzak kontatzen dituztenak. Landuchio eta Pouvreau ere ahaztu ezinak dira beren hiztegieta jasotzen dutenagatik.

Gure literaturak, bere urritasunean ere, materialik aski eskaintzen diote pilotaz idatzi nahi dutenei.

Las últimas historias que se han escrito sobre el juego de la pelota, en cuanto se refieren a las antigüedades de este juego en el país, se hace observar que han seguido a Peña y Goñi y a Blazy sin añadir lo que al respecto han ido descubriendo los investigadores de la cultura vasca. Rodney Gallop, J. M. Barandiarán y M. de Lecuona han aportado pruebas que remontan este juego en nuestro país a épocas prehistóricas. Pero sobre todo, se sigue omitiendo el pago de un frontón para jugar a la pelota que hicieron los reyes de Navarra en Pamplona, en el año 1331, según documento hallado en el Archivo de Navarra por Fr. Fernando de Mendoza y que dio a la luz en "Euskalerrriaren alde", en 1916.

Se citan noticias de los viajeros del siglo XVI, que presenciaron este juego en nuestro país, así como las alusiones a la pelota por el obispo de Pamplona, P. de Sandoval, los testimonios arqueológicos de la obra de Colas y posible figura de pala y pelota en el sarcófago romano de Luzcano (Alava), que ya nos eran conocidas; pero se sigue omitiendo, salvo excepciones, las interesantes noticias que se han dado a través de la literatura en vascuence que, aparte de las descripciones de Hiribarren, Izueta y Zalduby desde los umbrales mismos del siglo XVII, han escrito autores como Etcheberri de Ciboure, Axular, J. A. Moguel, Agirre de Asteasu, etc. Sin olvidar los diccionarios de Landuchio y Pouvreau que recogen los vocablos de la pelota. Y es hora de dar un toque de atención a los que confeccionan las historias para que consideren a esta literatura que desde su humildad les proporcionará materiales inéditos para un conocimiento más profundo de la historia de la pelota.

1972-IV-17.

EUSKAL HERRIKO MENDIZALETASUNAREN HASIERAK

(Zenbait oroitzapen Federazioaren urre-etzaietan.)

Aspalditik mendi-kiroletan ari geranontzat urte gogoangarria zaigu aurtengo hau. Hil honen 18an betetzen da mendizaleen erakunde nagusia, Federazioa, Elgetako plazan zortzearen 50garren urteburua. Hau dala ta, maiatz honen 19an izango dute mendizaleak Elgetan bertan anaitasunezko bilera.

Garai hartan Federazioaren sortzaile izan ziren elkarte edo bazkunetatik, uste dut, gaur egun lau besterik ez direla: C.D. Bilbao, Bilbao Alpino Club, Donostiako C.D. Fortuna eta C.D. Eibar-koa. Gainerakoak suntsitu ziren, baina beste asko sortu dira geroztik, eta gure egonotan karnetez ofizialki kirolagintzan, deportean ari diren etatik, mendizaleen federazioak ditu bazkiderik gehien.

Mendizaleetasunak gauza asko ditu bere alde, Natura garbian ibiltzeaz, haize osasuntsua hartzeaz, bazter zokoak eta gailurrak ezagutzeaz gainera, batez ere, edozein adinetan praktikatu ahal izatearena. Gainera, sasoiko eta ez hain sasoiko daudenak zenbait ekintza berezi ere egin dezakete: ski, eskalada, espeleologia eta abar. Zabalatasun hauek ekarri dute kirolgintza honen ugaritasuna.

Baina, hastapenak kontuan hartuko baditugu, bestelako arrazoiak ere aurkitu genezazke. Industriagintza handiak, hiriak handitzeak, kalez eta etxez gogaiturik Naturaren bila irtetzeak bultzatu zuen gizona kirola hau hautatzera.

Joan zen mendearen azkenaldean hasi ziren mendi ibiltariak kiroltzale bezalako ekintzan, baina Bilboko Club Deportivoak jarri zuen, 1914an, lehen konkursoa, kirola gisa zenbait gailurretara igoerak jarriaz. Era hau herriz-herri zabaldu zen garai hartako zenbait kirol bazkunetara, eta elkartez eta gizonez gehitzeaz pentsatu zuten erakunde nagusiago bat sortzea, denen arteko har-eman eta elkartasunerako, eta orduan sortu zuten Federación Vasco-Navarra de Alpinismo.

Ordurako, esan dugunez, baziren zenbait elkarte, eta hauetako batzuk hasiak ziren ibiltaritzaren soiletik irtenez beste zenbait ekintza bereziri helduaz. Esate baterako, Tolosako papertegietara etorri ziren noruegarrak ekarri zuten ski egiteko ohitura, eta 1906an sortu zen Ski Club Tolosano. Tolosarrok izan ziren geroago Candanchú skiatzeko toki paregabea aurkitu zutenak eta baita ere lehen ostalua toki hartan egin zutenak. Bilbo aldean ordea, eskaladak egiten hasiak ziren Federazioa sortu orduko. Eta sorturtean bertan, Orduñako Pico del Fraile eta Menako Ahorcado aizorrotza igo zituzten. Gainera, laster heldu ziren



Atxarten, P. Lusarretakin.

bizkaitar haiek Naranjo de Bulnes-en gailurrera ere. Eta ez ziren urte asko igaro Alpes mendietako gailurrik altuenak igotzetik. Garai hartan, Sopeña eta Espinosa izan ziren batez ere ekintza horretan gehien saiatu zirenak, eta azken honek Kilimanjaro ere bai.

Ordurako, Donostian eta Eibarren ere hasiak ziren eskaladak egiten, baina garai hartan apenaz ezagutzen zen espezialitate hontako teknikarik. Gerrate ondorean hasi ginenok, Eibar eta Bilbon batez ere, sartu genituen teknika aurreratu xamarak, batez ere Mallafré-ren liburua agertzetik hobetuaz jarraitzean. Gaurko abantailak agirian daude edonongo mendi handi eta zailtara joateko ahal izatean.

Speleologia bera, oso aspaldikoa zaigu gure herrian, mende honen lehen partetik datorkigu, baina beti pertsona soilak beren kaxara edo arkeologoak beren jakintzaren beharrez. 1948an "Aranzadi" Zientzia Elkarte sortzeaz, eta elkarte honen sorreran zer ikusirik aski izan zuten Gipuzkoako mendizaleak, bizkortu zen harpeak ikertzea, elkarte honen speleologi sailari esker.

Baina, Federazioa sortu zenerako, aldizkari baten premian aurkitu ziren gure mendizaleak eta 1926an sortu zuten "Pyrenaica" deitzen dena, eta zenbait gora-behera eta eragozpen ondorean oraindik ere argitaratzen dena. "Pyrenaica" aldizkarian biltzen dira Euskal Herriko mendizaletasunaren ekintzak eta lanak. Mendiak eta mendizaletasunak inguratzen dituen gauzak eta kirol honen historia bera aldizkari hontan aurkitu behar dira. Gainera, aldizkari honek, edo aldizkari honi esker, mendizaletasunak, kirol bezala, goragoko maila bat hartzen du, mendizaleak beren ekintzaren idazle egitera bultzatzen ditu eta mendi ibiliak eta bideak adiaraztetik bestelako zenbait kultura gaira eramaten ditu: zientzia naturalak, etnografiak, toki-izenak, kartografiak eta abar bildu ditu. Beraz, ezta nolana hiko literatura "Pyrenaica" aldizkariak bere inguru, edo bere orrialdeen barna jaso duena.

Goi-maila heldu batean arkitzen zaigu, gaur egun, Euskal Herriko mendizaletasuna, aspaldikako etengabeko ekintzari esker. Maila honen adigarri ditugu azken urte hauetan mundu guzian zehar diren espedizioak, baina batez ere aurten bertan Himalaya-ko Everest-era antolatua, eguraldian eta suerte apur baten laguntzaz gailurreratu ahal izango dutena. "Tximist"eko ezpedizio hau aurrera eramatea ezta txantxetakoa. Ohore hoberik ezinezkoa dugu.

Eta, gaztetxo nintzanetik mendizaletasun honen espezialitate guziak zerbait bete ditudalarik, urteen esperientziak erakutsi didana haintzat harturik, inolazko kontseilurik ematekotan, zera esango nuke, aspalditik datorkigun konkursogintza hori mendizaletasunaren hasieretan dauden neska-mutiko eta gaztetxoentzat uzteko. Nagusiak hortan jarraitzea,



Hiru erregen mahaia edo Mesa de los Tres Reyes, ezkerreko aldean Auñamendi, Lintzolako La Pakiza gailurretik ikusia. (Erronkari. Nafarroa).

haurkeria iduritzen zait, zeren mendiak berak berez ditu beste gauza atsegin asko probetxu hobeak ateratzeko, bai kirolaren aldetik eta bai jakintzaren aldetik. Bada zer ikus eta zer ikas, gizona jantziago jarriko dutenik.

El presente año cumple la Federación Vasco-Navarra de Montañismo su 50 aniversario, y con este motivo se congregarán el día 19 de mayo en la plaza de Elgueta, lugar donde se fundó el 18 de Mayo de 1924.

El excursionismo deportivo por montaña se venía practicando desde finales del siglo pasado, en lo que respecta a nuestro país, y fue el C.D. Bilbao quien inauguró los concursos de montaña en 1914. Modalidad ésta que pronto se difundió por las poblaciones más industriales y comerciales del país, hasta que hizo necesaria una federación de sociedades para regular y coordinar las actividades a desarrollar. Porque para entonces incluso se practicaban algunas especialidades. Por ejemplo, había grupos de esquiadores en Tolosa desde 1906. Tolosanos fueron los que descubrieron las pistas de Candanchú en la década del veinte. También los pioneros de la escalada hicieron sus primeras ascensiones, paralelamente a las fechas de creación de la Federación, impulsado desde Vizcaya, y que siguieron con ascensiones en Picos de Europa, Pirineos, Alpes, etc. La espeleología tuvo sus adeptos, pero no

arrancaron seriamente con las prospecciones espeleológicas con equipos y metodología hasta que se creó la Sociedad de Ciencias Naturales "Aranzadi", en cuya fundación intervinieron decisivamente numerosos montañeros guipuzcoanos.

"Pyrenaica" es el órgano de la Federación desde 1926, donde se recogen los anales del montañismo vasco. Revista trimestral, indispensable para la buena marcha de este deporte y para la formación deportiva y cultural, a la que debería estar suscrito todo aquel que se precie como aficionado al montañismo.

En nuestros días, el montañismo vasco ha alcanzado tal madurez que ya nos ha habituado a los aficionados a seguir las noticias de las expediciones de nuestros montañeros por los diversos continentes. Y el presente año, justamente, nada menos que la expedición "Tximist" a la cumbre más alta del mundo, al Everest. Con un poquitín de suerte, y sobre todo si cuentan con las condiciones atmosféricas favorables, esperamos que triunfen; puesto que los hombres que integran el equipo están suficientemente capacitados para salir airosos en dicha empresa.

En consecuencia, una empresa derivada de la plena madurez alcanzada por este deporte en el país. Pues no es pura casualidad esta cita en la cumbre del cincuentenario y en la más alta de las cumbres, si no fuera por una constante evolutiva.

Por mi larga experiencia de montañero que ha practicado todas las especialidades de este deporte, si algo tendría que aconsejar, diría que los concursos de montaña a la manera de aquellos promotores de hace cincuenta años se deberían de dejar únicamente para infantiles y juveniles, como estímulo de iniciación, pues al margen de esa actividad tan elemental, la montaña tiene suficientes alicientes para las personas adultas.

1974-V-13.

BAROJA, ITURRINO, SOLANA

Hiru artistaren grabaduak ikusteko aukera bikaina eskaintzen digu Donostiako Galería Estudio deritzan gelak. "Aguafuerte"tzat ezagutzen den azidodun urez egindako grabaduak maisu handiak izan dituzte, bai Frantsian eta bai Espainian, baina urri izan dira gure inguru hauetan. Grabadutzako teknika berezi hoiek ez dira landu eta hemen aipatuko ditugunak ere herbestean egin zituzten beren ikaskuntzak. Hamaseiga-

rrren mendeko Itziar eta Madariaga kaligrafoak, hain handiak izanik eta gainera bigarren honek liburu bat ere idatzi zuelarik, ez ziguten utzi geroztiko “aguafuerte”ak hain kideko zuen artegintzaren eskolarik.

Azidodun urez egiten den grabadugintza honek teknika oso bereziak ditu eta garai bateko inprimategietan lanak irudiz hornitzeko era bakarra zen. Artegintza honek, artista izatetik aparte beste jakintza berezi batzuk eskatzen ditu, industria teknikaren aldetik. Eta orain Galería Estudio delakoan agertzen diren hiru artistak, Baroja, Iturrino eta Solana, maisu paregabeak izan ziren materia honetan. Arte langintza honen meritoak hurbildik ezagutzeko aukera ederra dugu hil honen bukaerara arte iraungo duen erakusketa honekin. Gainera, teknika horietan ezer jakin nahi duenak laguntza ona izango du bertako nagusi den Julian Ugarte jaunarekin.

Rikardo Barojak pintore baino ospe handiagoa hartu zuen grabadore bezala, bere iloba Julio Caro Barojak *Los Baroja* liburua 89. orrialdean aitortzen duenez. Eta, neri ere, pinturazko obrak gutietsi gabe, grabadore bezala hobe iduritzen zait.

Rikardo, artearen bidekurutze garaian bizi zen, ez zen iraultzaile hoietakoa eta ez eta ere burges arteari lotua, obra landuen aldekoa zenez badu akademia kutsurik —akademia hitza bere zentzu onean— eta bere oihal lanak begiramendu handiz betetzen zituen eta hala bere grabadu lanak ere. Azidodun urezko lanen teknikak ez zuten sekreturik Barojarentzat eta dibujante ona zenez berebiziko obrak lortu zituen gai honetan.

Erakusketa honetan elkarrekin ditugu Baroja eta Solana, adiskidetasuna bazuten ere, Solana-rentzat ez ziren gogozko izan Rikardok grabadugintzatik irabazi zituen medailak. Gela honetako lanak ikusi ondorean, Solanak gaitan zuen nortasuna ukatu gabe, Barojaren lan fina goitik ageri zaigu.

Franzisko Iturrinoren grabaduak, neretzat uste gabekoak, harrituta utzi naute. Beltzuriak eta urratuak indar berezia ematen bai dioete grabadugintza honetako teknikaren barnean. “Fauve” eskola bere garai barnean erabili zuen artista aurrerazale honek grabadugintzako teknike-tan lortu zuen goi maila erakusten digute. Iturrino berak esana: “Dibujoa ongi benderatzen dutenek bakarrik desdibujatu dezakete nik desdibujatzen dudan bezala”; eta esaera hau bere pinturetatik baino hurbilago aurkitzen dugu bere grabadugintzatik.

Nork ez du ezagutzen Ihauterietako zomorroen egile zen Solana? José Gutiérrez Solana-ren lanetan aurkitzen den zorabiozko maskaren mundua presente aurkituko dugu grabadu hauetan ere. Erakusketan jarrita dauden grabadurik gehienak *La España negra* liburuko iduriak



F. Iturrinoren grabadua.

dira. Gehienok lerro soilez eginak dira. Dibujo aldetik oso ximpleak baina irudi aidetik berak ongi zekien Ihauteri edo antzerako mamuz, mundu txoro baten agergarriz.

Solana-ren mundu harrigarri hau sakonago ezagutu nahi dutenei beste honako adibide hau emango diegu. Igazko udaran Santander-ko Santillana del Mar herritik hurbil, bertara heldu baino lehenago, Queveda-ko torrean Museo Solana ireki zutela, bere lanen muestra bat edukitzeaz gainera bere bizitza eta lanak agertzen dituzte filminen bidez. Merezi du osteratxo bat egitea.

Baina oraingo hontan bai merezi duela Galería Estudio-ra osteratxoa (helbidea: Av. Sancho el Sabio, 17. Donostia). Erakusketa honetan, R. Barojaren gaiak: ohiturak eta paisajeak, herriak eta herritarrak, eskaleak eta buhamiak, eta Ihauteriz ere badu lauki polit bat; Iturrinorenak emakumezkoak zelaietan, biluzikoak, ijitoak eta abar; eta Solana-renetan maskarak eta jendetzat Ihuateri jaietan, emakumezkoak,

gizon ordiak eta abar. Baina arestian agertu dugunez, gaiak eurak baino interesgarriagoak iduritu zaizkigu “aguafuerte” langintza bezala, artegin-tza honetan hirurok maisu zirenez gero.

El día 17 se inauguró en la Galería Estudio de la capital guipuzcoana (Avda. Sancho el Sabio, 17) una exposición del grabado en hueco de tres grandes maestros en la materia: Baroja, Iturrino y Solana, que permanecerá abierta al público hasta el día 30. Merece ser visitada para apreciar a fondo los recursos de las técnicas del aguafuerte.

Para Ricardo Baroja, estas técnicas del grabado al aguafuerte, apenas tenían secretos, y como era un gran dibujante logró obras maravillosas en dicha especialidad. Y aquí veremos juntos a Baroja y Solana, que aunque en vida compartieron su amistad, éste se sintió molesto por las medallas que Ricardo obtuviera como grabador. Una vez más podemos decir que admiramos más los aguafuertes de Baroja frente a su obra pictórica, sin desestimar ésta.

Los grabados de Iturrino han sido una agradable sorpresa para mí. En los contrastes clarososcuros y los rasgados, nos descubre la pericia de las técnicas del grabado del pintor fauvista. Y tal vez encaje mejor que a la obra pictórica a estos grabados aquella sentencia suya: “Sólo quien domine el dibujo puede desdibujar como yo desdibujó”.

Y, ¿quién no conoce al Solana de las figuras grotescas del Carnaval? En esta muestra de grabados al aguafuerte también presenta su obsesionante mundo de máscaras, con sencillos dibujos en línea. La mayoría de los grabados expuestos son de la serie que sirvieron para ilustrar su obra *La España negra*. Dicho sea de paso que, desde el verano pasado funciona un Museo Solana en la Torre de Quevada (Santander), con una muestra permanente y una descripción audiovisual de su vida y de su obra.

Los temas de Baroja son en torno a costumbres y paisajes, pueblos y tipos, mendigos y vagabundos; los de Iturrino están dedicados a mujeres en el campo, desnudos, gitanos, etc., y los de Solana máscaras y gentes en fiestas de carnaval. En resumen, una exposición digna de ser visitada.

1976-II-2.

LAZARO GALDIANO MUSEOAN

Madrid-eko Lázaro Galdiano Museoa 1951an irikia da. Espainiako museo partikularretatik berezietakoa. Barcelona-n bada Marés, handiagoa, baina ez hain berezia.

José Lázaro Galdiano Nafarroako Oliten sortu zen 1862an. Esku hutsik irten zen bere herritik Ameriketara. Lege ikasketak egin zituen eta Buenos Aires-en emakume aberats batekin ezkondu zen. Emaztearen aldetik Buenos Aires inguruetako lurraldeen jabetza zuen eta hauen salketetatik, lehenaz gainera, aberastasun handiagoak pilatu zituen.

Galdiano, jakite nahiaz eta arte gogoz barne kezkatia zuen gizona zen, eta bere zaletasun guziaz arte lanak kolezionatzea izan zuen. Eta alargundurik hil zen Madrid-en 1947an. Bere etxearekin batean, jardín eta guziko jauregi handi bat, bildu zituen arte lan guziaz Espainiako Estaduari utzi zizkion, eta gaur egun, etxe hau, museo paregabea dugu.

Bertan zer dagoen baino zer ez dagoen aipatzea errezagoa litzake. Grezia eta Iberia zaharreko artezko iruditxoetatik hasi eta Goya-ren pinturak arte, Europako arte estilo guzietatik lanik bitxienak biltzen dira. Eskulturak, pinturak, haltzariak, ontziak, joiak,... guzietarik gauzarik fiñenak daude.

Bertako ederrak haina bertan dauden zenbait gauza berezik eraman ninduan Espainiako hiri nagusira azken aldiz joan naizenean.

Sartu ta beste gabe Antxieta azpeitiarraren eskolako irudian aurrez-aurre aurkitu nintzen, sarreran bertan. Hala ere, beheko gelan dauden Limoges-ko esmalteetara eraman nituen nere begiok. Aralar-go San Migelen dugu arte honetako gauzarik baliotsuenetakoa, baina Lázaro Galdiano Museoa dauden bizantino eta erromaniko esmaltedun gauzak, batez ere gurutzak eta lehenago noizbait gurutza ere izan zuten Kristoak, behealdeko zazpigarren eta zortzigarren bitrinetan daudenak, zer ikustekorik badute Bizkaian ezagutzen ditudanekin, eta guk oraindik behar bezala katalogatzeko ditugu.

Gotiko eta Pizkunde garaiko iruditxoak eta joiak pilaka aurkitzen dira bere-alde honetan. Zorabiatzeko haina gauza bada eta zeharka igarotzen naiz, begirada batekin. Eta berean pilatzen dira Greziako, Erromako eta Iberiako iruditxoak.

Bigarren bizitzako geletan, flamendar, aleman eta español pintoreen lanak. Baina ez nolana hikoak. Obra txikiak batez ere. Obra txikiak, baina egile handienak. Bosco, Bruegel, Teniers, Metsys, Gassel, Koffermans, Schaffner, Mundi, eta abar. Beste lan asko egile ezezagunak. Bederatzigarren gelan bada XV. mendearen azkenaldiko Kalbario bat, Frantsiako hegoaldekoa baina zihurrago Nafar eskolakoa. Hamabi-

garren gelan XVIII. mendeko eskola ingleseko pinturak, Espainian hain urri direnak. Bertatik laster, beste gela batean Pizkundeko joia eta marfil landuak. Hoiien artean Benvenuto Cellini-en liburu-kutxatilla bat.

Hamazazpigarren gelan Velázquez-en aurretiko maisuen pintura lanak, Sánchez Coello, Liaño, Pantoja eta Antonio Moro (azken hau holandarra zen izatez). Eibarko udaletxean dagoan Untzueta baten erretratuarekin antz handia dute, eta hoietako edo hoiien eskolatik hurbil ebilenen batena izan behar du. Museo del Prado bertan ere ez dago hoiien eskolakorik hain ugari eta on.

Bestaldeko gelan Van Eyck, Rembrandt, eta barroko garaiko flamendarrak. Ondorean Velázquez, Zurbarán eta beste. Hogetirugarren gelan Grekoren lanak, gaztarokoak eta artista helduarenak. Gatzagako Dorletakoaren antzerako Asis-ko San Frantzisko León Anaiarekin, baina Dorletakoaren laurdena inguru neurritz. Goya-k berak beste gela bat duela jakitea aski da Lázaro Galdiano Museoak duen garrantzia ezagutzeko. Gainera, Goya-ren lanen inguru, XVIII eta XIXgarren mendeko orloju-joia kolezio handi bat.

Museo honetan dena da gusto handiarekin hautatua. Europako artearen ikasketetarako leku aproposa.

Gorengo partean, hogetahamahirugarren gelan, armen kolezioa ere badago. Ez da handia, baina hemen ere gauzarik ederrenak biltzen dira. Arma zuriak eta suzko armak. Eta, usterik gabean, lehen bitrinan, Eibarko bi pistola aurkitu nituen, zein baino zein hobeak. Bata Usatorrek egina, hamazortzigarrenaren bukaerakoa eta hemeretzigarrenaren hasierakoa, buril-lanez ondo hornitua eta kañoia urrezko inkrustatze lanez apaindua. Bestea, Jose Agirrek egina, 1804ko fetxa daroa eta Gabriel de Mendizabal-i eskaintzako letrak. Eibarren dugun Arma Museoan ez dugu garai hortako hain lan politik. Beranduagokoak bai, baina garai hortakoak ez daude hain ongi landuak. Gela bereko bosgarren bitrinan, beste eibartar baten eskopeta dago, 1747tik 1760ra bitartean erregearen armagin izan zen Joakin Zelayak egina, erregearen zerbitzuan egon zen garai hortakoa. Zortzigarren bitrinan, XIX. mendearen hasierako eskopeta bat, M. Zuloaga eta Juan Fco. Gutierrez-n bezala, erregearen armagin izan ziren Blas eta Eusebio Zuloaga aita-seeekin nahasten dute. Gure eritzian, Zuloaga eta Zuloaga gure eskualdean hain ugari direnez, beste norbait dela uste dugu, baldin ez bada Blas-en aita zen Manuel. Baina inondik ere ez erregearen armaginetako bat. James D. Lavin-ek berak ere huts berdina egiten du *A History of Spanish firearms* liburu ederraren 281garren orrialdean.

Berriz itzultzeko gogoz irten ginen museo aspergaitz hontatik.

El Museo Lázaro Galdiano de Madrid es difícil de resumir, por la maravillosa variedad de su contenido, por sus selectas series y la eminencia de las obras que las representan. Notable colección de esmaltes, marfiles, joyas, pinturas, esculturas, tejidos, armas, muebles, etc., de todas las épocas de la cultura europea, desde las culturas grecoromana e ibérica, medievales y renacentistas hasta el período neoclásico y romántico del siglo pasado.

Es una de las colecciones particulares más importantes del mundo. Su creador el navarro José Lázaro Galdiano (1862-1947) la donó a su muerte al Estado Español.

Las muestras de los maestros de la pintura más representativos de las escuelas española, italiana, flamenca, alemana, francesa e inglesa son prueba elocuente de su importancia. La sala dedicada a la pintura inglesa, es una de las más atractivas de este museo, no sólo por la belleza de las obras expuestas, sino por su rareza en colecciones y museos españoles.

Los esmaltes alveolados bizantinos de los siglos X-XI, procedentes de Georgia, son tal vez el tesoro más raro que contiene el museo.

En el vestíbulo nos llamaron la atención las esculturas de la escuela del azpeitiano Anchieta.

En la planta cuarta hay dos salas con un selectísimo conjunto de armas. Como eibarrés y descendiente de varias generaciones de armeros, me fue grato observar entre otras las bellas piezas de Eibar, entre las que destacaban dos pistolas de chispa muy bien labradas con ornamentos al cincel e incrustaciones de oro, que son de comienzos del siglo XIX, debidas a los armeros Usatorre y José Aguirre.

Una escopeta de los también eibarreses M. Zuloaga y Juan Francisco Gutiérrez. A este Zuloaga, en la guía del museo, se le confunde con los Zuloaga, Blas y Eusebio, armeros reales, al igual que en el Museo del Ejército, error que repite el inglés J. D. Lavin en su historia de las armas de fuego en España.

1974-XII-2.

TAVIRA-KO MUSEOA

Hots handi gabe, apal baina txukun ireki zen ekainaren 29an, San Pedro egunez, *Tavira*-ko museoa. Apaltasun berdinarekin egin zioten omenaldía Ignacio Izarzelaiá 78 urteko agure zaharrari. Ez zen alperrik

izan haurzarotik Tabirako San Pedro elizaren sakristau eta zaintzaile arduradun, hilerokotzat erriala zuela.

Gure herrian, inoiz —edo uste baño maizago— holako gauza harrigarriak gertatzen dira. Batzuetan ezer gutxi egiteko hots handiak ateratzen badira ere, gehienetan inondikako hotsik gabe gauza handiak egiten dira. Gauza handien artekotzat jo genezake Durangoko herrian eta herriak egin duena. Durangok, herri bildutzat sortzean Durangaldearen izena hartu zuen, baina *Tavira* zuen toki izena. Erdi aroan herri zena eta gaur hauzo. Beraz, Durangoko historiari zaharrenari itsatsia dago Tabirako San Pedro eliza. Aspalditik aski abandonaturik egoan eliza hau, bere barnean artezko balio ederrak bazituen ere.

Durangar batzuk, eliza erortzeko harriskutik atera nahirik, zerbait egitea pentsatu zuten, eta gipuzkoar bat izan dute eragile azkarra, Bizente Zavala tolosar jesulaguna. Honek, alde guzietara deiak egin zituen eta laguntza ofizialeri begira egon gabe, jo-ta-ke ekin zion herrian bertan diru biltzeari. Bere eskariak, eliza konpondu eta txukuntzeko behar ziren hiru miloi t'erdí pezata lortu ditu.

Lanen zuzendari egin duen arkitektoa Neguriko Alberto López gaztea izan da. Eliza apain jarri da eta bai bertan eta bai bere aldamenean dagoen Errosariko Amaren elizan sakabanaturik eta bazterturik zeuden irudiak, imajinak, gurutzak, atabakak, eta abar, San Pedrorra bildu dituzte eta bertan museo polit bat ireki. Honela, galzorian zeuden materialak salbatu eta nornahik ikus dezakean eran jarri. Lan ederra benetan Durangoko *Tavira* zaharrean egin dena. Herri askorentzat erudugarri izango ahal da?

Gaurko eliza bera, gotikoa da, XV. mendean berritua. Baina bere zimentarriak erromanikoak ditu. Hegoaldeko horman oraindik bi leiho erromaniko gordetzen ditu, lehenago izan zen eliza zaharragoarenak. Ate nagusiaren eskubira ere, kanpokaldetik, urbedeinkaru ontzia erromanikoa du, bere apaindurak salatzen dutenez. Gainerakoak, elizaren sapaiko egitura, ifarraldetik Errosariko Amaren elizara duen atea eta abar, gotikoak ditu.

Baina badu bestelako gauza berezirik ere. Harlanduzko bi hilobi daude. Erdi arokoak. Bata, uste denez, Padurako guduan bizkaitarren buru izan zen Santxo Estigizena izan behar du. Eta elizaren zurezko korua mudejar estilozkoa da.

Gaurko errataula nagusia, esaten denez, Errosarioko Amarena omen zen. Lehenagoko zaharra, gaur eliza honetan txurrikeraren estilokoa dagoen lekukoa. Tabirako San Pedro erretablea negusitzat jarrita dagoena, dena dela, hamaseigarren mendearen bukaera edo hobeto hamazazpigarrenaren hasierakoa. Hastapeneko barrokoa da,

ohol pintatuekin, eta argi dago esku oneko artistaren obra dela. Erretaularen erdian ipinita dagoen San Pedoren irudia lehenagokoa da, gotiko bukaerakoa (XV. mendearen azkenaldekoa), lehenago izan zen erretaula zaharrekoa nonbait, eta erretaula honen zati bat, elizan sartu ta eskubira dugu, erreliebes eta pintatua Elizaren lau Aitak erreprezentatuz.

Hauek ditugu bertako hormetan jarri dituzten Erdi aroko imajinak, gotikoak, noski: XIV. mendeko Andra Mari eder bat, garaiz eta estiloz itxura bereko San Paulo, biok dira zein baino zein politagoak, heuren polikromia zaharra gordetzen dutelarik. Gero, beranduagoko gotikoak ditugu ezkerreko horman dagoen Kristo gurutzatu eder bat, eta beste imajina batzuk. Herriko artisten eskutik irtenak dira San Migeltzat dagoen imajina bat, gotikoa hau ere, eskuan pisuakin, ete beste irudi ez-ezagun bat.

Bigarren Andra Mari bat ere bada, imajina txiki bat, herri artistak egina hau ere eta itxuraz XV.aren bukaerakoa edo XVI.aren hasierakoa. Herriko arte hau ez baita hain erraza estilo edo garai ziurretan klasifikatzea.

Pizkunde garaiko irudiak ere oso politak daude. Alde batean San Anton eta bestean San Markos, aurrealdeko hormetan. Baina korupean dagoen Alto-reliebe bat, lau irudikin, bikainetakoa dugu.

Barroko garaikorik ere bada, XVII. mendetik gerokoak. Denak aipatzerik ez dugu.

Lehendik honera, bi imajinaren hutsunea nabaritu dugu: San Andres eta Santa Katalina (?). Imajina hauek Labayruren *Historia General del Señorío de Vizcaya*-ren VI. tomoan (Bilbon 1969an egin den edizioan), 830 eta 831 orrialdeetan aurkitzen den argazki batean datoz. Gaur egun ez dakigu beren berririk.

Bicente Zavala eta Alberto López jauneri ez-ezik Durangoko herriari zorionak ematekoa da Tabiran egin den lanagatik. Gure herrietan galzorian ditugun arte balioekin zer egin behar den ikasteko eredugarri hartzekoa da Tabirako exenploa. Jakiteko, museo gisa jarri denez, bisita bat merezi du.

El pasado día 29 de junio, con motivo de la festividad de San Pedro, tuvo lugar la apertura al público del pequeño museo montado en San Pedro de Tavira. La iglesia medieval que amenazaba a ruina ha sido restaurada bajo la dirección del joven arquitecto Alberto López. En la Iglesia restaurada se han agrupado, debidamente ordenadas, interesantes

obras de arte. Material que en su mayoría estaba abandonado en la misma iglesia de San Pedro y en la contigua de Ntra. Sra. del Rosario. Dicha reparación y ordenamiento ha venido a costar tres millones y medio de pesetas, que han sido recaudadas por aportación popular, salvo excepción hecha por algún adinerado. Para ello ha habido un hombre amante de la historia local y amor al arte, el jesuita tolosano Padre Vicente Zavala, quien ha trabajado en buscar los medios.

El día de la inauguración se le tributó un merecido homenaje al sacristán don Ignacio Izarcelaya, de 78 años, que ha consagrado toda su vida al cuidado de los dos templos citados.

El actual templo de Tavira es de arquitectura gótica, restaurada en el siglo XV. Pero que se asienta en el mismo lugar donde se emplazaba la iglesia románica. En el muro meridional se conservan una ventana y un óculo románicos. Y tiene una aguabeneditera, con relieves ahusados, incrustada en la entrada principal. En coro de madera, es de estilo mudéjar.

El retablo mayor es de finales del siglo XVI o primeros del XVII, entrando en el barroco, con tablas pintadas de muy buena mano. Preside un San Pedro que no corresponde al mismo retablo. La imagen del santo titular es gótico florido, rozando al plateresco. En una de las paredes se ha expuesto una tabla con altorrelieves, policromada, representando a San Roque (?) y los cuatro Padres de la Iglesia (es de finales del siglo XV, resto de un antiguo retablo a cuyo conjunto corresponde el San Pedro).

En el suelo, a la entrada, dos sarcófagos medievales. Uno de los mismos es la supuesta tumba de Sancho Estiguiz.

En los muros, la imaginería semiabandonada de años atrás. Llamen la atención una Andra Mari y un San Pablo góticos, en madera policromada. Asimismo se distinguen otras piezas góticas, algunas populares, San Blas, San Miguel (?), una no identificada, y un precioso Cristo del gótico tardío. Hay otras dos figuras renacentistas y barrocas. Una Andra Mari diminuta, popular y un grupo escultórico renacentista destacan en la preciosa colección.

Tal como se ha dispuesto servirá, además de su conservación, para una exposición permanente del arte antiguo del lugar. Podrán verlo libremente cuantos deseen y servirá también para las labores docentes. Un ejemplar acierto. Una lección imitable por nuestros pueblos.

1975-VII-7.

EIBARKO GAUZAK

Otsailetik martxora bitartean Eibarko Armeria Eskolako ikasle izanen elkarteak Eibarko gauzen erakusketa eder bat antolatu zuen Donostiako Aurrezki Kutxaren gelan. Hamazortzi artistaren lanak presentatu ziren, eta hoiien artean lehengoak eta oraingoak elkaturik. Muestra harek ondo argi jartzen zuen herriko artegintzeren dohaina, eta zer pentsa eta zer esan asko zabaldu zuen erakusketa eder harek. Grabadoreen omenez antolatu zen erakusketa hartaz zerbait esan nahi genuen, garai berean, baina orain kasura ez datozen zenbait gauzak galerazi zituen gure nahiak. Holako gauza baterako inoiz ez da berandu ordea, eta gaurkoan Eibarko gauzeri buruzko zenbait ohar eta aburu agertu nahi dugu.

Joan zen mendearen bukaeretan indartu zen Eibarren artegintza hau eta mende hontako azken gerrate ingurutik beheraka datorkigu. 1865ean, Isabel II.a bere semeekin Eibarrera etorri zenean, Isasiko jauregia ostatutzat hartuaz, orduko alkate zen Ignazio Ibarzabalek Eibarko gauzen erakusketa antolatu zuen herriko plaza-berrian. Gauzak erakustez batera, lagintza bera ere erakutsi zen, zenbait artista lanean jarriaz. Hauetakoa bat, Felipa Gisasola neskatilla gaztetxoa. Gero, erregiñak Madrid-etik oroigarri urrezko erloju bat bialdu zion zaritzat. Garaiko kroniken argira, ospetsua izan zen erakusketa hura, eta behar bada Eibarko gauzen lehen berria dugu, gauza garrantzitsu bezala.

Artegintza honek bere sustriak armagintza zaharrean zituen. Zintzelezko apaingarriak, urre eta zilar inkrustatzeak eta abar, armen apaingarri, oso aspalditik egiten ziren Eibarren. Armeria Eskolak duen museoan ikus dezazkegu. Eta Isabel II.a baino 74 urte lehenago Jovellanos-ek adiarazten digu hemen ber-berak ikusi zuena, armagintzako apaingarriz.

Edergintza hau armen apaingarri soila izatetik zenbait gauzatarako erabiltzen lehen aleginak egin zituena Eusebio Zuloaga izan zen. Baina batez ere bere seme Plazidoren ohorea dugu. Plazido Zuloagak, bere aitaren eskolak hartu ondorean Paris-en eta Dresde-n jarraitu zituen ikaskuntzak. Lehenagoko urre inkrustatzeak aldatu zituen urrea ipintzeko pikadura kruzatua sartzean. Era honetan artagina libreago moldatzen baizen irudi eta edergarriak edo apaingarriak galtzairuan itsatsirik jartzeko. Baina hortik aparte, pitxarrak, anforak, kutxatillak, platerak, ezpatak, kopak, erlojuak eta abar, era askotako gauzak egitera bultzatu zuen. Honetarako eskola bat ere jarriaz eta merkataritza ere antolatuaz. Artistak ugaritu ziren, eta Eibarko herriak, ekintza honi esker, aberastasuna ezagutu zuen.

Plazido Zuloagak artegintza hau noraino goratu zuen jakiteko hor gelditzen zaizkigu lekuko: Prim jeneralaren hilobia Madrid-eko Atotxa-ko elizan eta kapillatxo bikain bat Loyolako etxean, biak bere ikasleen laguntzaz eginak.

Gure mendearen hasieran ospe handia zuten munduan zehar Eibarko gauzak. Cuba-ren azkatzaile izan zen José Martí-rentzat ere merezimendu handia zuten Eibarko lan hauek eta bere oroitzetan hau idatzi zuen: "No está John Whitter el cuáquero que como los obreros de Eibar, repuja en hierro, blando a su mano, hilos de plata y oro, y con hoja de perla, los matiza y recama", (J. Martí, *Obras completas*, tomo XI, 360 orr.).

Gure hartzaroan lan hauek ezagutu genituenean, denda-osteetan zituzten lantegitxoetan eta etxeetan egiten zen. Maisurik handienak, gehienez, besteen lanak komertzializatzen zituen heurak gogozko lanetarako denbora hartzeko, eta denda bakoitzean nork lan hobeak aurkeztuz ibiltzen ziren. Honek jartzen zuen elkarren arteko konpetentzia eta kezka indartzea gauzak geroago eta hobeagoak sortzeko. Era honetara mantentzen zuten goi-gorenean edergintza hau.

Gaur, urtetik urtera beheraka datorren edergintza honetan Plazido Zuloaga zena bezalako iraultzaile baten premia larria nabari da.

Durante los meses de febrero y marzo hemos tenido la ocasión de presenciar y contemplar una exposición selecta de los "Objetos de Eibar", en la sala de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, en homenaje al grabador, con motivo del veinticinco aniversario de la Asociación de Antiguos Alumnos de la Escuela de Armería de Eibar.

Esta artesanía tan célebre a finales del pasado siglo y primeros del presente tiene sus fuentes originarias en la armería. Diversos museos conservan armas fabricadas en Eibar en el siglo XVIII ornamentadas con bellos cincelados e incrustaciones de oro y plata. Jovellanos, a su paso por Eibar hizo interesantes anotaciones en su *Diario* sobre estas artísticas ornamentaciones.

Eusebio Zuloaga, gran artífice, fue quien inició la aplicación de la decoración de las armas a otros objetos. Y su hijo Plácido (padre del pintor Ignacio) transformó los métodos que él bautizaría con el nombre de "damasquinados" en razón a algunas técnicas observadas en piezas existentes en el museo de Dresde, de donde partió su idea, y al mismo tiempo dio un gran impulso a esta artesanía fabricando bellas ánforas, copas, cofres, platos, jarrones, etc. Sus obras monumentales son el

mausoleo de Prim en la basílica de Atocha, en Madrid, y el altar de una de las capillas del Santuario de Loyola.

Los objetos de Eibar llegaron a alcanzar fama mundial, y fueron ponderados hasta por José Martí. Pero desde las postrimerías de los años treinta de nuestro siglo se nota una decadencia paulatina. Sin duda se necesita otro renovador al estilo de Plácido para revitalizar esta interesante artesanía.

1976-VI-16.

“O A R S O”TIK UNIBERTSITATE DEIA

Gipuzkoako herrien artean, bertako jaietan, ateratzen diren aldizkarietatik bikainenetakoa dugu “Oarso”, Errenderian Maadalen jaietan ateratzen dutena. Boni Otegi adiskideak ba daramazki ia hogeitau urte urtekari honen zuzendari. Idazlan egokiak biltzeaz gainera ahalik eta txukunen argitaratzen ere lanik aski hartzen du. Gainera, azken urte hauetan, “Oarso”, gai monografiko bati lotzen da gehienik eta honetarako idazle hautatueta jotzen daki.

Aurtengo zenbakia, gehienik Unibertsitate gaiari helduta dator. Gure herriari ageri zaion premiarik larriena bait da Unibertsitate kontu hau.

“Oarso”ko lan batzuk, gai honen historiagintzaz datoz eta beste batzuk gaur egungo egoera adiaraziaz edo egoera honen aurrez-aurre iritziak agertuaz.

Aurkezten dituen berrogetiru lanetatik hamasei dira Unibertsitateaz bete betean jarduntzen direnak, batzuk euskaraz eta gehienak erdaraz. Hauek dira lanon egileak: Bittor, S. Aizarna, P. Gutiérrez, X. Lete, Leiz, J.M. Busca Isusi, J. Albistur, A. Pérez de Calleja, M. Agud Querol, A. Arrieta, L. Mitxelena, M. Ugalde, A. Etxebeste, M. Pelay Orozko, J.I. Tellechea Idigoras, J. Rodríguez del Castillo eta S. Oarso.

Batzuk, historiagintzarako agiriak eskaintzen dizkigute. Maiz, Oinatiko Unibertsitatearen oroimen sentikorra dator (1542an sortu zen). Beste batzuk, baita ere, Bergarako Real Seminarioa (1766-1804). Gainerakoan, gehienak, egungo problematikari heltzen diote. Era askotako iritziak ageri dira, baina guzien gain, ez dugu dudarik, gogo ona dabilela esango genuke.

Puri Gutiérrezek argi eta garbi azaltzen digu gure egunotan Euskal Herriko semeak sein sakabanatuak dabiltzan, herbesteko Unibertsitate-

etan, etxeko aukeraren faltaz. Bestalde, idazle batek baino gehiagok agertzen du, gaur, gure herrian, gorenetakoko mailan gaudela Espainian batxilerra estudiatzen dutenen artean. Baina batxilerrean aurrengoetarik izanagatik aski mugatuak gaudela hortik goragoko ikaskuntzetarako, eta hemendik Unibertsitate batek behar nabarmena. Azken aldi hontan gobernuak eman dituen aginduak eta abar, egungo egoeraren aurrean, edo egoera honen egona, ekintzarik eza, salatzen dira.

Garbi ageri da, batzuk, problemaren aurrean jakinaren gainean zorrotz mintzatzen direla; beste batzuen lanak, jakingarriak izanik ere, ez dira hain sakonak eta ez hain zehatzat egungo problemaren aurrean; eta, beste batzuk ordea zirkin eginaz doaz. Gainera, batzuk Gipuzkoako Unibertsitateaz ari diren artean, besteak zuhurrago jokutzen dute Euskal Herrikoaren alde.

Horrez gainera, batzuentzat, fakultate bat edo beste aski da; beste batzuentzat, fakultateak bertako industriagintzen teknikeri aski itsatsiak izan bear dira; baina, badira ere, esaten dutenak, teknikarik aski dugunez bestelako jakintzen beharrea garelara. Zuhurrenak ez dute nahi ezertariko mugaketarik, baizik edozein herriri bere kultur-zientziagintzan dagokion bezala, orotarik behar da. Hau da, ez esku motz eta ez ere anka motz, baizik herri baten kultur giroa osorik gorpuztuko duena.

Baita ere badira herriz herri aldakor ibiliko den Unibertsitatea eskatzen dutenek ere.

Bide batzuetatik ezer ez egiteko erarik onenak markatzen dira, batez ere era berriko Unibertsitate berezi bat asmatu nahi dutenen aldetik. Karolingioak asmatu zuten Unibertsitatea aski heldua dugu European, eta, guk, hemen ere, industriagintzan bezala, asmatua asmatzen jarduntzea baino errazagoa, bidezkoagoa eta hobea dugu besten esperientziekin baliaturik egin. Honela huts egiteko aukera gutiago genuke, eta hainbeste itxaro ondorean ez du merezi huts egiterik.

Ikasiagoena irakurri ondorean, eta zer irakur eta zer ikasirik bada "Oarso"ko zenbaki horretan, Unibertsitate osatu bat behar du Euskal Herriak. Izenagaitik guti axola zaigu, baina Barduluak soilik ez litzake egokiena zeren Bardulo izan ez direnak ere osatzen bai dute gaurko Gipuzkoa, Errenderia bertatik harat Baskonak zirenez eta Deba-arrukoak Karistioak. Baina hau ere ez da kasorako. Gure probintzia guzien beharrezkoa denez, era batean orotasunez har dezagun. Eta, gainera, ez harat honat ibiliko dena, berrikerietan ez gaitez galduta, osatu bat baizik, eta izatekotan ere Fakultateak hiri nagusietan zabalduko dituen.

Hasieran esan dudana bezala, denen lanak dira ezagugarriak, eta aurrerantzean gai hau ikutu nahi duenarentzat baliosko agiriak, baina

egungo problemari zuzenen helduaz eta iritzirik argienak ematen (gaur egungo egoera honetatik irtengo bagara), Manuel Agud Querol eta L. Michelena-renak hautatuko nituzke. Hoietan dago gaiaren muina. Zerk geldiarazi du 1967an sortutako asmoa? Zerk galerazten du biderik premiazkoena ez betetze hori? Gainera, Madrid-go gobernutik asmo onez agindua, nork galerazten du hemen? Gure aministrazioko burokraziaren eragozpenak baldin badira, nork emandako eskubideak dituzte? Zein herri errepresentatzen dute hain ilun jokatzten dutenek? Herri bat ezin da gelditu problema partikularreri begira.

Gainera, problema hau ez da herri baten urtekari batean soilik uztekoa, eta "Oarso"tik egiten den Unibertsitatearen aldeko deia guziok erantzun eta lagundu behar diogu, gure problemarik handienetakoa delako.

"Oarso" es una publicación anual que da a la luz el pueblo renteriano en conmemoración de su patrona Santa Magdalena. Todos los años llega puntual a la cita de las fiestas —en los últimos ocho lustros gracias al esfuerzo personal de Boni Otegui—. Pero, además, guarda la particularidad de agrupar en sus páginas gran parte de las colaboraciones sobre un tema monográfico. Y el presente año ha correspondido al tema, Universidad.

La publicación contiene un rico caudal sobre la tan necesitada como deseada Universidad.

Las aportaciones son muy variadas. Hay quien describe la historia sobre el pasado y el presente del tema en el país, quien suscribe por tal o cual Facultad para Guipúzcoa, o por una Universidad completa, clásica y normal, y no falta quien opine por una itinerante y experimental. Pero al margen de alguna idea peregrina, casi todas las aportaciones son de un contenido sustancioso, para poner fin a un viejo problema. Y tal vez por esto no se opine tanto sobre la ubicación y denominación.

Si al margen de los documentos de valor histórico, de entre las ideas emanadas, tuviéramos que elegir algún trabajo objetivo, sobre la realidad del problema que nos acucia, aún con los riesgos que ello supone, nos quedaríamos con media docena de aportaciones de entre las dieciseis sobre el tema, y aún de entre las mismas rebajaría a dos, inclinándome preferentemente a las manifestaciones de Manuel Agud Querol y Luis

Michelena, que tan bien han sabido centrar los problemas y necesidades, expresándose con entera claridad.

Del rico contenido de "Oarso", ¡Ojalá! germine algo efectivo.

1975-VIII-4.

MITXELENAREN IRAKASKINTZAK

Aditzea dugunez, laster joango omen zaigu zenbait denborarako (urte bete edo gehiago) Ifar-Ameriketara Luis Mitxelena linguista ospetsua, gure hizkuntzaren ikerketan inoiz ezagutu den jakitunik handiena. Guregandik aldentzen bada ere, badakigu, gogoz eta pentsamenez ez-ezik hizkuntzaren azter lanean jarraituko duela, baina non etxeko lanetarako etxean baino hobeto?

Gure herriak gizon honen nortasunaren berri baleki, ez dugu dudarik, hemen gelditzeko eskaria egingo luke, honetarako behar lirakean erremedioak aurkiturik. Baina kultura gaiak oraindik ez du edozein deportek hainako begiramenik.

1915ean Errenderian sortua eta 1959an doktoradutza egina, azken urteetan Salamanca-ko Unibertsitatean irakasle dugu.

L. Mitxelena nor den eta bere lana zer den adiarazteko bada ni baino yayoagorik eta euskal gaitan hain prestua den Piarres Lafitte jaunaren esaneri hildoz hildo jarraituko diot, laburpenik idorrenean. Luis Mitxelena Elissalten lanari buruz, P. Lafittek Baionako "Bulletin du Musée Basque" delako aldizkarian idatzi zuen aski luze, eta lan bera R.S.V. de los Amigos del País-en aldizkarian gaztelerara itzulia agertu zen (Bol. R.S.V.A.P., XXI, 1965, 315/339 orr.).

Hizkuntzalari arloan Mitxelenaren doktrina zer den adiarazi zigun, linguistikaren oinarriak eta metodoak zertan diren, ikerketarako erregela, lanbide, kritika nola, eta abar, 1963an Mitxelena berak argitaratu zuen *Lenguas y protolenguas* lanean agertzen duenaren araberez.

Maisu handi honen dokumentazio lanak zer diren, N. Landuchio-ren hiztegia (1958), hor-hemenka sakabanaturik eginak dituen estudio lan asko, batez ere testu zaharrerri buruz, gero hauetako gehienak *Textos arcaicos vascos* (1964) liburuan laburpenez bilduaz, Akitaniako hilarrietatik hasi eta XVII. mendera arteko euskara idatziaren agiriak jasoaz.

Saiaera nagusien artean biltzen ditu: *Apellidos vascos* (1955), euskal deiturak ez-ezik, deituren iturri diren leku-izenen etimoloziaz edo esan-nahia orain arte egin den estudiorik funtsezkoena dugu; baina bere ondoan ditu *Las antiguas consonantes vascas* ("La laguna", 1958), eta *A propos de l'accent basque* ("Bulletin de la Société de Linguistique", 1958) lan bikainak.

Sintesis handien arteko ditu: *Historia de la literatura vasca* (1960), ez da historia soil bat, baizik aburu zorrotzez egindako saiaera. *Sobre el pasado de la lengua vasca* (1964) liburuan, euskalkiak (dialektoak) eta beren arteko diferentzien adiarazpenak, euskararen historia eta lehena, latin eta erromantzeen kutsuak, latina baino lehenagoko indoeuropearrendrikakoa, euskararen ahaidetasunezko hizkuntzak ere tratatzen ditu. *Fonética histórica vasca* (1961), orainarte gai hontaz egindako lan guzietan eta euskal idazle zaharren testuekin baliatuz egina, gure hizkuntzaren fonetikazko legeak zehatz estudiatzen ditu, tokiz eta mendez, bukaeran exenplutzat erabiltzen dituen hitzen zerrenda luze bat jarriaz.

Geroztik, *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* (1970) lana argitaratu du, euskararen hiztegirik osatuenaren iturriak aztertzen dituen. Lehenago ere, *Azkue Lexicógrafo* izenez hitzaldi ezagugarri bat emana zuen, J. Caro Baroja eta A. Tovar jaunekin batean 1966an omenezko liburutzat argitaratua.

Lanok erdaraz daude, baina Lafittek ongi zion bezala, euskaraz idazten ere luma dotorea du Mitxelenak. Eta estudio hoiengandik ez du apartatu bere garaikoengandik; egia esan, gizon eta jakitun bezala egun-egungoa dugu.

Izan zitekeen onduen egiztatu zigun hau Patxi Altunak, euskal idazle bezala Mitxelenak duen balioa agerrarazteko, aldirietan sakabanaturik zituen lanetatik bilduma hautatu bat argitaratuaz, *Mitxelenaren idazlan hautatuak* (1972). Bestalde, urte berean, J.A. Letamendiak bildurik, gure maisu honen *Zenbait Hitzaldi* argitaratu zuen, linguistika gaiez.

Hizkuntza erabiltzeko erak oso aberatsak baditu ere, gaien ugaritasuna eta gaurkotasuna ez dira gutiagorako. *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, bederatzi sail hauetan zatitzen da: Orri azpiko oharrez hornituriko idazlanak (hemen orripeetan P. Altunaren analisi-oharrez, maisuaren idazkera hobeto ezagutzeko) Txostenak, Elkar hizketak, Gure klasikoak, Saioak, Hil ondokoak, Hitzaurreak, Filmak eta Liburuen iritziak.

Hainbeste eta hainbeste idazlanetan argi eta garbi utzi dizkigu bere pentsaerak, gure herriaz eta gure hizkuntzaz.

Atzerrietan linguistikaz espezializatuak diren aldizkari askotan ere idatzi du. Euskarazko aldizkaririk gehienak argitaratu dituzte bere artikulua, baina batez ere "Egan"en, bertako zuzendarietakoa denez gero.

Begiarmenek, *Sei idazle plazara*-n, euskalkiak nola batu ikutzen duenean, goresmen ederrik egiten dio gure hizkuntzalari jakitunari, euskara idatziaren batasunez markatu dizkigun bide egokien goresmenez. Begiarmenen liburuak bere hutsak izango ditu, noski, baina puntu honetan arrazoï galanta du. Egia esan, Mitxelena bezalako baten gidaritza gabe Brueghel-en "Itsuen parabola"ren zorian erori gindezke.

Gogoz gurekin dugunarren, ez da aski. Bere ahalmena ezaguturik, gure herrian ikerlanean edo bertakoen irakaskintzan behar luke izan. Baina, zoritxarrez, oraindik urrutiago joan beharra izango ote du? Nabarmena da gure herrian gauzak ondo ez dabiltzala, bestela guztiok jabetuko ginen maisu honen etxera beharraz.

Según noticias, probablemente se nos ausentará a tierras americanas, por un año o más, el eminente lingüista Luis Michelena. De entre los hijos de la propia tierra, sin duda el lingüista más sabio de todos los tiempos.

Otro renombrado vascólogo, Pierre Lafitte, destacó su personalidad en el campo de las ciencias, en el magisterio por su obra *Lenguas y protolenguas*, editada por la Universidad de Salamanca en 1963, donde actualmente es catedrático; en la erudición documental por sus muchos trabajos sobre el antiguo vascuence escrito, condensados en la obra *Textos arcaicos vascos*; por sus ensayos, *Apellidos vascos*; y por sus grandes síntesis que se basan en las obras *Historia de la literatura vasca*, *Sobre el pasado de la lengua vasca* y *Fonética histórica vasca*. Frutos de sus grandes conocimientos y largas investigaciones, como nos mostró en amplio artículo en el Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, año XXI, cuadernos 3 y 4 de 1965.

"Su pluma —nos diría Lafitte— es elegante en expresión vasca... Casado, padre de familia, hombre de sociedad, amigo de las letras contemporáneas, su ciencia no le ha separado de los vivientes, y sería un error ver en él a un Hermágoras perdido entre los íberos y los aquitanos prehistóricos. Es ciertamente, como hombre y como erudito, la misma actualidad".

Así nos atestigua la antología selecta de sus escritos en vascuence preparada por Altuna, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*.

Bien ha cumplido Michelena con aquella recomendación que Alfonso XIII hizo a los vascos en el Congreso de Oñate, en 1918, al manifestar por el rey: "Consagraos al estudio, fomento de todo cuanto pueda contribuir al adelanto y progreso del país, cultivad vuestra lengua milenaria y venerable, joya preciadísima del tesoro de la humanidad, que recibisteis de vuestros padres y que debéis legar incólume a vuestros hijos."

Solamente la simple suposición de ausencia del más eminente de los lingüistas, que además de conocer bastantes lenguas antiguas y modernas conoce también, y muy a fondo, las variedades de los dialectos eúskaros, con gran evidencia pone de manifiesto el que no marchen bien los asuntos culturales de nuestro pueblo. Sin él, hoy, las investigaciones lingüísticas y orientaciones literarias avanzarían como "La parábola de los ciegos" de Brueghel.

1975-V-12.

BOZAS-URRUTIA ATENEO-an

Gaur zortzi iriki zen Madrid-eko Ateneo-an euskal hizkuntza eta literatura katedra. Arratsaldeko zazpiterdian Ateneo-ko gela nagusia jendez bete zen, lehen jarlekuetan bertako zuzendari den Llorca anderearen inguruan, Marzelino Oreja, Antonio Tovar, Pedro Irizar, Azpitarte, Aranburu, Urrutia, Ríos, Olaetxea, eta abar, Euskaltzaindiko eta Real Sociedad de Amigos del País-koak, eta euskal estudiante andana bat.

Luis Villasante euskaltzainburu jauna mintzatu zen, katedra honen garrantzia zenbaterainokoa den, eta aurreratzean Madrid-en ere, lehenago Salamanca-n bezala, euskara ikasi nahi dutenek izango duten aukera eta hitzaldien bidez euskal kultura bertan irakasteko eta zabaltzeko. Oroitzapen zaharrak ere ekarri zituen gogora, Legardaren lanak lekuko, Gaztelanian aintzina izan zen euskal giroa eta zenbait erregeren (Austriak batez ere) euskaltzaitasuna edo euskaraganako begiramena eta abar. Euskaltzaindiaren sorreraz ere mintzatu zen, eta 1918an Oinatiko batzarretan errege Alfonso XIIIgarrenak esanak irakurri zituen. Azkenik, Rodolfo Bozas-Urrutia jaunaren merituk goraiatu zituen.

Bozas-Urrutia jaunaren zuzendaritzapean uzten da Ateneoko euskal katedra. Larretxe nafarra izango du euskara irakaskintzan laguntzaile.

Beraz, euskara irakaskintzak irekitzen dira, oraingoz bi mailatan, lehendik zerbait dakitenentzat eta ezer ez dakitenentzat. Eta, astelehen guzietan izango da hitzaldiren bat, batzuetan erdaraz eta urrengo euskaraz. Han ikusi zen giroagatik ondore onak espero ditugu.

Rodolfo Bozas-Urrutia jauna, Donostian jaio zen 1913an, eta haurtzaroko urteak Astigarragan igaro zituen. Baina gaztetxo zala joan zen, edo hobeto esan bere familiak eraman zuen, Uruguay-ra. Buenos Aires-en hasi zen Filosofia eta Letrak ikasten baina bat batean utzi zituen estudio hauek musika ikastaroan hartzeko. 1935-1943 piano kontzertuak eman zituen Hego-Ameriketan eta Kataluñan. Canalda eta Agirresarobekin kanta ikasketak ere egin zituen. Baina, Bozas-Urrutia jaunak, aspaldiko urteetan, bere isiltasun apalean, euskal kulturaren eman ditu bere frutu onuragarriak. Hego-Ameriketan gurasoen hizkuntza galdu zuen eta Espainiako azken gerrate ondorean, Kataluñan, euskararen ikasketari gogor heldu zion eta bai bikain ikasi ere. Euskara ikasteaz gainera, euskal kultura gaietan asko ahalegindu den itxura dute bere lanak. R.S.V. Amigos del País-en erdaraz eta "Egan"en euskaraz, lan jakingarriak argitaratu ditu.

"Egan", "Jakín" eta "Zeruko Argia" aldizkarietan argitaratu dituen lanetatik ikusten denez, idazle on baten dohainak ditu. Honegatik hartu genuen S. Basaurik eta biok *Hegatsez* izeneko hitz-lauzko antologian, "Gamelua"-ren izaera, bizitza eta ohiturak hain bikain adiarazten duen lana, eta aurten argitaratu den *Lur eta gizon, Euskal Herria* izeneko liburu pare gabea "Euskal-kirolak" agertu ditu. Baina, behar bada, egin dituen itzulpenak ez dira gutiagorako: Bocaccio, De Amicis eta Guareschi italianotik; J. Vinson, J. Verne eta George Duhamel frantsesetik; Muedra, Cuyás, E. Bozas, I. Fagoaga, Pelay Orozco eta abar gazteleratik; R. Lull katalanetik. Lan horietako batzuk oraindik argitara gabeak dira.

Egin dituen ikerketa lanak ere ez dira txantxetakoak. Nafarroako Aranoko hiztegia jaso eta "Euskera" aldizkarian argitaratu zuen aspaldi baten. Materre-en *Doktrina*-ren argitalpen ez-ezagun bat aurkitu zuen Madrid-eko Biblioteca Nacional-ean (1704an izan zuena; lehen argitalpena 1617koa bai zen). Oraintsu argitaratua du F. Amoros eta pilotari buruzko lan luze bat R.S.V. Amigos del País-ko Boletinean, eta orain Pilotaren historia nagusi bat antolatzen ari da Luis Bombin-en laguntzarekin.

Hala ere, bere lan guzietan politenetako bat izan zen euskarazko lehen nobelari buruz egin zituen lanak, J.B. Daskonagerren *Atheka*

gaitzeko oihartzunak. Eleberri honen ehun urte betetzea zala ta, argitalpen berri bat gertatu zuen, euskaraz eta erdaraz, berak itzulita, hitzaurrea, oharrak eta atzikia gaineratuta, 1970ean. Eta, ez zen hau gai berari buruz lehen aldikoz, baizik “Egan”en 1967an eta aipatutako Boletín-ean 1969an, batean euskaraz eta bestean erdaraz, Vinson-ek eleberriari frantsesez egin zion historia eta kritikaren itzulpenak.

Bozas-Urrutia jauna, ongi merezirik, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País-ko bazkidea eta Euskaltzaindiko laguntzailea dugu. Lerro hauetatik zorionak opa dizkiogu!

El pasado lunes, ante numeroso auditorio el R.P. Luis Villasante en su calidad de presidente de la Academia de la Lengua Vasca, hizo el discurso de apertura de la cátedra de lengua y literatura vasca en el Ateneo madrileño. Acudieron al acto, además de un nutrido grupo de estudiantes, personalidades del Ateneo con su directora la ilustrísima Sra. Llorca, miembros de la Real Sociedad de los Amigos del País y de la Academia de la Lengua Vasca.

El Sr. Villasante ensalzó la importante misión del Ateneo en el campo de las lenguas peninsulares. Recordó el cariño mostrado al euskara por algunos monarcas y poetas de Castilla.

Seguidamente hizo resaltar la personalidad de R. Bozas-Urrutia, como literato y como investigador, con citas de sus trabajos en diversas publicaciones, principalmente en el Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, en castellano, y en “Egan”, en euskara. Destacó, entre sus trabajos, la preparación de la reedición de la primera novela en vascuence, *Atheka gaitzeko oihartzunak* (Los ecos del País de Roldán), en 1970, con motivo del centenario de la primera edición de la misma. Reimpresión con traducción al castellano, revisión cotejada con la edición príncipe, a la que además de traducción le hizo un prólogo, notas, léxico y estudio como apéndice.

Como colofón, recordó algunas frases de Menéndez Pidal a favor de los estudios eúskaros, para terminar con una poesía de Lizardi por un vascuence culto y eterno.

1974-X-14.

ERRONKARIKO AZKEN EUSKALDUNA

Antzerako tituluz idatzi zuen L. Mitxelenak bere lantxo bat Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País delako elkartearen Boletinean, 1953an. Orduan oraindik larogetaka urteetako zenbait agure zahar bizi baziren ere, egia esan, hiltzat eman zezakean Erronkariko azken euskalduna, zeren gelditzen ziren guti haiek, beren adinagatik eta inondikako erremedio laguntzarik gabe, hil zoriak jota zeuden.

Behar bada, oraindik orain, bazterren batean zenbait euskara dakien bat bizi daitake, baina ez hango "uskáran" elkarrizketa normal bat eramateko gauza denik.

Argitara berri da Nafarroako Foru Diputazioaren "Principe de Viana" Mintegiaren "Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra" delakoaren 22garren zenbakian Erronkariko euskal kanteri buruz egin nuen lan bat, eta lan hau inprimategian zelarik, aurtengo apirilaren 30ean hil zen Iزابako herrian Antonia Anaut Garde, Katalin-Garde etxeko alaba. Duela hamalau urte, kanta bilketan ibili nintzanean, Antonia izan zen Isaban aurkitu nuen euskaldunik gazteena; memoriaz oso argia, ordurako zerbait gortua bazen ere. Nere lan hortan maiz aipatzen dut bere izena eta bere argazki bat ere ematen dut. Orain esan genezake berakin joan zaigula erronkariarren "uskára" berezia.

Erronkariko "uskára", L.I. Bonaparte printzearentzat Zuberoako euskalkiaren mota berezi bat zen, baina Azkuek egin zituen bilketa eta ikerketen ondorean (ikus, "Euskera", XII [1931], 207-406 orr.) euskal hizkuntzaren bederatzigarren euskalki edo dialektotzat jo da. Hala ere, Erronkariko "uskárák" bere seniderik hurbilena Zuberoakoa zuen, ifarraldeko herri haiekin har-emanetan gehien laguntzen zion hizkuntza eta elkarrekilako folklorean sakon errotua, nere lan hortan aditzera ematen dudanez.

Nafarroa eta bereziki Nafarroako agintariek ohartu ote dira galera hontaz? Herri atzeratuena da hizkuntza natural batek bere erresuman ofizialtasunik ez izatea. Gu, hola beharturik gaude, Estadu batean politikazko eskubiderik ez dugunez, menpetasunak eraginik; baina Nafarroako foruen bidez dituen eskubideekin noiz arte iraunen du egoera honetan? Noiz arte "Lingua Navarrorum" ofizialtasunik gabe? Nafar euskaldunak, noizko eskola euskaldunak? Zertarako dira nortasuna gordetzen laguntzen ez duten foruak?

Nafarroan sortu zen euskara idatziaren eta inprimatuaren lehen mugimendua, Pizkunde garai hartan, Europako herri asko latinetik aparteko hizkuntzak inprimatzen hasi ziren garaian. Erregetzarekin bere



Katalin-Gardeko Antonia. (Erronkari. Nafarroa).

buruaren jabe zenean hartu zuen bidea, foru eskubideekin ez jarraitze-aren erruduna, nor?

Badira esaten dutenak, hizkuntza naturala etxean gorde behar dela. Dago? Bego! Berezkotasunean utzirik. Baina gainerako hizkuntzekin zergatiz ez? Euskarak ere, besteak bezala, egungo munduan biziko bada, eskolak, kazetak, irriatiak, telebista, eta gainerako guziak beharrezkoak ditu. Hau ukatzea, arnasa ukatzea litzake; eta, arnasa ukatzea, heriotza da. J.M. Sánchez Carrión-ek nahikoa argi utzi zuen arazo hau bere “El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)” delako estudioan. Mingarria zaigu herri hizkuntzak bere gisara hor bertan behera utziaz ikustea, mingarria zaigun bezala herria eta agintaritza daramatenen artean hesiak jartzea. Gobernariak herriaren zerbitsuko behar du.

Lau mende igaro ondorean ere, Etxeparekin esan beharrez gaude: “Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruya”. Edo Belzuntzeko kantaren galde ber bera egin behar ahal dugu?; jakin dezagun, “Nafartarren arraza, hila ala lo datza?” (Larregey, 1764). Dena dela, iratzar bedi. Nafarroa iratzartzean libreago eta, nork daki, euskaldunago gindezke. Euskal probintziok bere babesean agertu ginen historiara, eta Euskal Herria egiazki maite dugunok beregan jarria dugu gure fede gutzia. Behar bada honegatik berezi nahi gaituzte gure herriaren etsaiak.

Antonia Anaut Garde anderearekin joan zaizu Erronkariko mintzaira. Nor da hobiratze honen errudun? Guziok, noski. Baina batez ere beren kargu eta erresponsabilitateak eskuetan zituztenak, behar zen garaian erremediorik jarri ez zutelako. Galdu dugun euskalki honen sinbolu bat bezala geldituko zaigu Antonia Anaut. Azkenengoa izatea nahiko genuke. Honetarako kargudunak, gobernariak jarri behar dituzte behar diren erremedioak. Holako gertakariak ez bait dira herriaren alderako eta bai herriaren kontrako.

Herri hizkuntza baztertzeari buruz, kantak biltzeaz batera egin nituen galderen erantzunak honelakoak ziren: Antonia Anaut Garde hil berriarentzat, herriko aberats familiak despresiatu utziaz joan ziren, eta arrazoi honegatik, bera familia pobreetakoa zenez, herriko euskaldunik gazteena zen. Gogol-engandik Dostoyevski-ra bitartean Rusia-ko handikiak frantsesa erabiltzeaz zuten moda datorkigu burura, hango literaturak nabari duenez. Pedanteriatik snob-erako bideak eraman dituzte jakitun itxurazko handikiak, eta batez ere aberats berriak, plebetik urrundu nahirik. Honegatik izan dira beti plebetikako plebiszi-toaren beldurrez.

Baina, bestelako iritxirik ere jaso genuen gure azterketa hartan. Aberatsak euskara baztertzearen arrazoiak, hala dira. Erronkarira gabe,

hemen bertan Gipuzkoan ere ezagutu dugu halakorik. Antoniaren iritziari Esandiko Ubaldo Hualde zenak esan ziguna gaineratzen badiogu, errazago konprenituko dugu herri hizkuntzaren galera. Ubaldok zionez, Estaduak bere zentralismoaren politika bidez eraman zuen «uskára»ren galera, eskoletan ez ezik eskolatik kanpora ere maisuak erdaraz egitera beharturik; horrez gainera, ofialtazunak baztertuak eta despresiatuak eduki izan ditu gaztelera ez diren hizkuntza guziek.

Bi iritziak bidezkoak eta baliozkoak dira, gaur bertan oraindik Euskal Herri osoan berdintsu gertatzen bait da. Hoiek ere hor daude lekukotasunez, Ubaldo Hualde Uztarroten sortua zen eta Izaban hila 96 urtekin, 1967an, eta orain, azken euskalduna, Antonia Anaut Garde, 88 urtekin.

Erronkari, «uskára» galtzeaz, mugazandiko Zuberoagandik kasik har-emanetarako etenda gelditu zen, inguru guziarekin jatorrizko loturak etenda. Hori guti balitz, arbasoegandik zekarkiten ahozko kulturaz ere urrituak. Beraz, nork irabazi du galera honetik? Gehien galdu dutenak, dudarik gabe, erronkariarrak.

Saraitzuk martxa bera daroa. Nork salba lezakean badakigu. Ezer egingo ote da Nafarroako hizkuntza zaharrak daroan gainbehera geldiarazteko?

Ha fallecido la última persona vasco-parlante del valle del Roncal (Navarra). Cuando se hallaba imprimiendo mi trabajo «Fragmentos de canciones del «uskára» roncalés» que acaba de publicar la Institución Príncipe de Viana en su Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra (número 22), me llegó la noticia del fallecimiento de Antonia Anaut Garde (e.p.d.) de Isaba, acaecida el 30 de abril, a la edad de 88 años. Antonia era la interlocutora más joven de aquel grupo de ancianos cuando inicié la aludida recopilación hace ahora catorce años. Con ella ha quedado extinguido el testimonio vivo de aquella variedad dialectal del euskera que el príncipe L.L. Bonaparte calificó como una variante del suletino y que Azkue, con sus investigaciones ulteriores, elevó al rango de dialecto separado, si bien muy próximo al suletino. Esta pérdida en sí, supone la pérdida del noveno dialecto del idioma vasco. Pero para Navarra quizá algo más. Una pérdida que no tiene justificación en la Europa del siglo XX, y aún menos en una provincia que se vale de un sistema foral, pues debieran de haberse preocupado en el mantenimiento de su patrimonio cultural. Y lo que más se teme aún es, que de no poner remedio urgente otras partes de Navarra correrán la misma suerte.

A estas alturas nadie duda de que necesitamos de un idioma de mayor amplitud y que éste puede ser el castellano; pero lo que no se puede permitir es, que no se aplique de una vez para siempre la normativa recomendada por la Unesco sobre el uso de las lenguas vernáculas en la enseñanza (1953).

De por sí es antipopular el no ayudar a la supervivencia de la lengua de un pueblo, el no prestar los medios necesarios para su vida y su desarrollo. Y ante la regresión de la lengua vasca en Navarra, una vez más me identificaré con las manifestaciones de Sánchez Carrión, porque "es un hecho demasiado doloroso para los navarros en general y para los vascólogos en particular y en los últimos años parece haberse seguido respecto a él una táctica más bien negativa: ignorarlo".

Pero lejos de ignorarlo hemos de contribuir todos en su restauración, pero muy particularmente las autoridades en cuyas manos se deposita la facultad de hacer viables las soluciones, para detener esta dolorosa e irreparable pérdida, y hasta en fortalecerlo de cara al futuro. Sólo de esta manera se obrará para que el vascuence no sea manejado por algunos sectores políticos, y que en justicia se devuelva al pueblo lo que es de su propio patrimonio cultural.

1976-VIII-30

ERKOLESKO OIHARTZUNA

Ekainaren seian, igande arratsaldez, uste gabeko euskal jai eder baten aurkitu nintzen Zornotzako Erkoles deritzan zelai landa batean, Ibaizabalen hegalean. Kantari eta bertsolariak lau ohol soilen gainetik jardun ziren belartza jarlekutzat zuten publikoaren aurrean. Egualdiaren ederra, jendetzaren giroa, zerua sabai zela, naturazko ikuspegi eder hartan ametsezko jaialdia zirudin.

Hango giroak, artista eta jendetzaren gogoak erromantikotasunez kutsatutako eztitasuna nabari zuen. Maiz esana dut, gure herria, bere garaian ase gabe utzi zuen erromantikotasunez bizi dela. Europako herri askok beren jabetasuna hartu zuten erromantiko garai hartan, joan zen mendearen erdi aldean, baina gure tipi izateagatik karlisten gerrateetan galdu genituen gure jabetasunezko foruak, gure independentzia, eta geroztik hemen gañiltza ase ez zuen gogoaren bila. Hau nabari zen Erkolesen ere, bai kantari, bai bertsolari eta baita haurrak egin zituzten agerpenetan ere.

Chao-ren gogo (1811-1858) eta berdin Iparraguirrerena (1820-1881) erne dugu oraindik ere; lehenengoaren ideiak eta bigarrenaren kantak irauten dute, zutik, iratzarpen berri bati begira.

Mugazandiko poetak, joan zen mendearen azkenaldera, Iparagirren hildotik jarraitu zuten eta hauetakoren baten kanta entzun genuen Erkolesen Joseba Etxebarria larrabetzuarraren ahotik:

*Zazpi Euskal-Herriek
bat egin dezagun,
guziek beti-beti
gauden gu euskaldun.*

*Agur eta ohore
Euskal-Herriari:
Lapurdi, Baxenabar,
Zubero gainari;
Bizkai, Nafar, Gipuzko
eta Arabari.
Zazpiak bat besarka
lot bitez elgarri.*

*Haritz eder bat bada
gure mendietan,
zazpi adarrez dena
zabaltzen airetan
Frantsia, Espainia,
bialderdietan:
hemen hiru ta han lau,
bat da zazpian.*

Herria gogotik ohartzeko zen Grazian Adema "Zaldubi" kalonjearen (1828-1907) poema honek duen mezua eta oihartzunez. Zorioneko herria ogia eta futbolakin bakarrik konformatzen ez dena, zorionekoa bere izate gogoaz oroitzen dena eta bere herriko poetek zabaldu zuten mezua gogoz hartzen duena. Baina, txalogarria poetaren mezua herriari aurrez-aurre adiarazten jakin duen kantaria.

Lehen aldiz entzuten nuen Joseba Etxebarria. Beste laguntzaile bat ere bazuen, biak gitarrak horniturik eta noizbehinka lagunak ere kantatuz. Kantari gaztetxo honegandik etorkizun ona espero genezake.

Zenbait haurrek antzirudiak agertu zituzten. Gauza asko politikak ziren, baina beste asko ez hainbeste. Nagusiak, zaharrak, haurren

munduaz mintzatzeko erak baditu, baina haurrak nagusientzako eran mintzatzea ezta itxura. Beren mundukoa ez dena antzirudi faltuz agertzen da, eta holako zerbait ikusi genuen beren agerpenetan. Honekin ez dut esan nahi dena txarra zenik.

Abel Muniategi izan zen artisten aurkesle, eta bertsolariari jarri zizkien gaiak biziak eta politikak izan ziren, eta hauek, bertsolariak, ongi erantzun zute: X. Amuriza, Lopategi, Azpillaga eta Lazkao-txiki, zein baino zein hobeto portatu ziren. Amuriza, aspaldiko urtetan entzun gabea, behar bada guzien gaineratik agertu zen, bai humorezko gaietan eta bai serioetan, oso goian dagoen herri poeta baten erara.

Oskarbi taldeak beren abotzezko dohainak agertu zituzten. Behar bada repertorio zaharregiaz ari dira. Kantagintzan, —gintza aldetik paregabeak dira, baina arteak nolabaiteko sortzea ere eskatzen du, kantak eta erak berritu beharrez.

J. Etxebarriak, ongi daki lehengotik gaurkoari zerbait esango diona hautatzen, baina baita ere poeta berriegandikakoa adiarazten ere. Zaldubiren gogo asekaiza oraingoetan ere aurkitzen bait da, eta hauen arteko dugu B. Gandiaga ere. “Hiru gizon bakarka” liburuaren 96. orrialdean agertzen den poema polit hura kantatu zigun. Gure artean, euskara baseritik salbatzez hitz gehiegi egin da kalean bizi direnen partetik, baserriak eurak salbatzeko bizi-bide beharrak erakutsi gabe. Ongi da euskara baserrian, baina egungo egoeraz, euskara salbatuko bada kalea konkistaturik izango da, eta honen hotsa, beharkizun honen oihartzuna, Gandiagak dakarkigu “Ibarrera” deiaz eginikako poema honetan:

*Ibarrera,
ibarrera!
Ujolak sortu dira
ta uherka ez da gauza
hainbat urentzako!*

*Ibarrera,
ibarrera!
Guztiok behar dugu
ibarrera jetxi
urak bideratzera.*

*Ibarrera,
ibarrera!
Urak bolada gaitzez*

*zabalduak dira
ibarra azpian dutela*

*Espainia irauli da
Kantauri aldera.
Mesetako urak,
Andaluziakoak,
Espaina guztikoak
sartu dira ujolez
euskal ibarrera.*

*Ibarrera,
azkar ibarrera,
denak ibarrera:
itotzen ari bait da
euskaldun arima.*

*Ibarrera,
ibarrera!
Diputazioan
dragak behar dira,
Patrizio-en makinak,
Orbegozo-enak,
Estatuarenak,
eta, baina,
azkar,
azkar denok,
azkar ibarrera!*

Zer arratsalde alai eta atsegina igaro genuen, eta kanta hau, nik neuk baino gogotsuago sentitzen zuen nere emazte Mesetakoak, eta beragandiko gure bi mutikoak ez zeuden handik aldetzeko jaialdi guzia bukatu arte.

Holako jaialdiak, xinpletasunean hain sakonak direnak, ugaritu behar genituzke.

El día 6 de los corrientes asistí a un festival campestre, con actuación de cantantes modernos y bersolaris, en el lugar de Ercoles en Amorebieta

(Vizcaya). Conjugaban un extraordinario marco de ambiente romántico el paisaje y paisanaje en aquella bonita campa a orillas del Ibaizabal.

Nuestro pueblo vive con nostalgia el período romántico de su propia soberanía fundada en los Fueros, que perdió en las guerras carlistas. Tal pérdida supuso tanto que aún sufrimos las consecuencias políticas derivadas desde aquella alteración institucional. Y que, desde Iparraguirre, los poetas han venido cantando sin cesar, penetrando sensiblemente en las fibras sentimentales del pueblo.

Tanto el escenario como las actuaciones de Erkoles fueron muy acertadas, y nos hicieron vivir una emocionante jornada.

Lo que más me llamó la atención fueron las interpretaciones del joven cantante Joseba Echevarría, con un repertorio muy selecto. Interpretó entre otros a los poetas Zaldubi y Gandiaga con extraordinario éxito.

Por la sencillez del montaje, son de los festivales que se deberían fomentar en el país.

1976-VI-14